

«Beste mundu bat nahi genuen»

Nafarroako ezker iraultzailea, 1970-1979

Imanol Satrustegi Andres

upna

Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Nafarroako Unibertsitate Publikoa
2020ko azaroa

Zuzendaria: Emilio Majuelo Gil



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza batek finantzatutako ikerketa

Hitz gakoak: *Ezker iraultzailea. Trantsizioa. Nafarroa.*

Laburpena: Esparru estataleko ezker iraultzailea Nafarroako oposizio antifrankistaren indar politiko nagusia izan zen, eta, gainera, diktaduraren hondar urteetako mobilizazioetan protagonismo nabarmena izan zuen, batik bat, langile mugimenduan. Alabaina, itxaropen baikorrak sortu baziren ere, esperientziak denbora gutxian porrot egin zuen. Trantsizioan zehar, ezker erradikaleko alderdiak gainbeheran sartu ziren eta Herri Batasuna (HB) koalizioaren inguruan antolatutako mugimendu abertzaleak hartu zuen gizarte mugimenduen gidaritzia.

Palabras clave: *Izquierda revolucionaria. Transición. Navarra.*

RESUMEN: La izquierda revolucionaria de ámbito estatal fue la principal fuerza de la oposición al franquismo en Navarra y en las movilizaciones de los últimos años de la dictadura tuvo un destacable protagonismo, sobre todo en el movimiento obrero. Pero pese a que se crearon grandes expectativas, aquella experiencia fracasó al poco tiempo. Durante la Transición, los partidos de la izquierda revolucionaria entraron en crisis y el movimiento nacionalista vasco articulado en torno a la coalición Herri Batasuna (HB) tomó el liderazgo de los movimientos sociales.

Key Words: *Far-left politics. Transition to democracy. Navarre.*

ABSTRACT: The far-left parties were the main political force of the opposition in Navarra during the last years of Franco's dictatorship: they have a large amount of followers and they lead the mobilizations of the workforce. However, in spite of the evident importance they had, soon after they experienced a «militancy crisis» and lost a considerable amount of supporters. During the Transition to democracy, it was *Herri Batasuna* (HB) (a Basque nationalist movement) who took the leadership of the social movements.

Aurkibidea

1. Sarrera.....	5
Pizgarri pertsonalak.....	5
Zergatik ikertu ezker iraultzailea?.....	6
Ikerketaren helburuak.....	7
2. Zenbait aspektu zientifiko.....	10
2.1. Ikergaiaren definizioa.....	10
2.2. Marko Kronologikoa.....	18
2.3. Ikergaiaren egoera.....	18
1970eko hamarkadako bildumak.....	21
90eko hamarkadako obra klasikoak.....	23
Post-15M Loraldia.....	26
Nafarroako eta Euskal Herriko bibliografia.....	35
2.4. Erabilitako iturriak.....	39
3. Txapel Gorritik Liburu Gorrira.....	49
3.1. Aurrebaldintza sozioekonomikoa: Desarrollismoa eta langile klase berria.....	49
Autarkia eta Erregimen frankistaren izaera matxista eta misoginoa.....	50
Ekonomiaren lurrutztea.....	54
Industria Iraultza Nafarroan.....	56
Subjektu berri bat.....	61
3.2. Nazioarteko testuingurua. 68 Luzea edo Bigarren Oldarraldi Proletarioa.....	62
3.3. Txinparta iraultzailearen ernalketa.....	73
Ikasle Mugimendua.....	74
ETAren zatiketa espainolistak.....	79
Kristautasuna eta langileak.....	80
Apostolutza sekularreko elkarteak: klasea berreraikitze esparruak.....	82
Iruñeko apaiztegia.....	86
Parrokietako apez gorriak: ezinbesteko azpiegitura sarea.....	88
3.4. Ondorioak.....	89
4. Mugimendu erradikalak martxan.....	95
4.1 Talde Politikoak.....	97
Organización Revolucionaria de Trabajadores.....	97
AST: sindikalismo kristautik marxismora.....	97
ASTtik ORTrako jauzia.....	99
Kideak.....	101
Euskadiko Mugimendu Komunista.....	103
ETA Berritik MCEra.....	103
Ideologia eta ildo politikoak.....	106
EMK Nafarroan: ezarpena eta kideak.....	108
Partido del Trabajo de España.....	110
Sorrera eta garapena: Zatiketa ultraezkertiarretik politika unitariora.....	110
Kideak eta errotzea Nafarroan.....	113
IV. Internazionalako alderdiak: LCR, LC eta ETA VI.....	115
Jatorria.....	116
Zatiketak eta Batasunak.....	118
Nafarroako ezarpena.....	121

PCEml eta FRAP.....	123
Kideak eta ezarpena Nafarroan.....	126
Organización de Izquierda Comunista-Ezker Komunista Erakundea.....	128
Bestelako erradikalizazio prozesu batzuk.....	130
4.2. Lilura iraultzailea.....	132
5. Bi elementu giltzarri: estrategia iraultzailea eta nazio auzia.....	139
5.1. Estrategia Iraultzailea: Iraultza, Haustura eta Erreforma.....	139
Estrategia iraultzailearen garrantzia.....	139
Korronte ideologiko nagusiak.....	141
Zer etapa dagokio Espainiako iraultzari?.....	149
ADNren inguruko polemika.....	161
Korronte ezkertiarren ezberdintasunak: PCE, maoistak eta ezker abertzalea.....	163
Haustura ala Erreforma.....	168
Ondorioak.....	176
5.2. Nazio auzia.....	179
Euskaltzaletasun antifrankista.....	180
Esparru estataleko eta ezker abertzaleko alderdien arteko ezberdintasunak.....	193
Ondorioak: Olatu euskaltzalearen gailurra eta gainbehera.....	205
6. Ezker iraultzailearen krisia eta gainbehera.....	208
6.1. Ziklo historikoaren bukaera: espektatiba iraultzaileen desagerpena eta Hitzarmen Soziala	208
Hitzarmen Soziala Espainian.....	212
Euskal dibergentzia.....	216
Hauteskundeak.....	218
6.2. Gizarte mugimenduen mutazioa eta lekuko aldaketa.....	226
Talka sozial berriak.....	227
Lekuko aldaketa.....	233
Konstituzioa eta 1979ko hauteskundeak. Garai berri baten konfirmazioa.....	239
6.3. Ezker iraultzailearen gainbehera 1977-80.....	251
6.4. Ondorioak.....	271
7. Ondorioak.....	274
8. Iturriak.....	286
8.1. Bibliografia.....	286
8.2. Artxiboak eta dokumentazio funtsak.....	307
8.3. Webguneak.....	307
8.4. Ahozko iturriak.....	308
8.5. Hemeroteka.....	309
9. Eranskinak.....	310
9.1. Alderdi iraultzaileen ardatz kronologikoak.....	310
9.2 Koadro, taula eta grafikoen aurkibidea.....	320
10. Siglen Glosarioa.....	321

1. Sarrera

Pizgarri pertsonalak

Ikerketa historiko gehienek pizgarri pertsonalen bat izaten dute atzean. Nire kasuan, esaterako, historia sozialak beti asko erakarri izan nau; jende zapalduaren, gatazka sozialen eta emantzipazioa edo askapena bilatzen duten mugimenduen nondik norakoak beti kitzikagarri suertatu zaizkit. Gainera, frankismoaren hondar urteetako mobilizazioek eta Trantsizioa interesgarriak egiten zitzaizkidan, egun indarrean dagoen sistema politikoaren sorburu izan zirelako. Diktaduraren ilunabarrean, oposizio ezkertiarrek bestelako etorkizun batekin amestu zuen, gizarte gatazkak larriagotu eta ugaritu ziren eta zenbait momentutan frankismoaren eraispen iraultzailea gerta zitekeela zirudien. Garai hartan militante izandako emakume batek oso modu argian azaldu zidan: «Beste mundu bat nahi genuen!». Historia hurbilean aldaketa sozial aurrerakoi eta iraultzaileak egoteko egin zen azken saiakera izan zen; gaur egunera arte behinik behin.

Garai hartan alderdi ezkertiarrek oso baikor ziren arren, espero zuten aldaketa hura ez zen gertatu. Ezker iraultzailearen proiektua bere gorenera Trantsizioaren bezperan ailegatu zen, baina aldaketa politikoaren prozesuan zehar elite agintariak egoeraren kontrola ez galtzeko eta haustura iraultzailerik ez gertatzeko eginahal handiak egin zituzten. Hala ere, ezkerreko alderdi iraultzaileek beren helburu handia lortu ez zuten arren, maila apalagoko lorpen aberats eta baliotsu ugari erdietsi zituzten. Besteak beste, diktadura frankista gorrotagarri hura higitzen ekarpen ordainezina egin zuten, eta inoiz Erregimenak bere burua erreformatzera (hau da, Mendebaldeko demokrazia homologari baten itxura hartzera) beharturik ikusi bazuen, oposizioaren presio sozialari esker izan zen. Baina ez hori bakarrik, 2008ko krisira arte ukaezintzat geneuzkan eskubide sozial ugari urte horietan gertatutako mobilizazioei eta garaipenei esker izan ziren.

Esan bezala, nire barrenean ezker iraultzailearen inguruko ikerketa grina piztu zen, baina liburuetara hurbildu nintzenean, oso hurbileko iragana izan arren, informazio osatugabea, zatitua eta kontraesankorra iristen zitzaidan. Besteak beste, oso izen potolo eta borobila zeukan alderdi desagertu eta ezezagun batek (Organizacion Revolucionaria de Trabajadores) langile mugimenduaren nagusigoa izana zuela esaten zen, baina liburu eta irakurgaietan haren arrastoa oso ahula eta zatitua zen. Halaber, urtero-urtero German Rodriguezen erailketaren urteurrenara joaten nintzenean ez nuen ulertzen zergatik oihukatzen ziren presoen aldeko aldarriak, German bera ezker abertzalekoa baino LKIkiko militante troskista eta espainolista baldin bazen (hala uste nuen nik,

behintzat). Ezker erradikalaren iragana hurbila zen, aktoreak ez zeuden urrun; baina ez nintzen ikusteko gai, tresnak falta nituelako.

Hein handi batean, ezker iraultzailearen historia ezagutzeko nituen zailtasunak *Euskal Gatazkak* gure iragan hurbilean daukan itzal handiaren ondorio ziren. Trantsizioaz geroztik gatazka sozialek gure artean jarraitu zuten, eta duela gutxira arte, gizarteak indarkeria gertakari larriak bizi izan ditu. *Euskal Gatazkaren* erroak Trantsizio garaiko urteetan daude eta haren garrantziak eta larritasunak gainerako korrante iraultzaileak estaltzen zituen: *Euskal Gatazkak* dena irentsi izan balu bezala, bibliografia orokorrean ezker abertzalea frankismoari aurre egin zion mugimendu politiko bakarra izan balitz agertzen da, eta historia liburu batzuetan eta prentsa dibulгатiboan gainerako korrante iraultzaileen garrantzia ezkutatu egiten da. Bestela esanda, hutsune historiografiko nabarmena zegoen.

Ezker iraultzailearen garrantzia azpimarragarria zela atzemateak, baina aldi berean, gaiaren inguruko informazio osatugabea izateak doktore tesi hau egitera bultzatu ninduen. Halaber, *erradikal* edo *muturreko* hitzek daukaten konnotazio bereziek, halaber, modu erromantikoan erakartzen ninduten ikergaira.

Oro har, esparru estataleko ezker iraultzailea ia desagertu zen sektore politikoa denez, bai historiografian baita memoria kolektiboan ere bere arrastoa urria da. Tesi honekin ahanzturari aurre egitea eta belaunaldien arteko hutsunea gainditzea lortuko banu, pixkatxo bat baino ez bada ere, nahikotzat joko nuke eta asebeteko nintzateke. Edonola ere, uste dut iraganeko kultura errebeldeen ezagutza egungo gizarte mugimenduentzako balagarria izan daitekeela. Baina ez nazazue gaizki uler. Helburua ez da garai hartako langile kultura eta estetika akritikoki kopiatzea, hori folklore hutsa bailitzateke. Momentu hartako baliabideek, garaian garaiko beharrei erantzuten baitzieten, eta gaur egungo gizarte mugimenduek bestelako baliabideak, garai honi dagozkionak, behar dituzte. Baina baliabide propio berriak sortzeko, langile mugimenduaren eta mugimendu sozialen iragana berreskuratzea aberasgarria izan daitekeela uste dut.

Zergatik ikertu ezker iraultzailea?

Nafarroako Trantsizioak oso ezaugarri bereziak izan zituen. Alde batetik, esan bezala, oposizioko indar aktiboek mugimendu ezkertiar iraultzaileak zirelako. Ezohiko egoera berezi horrek, Estatuko beste tokietan ez bezala, Erregimen konstituzional berriaren inguruko kontsentsu giroa ahulagoa sortu zuen, eta ondorioz, Erreformak zailtasun nabariak izan zituen Nafarroan arrakastaz ezartzeko. Bestetik, bi errelatu nazional kontrajarririk talka egin zuten; batak Nafarroa

Garaia Euskal Herriaren parte zen lurraldetzat hartu zuen, besteak aldiz, Espainiaren parte zen lurralde bereizi modura.

Esan bezala, esparru estataleko ezker iraultzaileak berebiziko garrantzia izan zuen Hego Euskal Herrian, Espainiar estatuko mailan hor izan baitzuen ezker erradikalak presentzia handien. Oposizio antifrankistaren eta langile mugimenduaren jaun eta jabe izan ziren, Espainiako beste toki batzuetan gertatu ez zen bezala. Frankismoaren azkeneko urteetan diktadura eraisteko beharrezkoak izan ziren mobilizazioetan presio ahalmen handia izan zuten eta haien ekarpena erabakigarria izan zen. Horrexegatik da horren ikergai interesgarria Nafarroako ezker iraultzailearen ikerketa, bere sustraitze sakonaren berezitasunak eta arrazoiak jakitea interesgarria baita.

Ikerketa abiatzerakoan, hasierako intentzioa esparru estataleko ezker iraultzailean zentratzea izan zen, eta «euskal gatazka» eta ezker abertzalea alde batera uztea, gauza erabat desberdinak zirelakoan. Gai arantzatsu eta labainkorrak izategatik zuhurtziaz jokatzearabaki zen. Alabaina, tesiak aurrera egin ahala, bi gaien arteko lotura estua agerian geratu da eta ezker iraultzailea inguruko ikerketak egitean nahitaez euskal gatazkaren inguruko zenbait galdera planteatu behar izan dira. Hala nola, zergatik ez zuen Erregimen Monarkiko eta parlamentario berriak horrenbesteko onarpena lortu? Zergatik pentsatu zuen euskal gizartearen parte batek Erregimenaren berriaren aurka ere borrokatzea zilegi zela, Europa mendebaldeko demokrazia liberalaren parekoa zen arren? Trantsizioaren ostean zergatik ez zen egoera normalizatu? Zergatik luzatu zen sufrimendua? Azkeneko 60 urteetan Nafarroak indarkeria bizi eta sufritu izan du eta behin giroa baketu delarik, historiografiak iragandako garai horri erantzunak eman beharko dizkio, baina hausnarketarako patxada hartu behar da eta gertakari historikoak kritikotasunez aztertu.

Ikerketaren helburuak

Tesi honek ezker iraultzailea osatzen zuten alderdien osotasuna dauka ikergai eta ikergai horren inguruan hiru auzi nagusi argitzea ditu helburu. Hasteko, ezker iraultzailea Nafarroako oposizio antifrankistako, batik bat langile mugimenduko, sektore politiko aktiboena eta dinamikoen izan zen. Oposizio antifrankistan zeukan nagusitasun hori erabat ezohikoa zen Espainiako lurralde gehienetan Santiago Carrilloren PCE (Partido Comunista de España, Espainiako Alderdi Komunista) baitzen antifrankismoko indar nagusia. Baina ez hori bakarrik, gainera, espero gabeko gertaera izan zen XX. mende hasieran Nafarroa lurralde atzerakoitzat hartzen baitzen, eta ez da ahaztu behar 1936ko estatu kolpean Bando Nazionalaren aldekoek lurraldea berehala eta erraztasun handiz kontrolatu zutela. Honako hau da argitu beharreko lehendabiziko galdera; Nola da posible Nafarroa bezalako lurralde batean diktaduren azken hamarkadan ezkertiar erradikalarentzako

erreferente bilakatzea? Edo bestela esanda: Zergatik izan zuen ezker iraultzaileak oposizio antifrankistaren nagusigoa?

Bigarrenik, Trantsizioan zehar Nafarroan giro soziala oso gatazkatsua izan zen, eta Monarkia parlamentarioan oinarritutako Erregimen berriari oso zaila egin zitzaion ezartzea. Aitzitik, Espainian egoera pixkanaka normalizatzen ari zen bitartean, Hego Euskal Herrian egoerak ezegonkorra izaten jarraitu zuen. Beraz, hau da tesi honetan aztertuko dugun beste auzietako bat: Zer dela eta izan zituen Nafarroan ezartzeko hainbeste zailtasun Erreforma post-frankistak? Zergatik ez zuen lortu Monarkia parlamentarioaren Erregimenak behar besteko babes sozialik? Galdera horri erantzuteko, askok indarkeria politikoari eta ETAREN jardun armatuari leporatu izan diote Erregimen berriak ezartzeko izan zituen zailtasunak. Baina, nahiz eta faktore horrek eragin erabakigarria izan zuen, erantzukizun guztia ETAREN jardun armatuari leporatzea azalpen sinpleegia litzatekeelakoan gaude, eta beraz, horren atzean leudeken azalpen konplexuagoak bilatzea litzakete beste helburuetako bat.

Bukatzeko, 70eko hamarkadaren bukaeran ezker iraultzailea krisi sakon batean murgildu zela erreparatu dugu, hainbeste alderdietako batzuk desagertu ere egin zirela. Aldi berean, aurreko urteetan ezker abertzaleak oposizio antifrankistan presentzia erreal askoz urriagoa izan arren, Trantsizioan gizarte mugimenduen lidergoa eskuratu zuen eta hurrengo hauteskundeetan emaitza elektoral onak lortu zituen. Horregatik, esparru estatalako ezker iraultzailearen eta ezker abertzalearen arteko oinarri sozialen arteko *trasbasea* edo lekuko aldaketa gertatu zelako susmoa dugu. Ondorioz, lan honen azken helburua oinarria sozial horien balizko trukaketa hori, eta bere arrazoiak, aztertzea eta frogatzea litzateke.

Horrelako kasuetan ohikoa izaten den bezala, ez dut pasatzen utzi nahi lan honetan ekarpena egin edo laguntza eman duten guztiei eskerrak emateko aukera. Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkiot Nafarroako Gobernuaren hezkuntza departamentuari, ikerketa hau bere diru-laguntzari esker izan delako posible.

Halaber, Ricard Martinez i Muntada eta Joel Sans Molas historialariei ezker iraultzailearen munduan lehendabiziko urratsak ematen lagundu zidatelako. Gainera, biek irakurketa eta dokumentazio original ugari utzi zizkidaten. Tuterako Iñigo Perez Otxoak, bestalde, ezinbesteko ekarpena egin dut tesi honetan. Hainbat eta hainbat dokumentu original utzi dizkit, kontaktuak egiten lagundu dit eta berarekin partekatutako ideiek tesia aberastu dute. Berak utzitako dokumentuek pisu handia dute lan honetan. Gainera, bien arteko elkarlanaren emaitzaren ondorioz, aurki artikulu bat kaleratuko da. Beraz, mila esker berari ere.

Batzarreko lagunei ere eskerrak eman nahi dizkiet; batik bat, Iñigo Rudiri eta Jesus Urrari, haien egoitzako sotoko giltza konfiantza osoz utzi zidatelako. Haiei esker milaka ordu pasa ahal izan ditut dokumentu zaharretan informazioa bilatzen.

David Behorlegiri ere bai, berak egindako elkarrizketak utzi zizkidalako eta berarekin izandako eztabaida eta solasaldiak oso iradokitzaileak izan direlako. Halaber, prozesuan zehar hainbat kongresu eta topaketetan parte hartzeko aukera izan dut. Horietan edukitako eztabaida eta elkarrizketek ere tesia aberastu dute. Beraz, eskerrak eman dizkiet Josu Santamarinari, Jon Martinez Larreari, Gorka Etxebarria Dueñasi, Adrian Almeidari, Miguel Garcia Lermari, Victor Apariciori, Pau Casanellasi, Javier Fernandez Rinconi eta beste askori. Ziur nago baten bat ahaztu dudala.

Halaber, lan hau ez zen posible izanen beren gaztetako pasadizoak kontatu dizkidaten berriemaile guztiengatik ez balitz. Haien testigantzak ezinbestekoak izan dira. Gainera, haien esperientziak kontatu dizkirate eta trastelekuetan gordeta zeuden dokumentu zaharrak ere eskaini dizkirate. Halaber, eskerrak elkarrizketak egiteko kontaktuak egiten lagundu zidatenei (Silvia Fernandez, Iñaki Redin, Txema Berro...)

Departamentuko lankide guztiei ere eskerrak eman nahi dizkiet, nola ez, eskainitako laguntza eta gomendioengatik: Nerea Perez, Edurne Yaniz, Gemma Pierola, Fernan Mendiola, Mikel Bueno, Zuriñe Sainz, Gotzon Garmendia ... Bereziki Esther Aldaberi, Daniel Oviedori eta Juan Carlos Garcari azken txapan animoak emateagatik.

Bestalde, historiako karrerako adiskideei ere eskerrak eman nahiko nizkieke, haien falta sumatzen dudalako. Asteartetako afarietako eztabaida luze horietako gako asko ikerketa honetan islatuko direlakoan nago. Txomini nire jarraitzaile zaletuenetakoa izateagatik. Amaiari, nola ez, prozesu guztian zehar bidaide eta sustengu izateagatik. Etxekoei, gurasoei eta anaiari, ere mila esker; batik bat Iñigori, tesi honen zuzenketa lanak berak egin baititu eta nire *txapa* guztia irakurri behar izan du. Leireri ikerketaren momenturik gogorrenetan zaindu nauelako. Eta azkenik, Emilio Majuelori; ez soilik zuzendari lana egiteagatik, maila pertsonalean egindakoa ere eskertu nahi diot eta.

2. Zenbait aspektu zientifiko

2.1. Ikergaiaren definizioa

Doktorego tesia edo bestelako ikerketa luzeren bat hasterako momentuan, jakin-minak bultzaturik eta gauza berriak ezagutzeko gosearen goseaz ikerlariak sarri asko aztergai handi eta zabalak aukeratzen ditu. Ikerketa faseek aurrera egin ahala, ordea, bere aztergaiaren zabaltasunaz konturatuta, zati edo aspekturen batean zentratzeko eta bertan fokua ezartzeko beharra nabarituko du. Hartara, ikerketa zientifikoa gehienetan aurkikuntza erraldioen bidez aurreratu beharrean, pixkanakako aurrerapen partzialen bidez hobetzen dela konturatuko da.

Hiruzpalau urteko epea luzea izan daitekeela dirudien arren, tesi batek dakarren zeregina egundokoa da, eta konturatu orduko entregatzeko epemuga gainean dauka ikerlari gixajoak. Historian, marko kronologikoarekin egiten den bezala, mota honetako ikerketa batean ikergaia mugatzea komeni da eta muga horiek sarritan arbitrarioak izan daitezke, baina ikertzaileari lana errazteko ezinbestekoak dira. Zergatik? Alde batetik, aztergaiaren gehiegizko hedadurak ikerlariaren denbora alferrik galdu daitekeelako; eta bestetik, zenbat eta aztergai txikiagoa izan, orduan eta manipulagarriagoa izanen delako. Ondorioz, aztergaiaren ertz eta alderdi ezberdinak hobe behatzen ahalko ditu, betiere, testuinguru orokorraren perspektiba galtzen ez dela ziurtatuta.

Kasu honetan, doktorego tesi honen aztergaiak 1970eko hamarkadako Nafarroa Garaiko (gaur egun Nafarroako Foru Komunitatea esaten zaion esparru geografikoko) *ezker iraultzailea* edo *ezker erradikala* osatzen zuten alderdiak dira: besteak beste, ORT, PTE, MCE/EMK, LCR-ETA VI./LKI, LC, OIC-EKE, eta PCEml¹. Hau da, ikerketa honek 1970eko hamarkadan Nafarroako oposizio antifrankistaren eta gizarte mugimenduaren parte izan ziren alderdi eta mugimendu politiko erradikalak ikertu nahi ditu, hain zuzen ere.

Oro har, espainiar bibliografian ezker iraultzailea zer den ezaugarritzeko eta definitzeko erabiltzen ohi den irizpide nagusia honakoa da: ezkerreko alderdi nagusietatik (hau da, sozialdemokraziatik eta alderdi komunista tradizionaletatik) baino ezkerrerago (edo muturrerago) kokatzen zena, alderdi horiek sistema liberal-parlamentarioan txertatu zirela eta kapitalismoaren

1 Siglak hurrenez hurren: Organización Revolucionaria de Trabajadores (ORT), Partido del Trabajo de España -PTE; lehenago PCEi -Partido Comunista de España (internacional)-, Movimiento Comunista de España/Euskadiko Mugimendu Komunista (MCE/EMK), Liga Comunista Revolucionaria/Liga Komunista Iraultzailea (LCR/LKI), Liga Comunista (LC, euskaraz batzuetan Komunisten Liga), Organización de Izquierda Comunista-Ezker Komunista Erakundea (OIC-EKE) eta Partido Comunista de España (marxista leninista) (PCEml).

aurkako borroka iraultzaileari uko egin ziotela pentsatzen zutelako. Maila konkretuago batean —ñabarduretan sakontzen eta guri dagokigun garai historikoan— 60 eta 70eko hamarkadetan klase gatazkaren larriagotzearekin eta konfliktibitatearen igoerarekin batera sortutako alderdi sortari esaten zaio². Alderdi horiek guztiek, gainera, antzeko influentzia eta eraginak jaso zituzten: Ezker Berriaren pentsamendu korronteen eragina, Sobietar Batasunaren desestalinizazioarena, Hirugarren Munduko deskolonizazio prozesuena (Kuba, Aljeria eta Vietnam), Txinako Iraultza Kulturalarena eta 1968ko Maiatzeko Pariseko mobilizazioena³.

Ezker *erradikal* etiketak, ordea, mundu akademikotik kanpo oso konnotazio bereziak ditu, eta gehienetan (prentsan esaterako) korronte politiko antisistemikoak edo eraldatzaileak gutxiesteko erabiltzen da. Zentzu horretan Julio Perez Serrano ikertzaileak horrelakoetan erabiltzen diren kategorien inguruko laburpen bikaina egin du⁴. Bere esanetan, hainbat eta hainbat esamolde erabili izan dira korronte politiko honi erreferentzia egiteko, baina horietako batzuek ez dute behar bezalako zorrotzasunik: ezker mutur (*extrema izquierda*), ultraezker (*ultraizquierda*), ezker komunista (*izquierda comunista*), komunismo iraultzailea (*comunismo revolucionario*) eta ezker antikapitalista (*izquierda anticapitalista*) baztertzeko konnotazio negatiboak izan ditzaketelako edota zehaztasun faltagatik gaizki-ulertuak sor ditzaketelako. Beraz, Perez Serranok defendatzen duenaren arabera, sektore politiko honi erreferentzia egiteko termino egokienak *izquierda radical* eta *izquierda revolucionaria* dira, alderdiek beraiek erabiltzen zituztenak zirelako eta haien izaera hobekien islatzen dutenak direlako, inolako konnotazio berezirik erantsi gabe. Euskaraz *ezker iraultzaile* eta *ezker erradikal* terminoak erabiliko ditugu.

Edonola ere, Hego Euskal Herriko kasuan aztergai hori definitzerako orduan aurkitzen dugun oztopo nagusia, alderdi iraultzaile abertzaleak eta ez-abertzaleak talde berean sartu edo ez erabakitzerako orduan dago. Oso gai mamitsua da; garai hartan izugarritzko garrantzia izan zuen, ez baitzen erretorika hutsa eta elkarte politikoetan zatiketa eta kanporaketak sorrarazteko adinako auzi identitario garrantzitsua zen. Francisco Letamendiak bere tesian bildu zuenarekin bat dator ideia hori. ETAren V. Biltzarrean Bulego Politikoko kideak kanporatu zituztenean, hauek eta beren jarraitzaileek ETA Berri (geroagoko MCE/EMK) sortu zuten. Letamendiak defendatzen duenaren arabera, hainbestekoa izan zen nazio auziaren garrantzia ezen ETAren enbor nagusitik bidalitakoak

2 Aurrerago (2.3. atalean) azalduko den bezala, garai horri 68 *Luzea* edo *Bigarren Oldarraldi Proletarioa* esaten zaio.

3 Ricard Martínez I Muntada, «La izquierda revolucionaria en tiempos de cambio político. Algunas consideraciones generales y una experiencia particular», C. Molinero, P. Ysas (ed.), *Las izquierdas en tiempos de transición*, Publicacions de la Universitat de València, Valentzia, 2016, 141-167.

4 Julio Perez Serrano, «Los proyectos revolucionarios en la Transición española: cuestiones teóricas e historiografía», Z. Caradell, J. Perez Serrano, M. Pujol Berche, A. Taillot, *La construcción de la democracia en España (1868-2014) Espacios, representaciones, agentes y proyectos*, Nanterre, Paris, 2019.

espainolizatzen hartu eta «komunitate abertzaletik» kanporatu zituztela⁵. Berdintsu gertatu bide zen VI. Biltzarretik ateratako gehiengoarekin (LKI sortu zutenak) eta Jose Maria Eskubiren inguruan elkartu zen Saioak izeneko taldearekin.

Arestian aipatutako irizpide orokorren arabera —PSOE (Partido Socialista Obrero Español) eta PCE (Partido Comunista de España) baino ezkererago kokatuta egotea, 60-70eko hamarkadetakoa gatazka sozialen parte izatea eta nazioarteko mugimendu iraultzaile horien guztien eragina izatea—, *ezker iraultzaile* etiketaren azpian PCERekin kritikoak ziren alderdi komunistez gain, bestelako korrante iraultzaile batzuk ere kontuan hartu beharko genituzke; besteak beste, mugimendu libertario eta anarkistak, ezkerreko nazionalismo iraultzaileak edo kristau antikapitalistak —baita EKA (Euskalherriko Karlista Alderdia) ere, bere kasua bitxiagoa den arren—. Beraz, irizpide horiei jarraituz gero, bi korrante politiko horiek (abertzalea zein estatala) ezker iraultzailearen parte modura uler litezke. Eta ondorioz, abertzale eta ez-abertzaleen arteko muga hori ezartzea, eztabaidagarria izan liteke, talde horiek «ezker iraultzailearen» parte direla esan dezakegulako. Lan honetarako, ordea, historiografia espainiarrean ohikoen diren mugarriak erabiltzea erabaki dugu, «esparru estatalekoak» lehenetsi eta «esparru eskusibo euskaldunekoak» baztertuko dira⁶. Bereizketa honek arbitrarioa izatearen itxura eman dezake, esan bezala bi korranteak 60 eta 70eko hamarkadako olatu iraultzailearen parte baitira; baina testu honetan zehar «unibertso politiko paraleloa» osatzen dutela azaltzen saiatuko gara⁷.

Beraz, esparru estataleko eta esparru abertzaleko alderdien arteko ezberdintasunik baldin bazegoen, non jarri behar da bi korrante horien arteko muga? Hainbat historialarik nazionalismoa ideologia politiko gisa hartu izan du, eta horrela korrante abertzale guztiak, izan atzerakoi eskuindar zein ezkertiar iraultzaile, euskal abertzale izate hutsagatik zaku beraren barruan sartu izan dituzte. Baina Gorka Etxebarria historialariak nazionalismoaren inguruko marko analitikoak «desproblematizatzeko» deia egin du. Bere ustez, nazioa ez litzateke ideologia iturri, «ideologien jo puntu den emozio» bat baizik, eta ondorioz «bakoitzaren ideologia bertara proiektatzen» da. Bestera esanda, norberak bere ideologia bere marko nazional propioan islatzen du⁸. Ideia horri jarraiki, eta

5 Francisco Letamendia Beltzunze, *Historia del nacionalismo vasco y ETA*, R&B, Donostia, 1994, I liburukia, 308.

6 Julio Perez Serranok zein Ricard Martinezek esaterako horrela egiten dute, ezker nazionalista edo abertzalea unibertso erradikalaren parte dela onartzen duten arren. Gonzalo Whilhelmiren lanean, gai honi buruzko beste obra garrantzitsuenetako bat, esparru estataleko alderdi eta mugimendu marxistengan jartzen da fokua, eta gainerakoak (mugimendu anarkista, libertario edo autonomoi, nazionalismo periferikoei eta Comunidades Cristianas Populares bezalako talde kristau ezkertiarrei) azalez baino ez dira jorratzen, gehiegi sakondu gabe. Consuelo Laiz-en lan klasikoan, aldiz, liburuaren zati garrantzitsu bat ETArri dagokio, gainerako alderdien parean.

7 Julio Perez Serrano, «Orto y ocaso de la izquierda revolucionaria en España (1959-1994)», R. Quirosa-Cheyrouze Muñoz, *Los partidos en la Transición: las organizaciones políticas en la construcción de la democracia española*, Biblioteca Nueva, Madril, 2013, 249-291.

8 Gorka Etxebarria Dueñas, «Identifikazio nazionala erlatibizatuz. Euskal nazionalismoaren diskurtso eta ideologiez», *Sancho el sabio: Revista de cultura e investigación vasca*, 38 zbk. (2015), 169-193.

beti-ere alderdi iraultzaileei buruz ari garen honetan, *esparru estataleko ezker iraultzailea* osatuko lukete bere ideologia marko estatal espainiarrean proiektatzen zuten alderdiek, eta *ezker abertzalea*, ordea, bere ideologia iraultzailea Euskal Herriko markoan proiektatzen zutenak.

Perez Calvok, bestalde, *Los partidos políticos vascos* liburuan, talde *abertzaleak* «esklusiboki euskal lurraldeen arabera antolatutako indar» politiko modura definitu zituen, eta «maila handiago edo txikiagoan menpekotasun erlazioak mantentzen» zituztenak, aldiz, *sukurtsalista* edo *estatalista*-tzat hartu zituen⁹.

Laburbilduz, alderdi estatalistak, espainiar estatu osoko alderdiak dira, hau da, haien egitura Espainia osokoa da, eta Hego Euskal Herriko atala egitura espainiarraren zati bat baino ez; zenbaitetan alderdiaren gainerakoarekiko egitura autonomo, federal edota deszentralizatu izan zezaketen arren. Alderdi abertzale gehienek, ezaugarri hau asko kritikatu izan zuten, eta euskal lurraldean aritzen ziren alderdi «espainolistak» eta «sukurtsalistak» izatea leporatzen zieten. Abertzaleak, ordea, orokorrean bakarrik euskal lurraldeetako alderdiak dira eta ez dute inolako lotura organikorik alderdi espainiarrekin.

Bi korronteen arteko beste banalerro garrantzitsuenetako bat independentziaren aldarrikapenaren alde egotea edo ez egotea izan zen. Esparru estataleko alderdiak gehienetan autodeterministak ziren, hau da, autodeterminazio eskubidearen alde zeuden, eta herriak independentzia babestuz gero haiek erabakia errespetatuko zuten, baina ez zuten aldarrikapen hori modu esplizituan defendatuko. Abertzaleentzako, aldiz, independentzia defendatzea ezinbestekoa zen. Baina irizpide hau ere lauso samarra da, aurrerago ikusiko dugun bezala, esparru estataleko alderdiek diskurtso euskaltzalea bereganatu egin zutelako eta 70eko hamarkadaren bukaeran, horietako batzuek garapen progresibo baten ondorioz, *abertzaletu* eginen zirelako.

Honetaz guztiaz gain, ikerketa honen bidez, Nafarroako gizarte mugimenduetan bi momentu kronologiko ezberdin eta bereizgarri egon zirela frogatzen saiatuko gara. 1960ko hamarraldiaren bukaeratik 70eko hamarkadaren erdialdera arte, ezker estatalistak Nafarroako antifrankismoaren lidergoa eta nagusitasuna izan zituen. Alderdi horiek izan ziren masa mobilizazio arrakastatsuak egiteko ahalmen efektiboa izan zuten bakarrak, gehienetan langile mugimenduaren bidez. Ezker abertzalea bien bitartean gutxiengoan egon zen, eta ez zuen, Nafarroa Garaian behintzat, masa mugimenduan errotzeko ahalmenik garatu. Baina lan honetan, 1977tik aurrera bi mugimendu horien arteko lekuko aldaketa bat eta jarraitzaileen masa sozialaren lekualdatze edo *trasbase* bat izan zela frogatzen saiatuko gara. Mugimendu abertzaleek ezker estatalistaren jarraitzaile izandako oinarri soziala bereganatu zuten, eta momentu horretatik aurrera, ezker estatalista gainbeheran sartu eta

9 Alberto Perez Calvo, *Los partidos políticos en el País Vasco*, Donostia, Luis Haramburu Editor, Col. «Hemen» 2, Turner ediciones, 1977, 34.

gutxiengoan geratuko zen. Beraz, frogatzen saiatuko garen lekuko aldaketa hori azaltzeko ezinbestekoa da bi korronte horiek etiketa eta kategoria ezberdinen bidez bereiztea.

Orain arteko esandakoaz gain, iturrietan militanteek korronte ezberdinak zirelako autopertzepzioa zutela nabari da; ahozko iturrietan zein idatzizko dokumentazioan ere, horren zantzuak agertu dira. Izan ere, garai hartan alderdikeria eta sektarismoa oso ohikoak ziren. Gaur egun, oraindik ere, hainbat militanteek abertzale eta ez-abertzaleen arteko ezberdintasunak nabarmenki azpimarratzen dituzte, *besteekiko* zeuden ezberdintasunak markatu nahiko balituzte bezala.

Idatzizko dokumentuetan ere, ez da zaila izaten bi korronteen arteko ezberdintasunak zeudela atzematea. Jarraian hainbat etsenplu emanen ditugu. EMKk *Zer egin?* aldizkarian kaleratutako artikuluetan, esaterako, bi korronteen arteko batasunaren alde egiten zuen eta abertzaleen sektoreetako batzuek defendatzen zuten «esklusibismo nazionala» gogorki kritikatzeko zuten¹⁰. LKIk, bestalde, 1979ko martxoaren 26ko foru hauteskunderi buruzko prentsa ohar batean, «langile alderdi eta nazionalista iraultzaileen» arteko batasuna eskatzen zuen¹¹. ORTk, halaber, 1978ko azaroan Euskadiko Ezkerra (EE) Nafarroa Garaian aurkeztu zenean, EEren eta EIAren (Euskal Iraultzarako Alderdia) jarrerak «indar politiko ezkertiar eta nazionalisten batasun» joerari kalte egiten ziola esan zuen¹². Gernikako Estatutuaren aldeko dokumentu batean, halaber, «estatalismo-nazionalismo logika zatitzailea» gainditu behar zela eta UCDri (Union de Centro Democratico) aurre egiteko eta Estatutua lehenbailehen eskuratzeko «indar nazionalisten eta ezkertiarren batasuna» ezinbestekoa zela uste zuen¹³. PTEn ere adibideak aurkitu ditugu. *El Correo del Pueblo* aldizkariaren 60. alean, besteak beste, Euskadiko idazkari nagusiak (Jose Mari Berazak, ezizenez Joxeba Urrutia) oso modu positiboan baloratzen zuen Koordinadora Abertzale Sozialistako (KAS) indarrek «estatu osoan jarduten duten euskal indarrekin» erakunde unitario bat eratzeke hartutako erabakia¹⁴. Eta zenbait hilabete beranduago, gauza bera berretsi eta «nazionalistak direnen

10 Artikuluen izenburuak argigarriak dira: «Un problema en el movimiento obrero y popular vasco. El exclusivismo nacional», *Zer egin?*, 6 zbk., 1976ko abuztuaren 15a, EMK, 4-5, BAP. «De la manifestación del día 7 en Donostia. «Españolistas kanpora!»» *Zer egin?*, 19 zbk., 1977ko urriaren 1a, EMK, 3 orr, BAP. «Una trampa peligrosa. La alternativa del nacionalismo frente al estatalismo», *Zer egin?*, 27. zbk., 1978ko martxoaren 15a, EMK, 3, BAP.

11 LKI, *Democratización de las instituciones forales*, c. 1979, BAP. Honakoan zera esaten: «tiene que haber un número importante de voces obreras y nacionalistas revolucionarios». LKI, *Sucesos de San Jorge. Comunicado de la Liga Komunista Iraultzailea*, Iruñea, 1978ko urtarrilaren 12a, Comunicados prensa LKI karpeta, BAP. Bertan deialdia egiten zaie, «a todos los partidos obreros y nacionalistas radicales».

12 ORT-ren Nafarroako Komite Probintziala: *Unidad de toda la izquierda, única política de izquierda*, Iruñea, 1978ko azaroaren 10ean, ORT Funtsa, 6-71, CDHC-EI: «no dejarse atrapar (...) en la lógica divisionista del «estatalismo-nacionalismo» por que esto hace un enorme daño al pueblo vasco. (...) Unidad de las fuerzas nacionalistas y de izquierdas frente a UCD para conseguir urgentemente el Estatuto».

13 ORTren Nafarroako Komite Probintziala: *El estatuto de Guernica lo necesitamos ya*, 1979ko martxoaren 31a, ORT Funtsa, 6-76, CDHC-EI, Iñigo Perez Ochoak utzia.

eta ez garenon arteko batasuna» txalotu zuen¹⁵. Bukatzeko, alderdi horretako kideek beraiek, alderdia desagertzerakoan eta ezker abertzalearengana hurbiltzea erabaki zutenean, desagertzear zegoen alderdiaren iragana aztertu eta haien jarrera aldaketa oso argi uzten zuen dokumentu bat kaleratu zuten. Hala mintzatu zen Joaquin Valentziak gaiaren inguruan: «gu orain arte «estatalista» izendatutako estrategia zuen alderdia izan gara»¹⁶. Txosten berean Jose Maria Berazak beste honako adierazpen hau egin zuen: «[mugimendu antifrankistan] bi korronte garatu ziren, elkarren artean baztertzaileak zirenak: bata Ezker Abertzalea (nazionalista) eta bestea Ezker Estatalista (sozialista)». Berazaren ustez egoera berria pozgarria zen, bi korronteen hurbilpenarekin Euskadiko korronte iraultzaileen «sintesia» lortuko zelako¹⁷.

Etsenpluotan ikus daitekeen bezala, bi korronteen arteko banalerroa gehien nabaritzen zen momentua elkarlanaren aldeko deia egin behar zenean izaten zen, eta korronte bakoitzari erreferentzia egiteko izen ezberdin bat erabiltzen zen: ORTren dokumentuen kasuan, besteak beste, «ezkerreko alderdiek eta abertzaleek», edo LKIREnean «langile alderdiek eta nazionalismo iraultzaileak», bat egin behar zutela esaten zen. Euskal esaera zahar batek dioen bezala: izena duen guztia bada. Izen ezberdina edukitzeak eta emendiozko juntagailuaren bidez (*eta*), bi kontzeptu ezberdin elkartzearen beharra azpimarratzea argigarria dela iruditzen zaigu. Horrek **bi korronte mugakide** zirela frogatuko luke, elkarren ondoan kokaturikoak, elkarlanean aritzeko prest leudekenak, baina azken finean **ezberdinak** zirenak. Eta ezberdintasunak zeuden heinean batasunaren aldeko deia egiten zen. Aipatu behar da, hala ere, sarritan batasun nahiak baino ahalmen gehiago izaten zuela alderdikeriak.

Abertzale eta sukurtsalisten arteko ezberdintasuna nola edo hala definitzen saiatu garen arren ez dugu bi korronte hauen arteko harreman modu zurrunean ulertu behar. Haien arteko kontaktua dinamikoa zen, eta bien arteko muga oso lausoa. Pedro Ibarra irakasleak bere azken liburuan —anekdota irrigarri baten bidez— antifrankismoko kideen artean abertzaletasuna eta euskaltzaletasuna sentitzeko maila ezberdin ugari zegoela gogoratzen du, gradazio eta ñabardura eskala ezberdinez osatua; «erabat» edo «oso» abertzaletik, «erdi-abertzalea» edo «pixka bat» baino

14 «Entrevistas. Joxeba Urrutia», *El Correo del Pueblo*, 60 zbk., 1976ko urriaren 2a, PTE, 3-5. <https://archivodelatransicion.es/> (2020ko apirilean kontsultatua)

15 «Entrevistas. Jose Maria Beraza. Sobre la unidad de las fuerzas obreras y populares de Euskadi», *El Correo del Pueblo*, 83 zbk., 1977ko martxoaren 19a, PTE, 4-5: «Unidad alcanzada entre las fuerzas nacionalistas (...) y otras que no lo somos» <https://archivodelatransicion.es/> (2020ko apirilean kontsultatua)

16 Joaquin Valencia, «Trabajo para debate. Perspectivas de la Revolución socialista y situación política en Euskadi», *Aportación a la revolución vasca*, Iruñea, 1980/I/26, 21-29 <https://archivodelatransicion.es/> (2020ko apirilean kontsultatua). 25. orrialdean: «Nosotros hemos sido hasta ahora un Partido con una estrategia denominada comúnmente «estatalista»».

17 Jose Mari Beraza, «Síntesis del carácter nacional y socialista de la revolución de Euskadi», *Aportación ...*, 57-67.

ez izatera arte¹⁸. Analogia bera eginez, eta modu oso traketsean azalduta, zera esan zitekeen: ESB *erabat abertzalea* litzatekeela, LAIA *oso abertzalea*, LKI *erdi-abertzalea* eta ORT *pixka bat* besterik ez¹⁹.

ETA erakunde armatuaren eta haren inguruko mugimendu politikoari *ezker abertzalea* edo Euskal Nazio Askapenerako Mugimendua (ENAM) esan izan zaio eta bere egituretan ere ñabardura ugari zegoen. KASeko eta Herri Batasunako (HB) korrante nagusienak iraultzaile modura kontsideratzen ahal baditugu ere, ESB edo ANV aspektu sozioekonomikoan sozialdemokratak (eta beraz, erreformista eta ez-iraultzailetak) zirela esaten zen²⁰. Etsenplu modura, ESB oso abertzalea zen arren, bere proiektu sozioekonomikoa eta klase ikuspegia LAIAren iraultzailetasunetik urruti zegoen. Azken horrek LKIekin gehiago konpartitzen zuen ESBekin baino. Hala ere, LAIAk eta ESBk HB koalizioan bat egin zuten, biak abertzaleak zirelako. Ondorioz, ezker abertzalearen gehiengoa *ezker iraultzaile* modura kokatu badezakegu ere, hainbat sektore moderatuagoak zirela ez dugu ahaztu behar.

Banalerroa are gehiago lausotu dezaketen bestelako faktoreak ere egon ziren. Arestian aipatu dugun bezala, ezker iraultzaile estatalistaren parte ziren alderdien gehiengoak beren diskurtso eta izaera *euskaltzaletu* zituzten, bereziki 1970eko hamarkadaren azken urteetan. Nolabait esateko, ezker abertzalearen ildo politikoetara hurbildu ziren. EMK, esaterako, Movimiento Comunista (MC) alderdiaren II. Kongresua (1978) eta gero HB koalizioarengana hurbildu zen, eta 1983ko IV. Kongresuan independentziaren aldeko aldarria bere egin zuen²¹. LKIk antzera egin zuen eta bi alderdiok 80eko hamarkadan Herri Batasunarentzako bozka eskatu zuten hainbat eta hainbat hauteskundeetan²². PTEk, bestalde, bere I. eta II. Konferentzia Nazionaletan (1978 eta 1979), ezker abertzalearenganako hurbilpen prozesu bat bizi izan zuen, eta azkenean, independentziaren aldeko

18 Pedro Ibarra Güell, *Memoria del antifranquismo en el País Vasco. Por qué lo hicimos (1966-1976)*, Pamplona, Iruñea, 2016, 91-92.

19 ESB: Euskal Sozialista Biltzarrea. LAIA: Langile Abertzale Iraultzaileen Alderdia .

20 Gorka Etxebarria Dueñas, «Mantener la hipótesis revolucionaria: ETA(M) y el otoño de los setenta en Euskadi (1977-1978)», Fundación Salvador Seguí-Madrid (koord.), *Las otras protagonistas de la Transición. Izquierda radical y movilizaciones sociales*, Editorial Descontrol, 2018, 881.

21 Jon Kortazar Billelabeitia, «Euskadiko Mugimendu Komunista (1969-1991): Historia eta ideologia», *Vasconia: Cuadernos de historia - geografía*, Eusko Ikaskuntza, 38 zbk. (2012) 1079-1109. MC, *Una izquierda para la Revolución. IV Congreso Federal*, 1983, DPP (MC). 2/2 (C1), BPR, 121-124.

22 Manuel Garí, «Derrotas y victorias: el referéndum sobre la OTAN y la Huelga General del 14D (1985-1989)», Martín Causa, Ricard Martínez i Muntada, *Historia de la liga...* 160-161. «Los comunistas, parte activa del movimiento de emancipación nacional», *Combate*, 48 zbk. 1988ko martxoaren 11, 10-11, Doc. 8.45, <https://historialcr.info/>. Hainbat egile, «Dossier» [LKIn IV Biltzarrerako], *Combate*, 449 zbk. 1988ko martxoaren 25a, I-IV, Doc. 8.45, <https://historialcr.info/>.

aldarria onartu zuen eta klase borrokarako euskal markoa autonomia zela erabaki zuen; funtsean, horrek ezker abertzalearen funtsezko oinarri politikoak bereganatu zituela esan nahi zuen²³.

Hori guztia gutxi balitz, arestian aipatutako lekuko aldaketa hura gertatu zenean, ezker iraultzaileko kide askok ezker abertzalean militatzeko edo haren jarraitzaile izatea erabaki zuten. Jakina da denek ez zutela ibilbide militante bera izan; batzuek politika utzi zuten, eta beste batzuk PSOEn, Auzolanen, edo bestelako mugimendu sozialetan inplikatu ziren. ORTko zuzendaritza, esaterako, ez zen aldarrikapen nazionaletik bereziki sentsiblea, baina alderdia desagertzerakoan, bere oinarri sozialaren parte handi bat mugimendu abertzalera hurbildu zen. 80eko hamarkada hasieran, esaterako, Langile Abertzaleen Batzordeak (LAB) sindikatuak ORTren Sindicato Unitario (SU) eta PTEren CSUTeko (Confederación de Sindicatos Unitarios de Trabajadores, Langileen Sindikatu Unitarioen Konfederazioa) kide ohien bidez indartu zuen bere egitura. Mota honetako garapen politikoa izan zutenek, ez zuten bere ibilbide politikoan haustura traumatiko baten modura ikusi, garapen normal eta koherente baten modura baizik. Alderdi *españolista* batetik *abertzale* batera pasatzean, momentu ezberdinetan egoerara moldatutako tresna ezberdina erabili zutela esan daiteke. Haietzako koherentziaz egindako urratsa izan zen, helburu berdinen (edo oso antzekoen) alde borrokatzeko tresnak izan zirelako alderdiak, garai bakoitzean horietako bakoitzak bere funtzioa bete zuena.

Beraz, orain artekoa laburbilduz, arrazoiketa luze guzti honen ondorioz, alde batetik bi korronteak oso hurbil zeudela eta elkarren mugakide zirela onartu beharrean gaude; biak 68 Luzearen parte ziren korronte iraultzaile modura uler ditzakegu. Baina aldi berean, tesi honetarako bi mugimenduok bereiztea erabaki dugu, besteak beste, ikerketa mugatu eta ikerketa errazteko.

Tesi honetan esparru estataleko ezker iraultzailea —hau da, abertzaleak ez ziren eta Espainia mailako alderdiekin lotura organikoak zituzten ezkerreko alderdi iraultzaileak— izanen da ikerketaren objektua. Orokorrean huts-hutsean *ezker iraultzailea* aipatzerakoan, korronte politiko honi egiten zaio erreferentzia. Ezker abertzalearen parte diren mugimendu iraultzaileak, aldiz, ez dira lan honen aztergai nagusia izanen, zeharka jorratuko badira ere.

Hala ere, ezker abertzalea —hau da, Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduaren parte diren alderdi eta elkarte politiko batura—, sektore politiko honen mugakidea zela aitortu behar da, eta beraz, bi sektore politikoak «iraultzaile» gisa definitu ditzakegunez, aldi berean bie buruz hitz egiten denean *esparru estataleko ezker iraultzailea* ala *ezker abertzalea* den zehaztuko da.

Ikusi dugun bezala, auzi nomibal horri horrela bereizteko arrazoi nagusia metodologikoa da, ikerketa burutzeko denbora mugatua delako eta aztergaiaren neurria handiegia izan ez dadin komeni

23 «Llamamiento a la unidad de la izquierda vasca», *La Unión del Pueblo*, 36 zbk., 1978ko urtarrilaren 12tik 18ra, 12. <https://archivodelatransicion.es/>. «Conferencia Nacional de Euskadi», *La unión del pueblo*, azken alea?, 1979ko ekaina, 11 <https://archivodelatransicion.es/>. *Aportación a la Revolución Vasca...*

delako. Gainera, bereizketa honek 1970eko hamarkadaren bukaeran Nafarroako gizarte mugimenduetan gertatu zen lekuko aldaketa azaltzen errazten du.

2.2. Marko Kronologikoa.

Lan honetarako aukeratu den marko kronologikoa 1970eko hamarkada osoa da, garai beraren inguruko hainbat ikerketatan, lana 1977ko hauteskundeetan etetea ohikoa den arren. Marko kronologiko hura aukeratu izan bagenu gure lana erraztuko zitekeen, modu hartara, epealdia homogeenagoa litzatekeelako. Izan ere, 1977tik aurrera gizarte konfliktibitatea konplexuago bilakatu zen. Alde batetik, lan gatazken izaera erabat aldatu zen, krisi ekonomikoaren ondorioz eta lan harremanen esparruko legediaren aldaketaren ondorioz (sindikatuaren legalizazioa, Moncloako Ituna, Langileen Estatutua...). Gizarte mugimenduetan bestelako kasuistika batzuk txertatu ziren; indarkeria politikoari eta aldarrikapen nazionaleri lotutakoek pisua irabazi zuten eta gizarte mugimendu espezializatu berrien azaleratzearekin (feminismo, ekologismoa, kontrakultura ...) egoera are konplexuago bilakatu zen.

Gainera, epe horretan iturri historikoak biderkatu ziren, askatasunen lorpenen ondorioz (elkartzeko, manifestatzeko edota adierazteko askatasunak eta baita prentsa askatasuna ere). Klandestinitate garaiko iturrien urritasunarekin alderatuz gero, hori positiboa litzateke historialariarentzako, baina aldi berean erronka eta lan karga handitu egiten zaio ikerlariari, konplexutasun maila handitzen delako.

Baina, hala ere, ezker iraultzailearen gainbehera eta alderdi nagusien desagerpena ulertzeko gakoak hamarkada bukaerako urte horietan daude. Horregatik, fenomenoak modu egoki eta orohartzailean ulertzeko marko kronologikoa 1980eko hamarkadaren hasierara bitarte luzatzea ezinbestekoa suertatu da.

2.3. Ikergaiaren egoera

Ikergaiaren egoerari dagokionez, ezker iraultzailearen inguruko ikerketen loraldi garaia bizi dugu. Baina hori ez da beti horrela izan; izan ere, aurretik hutsune historiografiko eta editorial luzea egon baitzen. Azken hamarkada honetan zehar, ordea, urte luzeetako hutsune hura gainditzeko eginahalak egon dira eta ikergai honen inguruko lanen bultzada emankor eta ugaria gertatzen ari da. Tesi hau egiteko ideia sortzen hasi zenean (2015-2016 ikasturtean, egilea oraindik masterreko ikasle zenean) loraldi horren lehendabiziko kimu lotsatiak baino ez ziren gertatu eta ordura arte egindakoa oso urria zen. Baina, denbora tarte labur honetan, garai hartatik hona egindako ibilbideari erreposoa

eginez gero, egoera erabat aldatu dela atzeman daiteke. Pixkanaka bada ere, sektore politiko honekiko zeuden aurreiritziak gainditzeko urratsak ematen ari dira ikergune eta unibertsitateetan, eta zenbaitetan gainera, ikuspegi berritzaile eta interesgarriak bultzatzen. Beraz, hainbat urtetan «hutsune historiografiko» gisa izendatu dena gainditzen ari garela esan dezakegu, pausoz pauso ezker erradikalaren inguruko ekoizpen editorialak eta haren inguruko jakin-mina handitzen ari baitira²⁴.

Baina egindako aurrerapausoak garrantzitsuak izangatik ere, ezker erradikalak oraindik bazterreko ikergaia izaten jarraitzen du. Ikerketa honek klase sozial zapalduak (langileak), klandestinitatean aritzen ziren talde politiko ilegalak eta errepresioa sufritu izan zutenak ditu protagonista. Noizbait botere politikoa irauli nahi izan zutenen eta helburu hori erdietsi izan ez zutenen historia da. Hitz gutxitan, bazterrekoena eta garaituena. Horregatik, korronte politiko hau Trantsizio garaiaren inguruko ikerketa lerro nagusienetatik aldentuta dago, eta horietan sarri asko zeharka baino ez da azaltzen. Horretaz guztiaz gain, akademiak besteko diskurtso eta kontakizunetan (prentsa eta politika mundukoetan esaterako) erabat ezabaturik geratu da. Benetan izan zuen garrantzia baino dezente urriagoa da aitortzen zaiona, sektore politiko honek errealtatean izan zuenarekin alderatuz gero. Zer dela eta gertatu da korronte politiko honenganako bazterketa hori?

Alde batetik, **bere proiektu politikoa garaitua suertatu** zelako. Trantsizioan zehar ezker iraultzailea osatzen zuten alderdi eta antolakundeen gehiengoak Haustura Demokratikoa eta gizartean aldaketa politiko eta sozial sakonak defendatzen zituzten, eta aldaketa horiek prozesu horretan gerta zitezten espero zuten. Diktadorea zendu zenean, agintari frankistak, enpresari handien klasea eta armada bera Portugalekoa bezalako erorketa iraultzaile bat gertatzeko beldur ziren, eta hori saihesteko, ekonomia kapitalista eta estatu aparatua kolokan jarri gabe, Erregimenarentzako babes sozial berriak bilatzea helburu zuen Erreforma prozesua martxan jarri zuten. Hasiera batean, aldaketa horiek oso azalekoak izatea espero zuten, ez dezagun ahaztu Franco ondorengo lehendabiziko Gobernu monarkikoa —hau da, Arias Navarrok zuzendutakoa— diktaduraren jarraikortasunaren aldekoa zela. Baina krisi ekonomikoak eta oposizioaren mobilizazio gero eta arrakastatsuegok erreforma prozesu horretan gehiago sakontzera bultzatu zituzten, eta ziurtasunik gabeko ibilbide baten ondoren, egungo monarkia liberal-konstituzionalean oinarritutako sistema ezarri zen²⁵. Erregimen batetik besterako aldaketa oso modu kontrolatuan egin zen, indarrean

24 Joel Sans Molas, *Militancia, vida y revolución en los años 70: la experiencia de la Organización de Izquierda Comunista (OIC)*, UAB, Cerdanyola del Vallès, 2017, argitaratu gabeko tesia. <https://ddd.uab.cat/record/187368> (2020ko martxoan kontsultatua) 29 eta 38.

25 Pere Ysas, «Ni modélica ni immodélica. La transició des de la historigrafia», *Franquisme y transició*, 1 zbk. (2013), 273-308.

zegoen agintea hautsi gabe, eta Haustura Demokratiko sakonagoa nahi zuten indarrek ez zituzten beren helburuak bete.

Hori guztia gutxi balitz, erregimen demokratiko berria ezarri eta gero, beren burua justifikatzeko kontakizun ofizial bat defendatu nahi izan da, eta harekin kritikoak zirenak gutxietsi dira. Kontakizun batzuek, Trantsizioaren arrakasta hainbat faktore moderatuei eta agintarien borondateari egotzi izan dizkiote, besteak beste; Erregearen jokabideari, Suarezren irekitasunari, azaleko aldaketak nahi zituen ustezko «klase ertainari», modernizazio ekonomikoari edota oposizio moderatuaren neurritasunari²⁶. Horrelakoak prentsan eta politikan oraindik sarri entzuten dira. Kontakizun horietan, sistematikoki behetik egindako presioa ezkutatu egiten da eta presio sozialak benetan izan zuen garrantzia ukatu. Izan ere, nekez eginen zuten Suarezek eta Juan Carlos erregeak sistema konstituzionalaren alde, oposizioak —bereiziki langile mugimenduak eta alderdi ezkertiarrek— egindako presioarengatik izan ez balitz.

Zorionez, azken hamarkadatan, oso emankorra izan diren bestelako korrante historiografikoak ugaltu dira. Erregimenaren higaduran eta Trantsizio prozesuaren bultzadan oposizio indarrek eta gizarte mugimenduek izan zuten garrantzia azpimarratzen dutenak, oposizioari leporatu zitzaion traba edo oztopo papera kendu eta bultzatzaile papera eman diotenak. Pixkanaka, gertatutakoa modu kritikoan aztertzen duten eta ezker iraultzaileak Trantsizioan izan zuen garrantzia azpimarratzen duten lanek gero eta oihartzun handiagoa dute²⁷. Gainera, eredugarri izatetik urruti, prozesu horrek izan zuen izaera gatazkatsua azpimarratu duten lanak ere argitaratu dira azkenaldian²⁸.

26 Daniel Escribano Riera, Pau Casanellas Peñalver, «Gizarte-mobilizazioak eta frankismoaren hondar krisia. Euskal Herriaren ekarpena», *Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, 81zbk. (2012) 17-38. Hainbat historialari entzutetsu iritzi horren aldekoak ziren, baina Escribanok eta Casanellasek diotenez, ikuspegi horiek berrikusi eta gainditu dira.

27 Javier Tusell, *La Transición española a la democracia*, Historia 16, Madril, 2 liburuki, 1991. Sebastian Balfour, *La dictadura, los trabajadores, y la ciudad. El movimiento obrero en el área metropolitana de Barcelona (1939-1988)*, Alfons el Magnanim, Valentzia, 1994. Pere Ysàs, *Disidencia y subversión. La lucha del régimen franquista por supervivencia, 1960-1975*, Crítica, Bartzelona, 2004. Santos Juliá, «En torno a los proyectos de Transición y sus imprevistos resultados», Carme Molinero (edi.), *La Transición, treinta años después*, Península, Bartzelona, 2006. Nicolas Sartorius, Alberto Sabio, *El final de la dictadura. La conquista de la democracia en España (noviembre de 1975 – junio de 1977)*, Temas de Hoy, Madril, 2007. Xavier Domenech Sampere, *Cambio político y movimiento obrero bajo el franquismo. Lucha de clases, dictadura y democracia (1939-1977)*, Icaria, 2012. Xavier Domenech Sampere, *Quan el carrer va deixar de ser seu. Moviment obrer, societat civil i canvi polític. Sabadell (1966-1976)*, Publicacions de l'Abadia de Montserrat, Bartzelona, 2002. Pere Ysas, «Ni modèlica ni immodèlica. La transició des de la historiografia», *Franquisme y transició*, 1 zbk. (2013), 273-308. Carme Molinero (ed.) *La Transición. Treinta años después*, Península, Bartzelona, 2006. Alvaro Soto, *Transición y cambio en España. 1975-1996*, Alianza, Madril, 2005. Pere Ysas, Carme Molinero, *Productores disciplinados y minorías subversivas. Clase obrera y conflictividad laboral en la España franquista*, Siglo XXI, Madril, 1998. Ferran Gallego, *El mito de la transición*, Planeta, Bartzelona, 2008. Juan Andrade Blanco, *El PCE y el PSOE en (la) Transición. La evolución ideológica de la izquierda durante el proceso de cambio político*, Siglo XXI, Madril, 2012.

28 Sophie Baby, *El mito de la transición pacífica. Violencia y política en España (1975-1982)*, Akal, Madril, 2018. Pau Casanellas, *Morir matando. El franquismo ante la práctica armada, 1968-1977*, Los Libros de la Catarata, Madril, 2013.

Beraz, modu laburrean esanda bi korrante historiografiko nagusi daude: bata trantsizioa «goitik egindakoa» izan zela defendatzen du, eta besteak, aldiz, «behetik bultzatutakoa»; baina biek ala biek, zera defendatzen dute: Haustura Demokratikoa ez zela posible izan oposizioak nahikoa indarrrik metatu ez zuelako.

Aurreko ikuspegiekin kritikoa den eta are urrutiago joaten den hainbat lan ere badago. Enrique Gonzalez de Andres-ek, esaterako, Haustura Demokratikoa ez gertatzeko arrazoi nagusia PCEn borondate eza izan zela defendatzen du, bere estrategian traumarik gabe erreforma demokratiko batera ailegatzeko helburua zegoelako. Emmanuel Rodriguez Lopez-ek, halaber, Trantsizioari buruzko ikuspegi oso kritikoa erakusten du bere liburuan²⁹.

Bestalde, ezker iraultzailea ikerketan baztertearen beste arrazoietakoa bat **jarraikortasun falta** (sigla horiekin behinik behin) izan zen; izan ere, sektore politiko hori Trantsizioaz geroztik urte gutxiren buruan desagertu egin baitzen. Alderdi nagusienak (PTE eta ORT) 80ko hamarkadaren hasieran disolbatu ziren, eta bestelako batzuek jarraitu bazuten ere, indarra eta protagonismoa galtzen joan ziren. Gaur egun, ondorioz, alderdi horien inguruko memoria desagertzen joan da. Jarraikortasun faltagatik alderdiotako ondorengoek ez dute beren iragana aztertze beharrik izan, eta orain dela gutxira arte, ez zuten ikertzaileen atentzioa erakarri.

1970eko hamarkadako bildumak

Ezker erradikalaren inguruan argitaratu ziren hasiera-hasierako liburuak 1970ko hamarkadakoak bertakoak dira. Lehendabiziko argitalpen horiek nolabaiteko izaera akademikoa bazuten ere, haien helburu nagusia oso bestelakoa zen. Garai hartan alderdiok oraindik klandestinitatean murgilduta zeuden eta Erreforma prozesuak aurrera egin ahala, ezkutuko izateari utzi eta espazio publikorantz ateratzen hasi ziren. Hainbat eta hainbat zirenez, haien hautesle potentzialak —alderdiekin kontaktu zuzenik izan ezean— sarritan ez zituen aukera politiko ezberdinen arteko aldeak nabaritzen, eta beraz, alderdiek protagonismo publikoa irabazi ahala, horietako bakoitzaren jarrera politikoak eta programak ezagutzeko liburuak argitaratu ziren. Argitalpen haietan elkarrizketen, inkesten edota alderdien programen bilketen bidez, ildo politiko nagusiak azaltzen ziren eta gai politiko garrantzitsuenen inguruko iritzia ematen zuten, irakurleak ongi uler zitzan. Argitaratzaileen helburua erosleen artean alderdien programak eta jarrera politikoak ezagutaraztea zen.

29 Enrique Gonzalez de Andres, *¿Reforma o ruptura? Una aproximación crítica a las políticas del Partido Comunista de España entre 1973 y 1977*, El Viejo Topo,artzelona, 2017. Emmanuel Rodriguez Lopez, *Por qué fracasó la democracia en España. La Transición y el régimen del '78*, Traficantes de Sueños, Madril, 2015.

Gure uste apalean, bi dira mota honetako lanak baldintzatzen dituzten mugak. Alde batetik, gaur egungo ikuspegitik nahiko zaharkituak geratu dira, zenbaitetan garai hartako ikuspegiak eta metodologiak ez dutelako oraingokoekin bat egiten. Bestalde, kontuan hartu behar da normalean lanok momentu konkretu bateko egoera islatzen dutela, eta beraz, ondorengo garapenak (zenbait momentutan alderdietako batzuek aldaketa doktrinal sakonak bizi izan baitzituzten) ez dira kontuan hartzen. Oscar Altzagak (garai hartan Donostiako Zuzenbide Fakultateko Zuzenbide Politikoko Departamentuko zuzendariak) liburu horietako baten hitzaurrean bikainki adierazi zuen bezala, «trostan ari den zaldi» baten argazki baten modura imajinatu behar ditugu liburuok; argazki horrek momentu estatiko baten errealitatea (edo errealitatearen parte bat behinik behin) irudikatzen duen lasterketa osoaren momentu bat baino ez delako³⁰.

Euskal Herriaren kasurako bi lan nagusi aurkitu ditugu. Alde batetik, 1976ko bukaeran Juan Carlos Jimenez de Aberasturi Kortak eta Emilio Lopez Adan *Beltza-k* idatzitako *Organizaciones, sindicatos y partidos políticos ante la Transición: Euskadi 1976*. Lan honek ez zuen momentuko zentsura gainditu eta ezin izan zen bere garaian argitaratu. Baina zenbait urte beranduago, 1989an, izan zezakeen interes historikoa iritzita berrargitaratu zen. Egileek Hego Euskal Herriko alderdi, sindikatu, elkarte eta erakunde unitarioei inkesta bana bidali zizkieten eta erantzunetan jasotako bidez, laburpen koherente bana idatzi zuten. Lan mardula da eta guztira 18 alderdi, 2 erakunde armatu, 7 sindikatu eta 5 erakunde unitarioen iritzia bilduta dago. Gainera, garai hartako zenbait testu original txertatu zituzten bukaeran, gehigarri gisa, garaiko giroa ederki islatu eta eztabaida politiko bizi eta interesgarrienak nolakoak ziren irudikatzeko balio dutenak³¹.

Mota honetako beste lana Alberto Perez Calvo-ren *Los partidos políticos en el País Vasco* da, itxuraz, aurrekoa baino oinarri politologikoagoa duen lana³². Oraindik forma hartzen ari zen euskal alderdien sistemaren argazki estatikoa egiten duen liburu da, eta lanean bi zati nagusi bereiz daitezke. Lehendabizikoan alderdien arteko klasifikazio saiakera bat egiten du liburuak, hainbat irizpideren bidez: antolaketa ereduaren arabera (federazioa/federala/deszentralizatu), «familia politikoen» arabera (abertzale/estatal edo integracionista/separatista) zein eredu sozioekonomikoaren arabera (eskuin/ezker). Klasifikazio horiek egiteko Perez Calvok erabiltzen dituen sailkapen irizpideak eztabaidagarriak izan daitezke zenbaitetan. Bigarren zatian, ordea, alderdien inguruko zenbait daturen agerpen bana egiten du. Guztira 20 alderdi eta elkarte politikoren jatorria, antolaketa, programa, ezarpena, eta kide ezagunen laburpen bana egiten du.

30 Alberto Perez Calvo, *Los partidos políticos ...* 13.

31 Juan Carlos Jimenez de Aberasturi Corta, Emilio Lopez Adan, *Organizaciones, sindicatos y partidos políticos ante la Transición: Euskadi 1976*, Centro de Documentación de Historia Contemporánea del País Vasco, 4 zbk., Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1989.

32 Alberto Perez Calvo, *Los partidos políticos ...*

Mota honetako lanak oso ohikoak izan ziren, eta besteak beste, Katalunia zein Espainiako alderdien inguruko antzeko lanak ere egin ziren³³.

90eko hamarkadako obra klasikoak

Trantsizioaz geroztik, hurrengo urteetan apenas argitaratu zen ezker erradikalaren inguruko lanik. Salbuespen bakarrenetako bat Harmunt Heineren artikulu txukun zein labor bat izan zen, ezker iraultzailea nahiko modu egokian eta bere testuinguruan kokatzen zuena³⁴. Bertan, topikoek ziotenaren aurka, ezker erradikalarena «gazte errebeldeen» kontua zenik ukatzen zuen. Hala ber, ezker iraultzaileko alderdiei gehiegizko dogmatismoa, eta Espainiako errealitatetik urrun zeuden analisi teorikoak egitea leporatzen zizkien, besteak beste atzerriko ereduetatik iraultza inportatzeko asmoa zutelako. Baina, aldi berean, langile mugimenduaren gutxiengoa ziren arren, bertan eragiteko eta bere mobilizazioak politizatze ahalmena izan zutela errekonozitzen zuen.

90eko hamarkadaren erdialdera arte itxaron behar izan genuen ezker erradikalaren inguruko moduzko lehendabiziko lan akademikoak argitaratzeko. Bi obra horiek —Consuelo Laiz-en *La lucha final* (1995) eta Jose Manuel Roca-ren *El proyecto radical* (1994)— mugarri bat suposatu zuten, eta urteetan gaiari buruzko erreferentziazko lanak izan dira. Baina bai batak zein besteak, kritikak izan dituzte, besteak beste Joel Sans-ek eta Ricard Martínez-ek egindakoak³⁵.

Consuelo Laizek egindako lana ikuspuntu politologikotik egindakoa da³⁶. Horregatik, idatzizko dokumentuetan oinarrituta hainbat alderdiren «programen eta posizionamenduen agerpen sistematikoa» egiten du eta behaketen arabera, talde politiko horiek klasifikatzen ditu. Gainera, alderdien epeak modu orientagarrian periodizatu eta kronologia bat proposatzen du. Alderdien aukeraketa bera bitxia da, oso izaera ezberdinak zituzten erakundeak erkatzen baititu: ETaren moduko talde abertzale iraultzailetik hasi, maoista eta troskista ohikoenetatik pasa (PCEi-PTE,

33 J. Colomer, J.C. Aguilera, J. Subirats, J.Vintró, *Els grups polítics a Catalunya. Partits i programes. 2. Esquerra extrema esquerra i organismes unitaris*, L'Avenç, 1976. Fernando Ruiz, Joaquín Romero (ed.), *Los partidos marxistas. Sus dirigentes, sus programas*, Anagrama, Bartzelona, 1977. Azpimarragarria da baita ere Biblioteca de Divulgación Política izenpean 1976an kaleratu zen liburu bilduma, hainbat gai politikori buruz azalpenak ematen dituenak. Guztiek izenburu mota zuten «Qué son...» (Zer dira...?). Gure gaiari dagokionez anarkismaori, troskismoari, komunismoari edota marximo-leninismoari buruzko aleak kaleratu ziren.

34 Harmunt Heine, «La contribución de la «Nueva Izquierda» al resurgir de la democracia española, 1956-1976», Josep Fontana, *España bajo el franquismo*, Crítica, Bartzelona, 1986, 142-159.

35 Joel Sans Molas, «L'esquerra revolucionària i el seu paper en la mobilització social i el canvi polític dels anys 70: Estat de la qüestió i alguns apunts per al seu estudi», Vicent Bellver Loizaga, F. D'amaro, I. Molina Puertos, J. Ramos Tolosa (Koord.), *Otras voces, otros ámbitos: Los sujetos y su entorno. Nuevas perspectivas de la historia sociocultural*, Universitat de València/Asociación de Historia Contemporánea, Valentzia, 2013, 283-287. (Artikulu honen gaztelerazko bertsio bat Sansen tesiaren hasieran) Ricard Martínez I Muntada, «La izquierda revolucionaria en...», 144-145.

36 Consuelo Laiz Castro, *La lucha final: los partidos de la izquierda radical durante la transición española*, Los libros de Catarata, Madril, 1995.

ORT, MCE, LCR-ETA VI) eta PCer-GRAPO eta PCEml-FRAP moduko talde armatu berezietara iritsi arte³⁷.

Laizen lanaren gabezia garrantzitsuenetako bat, Sansek egindako kritikaren arabera, alderdien ideologiaren azterketa hutsa egitea da, garaian garaiko testuinguru historikoa kontuan hartu gabe. «Alderdien tamaina, eragiteko ahalmena, mugimendu sozialetan eta borroketan zuten parte hartzea» eta abar ezinbestekoak lirateke mugimendu iraultzaileok ongi ezagutzeko eta izan zuten «eragin historikoa» egoki ulertzeko. Nolabait esateko «antifrankismoarengatik arrotz» diren korronteak direla ondorioztatzen du Laizek eta alderdiok gutxiengoan egonagatik ere langile taldeengan eta bestelako sektore zabalengan eragina izatea lortzen zutela ahazten du³⁸.

Gainera, beti ere Sansen arabera, Consuelo Laizek «marxismoaren ikuspegi sinplifikatua» darabil —Karl Popper, Philippe Raynaud, Maurice Duverger eta François Furet bezalako autoreetan oinarrituta—, alderdien ideologiaren eta borroka moldeen ulerkera zailduko lukeena. Ikuspegi horiek alderdi hauen ideologia eta politika ulertzeko tresna egokiak izatea eragozten diote.

Halaber, ezker erradikalaren existentzia eta 70eko hamarkada bukaerako krisia interpretatzerako orduan hipotesi eztabaidagarria defendatzen du. Laizen ustez, antifrankismoko alderdi iraultzaileen sorrera borroka antifrankistaren eta klandestinitate egoeraren emaitza espezifikoa litzateke, bestelako testuinguru batean modu horretan garatuko ez zena. Ondorioz, Erregimen frankista desagertzerakoan eta Espainiako egoera mendebaldeko gainerako herrialde modernoagoekin parekatzerakoan, ezker iraultzaileak ez zuen asmatu ordena soziopolitiko berrira moldatzen, eta, beraz, zentzua izateari utzi, eta, nahitaez, desagertu behar izan zuten. Alde batetik, analisi horrek ez du askorik laguntzen alderdi batzuen iraupena (MC eta LCR) eta besteen desagertzea (ORT eta PTE) ulertzeko, sistema berriarekiko aurkakotasun eta txertaketa ondorio batzuen bidez azalpena ematen saiatzen den arren. Bestetik, Consuelo Laizek ahazten du ezker erradikala nazioarteko fenomeno orokorra izan zela eta Mendebaldeko hainbat herrialdeetan joera bereko alderdiak ere sortu zirela. Espainian, Portugalen eta Grezian baino ez ziren diktaduren azpian garatu. Are gehiago, ezker erradikalaren krisiak Europa Mendebaldeko herrialde gehienetan alderdi espainiarrei bezalaxe eragin zien, baita diktadurarik ez zutenetan ere.

José Manuel Rocaren lana, aldiz, hainbat autorek egindako testu bilduma bat da, baina Rocak berak liburuaren pisuaren zati handi bat bere gain hartzen du, hiru kapitulu berak sinatzen

37 PCer —Partido Comunista de España-reconstituido, Espainiako Alderdi Komunista (berrosatua)—, GRAPO (Grupos de Resistencia Antifascista Primero de Octubre, Urriaren Leheneko Erresistentzia Talde Antifaxistak) eta FRAP (Frente Revolucionario Antifascista y Patriota, Fronte Iraultzaile Antifaxista eta Abertzalea)

38 Joel Sans Molas, «L'esquerra revolucionària i el seu...». Ricard Martínez I Muntada, «La izquierda revolucionaria en...»

baititu³⁹. Liburu honek hainbat aspektu interesgarri ditu eta Laizena baino hobe kokaturik dago bere testuinguruan. Esate baterako, langile zein ikasle mugimenduetan ezker erradikalak izan zuten eragiteko ahalmena hobe ulertzen da eta mugimendu horietako bakoitzari kapitulu bana eskaintzen zaio. Egiten dizkien kritiken artean, batzuk egokiak dira; besteak beste, egiten zituzten analisi politikoak okerrak zirela (beren indar gairidimentsionatuengan gehiegizko konfiantza sortzeraino, uste zutena baino ahulagoak ziren eta).

Baina hala ere, zenbaitetan —bereziki Rocak berak idatzitako zatietan— ezker erradikalaren irudiaren karikatura egiten da. Roca bera, ezker erradikaleko militante izan zen (Madrileko Octubre-Union Comunista Comites Obreros elkartean), baina liburua idatzi zuenerako joera politiko horietatik urrunduta zegoen, ziur aski, 90eko hamarkadako nazioarteko koiunturaren ondorioz. Bere gaztetako militantziazatik urundu nahiko balu bezala, ezker iraultzaileari mesianismoa, dogmatismoa eta sektarismoa leporatzen dizkio. Nolabaiteko kritika zilegi den arren, gehiegi tematzen da horretan. Ezker erradikala «dogmatiko eta heldugabea» zela esaten du eta aldaketa sozialerako edozein espektatiba «bitxikeria» modura irudikatzen ditu. Horrexegatik, Ricard Martinezek «posmodernotzat» dauka obra hau⁴⁰. 2017an Madrilen egin zen ezker iraultzailearen inguruko kongresuan parte hartu zuen Jose Manuel Rocak. Orduan, liburuan argitaratutakoa baino ikuspegi neurtuagoa erakutsi zuen, ñabardura gehiagorekin osatua⁴¹.

Neurri handi batean, bi egile hauen jarrera garaiko nazioarteko egoeren ondorioz uler zitekeen. Izan ere, liburuok Ekialdeko Blokearen erorketa ondorego giro politikoaz blaituta daude. Sozialismo errealearen erreferentearen desagerpenak, ezkerreko mugimendu eraldatzaile gehienentzako krisia eta noraeza ekarri zuen. Askok SESB kritikatzeko bazuten ere, munduan beste sistema sozial eta politiko bat egoteak kapitalismoaren nagusitasuna zalantzan jartzen zuen, eta bestelako ereduak posible zirela sinestea ahalbidetzen. Baina Sobietar Batasunaren porrotaren ondorioz, Mendebaldeko eredu kapitalista nagusitu zen eta merkatu-ekonomiak bere burua zilegi eta egingarri zen sistema ekonomiko posible bakar gisa irudikatzea lortu zuen. Aldi berean, proiektu ezkertiar eta iraultzaile guztiak lur jota geratu ziren eta *historiaren amaiera* aldarrikatu zuen olatu neoliberal eta *neocon* berriak.

Urriko iraultzak irekitako zikloa itxi eta gero, kapitalismoa jaun eta jabe zen testuinguru horretan, eta ezkerreko jarrera iraultzaileek sinesgarritasuna galdu berritan, ez da harrizkoa Laizek

39 Jose Manuel Roca (ed.), *El proyecto radical. Auge y declive de la izquierda revolucionaria en España (1964-1992)*, Los libros de la Catarata, Madril, 1994.

40 Ricard Martinez I Muntada, «La izquierda revolucionaria en tiempos de cambio político... 144-145.

41 Jose Manuel Roca, «Batallas Y Derrotas De La Izquierda Radical En La Transición», Fundación Salvador Seguí-Madrid (koord.), *Las otras protagonistas de la Transición. Izquierda radical y movilizaciones sociales*, Editorial Descontrol, 2018, 732-772.

zein Rocak ezker erradikalari buruz erakutsi zuten ikuspegia: kritika gogorra, aurreiritziak eta topikoak ziren nagusi.

Post-15M Loraldia

Hurrengo urteetan egoera ez zen sobera aldatuko, eta argitalpenak oso urriak izanen ziren. 2010ko hamarkadaren bueltan —bereziki bigarren erdialdetik aurrera— joera hori aldatzen hasiko zen arte. Joera aldaketa hori Espainiako giro politiko-kulturalaren garapenarekin hertsiki loturik egon zen. 2008an higiezin burbuila espekulatiboak eztanda egin zuen eta Espainia beheraldi ekonomikoan murgildu zen. Langabezia, etxe-kaleratzeak, pobrezia zabalkundea eta biztanle askoren behar gorriarekin batera, agintari politikoekiko haserrea pilatu zen herritarrengan, 2011ko maiatzaren 15ean egoera larri horri aurre egiteko protesta mugimendu heterogeneo eta espontaneo bat sortu zen arte. 15M edo Hiritar Suminduak izeneko mugimenduak gizarte mugimendu berrien olatu bat ireki zuen espainiar estatuan. Ustelkeriak, beheraldi ekonomikoak eta erakunde publikoen zilegitasun ezak *78ko Erregimena* deiturikoaren oinarrietan zeuden kontsentsu eta akordioen gaineko kritikak hauspotu zituzten. Horren ondorioz, jende askok atzera begiratu zuen, eta Erregimen horren sorrerako legitimitateari begiratzeko eta hura aztertzeko gogoia sortu zen. Modu hartara, Erregimen bera lehendabiziko aldiz kritikatu zuten korrante politikoen inguruko interes publikoa eta akademikoa piztu zen⁴². Giro kultural eta politiko horren etsenplu xume modura bi lan aipa litezke. Alde batetik Eugenio del Riok, Mugimendu Komunista (MC, Movimiento Comunista) alderdiaren idazkari nagusi izandakoak, *De la Indignación de ayer a la de hoy* (2012) liburua argitaratu zuen⁴³. Izenburua bera oso argigarria da (Atzoko suminduratik gaurkora), bi garai ezberdinetako gizarte mugimenduen arteko lotura egiteko borondate argia zegoela erakusten baitu. Eta bestetik, aipagarria da ere, Podemos alderdiko sortzaile izan zen Juan Carlos Monedero-k *La Transición contada a nuestros padres* (Trantsizioa gure gurasoei kontatua, 2011) argitaratu izana⁴⁴.

Honekin batera, Memoria Historikoaren aldeko elkarten bultzadak ere zerikusirik izan zuen loraldi honen sorrerarekin. Hasiera batean, Espainiako mugimendu memorialistikoak Gerra Zibileko biktimen aitortzan eta gerraondoko errepresioa politikoaren ikerketan zentratu izan da batez ere. Joera horren jarraipen modura, mugimendu memorialistikoaren eskaera zabaldu eta moldatu egin

42 Horren inguruko irakurketa interesgarria youtuben eskuragarri: Emanuele Treglia, *Las razones de los vencidos. Los discursos radicales durante la «primera» transición española y su recuperación en la «segunda»*, Conferência Museu Aljube - IHC: Esquerdas Radicais Ibéricas, processo revolucionário e transição democrática - ruptura e consenso. Perspectivas comparadas.; 2018ko azaroaren 22a, Lisboa, Portugal, <https://www.youtube.com/watch?v=PK547QCUHZM> (2020ko apirilean kontsultatua).

43 Eugenio del Rio Gabarain, *De la indignación de ayer a la de hoy*, Talasa, Madril, 2012.

44 Juan Carlos Monedero, *La Transición contada a nuestros padres. Nocturno de la democracia española*, Catarata, Madril, 2011.

zen: 60ko eta 70eko hamarkadetako errepresioaren salaketak eta diktaduraren hondar urteetan eskubide urraketek eragindako biktimen aitortza egiten hasi ziren, eta erreparazioa eskaerak egiteko ekimenak martxan jarri zituzten. Horrelakoetan ezker iraultzaileko militante izandakoekoso modu aktiboan parte hartu dute, beren larruazalean sufritu baitzituzten eskubide urraketa frankisten ondorioak. Zentzu horretan egin izan den ekimenik garrantzitsuena Argentinako Servini epaileak 2010 abiatutako kereila edo auzibidea da, zeinaren bidez frankismoak egindako gizadiaren aurkako krimenak epaitu nahi diren⁴⁵.

Testuinguru politiko-kultural horretan, hainbat eta hainbat artikulua argitaratzen hasi ziren ezker iraultzailearen inguruan. Egun, ikergaiaren egoera biltzen dituzten lan osatuenak Joel Sansek eta Julio Perez Serranok kaleratutakoak dira. Perez Serranok egindako lana bereziki azpimarratzekoa da, azken urteetan egindakoaren zerrenda eguneratu bat jaso du eta⁴⁶.

Orain dela zenbait urte, ezker erradikalaren bi alderdi konkreturen inguruko liburu bana argitaratu zen. LCR eta PTERi buruzko liburuez ari gara. Bi liburuok militante ohien elkarten ekimenez sortu ziren, eta ondorioz malenkonia militantearen eta historia akademiko zorrotzaren arteko orekan kokatzen dira. PCE(i)-PTERenak *Pan, trabajo y libertad. Historia del Partido del Trabajo de España* du izenburua eta 2011an argitaratu zen⁴⁷. Liburuak alderdiaren historia osoa erreparatzen du, PCE(i) sortu zenetik, ORTrekin egindako batasunak porrot egin eta desagertu zen arte. Jose Luis Martin Ramos historialariak koordinatu zuen arren, desoreka nabariak dituen lana da, lau lagunen artean idatzi baitzuten. Egiten dituen ekarpenak interesgarriak diren arren, ez dira akademikoki distiratsuak.

2014an, aldiz, *Viento Sur* aldizkariari lotutako Oveja Roja argitaletxeak *Historia de la Liga Comunista Revolucionaria* kaleratu zuen, Marti Causa eta Ricard Martinez i Muntada LCRko kide ohiek editatuta⁴⁸. Liburuak LCR (Liga Comunista Revolucionaria) alderdiaren ibilbide osoa egiten du, baita haren zatiketa izan zen LCrena (Liga Comunista) ere. Kasu honetan, kapitulu bana eskaintzen zaio hainbat gai bereziri: frankismoko espetxeetako egoerari eta handik egindako

45 Chato Galante, Luis Suárez-Carreño y Manolo Blanco Chivite, «La Herencia De La Transición: Un Sistema Lastrado Por El Franquismo», Fundación Salvador Seguí-Madrid (koord.), *Las otras protagonistas de la Transición...* 337-344. Frankismo garaiko presio ohien La Comuna elkarteak lan handia egin du diktaduraren biktimei errekonozimendua eta justizia eskatzeko <http://www.lacomunapresxsdel franquismo.org/> (2020ko abuztuaren kontsultatua).

46 Julio Perez Serrano, «Los proyectos revolucionarios en la Transición española: cuestiones teóricas e historiografía», Z. Carandel, J. Perez Serrano, M. Pujol Berché, A. Taillot, *La construcción de la democracia en España (1868-2014) Espacios, representaciones, agentes y proyectos*, Nanterre, Paris, 2019, 567-589. Joel Sans Molas, «L'esquerra revolucionària i el seu paper ...».

47 Jose Luis Martin Ramos (koord.), *Pan, trabajo y libertad: historia del Partido del Trabajo de España*, El Viejo Topo, Bartzelona, 2011. PTERi buruzko beste lan bat ere badago, baina kasu honetan militanteen memoriari erabat lotua: Hainbat egile, *PTE, la lucha por la ruptura democrática en la Transición*, EDILESA, Madrid, 2010.

48 Marti Causa, Ricard Martinez i Muntada (ed.), *Historia de la Liga Comunista Revolucionaria (1970-1991)*, La Oveja Roja, Torrejon de Ardoz, 2014.

borrokaldiei, barne demokraziari (alderdi troskistek garrantzi handia ematen baitzioten horri) eta feminismoari. Liburuaren osagarri modura, egileek dokumentu originalez hornitutako web bat antolatu zuten, alderdiaren prentsa, barne buletinak edota kongresuetako aktak dakartzana⁴⁹. Mota honetako baliabideak oso lagungarriak dira gaurko ikertzaileentzako, iturri historikoak eskura edukitzeak lana asko errazten duelako.

Loraldi horren testuinguruan, ziur aski, orain arte ezarri den mugarririk garrantzitsuena Gonzalo Whilhelmik 2016ean kaleratu zuen *Romper el consenso* izan zen⁵⁰. Whilhelmik Madrileko ezker iraultzaileari buruzko doktorego tesi bat egin zuen eta egindako lan hori oinarri hartuta estatu osoko markoa ikuspegi global batez hartzen zuen obra bat egin zuen⁵¹. Gaur gaurkoz, ezker erradikalaren inguruko erreferentziazko lana hauxe da, ia eskuliburu modura har litekeena.

Lan horren markoa kronologikoa 1975 eta 1982 artekoa da, eta beraz, frankismotik monarkia parlamentarioa berrezarri eta egonkortzen den arteko prozesua kontuan hartzen du. Esan dugun bezala, ikuspegi orohartzailea dauka. Alderdi eta mugimendu erradikal nagusiei errepasso orokor bat egiten die (kultura militantea, programa eta ildo politikoak, barne funtzionamendua, eta abar). Gainera, askotariko mugimenduak aztertzen ditu: alderdi marxista nagusienak (PTE, ORT, MC, LCR, ...), anarkistak, libertarioak, autonomoak (Liberación), abertzaleak (ezker abertzalea, PSAN katalana, UPG galiziarra, ...) eta baita mugimendu kristauak ere (kristau antikapitalistak, Comunidades Cristianas Populares). Are gehiago ere, alderdien gainetik mota guzietako gizarte mugimenduak kontuan hartzen ditu: feminismoa, ekologismoa, auzo mugimendua, soldadu eta polizia demokratikoena, mugimendu bakezale eta antiinperialistak, elbarrien eskubideen aldekoak, homosexualen askapenerakoak, preso sozialak eta abar.

Laizek eta Rocak erabiltzen zituzten **aurreiritziak eta topikoak gainditzen ditu Whilhelmik** eta ezker iraultzaileari eta gizarte mugimenduei **trantsizioan zehar izandako papera aitortu** egiten die. Lan horretan, Laizek ez bezala, Whilhelmik ez dio alderdi iraultzaileen ildo politikoari horrenbeste erreparatzen, eta **fokua gizarte mugimenduetan eragiteko zuten ahalmenaren gain** jartzen du. Gainera, militantziaren egunerokotasunaren inguruko hainbat aspekturi buruz (militanteen jatorria, pizgarriak, zergatiak, antolakuntza eta finantzaketa moduak, ...) hausnartzen du.

Obra horretan, ezker erradikalaren eragin-esparru garrantzitsuena langile mugimendua zela defendatzen da, eta langile identitatea ezker erradikalaren parte zela azpimarratu, ikasle burges

49 <https://historialcr.info/> (2020ko martxoan kontsultatua)

50 Gonzalo Whilhelmi Casanova, *Romper el consenso. La izquierda radical en la Transición (1975-1982)*, Siglo XXI, Madril, 2016.

51 Gonzalo Whilhelmi Casanova, *Izquierda revolucionaria y movimientos sociales en la transición. Madrid, 1975-1982*, UAM, Madril, 2014, argitaratu gabeko doktorego tesia.

errebeldetako zirelako aurreiritzia alde batera utzita. Egileak genero ikuspegia ere txertatzen du zenbait pasartetan, hala nola, emakumeek militantzia eta etxeko zereginak uztartzeko zituzten zailtasunak edota alderdi eta mugimenduetan bizi zituzten diskriminazio edo zapalketak.

Ezker erradikalaren aurkako estatu-errepresioari eta giza eskubideen urraketari ere liburuaren zati bat eskaintzen dio. Errepresio horren forma ezberdinen (eskuin muturreko eta talde parapolizialen erasoak, erailketak, torturak, ...) zenbaketa jasotzen duen taula dakar liburuak, eta errepresio modu horiek ezker erradikalarengan izan zuten eragina islatzen du.

Kritikaren bat egitekotan, batzuetan deskriptiboegia izatea egozten ahal zaio, eta ahozko iturriak erabiltzerakoan oinarriko militante gehiago (eta ez horrenbeste agintari) erabiltzea aberasgarriagoa litzatekeela.

Egilearen tesi nagusia ezker iraultzaileak **frankismoaren aurkako borrokan paper oso garrantzitsua eta azpimarragarria** izan zuela da, eta gutxiengoan egon bazen ere, ezker iraultzailea borrokak politizatzen, zabaltzen eta aldaketa politikoa bultzatzen ezinbesteko papera bete zuela. Gizarte mugimenduen mobilizazioek (langile, auzo eta ikasle mugimenduek bereziki) diktaduraren jarraipena oztopatu zuten, eta ondorioz, Gobernuak hasierako proiektu kontinuitate mantendu beharrean bere burua aldaketak egitera behartuta ikusi zuen.

Egileak Haustura Demokratikoaren programaren gutxi gora beherako deskribapen bat egiten du, eta haren ardatz nagusienak oposizioko indarren plataforma unitarioen (*Junta* eta *Plataforma, Platajunta*) programarekin alderatzen ditu. Baina Hausturaren aldeko programak zerbait homogeneo modura aurkezten ditu, ñabardurarik gabe. Berez, errealitatean ez zen horrela izan, ezker iraultzailea sektore politiko oso heterogeneoa baitzen. Ezker erradikaleko indar nagusienek (PTE, ORT eta MC) oposizioko plataforma unitarioen programak akordiorako gutxiengo oinarri minimo gisa defendatzen zituzten arren, beste korrante batzuek oinarri horiek erabat kritikatzeko zituztela ahazten du: troskistek, anarkistek edo autonomoek esaterako.

Frankismoaren erreforma proiektuak aurrera egin ahala, antifrankismoko alderdi nagusienak (PCEk) mobilizazio orokor eta zabaldu bat egiteari uko egin zion, kontrolatutako presio puntualaren bidez negoziaketak baldintzatzea lehenetsi baitzuen. Ezker iraultzailea bakarrik geratu zen Erregimenaren erorketa greben eta mobilizazioen bidez bultzatzeko. Hori gutxi balitz, Espainiako estatuan zeukan errotze desorekatuaren eta haien arteko sektarismoaren eta alderdikeriaren ondorioz, ez ziren mobilizazio orokor bat koordinatzeko gauza izan.

Whilhelmiren ustez, ezker iraultzaileko alderdiek lantokiei eta gizartearen berehalako beharrei loturiko mobilizazioak eta protestak egiterako orduan arrakasta izan bazuten ere, **alderdi iraultzaileek ez zuten jakin nola lotu aldarrikapenok Hausturaren behararekin**. Hutsune hark garrantzi handia izan bide zuen Haustura Demokratikoaren proiektu politikoaren porrotean, PCEren

politika epelak baino gehiago. Ezker iraultzaileak, antifrankismoaren gehiengoa batzea lortu ez zuenez eta PSOE eta PCEn jarrera epelari aurre egiteko gauza izan ez zenez, ez zen Erregimen berriaren ezarpena gelditzeko edo oztopatzeko gauza izan, baina prozesua baldintzatu zuen. Haustura PCEn babesarekin oso zaila zen, baina PCERik gabe ezinezkoa⁵².

Whilhelmirenaz gain, azkeneko urteetako loraldiak eman duen lan berritzaileenetako bat David Behorlegiren *Transición y Melancolía* da⁵³. Lan horrek ezker iraultzailea lantzen badu ere, ikergaiarengana hurbiltzeko duen modua erabat ezberdina da, *sentimenduen historia* egiten baitu. Euskal Herriko Trantsizio garaiko **ezker iraultzaileko militantziaren dimentsio subjektiboa** aztertzea helburu duen lana da.

Behorlegiren laneko kontzeptu giltzarria *desengainua* da (erdarazko bertsio originalean *desencanto*). Egileak *desengainua* «goibeltasun politiko» (*tristeza eminentemente política*) eta «modernitatearen ifrentzu ilun» modura identifikatu du⁵⁴. Trantsizio garaiko militante ezkertiarren **perspektiba iraultzaileek Erreformaren errealitatearen aurka talka egiterakoan sortu zen erantzun emozionala** izan zen, hau da, hainbeste eginahal eta gero, espero zuten helburu politikoa beteko ez zela ohartu zireneko atsekabeari deitzen dio Behorlegik *desengainua*.

Frankismoaren hondar urteetan, ezker iraultzaileko kideek gizartearen eraldaketa sakona epe motz edo ertain batean gerta zitekeela uste zuten, eta mobilizazioen goraldi horrek euforia giroa zabaldu zuen jende borrokalari eta konprometituarengan. Borrokaren premiak zorrotzak ziren, eta helburu politiko nagusiaren hurbiltasunak sakrifizio ugari egitea eskatzen zuen. Baina Trantsizioak aurrera egin ahala, espero zuten iraultza hori gertatuko ez zela ohartu zirenean, eskura zirudien helburu politikoa (iraultza) desagertu eta iraultzarako aukera orok eskuetatik alde egin zien. Desengainuari emandako erantzunak askotarikoak izan ziren, militanteen bizitza ibilbideak bezainbeste. Batzuek militantzia utzi zuten, erabat atsekabetuta, eta besteek borrokan jarraitu zuten korrante politiko edo gizarte mugimendu berrietan (Behorlegik *berliluratzea*, edo *reencanto* deitu dio horri). Beste militante batzuek, ordea, mundua aldatzeko etorkizuneko iraultzari itxaron beharrik gabe errealitatea momentu horretatik bertatik eraldatzen hastea erabaki zuten, komuna hippyetan esaterako; edota etorkizunarengan konfiantza guztiz galdurik, *No future!* leloa zuen punk mugimenduan murgildu ziren beste asko.

Ahazkotasuna obra honen erdigunean dago. Izan ere, egindako ia 60 elkarrizketen bidez, lehen mailako iturriok funtzio bikoitza betetzen dute: iragana aztertzeko tresna izateaz gain, aldi

52 Gonzalo Whilhelmi Casanova, *Romper el consenso...* 366-369.

53 David Beorlegui Zarranz, *Transición y melancolía. La experiencia del desencanto en el País Vasco (1976-1986)*, Postmetropolis Editorial, Madril, 2017.

54 *Ibid.* 105-106.

berean, iturria bera zientzia historikoaren objektu bilakatzen da. Egileari iraganeko gertakizunak interesatzen zaizkio, baina baita gertakizunok berriemailearengan utzi izan duten arrastoa ere.

Ikuspegi hau erabat heterodoxo eta postmodernoa da⁵⁵. Baina giza-sentimenduak *historiagarriak* dira? Nola baliatu dezakegu sentimenduen historia gizarte mugimenduen eta korrante politiko askatzaileen historia soziala arakatzeko? Historiografiatik gutxi aztertu izan diren arren, sentimenduak giza izaeraren parte dira eta prozesu historiko guztietan eragina izan duten beste aldagai gisa ulertu behar ditugu. Zenbaitetan oso modu zurrunean aztertu izan dira gizarte mugimenduak. Baina giza taldeek protesta egiteko erabakia hartzen dutenean, ez dute beti hausnarketa arrazional baten ondorioz egiten, bestelako aldagai kontrolagaitz batzuek ere eragiten dute, eta hor sentimenduek (irrazionalak izan daitezkeenak) paper bat jokatzeko dute. Sentimenduen historiak klase identitatea nola eratu zen, borrokatzeko grina eta pizgarriak nolakoak ziren, edota porrota gertatu zenean, horri zer nolako erantzuna eman zitzaion ulertzeko balio dezake.

Esan bezala, azken urteetan ezker iraultzailearen inguruko ikerketen loraldia gertatu da, eta aipatutako loraldi horren antzeppen publikoa 2017ko otsailean izan zen, Madrilen *Las otras protagonistas de la Transición* (Trantsizioaren beste protagonistak) izenburupeko kongresuan⁵⁶. Salvador Seguí Fundazioak —International Oral History Association (IOHA) eta Madrilgo Complutense Unibertsitatea (UCM) laguntzarekin batera— hiru eguneko biltzarra antolatu zuen eta erabateko giro entusiasta eta euforikoan egin zen. Guztira, ehundik gora ponentzia aurkeztu eta 400 bat entzule bertaratu ziren.

Esan bezala, orokorrean oso giro entusiasta eta euforikoa bizi izan zen kongresuan. Beharra bazegoela nabari zen: Trantsizioari buruz eta mugimendu sozial iraultzaileei buruz hitz egiteko beharra, bai ikertzaileen aldetik baita militante izandakoen aldetik ere.

Oso topagune bitxia eta interesgarria izan zen, eztabaida eta mahai-inguruetan militante izandakoak, akademiako aditu jantziak eta ikerlari gazteak nahastu baitziren. Hala, haien arteko elkarrizketa memoria transmisio ariketa aberasgarria izan zen. Iraganeko memoria eta ikerketa akademikoaren arteko harremana eztabaidatua eta gatazkatsua izan den arren, kasu honetan oztupoak gainditu eta elkarri elikatu zioten.

Aurkeztu ziren ponentzien artean askotariko lanak aurkitu ziren, esate baterako: militante izandakoen lehen mailako testigantzak, giza eskubideen urraketan aurkako memoria elkarteek ekarpenak edota ikerlarien artikulu zientifikoak. Horietako batzuk —gutxiengoa— malenkoniatik eta etsipenetik idatzitakoak ziren, beste asko zorrotasun zientifikoko oinarri sendoekin egindako ekarpenak izan ziren. Izan ere, ezker erradikalaren helburu politikoak bete ez baziren ere (Haustura

55 Kasu honetan, hitz honen zentzu positiboan, ez Rocarenean bezala.

56 <https://congresotransicion2017.wordpress.com/> (2020ko martxoan kontsultatua)

Demokratikoa eta iraultza soziala gertatu ez zirelako), **argi geratu zen ezker iraultzaileak frankismoaren hondar urteetako mobilizazioetan ekarpena egin zuela**, hainbat tokitan egoera erradikalizatzea eta politizatzea lortu zuelako.

Mahai-inguruetan gai ezberdin ugari landu zen: Andaluziako nekazal borrokak, sexu askapenerakoak, feminismoa eta generoa, esperientzia militantea, kontrakultura, auzo mugimenduak, langile mugimendua eta alternatiba sindikalak, antolaketa ereduak, eskala maila ezberdinetako ekarpenak (lokalak, eskualdekoak, nazionalak ala estatalak), borroka armatua, alderdi eta antolakunde ezberdinen inguruko monografikoak eta baita ezker erradikalaren inguruko hainbat artxiboren funtsen azalpenak ere. Horiek guztiak bideoan grabatu zituzten, eta gehienak Youtube atarian eskuragarri daude⁵⁷. Gainera, aurkeztu ziren artikulua guztiak Interneteko atari batean eskuragarri jarri ziren, liburu batean bildurik eta sarrera librearekin.⁵⁸

2019ko udazkenean, aldiz, kongresu horren bigarren edizioa antolatu zen⁵⁹. Kasu honetan Bartzelonan izan zen, eta horretarako esparru berezia aukeratu zuten: Trantsizioan zehar Nou Barris-eko auzo mugimenduak borroka luzeen ondorioz lortutako Ateneoan izan zen. Bigarren edizio hori, lehenbizikoa baino apalagoa izan zen; ez baitzen horrenbesteko jendetza joan eta aurkeztutako dokumentuak urriagoak izan baitziren. Hala ere, bertako ekarpen eta eztabaidak mamitsuak izan ziren baita ere, eta lehendabiziko edizioan bezala, aurkeztutako lanak liburu batean jasoko dira.

Portugalen ere gai horren inguruko interesa piztu da, eta azken urteetan gutxienez nazioarteko bi topaketa egin dituzte. Biak Lisboako Museo do Aljuben egin dira, zeina diktadura salazaristaren biktimen omenezko memoria zentro bat baita. Lehendabizikoa 2018ko azaroan izan zen *Esquerdas Radicais Ibéricas, Processo Revolucionário e Transição Democrática – Ruptura e Consenso. Perspectivas Comparativas* izenburupean. Bigarrena, aldiz, 2019ko ekainean *As Esquerdas Radicais Ibéricas entre a Ditadura e a Democracia. Percursos Cruzados*⁶⁰. Ekimenok interesgarriak dirudite, batez ere, Espainiakoei baino ikuspegi zabalagoa izan dutelako, eta marko iberikoan konparatiba transnazionalak egiteko eginahala propio egin dutelako. Kasu horretan ere,

57 <https://www.youtube.com/watch?v=Ge5iaR01vV0&list=PLXNxxjLQHhcWEud5PY8FACr15OC3IzOoBR> (2020ko martxoan kontsultatua.)

58 http://www.fundacionssegi.org/madrid/files/books/las_otras_protagonistas_libro.pdf (2020ko martxoan kontsultatua.)

59 <https://congrestransicio2019.wordpress.com/> (2020ko martxoan kontsultatua)

60 <https://www.museudoaljube.pt/evento/esquerdas-radicais-ibericas-processo-revolucionario-e-transicao-democratica-ruptura-e-consenso-perspectivas-comparadas/> (2020ko apirilean kontsultatua)
https://www.museudoaljube.pt/wp-content/uploads/2019/06/2019_06_27-28-Seminario-Internacional.pdf (2020ko apirilean kontsultatua).

uzta editoriala emankorra izan da: liburu bat eta Youtuben ikusgai dauden hainbat konferentzia argitaratu dira⁶¹.

Azken urteetan, bestalde, hainbat doktorego tesi aurkeztu dira gaiaren inguruan. Joel Sansek esaterako, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan (UABn) OIC alderdiari buruzko doktorego tesia aurkeztu zuen 2017ko ekainean. Oraindik argitaragabea da baina Interneten eskuragarri dago⁶². Sansek kontseilu-komunismoaren aldekoa zen OIC alderdiaren ibilbide historikoa (sorrera, errotzea, zabalkundea, programa politikoa, barne eztabaidak, gatazkak, krisia eta desagerpena) ikertzeaz gain, **bitza-esperientzia militanteari garrantzi handia** ematen dio bere lanean. Esan nahi baita, militantzia iraultzaile horretan murgiltzerakoan eta horrelako konpromiso sendoak hartzerakoan alderdi pertsonalak izan zuen garrantzia aztertzen du; besteak beste, ardura politikoen eta nahi pertsonalen arteko tentsioak eta talkak, kideen lehentasunak, ideien sistemak, arriskatzera bultzatzen zituen errebeldia sentimenduak eta abar. Ezker erradikaleko militante askorentzako alderdi iraultzaile batekin konprometitzea matxinada pertsonal baten modukoa izan bazen ere (zenbaitetan aurreko testuinguru sozial edo familiarrekin erabateko haustura zekarrelako), klandestinitateak eta diziplinak arau zorrotzak ezartzen zituzten, eta beraz, kalte pertsonalak eta egoera kontraesankorrak sor zituzketen.

Bartzelonan baita ere, Bandera Roja alderdiaren inguruko bete tesi bat egin zuen Josep Maria Solé Soldevillak⁶³. Horretaz guztiaz gain, jakin izan dugunaren arabera, oraintxe bertan Espainiako estatuko hainbat unibertsitateetan hainbat doktore-tesi martxan leudeke: Javier Fernandez Rincon madrildarra MC-ri buruzko bat egiten ari da UNED-en, Tatiana Romero Reina LCRko emakumeen inguruko beste bat Madrileko Complutensean (UCM), Miguel Garcia Lerma jaendarra euskal sindikalismo erradikalari buruz EHU-n, Victor Peña Gonzalez alderdi *prosobietiko* eta ortodoxoei buruz Cadizeko UCAn eta Ricard Martinez kataluniarra LCRri buruz UABn, besteak beste.

Orokorrean, loraldi garai honetako ekoizpen editorialetan **memoria militanteak pisu garrantzitsua dauka**. Onerako zein txarrerako, egindako ekimen gehienetan pisu hori nabari da: kongresuetan eta LCRko eta PTEko kide ohiek egindako liburuetan, jakina. Baina baita lan akademikoetan ere, ez baita harrizkeoa militante izandakoek ezker iraultzailearen inguruko

61 Ana Sofia Ferreira, Joao Madeira (Koord.), *As Esquerdas Radicais Ibéricas entre a Ditadura e a Democracia. Percursos Cruzados*, Edições Colibri, Portugal, 2020.

<https://www.youtube.com/watch?v=xu46K9ACDIA&feature=youtu.be&list=UUtpqpw9Exj0BAPweSN7f3DQ>
(2020ko apirilean kontsultatua)

62 Joel Sans Molas, *Militancia, vida y revolución en los años 70: la experiencia de la Organización de Izquierda Comunista (OIC)*, UAB, Cerdanyola del Vallès, 2017, argitaratu gabeko tesia. <https://ddd.uab.cat/record/187368>
(2020ko martxoan kontsultatua)

63 Josep Maria Sole Soldevilla, *Bandera Roja (1968-1974)*, UB, Bartzelona, 2019, argitaratu gabeko tesia. <https://www.tdx.cat/handle/10803/666895#page=1> (2020ko martxoan kontsultatua)

doktorego tesiak, artikulua eta ikerketak egitea, esate baterako: Consuelo Laiz, José Manuel Roca, Josepa Cucó, Ricard Martínez, Vicent Cremades, ... Duela oso gutxiko ikergaia denez, historia horren protagonistak oraindik geure artean daude, eta gainera, haien proiektu politikoa porrotean geratu zenez, eta askotan alderdiak bat-batean desagertu zirenez, zenbait aspektutan itxi gabeko gaia da.

Esan bezala, hain gertuko ikergaia izateak alde onak eta txarrak ditu. Alde batetik, oso positiboa da iturri idatziak eta, batez ere, ahozkoak eskuragarri daudelako oraindik. Baina, bestetik, askotan militante izandakoek ez dute behar bezalako zorrotzasunik erabiltzen. Batzuetan garai hartako porrotaren etsipenaren ondorioz merezitakoa baino kritika gogorragoak egiten dizkiotelako (Rocaren kasuan esaterako); eta beste batzuetan, malenkoniak bultzaturik eta behar identitarioei eta kolektiboiei erantzuteko asmoz izaera militantea duten lanak bultzatzen dituztelako. Horrek, batzuetan, ikertzaileen eta ikergaiaren arteko lotura eta konpromiso politikoa agerian uzten du. Baina hala ere, ikertzaileen belaunaldi gazteek sektore politiko horrekiko distantzia handiagoa hartzeko ahalmena izanen dute. Horrek ez du esan nahi ikertzaile gazteagoen jakin-mina eta pizgarriak erabat garbi eta orbangabeak direnik, izatez ikertzaile gazteek ere ikergai baten inguruko pizgarri propioak eta lotura sentimentalak dituztelako. Baina, erabat bestelakoak direlakoan gaude, eta ondorioz, distantzia horrek mesede egingen die ikerketarako momentuan, zorrotzasun zientifiko gehiagorekin jokatzeko, ez baitira horren kateaturik egonen.

Espainiako historiografiaren beste ezaugarrietako bat **korronte politiko iraultzaile hori bazterreko modura kontsideratzea** izan da. Antifrankismoaren parte ziren indar politikoen artean, Espainiako alderdirik nagusiena PCE zen, eta ezker iraultzailea osatzen zuten alderdien batura beti egon zen PCEren nagusigoaren azpitik. Beraz, ikuspegi estatal horrek korronte hori beti bazterreko modura kontsideratzera eramán ditu.

Baina Hego Euskal Herriaren kasua ez zen horrela izan. Ezker iraultzaileak indar politiko heterogeneo baina nabarmen bat osatzen zuen, eta bestelako indar iraultzaileekin batera egoera berezi bat osatzen zuen Euskal Herrian, zentraltasun politiko handikoa, eta, inolaz ere, bazterrekoa. Gainera, Trantsizioan zehar, Espainian alderdi iraultzaileen indarrak apaldu ahala, eta egoera egonkortu ahala, Hego Euskal Herrian egoera oso ezberdina izan zen. Gizarte mugimenduen osaera itxuraldatu eta mutatu bazen ere, intentsitate handiko gatazka sozialek hainbat urtez iraun zuten (bereziki auzi nazionalari dagokionez, baina ez soilik). Beraz, historiografia estatalek proposatzen dituzten markoak Nafarroa Garaia edo Hego Euskal Herriari itsu-itsuan moldatzea arazoak ekar ditzake. Haustura Demokratikoa inon baino hurbilago egon bazen, Hego Euskal Herriko lurraldeetan izan zen. Beraz, korronte iraultzaileek zuten indarraren, erreforma prozesuari eta kontsentsuei aurre egiteko prest zegoen oinarri sozial zabalagoaren, eta indarkeria politikoak

espazio publikoan zuen presentzia nabarmen handiagoaren ondorioz, Hego Euskal Herriko Trantsizioarentzako marko teoriko berezi bat erabiltzea komenigarria da.

Nafarroako eta Euskal Herriko bibliografia

Esan berri dugun bezala, Hego Euskal Herrian izan zuen ezker erradikalak inon baino errotze ahalmen handiagoa. Baina harrigarria bada ere, horren inguruko lan monografiko gutxi dago oraindik. Euskal Herriko Trantsizioan borroka armatuak izan duen garrantzia eta jarraikortasuna zela eta, eta hurrengo hamarkadetan euskal politikan izan duen eragin lazgarriaren ondorioz, gai horrek itzala egin dio ezker iraultzaile estatistari eta antifrankismoan izan zuen protagonismoaren zati bat ezkutatu du. Frankismoaren aurkako protagonismoaren zati handi bat ezker abertzaleari eman zaionez, bere arrastoa bestelako lanetan zeharka baino ez da atzematen ahal.

Nafarroako bibliografiaren kasuan, langile mugimenduaren inguruko bi lan nagusi ditugu: Jose Vicente Iriarte Areso-ren *Movimiento obrero en Navarra (1967-1977)* eta Nerea Perez Ibarrola-ren *Langileria Berri Baten Eraketa. Iruñerria 1956 -1976*⁶⁴. Lehendabizikoa obra klasikoa da dagoeneko. Frankismoaren hondar urteetako lan gatazkak urtez urte aztertzen ditu eta langile mugimenduan aritu ziren alderdi, sindikatu eta elkarteetan eta haien eztabaida estrategiko eta ildo politikoetan zentratzen da. Gainera, iturri estatistiko (greba kopurua, grebalari parte hartzaileak, galdutako lanorduak, ...) ugari dakartza.

Perez Ibarrolarenak, aldiz, langile mugimenduan baino, langile klasearen gain jartzen du fokua. Ez du, aurrekoak bezala, gatazka eta konfliktibitatearen urtez urteko azterketarik egiten, baizik eta langile klasearen eraketaren eta hura subjektu historiko izaterainoko prozesuarena.

Historia sozialaren korrante klasikoenetan, langile mugimendua aztertzerakoan, alderdiak, antolakuntza ereduak, korrante ideologikoak eta lidergoak aztertzeke ohitura zegoen. Ikuskera horiek, pentsamendu korrante marxista determinista eta ekonomizistenetan oinarritutakoak, langile klasearen kontzientziaren eraketa baldintza materialen garapenaren emaitza mekanikoa zela ondorioztatzen zuten, eta beraz, gatazka sozialak ia ezinbestean industria garapenarekin batera garatzen zirela uste zuten. Ikuspegi zurrun hauetatik ihesi, Perez Ibarrola E.P. Thompsonen ikuskerara hurbiltzen da. Historialari marxista britainiarraren arabera, klasearen eraketa prozesua modu konplexu eta dinamikoa sortu zen fenomeno historiko bat litzateke, ez egitura estatiko bat. Ondorioz, langile klasea subjektu historiko modura garatzeko prozesua aztertzeke ikuspegi kultural eta etnografikoa proposatu zuen, langileen esperientziak, tradizioak eta ohiturak oinarri hartuta.

64 Nerea Perez Ibarrola, *Langileria Berri Baten Eraketa. Iruñerria 1956 -1976*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 2017. Jose Vicente Iriarte Areso, *Movimiento obrero en Navarra (1967-1977)*, Departamento de Educación, Cultura, Deporte y Juventud, Iruñea, 1995.

Horrek *klase* kontzeptua erabat irauli zuen, eta zerbait zurruna eta estatikoa izan beharrean, diakronian behatu beharreko fenomeno historiko modura identifikatu zuen. Eredu thompsoniarraren arabera, klase kontzientzia langileen esperientzia bateratuen eta aurreko tradizio kulturalen oinordeko litzakete, denbora aurrera joan ahala gatazka sozialek momentuan duten egoerara moldatu eta aldatzen dena.

Perez Ibarrolak metodo eta eredu thompsoniarra geurera ekarri zuen. Iruñerriko langileen esperientzia komunak, sineskerak, gizarteratze espazioak eta tradizio kulturalak aztertzearen bidez, frankismoaren hondar urteetan Iruñerrian langile klasea subjektu historiko modura nola eratu zen aztertzen du. Horretarako, besteak beste, langileen esplotazio esperientziak, egunerokotasuna, bizitokiak (auzoak), antolaketa moduak, aisialdia edo soziabilitate esparruak arakatu ditu.

Perez Ibarrolak zein Iriartek, ezker iraultzaileari erreparatzen diote haien lanetan; izan ere, frankismoaren azken urteetan Nafarroako langile mugimenduaren barreneko indar nagusienak eta dinamikoenak korrante honetako parte izan ziren. Biek ala biek, ezker iraultzailearen errotze ahalmen hura azaltzeko industrializazio berantiarrak eragindako aldaketa sozial garrantzitsuei, aurreko tradizio ezkertiarrekiko hausturari, eta langile elkarte kristaueetan formatutako koadro politiko eta sozializazio esparruen erradikalizazioari garrantzi handia ematen diote.

Nafarroari dagokionez, kontua hartu beharreko beste lanetako bat Javier de Miguel Saenzen lizentziatura memoria da, 1986ko irailean Javier Tusell doktorearen zuzendaritzapean eginikoa. Zoritxarrez, lan hori ez zen osorik argitaratu eta laburpen xume bat baino ez zen kaleratu *Principe de Viana* aldizkariaren bidez⁶⁵. Javier de Miguel historialaria eta irakaslea ORTko militante izan zen, eta gero Euskadiko Langileen Partiduko (ORT-PTE, ELP) azken Komite Nazionaleko kide izan zen. Ondoren, Auzolan koalizioan eta Nafarroako Ezker Batuan (IUN-NEB) parte hartu zuen. De Miguelen lanak ORT alderdiaren ibilbidearen zati bat kontatzen du, Vanguardia Obrera elkarte kristauroko kide batzuek AST sindikatua sortu zutenetik, 1977ko hauteskundeetara arte. Esan bezala, egilea bera ORTko kidea izan zenez, bere ikergaia ongi ezagutzen du, eta programa, koiuntura politikoa eta garaiko eztabaida nagusiak xeheki lantzen ditu.

Lan hori bereziki interesgarria da alderdiaren sorrera fasea ezagutzeko, 1960ko hamarkada erdialdetik 1970era bitarte, gutxi gora behera, garai hartako oso iturri idatzi gutxi dagoelako; izan ere ASTk eta ORTk hainbat urtez ez zuten propaganda publikorik zabaltzen, urte haietan beren helburu eta zeregin nagusiak lantegietan Langile Komizioak sortzea eta eratzea baitzen. De Miguelek erabilitako ahozko iturrien bidez urte ilun horiek arakatu ditzakegu. Lana egin zenean,

65 Javier de Miguel Saenz, *La Organización Revolucionaria de Trabajadores. Sus orígenes y desarrollo en Navarra. 1964-1977*, lizentziatura memoria argitaragabea, 1986. De Migueli berari eskerrak eman nahi dizkiogu lan originala uzteagatik. Javier de Miguel Saenz, «La ORT en Navarra. Orígenes y desarrollo», *Principe de Viana. Anejo*, 16 zbk. (1992), 739-755.

gainera, oraindik denbora gutxi pasatu zen, eta memoria oraindik fresko zegoenez, erabili zituen ahozko iturriek fidagarritasun handia zeukaten.

Lana, zoritxarrez, 1977eko hauteskundeetan eteten da, eta ORT alderdiak ondorengo urteetan hartu zituen erabaki gatazkatsu eta polemikoenak (hala nola, Konstituzioaren inguruko jarrera, terrorismoaren inguruko kritika, PTErekin egindako fusioaren porrota, alderdiaren desagertzea edota kide izandakoek hartutako ibilbide politiko ezberdinak) ez dira jorratzen. Lizentziatura memoria dela kontuan edukita, lan txukuna dela esan daiteke, mota honetakoak normalean laburrak izaten zirelako. Baina, hala ere, pasarte analitiko eta kritikoren baten falta sumatzen da, eta lanaren bukaera borobiltzeko ondorio orokor batzuk ere.

Iñigo Perez Otxoak ere ezker erradikalaren inguruko hainbat lan egin izan ditu. Bestek beste, Erriberako oposizio antifrankistaren eta langile mugimenduaren inguruko laburpena egiten duen artikulua egoki bat du, garaiko korrante politiko nagusien erreposoa egiten duena⁶⁶. Lan honek Unibertsitate Ikerketarako Sancho el Sabio Sariaren I. Edizio irabazi zuen. Bestalde, 2001. urtean EHUUn UNAI koalizioaren inguruko tesina bat aurkeztu zuen. Lan mamitsu hori argitaratu gabe dago, baina lerrook idazten dituen ikerlariaren eta Perez Otxoaren arteko elkarlanaren ondorioz, dena ongi bidean, UNAI koalizioaren inguruko artikulua bat argitaratuko da aurki.

Bestalde, PCEml-ek eta FRAPek Nafarroan izan zuten presentziari buruzko informazioa dakarren obra bitxi bat dago: Alvaro Zaratiegiren *La Construcción del Sujeto en la Sociedad del Conocimiento. Trabajo y Memoria*. Oraindik bukatu gabe dagoen trilogia baten bigarren atala da eta pasarte laburren eta hausnarketan bidez osatutako liburua da⁶⁷. Liburuaren helburua nagusia «subjektu berri baten eraikuntzari» buruz hausnartzea da, gizakiak sortutako hizkuntza ezberdinen (arte, filosofia, zientzia) arteko lankidetzaren bidez. Izan ere, egilearen ustez, 1848an Manifestu Komunistaren argitalpenarekin abiatutako politika agortuta dago eta horregatik, ezinbestekoa litzateke politika berri bat eratzea. Subjektuaren bilaketan tematuta, zeregin horretan esperientzia pertsonalak eta memoriak garrantzi handia duela uste du Zaratiegik eta horregatik, 1971 eta 1976 artean PCEml alderdian eta FRAPen militatzerakoan izan zuen esperientzia kontatzen du. Zaratiegik bertatik bertarako ezagutza du, berak alderdi hori Parisetik Nafarroara ekarri baitzuen, eta beste kide batzuekin batera, hura antolatzen eta zabaltze lanetan aritu zen. Egileak berak, orain arte bere bizitzaren garai horri buruz oso gutxi hitz egiten duela aitortzen du, bere hitzetan, agian,

66 Iñigo Perez Ochoa, «Oposición al franquismo y movimiento obrero en Tudela en los últimos años del régimen franquista (1968-1977)», *Sancho el sabio: Revista de cultura e investigación vasca*, 10 zbk. (1999), 27-51.

67 E20 elkarrizketa, Alvaro Zaratiegi, Iruñean, 2019ko abenduaren 23an. Alvaro Zaratiegui Jurio, *La Construcción del Sujeto en la Sociedad del Conocimiento. Trabajo y Memoria*, Garaje Ediciones, Madril, 2019.

esperientziarekin «asebeterik» ez dagoelako⁶⁸. Baina hala ere, klandestinitatean borrokan aritutako urte haiek bere izaera markatu zutela aitortzen du: «ni naizen bezalakoa egin naute»⁶⁹.

Kutsu autobiografikoa duen kontakizuna da, esperientzia pertsonalek eta sentipenek pisu handia baitute. Aspektu doktrinario edo ideologikoan, iraganean defendatutako ideiekin kritiko jokatzeko du. Kontatzen dituen anekdota ugariak, aldiz, ezker erradikaleko kideen kultura militantea ulertzen lagun dezakete. Zaratiegik, 1976 eta gero, beste zortzi urtez segitu zuen PCEml-n militatzen, baina liburuan data horretan kontakizuna eteten du. Bere ustez, ordura arte lilura iraultzailea posible zitekeela zirudien arren, momentu horretatik aurrera militante iraultzaileak eta gizartearen gehiengoa «norabide ezberdinetan ibiltzen» hasi ziren, eta ondorioz, garaiak erabat aldatu zirenez, hurrengo urteetan gertatu zenari buruz idaztea ez zuen merezi⁷⁰.

Bestalde, Tratsizioari buruzko liburu sorta mardul xamarra dago Nafarroako trantsizio prozesu bereziari erreparatzen diona⁷¹. Lan horiek guztiek Nafarroak Francoren diktaduraz geroztik bizi izan zuen erakundetze prozesu korapilatsua lantzen dute. Ikuspegi ezberdinetatik egindako lanak dira, abertzaleetatik hasi eta nabarrismo espainolistaraino. Horietako batzuk ez dira historialariek eginak, legelariak edo politologoek baizik. Lan horien helburuak Nafarroako erakundetze postfrankista nolakoa izan zen, Nafarroa EAEn zergatik ez zen sartu azaltzea, eta bidenabar, Nafarroako Foru Hobekuntza eta Hego Euskal Herriaren zatiketa (kasuen arabera) txalotzea edo kritikatzeta. Horietan guztietan, ezker iraultzailea aipatu egiten den arren, sektore politiko hori zeharka baino ez da agertzen. Kasu batzuetan ezkerreko alderdi abertzaletzat hartzen dituzte, eta gehienez jota, modu anekdotikoan langile mugimendua dinamizatzen zuten mugimendu nagusiak zirela eta ezker abertzalearen hauteslegoa elikatu zutela baino ez da aipatzen. Zentzu horretan, ezker iraultzaileak emaitza elektoral apalak izan zituen arren, sektore politiko hura ezkutatu eta gutxietsi egiten dela iruditzen zaigu.

Halaber, Nafarroan ere ezker iraultzailearen inguruko ekoizpen dokumental militante eta memorialistikoak baditugu, bereziki Sanfermin 78 Gogoan ekimenaren inguruan. Esate baterako, LKiko militante zen German Rodriguez-en heriotza salatzeke egindako hainbat lan (Begoña Zabala,

68 Alvaro Zaratiegui Jurio, *La Construcción del ...* 81.

69 *Ibid.* «Me hicieron como soy».

70 *Ibid.* 213-214.

71 Álvaro Baraibar Etxeberria, *Extraño federalismo la vía navarra a la democracia, 1973-1982*, Centro de Estudios Políticos y Constitucionales, Madril, 2004. Floren Aoi Monreal, *El jarrón roto. La transición de Navarra: una cuestión de Estado*, Txalaparta, Tafalla, 2005. Juan Cruz Alli Aranguren, Joaquín Gortari Unanua, *La Transición política en Navarra. 1979-1982*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 2012. Juan Cruz Alli Aranguren, *La Autonomía de Navarra. Historia, Identidad y Autogobierno*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 2018. Jose Luis Ramirez Sadaba (zuz.), *Democratización y Mejoramiento Foral. Una historia de la Transición en Navarra (1975-1983)*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1999. Joaquín Gortari Unanua, *La Transición política en Navarra: 1976-79*, 2 bol. Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1995. Angel Pascual Bonis, «La Transición Política (1975-1982)», Angel Pascual Bonis, (Koord.): *Navarra durante el siglo XX: la conquista de la libertad*, 2001, 167-186.

Juan Retana eta Sabino Cuadra-ren lan bana esaterako) garai hartako giroa islatzeko balio dutenak, edota Fermin Valentzia kantari eta ORTko kidearen inguruko biografia argitaratu berria⁷².

Bukatzeko, azkenik hainbat artikulu eta liburu interesgarri azpimarratu genitzake. Alde batetik Jon Kortazar Billelabeitiak EMKri buruzko bi artikulu argitaratu zituen, horietako bat euskaraz⁷³. Bestalde, Gaudencio Remon-ek (Nafarroako ORTko kide izandakoak) alderdi honek oposizioko plataforma unitarioen inguruan izandako jarreraren inguruko artikulu bat aipa genezake⁷⁴. Bukatzeko, Mikel Toral ORT kide ohiaren, Trantsizio garaiko argazkiak biltzen dituen liburu bat dago, horietako asko egilearen alderdiari loturikoak, eta hainbat eta hainbat Nafarroan hartutakoak direnak⁷⁵.

2.4. Erabilitako iturriak

Ikerketa historikoetan iturrien aukeraketak berebiziko garrantzia du. Iturriak askotarikoak izan daitezke eta aztertzen direnen arabera lortu daitekeen informazioa modu batekoa ala oso bestelakoa suertatzen ahal da. Baina ez hori bakarrik, iturriak interpretatzerako orduan metodoaren zorrotasuna ezinbestekoa da. Iturri beraren aurrean, galdera ezberdinak egiten eta metodo ezberdinak erabiltzen dituzten ikerlariak interpretazio ezberdina lor dezakete.

Iturri dokumentalei dagokienez, dakarten informazioa ez da bete-betean sinetsi behar, hainbat faktorek baldintzatzen ahal dutelako. Besteak beste, dokumentuaren izaerak, bere helburuak, igorlearen interesak eta testuinguruak nola edo hala eragiten ahal diote. Ikerlariak igorleak dokumentua sortzerakoan zer interesi erantzuten zion eta dokumentuak zer helburu zuen galdetu behar dio bere buruari. Hortaz, historialariak oso zorrotz jokatu behar du iturri bakoitzetik eskuratutako informazioa jaso eta epaitzerako orduan.

72 Sabino Cuadra Lasarte, *¡No os importe matar! Sanfermines 1978: crimen de Estado*, Txalaparta-SF 78 Gogoan!, Tafalla, 2019. Begoña Zabala Gonzalez, *Feminismo, transición y sanfermin del 78*, Txalaparta-SF 78 Gogoan!, Tafalla, 2018. Juan Retana, *22 de septiembre, San Fermín*, Pamiela, Iruñea, 2018. Azken honek eleberri forma du, baina dokumentu interesgarria da hala ere. Hainbat Egile: *Fermin Valentzia. Vivir para cantarla, Kantuari emana*, Txalaparta, Tafalla, 2020.

73 Jon Kortazar Billelabeitia, «Euskadiko Mugimendu Komunista (1969-1991): Historia eta ideologia» ... Jon Kortazar Billelabeitia, «El Movimiento Comunista de Euskadi y la Transición en el País Vasco (1975-1980).» GONZÁLEZ GONZÁLEZ, Alberto (koord.): *No es país para jóvenes* (actas del Encuentro de Jóvenes Investigadores en Historia Contemporánea, 2009, Granada), Instituto Valentín de Foronda, 2012.

74 Gaudencio Remon Berrade, «La rebelión de los mineros: conflictividad laboral en al minería navarra de potasa durante el franquismo», *Estudios de Ciencias Sociales*, 7 zbk (1994) 241-260. Gaudencio Remon Berrade, «La Organización Revolucionaria De Trabajadores (ORT) ante la Junta Democrática y la Plataforma De Convergencia», *Estudios de Ciencias Sociales*, 8 zbk. (1995), 259-280.

75 Mikel Toral (ed.), *La calle es nuestra. La transición en el País Vasco (1973-1982)*, Kultura Abierta, Bilbo, 2017.

Ezker iraultzaileari buruzko ikerketa honen kasuan, ikerketaren ernamuina ezker erradikaleko alderdiek ekoizten zituzten material idatziak dira batez ere: aldizkariak, panfletoak, bileretako aktak eta gisa horietakoak. Frankismoaren hondar urteetan alderdi horiek guztiak ilegalak ziren, eta beraz, ikerlariak batzuetan oztupoak edo informazio hutsuneak aurkitzen ahal ditu. Klandestinitateko testuingurutik bi dokumentu klase kaleratzen ohi zituzten: alde batetik, dibulgazio edo proselitismorako egindakoak, eta bestetik, barne erabilerarako egindakoak.

Alde batetik, dibulgaziorako pentsaturik zeuden eta militante edo jarraitzaileen artean saltzen edota banatzen ziren aldizkari, panfleto eta antzekoak zeuden. Prentsa ofiziala Erregimenaren esku zegoen eta zentsura ohikoa zen, beraz, oposizioko indarrek ez zuten inolako aukerarik horien bidez komunikatzeko. Oro har, alderdi bakoitzak aldizkari zentral bat zuen, bere Komite Zentralaren ahots ofizialaren bozgorailuarena egiten zuena. Frankismo garaiko dokumentu gehienak, klandestinitatearen ondorioz zituzten baliabide urriak zirela kausa, edizio oso xumeko argitalpenak ziren, eta maiztasun irregularrekoak ziren sarri. MCEk esaterako, *Servir al Pueblo* zuen, ORTk *En Lucha*, PCEi-k *Mundo Obrero Rojo* eta *El Correo del Pueblo*, edo LCRk zein LCk, izen bereko *Combate*-ren goiburu bana. Alderdiak zabaldu eta handitu ahala propaganda aparatu garatuagoak sortu zituzten, kalitatean hobetzen joan zen eta maila lokalagokoak sortzen joan ziren: ORTren *Abenduak 11*, EMKren *Zer Egin?*, LCR-ETA VI.aren *Zutik!*, PTERen *La Voz del Trabajo* zein *Jeiki* edo LCren *Proletario* besteak beste. Mota horretako dokumentuen helburu nagusia alderdiaren jarrera politikoa eta iritzia gizarteari helaraztea zen, baita militantziarentzako formakuntza material modura erabilgarria izan zedin ere, zeluletako bileretan alderdiaren prentsa irakurtzea eta eztabaidatzea ohikoa baitzen. Frankismoak zentsura zorrotza ezarria zuenez, Erregimenak isilarazten zituen berriak zabaltzeko ere balio zuten. Historialariak dokumentu horietara hurbiltzerakoan kontu handiz jokatu behar du, ez baitziren publikazio inpartzialak. Gizarteari eta alderdiaren inguruko jarraitzaileei irudi jakin bat helarazi nahi zieten, eta ondorioz, batzuetan bertan idatzitakoak diskurtso entusiasta puztuegi eta baikorregiak izan zitezkeen. Modu hanpatuan beraien eragin esparrua benetan zena baino zabalagoa antzeztu zezaketen eta Gobernuaren edo enpresarien jarrerak eta jokamoldeak modu gutxiesgarrian karikaturizatu zitezkeen.

Bestalde, panfletoak, aldizkariak bezala, alderdia eta gizartearen arteko lotura egiteko erabiltzen ziren. Askoz ere laburragoak ziren eta momentuan momentuko koiunturari erantzuten zioten. Batzuetan oso lokalak izan zitezkeen, baita lantegi mailakoak ere, lantoki konkreturen batean egin behar zen lanuzte bati buruzko informazioa banatzeko esaterako. Panfleto horiek folio zortziren edo laurdenen neurria izaten zuten normalean, eta bertan, mobilizaziorako deialdiak,

leloak, aldarrikapenak eta kontsignak azaltzen ziren. Banatzerakoan kontu handiz ibili beharra zegoen propaganda ilegala banatzea delitua baitzen, eta horretarako *ereintzak (siembra)* prestatzen ziren. Segurtasun indarrak inguruan zelatan ez zebiltzala ziurtatu eta gero, botatzen ziren, lurretik baten batek hartuko zituelako esperantzarekin⁷⁶. Motoz edo kotxez botatzeko mekanismo eta trikimailu bereziak ere asmatzen zituzten eta zonalde eta espazio zabalagoak betetzea lortzen zen.

Alderdien barne dokumentazioari dagokionez, aldiz, kongresu eta biltzarren aktak, agintaritza organoen (Komite Zentral, Nazional zein Probintzialen) idatziak, oinarritzko zelulen bileren aktak edota barne komunikazioaren parte ziren minutak eta zirkularrak aurki ditzakegu. Baita militanteen barne formakuntzarako material eta irakurgaiak ere. Kasu hauetan, alderdiaren zuzendaritzak edo oinarritzko organoek egindako dokumentuak ote diren aztertu behar da, Alderdiaren jarrera ofiziala, oinarriko militanteen iritzia edo barneko jarreraren bat islatzen duten jakiteko. Informazio hori, batzuetan, ez dator *gordinean* sarekadarik egotekotan informazioa ezkutatzeko trikimailuak erabiltzen zituztelako, esaterako, hitz klabeak bestelakoekin ordezkatzeko zituzten, edota egileen izenak ezizenengatik.

Gisa honetako dokumentazioa eskuratzeko artxibo ezberdinetara jo behar izan dugu. Alde batetik, Jesus Urrari (EMK eta Batzarreko militante ohiari) eta Iñigo Rudiri (Batzarreko kideari) esker Batzarreko egoitzako sotoan zeuden funtserako sarrera edukitzea lortu dugu. Batzarreko Artxibo Pribatuko (BAP) soto hartan pilatutako dokumentazioa ez dago dokumentazio zentroetan bezala artxibatua eta katalogatua, baina EMK, LKI eta LCri buruzko dokumentazio ugari dago; bai hemerotekakoa —hau da, alderdi erradikalen argitalpen periodikoetakoa—, baita barne funtzionamenduak sortutako dokumentaziokoa. Hemerotekakoari dagokionez, argitalpenak, oro har, ongi gordeta daude eta nolabaiteko kontserbazio egoera egokian daudenez, arestian aipatutako alderdien prentsa kontsultatu ahal izan da (*Combate*, *Zutik!*, *Zer Egin?* eta *Servir al Pueblo*). Barne dokumentazioari dagokionez, aldiz, ez dago inolako klasifikazio sistemarik, gela ilun batean nola edo hala utzitako eta hautsez beteriko kartoizko kutxetan gordeirik baitaude. Horietako batzuetan kutxek izena dute eta modu koherentean ordenatuta daude, baina beste kasuetan ez. Zati honetako lana nekezagoa izan da, baina ekarpenak interesgarriak izan dira.

Aztertu diren beste dokumentazio zentroetako bat Lazkaoko Beneditarren Fundazioa (LBF) izan da⁷⁷. Fundazio hau 2011 urtean sortu zen Lazkaoko Beneditarren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Lazkaoko Udalaren bultzadaz, eta bertan Juan Jose Agirre beneditarrak 70eko hamarkadatik jasotako mugimendu sozialen eta euskal gai politikoen inguruko aldizkari, kartel,

76 E10 elkarrizketa: Milagros Rubio Salvatierra, Tuteran 2019/III/5. E14 elkarrizketa: Felix Jimenez Morales, Iruñea 2019/VII/23.

77 <https://www.lbf.eus/eu/> 2019ko irailean kontsultatua.

pegatina, dokumentu eta abarrak biltzen ditu. Euskal Herriko historiaren azken 40 urteak ezagutzeko ezinbesteko funtsa da. Bertara bi aldiz joateko aukera izan dugu. Han kontsultatu diren funtsak honakoak izan dira: PTEren *Jeiki*, ORTren *Abenduak 11*, eta OICren *Iraultza* aldizkariak, EIA eta EEren dokumentazioa, panfleto ugari eta alderdi ezberdinen bestelako dokumentuak.

Bestalde, ORTren Nafarroako azken Komite Probintzialak bere eskuetan zeuden dokumentuak Eusko Ikaskuntzaren esku utzi zituen. Hainbat urtez han gorderik egon dira, baina berriki Bilbon dagoen Euskadiko Artxibo Historikora lekualdatu zituzten⁷⁸. Ikerketa honetarako, bere jatorrizko artxiboan «Navarra» eta «ORT» izenak zituzten funtsak kontsultatzea espero zen. Alabaina, dirudienez, kontsultatzeko eskaera egin zenean katalogatu gabe zeuden oraindik, eta gainera, COVID19aren izurriteak Bilboko Artxibo Historikora joateko eragozpenak suposatu ditu. Zorionez, ikerketa egin bitartean, Iñigo Perez Otxoak Eusko Ikaskuntzako artxibotik lortutako bost fotokopia kutxa utzi zizkigun. Ikertzaile horrek orain dela urte batzuk ezker erradikalaren inguruko tesi bat hasi zuen, eta aurreratu xamar zuen arren, ezin izan zuen bukatu. Bere lanean material ugari metatu zuen eta ikerketa honen berri izan zuenean, oso eskuzabalki, gure esku uztea erabaki zuen. Berak pilatutako bost material kutxa horiek guztiek ziur aski funts horien zati partzial bat baino ez dute osatzen, baina hala ere, azken lana aberastu dute dudarik gabe. Arrazoi horiek direla eta, tesi honetan funts horretan jatorria duten dokumentuei erreferentzia egiteko Eusko Ikaskuntzako artxiboan zuten signatura erabili da: CDHC-EI (Centro de Documentacion de Historia Contemporanea de Eusko Ikaskuntza).

Nafarroako Artxibo Orokorrean (NAO) bestalde, gure ikergaiarentzako informazio apur bat baino ez dago eta beraz, Gobernu Zibilaren funtsetako zenbait dokumentu solte baino ezin izan ziren kontsultatu. Urriak izanagatik ere, oztopo gehigarri bat zuten funts horretako dokumentuek. Izan ere, Datuen Babeserako Legearen ondorioz Nafarroako Artxibo Orokorreko dokumentu horietako zenbait zati ezin izan genituen irakurri⁷⁹. Lege hori ohiko oztopoa izaten da duela gutxiko gai historikoak lantzen ditugun ikertzaileontzako. Beraz, Gobernu Zibilak 1976ko erreferenduma prestatzeko egin zituen dokumentuak eta elkarten erregistro ofiziala kontsultatu ahal izan genituen, baina, horietako batzuetan karpitetatik artxiboko langileek hainbat orrialde erauzi zituzten, bertan azaltzen zirenen datuak babesteko.

Gasteizko Sancho el Sabio Fundazioan (SSF), Arabako Vital Kutzaren Gizarte Ekintzak kudeatzen duen artxiboan, depositatutako dokumentazioa ere kontsultatu da⁸⁰. Bertan, bereziki

78 <http://www.artxibo.euskadi.eus/eu/inicio> (2020ko uztailean kontsultatua)

79 «Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales», BOE (Estatutaren Aldizkari Ofiziala), 294, zbk. (2018/12/06) <https://www.boe.es/eli/es/lo/2018/12/05/3/con> 2019ko irailean kontsultatua.

80 <https://www.sanchoelsabio.eus/eu/>

PTeren *Jeiki* aldizkaria eta LKIk barne funtzionamendurako erabiltzen zituen zirkular periodikoak eta kongresuetako dokumentuak landu ditugu.

Madrilen erkidego horretako hiru artxibo ikuskatu dira. Lehendabizi, Alcala de Henares-en dagoen *Archivo General de la Administración* (AGA, Administrazioaren Artxibo Orokorra) izenekoa egon gara Nafarroako Gobernu Zibilak sortutako funtsak aztertzen. Arestian esan dugun bezalaxe, eta berriki gertatutakoen historia egiten dugunoi maiz gertatzen zaigun bezala, Datuen Babeserako Legea dela eta gordeta zeuden funts guztietatik zati bat baino ez zegoen eskuragarri. Gobernu Zibilaren memoriak eta Informazio eta Turismo Ministerioaren Lotura Gabinetek egiten zituen dosierak aztertu ziren. Lehendabiziko horien kasuan Gobernu Zibilak urtean behin Gobernu zentralari bidaltzen zion txostenak dira, askotariko informazioa zutenak: urtean zehar egindako gastu, inbertsio, kudeaketa eta bestelakoen kontakizuna eta laburpena. Gai ugari daude presente dokumentuotan: hezkuntza, diru-laguntzak, azpiegiturak,... Guri gehien interesatzen zaigun gaiari buruz, ordena publikoari buruz alegia, ere erreferentzia egiten zioten txostenok, baina osotasunaren zatitxo bat baino ez zen. 1970koak, 1971ekoak eta 1979koak kontsultatzeko aukera izan dugu, baina 1972 eta 1978 artekoak, aldiz, zenbait urte igaro arte ez dira eskuragarri izanen⁸¹.

Informazio eta Turismo Lotura Gabinetek sortutako informazio dosierrei dagokienez, aldiz, Erregimen frankistak probintziaren egoera politikoaren inguruko jarraipen txostenak dira. Batzuetan segurtasun indarrek edo informazio zerbitzuek egindakoak, baina beste batzuetan prentsa agentziek emandako albisteen bildumak dira. Dokumentu horiek ordena publikoaren egoera eta Erregimenak oposizio antifrankistaz zekiena hautemateko baliatu dira.

Alcala de Henaresen bertan, AGAko artxiboaz gain, Pablo Iglesias Fundazioaren (FIP) artxiboa ere badago. PSOE eta UGTrekin lotura estua duen artxibo horretan langile mugimenduen eta alderdi eta sindikatu horren dokumentazioa gordetzen da. ORTko azken Komite Zentralak, 1982an alderdia desagertzeaz zegoenean, bere dokumentuak fundazio horretan utz zitzaizkien agindu zion alderdiaren idazkari politiko zen Luis Alvarez-Uderi. Funts hori 52 kutxez osaturik dago, baina pisu gehiena UJM (Unión de Juventudes Maiostas, alderdiaren gazteriak) eta SUREN (Sindicato Unitario-aren) dokumentuek osatzen dute. Dokumentu horietako askok Madrilgo Komite Probintzialak edo tokian tokiko komite Lokalek sortutako informazioa zuten. Hala ere, Nafarroaren inguruko zenbait informazio eta Komite Zentralaren informazioa ere aurkitu genuen.

Bestalde, eta Madrilgo erkidegoan egindako lanarekin bukatzeko, Alderdi Komunistaren Artxibo Historikoa (AHPCE) kontsultatu genuen⁸². Baina kasu honetan, denbora falta zela eta

81 Gero beste ikerlari batzuek dokumentu horiek ikertzea lortu dutela jakin izan dugu, baina guri behintzat ez ziguten utzi.

82 <http://archivohistoricopce.org/>

azaleko miaketa bat baino ez genuen egin, hurrengo baterako interesgarriak izan zitezkeen funtsak aurkitzen ahal ziren ondorioztatzeko.

Bartzelonan, bestalde, Bartzelonako Unibertsitateko parte den Pavelló de la República liburutegiko (BPR) funtsak aztertu dira⁸³. Funtsok gerra zibileko, frankismoko eta Trantsizio garaiko erreferentzia bat dira. Bertan alderdi erradikal ezberdinen (MC, LCR, LC, eta abar) funtsak daude, bereziki Komite Zentralei, Kongresuei eta antzerakoei dagozkienak, baina Euskal Herriko adar edo federazioei dagozkienak oso urriak dira.

Bestalde, azkenaldian dokumentazio iturriak interneten eskuragarri uztea ohikoa bilakatzen ari da. Tesi honetarako nagusiki mota honetako lau web orrialde kontsultatu dira. Lehendabiziko hiruak militante ohiek bultzatutako ekimen herritarrak izan dira: LCR-LC, PTE eta ORTri buruzko dokumentazio sorta bana igo dutenak⁸⁴. Bertan alderdi horien —baita beste batzuen—barne dokumentazioa eta prentsa argitalpenak daude. Horietaz gain, Espainiako Kultura Ministerioak sustatutako *Biblioteca Virtual de Prensa Historica* webgunea dago, bertan ORT alderdiaren *En Lucha* aldizkariaren bilduma osatua daukate⁸⁵. Zintzilikaturik dauden funts aberats eta oparo horiek irakurri eta aztertu dira. Iturriok oso erabilgarriak izan dira, Interneten eskura dauden heinean, bulegotik edo etxetik ikertzeko aukera ematen baitute.

Bestalde, ikergai honetara hurbiltzen hasi nintzenean ezker iraultzailean murgiltzen lagundu zidan pertsonetako bat Joel Sans izan zen. Sans OICri buruzko doktorego tesia egiten ari zen orduan, eta berak digitalizatuta zituen dokumentu franko utzi zizkigun, horietariko batzuk interes handikoak. Gehienek, EHUko Historia Garaikideko departamentuaren funtsetan (EHU-HGDF) zuten jatorria.

Artxibo eta funts dokumentalekin bukatzeko, tesiaren azken txanpan sartzen ari ginenean Kordobillan dagoen Nafarroako Artxibo Garaikidean (ACN-NAG) ezker iraultzaileari buruzko dokumentazio ugari jasotzen ari zirela jakin izan dugu⁸⁶. Kontsultatu genituenean funts horiek oraindik ez zuten bolumen handirik, baina material gehiago pilatzea espero da. Beraz, etorkizunean dokumentazio gehiago behar izatekotan Nafarroako Artxibo Garaikidea ezinbestean kontsultatu beharko da.

Orain arte aipatutakoaz gain, militanteekin kontaktuak egin ahala haiek etxeetan gordeta zituzten dokumentuak eta funtsak utzi dizkigute. Artxibo pertsonal pribatu horietan denetarik

83 <https://crai.ub.edu/es/conoce-el-crai/bibliotecas/biblioteca-pabellon-republica>

84 PTE eta JGREkoa hasiera batean <http://www.pte-jgre.com/> helbidean hasi ziren dokumentazio biltzen, baina gero <https://archivodelatransicion.es/indice> -era pasa ziren. LCRrena <https://historialcr.info/> helbidean dago, eta ORTrena <http://ort-ujm.es/>.

85 <https://prensahistorica.mcu.es/es/inicio/inicio.do> (2020ko abuztuan kontsultatua)

86 http://www.navarra.es/home_es/Temas/Turismo+ocio+y+cultura/Archivos/Archivos/Archivo+Administrativo+de+Navarra/ (2020ko azaroan kontsultatua).

aurkitu izan dugu. Jesus Urrak (EMK eta Batzarre) utzitako dokumentuen artean, esaterako, EMKri eta UNAIri zegozkion dokumentu ugari zegoen. Celia Oiz-ek eta Jesus Aos-ek ORTren inguruko dokumentazio ugari utzi ziguten, besteak beste, *En Lucha* eta *Abenduak 11* aldizkarien hainbat ale, *El Militante* formakuntza-argitalpenarenak eta barne erabilerarako hainbat koadernotxo ere. Pablo Ibañezek eta Isabel Nogerak ere PTE dokumentazio ugari utzi ziguten: oktobilak, *El Correo del Pueblo*, *La Union del Pueblo*, *La Voz del Trabajo* eta beste hainbat dokumentu. Bestalde, Javier Iturbek, Javier de Miguelek edo Javier Urrozek ere idatzizko hainbat iturri utzi dizkigute.

Bestalde, iturri instituzionalei dagokienean, hasierako ikerketa planean horiek kontsultatzea interesgarria litzatekeela ondorioztatu zen; hala nola, Gobernu Zibilak, segurtasun indarrek, SECEDak edo Sindikatu Bertikalak sortutako idatziei erreparatzea. Baina, segurtasun indarrek eta Gobernuak ezker iraultzaileaz zer zekiten eta zer iritzi zuten jakitea interesgarria litzatekeen arren, ikerketa honetarako iturriok ez erabiltzea erabaki da, besteak beste, ikergaiari mugak jartzea beharrezkoa delako. Gainera, dokumentu haiek eskuratzea oso zaila izan liteke, iragan hurbil eta konprometitu batekoak baitira. Funts horietako batzuetara sarbidea eskuratzea ezinezkoa da oraindik, eta zenbaitetan, gainera, erakundeek informazio korapilatsuena zuten dokumentuak desagerrarazi egin dituzte.

Horien guztien osagarri, bestalde, garaiko hemeroteka (prentsa) kontsultatu da. Atal honi dagokionez, esan bezala, iturri nagusia ezker iraultzaileko alderdien prentsa klandestinoak izan da. Baina horretaz gain, garaiko prentsa legala ere kontsultatu da. *Diario de Navarra* edo *Pensamiento Navarro* bezalakoak ziren prentsa legal bakarra, hau da Erregimenaren aldeko egunkari eskuindarrak. Trantsizioak aurrera egin ahala, prentsa askatasuna onartu zen eta egunkari eta aldizkariak ezker iraultzailearen inguruko informazioa era askeagoan zabaltzen hasi ziren. Beraz, *El País*, *Egin*, *Punto y Hora en Euskal Herria* edo bestelakoetan publikatzen zena kontsultatu da. Horretarako, Iruñeko Udal Artxiboan *Diario de Navarra* kontsultatu da eta Sancho El Sabio Fundazioaren webgunean *Punto y Hora en Euskal Herriako* aleak. 1977tik aurrera kaleratzen hasi zen *Egin* egunkari abertzalearen ale solteren bat kontsultatzeko aukera ere izan dugu. Hemerotekaren atalari dagokionez ikerketa hau herren geratu da; izan ere, denbora faltagatik ezin izan dugun hemerotekaren miaketa sistematikorik egin, eta ondorioz, prentsa konbentzionala behar baino gutxiago erabili da.

Iturri idatziez gain, ahozko iturriak ere erabili ditugu. Ikerketa honek klase sozial zapalduak (langileak), klandestinitatean aritzen ziren talde politiko ilegalak eta errepresioa sufritu izan zutenak ditu protagonista. Horrelako kasuetan berebiziko garrantzia hartzen dute ahozko iturriek. Izan ere, zapalduetako aktore horiek traza edo markarik ez dute uzten dokumentazio ofizialean, eta uztekotan, agintarien interesen arabera informazioa litzateke,

besteak beste, poliziak, prentsa eskuindarrak edota Gobernuak sortutako iturrien bidez. Kasu honetan, aginteak ekoiztutako dokumentazioa ezagutzea interesgarria daitekeen arren, gizarte mugimendu iraultzaileen barne-historia ikertzeko ez litzateke baliagarria. Ahozko iturriek, ordea, *behetik egindako historia (history from below)* egitea ahalbidetzen dute. Beraz, ahozko iturriek idatzirik dagoen informazioez aparteko informazio gehigarria lortzen lagundu digute⁸⁷.

Hala ere, elkarrizketak egiterako orduan tentuz ibili behar da, ahozkotasunak giza-memoria bezalako gaitasun aldakor batean baitu oinarria. Giza-memoria ezin dezakegu informazioa pilatzen duen artxibo edo kutxa gordetzaille amaiezin baten modura uler, egoeraren arabera etengabeko aldaketak eta berrikuntzak jasaten dituen oroitzapen multzo iragankor eta mugikor baten modura baizik. Memoria hori bera, gainera, berriemailearen — hau da, elkarrizketatuaren— identitate indibidualaren parte da eta bizi-ibilbide pertsonala zein momentuko egoera («nire gaurko nia») edo jarrera justifikatzeko erabiltzen ohi ditu⁸⁸. Informatzaileek gaur egunetik eta memoria subjektibotik hitz egiten dute, eta ondorioz, baldintzaturiko iturriak direla kontuan hartu behar da. Baina ahozko iturri horien berezitasunak aprobetxatuz, sentimenduen historia edota bizipenen historia bezalako diziplina berrietan murgilketa txikiren bat ere egiteko baliatu da.

Informazio iturri hori, gainera, subjektibitateaz, nahita edo nahi gabe egindako hutsunez, momentuko egoera pertsonalaz, aldarteaz, izaeraz edo bestelako baldintzatzaille ezberdinez gurutzaturik dago; baita elkarrizketatuaren eta elkarrizketatzailearen artean sortutako giro eta harremanaz ere.

Ahozko iturriekin lanari ekiteko, aldiz, hasi baino lehen ahozko historiaren metodologia ezagutu eta ikastea beharrezkoa izan da⁸⁹. Behin metodologia egokia barneraturik, berriemaileekin harremanetan jartzeko lehendabiziko pausoa ingurukoei galdetuz edo telefono aurkibidearen bitartez egin da. Hortik aurrera, elur bolaren metodoa erabili da ezker erradikaleko kide gehiagorengana ailegatzeko. Elur bolaren metodoa, gure kasuan behintzat, berriemaileei berriemaile potentzial gehiagoren inguruko gomendioak edo kontaktuak eskatzean datza. Modu hartara, lagina gero eta handiago bilakatzen da.

87 Bakarne Altonaga Begoña, Maialen Aranguren Alonso, Aintzane Rincón Diez, *Historiagintzaren ikuspegi berriak: teoria eta praktika*, UEU-EHU, 2017, 137-138.

88 *Ibid.*

89 Pilar Folguera, *Cómo se hace historia oral*, EUDEMA Universidad, 1994. Abdón Mateos López, Alicia Alted Vigil. «Problemas de método en el estudio de la oposición al franquismo. La utilización del testimonio oral», *Espacio, tiempo y forma. Serie V, Historia contemporánea*, 3 zbk., 2 vol. (1990), 57-68. Miren Llona Gonzalez (Koord.), *Entreverse, teoría y metodología práctica de las fuentes orales*, Euskal Herriko Unibertsitatea, 2012.

Berriemaileekin bi modu ezberdinen bidez jaso da informazioa: elkarrizketa grabatua eta solasaldi grabatu gabea. Elkarrizketa grabatueterako «bukaera irekiko elkarrizketa erdi zuzendua» erabili da eta egin diren 21 elkarrizketetan 18 gizonen eta 6 emakumeren testigantza jaso da. Solasaldietan, aldiz, arrazoi ezberdinak direla medio (ahotsa ez grabatzeko nahia, berriemaileen informazio ekarpen urria, edo denbora falta, besteak beste) grabaketa ez egitea erabaki da, eta grabatu gabeko solasaldi informal modukoak egin dira. Kasu horietan, testuinguruek ezaugarri informalagoa zeukaten arren, informazio osagarria eta aberasgarria lortu da. Osotara, 16 gizon eta 7 emakumerekin egoteko aukera izan dugu solasaldi grabatu gabeetan.

Elkarrizketok oso aberasgarriak izan dira eta Trantsizio garaiko mugimendu errebeldeen inguruko informazio ugari bildu da haiei esker. Baina, hala ere, datuetan ikus daitekeen bezala, elkarrizketatuen artean genero desoreka nabaria dago. Ezker iraultzaileko militanteen artean gutxi gora behera kideen heren bat emakumeak zirela kalkulatzen da, baina bere aginte postuetan azpierrepresentaturik zeuden⁹⁰. Ikerketa egiterakoan, emakumeak topatzeko zenbait zailtasun izan dira. Hori arrazoi ezberdinen ondorio izan daiteke. Batetik, ohikoa izaten zen zuzendaritzako postuetan emakumeek presentzia urriagoa izatea. Horregatik, berriemaileei kontaktu gehiago eskatzerakoan gehienetan gizonen kontaktuak pasatzen zizkiguten, eta horrek emakumeen presentzia azpierrepresentatzen zuen. Bestetik, hori gutxi balitz, emakumeek beraiek askotan izan zuten paperari garrantzia kentzeko joera izaten dute, urteetako hezkuntza matxistaren ondorioz, beren burua gutxien dutelako, eta beraz, parte hartzeko eragozpen gehiago jarri ohi dituzte. Aipatu berri diren arrazoiez gain, ikertzailearen aukeraketak ere eragin nabaria du.

Ahozko informazio hori eskuratzeko premia biologikoa dagoela kontuan hartu behar da baita ere. Ahozko iturriena, ikerketaren zatirik aberasgarrienetarikoa izan da, garai hartako militante ezkertiar izandakoekin kontaktuan jartzea eta gaztetako pasadizoak kontatzea esperientzia oso interesgarria izan da eta. Ikerketa honen pisuaren zati garrantzitsu bat ahozko iturrietan oinarritu da. Elkarrizketa horiek batzuetan atseginak izan dira, aspaldiko pasadizoak gogoratzea interesgarria izan delako; beste batzuetan, aldiz, zailagoa izan da, diktadura garaiko egoera latzak birgogoratzea gogorra egiten zitzaielako berriemaileei.

Egindako elkarrizketez eta solasaldiez gain, Nafarroako Oroimen Historikoari buruzko Fondo Dokumentalean (NOHBDF) depositatuta dauden elkarrizketetako batzuk ere kontuan

90 Whilhelmiren arabera, esaterako, LCRren 1976an kidegoaren herena emakumea zen. De Miguelek, bestalde, 1974an ORTn militanteen %20 emakumeak zirela dio. Sei urte beranduago bestalde Euskadiko Langileen Partiduko (ELP edo PTE-ORT) Komite Probintzialak 1980an 53 kide zituen eta horietatik 8 baino ez ziren emakumeak (%15).

Gonzalo Whilhelmi Casanova, *Romper el consenso...* 106. LCR-ETA VI: «Radiografía de la LCR», *Construir un partido revolucionario. I Congreso de LCR-ETA VI*, 1976, 11 or, Doc. 3.35, <https://www.historialcr.info/>. Javier de Miguel Saenz, *La Organización Revolucionaria de Trabajadores...* 161-162. ELPren Komite Probintziala: *Boletín del Comité Provincial de Navarra. Aldizkaria*, 1 zbk. (1980/VI/19), ORT funtsa, 30-3, CDHC-EI.

hartu dira⁹¹. Funts hori Nafarroako Gobernuaren eta NUPen arteko lankidetzaz eratu zen eta Nafarroan gertatutako Giza Eskubideen urraketak eta errepresio gertaerak biltzea helburu du, bai Gerra Zibilekoak eta gerraostekoak, baita frankismoaren hondar urteetakoak eta Trantsiziokoak ere. Horien artean, ezker iraultzaileko militanteetako batzuek sufritutako esperientzia errepresiboak jasota daude. Bukatzeko, David Behorlegi ikerlariak bere doktorego tesiaren parte ziren hainbat elkarrizketen transkripzioak ere utzi dizkigu.

91 <https://memoria-oroimena.unavarra.es/> (2020ko urrian kontsultatua)

3. Txapel Gorritik *Liburu Gorrira*

Frankismoaren hondar urteetan eta Trantsizioaren lehendabizikoetan, ezker iraultzailearen parte ziren alderdiek Hego Euskal Herriko lurraldeetan Espainiako estatuko beste herrialdeetan baino errotze ahalmen handiagoa izan zuten, batik bat Nafarroa Garaian. 1970eko hamarkadaren lehendabiziko erdian, oposizio antifrankistaren sektorerik aktiboenak eta dinamikoena izan ziren, eta mugimendu sozialen bidez —bereziki langile mugimenduaren bidez— aparteko erradikaltasuna erakutsi eta mobilizazioak dinamizatzea erdietsi zuten. Mobilizazio horiek Erregimen frankista higatu zuten eta bere amaierarako ezinbesteko ekarpena egin zuten.

Europako lurralde gehienetan ezker iraultzailea gutxiengoan egon zen ezkerreko alderdi handien aldean. Batzuetan mobilizazio arrakastatsuak lortu zituzten arren, salbuespen batzuetan (maila lokalean, sektore konkretuetan edo mobilizazio puntualetan) baino ez zuten lortu zuten sozialdemokraziaren eta komunismoaren gainetik agertzea. Espainiako lurralde gehienetan, esaterako, Santiago Carrilloren Alderdi Komunista (PCE) izan zen oposizio antifrankistako alderdi nagusia. Horregatik Nafarroako egoera ezohikoa zela esaten da. Bertan PCEk oso militante eta jarraitzaile gutxi zituen, ezker erradikalaren nagusitasunarekin —bereziki ORTrekin— konparatuz gero.

Nafarroak erakutsitako erradikaltasun hura ezusteko bat izan zen askorentzako, askok lurralde atzerakoitzat baitzeukan. Gerra Zibilean, Altxamenduaren alde bizkorren lerratu zen lurraldeetako bat izan zen eta tropa matxinoek erraztasun handiz kontrolatu zuten lurraldea. Armada frankista boluntarioz hornitu zuen Nafarroak. Baina hamarkada gutxiren buruan egoera erabat aldatu zen, Gerra Zibilean parte hartu zuten erreketek karlistek nekez imajinatuko zuten horrelakorik pasa zitekeenik. Horregatik da zilegi geure buruari honakoa galdetzea: **Nola pasatu zen Nafarroa Txapel Gorritik *Liburu Gorrira*? Zergatik lortu zuen ezker iraultzaileak hainbesteko sustraitze ahalmena Nafarroan?** Kapitulu honetan zehar galdera horiei erantzuna ematen saiatuko gara, hau da, Nafarroako oposizio antifrankistaren sorburu eta jatorriari erreparatu eta haren erradikaltasunaren arrazoiak azaltzen saiatuko gara.

3.1. Aurrebaldintza sozioekonomikoa: *Desarrollismoa* eta langile klase berria

Ezker iraultzailearen sorrera azal lezakeen arrazoietakoa bat Nafarroa Garaia XX. mendearen bigarren erdialdean bizi izan zuen aldaketa sozioekonomikoetan egon liteke; izan ere, urte gutxiren buruan erabat itxuraldatu zen Erresuma zaharra. 1950eko hamarkadatik, baina, bereziki 1960kotik aurrera, ordura arte ezagutu gabeko hazkunde ekonomiko indartsua eta garapen industrial azkarra gertatu ziren. Nafarroak lurralde nekazari eta landatarra izateari utzi zion, industrial eta hiritar bilakatzeko. Bi hamarkada laburretan inoizko aldaketa sozioekonomiko sakonenak bizi izan zituen Nafarroak, eta harekin batera kultura eta mentalitate mailako egiturazko transformazioak gertatu ziren.

Garapen ekonomikoari lotuta, demografian ere aldaketa garrantzitsuak gertatu ziren. Biztanleria soberakinak (emigranteak, alegia) kanporatzen zituen lurralde izatetik, etorkinak hartzen zituen lurralde izatera pasa zen. Bestalde, barne migrazio mugimenduak gertatu ziren eta herrietatik hirietara lan egitera eta bizitzera joan zirenen kopurua biderkatu zen. Jasandako aldaketak hainbestekoak izan ziren, ezen benetako Industria Iraultza bat izan zela esan baikenezake. Aldaketok 70eko hamarkadan ezker iraultzailea eta langile mugimendu berria sortzeko ezinbesteko aurrebaldintzetako bat izan ziren, hura sortzeko nolabaiteko egiturazko markoa sortu baitzuten, baina, bestalde, ezin dezakegu esan bere sorrera ezinbestean determinatu zutenik⁹².

Autarkia eta Erregimen frankistaren izaera matxista eta misoginoa

Gerra Zibilaren ondorengo urteetan (Autarkiaren garaia deitu zaion horretan), Espainiako ekonomiaren ezaugarri nagusiak atzeraldi industrial eta geldialdi ekonomikoak izan ziren, eta horrek zailtasun larriak eragin zituzten Estatu Berriaren menpeko biztanleriari. Espainia atzeraldi industrialean murgildu zen, eta Europako gainerako ekonomiekiko desfase nabari batean egon zen. Espainia nazioarteko merkataritzatik isolaturik geratu zen; izan ere, ez zuen Bigarren Mundu Gerrako ez-borrokalari izaera aprobetxatu esportazioak indartzeko, Erregimenak Espainiaren autohorniketa eta buruaskitasunean sinisten baitzuten. Gainera, nazioarteko gudu handia bukatu zenean, Ardatzaren alde lerratu izanagatik nazioartean baztertuta geratu zen Nazio Batuen Erakundeak hala dekretatuta. Kanpo merkataritzari kontrol zorrotzak jarri zitzaizkion, eta ondorioz, 1940ko hamarkadan zehar horniketa arazoak izan zituen, bereziki industriarako eta bestelako sektore garrantzitsuetarako lehengai, erregai, ekipa, makinariak, teknologiak edo bestelakoak inportatu ezinean geratu baitzen. Nazioarteko isolamenduaz gain, politika ekonomikoaren beste ezaugarriak Estatuaren interbentzionismo handia eta ekonomiaren ahalik eta esparru gehien arautzeko nahia izan ziren. Legedia ekonomiko frankista oso zorrotza zen, eta ekonomiaren hainbat eta hainbat aspektu fermuki arautuak zeuden. Gainera, ekonomia militarra lehenetsi zenez, industria

92 Jose Vicente Iriarte Areso, *Movimiento obrero...* 21.

astunak garrantzi handia izan zuen, bestelako adar batzuen (biztanleriaren kontsumo ondasunen ekoizpena esaterako) kaltetan. Gehiegizko planifikazioaren, ustelkeriaren eta agintari ekonomikoen ezintasunaren ondorioz, espainiar ekonomiak estualdi larriak pasatu zituen. Gainera, horniketa arazoak eta arautze zorrotzak zirela medio, merkatu beltza merkatu ofiziala baino azkarrago hazi zen, eta gosea eta azpielikadura hainbat gizarte sektoretan oso presente egon ziren. Ekonomiaren mantsotzea hainbestekoa izan zen, ezen 1950eko hamarkadaren erdialdera arte ez baitziren gerraren aurreko adierazle ekonomikoen mailak berreskuratu. Gerra Zibilak sortutako kalteek, nazioarteko isolamenduak zein Erregimenak hartutako politika ekonomiko autarkikoek Espainia gerraondoko nazioarteko hazkunde ekonomikotik deskonektatuta utzi zuten, gutxienez 1950eko hamarkadan hasieran egoera aldatzen hasi zen arte⁹³.

Diktadura frankista, bestalde, hasieratik *klase izaera* zeukan Erregimena izan zen⁹⁴. **Bere sortzetiko helburuak** —mende hasierako beste faxismoena bezala— **langile klaseak Errepublikaren garaian erakutsitako bultzada eta Fronte Popularraren erreforma programa gelditzea izan ziren; halaber, iraultza mehatxua urruntzeko eta kapitalaren mozkin metaketa ziurtatzeko tresna ere izan zen**⁹⁵. Hala bada, langile klasea erabat desagerrarazi, eta subjektu politiko izateari utz ziezaion saiatu zen Erregimena. Horretarako errepresio gogorrari ekin zion eta langile mugimenduko kide izandakoenganako jazarpena praktikan jarri zuen. Hori gutxi balitz, langile klasea politikoki birproduzitzeko ezinbesteko baliabideak debekatu ziren: langile izaera zuten elkarten eta erakundeen debekua, bere tresna politikoaren edo sozialen (sindikatu eta alderdiak esaterako) jazarpena, elkarguneen (ateneo, zirkulu, kasino eta herriko etxeak) itxiera eta bestelako baliabide kultural guztien oztopatzea. Langile izaera desagerrarazteko, *langile* hitza bera ere hizkuntzatik ezabatu nahi izan zuten; izan ere, erakunde frankisten erretorikan *langileez* edo *proletarioez* hitz egin beharrean *produktoreez* hitz egiten zen⁹⁶.

Langileenak ziren eta klase izaera zuten esparruak suntsitzearekin batera, frankismoak masa erakunde berriak eratu zituen, eta legedia zorrotzaren ondorioz gizarte zibilaren legezko esparru bakarrak Erregimenaren kontrolpekoak baino ez ziren⁹⁷. Langileei diziplina zurruna ezartzeko eta

93 Frankismoko historia ekonomikoan sakontzeko: Jordi Maluquer de Motes, *La economía española en perspectiva histórica*, Pasado y Presente, 2014. Albert Carreras i Odriozola, Xavier Tafunell Sambola, *Historia económica de la España contemporánea (1789-2009)*, Crítica, Bartzelona, 2010. Francisco Comín, Mauro Hernández Benítez, Enrique Llopis Agelán (coord.), *Historia económica de España, siglos X-XX*, Crítica, Bartzelona, 2010.

94 Emmanuel Rodríguez Lopez, *Por qué fracasó...* 39.

95 Sakontzeko: Paul Preston, *La Destrucción de la democracia en España: reforma, reacción y revolución en la Segunda República*, Alianza, Madril, 1987. Julian Casanova Ruiz, Paul Preston (koord.), *La guerra civil española*, Editorial Pablo Iglesias, 2008. Santos Julia (koord.), *Víctimas de la guerra civil*, Temas de Hoy, Madril, 2004.

96 Carme Molinero, Pere Ysas, «Productores disciplinados: control y represión laboral durante el franquismo (1939-1958)», *Cuadernos de relaciones laborales*, 3 zbk. (1993), 33-50.

97 Nerea Perez Ibarrola, *Langileria berri...* 26-28. Josep Fontana Lazaro, «Reflexiones sobre la naturaleza y las consecuencias del franquismo», *España bajo el franquismo*, Crítica, Bartzelona, 2000.

ekoizpen eredia mantentzeko frankismoak erabili zuen tresnarik garrantzitsuenetako bat Sindikatu Bertikala (Central Nacional Sindical, Organización Sindical Española, CNS edo OSE) izan zen. Erakunde hori frankismoaren egitura instituzionalen ardatzetako bat zen, eta korporatibismo faxistaren inspirazio zuzenaren bidez sortu zen. Bere helburua langileak enkoadratzea eta diziplinatzea zen. Bertan bai langileek, bai enpresariak ere parte hartzen zuten, eta Gobernuak estuki kontrolatzen zuen, beraz, ez zen inolaz ere klase erakunde independente bat. Gainera, afiliazioa langile guztientzako derrigorrezkoa zen eta zenbait lanpostutan kontratatua izateko edo zeregin burokratiko batzuetarako ezinbestekoa zen bere bulegoetan banatzen zen txartela eguneratua edukitzea. Erretorika faxistaren arabera, Sindikatu Bertikalaren helburua gizartea harmonizatzea eta gizarte gatazkak dekretu bidez *gainditzea* zen⁹⁸. Hartara, lan baldintzak ez ziren enpresari eta langileen arteko negoziazioen bitartez arautzen, Gobernuaren dekretuaren eta Sindikatu Bertikalaren arautzearen bidez baizik. Gobernuak, zer esanik ez, ia beti enpresaburuaren alde egiten zuen, eta hori gutxi balitz, langileen presio mekanismoak (greba eta elkartze eskubidea, klase ikuspegidun sindikatu eta alderdiak, ...) erabat debekaturik zeuden, enpresariak beren tresna propioak edukitzen segitu zuten arren.⁹⁹ Neurri horiek guztiek enpresariari, hau da, klase kapitalistari egiten zioten mesede. Hori zela eta, frankismoak klase izaera zuela esaten da¹⁰⁰.

Gainera, Frankismoak, bi mundu gerren artean sortu ziren erregimen kontrairaultzaile gehienek (faxismoak eta nazismoak) bezala, emakumeen askapenari aurre egin zion. Izan ere, ordena soziala eta diziplina berrezartzea helburu zuten erregimenak ziren heinean, mende hasierako feminismoaren aurrerapausoak eta lorpenak mozteko beharra zuten, horiek kontrako norabidean joaten baitziren, hain zuzen ere¹⁰¹. Horretarako ezin bestekoa zen emakumeen «menpekotasuna ziurtatzea»¹⁰².

Menpekotasun hura mantentzeko emakumeak familiari eta etxeko lanei lotuta gera zitezten saiatu ziren. Familia gizartearen oinarritzko egitura modura ulertzen zen, eta emakumea, etxeko lanen eginbeharretara mugatzearen eta «familia buruaren» menpera azpiratzearen bidez, esparru

98 Francisco Bernal García, *El sindicalismo vertical. Burocracia, control laboral y representación de intereses en la España franquista (1936-1951)*, Centro de Estudios Políticos y Constitucionales - Asociación de Historia Contemporánea, Madril, 2010. Cristina Gomez Cuesta, *Sindicalismo vertical y respuesta obrera Valladolid, 1939-1959*, Universidad de Valladolid, 2010.

99 Carme Molinero, Pere Ysas, «Productores disciplinados: control ...».

100 Emmanuel Rodriguez Lopez, *Por qué fracasó...* 63.

101 Erregimenak emakumeen inguruan zer jarrera zuen ikusteko kontsulta bitez: Gemma Pierola Narvarte, *Mujer e ideología en la dictadura franquista, Navarra (1939-1960)*, Pamiela, Arre, 2018. Mary Nash, *Represión, resistencias, memoria. Las mujeres bajo la dictadura franquista*, Comares, Granada, 2013.

102 Carmen Sarasua, Carme Molinero, «Trabajo y niveles de vida en el Franquismo. Un estado de la cuestión desde una perspectiva de género», *Working Papers (Universitat Autònoma de Barcelona. Unitat d'Història Econòmica)*, 3 zbk., 2008. Liburu honetan ere eskuragarri: Cristina Borderias (ed.), *Trabajo y niveles de vida en el Franquismo. Un estado de la cuestión desde una perspectiva de género*, Icaria, 2009.

domestikora lotu nahi zen. Menpekotasun hori lortzeko, frankismoak II. Errepublika garaiko legedia berdinzalea eta hezkidetzaz erabat ezabatu zituen, eta ondorioz emakumeen menpekotasun juridikoa ezarri zuen. Emakumeak legearen aurrean adin txikikoen parekotzat zituen, eta zeregin askotarako (lan postu bat eskuratzeko edo kontu korrante bat irekitzeko esaterako) bere kargu hartzen zuen gizonaren («familia buruaren») baimenarekin izan behar zuen; senarra, aita edo anaia izan zitekeena. Horren ondorioz, espainiar guztiek adin-nagusitasuna 21 urterekin lortzen zuten arren, emakumeen kasuan — ezkondu ezean— gurasoen etxetik alde egiteko gutxieneko adina 25 urtekoa zen eta ordura arte ezin zuten aitaren kontrolpetik alde egin¹⁰³. Gainera, emakumeentzako eskusiboak ziren delituak ere bazeuden: abortua, prostituzioa edo adulterioa konparaziora.

Lan munduari dagokionez, emakumeen independentzia ekonomikoa mugatzeko eta etxeko lanetara lotzeko asmoz, legedia murriztailea eta arautzailea ezarri zen. Erregimenaren funtsezko legeetako batean (Lanaren Foruan) Estatuak «emakume ezkondua tailerretik eta lantegitik askatzeko» ardura zuela zioen¹⁰⁴. 1944ko Lan Kontratuen legearen arabera, halaber, ezkontzerakoan emakumeak lantokitik bidaltzen zituzten eta «dotearen» kalte-ordaina ematen zitzaaien. Bestalde, emakume ezkonduen senarraren baimena behar zuten lanposturen bat eskuratu ahal izateko. Eta baimenduta ere, emaztearen soldata jasotzeko eskaera egin zezaketen senarrek¹⁰⁵. Modu horretan emakumeak profesionalki baztertu egiten zituzten. Hala ere, denboraren poderioz eta *Desarrollismoaren* garapenaren ondorioz sortutako laneku eskaria hazi egin zenean, murrizpen horien inguruko legedia malgutu zen¹⁰⁶.

Edonola ere, lan munduan txertatzeko oztopo legalak ezartzen zizkieten arren, emakume askok, bereziki langile klasekoek, etxeko diru sarrerak osatzeko lan egitera behartuta ikusten zuten beren burua. Oztopoen ondorioz, oso maiz arautu gabeko azpilanak izaten ziren hauek, etxeetan modu osagarrian edo ezkutuan egiten zirenak, eta beraz, estatistika ofizialetan sartzen ez zirenak. Emakumeen lana nekazaritzan mantendu egin zen (60ko hamarkadara arte gutxienez), eta neskame edo etxe-garbitetari eta zaintzari lotutakoak ere oso ohikoak izan ziren¹⁰⁷. Bestalde, oztopo legal eta laboral guztiez gain, bestelako trabak ere bazeuden: «idatzi gabeko diskriminazioak». «Emakumeen

103 *Ibid.* 5-6.

104 «Fuero del Trabajo», *BOE (Estatuko Aldizkari Ofiziala)*, 505 zbk. (1938ko martxoaren 10), 6178-6181. <https://www.boe.es/datos/pdfs/BOE/1938/505/A06178-06181.pdf> (2020ko maiatzean kontsultatua). Azpimarra egilearena da.

105 Carmen Sarasua, Carme Molinero, «Trabajo y niveles de...», 6. Carmen Bravo Sueskun, *De la domesticidad a la emancipación. Las mujeres en la sociedad navarra (1961 – 1991)*, Nafarroako Gobernua, 2012, 64-66.

106 Carme Molinero, Pere Ysas, «Productores disciplinados...» 33-50.

107 Carmen Sarasua, Carme Molinero, «Trabajo y niveles de...»16-19. Begoña Zabala Gonzalez, *Feminismo, transición...* 45.

gaineko kontrol informal» horrek haien gaineko agintea ezartzen zuen eta askatasunak mugatzen zizkien¹⁰⁸.

Ekonomiaren lurruztea

50eko hamarkadatik aurrera, *Desarrollismoa* deituriko garapen ekonomikoak langileriaren izaera eta osaera erabat aldatu zituen. Bigarren Mundu Gerraz geroztik, garai historiko horren ezaugarri ekonomiko nagusia hazkunde ekonomiko orokorra eta azkarra izan zen, ezen zenbaitetan Hogeita Hamar Urte Loriatsuak edo Kapitalismoaren Urrezko Aroa bezala ezagutzen baita¹⁰⁹. Hazkunde bultzada indartsu horrek industrializazioa eskualde berrietara zabaldu zuen. Atzerakoi eta landatar kontsideratzen ziren zonaldeak erabat aldatu zituen eta horrekin batera hango biztanleriaren proletarizazioa ekarri zuen. Hazkunde ekonomiko hura eredu fordistako kapitalismoan oinarritu zen, eta, ondorio modura, ongizate-estatuaren zein kontsumo gizartearen sorrera eta mugikortasun sozialaren ugaltzea ekarri zituen.

Ordura arte, Francoren Erregimena nazioartean bazterturik egon zen, baina 1950eko hamarkadaren hasieran nazioartean zeukan papera aldatu zen. Ardatzaren aliatu ohia izanagatik ere, egoera berriaren aurrean Mendebaldeko potentzientzako aliatu antikomunista baliotsua bilakatu zen. 1950ean Espainiak Nazio Batuen Erakundean zuen eserlekua berreskuratu zuen, eta urte bat beranduago Vatikanorekin Konkordatu sinatu zuen. Baina nazioarteko egoera normalizatze bidean egon zen mugarririk garrantzitsuena, dudarik gabe ekonomian izan zuen eraginagatik, Amerikako Estatu Batuekin egindako harreman komertzial eta diplomatikoak izan ziren. Espainia Europako berreraikuntzarako Marshall planetik aparte geratu arren, 1953an Defentsa eta Elkarlaguntzarako Ituna sinatu zuten bi herrialdeek, zeinaren bidez, Estatu Batuek diru-laguntzak eta erraztasun ekonomikoak emanen zizkieten Espainiari, bere lurraldean base militarrek ezartzearen truke.

Horri guztiari esker, Erregimen frankistak isolamendua urratzea lortu zuen, eta atzerapenarekin eta hainbat desorekarekin izan bazen ere, Mendebaldeko herrialde kapitalistetan gertatzen ari zen hazkunde ekonomiko indartsuari lotu zitzaion. Orduetik aurrera, ekonomiaren egoera irauli egin zen eta aurretiaz ikusi gabeko hazkunde ekonomiko indartsu bat gertatu zen, baina Europa Mendebaldeko ongizate-estatu eta oparotasun ekonomikoaren isla baino ez zuten ikusi espainiarrek.

108 Begoña Zabala Gonzalez, *Feminismo, transición...* 46-47.

109 Bibliografía frantsesean ohikoagoa da lehendabiziko adiera aurkitzea (*Les Trente Glorieuses*), testu anglofonoetan, aldiz, bigarrena erabiltzen da maizago (*The Golden Age of Capitalism*).

Nazioarteko merkataritzari oztopoak gutxiagotu zitzaizkion eta interbentzionismoa eta arautze zorrotza arindu egin ziren. Neurri horien ondorioz, inportazioak hobetu ziren, espainiar ekonomiak zituen gabeziei aurre egiteko balio izan zuena (lehengaiak, ekipo ondasunak eta teknologia berriak, ...). Pixkanaka hazkundera berraktibatu zen eta Espainiako ekonomia aldi berri batean sartzeko oinarriak jartzen hasi ziren. Ziklo ekonomiko berrian emigranteek bidalitako aurrezkiak (*remesa* ezagunak), Europatik turismoak ekarritako dibisak eta kanpoko enpresen inbertsioa ezinbestekoak izan ziren. Izan ere, horiek ahalbidetu zuten hazkunde garaia bultzadarako beharrezkoak ziren iturri energetikoen eta teknologia industrial berrien inportazioa finantzatzea, bai eta kanpo defizita bete-ezina ez izatea. Horrek guztiak kanpo dependentzia handia sortu zuen, bereziki Espainiako energia kontsumoa beste herrialdeen bataz bestekoa baino gehiago hazi zela kontuan hartuz gero¹¹⁰.

Baina benetako aldaketa ez zen 1959era arte ailegatu. Hobekuntza txikiak ikusten hasiak ziren arren, hamarkada bukaerarako espainiar ekonomiak hazkunderaren mugak agerian geratu ziren eta urratutako bideari jarraitu nahi baldin bazion argi geratu zen hazkunderentzako oinarri sendoagoak behar zituela. Azken urteetan hartutako norabidean sakontzeko asmotan, 1957ean Gobernu berri bat eratu zen (Opus Deiko ministro teknokratez osatuta zegoena) eta horrek 1959eko Egonkortze Plana onartu zuen¹¹¹. Egonkortze Planak Autarkiak sortutako oztopo eta desorekak gainditzea eta nazioarteko ekonomiara are gehiago irekitzea zeuzkan helburu, inflazioa gelditzeko eta espainiar merkata atzerriko merkatuetara lotzeko neurrien bidez. Gobernuak, gainera, ordura arte industrializaziotik baztertuta geratu ziren eskualdeak bultzatzeko «Garapen Poloen» bidezko industrializazioa bultzatu zuen eta leku horietan industria berriak ezar zitezela laguntzak eman zituen. Pixkanaka eta desoreka handiekin bazen ere (kanpo menpekotasuna, merkatal balantzaren desoreka, inflazio gorakorra, ...) Espainia Europako hazkunde ekonomikoari lotu zitzaion. 1950-73 bitartean Espainiako *per capita* BPGaren urteko hazkunde tasa %5,2 izan zen, Europako altuenetarikoa¹¹². Espainian baina, hazkunde hori oso oinarri ahulen gainean egin zen, bere garapena baldintzatzen zuen desoreka frankorekin. Hazkunde horren zenbait oinarrik, 1970eko hamarkada erdialdetik aurrera, krisia larriagotu zuen.

Aldaketa horiek ere emakumeei eragin zien. Emakumeak lan mundu arautuan txertatzeko oztopo legalak bazeuden arren, koiuntura ekonomikoak emakume frankok lanpostuak lor zitzan eragin zuen. Gizonak, oro har, soldata altuagoak zeuzkaten eta formakuntza maila altuagoa eskatzen

110 Jordi Catalan Vidal, «Del «milagro» a la crisis: la herencia económica del franquismo», Miren Etxezarreta Zubizarreta (koord.), *La Reestructuración del Capitalismo Español, 1970-1990*, Icaria, Bartzelona, 1991, 102-103.

111 Jordi Maluquer de Motes, *La economía española en perspectiva histórica*, Pasado & Presente, Bartzelona, 2014, 258-261.

112 Jordi Catalan Vidal, «Del «milagro»...» 97.

zuten industriako puntako sektoreetan aritu ziren; hau da, *Desarrollismoaren* oinarritu zen horietan, «siderurgia, ontzigitza, meatzaritza, zementua, metala, mekanika, kimika» edo eraikuntza besteak beste¹¹³. Emakumeak, bestalde, eskulan merkea eta formakuntza urria eskatzen zuten lanpostu intentsiboetan aritzen ziren, enpresa txiki eta ertainetan sarri, hala nola: oihalgintza, zapatagintza edo elikagai-industria. Kontserba industrietan esaterako, uzta-sasoiaren menpekua zenez enplegua erabat behin-behinekoa zen (urteko garai laburretan eskulan ugari eskatzen baitu, baina gainerakoetan ez), eta behin-behinekotasunaren ondorioz, lanpostu horiek emakumeen esku geratzen ziren¹¹⁴. Industrian, emakumeen formakuntza maila zabaldu ahala, batzuetan bulegari edo idazkari izateko postuak eskuratzea lortzen zuten. Ekonomiaren tertziarizazioak, bestalde, emakumeak lan munduan txertatzeko erraztasunak eman zituen, baina beti ere beren etxeko esparru naturalari lotutako sektoreetan aritzeko: ostalaritzan, merkataritzako saltzaile, irakaskuntzan edo osasungintzan.

Industria Iraultza Nafarroan

Hazkunde ekonomiko hark, Nafarroan ere berealdiko eragina izan zuen. Ordura arte Nafarroak lurralde landatar izaten segitzen zuen, Espainiako mende hasierako industrializazio gune garrantzitsuenetatik (Katalunia, Bizkaia, Gipuzkoa, Asturias...) aparte geratua zelako. Horregatik 50eko hamarkadaren hasieran Nafarroako industria oraindik sektore tradizionaleri loturik zegoen, bereziki lehen sektoreko lehengaien eraldaketan oinarrituta: zurgintzarako zerrategiak, elikagai industria (Erriberako kontserbak, azukrea, ardogintza...), oinetakoak (Tafallan), larrugintza (bereziki Lizarran) eta abar. Gainera, industria metalikoei loturiko hainbat lantegi eta bi meategi (Olatzagutiko Portland eta Zubiriko Magnesitas) ere bazeuden¹¹⁵. Baina 50eko hamarkadarako zenbait aldaketa gertatzen ari zirela nabaritzen hasia zen, automobilgintzari eta metalaren sektoreari lotutako jarduerak ugaritzen hasi zirelako.

Nafarroan 50eko eta 60ko hamarkadetako hazkundeak ezaugarri bereziak izan zituen. Gerra Zibilean Bando Nazionalaren alde egindako ekarpenagatik, Estatu Berri frankistak Nafarroako Diputazioari zegozkion hainbat eskumen gordetzeko baimena eman zion, zerga batzuen gaineko kontrola esaterako. Eskumen horiei esker Nafarroan ekimen publikoak inbertsoreak erakartzeko inizatibak bultzatu ahal izan zituen. Salbuespen fiskalak, lur merkea, diru-laguntzak, industria poligonoen sorrera eta bestelako erraztasunen bidez industria eta sektore berriak erakartzea lortu zuten. Esku-lanari dagokionez eginahala handia egin zen baita ere: garatu nahi ziren sektore

113 Carmen Sarasua, Carme Molinero, «Trabajo y niveles de...» 14.

114 *Ibid.* 15-16.

115 Jose Vicente Iriarte Areso: *Movimiento obrero...* 32-33.

berrietan behar bezalako formakuntza teknikoa ezinbestekoa zen, horretarako ekimen publikoaren, erakunde elizkoien eta enpresen bultzada konbinatuaren bidez Lanbide Heziketarako formakuntza eskaintzen zuten ikastetxeen sare trinkoa eratu zen¹¹⁶. Imenasak eta Potasasek esaterako formakuntza eskola propioak izan zituzten, eta horietan sortutako harremanen eta formakuntza kristauaren ondorioz, zenbaitetan hainbat lider sindikal garrantzitsu atera ziren¹¹⁷. Gainera, Nafarroan ordura arte tradizio ezkertiarra ahula zenez (eta egon zena errepresioak errotik erauzi zuenez), langileen antolaketa maila apalak eta soldata baxuek ere enpresariak erakarri bide zituzten. Azkenik, azpimarratzeko moduko beste faktoreetako bat Bizkaia eta Gipuzkoaren gertutasuna litzateke, hango industriaren kongestioa zela eta, Nafarroa hango jardueren zabalkunde esparru bilakatu baitzen¹¹⁸. Nafarroak gainera, Gobernu zentralak bultzatutako Garapen Poloen mesedeen onurarik jaso ez bazuen ere, mota horretako plan baten bertsio propioa izan zuen: Diputazioak 1964ean bultzatutako Industria Sustapenerako Plana (Plan de Promoción Industrial, PPI) alegia.

Berezitasun horiek direla medio, eta ekimen publiko zein pribatuaren ondorioz, Nafarroako *Desarrollismoa* norabide konkretu batean garatu zen. Hazkundera bereziki industria metaliko eta elektronikoen ezarpen berrirantz bideratu zen, eta horrela, nafar ekonomiak urte gutxitan landatar izateari utzi zion eta erabat industrializatu zen.

Lehen sektoreari dagokionez, nekazaritza eta abeltzaintza modernizatu egin zirela esan dezakegu. Modernizazio hura espezializazioaren, mekanizazioaren, berrikuntza teknologikoaren eta intentsifikazioaren bidetik garatu zen. Gainera, pixkanaka sektorea merkaturantz bideratzen hasi zen. Garapen hura sektore hartan aritzen zen biztanleria aktiboaren tasaren jaitsieran islatu zen, eta hazkundera industrialaren ondorioz, nekazaritzak eta abeltzaintzak BPGan zuten pisu erlatiboa gutxitu zen; lehen sektoreak garrantzia galdu zuen bigarren sektorearen mesedetan¹¹⁹.

Baina, esan dugun bezala, industria izan zen garrantzi gehien izan zuen sektore ekonomikoa. 1950tik 1980ra lehen sektorean (nekazaritzan, abeltzaintzan eta basogintzan) jarduten zuen biztanleria aktiboa %53,7 izatetik %14,8 izatera pasa zen, eta bien bitartean, industrian aritzen zen biztanleria aktiboa %22,6 izatetik %45,2 izatera pasa zen¹²⁰.

116 Joseba de la Torre Campo, «Trabajadores, empresarios y tecnócratas en el desarrollo industrial de Navarra (c. 1950-1980)», *Gerónimo de Uztariz*, 22 zbk. (2006), 75-103.

117 Joseba de la Torre Campo, «Industria del automóvil y desarrollo económico regional: La experiencia de Navarra», *Investigaciones de Historia Económica = Economic History Research*, 9 zbk. (2007), 109-140.

118 Blas Los Arcos Leon, «Evolución de la economía de Navarra en el período 1960-2007», *Iura Vasconiae: revista de derecho histórico y autonómico de Vasconia*, 7 zbk. (2010), 231-255.

119 Jose Vicente Iriarte Areso, *Movimiento obrero...* 31-32.

120 Emilio Majuelo Gil, Angel Pascual Bonis, *Del catolicismo agrario al cooperativismo empresarial setenta y cinco años de la Federación de Cooperativas navarras, 1910-1985*, Ministerio de Agricultura, Alimentación y Medio Ambiente, 1991, 223. Ikus halaber: David Mendaza Clemente, «Cambio en la estructura de clases y procesos históricos en Navarra y Zaragoza (1960-1980)», *Gerónimo de Uztariz*, 9-10 zbk. (1994), 55-74.

1. Koadroa: Nafarroako biztanleria aktiboaren sektorekako banaketa (ehunekotan), 1940-1986

	1940	1950	1960	1970	1980	1986
Lehen sektorea	56,7	53,7	41,5	25,3	14,8	13,3
Bigarren sektorea	19,7	22,6	30	42,1	45,2	40
Hirugarren sektorea	23,6	24,7	28,5	32,6	40	46,6

Iturria: Emilio Majuelo Gil, Angel Pascual Bonis, 1991, 223.

Industria sektorean metalarena izan zen adarrik garrantzitsuena. Nafarroan 1978an zeuden 17 enpresa handienetatik 12 metalaren adarrekoak ziren¹²¹. Automobilgintzak paper berezia bete zuen Nafarroaren industrializazioan. Diputazioa gutxienez 1955tik lurraldean mota honetako lantegi bat ezar zedin saiatzen egon zen. Azkenean 1966an kapital espainiar eta ingelesa zuen Authi enpresa ezarri zen arte. Authik Mini eta Morris markako autoak muntatzeko eta ekoizteko lizentzia zeukan. Haren inguruan hainbat industria laguntzaile aritu ziren lantegi nagusia piezez, tresnez eta bestelako zerbitzuez hornitzen zutenak (Urrak, esaterako, balaztak egiten zizkion eta Imenasan direkzioa egiten zen)¹²².

Pixkanaka sortzen ari zen ongizate-estatuaren ondorioz, bestalde, langileen etxe batzuetan etxetresna elektrikoak ugaritzen hasi ziren eta horien ekoizpenak ere garrantzi handia izan zuen. Metalaren sektoreko beste adar batzuek ere Nafarroan presentzia handia izan zuten, besteak beste, nekazaritzarako makinaria, makinak, ijezketa edota eraikuntzarako pieza eta tresnen horniketak (garabiak esaterako).

Metala adar garrantzitsuena bazen ere, Nafarroan enplegatu gehien zituen lantegia Potasas de Navarra zen, Iruñerria hegoaldean zegoen meatzea. Erreniega mendizerraren magaleko lurrazpiko barrunbeetatik potasa gatz-minerala erauzten zen, batez ere nekazaritzarako ongarri modura erabiltzen zena. Lantegiak 2.000 bat langile zituen eta jabego publikoko enpresa zen, INIren (Instituto Nacional de Industria, Industria Insitutu Nazioala) menpekota baitzen, 1959ean sortua.

121 Jose Vicente Iriarte Areso: *Movimiento obrero...* 33-35 eta 52. Enpresa handi haiek enpleguaren %46 suposatzen zuten, hala ere.

122 Joseba de la Torre Campo, «Industria del automóvil...», 110-111.

Industria garapena bereziki produktu metalikoen, makineriaren, autogintzaren ekoizpenean eta meatzaritzan, papergintzan eta kimikan oinarritu zen. Bai metalaren lantegi garrantzitsuenak, baita Potasaseko meatzea ere frankismoaren hondar urteetan, lantokirik gatazkatsu eta borrokalarienak izan ziren. Horiek denak langile mugimenduaren bihotza osatzen zuten eta ezker erradikalaren erreferentzia nagusiak izan ziren. Elikadura industria (Erriberako nekazal produktuen kontserbak eta hestebeteak bereziki) ere garrantzitsua izan zen, bere pisu erlatiboa, beste adarren aldean, gutxitzen joan zen arren. Nafarroan tradizio luzea izan zuten beste sektore batzuek, bestalde, (oihalgintza, larrugintzak, oinetakogintza, zurgintza...) sektore berrien bultzadaren ondorioz gainbeheran sartu ziren¹²³.


Hirugarren sektorea ere oso azkar garatu zen. Berezi garraioaren eta eraikuntzari lotutako ataletan. Lehendabiziko kasuan industriari oso loturik, eta bigarrean hiritartze prozesuari (auzo berrien eraikuntzaren ondorioz) eta azpiegituren eraikuntzari (Nafarroako Autobidearen eraikuntzari esaterako) loturik.

Eraldaketa sozioekonomiko hauen guztien ondorioz, landa exodoa gertatu zen. Nekazaritzaren intentsifikazioaren, mekanizazioaren eta kontzentrazioaren ondorioz, landa ingurunean esku-lan ugari libre geratu zen. Hirietan, ordea, industria berrien sorrerarekin batera esku-lan eskaria handia zen. Horren ondorioz, biztanleriaren lekualdatze prozesua abiatu zuen, herri asko *hustu* ziren eta hirien pisu demografikoa biderkatu egin zen. Nafarroan, Iruñean eta bere inguruko udalerrak izan ziren gehien hazi zirenak eta hiri buruzagiaren inguruko makrozefalia gertatu zen. 1930tik 1981era, esaterako, Nafarroako biztanleria hiritarra %17,9 izatetik %55,3 izatera pasa zen¹²⁴.

123 Blas Los Arcos Leon, «Evolución de la economía ...», 235.

124 Angel García-Sanz Marcotegi, Fernando Mikelarena Peña, «Evolución de la población y cambios demográficos en Navarra durante el siglo XX» *Gerónimo de Uztariz*, 10 zbk. (2000), 125-138.

1. Figura:
Nafarroako biztanleria hiritarraren proportzioa (ehunekotan), 1900-1991



Iturria: Angel Garcia-Sanz Marcotegi, Fernando Mikelarena Peña, 2000, 128.

Industria Sustapenerako Planak eskualde-buru ziren neurri ertaineko herri batzuetan ere industriak ezartzea planteatu zuen, lurralde ezberdinen arteko oreka demografikoa mantentzeko¹²⁵. Eraginkortasuna ez zen erabatekoa izan, Iruñeko metropoliaren joera makrozefalikoa indartu baitzen, baina eskualde buru horiek inguruko herrietako biztanleak erakartzea lortu zuten: Tuteran, Tafalla, Zangoza, Lizarra edo Agoitz bezalako tokietan industriak ezarri ziren eta biztanleria mantentzea edo are handitzea ere lortu zuten. Tuteran, esaterako, 60ko hamarkadaren erdialdetik oso denbora gutxian hiru lantegi handi ezarri ziren: Piher, Sanyo eta SKF. Horrek, Iruñean gertatu zen bezala, biztanleria erakarri zuen hirira eta auzune berriak jaio ziren, besteak beste, Lourdeseko langile auzoa.

Beste eskualde batzuetan, tradizio industrial zaharragoa zutelako edota Gipuzkoako industriaren oihartzunen ondorio zirelako —Leitzan, Sakanan eta Bortzirietan esaterako—, biztanleriak eta garapen ekonomikoak gora egin zuten. Ikusi dugun bezala, demografian aldaketa sakonak gertatu ziren, Nafarroak zonalde emigratzaile izateari utzi zion eta garapen industrialaren ondorioz, (eta hurrengo koadroan ikus daitekeen bezala) lan-eskua inportatzeari ekin zion:

125 Nerea Perez Ibarrola, *Langileria Berri...* 54.

2. Koadroa: Nafarroako migrazio saldoa 1931-1970 artean

1931-1940	-10.300
1941-1950	-16.836
1951-1960	-20.499
1961-1970	+18.187
Iturriak: Emilio Majuelo Gil, Angel Pascual Bonis, 1991, 213-214 eta Angel Garcia-Sanz Marcotegi, Fernando Mikelarena Peña, 2000, 127.	

Blas Los Arcos Leon-en arabera, halaber, 1960 eta 1975 bitartean, esterako, Nafarroaren migrazio saldoa 14.263 lagunekoa izan zen¹²⁶. Etorrin horiek hasiera batean Nafarroako probintzia mugakideetatik etorri ziren, baina industria prozesua bizkortu ahala Espainia hegoaldeko probintzia landatarrek protagonismoa irabaziko zuten. 1975ean, esate baterako, Iruñean zeuden etorkinen %13,4 Jaeneko eta Badajozeko probintzietan jaiotakoak ziren¹²⁷. Hainbat eta hainbat lagun etorri ziren industria edo eraikuntzara lan egitera.

Subjektu berri bat

Arestian esan bezala, industrializazioak eta harekin bat gertatutako hiritartzeak aldaketa sakonak ekarri zituen¹²⁸. **Aldaketa sozioekonomiko sakon horien ondorioz langileria berri bat eratu zen**, bereziki pertsona gazteez osatua eta gerraurreko tradizio ezkertiarrekin lotura zuzenik ez zuena¹²⁹. Gainera, hazkunde eredu berriarekin batera enpresari eta langileen arteko harreman berriak eratu ziren eta lan-gatazken aldi berri bat ireki zen, bereziki 1958ko Hitzarmen Kolektiboen legea onartu zenetik, ordura arteko Gobernuaren izaera arautzailea malgutu egin zuena.

Testinguru horretan, langileek elkarrekin bizitako eta partekatutako bizipenen bidez (esplotazio esperientziak, behar ekonomikoak, borrokak eta abar) identitate berri bat (subjektibitate edo *gu* berri bat alegia) eratu zuten. Eraketa horretan sozializaziorako esparruek eta harreman sareek paper garrantzitsua bete zuten: auzoak, parrokiak, elkarte kristauak, peñak eta aisialdi

126 Blas Los Arcos Leon, «Evolución de la economía ...» 247.

127 Nerea Perez Ibarrola, *Langileria Berri ...* 59. Dolores Lopez, Carolina Montero, «Cambios en la ciudad de Pamplona (1945-1975). Una mirada desde la demografía» Maria del Mar Larraza (Dir.), *De leal a disidente: Pamplona 1936-1977*, Ediciones Eunete, Iruñea, 2006, 284-285.

128 Fernando Mendiola Gonzalo, «Entre los viejos y los nuevos moldes: cambio social y político en Pamplona y su comarca (1951-1981)» *Geronimo de Uztariz*, 17-18 (2002), 211-250.

129 Nerea Perez Ibarrola, *Langileria Berri ...*444-445

elkarteak, ... **Modu hartara langile klase hark kontzientzia hartu zuen eta subjektu historiko gisa eratu zen.**

Langile klasearen eraketa prozesu konplexu hura Nere Perezek bikainki aztertu du. Bere lanean, langile klasearen identitatea ez da zerbait burutua eta determinatua bezala ikusten, subjektibitate dinamiko baten moduan baizik. Langileek pixkanaka ikusi zuten interes komunak zituztela, horiek beste klaseen aurakoak zirela eta interes horiek erdiesteko kolektiboki jardun behar zutela. Zentzu horretan, Perez Ibarrolak ikuspegi thompsoniarra langile-identitate berriaren eraketa «prozesu baten emaitza» izan zela ondorioztatzeko baliatu du: «Lehendabizi subjektu berriak sortu ziren, eta gero, subjektu horiek defendatzeagatik eta jomuga kolektiboak lortzeagatik borrokatu zen talde historiko gisa itxuratu ziren»¹³⁰. Testuinguru horretan langile klaseak borroka politikorako berezko tresnak behar zituen, frankismoaren masa erakundeetatik (Sindikatu Bertikaletik eta alderdi bakarretik) kanpo zeudenak. Batzuetan, «berezko esparruak zabaldu» zituzten (CCOO Langile Batzordeak edo ezker iraultzaileko alderdiak bezala) eta beste batzuetan, «jadanik existitzen zirenak bere egin zituzten» (mugimendu apostoliko kristauak bezala)¹³¹. Elkarre horiek, eta bestelakoek (auzo elkarretek, parrokiek, peñek eta abarrek) langileen gizarteratzeko «zirkuitu alternatiboan» sare zabal bat eratu zuten eta langile identitatea «zirkuitu horien barruan eratu» zela esan dezakegu.

3.2. Nazioarteko testuingurua. 68 Luzea edo Bigarren Oldarraldi Proletarioa

Ezker iraultzailearen sorrera ulertzeko, bestalde, aldaketa sozioekonomikoez gain, nazioarteko egoerari erreparatzea ere komeni da. Nafarroa Garaiko marko estua gainditu eta ezker iraultzailea protesta, aldarrikapen eta mobilizazio sozialen nazioarteko ziklo luze baten parte modura ulertu behar da, gutxi gorabehera, 1950eko hamarkadaren bukaeratik 1970eko hamarkadaren bukaerara arte iraun zuena (zenbaitetan oihartzunak 80koan barrena luzatu baziren ere)¹³². Urte haietan Hirugarren Munduko herriak inperialismoaren aurka altxatu ziren, eta, aldi berean, langile mugimenduak gatazka eta mobilizazio maila altua erakutsi zuen kapitalaren aurka. Zenbait momentutan *status quo*a kolokan egon zitekeela zirudien. Olatu iraultzaile horrek, esan bezala, nazioarteko izaera izan zuen eta munduko herrialde gehienetan nolako edo halako eragina

130 *Ibid.* 435.

131 *Ibid.* 444.

132 Josep Fontana Lazaro, *El siglo de la revolución. Una historia del mundo desde 1914*, Crítica, Bartzelona, 2017, 337-416.

izan zuen, hainbestekoa ezen, Immanuel Wallerstein-en arabera, «mundu-sistemaren iraultza» bat ere eragin baitzuen¹³³.

Gatazka sozialen eta mugimendu askatzaileen multzo horri, zein horiei loturiko kultura errebeldeei, erreferentzia egiteko *68 Luzea* esamoldea erabili izan da¹³⁴. Izan ere, 1968ko maiatzean Parisen gertatu ziren istiluak, aurrerago ikusiko dugun bezala, talka sozial horien goreneko gailurra izan ziren, giroa gorien egon zen unea, alegia. Hala ere, bi kontzeptuak (gertaera eta prozesua) ez nahastea komeni da, metonimiaren bidez osotasunari zatiaren izena jarri baitzaio. 68ko *gertaerari* buruz hitz egiterakoan, Frantzian hilabete eta erdiz gertatutakoa egiten zaio erreferentzia; 68 Luzea aipatzerakoan, aldiz, gutxienez hamarkada bat baino luzeagoa izan zen *prozesu historikoari* esaten zaio.

Hala ere, bada beste modu bat garai bera izendatzeko, akademikoki horren ortodoxoa ez dena, baina bereziki iradokitzailea iruditzen zaiguna: *Klase Gizartearen Aurkako Bigarren Oldarraldi Proletarioa*, edo besterik gabe *Bigarren Oldarraldi Proletarioa*. Izen horrek Guy Debord situazionistaren *Espektakuluaren gizartea* (1967) liburuan du jatorria —bertako 115. tesian, hain zuzen ere— eta langile autonomiaren ideien jarraitzaileek oso maiz darabilte. *Bigarren oldarraldia* esaten zaio, *lehendabizikoa* 1917ko Urriko Iraultzaz geroztik 20ko hamarkadan gertatu zen nazioarteko astinaldi iraultzailea litzatekeelako. Oso iradokitzailea da, beraz, 60ko eta 70eko hamarkadetako militanteak 1917an irekitako ziklo historikoaren jarraitzaile sentitzen zirela erakusten duelako, eta hein handi batean, iraultza gertatzeko zeukaten konfiantza zenbaterainokoa zen frogatzen duelako¹³⁵.

Kasualitateak tesi honen hasiera 1968ko gertakarien 50. urteurrenarekin bat egin zezan eragin zuen. Urteurren ospakizun handiekin gertatzen den bezala, uzta editorial oparoa egin zen urte hartan, eta baita hainbat kongresu akademiko ere. Ondorioz, urte hartako gertakarien inguruko hausnarketa ugari plazaratu zen¹³⁶. 68 Luzea argitaragai emankorra izan da urte luzeetan, eta ez

133 Immanuel Wallerstein, «1968. Revolución en el sistema-mundo. Tesis e interrogantes», *Estudios sociológicos*, Vol. 7, 20 (1989, mai-abu), 229-250.

134 Richard Vinen, *1968, El año en que el mundo pudo cambiar*, Crítica, Bartzelona, 2018, 23-24. Abdón Mateos Lopez, Emanuele Treglia, «Introducción», Abdón Mateos Lopez, Emanuele Treglia (Koord.), *Las convulsiones del Abdón Mateos Lopez, Emanuele Treglia (Koord.)*, *Las convulsiones del 68. España y el sur de Europa*, UNED, Madril, 2019, 7-9. Frantzian ohikoa da plurala erabiltzea: *les années 68*.

135 Frantsesezko originalean: «deuxième assaut prolétarien contre la société de classes»: Guy Debord, *La société du spectacle*, 75 http://classiques.uqac.ca/contemporains/debord_guy/societe_du_spectacle/societe_du_spectacle.pdf (2020ko ekainean kontsultatua).

136 Antonio Elorza, *Utopías del 68. De Paris y Praga a China y México*, Pasado y Presente, 2018. Nicolas Daum, *Mayo del 68: la palabra anónima. El acontecimiento narrado por sus participantes*, Acuarela & Antonio Machado, 2018. Javier Noya, *Mayo del 68. Las críticas de la izquierda a las revueltas estudiantiles*, Los Libros de la Catarata, 2018. Gabriel Albiac, *Mayo del 68. Fin de fiesta*, Confluencias, 2018. Patricia Badenes, *Fronteras de papel*, Cátedra, 2018. Luis Zaragoza, *Las flores y los tanques. Un regreso a la primavera de Praga*, Cátedra, Madril, 2018. Joaquin Estefanía, *Revoluciones. Cincuenta años de rebeldías (1968-2018)*, Galaxia Gutenberg, Bartzelona, 2018. Hau gazteleraz daudenen lagin xume bat baino ez da. Kongresuen kasuan, hainbat etsenplu aipatzeagatik: *Congreso*

bakarrik ikerketa historiografikoetan, baita entsegu politiko edo filosofikoetan ere. Orokorrean, protesta eta erradikalizazio olatu honek nazioarteko oihartzun zabala izan zuela onartuta dagoen arren, zenbait ikerlarik *benetako iraultza* bat izan zenik ukatzen dute. Zenbaitetan, gainera, itxuraz erretorika marxistak eta ezkertiarrek nolabaiteko protagonismoa izan zuten arren, hura azaleko irudia baino ez zela defendatzen dute. Haien ustetan, protesta olatu hark izaera liberala izan zuen, eta, paradoxikoki, matxinada saiakera hura 80ko eta 90eko hamarkadetako neoliberalismoaren, postmodernitatearen eta indibidualismoaren sorburu modura irudikatu dute¹³⁷. 68 Luzekoa ustezko sasi-iraultza bat izan zela justifikatzeko hiru arrazoi nagusi erabili izan dira: proletarioek ustez interesik erakutsi ez izana, ikasle burgesek zuzendutako mugimendua izatea eta proposamen kultural estetiko hutsa izatea. Gainera, iraultzaren liderretako batzuek hurrengo hamarkadetan jasan zuten itxuraldaketa politikoaren ondorioz, eskuinerantz nabarmenki mugitu baitziren, protestaldi hura kritika kultural liberal eta postmoderno modura ulertzeko joera indartu da¹³⁸. Baina, elementu eta norbanako konkretu batzuek momenturen batean egin zutenaz aparte, iraultza edo matxinada saiakera honen izaera proletarioa eta politikoa azpimarratzen duten ikerlariak ere badaude, Xavier Vigna, Kristin Ross edo Chris Harman, esate baterako¹³⁹.

Nazioarteko olatu iraultzaile hori behar den bezala ezagutzeko garai hura irudikatzea komeni da. Mundua Gerra Hotz betean zegoen eta bi sistema sozial ezberdin elkarren aurka lehiatzen ari ziren. Ameriketako Estatu Batuek, oro har, nazioarteko politikaren nagusitasuna zuten, baina kontrola ez zen erabatekoa. Haien aurrean, Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna zegoen. Josif Stalin-en heriotzaz geroztik (1956), ordea, bi potentzien arteko lehia zuzena leuntzen hasi zen. Nikita Khrustxov-ek Nazioarteko Elkarbizitza Baketsuaren aldeko politika defendatu zuen, hau da, gerra mundial nuklearra saihesteko asmoz bi sistema sozial ezberdin horien arteko talka zuzenik

Internacional mayo del 68/ 50 años después (2018ko maiatzaren 21-23, Madril, Universidad Complutense de Madrid) <https://congresomayodel68.wordpress.com/ponentes-confirmados/>, *La beauté est dans la rue, jardunaldiak*, (2018ko maiatzaren 9 eta 10, Madril, Hastapenak. historia sozialeko aldizkaria, Universidad Autónoma de Madrid.) <https://hastapenak.weebly.com/mayo-del-68-perspectivas-histoacutericas.html> , *Congrés Internacional 68s*, (Bartzelona, 2018ko azaroaren 29 eta 30, GREF-CEDID) <http://centresderecerca.uab.cat/cedid/es/node/490> .

137 Ramon Gonzalez Ferriz, *1968. El nacimiento de un mundo nuevo*, Debate, 2018. Raymond Aaron, *La libertad, ¿liberal o libertaria?: La Nueva Izquierda y las revueltas del 68*, Página Indómita, 2018. Jarrera hau nahiko ohikoa da, ezkertiar izandako intelektualen helduarroan, eta bitxia bada ere, ezker otodoxoenaren parte batek iritzi honekin bat egiten du.

138 Kristin Ross-en arabera, *Nouveaux philosophes* (Filosofo Berriak) izeneko mugimendu liberal-atzerakoiak, —68ko elite intelektual izandakoak eta gaur egun mugimendu horren aurkako jarrera duenak— era kontzientean 68en aurrekari horiek «ahaztu» edo ezkutatu ditu, iraultza horren izaera zintzoa ezkutatzeko asmoz; haiek defendatzen dutenez, maiatzean «ez baitzen deus ere gertatu». Kristin Ross, *Mayo del 68 y sus vidas posteriores. Ensayo contra la despolitización de la memoria*, Acuarela Libros & A. Machado, Madril, 2008, 322-343.

139 Xavier Vigna, *L'insubordination ouvrière dans les années 68: Essai d'histoire politique des usines*, Presses Universitaires de Rennes, 2015. Xavier Vigna, Michelle Zancarini-Fournel, «Les rencontres improbables dans les années 68» *Vingtième Siècle. Revue d'histoire*, 101 zbk. (2009/1), 163-177.

egon ez zedin, eta bi sistemen arteko harreman adeitsuak mantentzeko zitezen saiatu ziren sobietarrak. Nazioarteko politika horren aldeko erabakiaren eta Sobietar Batasuneko Alderdi Komunistaren XX. Kongresuan (1956) abiatutako *desestalinizazio* prozesuaren ondorioz, SESBk komunista askorentzako erreferente izateari utzi zion, iraultzaile izateari utzi ziolakoan.

Hala ere, metropolien erdigunean Gerra Hotza zena, gori-gori eta gartsu bilakatzen zen periferian. Suspertzen ari ziren potentzia berriek nazioarteko agertokian beren espazioa aldarrikatzen zuten, bereziki Mao Zedong *Lemazain Handiak* gidatutako Txinako Herri Errepublikak, baita Hirugarren Munduko bestelako herrialde askok ere. Deskolonizazio prozesuek, potentzien arteko zeharkako lehiak eta potentzia berrien eguneratzeak periferiako gatazkak zentrorra ekarri zituzten.

Telebista lagun, lehendabiziko aldiz, vietnamdarren heriotzak metropolietako etxeetako egongeletaraino ailegatu ziren. Habana, Saigon, Aljer, Pekin, Praga, Mexiko eta Paris hari katodiko batek lotu zituen. Munduko bazter guztietako borroka lotzen zirelako sentipena zabaldu zen, gizateriaren txoko guztietan bidegabekeriaren eta askapenaren alde ari zirenen ahotsak lotzen zirelakoan. Ideia horixe dakarkigu gogora garai haietako lelo ezagunetako batek: «Vietnam gure lantegietan dago»¹⁴⁰.

Olatu iraultzaile horren lehendabiziko epea 1950eko hamarkadaren hasieran abiatu zen, Kristin Rossek 68aren «historiaurretzat» daukana¹⁴¹. Pixkanaka, hainbat faktore aurrerakoi metatzen joan ziren, ongari iraultzailea sortu zutenak, harik eta 1960ko hamarkadaren bukaeran hainbat mugimendu iraultzaile ongari horietatik loratu ziren arte. Besteak beste, faktore aurrerakoi horien artean honakoak azpimarratu ditzakegu: Hirugarren Munduko Nazio Askapenerako mugimenduak, Kuban (1953-1959), Algerian (1954-1962) edo Vietnamen (1952an hasitakoa) gertatutakoak; katolizismo soziala langile mundura hurbildu eta erradikalizatu zenekoa, bereziki Vatikanoko II.a Kontzilioaren ondorioz (1962-1965); edo Ezker Berria izeneko pentsalari eskola ezberdinen eragina (André Gorz, Lelio Basso, Louis Althusser, Jean Paul Sartre, Simone de Beauvoir, Frankfurtoko Eskola edo Internazional Situazionista, esaterako). Aldi berean, hainbat talde politiko eratu ziren, hamarkada bukaerako eztanda iraultzailean paper garrantzitsua bete izan zutenak; hala mugimendu iraultzaileetan bihurtuta nola horietarako koadroen sorburu modura: Frantziako *Parti Socialiste Unifié* (PSU, 1960an sortua), Estatu Batuetako *Students for a Democratic Society* (1960-1974), Espainiako *Frente de Liberacion Popular* (FLP, 1958-1969) edo Euskadi Ta Askatasuna (1958-2018)¹⁴².

140 Kristin Ross, *Mayo del 68 y sus vidas posteriores...* 165.

141 *Ibid.* 34-35.

142 Frente de Liberacion Popular (Nazio Askapenarako Frontea, FLP) antolaketa federala eta malgua zuen erakundea zen. Horregatik Kataluniako eta Euskadiko adarrek izen ezberdina izan zuten: FOC (Front Obrer de Catalunya) eta

Esan bezala, urte haietan hainbat mugimendu aldarrikatzaileraren sorrera eta erradikalizazioa gertatu zen. Estatu Batuetako segregazio arrazistari aurre egiteko, besteak beste, 50eko eta 60ko hamarkadako Eskubide Zibilen aldeko mugimendua eratu zen. Mugimendu hark, hasiera batean, modu baketsuan marko burgesaren eta legalaren alorrean eskubideak eskuratzea helburu zuen. Gainera, sarri asko erlijioari lotutako buruzagi eta lider publikoak izan zituen; Martin Luther King bera artzain protestantea zen. Baina pixkanaka, aldarrikapen horiek Hirugarren Munduko nazio askapenerako mugimenduen eraginaz busti ziren, eta mugimenduaren zati bat erradikalizatu zen, autodefentsa oinarri zuen eta «beltz harrotasuna» aldarrikatzen zuen nazionalismo beltz separatista sortzera ailegatu zen arte. Borroka armatuaren aldeko hautua egin zuten alderdi eta sektore batzuek, Pantera Beltzen Alderdiak (Black Panther Party, BPP) esaterako. Hurrengo urteetan protesta baketsuak alde batera utzi zituzten, ghettoetan abiatutako istiluei leku egiteko. Horrek guztiak, Vietnamgo gerraren aurkako mugimenduarekin eta langile eta ikasleen zenbait mobilizazioarekin bat egin zuen¹⁴³.

Italia izan zen ezker erradikalak errotze eta eragin ahalmen handien lortu zuen herrialdeetako bat. 1973an, esaterako, Europako ezker iraultzaile handiena bertan zegoen, egunero hiru egunkari ezkertiar kaleratzeko adinako gihar baitzuen.¹⁴⁴ Italiar 68ak gainera, originaltasun berezia izan zuen: hango intelektual ezkertiarren uzta emankorraren ondorioz, *operaismoa* edo langile autonomia deituriko korrante heterodoxo eta antiautoritarioa eratu zen.

Alemaniko ikasleen mobilizazioak eta RAF talde armatu ezkertiarra, Latinoamerikako gerrillak edo Mexikoko Tlatelolco plazako sarraskia ere olatu iraultzaile honen parte izan ziren. Azpimarragarria da, bestalde, Irlandako gatazka armatua (ingelesez *The Troubles*), 60ko hamarkadaren bukaeratik aurrera azkartu eta larriagotu zena. Hego Euskal Herriarekin dauden antzekotasunengatik, INLA eta IRSP (Irish National Liberation Army eta Irish Republican Socialist Party) mugimenduetan erreparatzea interesgarria litzateke, euskal kasuan bezala, mugimendu nazionalisten zatiketetan jatorria izan zuten ezker erradikaleko mugimenduak izan zirelako¹⁴⁵.

Testuinguru horretan, 1968ko maiatzeko gertakariak olatu iraultzailearen momentu gorena, gailurra, suposatu zuten. Kristin Rossen arabera, kapitalismoari egindako kritika intelektualaren eta langile mugimenduaren arteko elkargunearen emaitza izan zen¹⁴⁶. Zenbait momentutan bazirudien

ESBA (Euskadiko Sozialisten Batasuna) hurrenez hurren. Halaber, elkarte guztiari *Organizaciones Frente* (Fronte Erakundeak) ere esaten zitzaizen, eta maila informalago batean, *Felipe*.

143 Richard Vinen, 1968, *El año...* 115-161. Chris Harman, *The fire last time, 1968 and after*, Bookmarks, Chicago, Londres, Sydney, 1998, 55-83.

144 Chris Harman, *Fire last time...*

145 *Ibid.* 258.

146 Kristin Ross, *Mayo del 68 ...* 26-27.

Frantzian botere-hutsunea egon zela eta iraultza oso hurbil zegoela. Egoeraren ordena normala (edo ordena burgesa) estatu kolpearen mehatxuaren bidez (Charles De Gaulle presidenteak Massu jeneralari Baden Badenen egindako bisitarekin) eta Gobernuak ekainetik aurrera inposatu zituen neurri errepresiboen bidez baino ezin izan zen berrezarri. Pariseko gertakizunak askorentzako nolabaiteko «entsegu orokorra» suposatu zuen, 1905eko matxinadak Errusian suposatu zuen bezala. Horrexegatik, epe laburrean 1917koaren modukoa gerta zitekeela espero zen, bai Frantzian baita Mendebaldeko beste herrialdeetan ere¹⁴⁷. Parisen gertatutakoaz gain, hainbat gertakari handi izan ziren mundu mailan aldi berean, guztiek norabide bera iradokitzen zutenak, hala nola: Pragako Udaberria (sozialismo eredu berri eta gizatiarrago bat bultzatzea xede zuen mugimendua, Varsoviako ituneko indar armatuen inbasioak bortizki eten zuena) edo Tet-eko ofentsiba militarra Vietnamen (inperialismo yankiaren ahalmen militarra kinka larrian jarri zuena). Hainbat momentutan, ez zegoen argi «balantza zein aldetara makurtuko zen» eta hurrengo urteetan esperientzia inkonformista eta errebeldeak ugaritu eta zabaldu ziren munduan barrena¹⁴⁸.

Pariseko Maiatza, aurreko hamarkadatik zetorren prozesuan mugarria izan zen, baina ez zen bukaera izan, behin momentu hura gurutzaturik, prozesuak jarraitu baitzuen; baldintzaturik eta eraldaturik. Gertatutakoaren aurrean, irakurketa politiko ugari egon zen, eta horietatik lezio ezberdinak atera ziren. Alde batetik, zenbait ezkertiarrek Frantzian gertatutako mugimendu iraultzaile hark gidaritza hartuko zuen zuzendaritza zentralizatu baten faltagatik porrot egin zuela ondorioztatu zuen. Horregatik, alderdi leninistak ugaritu ziren hurrengo urteetan. Baina, aldi berean, beste sektore batzuek Estatu Burgesaren aparatua eta egiturak uste baino sendoagoak zirela ondorioztatu zuten, eta ordutik aurrera, botere burgesa eraisteko borroka armatua ezinbestekoa zela pentsatu zuten, eta horretan tematu ziren zenbait erakunde iraultzaile. Beraz, zenbait autorek 68-osteko indarkeria politikoa eta borroka armatua mugimendu iraultzaileek matxinada bat burutzeko ezintasunaren ondorio izan zela defendatzen dute. David Rappoportek, konparaziora, indarkeria ezkertiarrek «terrorismoaren hirugarren olatua» osatzen duela defendatzen du. Adrian Almeida, bestalde, Italiako Brigada Gorrien (BR) eta Alemaniako Armada Gorriaren Frakzioaren (RAF) kasuak aztertu ditu, eta bietan mugimendu erradikalek aldaketa sozial sakonak ohiko bideetatik lortzeko izan zuten ezintasunaren ondorioz sortutako erantzun «desesperatua» izan zirela ondorioztatu du¹⁴⁹.

147 Jaime Pastor, «Mayo 68, de la revuelta estudiantil a la huelga general su impacto en la sociedad francesa y en el mundo», *Dossiers feminsites*, 12 zbk. (2008), 37.

148 *Ibid.* 43.

149 David C. Rapoport, «Las cuatro oleadas del terrorismo moderno», *I Jornada sobre terrorismos en el siglo XXI: Su persistencia y su declive*, 2004, 1-12. Adrian Almeida Díez, «Clase obrera, Intelectualidad y Lucha armada. Análisis del 68 alemán e italiano», *Revista Historia Autónoma*, 12 zbk. (2018), 205-223.

Feminismoari dagokionez, bestalde, oso maiz mugimendu hori 68 Luzearekin lotzeko joera egon den arren, bien arteko harremana konplexua eta kontraesankorra izan zen. Batzuetan, 68arekin baino, 68-ostearekin edo astindu iraultzailearen bigarren zatiarekin lotu beharko genukeela esan izan da. Edonola ere, marko kronologikoa zabaltzea komeni da, bigarren olatuko feminismoa deritzona XX. mendearen erdialdetik baitzeturren. Mugarrari ideologiko sortzailatzat Simone de Beauvoirren *Bigarren sexua* (1949) eta Betty Friedanen *Mistika femeninoa* (1963) testuak hartzen dira. Hamarkada horietan zehar, emakumeak oro har, hazkunde ekonomikoak zekarren lan-esku beharraren ondorioz, lan mundu arautuan birtxertatu ziren, lehenago ere horrelako lanetan aritu ziren arren: hala Mundu Gerren garaian gizonezko soldaduen eskulana ordezkatzeko nola desaraututako ezkutuko lanetan. Baina kasu honetan, horrekin batera zenbait esparru publikotan emakumeen presentzia handituz joan zen.

Presentzia publikoa irabaztearekin batera, emakumeek politikan parte hartzeari ekin zioten, eta 68 Luzeko olatuari heldu zioten. Baina ezkerreko mugimenduetan, haien izaera askatzailea eta berdinzalea baldin bazen ere, emakumeek oraindik ere menpeko egoera izaten jarraitu zuten, ezkerre oraindik kontraesan matxista ugariz josita baitzegoen. Alderdi eta erakundeetan zuzendaritza eta boterearen banaketa ez zen orekatua eta eginbehar iraultzaileen banaketa sexuala mantendu egiten zen. Sarri, emakumeek zaintza edo antolaketa zereginak egiten zituzten: bileretako akta hartu, idatziak garbira pasatu, materiala prestatu, kafea egin, panfletoak kopia... Gizonezkoek, berriz, presentzia publikoagoa zuten; ekitaldi publikoetan lehen lerroan zeuden beti eta bileretan hitzartze luzeagoak zituzten, esaterako. 68 Luzearen izaera iraultzaileak ez zituen emakumeen nahiak behar beste ase, eta aldarrikapen askotan motz geratu zela uste zuten. Beraz, feminismoak ere ezkerrearen beraren barruko desberdintasun horiei aurre egin behar izan zien.

Aldarrikapen horietaz gain, bigarren olatuko feminismoak «pertsonek ere politikoa» zela aldarrikatu zuen. Lelo horrek ekintza politikorako esparrua zabaltzen zuen eta ondorioz harreman pertsonalen arteko hierarkiak, etxeko zereginen banaketa, identitateak, gorputzak eta subjektibitateak borroka zelai bilakatu ziren. Desioa eta sexu grina esaterako, ordura arte emakumeentzako tabu eta debeku izana ziren, eta ordutik autoezagupenerako eta askapenerako bidea zabaltzen zen. Pribatutasunaren politizazioak norberaren «ideologia eta bizi ereduaren arteko koherentzia» birpentsatzera bultzatu zituen asko, eta «militantzia politikoa ulertzeko modu berri bat sortu zen»¹⁵⁰.

Emakumeen borrokaren inguruko ikuspegi berriak ezkerreko alderdien praxi politikoekin talkak sortu zituen. Talka horien gertakaririk argigarriena Italiako Lotta Continua alderdiaren

150 Monica Moreno Seco, «1968 y el movimiento feminista: caminos de ida y vuelta», Abdón Mateos López, Emanuele Treglia (Koord.) *Las convulsiones del 68...78*.

zuzendaritzaren eta emakume militanteen artean gertatu ziren istiluetan dago. Abortatzeko eskubidearen aldeko emakume manifestazio batean gizonez osatutako ordena zerbitzuak manifestazioa zapuztu zuen, eta erantzun gisa emakumeek alderdiaren egoitza okupatu zuten, Lotta Continuaren barrenean zegoen botere matxista salatzeko. Horrek alderdian barne gatazka larria sortu zuen eta orduan bizi zuen krisia sakondu zuen¹⁵¹.

Espanian eta Europa hegoaldeko diktaduretan, feminismoa aldarrikapen antifaxistei oso loturik egon zen, erregimenok zuten izaera matxista eta misoginoaren aurrean gutxieneko eskubideak eta berdintasun formala eskuratzeko zegoen beharragatik¹⁵². Baina aldi berean, feminismoaren sektore batek haustura erradikala aldarrikatu zuen, eskubide formalez haratago zapaltzailatzat zituzten beste gizarte moldeak hautsi eta gainditzea aldarrikatzen zutelako.

Monica Morenok dioen bezala, batzuentzat 68ak irekitako aukera politikoei feminismoaren bigarren olatua bultzatu zuten, emakumeengan iraultza politiko-pertsonala egiteko grina piztu zuena. Beste batzuentzat aldiz, mobilizazioek izaera askatzaile orokorra zeukaten arren, horietan bizitako zapalkuntza eta esperientzia matxisten ondorioz feminismoak 68 Luzearen aurkako erantzun politikoa garatu zuen. Beraz, batzuentzat feminismoa 68 Luzearen *alde* garatu zen, bere parte balitz bezala, eta besteentzat, aldiz, bere okerren *aurka* aritu zen¹⁵³. Ñabardurak ñabardura, bien arteko harremana dialektikoa eta konplexua izan zela esan daiteke, eta dudarik gabe elkar elikatu ziren.

Arestian aipatu dugun bezala, garai hartan ongizate-estatu eta kontsumo gizartearen langile sektore batzuetara zabaltzen hasiak ziren. Sortzen ari zen kontsumo gizarte hori bera, eta zenbait erosotasun edo kontsumo-ondasunen zabalkundea, oso maiz, 60-70 urteetako protesta mugimenduak karikatuzatuz erabili izan dira. 68 Luzeko mugimenduaren inguruko ikuspegi *liberala* dutenek, haren inguruko kritika egiterakoan langileen aldarrikapenekin zerikusirik ez duela esan izan dute. Korrante honetako ikerlariak defendatzen dutenez, gerraosteko hazkunde ekonomiko azkarra, enplegu ia-betea eta ongizate-estatuaren eraikuntza langileen gogo-bete eta asetasunerako arrazoi lirateke. Langileek maila sozialean igotzeko aukera omen zuten, eta ondorioz, kontsumo gizarteaz gozatu nahi zuten eta ez zuten abentura iraultzaileetan ausartzeko inolako interesik. Batzuentzako klase borroka iraganeko gauza bilakatu zen¹⁵⁴. Gainera, langile mugimenduaren lider eta erakundeetako batzuk (sindikatu eta alderdi sozialdemokratak bereziki, baina komunisten parte bat baita ere) sisteman txertatu eta haren babesle bilakatu zituzten,

151 Chris Harman, *The fire...* 207-211.

152 Monica Moreno Seco, «1968 y el movimiento feminista...» 68-67 eta 83-84.

153 Monica Moreno Seco, «1968 y el movimiento feminista...» 82-83.

154 Chris Harman, *The fire...* 2-3.

nolabaiteko erretorika eraldatzailea mantendu arren. Zenbaiten ustetan, langileei eskaintzen zizkieten aukera ekonomiko horiek guztiek mugimenduaren izaera antisistemikoa eta iraultzailea erabat ezabatuko lukete, funtsean sistemaren barrenean eskatutako erosotasun gehiagoren aldeko aldarria balira bezala (mobilizazio ekonomizista-sindikalak alegia). Hori kasu hoberenean; izan ere, zenbaitetan mugimendu horien izaera proletarioa erabat ukatzen da, burgesiaren ondorengo ziren ikasle kalekumeen aldarrikapenak balira bezala, bere gurasoen belaunaldiko kultura burges atzerakoia kritikatzeko gazte matxinada modura, inolako gizarte aldaketa sakonik eskatu gabe.

Baina, egiazki, ikuspegi hori izugarri eurozentrista da. Hainbat «klase ertainek» nolabaiteko garapen materiala bizi izan bazuten ere, ez da ahaztu behar langile klasearen sektore oso zabalek oparotasunetik bazterturik segitu zutela. Europa iparraldeko eta AEBtako sektore sozial batzuek ongizatea bizi zuten arren, mediterranean herrialdeetako (Portugal, Espainia eta Grezia diktadura krudelen pean zeudela ezin dezakegu ahaztu) edo Hirugarren Munduko herrialdeen (zeinak kolonialismo zaharraren edo AEBtako inperialismo berriagoaren menpe segitzen baitzuten) egoera latza zen: berme demokratikorik gabe eta oparotasun kapitalistetatik aparte geratu ziren. Are gehiago, metropolietan ere zapalkuntzak eta miseriak jotako azpimundu bat bazegoen. AEBetan esaterako, hegoaldeko biztanleria beltzak (baita iparraldera emigratuz gero, hango auzo langileetan ere) eta bestelako gutxiengo etnikoek segregazio arrazista lazarria sufritzen zuten. Berdintsu gertatzen zen Erresuma Batuen menpeko den Ipar Irlandan, han katolikoek lana eta etxebizitza arloetan miseria gorriak bizitzen baitzituzten. Baita, Europa erdialdean ere. Alemania, Frantzia edo Italia bezalako herrialdeetan, zenbait sektore ustezko oparotasun hartatik aparte geratu ziren, bereziki langabeak eta etorkinak: Frantziaren kasuan, Portugal, Espainia eta Magrebetik etorritakoak, turkiar etorkinak Alemanian, edo hegoaldetik iparraldera joandako *terroniak* Italiaren kasuan¹⁵⁵.

Gainera, ongizate-estatuaren zabalkundea eta egoera materialaren hobetze orokortua ez zen hazkundearen emaitza soila izan, borroka sozialen ondorio baizik. Are gehiago, ongizate-estatuak langileen protesta apaldu zuela esatea ondorioa eta kausa alderantzizkatzea da; izan ere, egoera hori urte horietan eratu baldin bazen, langileen aldeko indar korrelazioari eta protesta ahalmenari esker izan zen. Ereduek fordismak mugak zituela erakusten hasi zenean, konfliktibitatea ugaritu eta kontzentratu zen eta bultzada horren ondorioz, zenbaitetan langileen errentak enpresariaren gainetik hazi ziren¹⁵⁶.

155 *Ibid.* 11.

156 Emmanuele Rodriguez Lopez, *Por qué fracasó...* 34-36 eta 172-174. Jesus Albarracin, «La extracción del excedente y el proceso de acumulación», Miren Etxezarreta Zubizarreta, *La Reestructuración ...* 313-348.

Egia da 1968an Pariseko gertakariak ikasleek abiatu zituztela (eta agian horretan datza bere berezitasuna 1871ko, 1917ko eta 1936ko altxamenduen aldean), baina iraultza saiakeraren ikuskera ez-politiko defendatzen dutenek langile klaseak paper giltzarria izan zuela ahazten ohi dute. Gozalez Ferriz-en arabera, esate baterako, ikasleen mugimenduak langileenarekin bat egiteko saiakera egin zuen. Baina sindikatuek Grenelleko akordioetan soldata igoera lortu zutenean, Gozalez Ferrizen ustez behintzat, langileak mugimendutik erretiratu ziren, ongizate-estatua atsegin baitzuten eta ez zutelako kapitalismoa eraisteko interesik¹⁵⁷. Alabaina, sinestea kostatzen da mugimenduak benetako izaera politikorik eta proletariorik ez zuenik, Frantziako historiako greba orokorrik handiena izan zela kontuan hartuz gero (kalkuluen arabera, 6 eta 10 milioi langilek artean parte hartu zuten lanuztean). Gainera, sindikatuek, egoera baretzearen truke, patronalarekin Grenelleko akordioetan langileentzako onura handiak adostu bazituzten ere, lantegietan akordioari erresistentzia gogorrak izan zirela ahaztu ohi da¹⁵⁸. Aski modu argian, langileen mobilizazioek sindikatuei gain hartu zieten eta sindikatu tradizionalak batzuetan noraezean eta mobilizazioa mantsotu nahian ibili ziren. Frantziako kasuan, CFDT (Lanaren Frantses Konfederazio Demokratikoa, Confédération Française Démocratique du Travail) sindikatu osoago aritu zen eta erradikalizatu zen, CGT (Lanaren Konfederazio Orokorra, Confédération Générale du Travail) komunista ez bezala. Berriz ere, metropoli frantziarrean gertatu zenak osotasuna ikustea galarazten digu, munduko beste toki batzuetan, ikasle eta intelektuaren ekarpena txikiagoa izan baitzen.

Espainiako kasuan ere, hala izan da, zenbaitetan frankismopeko langile mugimenduko mobilizazioak ikuspegi ekonomizista batetik aztertu izan dira, eta langileen mobilizazioak joera kontsumista batek bultzatutakoak izan direla aipatu izan da. Alabaina, Nerea Perez Ibarrolak zein Xavier Domenech-ek defendatzen duten bezala, langile mugimenduaren mobilizazioek, pizgarri ekonomizista izan bazeketen ere, berehala politizatzen ziren Sindikatu Bertikalarekin edo Erregimenaren sistema errepresiboarekin talka egin bezain pronto. Gainera, langile mobilizazioetan klase elkartasuna bezalako elementu konplexua (batere ekonomizista ez dena) giltzarria izan zela defendatzen dute¹⁵⁹.

Bestalde, matxinada horien izaera kulturala eta belaunaldi-artekotasuna ukatu gabe eta haien zati erreformista gutxietsi gabe (langile mugimenduaren barruan beti egon baitzen adar erreformistaren bat), 68 Luzeak izaera politiko garrantzitsua izan zuela azpimarratu behar da. Erradikaltasun iraultzaileko ezaugarri ugari zituen. Oraindik nolabaiteko baikortasun iraultzaile

157 Ramon Gonzalez Ferriz, 1968. *El nacimiento...* Juan Cruz, «¿Y por qué alguien de 40 años no puede escribir sobre Mayo del 68?», *El País*, 2018/II/9, Gonzalez Ferrizi elkarrizketa. <https://labur.eus/VBs6z>

158 Geoff Eley, *Un mundo que ganar historia de la izquierda en Europa, 1850-2000*, Crítica, Bartzelona, 2003, 344-346.

159 Nerea Perez Ibarrola, *Langileria Berri...* 436-437. Xavier Domenech Sampere, *Cambio Político...* 114-138.

moduko bat baitzegoen. Gerra Hotzaren testuinguruan bi sistema ekonomiko eta sozial kontrajarri existitzen ziren, eta nahiz eta 70eko hamarkadako militante iraultzaile askorentzako SESB erreferente bat ez izan (askok gogorki kritikatzten zuten eta bestelako ereduak defendatzen zituzten), bere izate hutsak —gaur egun ez bezala— merkatu ekonomia ez ziren sistema ezberdin eta alternatiboak martxan jar zitezkeela eta posible zela erakusten zuen. Gainera, Vietnamgo nazio askapenerako gerrak (nekazari herri txiki batek munduko potentzia inperialista handienari aurre egiten zionean) eta Pariseko istiluen (hainbat egunez botere hutsunea egon zela kontuan hartuta) moduko gertakariak iraultzaren gaurkotasuna erakusten zuten.

Ikasle burgesen mugimendu izatea leporatu izan zaio 68 Luzeari eta izaera proletarioa eta politikoa kentzeko argudio gisa erabili izan dute hori ere. Ikasleen eta burgesiaren seme-alaben arteko identifikazio sistematikoa egiteko ohitura dago, askotan ikasle izate hutsagatik klase ertain edo altukoa izatea leporatu izan baitzitzaien. Baina baieztapen horiei ñabardurak egitea komeni da. Alde batetik, hazkunde demografikoa zela eta biztanleriaren sektore gaztea handitu zen gehien. Gainera, sistema kapitalistak kudeaketarako formakuntzadun kide asko behar zituen, garapen tekniko-teknologiko berrirako ezin bestekoa zen formakuntza maila jasotzea eta aldi berean, kudeaketa burokratikorako ezinbestekoak zen formakuntza edukitzea (hala enpresa munduan nola funtzio publikoan)¹⁶⁰. Maila apaleko familia langile askorentzako, bestalde, eginahal ekonomiko handia eginez, eskala sozialean gora egiteko modu egokia zen seme-alabei formakuntza unibertsitarioa ematea. Horregatik, oraindik unibertsala izatetik urrun geratu bazen ere, garai hartan goi mailako hezkuntza orokortzen joan zen, ikaslegoa asko handitu zen eta hezkuntza masifikatu egin zen¹⁶¹.

Espainiaren kasuan, diktadura frankistagatik —unibertsitateetan ikasle gehiagok izena eman bazuten ere eta euren profila aldatu bazen ere— akademiak orokorrean burgesia eta sistemarentzako elite sortzaile izaten jarraitu zuen. Frankismopeko ikasle protestaldi olatuak eliteen harrobi intelektuala ahitu eta bere kontra jarri zuen. Horren ondorioz, 50-60 urteetako unibertsitate istiluetatik aurrera Erregimen frankista etorkizunerako agintarigairik gabe geratzen hasi zen.

Eta bukatzeko, oso sarri 68 Luzeari izaera proletarioa ukatu zaio eta gerraondoko kultura atzerakoari egiten zitzaion kritika estetiko eta apolitikoa izatea leporatu izan zaio, bereziki ikasle eta gazte burgesek zuzendutakoa: kontrakultura, sexu-askapena, gazte-moda berriak, hippismoa eta abar.

Mugimendu politikoaren paraleloan, bizi-estilo alternatiboetan eta disidentzia kulturean oinarri zuen mugimendu bat eratu zen. 50eko hamarkadatan AEBtan *beatnik* modura ezagutu zen

160 Chris Harman, *The fire...* 38-39

161 Eric Hobsbawm, *Historia del siglo XX, 1914-1991*, Crítica, Bartzelona, 1995, 297-304

subkultura bat izan zen, eta horren garapenaren ondorioz, 1960ko hamarkadan hippy mugimenduan sortu zen. Hedonismo apolitikoan eta era sinbolikoan erakutsitako errebeldia indibidualen mugimendu hori 68 Luzearekin lotu izan da, bere izaera antiproletario eta sasiraultzailea azpimarratzeko. Chris Harmanen arabera, *underground* kulturak eta ezkerreko politikek elkar eragin nabaria izan zuten eta kontaktu unerik garrantzitsuena 1968 urtea izan zen. Alabaina, momentu hartatik aurrera, bi mugimendu horiek banantzen joan omen ziren¹⁶². Rossen arabera, aldiz, 68 Luzeko bi belaunaldi ezberdinez hitz egin beharko genuke: lehendabizikoak, guztiz politikoa zenak eta Argeliako gerra kolonialaren aurkako borrokan hezi zenak 68ko iraultza gidatu zuten, eta ondorengoak, gazteagoa zenak, ikuspegi hedonista eta indibidualista izan zuten¹⁶³.

Ziur aski 68 Luzeak bi arima izan zituen aldi berean, kontrakulturaren eta kritika estetikoarena alde batetik, eta alderdi proletario eta politikoagoa bestetik. Alabaina, lehenengo ikuspegia defendatzen dutenak zabalduago daude. Karikatura hori mugimenduaren porrotaren ondorio izan zen. Burgesiak proletariotzaren proiektu politikoa gainditzea eta zapaltzea lortu zuenez, kritika intelektual eta kulturala mantendu egin zen, eta kapitalismoak bizi-estilo alternatiboak zein proposamen kulturalak eta estetikoak bere merkatu dinamikan txertatu zitezten lortu zuten¹⁶⁴. Zentzu batean, kritika intelektual, kultural heldugabea zela ziotenek —68ak berez mugimendu liberal eta antiautoritarioa zela argudiatzen dutenek, alegia— amarrua erabiltzen dutela esan dezakegu, ondorioetatik premisa ateratzen baitute.

Gure ingurunean ere, mugimendu kontrakulturalek bizi-estilo askatzaileekin esperimentatzeko saiakerak egin zituzten, baina diktaduraren zentsuraren eta muga kulturalen ondorioz, beste herrialdeetan baino beranduago ailegatu ziren guregana. Fenomeno kontrakultural eta hedonista horiek Euskal Herrian Trantsizioaren ondorengo urteetan izan zuten oihartzun gehien, diktaduraren moral zurrun eta errepresibotik aldentzeko nahiarekin hertsiki loturik, eta aldi berean itxaropen iraultzaileen lurruntzeari lotutako desengainuarekin¹⁶⁵. Hala ere, Nafarroako kasuan 68 Luzeak gehiago izan zuten *Oldarraldi Proletarioaz* eta askoz ere gutxiago kontrakulturaz¹⁶⁶.

3.3. Txinparta iraultzailearen ernalketa

162 Chris Harman, *The fire...* 48.

163 Kristin Ross, *Mayo del 68 ...* 196-197.

164 Eve Chiapello, Luc Boltanski, *El nuevo espíritu del capitalismo*, Akal, Madril, 2002, 654. Jaime Pastor, «Mayo 68...», 44-45. Richard Vinen, 1968, *El año...* 373-379.

165 David Beorlegui Zarranz, *Transición y melancolía...*, 256-275.

166 Nerea Perez Ibarrola, *Langileria Berri ...* 109.

Orain arte, kapitulu honetan ezker iraultzailearen sorrera eragin zuten faktoreetako bi aztertu ditugu: garapen ekonomikoaren ondorioz sortutako langile klase industrial berria eta nazioartean zabaldu zen giro iraultzaile optimista eta baikorra. Baina ikus dezagun, maila konkretuago batean, Nafarroako ezker iraultzailearen ernalketa nolakoa izan zen.

Espainiako estatuko ezker iraultzailearen inguruan, nahiko modu orokortuan onartzen da ezker iraultzaileak lau jatorri edo iturburu izan zituela: 1) PCE-PSUCen (Partit Socialista Unificat de Catalunya, PCERekin anaitutako alderdi katalana) ezkerretik gertatutako zatiketak, 2) FLP (Frente de Liberación Popular, Herri Askapenerako Frontea) delakoaren desagertzearen ondorioz sortutako taldeak, 3) mugimendu kristauen erradikalizaziotik sortutako alderdiak eta 4) ETAn gertatutako zatiketa *obrerista* edo espainolistak. Gauzak horrela, oso ohikoa da ezker erradikalaren inguruko liburuetan lau iturburu hauen arabera zehaztu taxonomikoak aurkitzea, alderdien arteko zatiketak, xurgapenak eta batasunak biltzen dituenak¹⁶⁷. Ikerketa honek ere baditu bereak, eranskinen 9.1 atalean jasota daudenak.

Halaber, ezker iraultzailea normalean ezker tradizionalarengandik (esan nahi baita PCERengandik eta PSOERengandik) urrundutako sektore militante gazteak zirela esan izan ohi da. Sozialdemokraziak eta komunismo tradizionalak sistema liberal burgesean txertatu zirela eta gizartearen eraldaketa iraultzaileari uko egin ziotela uste zenez, alderdi horiengandik bereizi eta korrante politiko berria eratu bide zuten koherentzia iraultzailea mantentzeko asmoz.

Bukatzeko, ezker iraultzailearen sorburuari buruz, jatorri burgesdun ikasleek osatutako talde erradikalizatuak zirela esan izan zaie, antifrankismoaren korrante nagusiekin bat egiten ez zutelakoan eta langile mugimenduaren parte ez zirelakoan¹⁶⁸. Bere eragin esparru nagusia ikasle mugimendu erradikalizatuaren omen zen eta ondorioz, ezkerreko langile sektore tradizionalarengandik urrunduta legoke.

Hurrengo orrialdeetan, ezker iraultzailearen ernalketa eta sorrera nolakoa izan zen azaltzen saiatuko gara, eta horretarako hainbat aspektu aztertuko ditugu. Alde batetik, lau iturburuaren teoria Nafarroaren kasuan aplika daitekeen edo ez argitzen saiatuko gara. Bestalde, 70eko hamarkadako ezker iraultzaileak gerraurreko ezkerreko tradizio politikoekiko lotura edo hausturarik atzeman daitekeen miatuko dugu. Eta bukatzeko, ikasle mugimenduak Nafarroako ezker iraultzailearen sorrerari ekarpenik egin ote zion aztertuko dugu.

Ikasle Mugimendua

167 Ricard Martínez i Muntada, «La izquierda revolucionaria en tiempos de cambio político...» 142. Joel Sans Molas, *Militancia, vida y revolución ...* 109.

168 *Ibid.* 148.

Gorago esan dugun bezala, oso maiz ezker iraultzailearen sorrera unibertsitateko ikasleen erradikalizazio prozesuei loturik egon zela esan izan da. Zentzu handi batean, baieztapen hori egia da, ezker iraultzaileak ikasleengan oihartzun handia izan zuelako, eta gainera, zenbait kasutan, alderdi erradikalen sorrera ahalbidetu zuten elkarteetan ikasleen presentzia nabarmena izan zelako¹⁶⁹. 60ko hamarkadaren bukaeran eta 70eko hamarkadan, ikasle eta gazte belaunaldi erradikalizatuak gizartearen sektore dinamikoenetakoak bilakatu ziren. Baina zenbaterainoko pisua izan zuen ikasle mugimenduak Nafarroako ezker iraultzailearen sorreran?

Frankismo garaian, unibertsitateak Erregimenarentzako eta burgesiarentzako koadro eta agintari haztegia izan ziren. Baina, XX. mende erdialdetik aurrera, hazkunde demografikoaren ondorioz eta *Desarrollismoari* lotutako behar ekonomikoen ondorioz, ikasketa unibertsitarioak zeuzkan biztanleria-atala asko zabaldu zen. Unibertsitateek orokorrean esparru elitista izaten jarraitu zuten, baina goi mailako ikasketak sektore sozial zabalagoetara iristen hasi ziren. Pixkanaka, ikasle horietako batzuk Erregimenarengandik bereizten hasi ziren eta ikasle mugimendua frankismoaren aurkako borrokako aktoreetako bat bilakatu zen. Espainiako ikasle mugimendu antifrankistaren lehendabiziko urratsak 1950eko hamarkadan egin ziren, batik bat Madrileko 1956ko gertakizunetatik aurrera¹⁷⁰. Gainera, PCEn Berradiskidetze Nazionalerako Politikak Gerra Zibileko bi bandoen arteko zatiketa gainditzea proposatzen zuen heinean, Bando Nazionalaren aldekoen seme-alabak oposizioaren alde jar zitezten erraztu zuen.

Iruñean hainbat ikastetxe unibertsitario zegoen. Garrantzitsuenak Opus Dei talde katolikoak zuzenduriko Nafarroako Unibertsitatea zen. 1952an sortu zen eta frankismoko elite ugari erakartzen zuen. Bere ikasleen gehiengoa ez zen nafarra, izen handiko unibertsitatea baitzen eta ikasle kanpotar ugari erakartzen zuen. Bestalde, Zaragozako Unibertsitateari loturiko ikastegi publikoak zeuden, Magisteritza Eskola eta bestelakoak barne hartzen zituen. Ikastegi horiek, ordea, oso txikiak ziren eta Opus Deiren unibertsitateak baino ikasle gutxiago elkartzen zituen.

Nafarroako ikasle mugimenduaren lehendabiziko urratsak 1964 edo 1965 inguruan izan ziren. Nafarroako Unibertsitateko ikasle mugimendua SEU (Sindicato Español Universitario, Unibertsitate Sindikatu Espainiarra) ikasle sindikatu frankistaren demokratizazioaren alde borrokatzeko antolatu zen. Hasiera batean, SEUa «erreforma partzialen bidez» aldatzen saiatu ziren, baina aurrerago sindikatuaren erabateko desagertzearen alde borrokatu ziren¹⁷¹.

169 Alberto Carrillo Linares, Sergio Rodríguez Tejada, «1968 y los estudiantes españoles: del antifranquismo a la revolución», Abdón Mateos Lopez, Emanuele Treglia (Koord.), *Las convulsiones del...* 29-64.

170 Roberto Mesa, *Jaraneros y alborotadores: documentos sobre los sucesos estudiantiles de febrero de 1956 en la Universidad Complutense de Madrid*, Editorial de la Universidad Complutense, Masdril, 1982.

171 Idoia Estornés Zubizarreta, *Cómo pudo pasarnos ésto. Crónica de una chica de los 60*, Erain, Donostia, 2013, 164. Jose Vicente Iriarte Areso, «Universidad y movimiento estudiantil en Navarra bajo el Regimen de Franco» en Juan José Carreras Ares, Migueal Angel Ruiz Carnicer (ed.), *La universidad española bajo el régimen de Franco (1939-*

Ikasle mugimenduaren eta ezker iraultzailearen arteko loturarik izan ote zen arakatzeko bertan parte hartu zuten lagunen zein ikasle mugimenduen jarraipena egitea interesgarria da. Nafarroako Unibertsiateko ikasle mugimenduak izan zuen lehendabiziko erakundea Unión de Estudiantes Demócratas (UED, Ikasle Demokraten Batasuna) izan zen, eta askotariko jendea aritzen zen erakunde horretan: ikasle kristauak, Gerra Zibileko garaileen semeak, ezkertiarak, abertzaleren bat eta beste. Dirudenez, Nafarroako UEDren nukleoa bere kabuz aritu zen beti, elkarte estataletik deskonektaturik sarri¹⁷².

Ikasle mugimendua pixkanaka eratzen eta hazten joan zen eta 1966ko martxoan, Bartzelonako *Caputxinada* delakoaren elkartasunez mobilizazioak egin zituzten. Horien ondorioz, errepresioa abiatu zuten eta 1966ko martxoaren 24an ikasle mugimenduko hiru kide atxilotu zituzten¹⁷³. Atxiloteten ondorioz ikaskideek manifestazioak eta protestak egin zituzten. Kolpe errepresibo hark UEDren esperientzia eten zuen. Perez Ibarrolaren arabera, UEDren inguruan antolatutako lehendabiziko belaunaldi horrek «espazioak zabaldu zituen», eta 1968tik aurrera etorriko zen belaunaldi berriak, ordea, joera politizatu eta ezkertiarago bat hartu zuen¹⁷⁴. Hurrengo hilabeteetan, Nafarroako ikasle mugimenduaren ordezkariak maila estataleko ikasle kongresu demokratikoa egiteko Bilera Koordinatzaile eta Prestatzaileetan (Reuniones Coordinadoras Preparatorias, RCP) parte hartu zuten. 1968ko martxoan, bilera horietako batean poliziak parte hartzaileak atxilotu zituen, tartean Domingo Blanco Nafarroako Unibertsitateko ordezkaria¹⁷⁵. Atxiloteta horri erantzuteko Iruñeko ikasleek mobilizazioak egin zituzten, Carlos III. etorbidean manifestazioa eginez¹⁷⁶.

Maila estatalari erreparatuz gero, 60ko hamarkada erdialdeko ikasle mugimenduaren eta ezker iraultzailearen arteko lotura egin zuen katebegietako bat FLP ezker berriko frontea izan zen. Bartzelonan esaterako, OIC, LCR eta langile autonomiaren inguruko elkarteen sorburuan izan zen, eta baita Madrilén eta beste hiri batzuetan ere. Nafarroako Unibertsitatean pista honen atzetik ibili gara eta badirudi FLPré loturiko kide isolaturen bat egon zela. Idoia Estornesek dionaren arabera, Iruñeko ikasle giro horietan Madrileko FLPko kide bakarra ibiltzen omen zen: Perico Mendioroz perito agronomoa¹⁷⁷. Bestalde, ahozko elkarrizketaren batean berriemaile batek Nafarroako

1975), Institución Fernando el Católico, Zaragoza, 1981, 603-605.

172 Idoia Estornés Zubizarreta, *Cómo pudo ...* 164.

173 *Ibid.* 235-240.

174 Nerea Perez Ibarrola, *Langileria Berri...* 106-108.

175 «Ha sido detenido en Sevilla un delegado de la Universidad de Navarra», *Diario de Navarra*, 1968/III/3, 28. Jose Vicente Iriarte Areso, «Universidad y movimiento...» 603-605. Alberto Carrillo-Linares, Sergio Rodríguez Tejada, «1968 y los estudiantes ...» 35. Patricia Badenes Salazar, *Fronteras de Papel...* 189 eta 200-202.

176 «Manifestación estudiantil frente al Gayarre», *Diario de Navarra*, 1968/III/6, 5.

Unibertsitatean FLPko kideen presentzia egon zelako susmoa azaldu du¹⁷⁸. Hala ere, zantzu guztien arabera, Nafarroan baldin eta inoiz FLPrek kideren bat egon bazen, ez dirudi militantzia horrek jarraipenik izan zuenik; eta beraz, argi esan dezakegu erakunde horrek ezker iraultzailearen alderdien sorreran ez zuela eragin zuzenik izan.

Iruñeko ikasle mugimenduaren hurrengo urratsa 1968-69 ikasturtean ezarri zen. Urte hartan ikasle mugimenduak fakultateko ordezkari izateko hauteskundeetan hautagaiak aurkeztu zituen. Hautagaitzetako bat Xabier Eskalada abertzaleak gidatzen zuen, ordurako oso militante aktibo eta ezaguna zena. Baina, horretaz gain, beste hautagaitza ezezagunago bat aurkeztu zen. Hautagaitza hori Aita Zuriekin (Afrikako Misiolariak izenez ezagututako misiolari elkarte) ikasitako ikasleek osatzen zuten eta bere gidariak Arcadio Rojo eta Miguel Vazquez ziren¹⁷⁹. Hautagaitza horrek, hasiera batean ez zuen ageriko adskripzio ideologikorik eta ez ziren ikasle mugimenduko aurpegi ezagunak. Baina hauteskunde aurreko eztabaida publikoan Rojok bere hitzartzea Pariseko Maiatzeko Daniel Cohn-Bendit (Dani *Gorria* ezizenez) liderraren hitzaldi ezagun batekin hasi nahi izan zuen: «La Universidad de Navarra es una fábrica de idiotas especializados fieles y acrílicos al sistema que nos gobierna»¹⁸⁰. Bat-bateko kolpe horrek ikasleen atentzioa erakarri zuen eta Rojok fakultateko ordezkari izateko bozak lortu zituen. Hurrengo hilabeteetan ikasleen biltzarretan oinarritutako eta errektoretzaren kontrolik ez zuen Ikasle Sindikatu Demokratikoaren aldeko borroka zabaldu zen. Baina, 1969ko hasieran Enrique Ruanoren heriotzaren harira salbuespen egoera deklaratu zuen Gobernuak eta poliziak hura baliatu zuen ikasle mugimendua errotik mozten saiatzeko. Ikasle mugimenduaren liderrak atxilotu eta deportatu zituzten. Arcadio Rojo, esate baterako, Alacanten egon zen eta Xabier Eskalada torturatu eta Tuterara deportatu zuten (beranduago, 1970ko martxoan Eskalada torturek eragindako oinazeen ondorioz zendu zen)¹⁸¹. Salbuespen egoera bukatzerakoan, aitzitik, ikasle konprometituenak itzuli ziren eta mobilizazioei berrekin zieten. Ondorioz, 1969ko ekainean ikasleek eserialdia eta itxialdia egin zuten errektoretzan beraien aldarrikapenak bete zitezten eskatzeko. Baina itxialdi hura ia 200 lagun atxilorekin bukatu

177 Idoia Estornés Zubizarreta, *Cómo pudo ...* 167.

178 E2 elkarrizketa: Javier Iturbe. Iruñea, 2018/VII/25.

179 Arcadio Rojo, artean filosofia ikaslea baino ez zen, baina hurrengo urteetan Komunisten Ligako (LC) kide bilakatuko zen eta bere Komite Zentraleko kide izatera iritsi zen. Ondoren ibilbide politikoa alde batera utzi eta ikerketan munduan murgildu zen, Antropologian eta Kultura Informatikoetan Doktore titulua eskuratuko zuen eta ibilbide akademiko luzea izanen zuen Estatu Batuetan eta Katalunian. E18 elkarrizketa: Arcadio Rojo Amil. Iruñea, 2019/IX/27. Miguel Vazquez ere handik gutxira LC alderdi troskistako kidea bilakatuko zen. 2019an bere esperientzia militantean oinarritutako liburua kaleratu zuen: Joaquin Lizarraga (Miguel Vazquez), *¡Abajo la dictadura!*, Last Meeting Corner, 2019.

180 «Nafarroako Unibertsitatea zanpatzen gaituen sistemari men egiten dioten ergel akritikoen fabrika bat da». E18 elkarrizketa: Arcadio Rojo Amil. Iruñea, 2019/IX/27.

181 Idoia Estornés Zubizarreta, *Cómo pudo ...* 281.

zen¹⁸². Nafarroako Unibertsitateko ikasle mugimenduak 68-69 ikasturtean goia jo zuen, baina mobilizazio eta istilu horiek, ordea, ia beti unibertsitatearen markoaren barrenean mantendu ziren.

FLPrik ezean, 68-69 ikasturteko ikasle mugimendua zuzendu zuen belaunaldi hori izan zen ezker iraultzailearekin lotura egin zuen katebegi bat. Arcadio Rojok ikasketak bukatzerakoan Valentzian egin behar izan zuen soldadutza. Han *Comunismo* taldearekin kontaktuan jarri zen eta Iruñera itzultzerakoan LCRko zelula eratu zuen Miguel Vazquez eta beste hiru kiderekin batera¹⁸³.

Beraz, ikusi dugun bezala, LCRko sustatzaileez gain, Nafarroako ezker iraultzailearen sorburua ez zen egon Nafarroako Unibertsitatearen ikasle mugimenduan. Baina ikasle mugimenduaren eta ezker iraultzailearen arteko beste loturaren bat ere egon zen. Garai hartan, ohikoa izaten zen Nafarroako ikasleak hiri handietara ikastera joatea (Bilbo, Zaragoza, Bartzelona eta abar). Unibertsitatera joandakoan, nafar estudianteak mugimendu iraultzaileen berri izatea, bat egitea, eta horrenbestez, erradikalizatzea, antolatzea eta enkoadratzea ohikoa izan zen. Sorterrira itzultzerakoan —izan ikasketak bukatu zituztelako edo aktibitate politikoengatik espedientatu eta kanporatu zituztelako— alderdia beraiekin batera eramaten zuten eta zelula edo talde berriren bat sortzen zuten¹⁸⁴. Nafarroan, esaterako, horrelako hainbat eta hainbat etsenplu ditugu: PCEi alderdia, esaterako, Iruñera Malagako eta Bartzelonako ikasle nafarrek ekarri zuten eta Bilboko unibertsitatean ere militante iraultzaile nafar franko antolatu eta erradikalizatu ziren¹⁸⁵. ETA VI.aren kasuan, Lizarran zein Iruñean Bilbotik etorritako kideen bidez zabaldu zen, eta baita Lizarrako EMK ere¹⁸⁶. Tuteran, bestalde, kontaktu ohikoena Zaragozako unibertsitatearekin izaten zen eta horren bidez Erriberako ikasleek Larga Marcha antolakunderekin kontaktua egin zuten¹⁸⁷.

Ikasle mugimenduak 1969ko errepresioaz geroztik atzeraldia bizi izan zuen. Horri aurre egiteko antolaketa eredu berria prestatu zuen; 1971tik aurrera CENak (Comités de Estudiantes de Navarra, Nafarroako Ikasle Komiteak) eratu ziren. Belaunaldi berriak eta antolaketa eredu berriak, ikasle mugimendua Nafarroako Unibertsitatetik maila ertaineko ikastetxeetara zabaldu zuen, eta Nafarroako Unibertsitatearen pisua gutxitu zen. Izan ere, Opus Deiren Nafarroako Unibertsitatea

182 Jose Vicente Iriarte Areso: «Universidad y movimiento ...» 608-609

183 E18 elkarrizketa: Arcadio Rojo Amil. Iruñea, 2019/IX/27.

184 Jose Luis Martin Ramos, «Los orígenes de una nueva formación» Jose Luis Martin Ramos, *Pan, trabajo...* 38-39.

185 E11 elkarrizketa: Pablo Ibañez eta Isabel Noguera. Iruñea, 2019/III/11. Solasaldi grabatugabea: Andres Valentin Gonzalez. Iruñea, 2020/I/29. Solasaldi grabatugabea: Ramon Contreras. Solasaldi grabatugabea: Peio Senosiain. Lizarra, 2019/VIII/13. Iruñea, 2019/II/25. Lander Muñagorri Garmendia «Josu Chueca: Errepublikak zeukan aldaketa sozialerako gogo biltzea falta da», *Berria*, 2020/VI/ 21, <https://labur.eus/z1hwH> (2020ko irailean kontsultatua).

186 Solasaldi grabatugabea: A. G. Iruñea, 2019/IX/26.

187 E15 elkarrizketa: Patxi San Juan Calud eta Jose Luis Arellano Ansó. Tuteran, 2019/VIII/23.

oso kontserbadorea zen eta horrek asko zailtzen zuen ikasle mugimendu ezkertiarren zeregina¹⁸⁸. Aurrerantzean, ikasle mugimenduaren mobilizazioak ez ziren esparru akademikora eta sindikatu demokratiko baten aldarrikapena egitera mugatuko: langile mugimenduaren eta mugimendu antifrankista orokorraren zerbitzura jarriko ziren, ezker iraultzaileko kideen (bereziki LCko troskisten) gidaritzari esker¹⁸⁹.

ETAren zatiketa espainolistak

Aurrerago ikusiko dugun bezala, abertzaletasunaren eta ezkertiarren arteko sintesi prozesua konplexua izan zen. Prozesu hartan ezker abertzaleak hainbat zatiketa bizi izan zituen, eta horietako batzuek esparru estataleko alderdi iraultzaileak sortu zituzten: ETA erakundea eta bere zatiketak militante iraultzaileen haztegi emankorra izan ziren. Bereziki bi izan ziren ezker iraultzailea hornitu zituzten zatiketak. Alde batetik, 1966 eta 1967 urteen inguruan ETAren V. Biltzarraren lehendabiziko zatian, ETA Berriren eta ETA Zaharraren arteko zatiketa gertatu zen, EMKren sorrera ahalbidetu zuena. Bestetik, 1970 eta 1971 urteetan ETA V.ren eta ETA VI.ren arteko zatiketa gertatu zen, eta ETA VI.etik ateratako kideak hainbat norabidetan sakabanatu ziren 1972 eta 1973 artean; LCR, LC, ORT, PCE-EPK, OIC, langile autonomia eta beste hainbat erakunde koadroz hornitu zituzten.

Nafarroaren kasuan, ETAk Gipuzkoan edo Bizkaian baino ezarpen berantiarra izan zuen. Lehendabiziko aldiz 1964an egin zuen agerpena: herrialdean errotzeko asmoz, Iratxe izeneko marka txuria erabili zuen. Iratxek nafar abertzale batzuen elkarte modura aurkezten zuen bere burua, baina berez, ETAk Nafarroan barneratzeko erabili zuen trikimailu bat baino ez zen izan. 1964ko abenduan lehergailu bat jarri zuten Iruñeko Zabalguneko Erorien Monumentuan, eta garai berean, propaganda banaketak egin zituzten Iruñean, Erriberrin eta Lizarran¹⁹⁰. 1965ko urtarrilean Iruñean Jokin Garate ETako kidearen eta poliziaren arteko tiroketa bat izan zen, Garate larriki zauritu eta atxilotu zuten. Urte hartan bertan, Iratxeren eta ETAren arteko fusioa antzetzuten agiri bateratu baten bidez. Baina sarekadaren bat tarteko, ETAren ezarpena Nafarroan mantsotu edo eten egin zen.

Hurrengo urteetan, ETAk Nafarroan errotzeko hainbat saiakera egin zituen eta Iruñeko Langile Batzordeak 1967-68an eratzen ari ziren bitartean, ETA eta ASTren arteko kontaktuak izan

188 Lander Muñagorri Garmendia, «Josu Chueca: Errepublikak zeukan aldaketa sozialerako gogoia biltzea falta da», *Berria*, 2020/VI/ 21, <https://labur.eus/z1hwH> (2020ko irailean kontsultatua).

189 Jose Vicente Iriarte Areso «Universidad y movimiento ...» 608-616. ORTren Nafarroako Komite Probintziala, *El movimiento estudiantil y nuestras tareas*, 1974/XI, ORT-12. 23, CDHC-EI.

190 Jose Luis Diaz Monreal, *La historia olvidada. EGI en Navarra durante la década de los sesenta, Ahaztuak 1936-1977*, Algorta (Getxo), 2009, 50. Iker Casanova, *ETA, 1958-2008. Medio siglo de historia*, Txalaparta, Tafalla, 2007, 56. Vicente Huici Urmeneta, Mikel Sorrauren de Gracia, Jose Maria Jimeno Jurio, *Historia contemporánea de Navarra, Txertoa, Donostia*, 1982, 235-236.

omen ziren¹⁹¹. Dirudenez 1966-67 urteetan ETAREN V. Biltzarreko kanporaketa gertatu zenean, Nafarroa Garaiko mugimendu abertzalea oraindik ez zegoen oso garaturik. Horregatik, ETA Berri/MCEren zatiketak ez zuen eragin zuzenik izan Nafarroan, kanporatuen gehiengoa gipuzkoarra izan baitzen. Handik gutxira, MCEren Nafarroan ezarri zen Gipuzkoatik etorritako iheslarien eta Parisera eta Lovainara ikastera joandako apezgaien bidez¹⁹².

Baina ETAREN benetako errotzea 1969 inguruan hasi zen. Orduan, ETAK Iruñean bi eragin-gune eratzea lortu zuen. Bata «ikasle talde gazte» eta euskaltzale bat izan zen: euskara klase eta antzekoen inguruan elkartzen zen, Hemen eta Han izeneko mendizale taldean. Ingurumari euskaltzale eta mendizale horietan German Rodriguez gaztea militatzen hasi zen¹⁹³. Eragin esparru euskaltzale horien bidez, propaganda banatzen zuten, kide berriak erakartzen zituzten eta bere ideien zabalkundea egiten zuten. Horretaz gain, ETAK langile mugimenduan txertatzea ere lortu zuen, bereziki Imenasa lantegian, Iñaki Behorlegi eta Jose Mari Soltxaga militanteen bidez¹⁹⁴. VI. Biltzarreko eztabaidak eta zatiketak gertatu zirenean Iruñeko ETAKO kide gehienek zuzendaritzaren alde egin zuten, eta ondorioz, kide nafarren gehiengoa ETA VI.an geratu zen. Garai bertsuan, bestalde, ETA VI.ak Lizarran ezartzea lortu zuen Bilbon ikasten zuten ikasleen bidez. Ikusi dugun bezala, 66-67ko zatiketak Nafarroan oihartzun handirik izan ez bazuen ere, ETA V.aren eta VI.aren arteko dibortzioa gertatu zenerako (1970 eta 1972 artean) ezker abertzalea garatuago zegoen Iruñean, eta beraz, bereizketa hark bete-bete harrapatu zituen Iruñeko hainbat militante.

Laburbilduz, modu batera edo bestera, ETAREN zatiketa horiek militanteen ekarpen garrantzitsua egin zioten Nafarroako ezker iraultzaileari. Alde batetik, ETA Berri/MCEko kide gipuzkoarrek alderdia Nafarroara zabaldu zutelako; eta bestalde, ETA VI.ko kide ugari ezker iraultzaileko hainbat alderditan sartu zirelako (batzuk LCR-ETA VI. edo LC bezalako alderdi troskistetan eta beste batzuk ETA Minos-en bidez ORTn). Baina, zatiketa horien zentroa ia beti Gipuzkoa edo Bizkaian egon zen, eta Nafarroari soilik modu periferikoan eragin zioten. Beraz, ezker iraultzaile nafarraren sorburuaren bihotza beste esparru batean egon zen.

Kristautasuna eta langileak

191 Javier de Miguel Saenz, *La Organización Revolucionaria de Trabajadores ...* 63.

192 E5 elkarrizketa: Jesus Urria Bidaurre. Iruñea, 2018/X/30. Solasaldi grabatugabea: A. G. Iruñea, 2019/IX/26. Solasaldi grabatugabea: Manuel Burguete. Barañain, 2019/X/7.

193 Josu Chueca, «German Rodriguez: Iraultzaile eroria», *Argia*, 2008/VI/22, <https://labur.eus/KI6MI> (2020ko irailean kontsultatua). E9 elkarrizketa: Julia Munarriz Gomara. Iruñea, 2018/XII/21. E13 elkarrizketa: Presen Zubillaga Auza. Iruñea, 2019/VII/18.

194 E14 elkarrizketa: Felix Jimenez Morales. Iruñea, 2019/VII/23. E12 elkarrizketa: Vicente Duque Alonso. Iruñea, 2019/V/12.

Ez ikasle mugimendu erradikalizatua, ez ezker tradizionalaren zatiketak, ezta ETaren zatiketak ere; **ezker iraultzaile nafarraren sorburuaren zati mardulena elkarte kristauetan eta apaiztegian sortutako kontaktu eta harremanetan egon zen, eta hasiera-hasieratik bere eragin esparru nagusia langile mugimendua izan zen.** Langile mugimenduaren eta elkarte kristauen arteko lotura bikainki aztertu izan da honezkero, beraz, hurrengo azpiatalean ezker iraultzaileko alderdien sorreran izan zuten garrantzia baino ez dugu azpimarratuko¹⁹⁵.

Elizako sektore batzuetan doktrina sozialak eta zapalduetikiko begiruneak izan duten eragina aspaldiko kontua da. Lehen urratsak XIX. mendean izan ziren, gizarte industrialaren orokortzearekin batera. Industria Iraultzak sortu zituen gatazka sozial berrien aurrean, Eliza katolikoak bere burua berritzeko eginahala egin behar zuela ondorioztatu zuen, bereziki bi pentsamendu korronte berritzaileen (hau da, liberalismoaren eta sozialismoaren) hazkunde azkarrari eta gizartearen deskristautzeari aurre egiteko. Beraz, langileen artean Elizari loturiko sozializazio esparruak sortzeko asmoz sortu zen Elizaren doktrina soziala deritzona. Doktrina horren helburua ebanjelioa gizartearen sektore baztertuenei eramatean oinarritzen zen, armonia soziala mantentzeko eta bere bizi maila morala ebanjelioaren arabera igotzeko asmoz. Bestela esanda, misiolarien moduan jainkoaren hitza langile mundura eramana nahi izan zuten. Zeregin horretan, laikoei (hau da, elizgizonak ez diren kristauei) paper protagonista bat eman zitzaien. Kristautasunaren doktrina sozialaren hasierako mugarriztat 1891. urtean Leon XIII. Aita Santuak kaleratu zuen *De Rerum Novarum* izeneko entziklika hartzen da. Euskal Herrira XX. mendearen hasieran zabaldu zen kristautasunaren doktrina sozial hura. Gurean fenomeno honek izan zituen etsenpluetako bi aipatzeagatik bakarrik, honakoak azpimarratu genitzake: alde batetik, Eusko Langile Alkartasuna (ELA, EAJri loturiko sindikatu abertzalea), zeina 1910ean sortu baitzen, eta bestalde, Nafarroako landa munduan oso zabaldua egon zen eta karlismo soziologikoari loturik egon zen landa-munduko kooperatibismoa¹⁹⁶.

Baztertuetikiko eta behartsuenetikiko kezka horrek 60eko hamarkadan bigarren bultzada bat izan zuen Vatikanoko II. Kontzilioaren ondorioz. 1962 eta 1965 artean egin zen kontzilio horretan Eliza katolikoaren *aggiornamento*-a (eguneratzea, alegia) bilatu zen, fede kristaua garai berrietara

195 Nerea Perez Ibarrola, *Langileria berri...* 235-301. Jose Maria Giganto Martinez, «Sindicalismo e Iglesia en la Ribera de Navarra», *Príncipe de Viana. Anejo*, 16 zbk. (1992), 757-782. Jose Elena Santamaría Blasco, «Movimiento obrero apostólico en Navarra 1946-1970», *II Congreso de Historia de Navarra de los siglos XVIII, XIX y XX, Príncipe de Viana, Anejo*, 16 (1992), 699-724.

196 Gorka Etxebarria Dueñas, *Sozialismoaren historia labor bat*, IPES, Bilbo, 2015, 167-168. Emilio Majuelo Gil, «Movimientos sociales y protesta social en Navarra durante el siglo XX», Jose Miguel Lana Berasain (coor), *XX reflexiones sobre Navarra ante el siglo XXI*, UPNA, Iruñea, 2002, 289-322. Emilio Majuelo Gil, Angel Pascual Bonis, *Del catolicismo agrario al...* Dario Ansel, *ELA en la segunda república, Evolución sindicalista de una organización obrera*, Txalaparta, Tafalla, 2011. Ivan Gimenez Gil, *ELA en Nafarroa. 100 años de transformación y lucha (1911-2011)*, Txalaparta, Tafalla, 2012.

moldatzeko asmoz¹⁹⁷. Kontzilio horrek astindu handia ekarri zion kristau komunitateari, eta erabat berritu zuen, katolizismoaren eta marxismoaren arteko hurbilpena errazteraino. Kristautasunaren ikuspegi hark ebanjelioaren «behetik egindako irakurketa» egiten zuen, eta «jatorrizko berdinaletasun kristaua» aldarrikatzen zuen, benetako kristautasunaren irakurketa sozial baten modura¹⁹⁸.

Gure ikerketari dagokionez, hau da, ezker erradikalaren sorrerari dagokionez, hiru esparru kristau dira nahitaez azpimarratu beharrekoak: apostolutza sekularreko mugimenduak, Iruñeko apaiztegia eta parrokiak.

Apostolutza sekularreko elkarteak: klasea berreraikitze esparruak

Arestian esan dugun bezala, frankismoak, klase izaeradun erregimena zen heinean, langile klasea subjektu gisa ezabatu nahi izan zuen eta bere izaeraren parte ziren harreman eta sozializazio esparruak erabat desagerrarazi zituen. *Desarrollismoaren* garaian, eratzen ari zen langile klase berri hark sozializaziorako (hau da, elkar ezagutzeko eta esperientziak konpartitzeko) esparru berriak eraiki zituen. Testuinguru hartan elizari lotutako sozializazio esparruek paper oso garrantzitsua bete zuten.

Gerra Zibilean Eliza katolikoa Erregimena frankismoaren zutabeetako bat izan zen, eta altxamenduari sustengua eman zion gerrari Gurutzada izaera eman ziolako. Gerra ondoan, ordea, Elizak lan-munduan «eragin guneak» izateko beharra ikusi zuen, langileen artean hain ohikoa izana zen antiklerikalismoa gainditzeko¹⁹⁹. Langileengana hurbiltzeko saiakera hori apostolutza mugimendu sekularren bidez egin zen, hau da, laikoek osatutako elkarten bidez. Iraganean Elizak langileekiko jarrera paternalista izan bazuen ere, kasu honetan hurbilpena oso bestelakoa izan zen; elkarte horiek benetako langile izaeraz hornitu baitziren, beraien behar eta arazoei erantzuteko moduan.

Katolizismo sozialaren hainbat espresioek ezker iraultzailearen sorrera ahalbidetu zuten, militanteen topagune eta formakuntza eskola izan zirelako. Langile mundura hurbiltzeko elkarte horietako batzuk Accion Catolicaren (AC, Ekintza Katolikoa) mugimendu espezializatuak izan ziren. AC-k 1946ean Hermandad Obrera de Accion Catolica (HOAC, Accion Catolicako Langile Anaidia) sortu zuen, eta urte gutxi batzuk beranduago, 1956ean, (Belgikako mende hasierako

197 Edurne Yaniz Vatikano II.ak Nafarroan izan zuen eragina aztertze doktorego tesia egiten ari da NUP-en. Edurne Yániz Berrio, «El impacto y la recepción del Concilio Ecuménico Vaticano II en Navarra. Una aproximación al primer posconcilio marcado por la figura del prelado Mons. Enrique Delgado Gómez (1965-1968)», *Historia Actual Online*, 35 zbk. (2014), 127-142.

198 Nerea Perez Ibarrola, *Langileria berri...* 288-293.

199 *Ibid.* 259.

etsenpluaren irudira) Juventud Obrera Catolica (JOC, Langile Gazteria Katolikoa) martxan jarri zuen²⁰⁰.

Beste elkarte apostoliko garrantzitsuena Vanguardias (VO) izeneko mugimendua izan zen, 1954ean eratua. Vanguardias mugimendua Jesusen Lagundiari loturik zegoen eta Vanguardia Obrera Juvenil (VOJ, Gazte Langile Abangoardia), Vanguardia Obrera Social (VOS, Langile Abangoardia Soziala) eta Vanguardia Obrero Femenina (VOF, Langile Abangoardia Femeninoa) izan ziren. Vanguardias mugimenduaren topalekua Iruñeko Kale Nagusiko Zentro Marianoan zegoen.

Elkarte hauen zeregina, esan bezala, langileen sozializazio esparru kristauak bultzatzea izan zen, eta hasiera batean, elkarte kristau horiek ez zuten zuzeneko aktibismo politikorik egiten, baina langileei Lanbide Heziketa, formakuntza izpirituala eta aisialdia eskaintzen zizkieten. Jarduera horiek guztiak nolabaiteko «sozializazio prepolitikorako» esparru izan ziren²⁰¹.

Aisialdiari dagokionez, gazte askorentzako aisialdirako sarbide bakarra eliz erakunde horiek ziren, Erregimenaren eskaintza kulturala urria baitzen eta bestelakoetarako sarrerarik ordaintzeko dirurik ez zutelako. Mota horretako inizatibenez bidez zinemara joateko, kirol lehiaketetan parte hartzeko edo txangoak prestatzeko aukera izaten zuten, eta horien aitzakian geroko militante askok bertan elkar ezagutu zuten²⁰². Formakuntza izpirituala, bestalde, irakurketen, hitzaldien eta eztabaiden bidez egiten zen. Han elkartzen ziren langile eta gazteek ingurunea eta errealitatea ebanjelioaren arabera taldean aztertzen zuten. Egoera bidegabean aurrean berauek zuzentzeko konpromiso pertsonalak hartzeraz bultzatzen zituzten, apezken zuzendaritzapean eta taldean egindako eztabaiden bidez. Formakuntza horietan, esaterako, aski ezaguna izan zen erabiltzen zuten metodologia: «Behatu, Epaitu eta Ekin». Horren arabera, mugimenduko kristauetako militanteek inguruan zeuden egoeren eta arazoen berri izateko errealitatea ezagutu behar zuten (Behatu). Jarraian, egoera hori eztabaida taldeetan ebanjelioaren arabera juzgatzen zuten zuzena ote zen ondorioztatzeko (Epaitu), eta bukatzeko, konpromiso pertsonalen bat hartzen zuten egoera hori konponbideren bat bilatzeko (Ekin).

Orokorrean Accion Catolicako elkarteek (HOAC, JOC eta bere adar femeninoek) Vanguardias bano izaera moderatuagoa zutela esaten da, besteak beste hierarkia erlijiosoak AC zorrotzago kontrolatzen zutelako, jesuitek VOekin egiten ez zuten bezala. Gainera, HOAC eta JOCen mota guztietako langileak elkartzen ziren: erdi eta goi-mailako ikasketadunak, teknikariak, koadroak, administrazio-langileak eta abar. Baina VOn, aldiz, langileen profila apalagoa zen;

200 Nerea Perez Ibarrola, *Langileria berri...* 260. Jose Elena Santamaría Blasco, «Movimiento obrero...», 701-712.

201 Nerea Perez Ibarrola, *Langileria berri...* 264-267.

202 *Ibid.* 264-265.

Jesuitek Kale Nagusiko Zentro Marianoan gau-eskolen bidez Lanbide Heziketa eskaintzen baitzuten, eta ondorioz, formakuntza gabeko langile ugari horietara joaten zen²⁰³.

Orduko Iruñeko langile mugimenduaren ernamuina Kale Nagusiko Zentro Marianoaren inguruan elkartzen zen jende talde baten inguruan zegoen. Zentro Marianoan hainbat elkarte apostoliko ibiltzen ziren. Vanguardias osatzen zuten mugimenduetatik, AST (Acción Sindical de Trabajadores, Langileen Ekintzal Sindikala) sindikatua (ORT alderdi marxistaren aurrekaria) sortuko zen, HOAC eta JOCetik ordea, batzuek USO (Langile Sindikal Batasuna, Unión Sindical Obrera) sindikatua sortuko zuten, baina bere kideek bestelako mugimendu ezkertiarak ere elikatuko zituzten.

Hasiera batean, hurkoa laguntzeko hartzen zituzten ekinbideak oso inuzenteak eta erabat erlijiosoak ziren, politikarekin inolako harremanik izan beharrik gabe. Etsenplu modura har bedi hainbat urte beranduago ORTko zuzendaritza probintzialeko kidea izanen zen Javier Iturberen esperientzia: igandeetan Vanguardiaseko gazteak ospitalera joaten ziren, eta ingresatuta zeudenei, senide edo adiskiderik gabe baldin bazeuden, konpainia egiten zieten. Berriemaile berak, beste behin, bere lantokiko lankide bati aldageletako armairutik aldizkari pornografiko bat erori zitzaionean denen aurrean txikitzea erabaki zuen, ekintza eredugarri on bat egiten ari zelakoan²⁰⁴. Mota honetako «konpromiso mundutar» txikiak egiten zituzten.

Baina laster, arazo eta gatazka sozialekin talka egiten hasiko ziren. Lan-munduko arazoak (soldata baxuak, lan baldintza gogorak, ...) konpontzeko borondatezko eta ebanjelioaren arabeko ekintza indibidual horiek ez zutela askorik balio konturatuko ziren. Horregatik, bestelako konpromiso sozialago eta politikoago batera urratsak egiten hasiko ziren. Talka eta gatazka horiekin kontzientzia hartuta, konpromiso erlijioso indibidualetik pixkanaka konpromiso sozio-politiko ezkertiarretarako bidea egin zuten batzuek:

Orduan, Vanguardiasak [arazoak] konpontzen ez dituelako kontzientzia hartzen da, ez da konpontzeko gai den entitate bat. Eta beraz sindikatuak eratu behar dira, eta sindikatua ez da legeak egiten dituen eta arazoak konpontzen dituen entitate bat, ondorioz, politikan sartu behar dela [ondorioztatu genuen]. Hori da garapena. ¿Eta erlijiotasuna, non geratu zen?²⁰⁵

203 *Ibid.* 262.

204 E2 eta E3 elkarrizketak: Javier Iturbe Ekai. Iruñea, 2018/VII/25 eta 2018/VIII/9. Javier Iturbe Ekai mugimendu kristauetan hasi zuen bere konpromiso militantea. Ondoren, ORTko kidea izan zen eta bere Komite Probintzialean parte hartu zuen. Ondoren, 80ko hamarkadatik aurrera PSOEko zinegotzia izan zen Iruñeko udalean. Bi liburu ere idatzi ditu *Castigo a los culpables* (1978) eta *Libro negro sobre la Diputación Foral de Navarra* (1978).

205 *Ibid.*

Baina mugimendu kristauen metabolizazioa aldaketa handia izan zela irudi dezakeen arren, askok ez zuten haustura modura bizi, garapen pertsonal eta gradual baten modura baizik²⁰⁶. Gainera, moral kristauak eta kultura komunistak hainbat elementu konpartitzen zituzten (konpromisoa, diziiplina, komunitate sentimendua, apaltasuna, ingurukoak laguntzeko grina eta abar) eta horrek batetik bestera aldatzeko prozesua erraztu zuen: «*entrega* erlijioitsu batetik *entrega* laiko edo sozial batera pasatzen ginen»²⁰⁷.

Iruñean ez ezik, Tuteran ere ezker erradikaleko mugimenduen sorreran mugimendu kristauak eragin handia izan zuten. Hiri horretan, apezek sortutako bi *eskola sozial* oposizio antifrankistarako kideentzako harrobi izan ziren. Eskola sozialak apezek bultzatutako formakuntza eta eztabaida taldeak ziren eta horietan jakin-mina eta kezka sozialak zituzten ikasleak eta gaztetxoak elkartzen ziren. Milagros Rubioren (EMK eta Batzarreko kidea, Tuterako zinegotzi eta Euskal Herritarrok koalizioan foru parlamentari izandakoa) arabera, talde horiek gazteei oso erakargarriak egiten zitzaizkien, —hezkuntza arautuan ez bezala— neska-mutikoak elkarrekin egoten ahal zirelako eta debekatutako liburuak irakurtzen zituztelako²⁰⁸. Tuteran bi eskola sozial egon ziren, bata Zabala apezaren eskola soziala izan zen (PCEren ildo politikoetatik hurbil zegoena) eta bestea, aldiz, Alberdiren «eskola antikapitalista» zeritzon eta aurrekoa baino ezkererago zegoen²⁰⁹. Hainbestekoa izan zen eskola sozial hauen eragina, ezen Tuteran egon zen lehendabiziko mobilizazio antifrankista 1968an Zabalaren gogo-jardunei loturiko ikasle greba bat izan baitzen²¹⁰. Soziabilizazio eta harreman sare kristau horietan Francisco Alava, geroko Tuterako alkate sozialista, ere ibili zen.

Ikusi dugun bezala, elkarte kristauetako militante ugari konpromiso mundutar kristautik konpromiso sozio-politiko ezkertiarretara pasa ziren. Garapen horren ondorioz, Erregimenarekiko eta sistema kapitalistarekiko gero eta jarrera kritikoagoak zeuzkaten, eta eliz-hierarkiak ez zuen begi onez ikusi mugimenduok hartu zuten norabidea. Haien hasierako helburua, kristautasunetik urruntzen ari ziren langileak artaldera erakartzea zen, baina kontrakoa gertatzen ari zen, Elizaren sektore batzuk urruntzen ari zitzaizkion²¹¹. Arrisku horren aurrean, 1967-68an ACK HOACen

206 E18 elkarrizketa: Arcadio Rojo Amil. Iruñea, 2019/IX/27. E16 elkarrizketa: Martin Landa Marco. Tuteran, 2019/VIII/23.

207 E18 elkarrizketa: Arcadio Rojo Amil. Iruñea, 2019/IX/27: «pasábamos de una entrega religiosa a entrega laica o social».

208 E10 elkarrizketa: Milagros Rubio Salvatierra. Tuteran, 2019/III/5. E15 elkarrizketa: Patxi San Juan Calud eta Jose Luis Arellano Ansó. Tuteran, 2019/VIII/23.

209 E10 elkarrizketa: Milagros Rubio Salvatierra. Tuteran, 2019/III/5.

210 Iñigo Perez Ochoa, «Oposición al ...» 27-51. Jose Maria Giganto Martinez, «Sindicalismo e Iglesia en la Ribera de Navarra...», 761-763.

211 Jose Elena Santa Maria, «Movimiento obrero ...», 720.

estatutuak aldatzea erabaki zuen, elkarte hura estuago kontrolatzeko. Erabakiak HOACen barruan krisia eta haustura sortu zuen, eta bere militante izandako askok HOAC utzi, eta sindikatu edo langile-alderdietara pasatzea erabaki zuen. Vanguardiasen ere antzeko prozesua bizi izan zuten militanteek eta elkarte hura desagertu eginen zen, denbora laburrean. Baina HOAC-en aldean, VOren bukaera «heriotza natural» baten modukoa izan zen²¹². Bere kideek konpromiso soziopolitikoetan aurrera egin ahala elkarteak utzi zuten eta beraz zalaparta handirik gabe desagertu zen.

Zentzu batean, ACko mugimendu espezializatuak zein Vanguardiasekoak gerraurreko elkarte kristauen jarraitzaile modura kontsidera ditzakegu. Perez Ibarrolak defendatzen duen bezala, nafar gizartean (hala hirietan, nola herrietan) elizari lotutako elkarteek harreman sare zabal eta trinkoa zuten, eta ondorioz, XX. mende hasieratik (edo are lehenagotik ere) elkarte kristauak nafar askorentzako sozializatorako erreferentzia hurbil eta ezaguna ziren. Beraz, landa exodoaren ondorioz **hirietan langile komunitate urbano berria eratzen joan zen heinean, langile ugarik jatorri kristauko elkarteetan antolatzea modu naturalean ikusi zuen**²¹³. Hirietako elkarte kristauen sare berri hura, **68 Luzearen eraginpeko pentsamendu korronteekin topo** egin zuenean, erabat erradikalizatu zen eta ezker erradikalaren sorkuntza ahalbidetu zuen.

Iruñeko apaiztegia

Ezker erradikalaren sorrerarako beste esparru garrantzitsuenetako bat Iruñeko seminarioa izan zen. Nafarroaren tradizio katolikoaren ondorioz, 1960ko hamarkada erdialdera arte Iruñeko apaiztegia, zentzu teologiko batean, eredugarria zen. Espainia guztiko seminariotik emankorrenetakoa zen, han apez ugari hezi baitzen eta ondorioz, «fedearen aletegia» deitzen zioten. Gainera, garai hartan, txantxa modura Nafarroaren produktu esportatuena apezak zirela esaten zen. Uzta emankor eta ugari horien atzean, Nafarroaren tradizio elizkoiaz gain, seme-alaba ugariko eta baliabide urriko familiek haurrei eliz-ikasketak emateko ohitura zegoen; izan ere, haurrei bizibidea eta formakuntza emateko aukera bakarrenetako bat baitzen.

Baina 60ko hamarkada erdialdean Iruñeko apaiztegiko egoera erabat irauli zen. 1965ra arte Carmelo Velasco izan zen seminarioko errektorea, baina urte hartan kargua utzi zuen eta Jesus Lezaun apez gaztea izendatu zuten. Lezaun Belgikako Lovainan ikasketak egiten aritutakoa zen, eta Vatikanoko II. Kontzilioan gertatzen ari ziren aldaketak gertutik ezagutzen zituen. Lezaunek Jesus Ekizarekin, Patxi Larraintzarrekin eta Javier Osesekin batera oso ikuspegi berritzailea zeukan

212 *Ibid.* 724.

213 Nerea Perez Ibarrola, «Movimiento obrero y movilización ciudadana en la pamplona del tardofranquismo y la transición ¿Un inesperado despertar?», *Geronimo de Uztariz*, 28-29 (2012-2013), 123-154.

irakasle taldea eratu zuen eta ikastegiko edukiak goitik behera berriitu zituen²¹⁴. Garai hartan apezgai izandakoek esaten dute Lezaunek —aurreko garaiko giro itxi eta zurrunaren aldean— seminarioaren «leihoak eta ateak ireki» zizkiola Vatikanoko II. Kontzilioaren eraginari²¹⁵. Hala ere, Lezaunen etorrera mugarri garrantzitsua izan zela ukatu ezin den arren, ziur aski Elizari lotutako ingurumari horietan lehenagotik ere kezka sozialen inguruko interesak zituzten lagunak egonen ziren. Edonola ere, Lezaunek bultzatutako aldaketek seminarioko giroa erabat aldatu zuten eta ideia berriei irekiriko formakuntza giroa sortu zen, «munduarekiko eta gizartearekiko harreman estuagoak» sortu nahi izan baitzituen²¹⁶. Oso denbora laburrean apaiztegia ikastegi hutsa baino gehiago bilakatu zen: bertan hitzaldiak, mintegiak eta eztabaidak egiten hasi ziren. Apezgaiak kristautasunaren korrante ezkertiarrekin jarri ziren kontaktuan eta gainera, seminariotik kanpo langile munduarekin kontaktuan jarri ziren: VO, HOAC eta JOCEko bileratan parte hartu zuten, eta orduantxe jaiotze bidean zegoen langile mugimenduko kideekin harremana estutu zuten. Laster, seminarioa subertsio leku aktiboa bilakatu zen eta langile mugimenduaren eta haren azpiegiturarako baliabide modura erabili zen. CCOOko multikopista, esaterako, seminarioko gurutzean ezkutaturik egon zen²¹⁷.

Vatikanoko II. Kontzilioaren ikasbideen aplikazioaren bidez apaiztegian aldaketak egon ziren. Gatazka giroa eta tentsio larriak sortu zituzten aldaketek eta Gobernadore Zibilak eta Eliz hierarkiak kezka azaldu zuten. Ondorioz, egoerak okerrera egin baino lehen, 1967an Jesus Lezaun kargutik kendu zuten, eta bere soka berekoa zen Oses ezarri zuten bere tokian. Hark ere denbora gutxi iraunen zuen errektoretzan eta 1968ko udaberrian berriz ere kargutik kendu zuten. Ordezkorik gabe, apaiztegia hainbat hilabetez itxita geratuko zen, eta apezgaiak ikasketak utzi edo beste ikastetxe batzuetan jarraitu beharko zuten. Gertatutakoaren danbatekoa hainbesterainokoa izan zen, ezen hurrengo urteetan seminarioan izen emateen beherakada nabarmena gertatu baitzen: Edurne Yanizen arabera 1959/60 ikasturtean 702 matrikulazio izan ziren eta 1971/72ean, aldiz, 9 baino ez²¹⁸.

Esperientzia labur baina sutsu horren ondorioz, apezgai askok orduantxe hartu zuten kontzientzia. Horrek koadro politikoen belaunaldi oso bat era zedin ahalbidetu zuen, Nafarroako

214 Edurne Yaniz Berrio, «La Asamblea Conjunta en la diócesis de Pamplona y Tudela», Feliciano Montero García, Joseba Louzao Villar, Francisco José Carmona Fernández (Koord.), *La Asamblea Conjunta de Obispos y Sacerdotes de 1971. Estudios diocesanos*, Universidad de Alcalá, 2018, 273-300. Castor Olcoz Iracheta, *Jesus Lezaun. La afonía de Ezequiel*, Txalaparta, Tafalla, 2009.

215 E11 elkarrizketa: Pablo Ibañez eta Isabel Noguera. Iruñea, 2019/III/11. Solasaldi grabatugabea: Andres Valentin Gonzalez. Iruñea, 2020/I/29. Solasaldi grabatugabea: A. G. Iruñea, 2019/IX/26. Solasaldi grabatugabea: Manuel Burguete. Barañain, 2019/X/7.

216 Nerea Perez Ibarrola, *Langileria Berri ...* 242.

217 E5 elkarrizketa: Jesus Urrea Bidaurre. Iruñea, 2018/X/30.

218 Edurne Yaniz Berrio, «El impacto y ...», 131.

alderdi ezkertiar guztiak koadro politikoz elikatu zituena. Hurrengo urteetan ezker erradikaleko alderdi ia guztietan (salbu eta PCEml-n) apaiztegitik pasatako kide ugari egon ziren, baita PCE eta ETaren zatiketetan jatorria zuten alderdietan ere. Pablo Ibañezek, esaterako, seminarioko ikasgelan sortutako harremanek zenbait talde politikoen egituraren jarraipena izan zutela adierazi zigun, PTEn edo EMKn besteak beste²¹⁹. Halaber, Andres Valentin en arabera (seminarista eta ondoren Komunisten Ligako (LC) kide izandakoa), bere garaian ia kurtso guztietan ezker iraultzaileko militante eta koadro izanzen ziren lagun taldeak zeuden, eta urte gutxiren buruan, alderdi iraultzaileetan kurtsoka edo koadrilaka sartuko ziren. Bere maila berean, esaterako, PTEkoak izanzen zirenen lagun talde bat zegoen (dozena bat lagun gutxi-gora-behera) eta kurtso bat edo bi gorago EMKko agintari izanzen ziren beste lauzpabost. Eta hiru urte nagusiago zirenak, aldiz, gehienak troskistak izan ziren. ORTkoak, bestalde, asko zirenez kurtso guztietan presente omen zeuden²²⁰.

Parrokietako apez gorriak: ezinbesteko azpiegitura sarea

Apostolutza sekularreko elkarteez eta seminarioaz gain, garai hartan langile-apezak edo apez-gorriak deiturikoek ere paper berezia bete zuten. Esan bezala, kezka sozialek apaizgoaren parte bat langileengana erakarri zuten. Haien elkarguneek (auzoetako parrokiek edo elizaren lokalek) langile mugimenduarentzako edo elkarte politiko erradikalentzako topagune modura funtzionatu zuten, bertan bilerak egiteko baliatu baitzitezkeen. Besteak beste, Iruñeko Verbo Divino, Txantreako Canosianak, Arrotxapeko El Salvador edo seminarioa bera erabiltzen ziren; Tuteran, aldiz, Huerfanicos, Magdalenako parrokia edo seminario zaharra erabiltzen ziren, esaterako. Horretaz gain, apezok mezetan diru bilketak egitea baimendu zuten eta sarri predikuen bidez zapalketa eta bidegabekeria salatzeke bozgorailu izan ziren. Gainera, apezek, hiritar arrunten aldean, hitz egiteko askatasun gehiago zuten, zenbaitetan errepresioak eta zentsurak ere beraiei eragiten ahal zien arren²²¹. Ondorioz, apez horiek langile mugimenduarentzako ezinbesteko azpiegitura bat eratu zutela esan dezakegu. Iruñerrian sentsibilitate sozial horiek zituzten apezek talde bat eratu zuten. Talde hori auzo langileetako parrokietako erretoreen artean eratu zuten. Burlatako *Nuestra Señora la Virgen del Rio* (Errekako Amabirjina) parrokian elkartzen zirenez *Grupo de Curas del Rio* izena hartu zuten. Hala ere, orokorrean, apezak ez ziren alderdi edo sindikatu konkreturen batekin identifikatu (soilik kasu berezi batzuetan), eta laguntza eskatzen zion orori ematen zioten, alderdien arteko lehian sartu gabe. Apaizok, edonola ere, mugimenduarentzako

219 E5 elkarrizketa: Jesus Urria Bidaurre. Iruñea, 2018/X/30.E11 elkarrizketa: Pablo Ibañez eta Isabel Noguera. Iruñea, 2019/III/11. Nerea Perez Ibarrola, *Langileria berri...* 244.

220 Solasaldi grabatugabea: Andres Valentin Gonzalez, Iruñea 2020/I/29.

221 Jesus Equiza, *¿Política o profecía? El profetismo de la Iglesia navarra en los años 70*, Fundación para el desarrollo informativo navarro, Iruñea, 1983.

ezinbesteko babes sare bat eratzen zuten²²². Urteak joan eta urteak etorri, apez talde horretako askok (Lino Otano, Patxi Larrainzar, Jesus Ekiza, Patxi Erdozain, Juanjo San Martin...) gizarte mugimenduei eta gizartearen aldarrikapenei loturik jarraitu zuten.

Hala ere, Elizaren eta mugimendu ezkertiarren eta iraultzailearen arteko harremana ez zen beti ona izan. ORTk, halako batean, komunista eta kristaua izatea baterazina zela ondorioztatu zuen eta bozeramaile batek iritzi hura apez aurrerakoiekin egindako bilera batean aipatu zuen. Bileran presente zeuden apezek ez zuten erabakia begi onez ikusi²²³.

3.4. Ondorioak

Atal honetan ezker iraultzailearen sorrera bere testuinguruan kokatzen eta bere sorreran eragin zuten faktoreak eta kausak azaltzen saiatu gara. Alde batetik, *Desarrollismoaren* garaiko industrializazioak eta hiritartzeak egitura sozioekonomiko berri bat ekarri zioten nafar gizarteari. Eredu landatar eta nekazaria atzean utzi zituen eta errealitate industrial eta hiritar berri bat nagusitu zen. Errealitate horretan klaseen arteko gatazkak forma berriak hartu zituen eta langileak hiriguneetako klase sozial gisa (eta aldi berean, subjektu historiko modura) eratu ziren. Proletariotza berri hura izan zen, hain zuzen ere, ezker iraultzaileko alderdiak sortu zituen.

Bestalde, kontuan hartu behar da Gerra Hotz betean 68 Luzea edo Bigarren Oldarraldi Proletarioa deituriko astinaldi iraultzailea gertatu zela 60ko eta 70eko hamarkadetan. Munduko hainbat bazterretan pentsamendu korrante ezkertiarak eta askapen mugimenduak olatu gorakorrean zeuden. Egoera kontraesankorra zen arren (Mendebaldeko herrialde batzuetan ongizate-estatua eraikitzen ari baitziren eta sozialismo erreala legitimitatea eta erakurpen ahalmena galtzen ari baitzen), indar ezkertiar eta aurrerakoientzat egoera baikorra zen, munduko edozein herrialdeetan aldaketa sozioekonomiko sakonak gerta zitezkeela baitzirudien; baita Nafarroan bertan ere.

Baina, zeri esker errotu zen ezker iraultzailea Nafarroan horrenbesteko arrakastaz? Frankotan II. Errepublika garaiko Nafarroa erabat atzerakoi eta erreazionariotzat irudikatu den arren, gerraurreko ezkerak tradizio aberatsa zeukan lurraldean; soilik errepresio gogorraren bidez isilarazi ahal izan zutena²²⁴. Boluntario karlistei eta elizgizonen parte hartzeari esker, ordura arte garatu zen langile mugimendua, zein hari lotutako alderdi eta sindikatu ezkertiarak, gogorki erreprimitu zituzten. Asko eta asko hil zituzten eta beste askok erbesteratu behar izan zuten.

222 E4 elkarrizketa: Juanjo San Martin Villanueva eta Vicente San Martin Oneca. Iruñea, 2018/X/9.

223 *Ibid.*

224 Hainbat Egile, *Navarra 1936. De la esperanza al terror*, Altafaylla, Tafalla, 2018.

Beraz, *Desarrollismo* garaiko langileria berria sortu zenerako, esperientzia ezkertiar (PSOE, PCE, UGT edo CNT) haren arrastoa oso ahula zen eta ez dirudi bi belaunaldien arteko lotura zuzenik egon zenik. Hazkunde ekonomikoa azkartu ahala, eta 50eko hamarkadatik aurrera langileek elkargune berriak behar izan zituztenean, ez zuten ohiko tradizio ezkertiarrei lotutako harreman esparrurik aurkitu eta hutsune hori elizari lotutako elkarteek bete zuten. Gainera, 30eko eta 70eko hamarkadako klase gatazken arteko konparaketarik eginez gero, biak eredu ezberdinekoak zirela ondorioztatuko genuke; izan ere, ez zuten bat egin, ez erakunde soziopolitikoek (PSOE, PCE, UGT eta CNT) batean, eta ezker iraultzailea bestean), ezta espazio geografikoek (hegoaldeko landa ingurunea batean, hiriak bestean), ezta gatazken izaerek ere (lurraren jabetzaren inguruan batean, industrialak bestean). Bestalde, jatorri familiarrari erreparatuz gero, ez dugu errepikatzen zen eredurik aurkitu, 70eko hamarkadako militanteen senideen artean denetarik aurkitu baitugu; karlistak, abertzaleak, ezkertiarak edota konpromiso politikorik gabekoak. Ondorioz, ezker erradikalaren jatorria aurreko tradizio politiko ezkertiarrekiko belaunaldi haustura modura planteatu bada ere, Nafarroa Garaiko kasuan, —diskurtsiboki PCE eta PSOE oso gogorki kritikatzeko zituzten arren— **hausturaz baino, Errepublika garaiko ezkerreko tradizioekiko deskonexioaz edo lotura-ezaz hitz egin beharko genuke**²²⁵. Hala ere, bi belaunaldi ezkertiaren arteko loturarik egon izana ez litzateke harritzekoa izanen eta etorkizunean hipotesi hori baieztatuko luketen ikerketak atera litezke.

Edonola ere, Gerra Zibila baino lehenagoko alderdi ezkertiar bakar batek baino ez zuen izan nolabaiteko presentzia diktaduraren azken urteetako oposizio antifrankistan: PCEk. Santiagoren Carrilloren alderdia Espainia mailako oposizio indar nagusia zen; izan ere, familia barnean transmititutako oroimenak eta gerra garaiaz geroztik biziraun zuten azpiegitura klandestinoek, bere berreraikuntzan lagundu zuten. Baina Nafarroan egitura hura ez zen nahikoa izan, Alderdi Komunista beti egon baitzen gutxiengoan ezker iraultzailearen aldean.

Iruñerriko langile mugimendu berria eratzen ari zen urte giltzarrietan, 1966 inguruan, ASTk eta PCEk elkarrekin ekion zioten Iruñeko Langile Batzordeen (CCOO) eraketari. Baina, 1967ko urrian PCEk manifestazio baterako deialdia egin zuen, estatu mailako deialdi bati jarraiki, eta ASTren babesik gabe. Manifestazio hori zela kausa, PCEk sarekada bat jasan zuen eta Iruñean zeukan kiderik ezagunena (Francisco Sanchez Cortazar) atxilotu zuen poliziak. Ondorioz, sarekada hark Alderdi Komunistaren eragin esparrua eta hazkunde potentziala errotik desartikulatu zituen, eta langile esparru soziopolitiko osoa elkarte kristau sekularren esku geratu zen. Inolako lehiakiderik gabe, CCOOak ASTren kontrolpean geratu ziren. PCE ez zen berehalakoan berreskuratu eta 1970ra

225 E5 elkarrizketa: Jesus Urrea Bidaurre. Iruñea, 2018/X/30.

arte —gainerako alderdi ezkertiarrek errotzen hasi zirenerako— ez zen bizkortzen hasi²²⁶. Horregatik esan izan da, 60ko hamarkada apostolutza mugimenduentzako «urrezko aroa» izan zela eta PCErentzako «hamarkada iluna» izan zela²²⁷.

Halaber, ezker iraultzailea ikasle mugimenduren erradikalizazioarekin lotu izan den arren, ikerketa honetan ikasle mugimenduak ezker iraultzaileari egin zion ekarpena apalagoa izan zela ikusi dugu. Soilik LCRren lehendabiziko zelularen kasuan eta hiri handietara ikastera joandako unibertsitarioen kasuan eragin zuen ikasle mugimenduak alderdi iraultzaileen sorreran.

Sektore abertzaleen kasuan, ETAk 60ko hamarkadaren erdialdetik langile mugimenduan txertatzeko eginahalak egin zituen arren, ez zuen modu eraginkorrean txertatzea lortu. Besteak beste, errepresio gogorrak Langile Frontearen garapena oztopatzen zuelako, eta ondorioz, bere egitura guztia adar militarren menpeko bilakatzen zuen. Nazionalismo iraultzailearen nukleo nagusiak aktibismo armatua lehenetsi zuen eta langile mugimenduaren mobilizazioetan eragiteko ahalmenik gabe geratu zen. Baina, ETAREN zatiketa *obréristek* eta espainolistek, ordea, modu arrakastatsuagoan lortu zuten langile mugimenduan txertatzea eta esparru estataleko ezker iraultzaileari ekarpen azpimarragarria egin zioten. Edonola ere, ekarpen hori (Nafarroaren kasuan behinik behin) periferikoa izan zen eta ezker iraultzailearen sorreran soilik zeharka eragin zuten.

Beraz, arestian aurreratu dugun bezala, Nafarroako ezker iraultzailearen jatorri nagusia elkarte kristau apostoliko sekularretan eta Iruñeko Seminarioko harreman sareetan egon zen. Beren eragin esparru nagusia langile mugimenduaren barruan egon zen. Nafarroa industrializatu zenean eta langile klase berria eratu zenean, klase berri horrek sozializazioarako esparru propiorik eta klase interesak defendatzeko tresnarik ez zeukan eskura, Sindikatu Bertikala erregimenaren kontrolpekoa baitzen eta gerraurreko alderdi eta sindikatu ezkertiarrek desagertu baitziren.

Elkarte kristauak, ordea, Nafarroan oso errotuta zeuden eta II. Errepublikaren garaian indar politiko atzerakoi eta eskuindarrak nagusi izan ziren. Elkarte eta mugimendu katolikoek harreman sare zabala zuten, eta gerraz geroztik bere horretan mantendu, eta are hedatu ere egin zen. Katolizismoak 50eko hamarkadatik aurrerako industrializazioarekin batera klase errealitate berrira oso modu eraginkorrean moldatzea lortu zuen. Elkarte kristauek proletariotzarekin oso modu naturalean konektatu zuten, eta horietan langileek harreman sareak ehotzeko, kontaktuak egiteko eta

226 Andres Herrera Feligreras, «De la celula al partido de masas. Una aproximación al desarrollo del PCE en Navarra durante el tardo franquismo», Manuel Bueno Lluch, José Ramón Hinojosa Montalvo, Carmen García García (Koord.), *Historia del PCE. I Congreso, 1920-1977*, FIM, Madril, 121-133. Javier de Miguel Saenz, *La Organización Revolucionaria de Trabajadores ...* 67-68. ORT, *Historia del movimiento obrero navarro. 25 años de lucha 1950-1975*, autoedizioa, ORT, 1975, 29-30. Jose Vicente Iriarte Areso, *Movimiento obrero...* 67-68.

227 Nerea Perez Ibarrola, *Langileria berri baten...* 446-447.

formakuntza (teknikoa zein politikoa) lortzeko erraztasunak izan zituzten. Ondorioz, 1950eko hamarkadan langileei mugimendu kristauek aritzea oso naturala suertatu zitzaien²²⁸.

Apez gazte batzuek eta laiko ugari hurkoarekin abegikor izan behar zelako aginduari jarraiki, langileekin eta txiroekin konpromiso ebanjelikoren bat hartu zuten. Helburua sektore zapaldu eta baztertu horien behar moral eta materialak asetzen laguntzea zen. Garai hartan gizartearen sektore batzuk sekularizatzen ari zirelako susmoa zegoen, eta langile klaseak zuen garrantzia soziala kontuan hartuta, hura ber kristautzea ezinbestekoa zela uste zuten. Oso maiz, jainkoaren hitza eraman nahi izan zuten langile mundu horrengana, misiolarien gisan. Baina errealitate horiekin kontaktuan jarri eta gero, hasierako konpromiso katolikoa konpromiso sozial bilakatuko zen sarri. Horrek kapitalismoarekin eta Erregimenarekin haustera eraman zituen kasu batzuetan, eta ondorioz, frankismoak bere oinarri sozialaren parte bat galdu zuen.

Gainera, langileek ez zeukaten beren interesei erantzuten zien esparrurik propiorik, Sindikatu Bertikala erregimenaren kontrolpekoa eta enpresarien aldekoa baitzen. Behar hori zela kausa eta nafar gizartean elkarte kristauek (HOAC, JOC, VO eta abar) zuten errotze ahalmenari esker, langileek horrengana jo zuten. Elkartek langile klasea subjektu politiko gisa eratzeko eta ezker erradikaleko alderdiak eratzeko prozesuan berebiziko papera izan zuten²²⁹.

60 hamarkadaren erdialdetik aurrera, elkarte horietan sortutako esparruek, harreman sareek eta koadro politikoek 68 Luzearekin lotutako korrante ideologikoekin bat egin zutenean, mugimendu apostoliko kristauak oso denbora laburrean erradikalizatu ziren. Langile-elkarte kristauek, beste aukera batzuen aurrean, garatzeko eta errotzeko ahalmen eta erraztasun gehiago izan zituzten, batez ere hainbat faktoreri esker: alde batetik, oso modu goiztiarrean ezarri zirenez, langile testuinguruko lehentasunezko harreman esparru izan ziren, formakuntzarako eta militanteen arteko harreman-sareak eratzeko baliatu zuten aukera. Bestetik, Erregimenak bere masa erakundeen bidez gizarte zibila erabat kontrolatzeko saiakera egin zuen. Ondorioz, Elizaren esparruak, Falangerenekin batera, legalak ziren esparru bakarrak izan ziren, eta elkartzeko aukera paregabea eskaintzen zuten, balizko beste espazio ilegal batzuek ez bezala²³⁰.

Hori izan zen, halaber, ORTren nagusitasunaren jatorriaren arrazoia. AST sindikatuak mugimendu apostoliko kristauen sarea baliatu zuen langile mugimenduan oso modu goiztiarrean txertatzeko, lehentasun jarrera batean kokatu zen eta borrokarako prest leudeken nukleo aktiboak beregana erakarri zituen. Behin espazio politiko hori eskuraturik, bere atzetik etorriko ziren beste

228 Nerea Perez Ibarrola, *Langileria berri baten...* 235. Nerea Perez Ibarrola, «Movimiento obrero y movilización ciudadana».

229 Nerea Perez Ibarrola, *Langileria berri baten...* 257.

230 *Ibid.* 44.

alderdi iraultzaile ezkertiarrek zailago izanen zuten sektore horiengana hurbiltzea. Ondorioz, langile mugimenduko esparru garrantzitsuenak jatorri kristaua zuen ezker iraultzailearen esku geratu ziren.

Frankismoaren beste oinarri politikoek (karlismoak eta falangismoak), bestalde, ez zuten jakin errealitate sozioekonomiko berrira horren modu egokian moldatzen. Falangismoak alde batetik, karlismoaren eta katolizismoaren aldean, Nafarroan beti izan zituen oinarri eta babes sozial ahulagoak. Karlismoari dagokionez, ordea, oinarri sozial zabal eta aktiboa zuen arren, ez zuen gizarte industrial burgesaren eta klase gatazkaren egoera berrira egoki moldatzen jakin. Gerraurreko Nafarroako kultura politikoaren parte garrantzitsua zen, baina landa munduari eta Antzinako Erregimenaren ondorengo ziren baloreei lotuegi zegoen. Industrializazioaren ondorioz, nafar gizartea eta mentalitatea erabat aldatu ziren, horietara moldatzeko saiakera egin zuenean, oposizioarekin bat egin, sozialismo autogestionarioaren oinarri politikoak bereganatu, eta tradizio politikoaren iraganarekin talka egin zuen karlismoak²³¹.

Beraz, atal honetan ikusi dugun bezala, **Nafarroako ezker iraultzaileak nagusiki bi jatorri izan zituen: batez ere testuinguru katolikoetatik eratorritako kideak, eta maila txikiago batean, ETaren zatiketak**. 70ko hamarkadako kasik ezkerreko mugimendu guztiek nola edo hala formakuntza edo jatorri katolikoko militante eta koadro zuzendariak izan zituzten, baita PCEn edo ETaren zatiketatik zetozenetan ere. Atal honen hasieran ezker iraultzaile estatalak lau iturburuen arabera sorterra izan zuela esatea ohikoa dela aipatu dugu, eta askotan iturburu horien arabera zuhaitz taxonomikoak egiten direla. Baina atal honetan ikusi ahal izan dugunaren arabera, zuhaitz horiek lagungarriak izan daitezkeen arren, soilik modu orientagarrian erabili beharko genituzke, oso maiz iturburuen ezberdinen arteko nahasketak izan baitziren.

Bukatzeko, hausnarketa horiek guztiek ezker iraultzailearen banaketa geografiko bereziaren inguruko azalpena argitu dute. Izan ere, oso maiz, alderdi edo erakunde iraultzaileek banaketa geografiko irregularra izaten zutela erreparatu dugu, indargune edo hutsune nabarmenekin: **osatu gabeko puzzle** baten modura. Alderdiren batek eskualde, herrialde edo hirigune konkretu batzuetan errotze ahalmen handia zeukan bitartean, bere lehiakideek, aldiz, puzzlearen gainontzeko *piezak* kontrolatzen zituzten. ORTen indarguneak, esaterako, Huelva, Badajoz, Madril eta Iruñea ziren, PTErenak, aldiz, Katalunia, Andaluzia eta Aragoi. Maila lokalagoan ere antzera gertatzen zen; Iruñean ORT indar nagusia zen bitartean, Tuteran EMK eta Larga Marcha gehiengoa ziren; eta Lizarran, aldiz, LC eta EMK. Itxura guztien arabera, **frankismo garaiko militantzia ezkertiarren ezarpen geografikoa nitxo-iraultzaileen arabera banatzen zen** (nitxo-ekologikoen edo merkatu-nitxoen bezala). Izan ere, lurralde edo eskualde bakoitzean potentzialki erradikalizatu zitezkeen biztanleria atal mugatua existitzen zen. Beraz, iristen zen lehendabiziko

231 *Ibid.* 351-353.

alderdi erradikalak, modu eraginkorrean sustraitzea lortzen bazuen, besteen aldean abantaila zeukan; espazio hori *okupatzen* zuen eta jarrera ezkertiarak izan zitzaizketen masa sozial gehienak erakartzen zituen. Ondorioz, haren atzetik ezarriko ziren gainontzeko indar politikoek lehendabizikoak utzitako bazterreko esparruekin (hots, aurrekoak utzitako hondarrekin) konformatuko beharko zuten. Joel Sansek esan duenarena arabera, puzzle modura egindako banaketa geografiko hura alderdien arteko fusioetan argi nabaritu daiteke. Alderdiok askotan modu desorekatuan zituzten banatuta indarrak eta fusionatzerakoan, elkarren osagarri ziren, hau da: puzzlearen hutsuneak bete eta osatu egiten ziren²³². Zentzu horretan, Nafarroako tradizio kristauaren ondorioz, apostolutza mugimendu sekularrak abantailan zeuden. Lehenago errotu zirenez bere ingurura jende ugari erakarri zuten, eta horregatik lortu zuen ORTk Nafarroako oposizio antifrankistaren alderdi nagusia izatea.

232 Joel Sansek MC eta OICren fusioaren etsenplua jarri du, eta Ramon Franquesak PTE eta ORTren kasua. Joel Sans Molas, *Militancia, vida y revolución...*269-270. Ramon Franquesa, «Estabilización del nuevo régimen y autodisolución (1977-1980)», Jose Luis Martin Ramos (Koord.), *Pan, Trabajo ...* 299.

4. Mugimendu erradikalak martxan

60ko hamarkadaren hasieran Erregimen frankista koiunturarekin baikor zegoen. Gerraondoko politika ekonomiko autarkikoaren zailtasunak atzean utzita eta erreforma ekonomiko sakonen ondorioz, Espainia hazkunde bultzada azkar (baina mugatu) batean murgilduta zegoen. Horrek guztiak ustezko oparotasun ekonomiko orokorreko epealdi batean sartu zuen. Gainera, Erregimenak nolabaiteko errekonozimendua eskuratu zuen nazioartean eta horrek bere legitimitatea berrindartzen zuen. Bazirudien Erregimenak azkenean egonkortzea lortu zuela²³³. Baikortasun hori zela medio, eta Erregimenaren baitan gertatzen ari ziren lehien ondorioz, Gobernuak politika *aperturista* (irekizalea) lotsatia bultzatzea erabaki zuen, babes sozial zabalagoak bilatzeko. Errepresioaren eta zentsuraren arintzea eta malgutzea ekarri zuten hainbat lege eta neurri hartu zituzten: besteak beste, Elkarte Politikoen Lege Proiektuak (1964), Manuel Fragaren Prentsa eta Inprentaren Legeak (1966) edo 1966ko hauteskunde sindikaletan parte hartzeko bultzadak beti ere sistema diktatorialaren oinarriak kolokan jarri gabe²³⁴.

Baina, aldi berean, egoera berri hark gatazka sozialen azalratzea eta oposizio berriaren sorrera ekarri zuen. Alde batetik, garapen ekonomikoak klase gatazken eredu berri bat ezarri zuen eta horrek langileen mobilizaziorako aukera berriak zabaldu zituen. Gainera, oposizioko indar nagusiak (PCEk) diktaduraren aurka aritzeko estrategia berria estreinatu zuen. Estrategia berri horren abiapuntua 1956an onartu zen Berradiskidetze Nazionalerako Politika izan zen, gerra zibileko zatiketak gainditzeak eta aliantza antifrankista berriak gainditzea proposatzen zuen ildo politikoa. Aldaketa horrek talde antifrankisten jarduna «erresistentzia-estrategietatik» «oposizio-estrategietara» aldatzea ahalbidetu zuen²³⁵.

Langile mugimenduan lan-gatazka eredu berriari erantzuteko Langile Batzordeak (CCOO) eratu ziren, PCEko zein sindikalismo kristauko kideen eta militante independenteen eskutik. PCEk, isolamendua gainditzeko asmoz, CCOO mugimendu irekia eta zabala (eta aldi berean ilegala) bilaka zedin bultzatu zuen. Helburua, klandestinitatetik ateratzea, esparru publikora azalaztea eta sektore sozial berriak erakartzea zen. Horretarako, besteak beste, biltzar irekiak egitea eta Sindikatu Bertikalaren hauteskundeetan parte hartzea defendatu zuten PCEtik. Politika horren ondorioz,

233 Xavier Domenecha Sampere, *Cambio político ...* 139-141.

234 Emmanuel Rodríguez López, *Por qué fracasó...* 41-43.

235 Daniel Escribano Riera, Pau Casanellas Peñalver, «Gizarte-mobilizazioak eta frankismoaren hondar krisia. Euskal Herriaren ekarpena! *Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, 81 zbk. (2012), 19.

1966ko hauteskunde sindikaletan PCERI, CCOOri eta mugimendu kristauei lotutako hautagaitzek emaitza onak izan zituzten. Aldi berean, ikasle mugimenduan antzeko politika bultzatu zuen eta ikasle mugimenduaren lorpen handiak gertatu ziren. 1965an frankismoaren ikasle sindikatu korporatiboa SEU (Sindicato Español Universitario) deuseztatzea lortu zuten²³⁶.

Oposizioak diktadureraren aurkako borrokan urrats handia eman zuen: klandestinitate ilunetik atera, zenbait espazio bereganatu eta sektore berriekin kontaktuan jarri zen. Baina frankismoaren ustez gatazka eta mobilizazio horiek urrutiegi joan ziren. Mobilizazioak ugaltu ahala, Erregimena egoeraren kontrola berreskuratzen saiatu zen, eta beraz, 1967-1970 artean ziklo errepresibo berri bat ireki zuen. Epaitegiek CCOOak ilegal deklaratu zituen (ordura arte egoera alegal anbiguoan zeuden) eta salbuespen egoerak deklaratu zituen (1968an Meliton Manzanasen heriotzari erantzuteko, 1969an Enrique Ruanoren erailketaren aurkako mobilizazioak gelditzeko eta 1970ean Burgosko Epaietaren harira)²³⁷. Errepresioaren ondorioz, oposizioa eta langile mugimendua atzeraldian sartu ziren. Sindikatu Bertikalean aukeratutako oposizioko ordezkariak errepresioaren biktima izan ziren, Erregimenaren jo puntu erraz izan zirelako.

Lortutako mobilizazio arrakastatsuek eta Erregimenak emandako erantzun errepresibo gogorra oposizioaren zati batek diktaduraren krisi edo ahultasun zantzu modura irakurri zituen, berez benetan zena baino irudi ahulagoa zen arren. Baina, errepresioaren ondorioz, oposizioak atzera egin behar izan zuen. Egindako aurrerapausoen eta mobilizazio arrakastatsuen ondorioz, oposizioaren sektore bat erradikalizatu zen eta PCERI abagunea ez aprobetxatzea eta mobilizazioak ez azkartzea leporatu zioten. Era berean, oposizioaren atzeraldiaren arrazoiak PCERIren politika epel eta moderatuen ondorio zela defendatzen zuten. Ez zen kasualitatea izan; ezker iraultzailearen sorrera PCERIren taktikak kolokan jarri ziren momentuarekin bat egin zuen, ordura arte bultzatutako politikekiko kritika modura²³⁸.

Nafarroa Garaian, halaber, horri guztiari aurreko urteetan gertatutako industrializazio azkarra eta elkarte kristauen erradikalizazioa gehitu behar zaizkio. Mugimendu kristauek (Nafarroaren kasuan behintzat) garrantzia handia izan zuten, langileriarentzako formakuntza eta sozializazio esparru izan baitziren, eta hortik sortutako eztabaiden eta harremanen ondorioz eratu ziren ezker iraultzaileko alderdi nafar gehienak. Nafarroan presente egon ziren korrante iraultzaile nagusiak ORT, EMK, PTE, LKI, LC, OIC-EKE eta PCEml izan ziren. Jarraian, alderdi horien sorrera prozesuak eta beren errotzea laburbilduko ditugu.

236 Miguel Angel Ruiz Carnicer, *El Sindicato Español Universitario (SEU), 1939-1965, la socialización política de la juventud universitaria en el franquismo*, Siglo XXI, Madril, 1996.

237 Emmanuel Rodríguez López, *Por qué fracasó...*42-44

238 Ricard Martínez I Muntada, «Hacia La Liga. Orígenes De Una Organización Revolucionaria (1968-1970)», *La Otras protagonistas de la Transición*, ... 1047.

4.1 Talde Politikoak

Organización Revolucionaria de Trabajadores

Organización Revolucionaria de Trabajadores (ORT, Langileen Organizazio Iraultzailea) jatorri kristauko alderdi marxista-leninista-maoista izan zen²³⁹. Ezker iraultzaileko alderdirik nagusia izateaz gain, bere errotze goiztiarrari esker, Nafarroako oposizio antifrankistako eta langile mugimenduko alderdirik aktiboena eta dinamikoena izatea lortu zuen. Bere eragin gune garrantzitsuenak Iruñerria izan zen, baina Leitza, Vianan eta Erriberako landa-guneetan ere errotzea lortu zuen. Javier de Miguel Saenz lanei esker, Nafarroako ORTren intrahistoriaren nondik norakoak xehetasun handiz ezagutzen ditugu²⁴⁰.

AST: sindikalismo kristautik marxismora

ORT alderdiaren sorrera mugimendu kristauen erradikalizazioari hertsiki loturik egon zen. 1960 eta 1963 urteen artean, Madrilgo Vanguardiaseko kide batzuek, lan munduan zegoen egoera bidegabeari aurre egiteko sindikatu bat eratu zuten: Acción Sindical de Trabajadores (AST, Langileen Ekintza Sindikala). AST langile mugimenduan aritu zen hasieratik eta bertan PCE eta USOk kideekin harremana egin zuen. Sindikatuaren hastapenetan, bere zeregin nagusia Langile Batzordeak sortzea eta ASTrako kideak erakartzea izan zen²⁴¹. 1964tik aurrera, ASTk bere burua «sindikatu iraultzaile» modura izendatu zuen, bere xedea hobekuntza ekonomiko hutsak lortzea baino gizartean aldaketa sakonak lortzea zela erakusteko.

Sindikatuak izan zuen lehendabiziko eragin doktrinaletako bat ZYX argitaletxe kristauaren liburuena izan zen. Garai hartan argitaletxe hark alderdien aurkako jarrera eta kutsu sindikalista zeukaten liburuak argitaratu zituen, sarri anarkismoarengandik hurbil zeudenak. 1968tik aurrera, ordea, ASTn korrante marxisten oihartzuna nabaritzen hasi zen²⁴².

239 Organización Revolucionaria de Trabajadores (ORT) alderdiari erreferentzia egiteko gehienetan gaztelerazko siglak eta izenak erabiltzen ziren, idatziz zein ahozkoan, baita euskaraz ere. Esate baterako: “ORTek pentsatzen du (...) ORTek bere indar guziekin” (“Tolosako herriak Lascurain ikastola babestu behar du”, *Abenduak 11*, 51 zbk., 1977ko abenduaren 1tetik 7ra, 3). Noizean behin euskarazko izenen bat ere erabili zuten: Langile Organizazio Iraultzailea (LOI) edo Langile Organizazio Reboluzionarioa (LOR) baina erabat ezezagunak dira. Ohikoena ORT esatea zenez, lan honetarako ORT lehenestea erabaki da.

240 Javier de Miguel Saenz, *La Organización Revolucionaria de Trabajadores...* Javier de Miguel Saenz, «La ORT en Navarra...».

241 Javier de Miguel Saenz, *La Organización Revolucionaria de Trabajadores ...* 54.

242 *Ibid.* 45.

ASTk, teorian, ez zeukan Vanguardiasekin lotura organikorik, baina denbora tarte batez hainbat kidek militantzia bikoitza (VOn eta ASTn) mantendu zuten²⁴³. Hori zela eta, ASTk Vanguardiasen egitura estatala baliatu zuen sindikatua Madriletik kanpora zabaltzeko. 60ko hamarkadaren erdialdetik aurrera mugimendu kristauekin edo VOrekin harreman zuzenik ez zuen jendea ASTko militante bilakatzen hasi zen. 1967an gainera, Madrilgo ikasle talde batekin harremana estutzen hasi zen.

Nafarroako AST Madrilgo nukleo nagusiarekin batera jaiotzen zen. Orduan, Iruñeko langile mugimenduaren ernamuina Kale Nagusiaren Zentro Marianoaren inguruan elkartzen zen lagun talde baten inguruan zegoen eta gehienbat elkarte kristauen ingurukoa zen. Iruñeko lehendabiziko bileran Vanguardiaseko bost bat lagunek parte hartu zuten: bankako, Potasaseko meatzeko eta Super Serreko langileak ziren. Sindikatu eta langile erakunde bat sortzeko erabakia hartu zuten arren, asmoa horretan geratu zen, eta lehendabiziko hilabeteetan inolako aktibitate publikorik gabe geratu zen taldea, noizean behin Madrilgo zuzendaritzakoekin harremana mantentzen zuten bitartean. Bakoitzak bere lantegian egiten zuen lan pertsonalaz gain, taldetxo hura denbora batez inaktibo mantendu zen²⁴⁴.

Lehendabiziko urte hauetan, AST langileen sektore mehar batek baino ez zuen ezagutzen, langile mugimenduari edo elkarte apostoliko sekularrekin kontaktu zuzenean zeudenak besterik ez. Baina, laster ASTk, PCerekin batera, Iruñeko lantegietan Langile Batzordeak sortzeari ekin zion. Hazkundera, motela izanagatik ere, modu planifikatuan egin zen. Ondorioz, 1968tik aurrera AST Iruñeko lantegi garrantzitsuenetan presente egon zen, eta beraz, bere eragin esparrua biderkatu zen. Alabaina, hazkundera oso motela izan zen; sindikatua sortzerakoan, 1964 inguruan, 5 edo 6 bat kide ziren eta 1970ean, oraindik, 15 bat baino ez²⁴⁵. Nafarroan, AST VOren egituraren gainean eratu zen, baina 1970tik aurrera JOCeke kideetatik ere elikatu zen²⁴⁶.

Aurreko kapituluaren amaieran esan dugun bezala, ORTk Nafarroan lortu zuen errotze ahalmenaren eta nagusitasun politikoaren arrazoietako batzuk hastapeneko urte horietan daude. ASTk PCerekin batera Iruñeko Langile Batzordeen eraketan parte hartu zuen 1966-68 bitartean. Baina 1967ko udazkenean, PCEk manifestazio baterako deialdia egin zuen, estatu mailako deialdi bati jarraiki. Mobilizazio hark ez zuen ASTren kideen babesik jaso eta manifestazio horren ondorioz, PCEk Iruñean zuen kiderik ezagunena poliziak atxilotu zuen. Ondorioz, sarekadak PCeren hazkundera eta eragin esparruak errotik desartikulatu zituen eta CCOOak AST-ORTren

243 *Ibid.* 44.

244 *Ibid.* 53.

245 *Ibid.* 64.

246 *Ibid.* 55-56.

kontrolpean geratu ziren, inolako lehiakiderik gabe²⁴⁷. Bestalde, mugimendu apostoliko kristauen sarea baliatuz AST langile mugimenduan oso modu goiztiarrean txertatu zenez, lehentasun jarrera batean kokatu zen eta borrokarako prest leudeken nukleo aktiboenak beregana erakarri zituen. Behin espazio politiko hori eskuraturik, bere atzetik etorriko ziren beste alderdi iraultzaile ezkertiarrek zailago izanen zuten sektore horiengana hurbiltzea.

ASTtik ORTrako jauzia.

AST sindikatutik ORT alderdia eratzeko prozesua bi urtez luzatu zen, gutxi gora behera: 1969ko bukaeratik 1971eko udazkenera arte. Baina aldaketa hori ez zen modu errazean egin, ASTn jatorri ezberdineko eta eragin ideologiko ugariako militanteak elkartzen ari baitziren. Taldearen sortzaile gehienak jatorri kristauko militanteak ziren, baina beste batzuk ikasle mundutik zein langile mugimenduaren bidez sartu ziren. Bartzelonan, esaterako, VOk ez zuen apenas eraginik, eta ondorioz, ASTko kide katalan gehienak langile mugimendutik zetozen²⁴⁸. ASTn ideia marxistak, anarko-sindikalistak eta kristau-ezkertiarrak zeuzkaten kideak elkarrekin aritzen ziren, eta korronteen arteko elkarbizitza eta oreka sindikatuaren definizio ezari eta corpus teoriko lausoari esker mantentzen zen.

Langile mugimenduaren joera orokorra hazkorra izan zen bitartean, korronteen arteko elkarbizitza mantendu zen. Baina 1967 eta 1970 arteko olatu errepresiboaren ondorioz gauzak aldatzen hasi ziren. Urte haietan, Erregimen frankistak gogor erantzun zion azaleratzen hasia zen oposizio berriari: 1967an CCOOak ilegalak zirela deklaratu zuen, eta ikasle eta langileen mobilizazioei zein ETArekin lehendabiziko atentatu hilgarriari salbuespen egoeraren bidez erantzun zien. Langile mugimendu berriak kolpe latza pairatu zuen eta atzeraldian sartu zen. Testuinguru horretan, ASTren zuzendaritzaren zati batek langile mugimenduaren krisia sindikalismoak zituen mugen ondorio zela hausnartu zuen, eta abangoardiazko alderdi marxista-leninista baten falta salatu zuen, PCEk paper hori betetzen ez zuelakoan. Haien ustez, mugimenduak aurrera egingen bazuen alderdi marxista-leninista bat behar zen, eta ASTk alderdi bilakatu behar zuela erabaki zuten²⁴⁹.

Sindikatuaren barreneko bi korronte alderdi marxista bilakatzeko erabakiaren aurka azaldu ziren: bata Madrilan kokaturik zegoen eta zuzendaritzak «sindikalista-anarkista» izatea leporatzen

247 Javier de Miguel Saenz, *La Organización Revolucionaria ...* 67-68. ORT, *Historia del...* 29-30. Jose Vicente Iriarte Areso, *Movimiento obrero...* 67-68. Andres Herrera Feligreras, «De la celula al ...»

248 Iturri batzuen arabera, ASTko sektore horrek langile autonomiaren inguruko *Topo Obrero* taldean zuen jatorria. Abdon Mateos Lopez, «Mayo y la idea socialista autogestionaria en la España de los setenta» Abdon Mateos Lopez, Emanuele Treglia (Koord.), *Las convulsiones del 68...* 108.

249 «ORT al servicio del objetivo fundamental de la clase obrera: Dotarse de su partido», *En Lucha*, 7, 1972/VII, ORT, 2-6. Consuelo Laiz Castro, *La lucha final...* 60-63. Emanuele Treglia, «Izquierda comunista y cambio político. El caso de la ORT», *Ayer*, 92 zbk. (2013), 49.

zion; besteak, aldiz, Bartzelonako gehiengoa kontrolatzen zuten eta «troskizalea» izatea leporatzen zioten. ASTk bere barnean tentsio une larriak bizi izan zituen eta krisi labur bat pasatu behar izan zuen²⁵⁰. Baina azkenean, Madrilgo gutxiengoa eta Bartzelonako taldea kanporatu zituzten eta horrekin batera, ASTrekin harremanetan zegoen Madrilgo ikasle taldea erabat integratu zen; haien artean zen geroko idazkari nagusi izanen zen José Sanroma Aldea (Intxausti Kamarada)²⁵¹. Talde horrek bultzada erabakigarria eman zion alderdi marxista-leninista bilakatzerakoan.

Nafarroan prozesu honetan guztian ez zen inolako zatiketarik gertatu. Nafarroako ASTko kideetako batzuk harrezkero irakurketa marxistetan murgiltzen hasiak ziren eta Madrilgo zuzendaritza nagusiak marxismo-leninismorantz hurbiltzeko asmoa erakutsi zuenean, Iruñerriko militante gehienek kritikarik eta zatiketarik gabe onartu zuten²⁵². Madrilgo talde sindikalista-anarkistak, Iruñekoarekin kontaktua egiteko saiakera egin zuen, arrakasta handirik gabe²⁵³. 1970eko bukaeran Nafarroako zuzendaritza eratu zen, 3 kidez osaturikoa. Eraketa prozesua bukatutakoan ORT langile mugimenduan ongi errotuta zegoen eta militanteak zeuzkan Potasas de Navarra, Eaton Iberica, Authi, Super Ser, Imenasa eta Papelera de Navarra lantegietan zein bankako sektorean.

Alderdi sortu berriak Mao Zedong pentsamenduaren ildoko marxismo-leninismoa bereganatu zuen. Ordura arteko lausotasun ideologikoari esker, taldearen gehiengoak marxismoa erraz bereganatu zuen. Baina hasiera batean oso azaleko ezagutza izan zen, erabat formala; izan ere, bere burua alderdi politiko marxistatzat hartzen bazuen ere, ORTren eginkizun nagusia sindikala zelako oraindik. Iruñean, esate baterako, 1973ko ekaineko Motor Ibericako grebara arte, ez zuen inolako propaganda partidistarik edo agitazio ekintzarik egin eta Langile Batzordeak eratzean eta bere barrutik lan egitean zentratu zen.

Berezko programa politiko baten faltagatik, bestelako alderdi erradikalek erakunde «sindikalista» izatea leporatzen zioten. Haien ustez, izaera horrek Nafarroako langile mugimendua mugatu egiten zuen, langile klaseari borrokarako «perspektiba politiko orokorra» txertatzea oztopatzen zuelako²⁵⁴.

Eraketa prozesu hori, 1973 eta 1974 artean bukatu zen. ORTren lehen Komite Zentrala 1973ko amaieran eratu zen, eta hark *Informe ideológico y político* delako txostena argitaratu zuen, alderdiaren corpus ideologikoaren oinarri modura. Txosten hori 1974an zehar eztabaidatu eta

250 Javier de Miguel Saenz, *La Organización ...* 86-87. «1971-1972. «Dos años decisivos en la historia de la Organización Revolucionaria de Trabajadores», *En Lucha*, 5. zbk.ko gehigarria (1972/V), ORT <https://prensahistorica.mcu.es/>.

251 Javier de Miguel Saenz, *La Organización ...* 81-82.

252 *Ibid.* 85.

253 *Ibid.* 86.

254 *Ibid.* 99-101.

barneratu zuen alderdiaren gehiengoak, eta orduan bakarrik esan liteke ORT benetako alderdi politiko osatu gisa eratu zela²⁵⁵.

Kideak

Arestian esan bezala, Iruñeko AST 5 bat kidek sortu zuten eta hurrengo urteetan hazkunde motel baina jarraitua izan zuen ORTk. Baina 1971ko udaberrian, lan-gatazken joera gorakorren ondorioz Iruñerriko langile mugimenduak polizia operazio zabal bat jasan zuen: 2-3 egunetan 20 bat lagun atxilotu zituzten, CCOOetako kide izatea leporatuta. ORTk aurreko urteetan Nafarroako langile mugimenduan eta oposizio antifrankistan ospea eskuratu bazuen ere, kolpe errepresibo hark bete-betean jo zuen. ORTko militanteen erdiari erasan zien eta zuzendaritzaren parte bat harrapatu zuen. Atxilotuetako bosti (den-denak ORTkoak) kartzela zigorra ezarri zitzaizen²⁵⁶.

Errepresioaren ondorioz, 1971-1973 tartean hazkundera mantsotu egin zen. Sarekada baino lehen 15 bat militante baziren, 1973an oraindik 20 bat ziren, ordurako bere inguruan jarraitzaile sare zabala eratzen hasia zen arren. Hurrengo urteetan, horietako asko ORTn sartuko ziren eta militante ezagunak izanen ziren. 1972tik gainera «aurre-militatziarako» zenbait zelula eta ikas-talde eratu zituen, onartzeko bidean zeuden militanteen formakuntza maila hobetzeko²⁵⁷.

Atzeraldi fase labur baten ondoren, 1972ko irailetik aurrera, ORT eta MCE alderdiak elkarrekin Langile Batzordeak berregituratzen hasiko ziren. Bestalde, mantsotze egoerari buelta emateko, ORTko zuzendaritzak Madriletik Iruñera agintari koadro bat mugitu zuen, Pegasoko lantegitik kanporatutako Faustino Bosquet. Gazte honek epealdi honetan alderdiari norabide berri bat eman zion²⁵⁸.

ORTren garapen mailak jauzi bat eman zuen 1973ko udaberrian, Motor Iberica-ko grebaren harira. Ordurako 20 bat militante izanen ziren eta hiru industriagunetan antolatutako zelula bana zuen alderdiak. Bestalde, hainbat aurremilitantzia nukleo eratuta zituenez, eta auzo mugimenduan parte hartzen hasia zenez, hazkunderako bidea hartua zuen. Ekaineko greba orokorraren ondoren, alderdiaren eginkizunak kritika ugari izan zituen arren, ORTk ospe handia lortu zuen bertan izandako paper garrantzitsuagatik. Motor Ibericako greban lehendabiziko aldiz ORTk agitazio

255 Txosten horren idazketaren eta geroko barne eztabaidaren ondorioz eraturako programa politikoa *El Militante* aldizkariaren 6. alean (1974) argitaratu zen. Javier de Miguel Saenz, *La Organización ...*79. «1971-1972. «Dos años decisivos en la historia de la Organización Revolucionaria de Trabajadores», *En Lucha*, 5 zbk...

256 Javier de Miguel Saenz, *La Organización ...* 116-118. Sarekada hark oihartzun handia izan zuen gizartean, atxilotuak torturatu baitzituzten, eta apezpikuak kritika publikoak zituelako Aste Santuko predikuan. Jesus Equiza, *¿Política o profecía? El profetismo de la Iglesia navarra en los años 70*, Fundación para el desarrollo informativo navarro, Iruñea, 1983., 29-30.

257 Javier de Miguel Saenz, *La Organización ...*116-117.

258 *Ibid.* 119

publikoa eta CCOOren deialdiak jarraitzeko leloa zuten panfletoak zabaldu zituen. De Miguelen arabera, urte horietan gertatutakoa bereziki garrantzitsua izanen zen, 1975ko «leherketa organizatiboaren» oinarriak urte honetan ezarri ziren²⁵⁹.

Laster, ORTren hazkundera asko bizkortu zen. 1973ko udazkenean ETAREN VI. Biltzarrean jatorria zuen talde txiki bat, ETA Minos izenekoa, ORTn integratu zen. Iruñerrian ETA Minoseko kide gehienak JOC elkarte kristauaren inguruan elkartzen ziren eta bere elementu aktiboena PCEi-ko militante izandako Authiko langile bat zen²⁶⁰. ETA Minosetik zazpi militante sartuko ziren ORTra eta besteren bat LCrantz bideratuko zen. ETA Minosen sarrerak ORT gainerako euskal probintzietan sendotzen lagundu zuen²⁶¹. 1974tik, bestalde, Iruñerri-kanpora zabaltzen hasiko zen ORT, Leitzan esaterako: Tolosako ORT ETA VI.tik zetorren langile talde batekin kontaktuan jarri zen eta sei bat lagunek, gehienak Sarrio papertegiko langileak, ORTko zelula bat eratu zuten (haien artean, Amparo Arangoa 1976an tortura latzak sufritzeagatik ezaguna egiten zen emakumea)²⁶². Urte berean ORT bere ohiko sektoreetatik (langile industrialen testuingurukoak) kanpoko militanteak jasotzen hasi zen; lehendabiziko aldiz ikasleak eta maisuak sartzen hasi ziren.

Gainera, Erriberarantz ere zabaldu zen alderdia. ORTk hainbat apez aurrerakoirekin harreman onak zituenez, hainbat parroko gazte (Angel Oliver Valtieran, Javier Aiesa Ablitassen eta Antonio San Vicente Tuteran) alderdian sar zitezela lortu zuen²⁶³. Erriberako ezker erradikalaren erdigunea Tutera zen eta bertan EMK eta PTE ziren nagusi, baina horiek borroka nukleo urbano eta industrialagoak ziren. ORTk, ordea, landa munduan errotze ahalmen handiagoa lortu zuen, ziur aski apez bidez zabaldu zelako, eta ondorioz, herrietako izaera atzerakoi eta kontserbadoreagoarekin errazago egin zuen bat. Erretore gazte horien bidez ORTk Erriberako nekazarien borroka antolatzea eta dinamizatzea lortu zuen²⁶⁴.

Baina militantzia asko hazten ari bazen ere, 1974tik aurrera ORTk errepresioa sufritzen jarraitu zuen, izan ere, bere koadro eta kideetako asko (guztira 30 bat) lantegi oso borrokarietatik kanporatzen hasi ziren. Horrek, ORTk lantegi garrantzitsuenetan zeukan eragina mugatu zuen. Kide horietako askok, bestelako enpleguak bilatu behar izan zituzten (merkataritza, ostalaritza edo

259 Javier de Miguel Saenz, «La ORT...» 14.

260 Javier de Miguel Saenz, *La Organización* ...151-152. Solasaldi grabatu gabea: Benito Uterga. Iruñea, 2020/III/11.

261 Javier de Miguel Saenz, *La Organización* ... 153.

262 Javier de Miguel Saenz, *La Organización* ... 153. Urko Apaolaza Avila, «Anparo Arangoa. Behar ziren argazkiak», *Argia*, 2013/V/19, <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2369/anparo-arangoa> (2020ko irailean kontsultatua).

263 E7.1 eta E7.2 elkarrizketa: Angel Oliver Santos. Iruñea, 2018/XI/23a eta 2019/I. Edurne Yanizekin batera, Nafarroako Oroimen Historikoko Funtz Dokumentalean depositatua.

264 Javier de Miguel Saenz, *La Organización* ... 154. E17 elkarrizketa: Jesús Casajús Martínez. Iruñea, 2019/VIII/26. E10 elkarrizketa: Milagros Rubio Salvatierra. Tutera, 2019/III/5.

eraikuntza, esaterako)²⁶⁵. Alderdiak, bestalde, Espainiako beste lurralde batzuetara bidali zituen beste kide asko ORT indartzeko helburuarekin. Epe luzera, erabaki horrek ORTri kalte egingen zion, izan ere, bere eragin sindikala ahuldu zuen, eta bestalde, koadroak esportatu zituenez, balio handiko borrokalariak galdu zituen.

Militantziaren gorengo unea, hau da kide gehien izan zuen momentua, 1977ko hauteskundeetan inguruan izan zen. Guztira, 400 bat militante izanen zituen, eta bere gazteriak (UJM, Union de Juventudes Maoistas, Gazteria Maoisten Batasuna) eta jarraitzaile edo *sinpatizanteak* kontuan hartuta guztira 600 bat lagunekoa eragin esparrua izanen zuen²⁶⁶. ORTri loturiko Sindicato Unitarioak (SU), bestalde, 9.800 afiliatu izatera iritsi zen²⁶⁷.

Euskadiko Mugimendu Komunista

Euskadiko Mugimenduko Komunista izan zen Nafarroako oposizio antifrankistako eta langile mugimenduko alderdi garrantzitsuetako bat²⁶⁸. Oso ibilbide luzeko alderdia izan zen. 1966-67 inguruan sortu zen ETAREN zatiketa batetik, eta 1991ra arte iraun zuen. Baina nominalki urte hartan desagertu bazen ere, bere kideen zati mardul batek Batzarre alderdian politikoki aktibo jarraitzen du oraindik. EMK bereziki Iruñerrian eta Tuteran zegoen errotuta, baina Lizarran edo Lesakan ere presentzia izan zuen.

ETA Berritik MCEra

1960ko hamarkadan, ideia ezkertiarak ETAn txertatzen hasi ziren, bereziki 1962tik aurrera, langile mugimenduak egindako gorakadaren ondorioz eta Hirugarren Munduko herrialdeen nazio askapenerako borroken ereduaren eraginez²⁶⁹. Alabaina, abertzaletasunarekiko ikuskera berriak

265 Javier de Miguel Saenz, *La Organización s...* 162-163. Solasaldi grabatu gabea: Javier Urroz. Iruñean, 2018an.

266 *Ibid.* 201.

267 *Ibid.* 198.

268 EMK alderdiak bere ibilbidean zehar hainbat izen izan zituen. ETA erakunde armatutik bidali zituztenek lehendabizi ETA Berri izena hartu zuten, eta gero, Komunistak eta Movimiento Comunista Vasco erabili zituzten; harik eta talde hura Espainiako beste talde komunista batzuekin fusionatzerakoan Movimiento Comunista de España (MCE) hartu zuen arte. Gero, 1976an alderdian autodeterminazioarekin eta periferiako herrialdeen borrokarekin zuen sentsibilitatea erakusteko «España»-ren azkeneko E hura kendu egin zioten (MC) eta nazionalitate bakoitzeko federazioak tokiko izena hartu zuen (Movimient Comunista de Catalunya -MCC-, Movimient Comunista del Pais Valencià -MCPV-, Movimiento Comunista de Galiza -MCG- eta abar). Euskal Herrikoak Euskadiko Mugimendu Komunista hartu zuen (EMK). Alderdi honen izen ezagunena EMK izan zen, bai euskaraz bai eta gazteleraz ere. Beraz, alderdiari modu orokorrean erreferentzia egiten zaionean EMK izendapena erabiliko da, baina momentu konkreturen bati badagokio, berriz, aldiari aldikoa. Alderdi estatalari erreferentzia eginez gero, ordean MC edo MCE erabiliko dugu.

269 Ikus bedi 9.1. atala *Alderdi iraultzaileen ardatz kronologikoak*

agertzen ari baziren ere, iraganeko doktrinen arrastoek artean ETAREN sektore batzuetan irauten zuten, abertzaletasunaren eta ezkertiar korronteen arteko sintesia prozesu konplexua izan baitzen.

ETAREN IV. Biltzarraz geroztik, bi sektore edo korronteen arteko nolabaiteko oreka adostu zen. Baina, 1965eko irailean, ordea, oreka hautsi zen eta ETAREN Bulego Politikoa sektore ezkertiarren esku geratu zen. Sektore horren ordezkariak, Patxi (edo Pako) Iturriotz zen. Aldi berean, Gipuzkoako ikasle eta gazte talde bat (tartean Eugenio del Rio) sartu zen, ETAREN joera ezkertiarren aldekoa zelako eta Patxi Iturriotzekin harreman pertsonal eta politiko ona zeukalako. Ezkerrerantz egindako biraketa hura berehala nabaritu zuen ETAK, baina aldaketek hainbat sektorerengan asaldadura sortu zuten, V. Biltzarrerako deialdia egin zen 1966ko abenduan.

Biltzar hartan hiru sektore eratu ziren. Lehendabizikoa ETAREN Bulego Politikoaren kontrola zuen sektore ezkertiarra zen. Bere gizonik esanguratsuenak Patxi Iturriotz eta Eugenio del Rio ziren eta *obrerista* izendapena jaso zuen. Korronte horrek nazionalismo esentzialista eta «arrazismo sabindarra» atzean utzi nahi zituen. Horretaz gain (ETA oraindik heriotza atentaturik egin gabe bazegoen ere) borroka armatuaren erabilgarritasuna zalantza jartzen zuen eta aktibismo hutsa horrenbeste sarituko ez zuen ildo politiko landuago baten beharra defendatzen zuen, langile mugimenduan eta borroka sindikalean eragiteko ahalmena lortzeko asmoz²⁷⁰. Ildo politiko zehatzago baten bila zebiltzanez, Ezker Berriaren irakurketen eragina jaso zuten eta Andre Gorz eta Lelio Basso bezalako pentsalarien eragina izan zuten, garaian moderatuak kontsideratzen zirenak²⁷¹.

Beste korronteetako bat *tercermundista* (hau da, Hirugarren Munduko nazio askapenerako mugimenduen jarraitzailea) izenekoa izan zen; Federico Krutwig-ek, Etxebarrieta anaiek eta Jose Maria Eskubi *Brunok* zuzentzen zuten. Talde horrek Franz Fanon-en edo Mao Zedong-en irakurketen ondorioz, euskal nazioaren askapenaren ikuskera iraultzailea zuen eta borroka armatuaren balioa defendatzen zuen. Iturriotz eta Del Rioren sektoreari erreformista eta moderatuegia izatea leporatzen zioten, bereziki 1966ko Sindikatu Bertikaleko hauteskundeetan parte hartzearen aldeko proposamena egin izanagatik²⁷².

270 Patxi Iturriotz, «ETA en el año 1966. Divergencia internas que lleva a la aparición de ETA-Berri. Algunas aportaciones teórico-políticas a la causa revolucionaria vasca», Hainbat Egile, *Langileria marxismoa eta nazio arazoa Euskal Herrian*, "IPES" ikastaroak. Formazio koadernoak, I zbk. (1980) IPES, 3-9.

271 Francisco Letamendia Belzunce *Ortzi*, «La Construcción de una Alternativa revolucionaria: de la V Asamblea, ETA a KAS», Hainbat Egile, *Langileria marxismoa...* 10-11. Labur esanda, 60ko hamarkadaren bukaeran sozialdemokrazia erreformistaren eta komunismoaren artean kokatzen zen erdibideko korronte bat zegoen (André Gorz, Lelio Basso edo Gilles Martinet), «gradualismo iraultzailea» edo «erreforma iraultzaileak» proposatzen zituena eta bortxa bidez boterea eskuratzea baztertzen zuena. Espainiako FLPn eta Frantziako PSUen oihartzun handia izan zuen. Joaquín M. Valdibieso Navarro, «André Gorz, perfil político y filosófico de un intelectual disidente. in memoriam», *Revista internacional de filosofía política*, 30 zbk. (2007) 101-116. Jon Kortazar Bilelabeitia, *Euskadiko Mugimendu...* 1081-1082.

272 Francisco Letamendia Belzunce *Ortzi*, «La Construcción de una...» 10-11.

Bukatzeko, sektore *etnolinguista* zegoen, ETAko sortzaile izandako Jose Luis Alvarez Enparantza *Txilardegik* gidatutakoa eta *Branka* aldizkariaren bidez bere ideiak defendatzen zituen. Korrante honek obreristei erakundea desagerrarazteko eta abertzaletasunari kalte egiteko asmoz sartutako infiltrazio «espainolista, likidazionista eta *felipezalea*» izatea leporatzen zien²⁷³.

Egoera horretan V. Biltzarraren lehendabiziko zatian tercermundistek eta etnolinguistek bat egin zuten, Del Rio eta Iturriotzen jarraitzaileak kanporatzeko. Horretarako *Txatarra txostena* (*Análisis y crítica del españolismo social-chauvinista*) idatzi zuten, ETAren Bulego Politikoari korrante utopikoa, ukronikoa, anazionala, erreformista, antolakuntzaren aurkakoa eta bakezalea izatea leporatzen ziena²⁷⁴.

1966ean gertatutako kanporaketa hura izan zen ETAren baitan gertatu zen lehendabiziko zatiketa, eta aldi berean, EMKren iturburua. V. Biltzarraren lehendabiziko zatian gertatutakoa sarri asko sektore ezkertiar espainolisten eta abertzale erradikalen arteko talka modura irudikatu izan da, baina sinplifikazioez haratago, dinamika konplexu hori abertzaletasunaren eta ezkertiaratasunaren arteko sintesi prozesuaren testuinguruan kokatu behar da, bosgarren kapituluan xehetasun handiagoz azaltzen dena.

Bidalitako taldea hasiera batean jatorrizko erakundearekin lehiatu zen ETA izena eta *Zutik* aldizkaria zeinek gordeko zuen. Horregatik, hartu zuen ETA Berri izena; baina pixkanaka bere izaera ezkertiarrean sakondu zenez eta berehala abertzaletasunetik aldendu zenez, izena aldatu zuten: 1969ko abuztuan Komunistak-Movimiento Comunista Vasco izendatu zuen bere burua²⁷⁵. Kanporaketaren ondorioz, leninismoaren irakurketa zorrotza egin, eta langile borrokarako tresna izanen zen alderdi marxista-leninista bat eratzea defendatzen hasi ziren, eta alderdi hark izaera estatala izan behar zuela uste zuten. Ondorioz, 1970tik aurrera Espainiako estatuko beste alderdi eta elkarte batzuekin batzeko negoziazioak abiatu zituzten.

Lehendabiziko saiakera PCEml-rekin izan zen, 1964an PCErengandik zatitutako talde maoistarekin. Negoziazioa bide onetik zihoala zirudien arren, 1971 eta 1972 artean harremanak gaiztotu eta batasun prozesua trabatu egin zen. Azkenean, 1973an harremana erabat hautsi zen eta bi alderdiek elkarri kritikatzeko zizkioten dokumentuak kaleratu zituzten²⁷⁶. Bi talde hauen arteko

273 *Felipista* edo *felipezalea* hitza FLPko (Frente de Liberación Popular) kideak izendatzeko erabiltzen zen. Iturriotzen jarraitzaileetakoren bat FLP edo ESBAko (Esko Sozialisten Batasuna, FLPrene euskal adarra) izandakoa zela badirudien arren, ez bide zen benetako infiltrazio bat izan. Jose Luis Alvarez Enparantza *Txilardegi*, «*Testimonios personales de la crisis teórico política que motivó mi salida de ETA*» Hainbat Egile, *Langileria marxismoa...* 37-39.

274 Consuelo Laiz Castro, *La lucha final...* 42-44. Jon Kortazar Bilelabeitia, *Euskadiko Mugimendu...* 1084.

275 Francisco Letamendia Belzunce *Ortzi, Historia del ...* I tomoa, 303-310.

276 Partido Comunista de España (marxista-leninista), *Formas y variedades del revisionismo moderno en España: Komunistak (actualmente MCE)*, 1973, Documentación referida al Movimiento Comunista de España (MCE) 42/09099, 7, AGA. Movimiento Comunista de España, *Contra el oportunismo ultraizquierdista de los dirigentes del PCE(m-l)*, 1973.

batasunaren porrotak ez zuen jatorri doktrinal edo ideologikorik izan, biek ala biek ordurako beren burua maoistatzat baitzuten. Itxuraz, bi alderdiok oso izaera ezberdina zuten: PCEml zurrunagoa zen, eta ortodoxia estalinistari, Gerra Zibileko iraganari eta dogmatismoari askoz ere lotuago zegoen. Gainera, bere indarra atzerrian zegoen, errepublikano atzerriratuen eta espainiar emigranteen artean. MCEkoak aldiz, berritasunak erakartzen zituen, izpiritu errebeldeago batek mugiarazten zituelako, eta gainera, beraien indarra barnealdean zegoen²⁷⁷.

Laster, 1971ean Organización Comunista de Zaragoza-rekin (OCZ, Zaragozako Erakunde Komunista) batu zen. Hori izan zen erakundearen sorrera ofiziala. Orduetik aurrera izena aldatu, eta MCE (Movimiento Comunista de España) hartu baitzuen. Jarraian, Valentziar Herrialdeko, Madrilgo, Galiziako, Asturiaseko zein Mallorcako izaera lokaleko talde komunista txikiak alderdira batu ziren. Horrela, fusioen bidez, MCE izan zenaren oinarritzko hezurdura sortu zen²⁷⁸.

1976ko urtarrilean, alderdiak autodeterminazioarekin eta periferiako herrialdeen borrokarekin zuen sentsibilitatea erakusteko bere sigletako (MCE) azkeneko E hura, «España»-ri zegokiona, kendu zion (MC) eta nazionalitate bakoitzeko federazioak tokiko izena hartu zuen — Moviment Comunista de Catalunya (MCC), Moviment Comunista del País Valencià (MCPV), Movimento Comunista de Galiza (MCG) eta abar—. Euskal Herrikoak Euskadiko Mugimendu Komunista (EMK) izena hartu zuen²⁷⁹.

Ideologia eta ildo politikoak

MCEk, ezker erradikaleko talde gehienen hastapenetan bezala, ikasketa, formakuntza eta eztabaida epealdi bat izan zuen. Jakin-minak eta definizio ideologiko argi bat bilatzeko beharrak bultzatuta, alderdia eratu zuten kideek ezagutza egarri izugarria zuten. Alderdien norabidea edo ildo politikoa eskuetara ailegatzen zitzaizkien irakurketen arabera alda zitezkeen eta ondorioz, ordura arte defendatutako ideiak irakurketa berrien bidez kolokan jar zitezkeen. Eugenio del Rio berak garaiko pentsamendu korronteen eta irakurketen «erresonantzia kutzak» zirela dio²⁸⁰.

277 Javier Fernandez Rincon, «El Origen del Movimiento Comunista de España. Evolución, formación y extensión al ámbito estatal», *IX Encuentro de Investigadores del Franquismo de Granada*, 2016. Consuelo Laiz Castro, *La lucha...* 131. Labur esanda, PCEml maoismoaren lehendabiziko olatuaren neoestalinismoaren eraginpeko alderdia zen, Komunistak-MCE, aldiz, bigarren olatuko maoismo askatzaileago baten eraginpekoa zen. Ikus 4. ataleko maoismoari buruzko azalpenak.

278 «Nace el MC de Les Illes», *Servir al Pueblo*, 50 (1976/III/1), MC, 8. Javier Fernandez Rincon, «El Origen del Movimiento...».

279 Javier Fernandez Rincon, «La lucha por la democracia en clave antifascista. El Movimiento Comunista (MC) por la ruptura democrática (1975-1977)», Carlos Navajas Zubeldia, Diego Iturriaga Barco (Koord.), *El reinado de Juan Carlos I (1975-2014): actas VI Congreso Internacional de Historia de Nuestro Tiempo*, 2019, 135.

280 Eugenio del Rio Gabarain, *De la indignación...* 24.

ETA Berri/Komunistak taldean, bi eragin ideologiko jaso zituzten hasieran: bata iraultzaileagoa (Che Guevara, Louis Althusser, Lenin, Frantz Fanon, Mao Zedong edo Ernest Mandelen gisakoak); eta bestea, aldiz, Ezker Berria bezala ezagutzen zena (André Gorz, Serge Mallet, Lelio Basso edo estrukturalismo frantziarraren eraginekoak, besteak beste). Epealdi eklektiko hau 1967 eta 1970 artean luzatu zen, baina ordutik aurrera Ezker Berrikoak pixkanaka baztertu zituzten, erreformistak edo epelagoak zirelakoan²⁸¹.

Hasiera eklektikoa izan zen arren, laster Leninen eta Maoren idatziek taldean eragina sortu zuten. Leninismotik hartutako hainbat kontzeptu giltzarri erabili zituzten, hala nola: komunismora ailegatzeko proletariotzaren diktaduraren beharra, demokrazia burgesaren arbuioa, abangoardiazko zuzendaritzaren beharra eta antiinperialismoa. Maoismoari dagokionez, errebisionismoaren aurkako borroka, patriotismo antiperialista, —eta iraultza kulturalaren eraginez— masen ildoak, «erreboluzionarizazio ideologikoa», edota kritika eta autokritika bereganatu zituzten²⁸². Gainera, borroka antikolonialen eraginez, MCEk Espainia kolonialismo «yanki-frankistaren» menpeko herrialdea zela ondorioztatu zuen. Kolonia izaeraren ondorioz eta yanki-frankismoaren izaera diktatorialaren ondorioz, Espainia ezin erreforma zitekeela uste zuten, eta horregatik, hainbat urtez nolabaiteko nazionalismo espainol antiinperialista garatu zuten²⁸³.

Bestalde, alderdiaren izaera iraultzailea mantentzeko eta errebisionismoari aurre egiteko kezka handia zuen MCEk. Horretarako Txinako Iraultza Kulturallean inspiratutako teknikak erabiltzea defendatu zuten, masenganako hurbiltasuna, ideia burgesen aurkako lehia eta borroka ideologikoa erabiliz. Ideien autotransformazio horren bidez, pentsamendu burges eta indibidualistak (harropuzkeria, independentzia indibiduala, masen gaineko gutxiespena, berekoikeria, metafisika, idealismoa, ...) alderdian eta masengan sar ez zitezen saiatu behar zen²⁸⁴.

Epealdi honetan, laburra izangatik ere (c. 1970-1974), maoismoak alderdiaren izaera sakonki markatu zuen. Ordutik aurrera eta lehendabiziko hauteskunde demokratikoetara arte (c. 1974-77), Mao Zedong Pentsamenduaren eragina leundu edo arindu zen eta martxan zegoen Trantsizio prozesura moldatzeko epealdi posibilista eta pragmatikoagoa iragan zuen MCEk, baina hala ere, alderdi hori *txinotzat* identifikatzen jarraitu zuten ondorengo urteetan. 1978ko II. Kongresuan, esaterako, oraindik «erakunde marxista-leninista, Mao Zedong pentsamenduaren

281 Javier Fernandez Rincon, «El Origen del Movimiento...». Eugenio del Rio Gabarain, *De la indignación...* 25. Consuelo Laiz Castro, *La lucha...* 44-45.

282 Gazteleraizko dokumentu originaletan *Revolucionarización ideológica*. «Un año después de la resolución sobre el estudio y la aplicación creadora del pensamiento maotsetung (sic)», *Servir al pueblo*, 4 (1972/V), MCE, 3-4. Consuelo Laiz Castro, *La lucha final ...* 140-143.

283 Movimiento Comunista de España, *Línea Política I Ideológica, aprobada al 1º Congreso del MCE*, c.1976. Consuelo Laiz Castro, *La lucha final ...* 137-140.

284 Un camarada aragonés, «Tenemos que llevar nuestra política a las masas», *Servir al Pueblo*, 21 zbk. (1973/XI), MCE, 3-5. «Crítica y autocrítica», *Servir al Pueblo*, 7 (1972/VIII), MCE, 8-11.

ekarpenek aberastua» izendatu zuen bere burua, eta definizio horrek 1983ko Kongresura arte indarrean jarraitu zuen²⁸⁵.

EMK Nafarroan: ezarpena eta kideak

ETAtik 1966an kanporatutako talde hura gipuzkoarrez —eta bizkaitarren batez—osatuta zegoen batez ere. Baina, hilabete batzuk beranduago, 1968ko salbuespen egoerak sortutako olatu errepresiboaren ondorioz, ETA Berri/Komunistak-eko hainbat kide *errek* Gipuzkoa utzi behar izan zuten²⁸⁶. Dirudienez, Iruñeko Komunistak-eko lehendabiziko militanteak Gipuzkoatik ihesean alde egindako militante *erreak* izan ziren. De Miguelek Potasaseko langileen artean Komunistak-MCEko lehendabiziko militanteetako bat egon zela esaten du, handik denbora gutxira kaleratu zutena²⁸⁷.

Bien bitartean, Iruñeko apaiztegitik ateratako hainbat lagunek 1968 eta 1969 tartean ETA Berrirekin kontaktua lortu zuten atzerrian. Militante gazte horiek guztiek apaiztegian elkar ezagutu zuten, eta hango giro errebelde eta borrokalariaren ondorioz hartu zuten kontzientzia politiko eta soziala. Hierarkia eklesiastikoak Jesus Lezaun errektorea kaleratu zuenean, seminarioa hainbat hilabetez itxi behar izan zuten. Han ikasten ari ziren apezgaiek ikasketak bukatu gabe zituztenez, atzerrira beste ikastetxe katoliko batzuetara joan behar izan zuten ikasketak bukatzera, batzuek Parisera eta beste batzuek Lovainara (Belgika). Lagun talde hartan besteak beste ondorengo urteetan EMKko eta Batzarreko zuzendaritzako kide izanen ziren lagunak zeuden: Jesus Urria, Manuel Burgete (Nafarroako CCOOren idazkari nagusi 1977-1979 artean), Victor Oroz eta besteren bat²⁸⁸. Bai Parisen, baita Lovainan ere salbuespen egoerarengatik ihes egindako ETA Berri/Komunistak taldeko hainbat militantereekin elkartu ziren; Lovainara joan zirenek, esaterako, Arrasateko Barrutia anaiekin bat egin zuten²⁸⁹. Hainbat hilabete beranduago, batzuetan ikasketak bukatzeko denborarik eman gabe, apezgai horiek Iruñera itzuli ziren, eta ordurako Iruñean lanean ari ziren militante gipuzkoarrekin kontaktua egiten saiatu ziren. Baina dirudienez, klandestinitatearen zailtasunak zirela medio, lotura ez zen berehalakoan egin: hiruzpalau saiakera egin zituzten arren, hainbatetan kontaktua eten zen eta. Kontaktuen artean, lehendabizikoa

285 Javier Fernandez Rincon, «Cambio de rumbo en la Transición. Claves para entender el desarrollo del Movimiento Comunsita (MC), 1977-1980», Fundación Salvador Seguí-Madrid (Koord.), *Las otras protagonistas de la Transición...* 1112. MC, *Una izquierda para la Revolución. IV Congreso Federal*, 1983, DPP (MC). 2/2 (C1), BPR.

286 Hizkera militantean norbait *erreta* edo *kiskalita* egoteak indar errepresiboengandik fitxatua eta kontrolatuegia egotea esan nahi zuen. Egoera horrek zekarzkien oztopoen ondorioz, militantziaren zeregina zaildu egiten zen. *Erretako* edo *kiskalitako* kideak beste lurralde edo hirietara lekualdatzea ohikoa zen, poliziaren kontrolari alde egiteko, anonimotasuna berreskuratzen baitzuten, eta alderdiaren errotzea zabaltzeko.

287 Javier de Miguel Saenz, *La Organización ...* 38, 63 eta 119.

288 E5 elkarrizketa: Jesus Urria Bidaurre. Iruñea, 2018/X/30. Solasaldi grabatu gabea: A. G. Iruñea, 2019/IX/26. Solasaldi grabatu gabea: Manuel Burguete. Barañain, 2019/X/7.

289 *Ibid.*

Penibericako langile bat izan omen zen, seminarista izandakoa, eta geroagokoen artean senar-emazte gipuzkoar batzuk egon ziren²⁹⁰. Edonola ere, gutxi gora behera 1971 eta 1972 inguruan egonkortu zen alderdia Iruñean, apezgai izandako talde horren sarrerarekin eta langile mugimenduan txertatzearekin batera. 1972ko irailean MCEk, ORTrekin batera CCOOren berreraiketan eta berrantolaketan parte hartu zuen. Ordurako, MCE Iruñean ongi errotuta zegoen, Langile Batzordeetako bultzatzaile garrantzitsuenetako bat zen eta hiru lantegi garrantzitsuetan militante esanguratsuak eta ongi kokatuak zeuzkan²⁹¹.

Iruñerriaz aparte, beste eskualde batzuetan ere presentzia nabarmena lortu zuen MCEk. Lizarran esaterako, Bilbon ikasten ari ziren hainbat estudiante lizarratarrek eraman zuten alderdia, 1971 edo 1972 inguruan. Hiri horretan auzo mugimenduan izan zen EMKren eragin esparru nagusia, eta bertan oso paper garrantzitsua bete zuen. Langile mugimenduan, bestalde, eragin apalagoa zeukan hango lantegietan (Agni, Salvat, Renolit, ...) LC alderdi troskistak eragin handiagoa baitzeukan²⁹².

Tuteran, aldiz, ezartzea lortu zuen lehendabiziko alderdi erradikala izan zen; ondorioz, hiriko langile mugimenduaren eta oposizio antifrankistaren nagusigoa lortu zuen. Martin Landa apezgai izandakoak, 1973an ibilbide erlijiosoa alde batera utzi eta SKF lantegian sartzea lortu zue: laster, beste hiru kiderekin batera Tuterako lehendabiziko Langile Batzordea sortu zuten²⁹³. Jarraian beste bi lantegitan: Piher-en eta Sanyo-n beste batzorde bana egitea lortu zuten. Handik gutxira, Iruñeko EMKkoek Tuterako mugimenduen berri izan zuten eta Martin Landa alderdian sar zedin konbentzitu zuten²⁹⁴. EMKk Irunberrin, Lesakan edo Tafallan ere presentzia lortu zuen, baina maila txikiago batean. Lesakan, gainera, Iruñeko zuzendaritza probintzialarekin baino, ohikoagoa zen Gipuzkoakoekin erlazionatzea²⁹⁵.

Nafarroan ezarri zenetik EMKren hazkundea jarraitua izan zen. Jesus Urraren arabera, 1977ra arte urtez urte bikoiztu egiten zen alderdiaren kide kopurua eta 1977ko hauteskundeetarako EMKk guztira 120 edo 140 bat militante zeuzkan, 70 edo 80 *adherente* (atxikimendu adierazle) eta

290 E5 elkarrizketa: Jesus Urria Bidaurre. Iruñea, 2018/X/30.

291 Javier de Miguel Saenz, *La Organización* ... 119.

292 Solasaldi grabatu gabea: A. G. Iruñea, 2019/IX/26.

293 Martin Landa Marco tuterarra Iruñeko seminariara joan zen teologia ikasketak egitera. 1971an CCOOen aurkako sarekadan poliziak atxilotu eta torturatu zuen. Ibilbide erlijiosoa utzi eta gero, Tuterako CCOOen sorrera bultzatu zuen 1973an, eta handik gutxira, EMK alderdian sartu zen. Bera izan zen EMK Erriberan ezarri zuenetako bat. EMK 80ko hamarkadaren hasieran utzi zuen eta gero Auzolan koalizioan eta IUN-NEBen parte hartu zuen. Azken honekin bi legealditan foru parlamentaria izan zen (1991-1999), baina 1997an koalizio ezkertiar hura utzi zuen Partido Democrático de Nueva Izquierda (PDNI) alderdiaren sorreran bultzatzeko.

294 E16 elkarrizketa: Martin Landa Marco. Tuter, 2019/VIII/23. Iñigo Perez Ochoa, «Oposición al franquismo...», 28-29.

295 E5 elkarrizketa: Jesus Urria Bidaurre. Iruñea, 2018/X/30.

400 bat *simpatizante* (jarraitzaile)²⁹⁶. Bere gazteriek, gainera, (Euskadiko Gaztedi Gorria, EGG) Nafarroa osoko 75 bat gazte antolatu zituzten²⁹⁷. Tuteran 70-80 pertsonaren gaineko eragina zuten: 30 militante, 30 *adherente*, eta gazterietako beste 20 bat²⁹⁸. Lizarran aldiz, 8-10 kide eta 20 edo 25 *adherente* ziren²⁹⁹. Orokorrean EMK, beste alderdi batzuen aldean, txikiagoa zen eta kidego urriagoa zeukan (konparaziora PTEk 200 bat militante omen zituen, eta ORTk 400 eta eragin esparru oso zabala), baina oso modu arrakastatsuan lortzen zuen kolaboratzaile eta jarraitzaileen bidez bere inguruan eragitea, zeharkako modu *ezkutuagoan*.

Partido del Trabajo de España

Espainiako Lanaren Alderdiaren (PTE) jatorri nagusia Partido Comunista de España (internacional) —PCEi, Espainiako Alderdi Komunista (internazionala)— izeneko alderdian egon zen, PSUCen (PCEren Kataluniako alderdi anaitua) zatiketa batetik sortutakoa³⁰⁰. Baina Nafarroan, PCEi-z gain, beste adar batek ere eragina izan zuen: Tuterako Larga Marcha Hacia la Revolución Socialista (Martxa Luzea Iraultza Sozialistarantz). PTE Espainiako ezker erradikaleko alderdi handiena izan zen, baina Hego Euskal Herrian beste alderdi batzuek baino oihartzun txikiagoa lortu zuten; izan ere, bere eragin gune nagusiak Katalunia eta Andaluziako hiriak eta landa-guneak izan ziren.

Sorrera eta garapena: Zatiketa ultraezkertiarretik politika unitariora

1960ko hamarkadan borroka antifrankistan gertatutako aurrerapauso garrantzitsuak (mobilizazioen ugaritzea, parte hartzaileen hazkundera, borrokalari berrien agerpena...) euforiaz eta optimismoz hartu zituzten PSUCeko Bartzelonako ikasle-militantziaren sektore batek eta zenbait langile gazteek: masen mobilizazioek frankismoa epe hurbilean eraitsi zezaketela uste zuten. Alderdiaren sektore horrek erradikalizazio prozesu bat bizi izan zuen, eta laster, PCEren joera politiko moderatuekiko desadostasuna erakusten hasi ziren. Frankismoaren aurkako mobilizazioen abiada bizkortu behar zela uste zuten eta PCEk frankismoko elementu «eboluzionistei» eskaintzen

296 Ezker erradikaleko alderdien artean normalean militanteak eta *simpatizanteak* zeuden. Lehendabizikoak, alderdiko kide beteak ziren, eskubide eta betebeharrak guztiak zituztenak. Sinpatizanteak, aldiz, kideak ez ziren baina noizean behin laguntza ematen zuten pertsonak ziren. MCE-k ordea, bien arteko erdibideko maila bat zeukan *adherentek*, alderdiaren parte ziren baina militanteek baino konpromiso maila baxuagoa zuten. Fernando Ruiz, Joaquin Romero (ed.), *Los partidos marxistas...* 206-207. E5 elkarriketa: Jesus Urra Bidaurre. Iruñea, 2018/X/30.

297 Solasaldi grabatu gabea: Tere Saez Barrao. Atarrabia, 2020/I/26.

298 E16 elkarriketa: Martin Landa Marco. Tuteran, 2019/VIII/23.

299 Solasaldi grabatu gabea: A. G. Iruñea, 2019/IX/26.

300 Ikus bedi 9.1. atala *Alderdi iraultzaileen ardatz kronologikoak*.

zien akordioa kritikatzan zuten³⁰¹. Talde horren lider argiena Manuel Valverde *Migel* (edo *Andres*) zen eta 1966-67an alderditik zatitzea erabaki zuten. Baina, bere hasiera oso ezegonkorra izan zen eta sarekadek eta zatiketek (1968an Bandera Roja sortu zuena esaterako) maiz kolpatu zuten eta bere hazkunde potentziala laster moztu zen. 1969 eta 1971 artean Kataluniatik atera eta Espainiako beste toki batzuetara zabaldu zen, bereziki Bartzelonan ikasten ari ziren ikasleen etxeratzearen bidez eta militanteen lekualdatzearen bidez. Hala bada, PCEi-k Sevillan ezartzea lortu zuen eta ondorengo urteetako zuzendaritzan garrantzia izan zuten kideen sarrera ahalbidetu zuen³⁰².

Alderdiari ildo ideologiko eta politiko koherentea hartzea kostatu zitzaion. Hasieran, Ezker Berriko influentziak izan zituen (Gorz eta castrismoa, besteak beste) eta elementu *claudinistak* erakartzea ere lortu zuen. Baina laster, 1968tik aurrera, marxismo-leninismorantz eta maoismorantz lerratu zen. 1972ra arte muturreko politika erradikala jarri zuen martxan, eta ondorioz, ezkerkeria leporatu zitzaion. Besteak beste, frankismoarekin bukatzeko estrategia insurrekzionala defendatzen zuen (borroka armatua martxan jartzeko saiakerak egiteraino); eta gainera, Langile Batzordeak erreformistegiak zirelakoan haiei kritika gogorrak egin zizkieten. Ondorioz, beste batzorde paralelo batzuk (COR, Comisiones Obreras Revolucionarias, Langile Batzorde Iraultzaileak) sustatu zituen 1968 eta 1972 artean³⁰³.

1970eko ekaineko sarekada baten ondorioz, ordura arteko agintari nagusi Manuel Valverde, espetxeratu zuten eta belaunaldi berri batek alderdiaren zuzendaritza eskuratu zuen, Eladio Garcia Castro (*Ramon Lobato*) sevillarraren gidaritzapean³⁰⁴. Ordutik aurrera, alderdia berrantolaketa sakona egitera beharturik geratu zen. Zuzendaritza berriak alderdiak aurreko urteetan mantendutako erradikalismoari kritika egin zion, erradikalismoak eta purutasuna mantentzeko nahiak masa borrokengandik urrunduta kokatu zutelakoan. Baina horri norabide berri bat eman nahi zitzaion, eta beraz, borroka horietan esku hartzeko moduak bilatu zituzten. Hainbat bilera eta konferentzien bidez ildo politiko berria zehaztu zen, eta militantzia horren inguruan kohesionatu zen. Prozesu hura 1973ko apirilean bukatu zen, Madrilgo txalet batean PCEi-ren Kongresu Eratzailea egin zenean³⁰⁵.

Ordurako, alderdiak ultraezkerkerian, insurrekzionalismoan eta borroka armatuan oinarritutako diskurtsoa atzean utzi, eta masen borrokei lotuago zegoen ildo unitarioago batek ordezkatu zuen. Espainia herrialde industrial garatua zela ondorioztatu zuten eta beraz, gizarteak ezaugarri feudal edo aurrekapitalistarik mantentzen zuela ukatu zen. Gainera, Espainia kolonia

301 Jose Luis Martin Ramos, «Los origenes de u... 19-30.

302 Jose Luis Martin Ramos, «Los origenes...» 36-38. Consuelo Laiz Castro, *La lucha final...* 79-82.

303 Jose Luis Martin Ramos, «Los origenes...» 47-48.

304 *Ibid.* 65-71.

305 Manuel Gracia Luño, «La refundación del partido: estrategia, táctica y línea de masas», Jose Luis Martin Ramos, *Pan, trabajo...* 73-102.

amerikarra zenik ukatzen zen, kapital estatubatuarrek zenbait sektoretan eragina zuen arren, ezin zitekeen esan oligarkia espainiarra «yankien kudeatzaile» hutsa zenik. Ondorioz, Espainiako gizartearen kontraesanak burgesia eta proletariotzaren artekoak ziren, eta Espainiari zegokion iraultza epe sozialistakoa zen eta ez demokratiko-herrikoa³⁰⁶. Hala ere, frankismoaren aurkako borrokan «herri guztia» batu behar zela defendatzen zuten, eta beraz, Fronte Popularren moduko aliantza unitarioak egin behar zirela uste zuten.³⁰⁷ Irakurketa insurrekzionalak atzean utzi baziren ere, iraultzarako indarkeria erabili beharko zela uste zuten, baina aldi berean «burges txikitzat» zuten terrorismoa kritikatu zuten. Kongresuan, bestalde, hurrengo urteetako lider ezagunena izanzen zen Eladio Garcia Castro Idazkari Nagusi izendatu zuten. Kongresu Eratzaile horretan onartutako ildo politiko nagusiak Komite Zentralaren III. Osoko Bileran (1974ko apirilean) eta 1975eko I. Konferentzian osatu ziren. Alderdi txinazalea (maoista) zela esaten jarraitu zuten arren, Whilhelmiren arabera, funtsean alderdi marxista-leninista eta estalinista zen, maoismorako atxikipena PCEtik ezberdintzeko izan tresna baitzen³⁰⁸.

Kongresu Eratzaileaz geroztik, borroka antifrankista unitarioa bultzatzea defendatu zuten, eta hori bereziki bi arlotan nabaritu zen: langile mugimenduan eta oposizioko elkarte unitarioetan. Alde batetik, bere militanteek COR Langile Batzorde Iraultzaile sektarioak baztertu zituzten eta CCOOetan sartu ziren bete-betean (Kongresua bera baino lehenagotik ere, 1972 inguruan)³⁰⁹. Helburua langile mugimenduaren batasun politikoa indartzea eta PCEn CCOOen gidaritzaren lehiaztea zen. PCEi-ren ustetan, 1973ko ekaineko Iruñeko greba orokorrak ildo berriaren zuzentasuna erakutsi zuen³¹⁰. Bestetik, politika unitario berriari jarraiki Kataluniako oposizioko erakundeetan sartzeko eskaera egin zuten *Comissió Coodinadora de Forces Polítiques de Catalunya*-n (CCFPC, Kataluniako Indar Politikoen Batzorde Koordinatzailea) eta ondotik *Assemblea de Catalunya*-n (AC, Kataluniako Biltzarra). Lehenengoan sartzeari lortu ez zuen arren, ACn onartu egin zuten. 1974an, bestalde, PCEk zuzendutako Junta Demokratikoa (JDE, Junta Democrática de España) aurkeztu zen. Hasiara batean, PCEi-k oso gogorri kritikatu zuen, oposizioko elkarte unitario horren sorrera ezkutuan eta gainerako indar demokratikoei galdetu gabe eratu zelako, autodeterminazio eskubidea ukatzen zuelako eta oligarkiari —frankismoarengandik urruntzekotan—paktu bat egiteko eskua luzatzen omen ziolako. Baina kritika gogor horiek 1974ko udazkenean eten egin ziren, eta

306 *Ibid.* 79-80.

307 PCEi, *Congreso de Constitución. Resoluciones sobre la línea política*. Partido Comunista de España (internacional). 1973/III, <https://archivodelatransicion.es/>. Manuel Gracia Luño, «La refundación...» 88-102.

308 Gonzalo Whilhemi, *Romper...* 99. Antzeko iritzia jaso du Laizek: Consuelo Laiz Castro, *La lucha...* 123.

309 Manuel Gracia Luño, «La refundación...» 86-97

310 Manuel Gracia Luño, «La refundación...» 102-107. «Huelga General en Pamplona», *Mundo Obrero Rojo*, ale berezia, 1973/V/1973, PCEi, <https://archivodelatransicion.es/> . «Pamplona», *Mundo Obrero Rojo*, 5 zbk. 1973/VIII/1, PCEi, 4-6, <https://archivodelatransicion.es/> .

organismo horrekiko iritzia leundu zen³¹¹. Azkenean, 1975ko martxoan egindako Koadroen I. Konferentzian PCEi-k bi erabaki garrantzitsu hartu zituen: alde batetik JDEn sarrera eskaera egitea erabaki zuen (urte bereko apirilean onartu zuten), eta bestetik, izena aldatu zuen. Orduetik aurrera Partido del Trabajo de España (PTE, Espainiako Lanaren Alderdia) izanen zen³¹².

1976tik aurrera, Partido Comunista de Unificación (PCU, Batasunerako Alderdi Komunista) alderdia txikiarekin elkarlan prozesua abiatu zuen, eta handik gutxira, 1977ko hasieran, bi alderdiak batu egin ziren³¹³.

Kideak eta errotzea Nafarroan

PTEk Nafarroan bereziki bi indargune zituen, Iruñea eta Tuteran, baina bi hiri horietan ibilbide ezberdinen bidez ezarri zen, bi alderdi ezberdinetan izan baitzuen jatorria alderdiak. Iruñearen kasuan, PCEi 60ko hamarkadako azken urtetan bi bide ezberdinen bidez ezarri zen. Alde batetik, Malagan ikasten ari ziren bi ikasle nafar (Jose Luis Muruzabal eta Juan Manuel Sarasibar) PCEi-n sartu ziren. Muruzabal bera poliziak atxilotu zuen eta espetxealdi labur bat pasa behar izan zuen. Espetxetik ateratzerakoan, alderdiak zabalkunde lanak egitera bidali zituen: Sarasibar, Iruñera eta Muruzabal, Galiziara³¹⁴. Oso maiz, ezker iraultzailean militatzen hasteko urratsa ez zen hausnarketa politiko sakonen bidez egiten, harreman sareen eta kontaktu informalen bidez baizik. Bi militante gazte horiek seminariotik pasatutakoak zirenez, beren seminarioko adiskideekin kontaktuan jarri eta alderdira sar zitezen konbentzitu zituzten, besteak beste, Jose Mari Compains eta Pablo Ibañez³¹⁵. Bestaldetik, modu paraleloan PCEi-ko beste talde bat eratu zen Iruñean. Beste talde hura ere kanpoan ikasten aritutako estudianteen bidez eratu zen, baina kontaktua Malagatik baino Bartzelonaren bidez egin zen. Talde hura laster hazi zen eta Authin ezartzea lortu zuen 60ko hamarkadaren bukaeran³¹⁶.

311 Manuel Gracia Luño, «La refundación...», 134-141. Marta Campoy Fernandez, «El PTE en la Transición: la ilusión por la ruptura (1975-1977)», Jose Luis Martin Ramos (koord.) *Pan, trabajo...* 191-194. «Acerca de la llamada Junta Democrática de España. ¡Podemos vencer! No supliquemos a los monopolios una democracia recortada y sin garantías, *Mundo Obrero Rojo*, 23 zbk., 1974/VIII/15, PCEi, 1-4, <https://archivodelatransicion.es/> .

312 Manuel Gracia Luño, «La refundación...» 139-141. Marta Campoy Fernandez, «El PTE en...» 166.

313 Marta Campoy Fernandez, «El PTE en...», 250-251. Ramon Franquesa i Artes, «Estabilización del nuevo régimen y autodisolución (1977-1980)» Jose Luis Martin Ramos (Koord.), *Pan, trabajo...* 270.

314 Muruzabal Galiziako sindikalismoko eta ezker politiko-sozialeko erreferenteetako bat izan zen. 2013an zendu zen eta hango prentsak gizarteak zion mirespena islatu zuen, bere ospearean adierazgarri. G.L. «Jose Luis Muruzabal, el sindicalista que resucitó el movimiento obrero en Galicia», *La Voz de Galicia*, 2013/VII/17, <https://labur.eus/tZevB> (2020ko irailean kontsultatua). «Morre o histórico sindicalista Xose Luis Muruzabal», *Nos Diario*, 2013/VII/17, <https://labur.eus/GeaRR> (2020ko irailean kontsultatua).

315E11 elkarrizketa: Pablo Ibañez eta Isabel Noguera. Iruñea, 2019/III/11. Jose Mari Compains abokatua hainbat urte beranduago Donibane kirol elkarteko presidentea eta ezker abertzaleko kidea izanen zen. Pablo Ibañez ere ibilbide profesional luzeko abokatua izanen zen.

316 Javier de Miguel Saenz, *La Organización ...* 38.

Ikusi dugun bezala, hasierako urteetan PCEi-ko kideek CCOOren aurkako kritika gogorrak egin zituzten, eta horregatik ez zuten Langile Batzordeetan parte hartzen. 1969an, esaterako, PCEi-ko kide batek Authin CCOOko batzorde bat eratzea erabaki zuen, eta horregatik, militante hura kanporatu zuten. Baina, esan bezala, 1972tik aurrera alderdia goitik behera berrantolatu zen eta ia erabat birfundatu zen. Orduetik aurrera, norabide politikoaren aldaketaren ondorioz, Langile Batzordeetan parte hartzera itzuli ziren PCEi-koak³¹⁷. Urte luzetan, Authi PCEi-ren harribitxia izan zen, Iruñeko lantegi handienetakoa baitzen eta han militante talde ederra zutelako. Hasierako talde txiki horiek pixkanaka zabaldu ziren eta gero eta lantegi gehiagotan ezarri zen PCEi (Potasas, Perfil en Frío, Super Ser). Elizari lotutako gazte klubetatik ere militanteak jaso zituen, Arrotxapea auzoko Errotazar taldekoak esaterako. 1973 edo 1974 inguruan alderdia egonkortu zen eta bere ingurunean eragin politikoa izaten hasi zen³¹⁸.

Bestalde, oposizio antifrankistako indarren arteko politika unitariori jarraiki, PCEi Kataluniako AC eta JDEren antzerako biltzar demokratikoak eratzen saiatu zen Euskal Herrian. Nafarroan 1974ko abuztuan, Nafarroako Biltzar Demokratikoa (Asamblea Democrática de Navarra, ADN) bultzatu zuen PCEekin eta Alderdi Karlistarekin batera, eta pixka bat beranduago, Euskadiko Biltzar Demokratikoa (Asamblea Democrática de Euskadi, ADE) ere eratu zuten. Biltzarrok, baina, ez zuten arrakasta handirik izan, Katalunian ez bezala, ez zutelako lortu unitarioak izan zitezten.

Tuteran, bestalde, PCEi ez zen izan PTEren bultzatzailea, Larga Marcha Hacia la Revolución Socialista (Martxa Luzea Iraultza Sozialistarantz) taldea baizik. Izaera maoistako talde honek Zaragozako ikasle mugimenduan izan zuen jatorria, eta Aragoiko Entziklopediaren arabera, aurrekariak 1970 inguruan izan zituen, 1973ra arte formalki sortu ez zen arren³¹⁹. Zaragozako Unibertsitatean aritzen ziren hainbat ikasle tuterar bertan militatzen hasi ziren. Handik gutxira, Perez Otxoaren arabera 1973 edo 1974 aldera, berehala alderdia Tuteran ezarri zen³²⁰. Zuzenbide ikasle ohi batzuek abokatu laboralisten bulego bat muntatu zuten, eta horren bidez, langile mugimenduan txertatu ziren eta eragin esparru zabala lortu zuten³²¹. Zenbait ahozko iturrik, gainera, Larga Marchak Iruñean ere zelularen bat izanaren berri eman dute, baina ez zen sekula oso handia izan³²².

317 *Ibid.* 73-74.

318 E11 elkarrizketa: Pablo Ibañez eta Isabel Noguera. Iruñea, 2019/III/11.

319 «Larga Marcha hacia la Revolución Socialista», Gran Enciclopedia Aragonesa, GEA, <https://labur.eus/S8QNA> (2020ko ekainean kontsultatua).

320 Iñigo Perez Ochoa, «Oposición al franquismo...», 30.

321 E15 elkarrizketa: Patxi San Juan Calud eta Jose Luis Arellano Ansó. Tuteran, 2019/VIII/23.

322 Solasaldi grabatu gabea: Silvia Fernandez Viguera. Iruñea, 2018.

Larga Marchak ordea, izaera lokalegia zuen eta garatzeko eskala geografikoan handitzeko beharra izan zuen. 1975ean Madril, Galizia, Katalunia eta beste toki batzuetako elkarte komunista txikiekin batera 1975ean Partido Comunista de Unificación (PCU, Batasunerako Alderdi Komunista) eratu zuen. PCU hark urte bete eskaseko iraupena izan zuen, 1976an PTErekin fusionatu zelako³²³. PCU eta PTEren batasunaren ondorioz, Ricardo Gelbentzu PCUko kide nafarra PTEren Idazkaritza Politikoko kide bilakatu zen³²⁴.

PTEk Nafarroan osotara 200 bat militante izan zituen, baina bere eragin esparrua askoz ere zabalagoa zen; erreferentziazko sindikatua, CSUT, 6.000 bat afiliatu izatera ailegatu baitzen³²⁵. Bere indargune nagusiak Iruñea eta Tuteran ziren. Bigarren hiri honetan oposizioko bigarren indarra izan zen, 25 bat militante eta beste 25 bat jarraitzaile izan baitzituen; CSUTek gainera, Erriberan 1.500 bat afiliatu izan zituen, bereziki Tuteran eta Cintruenigon³²⁶.

IV. Internazionalako alderdiak: LCR, LC eta ETA VI

Nafarroako alderdi iraultzaile troskista guztiak IV. Internazionalako Idazkaritza Batuko kideak izan ziren. Denak internazional bereko alderdiak izanagatik ere, hainbat izendapen eta marka ezberdin (ETA VI., LCR, LC eta LKI) baliatu zituzten beren historian zehar³²⁷. Baina orokorrean, horien arteko lotura oso estuak izan ziren eta Trantsizioak aurrera egin ahala, gehienek alderdi berean (LKIn) fusionatuta bukatu zuten. Arrazoi horiek direla medio, IV. Internazionalako alderdi guztiak atal berean landuko ditugu.

Jatorria

323 Larga Marchaz gain, Katalunia eta Balearretako Lucha de Clases, Galiziako Información Obreira, Gipuzkoako Comité de Estudiantes eta Madrilgo talde txikiren bat. «Se presentó en Madrid el Partido Comunista de Unificación», *El País*, 1976ko azaroaren 5a. Ramon Franquesa Artes, «Estabilización del...», 270. Marta Campoy Fernandez, «El PTE en...», 250-251.

324 Ricardo Gelbentzu cascantearrak Larga Marcha taldean hasi zuen bere militantzia politikoa. PCU eta PTE alderdiak batu zirenean Espainiako Lanaren Alderdiaren zuzendaritzan parte hartu zuen. Gaztetako militantzia komunista bukatzerakoan ardogintzako sektorean hasi zen, upategi bateko nagusi bilakatu baitzen. Azken urteetan eskuineko jarrera politikoekin identifikatu da eta Doble 12 elkarte kulturalerako sustatzaileetako bat da. Artiz Intxusta, «La bandera de Navarra, ultima chaqueta de un rojo», *Gara*, 2017/V/30, <https://labur.eus/qrUiZ>, 2020ko azaroan kontsultatua.

325 Solasaldi grabatu gabea: Jesus Garatea. Iruñea, 2019/X/11.

326 E15 elkarrizketa: Patxi San Juan Calud eta Jose Luis Arellano Ansó. Tuteran, 2019/VIII/23. Iñigo Perez Ochoa, «Oposición al franquismo...», 33.

327 Bakoitzari dagokion garaiko izenarekin deituko diogu: ETA VI. (1970-73), LCR (1971-1973 eta 1976-1991), LCR-ETAVI (1973-1976) eta LKI (1977-1991). Euskaraz LCri bi modutara esaten zitzaion. Lehendabizi *Komunist Elkarte*a izan zen, baina 1976tik aurrera, gero egokiako zatekeen Komunisten Liga hartu zuten. Hala ere, oso gutxitan erabiltzen zen eta LC-ko kide euskaldunek erdarazko siglekin (LC) modura ezagutzen dute oraindik.

Nafarroan egon ziren alderdi troskistek bi jatorri izan zituzten: iturburuetakoko bat 1970ean ETAn gertatutako zatiketa batean dauka jatorria; besteak, aldiz, FLP-FOC frontearen krisiaren ondorioz sortutako LCR alderdian³²⁸. EMKren kasuan ikusi dugun bezala, ENAMen nazionalismo iraultzailearen sorrera prozesua oso gatazkatsua izan zen, barne eztabaida eta zatiketez josirik. Iturriotz-Del Rio binomioak zuzendutako ETA Berriren kanporaketa gertatu zenetik hiruzpalau urte baino pasatu ez baziren ere, *obrerismo* komunistaren eta ezkerreko abertzaletasun iraultzailearen arteko eztabaidak gori-gorian jarraitzen zuen. Horregatik, 1970 eta 1971 artean berriz ere antzeko arrazoiak zituen beste eszizio bat gertatu zen.

ETAk V. Biltzarraren ondoren lau frontetan oinarritutako antolaketa berria estreinatu zuen. Horietako batek, Langile Fronteak, langile mugimenduan eragiteko zeregina zeukan. Fronte horren sorreraren ondorioz, hurrengo hilabeteetan etakideetako batzuk CCOOetan aritu ziren PCE, ETA Berri/Komunistak eta elkarte kristauekako militanteekin batera, bereziki Bilboko itsadarrean. Baina 1969ko salbuespen egoerak iraun bitartean sarekada handi batek ETako egitura desegin zuen. Bere barnealdeko zuzendaritzako kide eta koadro ertain ugari atxilotu zituzten eta beste askok erbesteratu behar izan zuen. Kolpe latz horren ondoren, ETAk bere egitura berreraiki behar izan zuen eta horretarako Langile Frontean aritutako kideengana jo behar izan zuen³²⁹.

Zuzendaritza berri hark VI. Biltzarrerako deialdia egin zuen 1970eko irailerako. Biltzarraren prestaketaren prozesuan, eduki beharreko estrategiaren inguruko eztabaida hauspotu zen: batzuek ETA Langile Alderdi iraultzaile bilakatu behar zuela defendatzen zuten eta besteak, aldiz, Fronte Nazional abertzale eratzearen aldekoak ziren. Zuzendaritza berriari dagokionez, Langile Frontean aritutakoek osatzen zuten, kezka sozialek pisu handia hartua zuten haiengan eta joera komunisten aldekoak (Langile Alderdiaren aldekoak) ziren, nahiz eta oraindik Fronte Nazionala sustatzea baztertzeko ez zuten. Bestalde, adar abertzale eta militaristenak Fronte Nazionalaren ideia babesten zuten³³⁰.

1970eko iraileko VI. Biltzarrean bi korronteen arteko eztabaida lehertu zen. Zuzendaritzak ETA Langile Alderdi iraultzaile eta komunista bilakatzeko ildo adostu zuen. Fronte Nazionalaren aldekoek, bestalde, biltzarrari boikot egitea erabaki zuten eta ez ziren bertaratu. Ildo berria babesten ez zuten, zatitzea erabaki zuten eta V. Biltzarraren legitimitatea bere gain aldarrikatu zuten.

328 Ikus bedi 9.1. atala *Alderdi iraultzaileen ardatz kronologikoak*.

329 Petxo Idoiaga, «Evolución de ETA VI (1970-1973)», Marti Causa, Ricard Martínez I Muntada *Historia...*, 37-38. Joxe Iriarte *Bikila*, «La crisis ideológica en 1970. El proceso de Burgos. Aportaciones del Marxismo Revolucionario ante el problema nacional», Hainbat egile, *Langileria marxismoa*, 24.

330 Petxo Idoiaga, «Evolución de ETA...», 38-40. Joxe Iriarte *Bikila*, «“La crisis ideológica...” 25.

Ordutik aurrera, adar militaristaren eta Fronte Nazionalaren aldeko eta V. izenez ezagutuko zitzaien eta Langile Alderdi iraultzailearen aldeko, aldiz, ETA VI.³³¹.

VI. Biltzarra oso gatazkatsua izan zen, baina orokorrean, zuzendaritzak babestutako Langile Alderdi komunistaren aldeko korrantea nagusitu zen, eta lehendabiziko hilabeteetan erakundearen zati nagusienaren babesa jaso zuen, baita Burgosko epaiketakoa ere. Baina, eszizioaz geroztik, taldeak oraindik ez zuen batasun eta koherentzia ideologiko nahikorik. Zatiketa traumatikoa izan zen eta gertatutakoa oraindik argitu gabe zegoen. Ondorioz, hausnarketa prozesu mantso eta luze bat abiatu zen, eta VI. Biltzarraren bigarren parte konbokatzea erabaki zuten. VI. Biltzarraren prestaketarako prozesu horretan, Fronte Nazionalaren ideia, borroka armatua eta abertzaletasuna baztertzen joan ziren, eta beraz, zenbaitek ETA V.enera itzultzea erabaki zuten (Jose Migel Beñaran *Argalak* esaterako). Ondorioz, V.ak pixkanaka «nazionalismo iraultzailearen» eta ezker abertzalearen legitimitatea berreskuratu zuen³³².

Bien bitartean, ETA VI.an berriz ere krisi egoera piztu zen. ETA VI.ko kideak elkartzen zituena erakunde alderdi komunist iraultzaile bat eratzeko nahia zen, baina taldeak kohesio urria zeukan, askotariko irakurketa politikoak baitzituen bere baitan. Bi talde eratu ziren: gehiengoa (maioritarioak, *mayos*) eta gutxiengoa (minoritarioak, *minos*). Bien arteko aldeak ETA VI. alderdi iraultzaile bilakatzeko erritmoan eta moduan zeutzan³³³. Ezberdintasunak hain izan ziren handiak ezen «Biltzar Ttipia ez zela eztabaida gidatzeko gauza izan»³³⁴. Frantzian atzerriratua zegoen *mayoen* parte batek, Frantziako LCarekin (Ligue Communiste alderdiarekin) eta IV. Internazionaleko Idazkaritza Batuarekin harremana egin zuen eta 1972ko apirilean barnealdeko zuzendaritzari troskismoaren aldeko gutun bat bidali zion, ETA VI.ari ildo horretan sakontzeko proposamena egiten ziona. Gutun horrek, azkenik, *mayoen* eta *minoak* arteko zatiketa behartu zuen: *mayoak* IV. Internazionaleko alderdi bat eratzerantz bideratu ziren eta 1972ko abenduan VI. Biltzarraren bigarren zatia egin zuten; *minoak*, aldiz, barne ahultasunaren ondorioz norabide ezberdinetan sakabanatu ziren (ORT, LC, PCE, ETA V., ETA VI, edo bestelako alderdietarantz)³³⁵.

Esan bezala, ETA VI.az gain, beste adar bat egon zen Nafarroako alderdi troskisten sorreran: FLP taldea. Fronte hori 1958an sortu zen eta oso izaera eklektikoa zuen, bertan sozialistak, marxista heterodoxoak, kastristak eta ezkerreko kristauak elkartzen baitziren³³⁶. Oso elkarte dinamikoan zen

331 Petxo Idoiaga, «Evolución de ETA...» 40-43. Joxe Iriarte *Bikila*, «“La crisis ideologica...”» 25-26.

332 Joxe Iriarte *Bikila*, «“La crisis ideologica...”» 27.

333 Petxo Idoiaga, «Evolución de ETA...» 47-48.

334 *Ibid.* 48.

335 *Ibid.* 48-49.

336 FLP-FOC-ESBA erakundeei buruz gehiago jakiteko: Julio Antonio García Alcalá, *Historia del "Felipe" (FLP, FOC y ESBA): de Julio Cerón a la Liga Comunista Revolucionaria*. Madrid: Centro de Estudios Políticos y Constitucionales, 2001.

eta zenbait tokitan (Bartzelonako eta Madrilgo unibertsitate giroetan, esaterako) PCERI kompetentzia egitera ailegatu zen. Baina 1967-69 aldian, Erregimenaren errepresioaren azkartzearen ondorioz taldea krisian sartu zen (bereziki bere adar katalana, FOC), eta ondorioz, hainbat puskatan zatitu zen. Zati horietako batek troskismorako bidea hartu zuen, Alain Krivine eta Ernest Mandel bezalako erreferenteak zituen eta Frantziako JCR (Jeunesse Communiste Revolutionnaire, Gazteria Komunista Iraultzaileak) taldeak 1968ko Maiatzean izandako paperarengatik liluratuta zegoen. FLPTik zetorren talde honek *Comunismo* izeneko aldizkaria sortu zuen. Hausnarketa prozesu batean murgildu zen taldea eta hainbat hilabetetan eztabaida politikoetan korapilatuta egon zen, masa borroka nagusietatik aldentuta. Baina 1970eko bukaeraren eta 1971 hasieraren artean talde hark alderdi bilakatzea erabaki zuen, Liga Comunista Revolucionaria (LCR) izena hartuta³³⁷.

Zatiketak eta Batasunak

LCR sortu berriak bere lehendabiziko urratsetan oso jarrera kritikoa izan zuen Langile Batzordeekiko. Langile mugimenduak eta CCOOek 1967tik aurrera bizi zuten krisia PCERen agente burokratikoaren eta taktika erreformistaren ondorio izan zirela uste zuten, eta beraz, langile mugimenduan parte hartzeko CCOOetan eragiteari uko egin zioten. Bai Frantziako LCko kideek baita IV. Internazionalako ere, LCR gazteak hartutako erabaki horri desadostasuna erakutsi zioten, baina hala ere, LCRk CCOOn parte hartzeari uko egin zion «erreformisten» kontrolpean zeudelakoan³³⁸.

1972ko urtarrilean LCRren I Kongresua egin zen, eta bertan harrezkero bi sektoreen arteko ezberdintasunak azaleratzen hasi ziren. Eztabaida ugari izan zen, baina behintzat «IV. Internazionalan sarrera eskaera egitea, Estatutuak onartzea eta Komite Zentrala eta Kontrol Batzorde Independentea eratzea» lortu zuten³³⁹. Laster, 1972ko udaberrian, Komite Zentralak langile mugimenduarekiko taktika aldatzea erabaki zuen eta bertan eragiteko politika berri bat onartu zuen, CCOOetan parte hartzean suposatzen zuena. Juan Colomar buru zuen Bartzelonako Komite lokalak, ordea, ez zuen ildo berria onartu. Orduan, eztabaida trabatu zen eta bi tendentzia eratu ziren: Komite Zentralaren aldekoak, *La Liga En Marcha* izena hartu zuen; eta Bartzelonako Komitearen aldekoak *La Liga en la Encrucijada*³⁴⁰.

337 Consuelo Laiz Castro, *La lucha...* 63-69. Marti Caussa, «Los orígenes de la LCR (1969-19973)» en Marti Caussa, Ricard Martínez I Muntada *Historia...* 17-26. Ricard Martínez I Muntada, «Hacia La Liga. Orígenes De Una Organización Revolucionaria (1968-1970)», *Las otras protagonistas...* 1047- 1064.

338 Consuelo Laiz Castro, *La lucha...* 69. Marti Caussa, «Los orígenes...» 22.

339 Marti Caussa, «Los orígenes...» 26-27.

340 Consuelo Laiz Castro, *La lucha...* 146-147

Giroa arras gaiztotua zegoenez, IV. Internazionalak bi sektoreak adiskidetzeko konpromiso bat har zezaten eta 1972ko abendurako kongresu bat egin zezaten konbentzitu zituen. Baina, Encrucijadak ez zuen deialdia onartu eta bere kabuz beste kongresu bat egin zuen. Bertan Liga Comunista izena hartzea erabaki zuen. Zatiketa horren ondorioz kideen %54 inguru LCRn geratu zen eta beste %45 LCra aldatu zen³⁴¹.

Eztabaidaren muina honakoa zen: Nola eragin langile mugimenduan kontzientzia iraultzailea pitz zedin? LCR-En Marchak langile mugimenduko sektore erradikalizatuak (gazteria eta alderdi maoistak, esaterako) zabaltze prozesuan zeudela uste zuen eta ekintza batasunaren bidez, erreformismoari gain hartzeko aukera zegoela uste zuten. Helburua sektore erradikalizatu horiek baliatzea zen, PCEn eta joera sindikalistei eta erreformistei gainezka egiteko, PCEk ezker iraultzailearekin ekintza batasuna egitera behartuta ikusiko zuelakoan³⁴². LC-Encrucijadarentzako taktika hori langile mugimenduaren kontzientzia maila baxura, bere zuzendaritza estalinistara eta erreformistetara moldatzen eta bere ekinbidearen menpeko geratzea zen. Gainera, LCk sektore erradikalizatuak langile mugimenduaren gutxiengoa zirela uste zuen, eta langile klasearengan konfiantza handia zuenez, «bere bihotzetik» abiatu behar zela zioen³⁴³.

LC-Encrucijadak *Trantsizio Programaren* irakurketa literalagoa egiten zuen. Langileek, orokorrean, ezker erreformistako alderdi eta sindikatu handien jarraitzaileak baziren ere, jarrera horrek epemuga bat zuela uste zuten. Erreformismoak ezinen zien langileen aldarrikapenei kapitalismoaren barrenetik erantzun, eta momentu hura iritsitakoan, langileek erreformismoaren jarraitzaile izateari utziko zioten eta iraultzaren alde eginen zuen³⁴⁴. Beraz, noiz edo noiz erreformismoaren planek huts eginen zutela uste zuten, LC-Encrucijadak iraultzaileen papera langileen kontzientzia maila igotzea zela uste zuen³⁴⁵. LCR-En Marchakoei jarrera hori «propagandista» eta pasiboa iruditzen zitzaien³⁴⁶.

Indarkeriaren inguruko eztabaidan ere ezberdintzen ziren. Biek iraultzaren izaera biolentoa izanzen zela uste zuten. Baina LCRk langileriak iraultza egiteko indarkeria beharrezkoa izanzen zela onar zezan, pixkanaka konfrontazio maila igoaraztea beharrezkoa zela uste zuen. Horretarako autodefentsa piketeak sortu behar ziren, manifestazioetan segurtasun indarrei erantzuteko, eta

341 Marti Caussa, «Los origenes...» 27-28.

342 Marti Caussa, «Los origenes...» 28.

343 Ramon Contreras, «La Liga Comunista (1972-1977)» Marti Caussa, Ricard Martinez I Muntada, *Historia...* 78-79. LCren Komite Zentrala, «Primera parte de la TP aprobada en el CC de mediados de Oct.», *Boletín*, 3 zbk. LC, 1973/XI, 2-3. Minutas y circulares internas LC karpeta, BAP.

344 E18 elkarrizketa: Arcadio Rojo Amil. Iruñea, 2019/IX/27.

345 Gonzalo Whilhelmi, *Romper el...* 44-45. Miguel Romero, «Epilogo 1. El trotskismo en la liga», Daniel Bensaid, *Trotskyismos...* 102-103.

346 Jorge Guerrero Valle, «La LCR y las reformas centrales de la transición», *Las otras protagonistas...* 1066-1067.

langileek diktadurari aurre egitea posible zela ikus zezaten³⁴⁷. LCrentzako, ordea, jarrera horrek masen eta langile mugimenduarenganako konfiantza eza erakusten zuen. LCk masak abangoardien aurretik zihoazela uste zuen (batzuetan modu ezkutuan izan arren) eta ondorioz, beraien ustez indarkeria iraultzailea martxan jartzeko ez zegoen autodefentsa piketeen beharrik («gamberradas simbolicas» deitzen zieten)³⁴⁸.

Zatiketa horrek alderdiaren eguneroko praktika baldintzatzen zuen, eta bi korronteetako batek ere gehiengorik ez zuenez haustura saihestezina izan zen³⁴⁹. Baina eztabaida maila estatalekoa izan zen arren, laster, ezberdintasun horiek nazioartera transmititu ziren. Izan ere, IV. Internazionalaren barruan bi korronte sortu ziren, besteak beste, Bolivia eta Argentinako gerrillen inguruan hartu beharreko jarreraren eztabaidaren arabera. Nazioarteko tendentzia handiena TMI zen (Tendencia Mayoritaria Internacional, Nazioarteko Tendentzia Nagusia), Belgikako Ernest Mandelek eta LC frantziarrak gidatzen zutena. LCRk TMiren babesa jaso zuen. Gutxiengoan zegoen tendentziak, aldiz, Fraccion Leninista Trokista (FLT, Frakzio Leninista Trokista) izena zeukan. SWP (Socialist Workers Party, Langileen Alderdi Sozialista) estatubatuarra eta PST (Partido Socialista de los Trabajadores, Langileen Alderdi Sozialista) argentinarrak gidatzen zuten eta LCren alde egin zuen³⁵⁰. Hala ere, biek ala biek IV. Internazionalako kide izaten jarraitu zuten egoera berezia sortu zen, Espainiak bi alderdi ordezkari izan baitzituen IV. Internazionalan.

Oro har, LCRk izaera irekiagoa zuela esan daiteke, errealitatearekin eta ezkerreko gainerako korronteekin kontaktuagoan baitzegoen. Trotskiren ekarpen teorikoak positibotzat zeuzkan arren, bere burua *marxista iraultzaile (marxista revolucionario)* modura izendatzea nahiago zuen, batik bat bere I. Kongresutik (1976) aurrera, eta denominazio hori eta *m-r* laburdura bere dokumentuetan ikustea ohikoa izan zen³⁵¹. LC, aldiz, trokismoaren tradizioari lotuago zegoen, eta ez zuen *m-r* etiketa erabiltzen, baizik eta *troskistarena*³⁵².

Aldi berean, LCR eta ETA VI.aren arteko hurbilpena gertatu zen. Bereziki IV. Internazionalaren eta ETA VI.aren ekimenez, LCR oraindik zatiketa osteko egoeragatik ahul xamar baitzegoen eta barne zereginetan korapilatuta baitzebilen. 1973ko maiatzean «ETA-LCR Batasun protokoloa» kaleratu zuten, bien arteko eztabaida eta negoziazio fasea ireki zuena³⁵³. 1973ko abenduan, modu paraleloan ETA VI.aren VII. Biltzarra eta LCRren III. Kongresua egin ziren, bi

347 Consuelo Laiz Castro, *La lucha...* 151

348 LCren Komite Zentrala, «Primera parte de...».

349 Ramon Contreras, «La Liga...» 77-79.

350 Ramon Contreras, «La Liga...» 82.

351 «Construir un Partido Comunista Revolucionario», *I Congreso de LCR-ETA(VI)1*, 1976/VIII, 107orr. Doc. 3.35, <https://www.historialcr.info/>. E14 elkarrizketa: Felix Jimenez Morales. Iruñea, 2019/VII/23.

352 Miguel Romero, «Del atentado contra Carrero Blanco a los Pactos de La Moncloa (1974-1977)», Marti Causa, Ricard Martinez I Muntada, *Historia...* 75.

alderdien arteko behin betiko batasuna ondorioztatzen zituztenak. Ordutik aurrera, alderdiaren izen ofiziala LCR-ETA VI. izanen zen eta bien arteko Komite Zentral eta Bulego Politiko batuak eratu ziren, baina euskal adarrentzako autonomia taktiko eta organizatiboarekin eta zuzendaritza organo propio batekin³⁵⁴. Prentsari zegokionez, *Combate* eta *Comunismo* alderdi batuaren maila estataleko argitalpenak bilakatu ziren, baina aldi berean *Zutik!* Euskal Herriarentzako publikazio modura geratu zen. ETA VI.aren VII. Biltzarrean parte hartu zutenen zati txiki batek, kideen %10 inguruk, LCRn ez sartzea erabaki zuen eta LCra joan ziren³⁵⁵. ETA VI.ren eta LCRren arteko batasuna ordutik aurrera errealitate bat izan zen, baina 1976an LCR-ETA VIko I. Kongresuan berretsi beharko zen.

Nafarroako ezarpena

Arestian esan bezala, ETAk lehendabiziko aldiz 1964an egin zuen agerpena Nafarroan. Baina, benetako errotzea 1969 inguruan hasi zen, Iruñean bi eragin-gune eratzea lortu zuenean. Bata «ikasle talde gazte» eta euskaltzaleen artean izan zen eta bereziki, Hemen eta Han mendizale taldean. Azken horretan German Rodriguez gaztea hasi zen militatzen³⁵⁶. Horretaz gain, langile mugimenduan txertatzea lortu zuen. Imenasa lantegian, esaterako, presentzia azpimarragarria lortu zuen, Iñaki Behorlegi eta Jose Mari Soltxaga militanteen bidez³⁵⁷. VI. Biltzarreko eztabaidak gertatu zirenean Iruñeko ETako kide gehienek zuzendaritzaren alde egin zuten, eta ondorioz, ETA VI.an geratu ziren. 1973ko Motor Ibericako greban atxiloteta ugari izan zen; testuinguru horretan ETA VI.ak Iruñean zituen bi zelulen arduradunak atxilotu zituzten. German Rodriguez bera eta Iñaki Behorlegi³⁵⁸. Garai bertsuan, bestalde, ETA VI.ak Lizarran ezartzea lortu zuen Bilbon ikasten zuten ikasleen bidez³⁵⁹.

Nafarroako LCRri dagokionez, bestalde, arestian esan bezala, Nafarroako Unibertsitateko ikasle mugimenduko kide izandako gazte batzuen bidez zabaldu zen. Arcadio Rojok, 1968-1969ko ikasturte mugituan parte hartu zuen ikasleak, ikasketak bukatutakoan soldadutza egin behar izan zuen Valentzian. Diziiplina arazoak direla medio, ziegan zigor hilabete batzuk pasatu behar izan

353 «Protocolo de acuerdo ETA-LCR», *Combate*, 16 zbk., (1973/V/14), LCR, 3-5. Doc. 1.44 <https://www.historialcr.info/>.

354 Marti Causa, «Los orígenes...» 30-33

355 Petxo Idoiaga, «Evolución de...» 50. Solasaldi grabatu gabea: Ramon Contreras. Iruñea, 2019/II/25.

356 Josu Chueca, «German Rodriguez...». E13 elkarrizketa: Presen Zubillaga Auza. Iruñea, 2019/VII/18.E9 elkarrizketa: Julia Munarriz Gomara. Iruñea, 2018/XII/21.

357 E14 elkarrizketa: Felix Jimenez Morales. Iruñea, 2019/VII/23. E12 elkarrizketa: Vicente Duque Alonso. Iruñea, 2019/V/12.

358 Josu Chueca, «German Rodriguez...».

359 Lander Muñagorri Garmendia, «Josu Chueca: Errepublikak...»

zituen eta berarekin batera zerbitzu militarra egiten ari zen *Comunismoko* kide batzuk berarekin kontaktuan jarri ziren. Orduan hasi zen talde troskista hartan militatzen. Zerbitzu militarra bukatu bezain pronto, Iruñera itzuli eta bere unibertsitate ikaskideekin (tartean Miguel Vazquez) harremanetan jarri zen. LCRren aurreneko zelula iruindarra unibertsitateko hiru ikasle ohik eta bi langilek osatu zuten³⁶⁰. Handik gutxira Bilborekin kontaktua egin zuten, Euskadiko Komite Nazionala handik zuzentzen baitzuten.

Alderdi troskisten artean gertatuako zatiketa eta fusioen (LC-LCR zatiketa eta ETA VI-LCR fusioa) ondorioz, LCR-ETA VI. bien arteko nagusia bilakatu zen. Nafarroan, ordea, LCk LCR-ETA VI.ak baino indar handiagoa eta kide gehiago zeukan, bai Iruñean, baita Lizarran ere. Horregatik, Komunisten Ligarentzako Iruñea «bere harribitxia» zen³⁶¹. Iruñean esaterako, LC ikasle mugimenduko (CENen bidez) alderdi garrantzitsuena zen eta Pamplona eta bestelako lantegietan presentzia zeukan, baina Landabenen (Iruñerriko industrialde handiengan), aldiz, ez zuten eragitea lortu³⁶². Lortutako informazioaren arabera, 1971-72 inguruan jatorrizko LCR 5 bat kidek osatzen zuten Iruñean. 1976ko martxoan, ordea, LCk 40-45 bat izanen ziren eta militante gehien izan zituzten momentuan, 1977ko hauteskundearen inguruan, berriemaile gehienek 120 bat kide izanen zirela baieztatzen du³⁶³. Iruñekoez gain, Lizarran 12 kide, Altsasun beste 12 eta Irunberrin 2 edo 3 (Iruñean lan egiten zutenak) omen ziren. Alderdi troskistek Erriberan eta Nafarroa Erdialdean ez zeukaten presentziarik (Lodosa edo Sartaguda inguruan militante edo jarraitzaileen bat gehienez jota) eta Bortzirietan baten bat bazegoen, baina Gipuzkoari lotuagoak zeuden³⁶⁴.

LCR-ETA VI., aldiz, LC baino txikiagoa zen Nafarroan. Gehienak ETA VI.etik zetozen, bere kideren bat LCra pasa zen arren³⁶⁵. Imenasa zen LCR-ETA VI.ren presentzia azpimarragarriena izan zuen lantegia eta 1977an 100 bat kide zituen. IV. Internazionaleko bi korrante horiek 1977 urtearen bukaeran berriz ere batu ziren; urte hartan bien artean, jarraitzaile edo sinpatizanteak kontuan hartuz gero, 300 bat kideko eragin esparrua izanen zuten.

Esan bezala, Iruñeaz gain Lizarra izan zen troskisten eragin-gune nagusia. 1971-72an, Bilbon ikasten zuten lizarratarren bidez ETA VI.ak hirian ezartzea lortu zuen, eta aurrerago, talde

360 E18 elkarrizketa: Arcadio Rojo Amil. Iruñea, 2019/IX/27.

361 *Ibid.*

362 Cabeza de T. Del sector obrero, *Situación actual de Tortuga*, 1975/XII/3, Iruñeko LC, BAP. (Klabearen idatzita dago).

363 LCren Komite Lokala «Plan de reclutamiento. Resolución del CL del 20-II-1976», *Minuta*. 1 zbk. 1976/III/6, LC, Minutas y cíclicas internas LC karpeta, BAP. Solasaldi grabatu gabea: Andres Valentin Gonzalez, Iruñea 2020/I/29.

364 Solasaldi grabatugabea: Andres Valentin Gonzalez, Iruñea 2020/I/29. Solasaldi grabatu gabea: Ramon Contreras. Iruñea, 2019/II/25. Solasaldi grabatu gabea: Begoña Zabala. Iruñea, 2019/VI/19.

365 E18 elkarrizketa: Arcadio Rojo Amil. Iruñea, 2019/IX/27. Solasaldi grabatu gabea: Ramon Contreras. Iruñea, 2019/II/25.

haren gehiengoa LCn sartu zen. LCk langile mugimenduan eragin-ahalmen nabarmena zuen (Renolit, Agni, Salvat, ...), EMKk auzo mugimenduan oihartzun gehiago lortzen zuen bitartean. LCR-ETA VI.ak Lizarran presentzia lortu zuen hainbat urte beranduago (1975-76), baina LCren aldean gutxiengoan egon zen beti³⁶⁶.

LCko troskistek, bestalde, epealdi labur batez UGT sindikatuan paper azpimarragarria izan zuten. LC 1975etik ez zegoen ados CCOOetako korrante nagusien jokamoldearekin, Sindikatu Bertikalari lotuegi zegoela uste zuelako eta zeukan mobilizatzeko ahalmena oztopatzen ari zela uste zuelako. LCk afiliatuz osatutako «sindikatu librea» aldarrikatzen zuen, eta ez kidego malgua zeukan CCOOren mugimendua. Ondorioz, —UGT sindikatuak hurrengo urteetan hazkunde azkarra izanen zuela aurreikusita—, 1976ko III. Kongresuan CCOO uztea eta UGT sindikatutik eragitea erabaki zuen³⁶⁷. Nafarroan, UGTn oso afiliatu gutxi zegoenez, LCko kideek (Gazteria Sozialista erradikalizatu eta filotroskistekin batera) sindikatua ia erabat kontrolatzeko ahalmena izan zuten, PSOEn nagusitasuna lehiazteraino. Harik eta PSOEn zuzendaritzak troskista guztiak kanporatu edo bere eragin ahalmena gutxitu zuen arte³⁶⁸.

PCEml eta FRAP

PCEml —Partido Comunista de España (marxista-leninista), Espainiako Partidu Komunista marxista-leninista— Espainiako ezker erradikaleko alderdi goiztiarrena izan zen. *Barnealdeko* eta erbesteko lau talde disidentek alderdi berri bat eratzea erabaki zuten 1964 urtearen bukaeran, PCEren politika berriarekin eta SESBeko errebisionismoarekin bat egiten ez zutelako. Alderdiaren zuzendaritza bikote baten esku geratu zen: Benita Ganuza (ezizenez Elena Odena) eta Manuel Fernandez Muñoz (Raul Marco)³⁶⁹. Benita Ganuza alderdidko zuzendaritzan egon zen, 1985ean zendu zen arte. Manuel Fernandezek, bestalde, 1992an Alderdiaren ibilbidea amaitutzat eman zuten arte iraun zuen.

Haustura txinatar-sobietarra gertatu berria zenez, Txina fidel izanen zitzaizkion alderdi berriak sustatzen hasi zen. Laster, alderdi sortu berri hura Mao Zedong pentsamendurantz hurreratu

366 Lander Muñagorri Garmendia «Josu Chueca: Errepublikak...». Solasaldi grabatu gabea: Peio Senosiain. Lizarra, 2019/VIII/13.

367 Mateo (Nafarroako LCren Komitearen klabe-izena), *Circular*. 1976/XI/15, Minutas y cicales internas LC karpeta, BAP. Mateo (Nafarroako LCren Komitea, *Sobre nuestra entrada en UGT. Minuta de Mateo*. 1976/X/21, Minutas y cicales internas LC karpeta, BAP. Solasaldi grabatu gabea: Begoña Zabala. Iruñea, 2019/VI/19.

368 Mikel Bueno Urritzelkik duela gutxi Nafarroako PSOE eta UGTri buruzko tesia aurkeztu du NUPen eta bertan UGTren kontrolagatik LCkoekin izandako bataila kontatzen du. BUENO URRITZELKI, Mikel: *El PSOE y la UGT en Navarra (1974-1982): creación, formación y desarrollo*, Emilio Majuelok zuzendua, argitaragabea, NUP, Iruñea, 2020/IX,.

369 José Catalán Deus, «La chispa y la pradera. La influencia del maoísmo en la España de los 70. Del FRAP al GRAPO», Ana Sofia Ferreira, Joao Madeira (Koord.), *As Esquerdas Radicais...* 100-101.

zen, Belgikako Jaques Grippa komunistaren bidez eta Bruselako eta Pariseko enbaxada txinatarren bidez. Baina hasierako urteetan Txinaren aldekoa izan bazen ere, PCEml 1970eko hamarkadaren hasieratik Txinatik aldendu, eta Albaniako agintariengana hurbiltzen joan zen. Izan ere, Asiako erraldoia urte horietan bere nazioarteko politika aldatzen hasi zen eta 1971an Santiago Carrilloren (PCEml-k errebisionista gorrotagarritzat zeukana) eta, hurrengo urtean, Richard Nixon-en (AEBtako presidentearen) bisitak jaso zituen. Bi bisiten ondorioz, PCEml-k Txinatik urruntzea erabaki zuen eta Enver Hoxha albaniarren jarraitzaile sutsu bilakatu zen³⁷⁰. Orduetik aurrera, Balkanetako herrialde txikiaren finantzaketa eta babes politikoa eskuratu zuen eta Tiranen modu permanentean delegazio bat izan zuen. Halaber, Tirana Irratiaren uhinen bidez eta albanierazko liburuaren itzulpenen bidez Espainiarentzako propaganda politikoa egiten aritu zen.

Alderdiak hasiera batean atzerrian (Paris, Geneva, Belgika eta abar) izan zuen pisua, bereziki errepublikano erbesteratuen eta emigranteen artean. Erbesteratuekin izandako harreman eta kontaktuen ondorioz, Gerra Zibileko memoriak eta Errepublika garaiko ondare kulturalak eragin handia izan zuten alderdi berrian, gainerako alderdi erradikaletan baino gehiago³⁷¹. Bere izaera sakonki markatu zuten arren, 1930eko hamarkadako errepublikano gehienek 1968a baino lehenago alderdia utzi zuten, eta soilik FRAPeko presidente izan zen Alvarez del Vayo (Guerra Zibilean Presidentzia Ministro izandako PSOEko kide ohia) mantendu zen PCEml-ren eragin esparruan³⁷².

1971tik aurrera barnealdean errotzen hasi zen, batez ere unibertsitateetan. Hainbat *masa erakunde* eraikitzen ere saiatu zen, borroka fronte ezberdinetan esku-hartzeko tresna modura. Kasu batzuetan PCEk iraganean erabilitako sigla zaharrak berreskuratu zituen: Oposición Sindical Obrera (OSO, Langile Oposizio Sindikala) sindikatua eta FUDE (Federación Universitaria Democrática Española, Federazio Unibertsitario Demokratiko Espainiarra) ikasle elkarteak, esaterako.

PCEml-k frankismoaren aurka egin beharreko borrokaren ikuspegi berezia zuen. Alde batetik, 1953ko itunaz geroztik Espainia Estatu Batuen kolonia bilakatu zela uste zuen, eta askapenerako borroka armatu antikolonialaren aldeko aldarria egin, eta Espainiaren subiranotasun nazionala berreskuratu behar zirela uste zuen. Aldi berean, Herri Gudu Luzea kontzeptu maoista, 1936-39ko Gerra Zibilaren («Gerra Nazional Iraultzailea» haien hitzetan) jarraipen modura ulertzen zuen. Beraz, maoismoaren ikuspegi antikolonialaren eta Gerra Zibilaren memoriaren ezohiko sintesiaren ondorioz, borroka armatuaren alde azaldu zen, eta Frente Popular berri baten beharra defendatu zuen.

370 *Ibid.* 102.

371 E20 elkarrizketa, Alvaro Zaratiegi. Iruñea, 2019/XII/23.

372 Consuelo Laiz Castro, *La lucha...* 155-158.

PCEml-k, Txinako Iraultzan eta Albaniako erresistentzia antifaxistan bezala, hiru erakundetan oinarritutako antolaketa diseinatu zuen: alderdia (PCEml), frontea (FRAP) eta armada (FRAPen «Borroka-taldeak»)³⁷³. Antolaketa hirukoitz horretan, alderdi komunistak, alde batetik, iraultza demokratiko-herrikoa zuzenduko zuen abangoardia izan behar zuen; armadak, bestetik, etsai inperialisten eta oligarkiaren aurkako gerra (Herri Gudu Luzea) gauzatu behar zuen; eta bukatzeko, fronte interklasista zabal bat egonen zen, etsaiaren aurka borrokatzeko³⁷⁴. Fronte interklasista hura eraikitzeko bidean 1971ean Fronte Iraultzaile Antifaxista eta Abertzalearen aldeko Komitea eratu zen (Comité Pro-FRAP). Komite horretan PCEml-ren inguruko «masa erakundeak» eta tamaina txikiagoko talde batzuk elkartu ziren, eta bere helburua frankismoaren aurkako fronte zabal eta borrokalari bat eratzea zen. Fronte hura formalki eta ofizialki bi urte beranduago eratu zen, 1973ko PCEml-ren I. Kongresuan. Frontearen presidente modura Julio Alvarez del Vayo izendatu zuten eta bere programak sei aldarrikapen zeukan: 1) diktadura eraistea eta inperialismo yankia borroka iraultzailearen bidez kanporatzea; 2) errepublika herrikoi eta federatibo baten ezarpena, herriarentzako askatasun demokratikoak eta nazionalitateen eskubideak bermatuko zituen; 3) jabetza monopolistiko atzerritarren eta oligarkiaren ondasun guztien nazionalizazioa; 4) nekazal-erreforma sakona, latifundio handien konfiskazioan oinarritua; 5) kolonialismo espainiarraren arrastoen likidazioa; 6) herriaren zerbitzurako armada baten sorrera³⁷⁵.

Kontrakoa esan izan den arren, FRAP ez zen PCEml-ren adar armatu edo terrorista, hainbat masa erakunde batzen zituen fronte antifaxista zabalagoa izan nahi baitzuen. Teorian bere *ekintza taldeak* FRAPetik bereizirik zeuden, baina ekintza taldeen atentatuak bere izenean aldarrikatzen zirenez, eta kide gutxi zirela kontuan hartuta, osoki talde terrorista-armatu gisa hartu zuten bai Gobernuak eta baita garaiko prentsak ere³⁷⁶.

PCEml-k teorizatutakoaren arabera, Herri Gudu Luzea manifestazioak defendatzeko autodefentsa komandoen bidez hasiko zen. Ondoren, FRAPek masen borroka maila handituko zuen eta pixkanaka konfrontazio maila orokortuko zen, poliziarekiko konfrontazioa matxinada herritar bilakatu arte³⁷⁷. Lehendabiziko indarkeria ekintza 1973ko Maiatzaren Lehenean izan zen: Madrilen manifestazio batean polizia bat labankadaz hil zuten. 1975eko martxoan, ordea, PCEml-ren Komite Permanenteak bere militanteei ofentsiba armatu bat abiarazteko deialdia egin zien³⁷⁸. PCEml-k

373 Pedro Amores Bonilla, Sergi Sanchiz Torres, ««Hicimos Lo Que Debíamos Hacer»: Ruptura Democrática Y Violencia Política En La Perspectiva De La Militancia Del FRAP» en *En las otras...* 900.

374 Consuelo Laiz Castro, *La lucha...* 161-164.

375 Consuelo Laiz Castro, *La lucha...* 162. Gonzalo Whilelmi Casanova, *Romper el...* 36-37.

376 Gonzalo Whilelmi Casanova, *Romper el...* 37. Pedro Amores Bonilla, Sergi Sanchiz Torres, ««Hicimos Lo Que...» 899.

377 Gonzalo Whilelmi Casanova, *Romper el...* 102.

378 José Catalán Deus «La chispa...» 103.

indarkeria ekintza ikusgarriak egin nahi zituen, horrelakoen aurrean herria altxatuko zela eta maniobra erreformista geldiarazteko gauza izanen zirela uste baitzuen. Baina FRAPeko egitura ahula zen, eta urte hartako udako ofentsiba armatua modu deskoordinatuan, antolaketa eta prestakuntza handirik gabe eta inprobisazio handiz egin bide zen³⁷⁹. Ofentsiba horren ondorioz, hainbat polizia erail zituzten eta errepresioak oso gogor kolpatu zituen bai PCEml eta baita FRAP ere. 1975ko irailean, FRAPeko bost kide heriotza zigorrera kondenatu zituzten. Azkenean bi kommutatu zituzten eta beste hiruak (José Humberto Baena, José Luis Sánchez Bravo eta Ramón García Sanz) ETAko bi kiderekin batera fusilatu zituzten 1975eko irailean. Errepresioaz geroztik, FRAP eta PCEml erabat ahuldurik geratu ziren. Barne zatiketak jasan izan zituen eta Francoren heriotzaz geroztik PCEml-k FRAPen kanpaina armatua bertan behera uztea erabaki zuen³⁸⁰. Hurrengo hilabeteetan, borroka armatua finantzaketa lortzeko banku-lapurretetara mugatuko zen.

Kideak eta ezarpena Nafarroan

Arestian esan bezala, PCEml-n Europara joandako emigrante ekonomikoek pisu handia izan zuten; baita Nafarroako kasuan ere, lehendabiziko bi kide nafarrak atzerrian sartu baitziren alderdira. 1971 inguruan Alvaro Zaratiegi Parisera joan zen, beste asko bezala, lan eta bizitza hobe baten bila eta frankismopeko giro itogarritik ihesi. Orduan hemezortzi urte eskas zituen gazte bat baino ez zen. Parisen bere arrebaren adiskide zen Gloria Bosque-rekin elkartu zen. Bosque ordurako alderdiko militantea zen, eta oso denbora laburrean Zaratiegi alderdian sar zedin konbentzitu zuen³⁸¹. Hainbat hilabetetako formakuntza bizkorra eta gero, 1972ko udaberrian Zaratiegi Iruñera bidali zuten berriz ere, alderdia hirian ezartzera eta antolatzerara³⁸².

Lehendabiziko hilabeteetan Zaratiegi izan zen PCEml-ren militante iruindar bakarra, pixkanaka kontaktuak egiten hasi zen arte. Uda pasata, Bosque eta Beltran ezizeneko beste bat elkartu ziren, azken hori Bartzelonatik iritsitakoa zen eta alderdiko Iruñeko arduradun politiko izendatu zuten³⁸³. PCEml-k Nafarroan izan zuen aurreneko ekintza Gaiarre antzokian izan zen: pelikula bat proiektatzen ari zirenean panfletoak bota zituzten goiko palkoetatik beheko patiora³⁸⁴.

PCEml Iruñean ezarri ondorengo garaietan, alderdiak MCEko kideekin kontaktua izan zuen; izan ere, arestian esan bezala, PCEml alderdiak Komunistak-MCE taldearekin batzeko

379 *Ibid.* 102-105.

380 *Ibid.* 105.

381 Alvaro Zaratiegi Jurío, *La Construcción...* 81-94.

382 *Ibid.* 94-98.

383 *Ibid.* 106-107 eta 136.

384 *Ibid.* 112-113.

elkarrizketatze eta negoziazio fase bat izan zuen. Baina, bi alderdien agintariak etsaitu zirenean eta batasun prozesuak kale egin zuenean, oinarriko kontaktuak ere bertan behera geratu ziren³⁸⁵.

Hurrengo hilabeteetan, alderdia pixkanaka hazten joan zen eta hiru zelulatan antolatuta zeuden 10 edo 15 militante inguru izatera iritsi zen³⁸⁶. Militanteetako bakoitzak, gainera, 5 edo 6 kontaktu edo jarraitzaile zituen. Antolaketa hori guztia, baina, 1973ko ekainean goitik behera erori zen. Motor Ibericako greba orokorrarekin batera, sarekada larria pairatu zuen alderdiak. Iruñeko militante ia guztiak atxilotu zituzten, bizpahiru kide baino ez baitziren libratu eta poliziak egitura guztia desegitea lortu zuen. Atxilotutakoek tortura latzak jasan behar izan zituzten³⁸⁷. Atxilotetak eta gero, alderdia hutsetik berreraiki behar izan zuten³⁸⁸. Baina laster, 1975ean, udako ofentsibaren aurkako errepresioaren ondorioz, beste sarekada bat pairatu zuten. 1976ko apirilean, halaber, zortzi lagunek osatutako beste zelula bat harrapatu zuten, Alde Zaharreko Merced kalean pisu franko bat zeukana³⁸⁹.

PCEml Nafarroako ezker erradikalaren elementu berezi eta ezberdinena zen. Jatorri kristau edo katolikoko koadrorik ez zuen alderdi bakarra zen, eta oro har, errotze ahalmen ahula izan zuen³⁹⁰. Borroka armatuaren aldeko hautuagatik eta jasandako infiltrazio ugariengatik, sarekada ugari izan zituen. Ondorioz, militanteek oso gutxitan ematen zituzten denboraldi luzeak hiri berean. Oztopo horiek langileen artean eta bestelako gizarte sektoreetan modu efektiboan errotu zitezten zailtzen zuten. Gainera, bere izaera bereziarengatik gainerako alderdiengandik isolaturik zegoen eta ez zuen aliantza sendorik egin ezker iraultzaileko gainerako alderdiekin. Borroka fronte gehienetan (ikasle, langile edo auzo mugimenduak) eragiteko ahalmenik ez zuenez, borroka politiko gehienetatik bakarturik zegoen eta Iruñeko Ekintza Batasunetan (mobilizazio konkretuak bultzatzeko mahai unitarioetan) ez zuen parte hartzen³⁹¹.

PCEml-ri lotutako beste erakundeei (FRAP eta bere borroka taldeei) dagokionez, ez bata ez besteak ez zuten arrakasta handirik izan Nafarroan. FRAPek fronte antifrankista zabal eta interklasista izan nahi zuen, baina ez zuen sekula lortu PCEml-ko ingurukoa ez zen jenderik erakartzea. Gainera, adar armatuari eta indarkeriari dagokionez, ez dirudi Nafarroan asko garatu zenik, horretarako egitura indartsua behar baitzen eta Nafarroako egitura ahula zen. Soilik

385 E20 elkarrizketa, Alvaro Zaratiegi. Iruñea, 2019/XII/23.

386 *Ibid.*

387 Alvaro Zaratiegi Jurío, *La Construcción...* 147. Gloria Bosque ezkerri egindako elkarrizketa, 2016/V/2016, NOHBDF.

388 Alvaro Zaratiegi Jurío, *La Construcción...* 182-183.

389 “Notas informativas sobre detenidos en Navarra”, 20/IV/1976, 42/9113, 10, AGA.

390 Alvaro Zaratiegi Jurío, *La Construcción...* 168-170

391 E20 elkarrizketa, Alvaro Zaratiegi. Iruñean, 2019ko abenduaren 23

Zaragoza, Madril, Valentzia eta Bartzelonan egin zituzten mota honetako ekintzak. Hala ere, hainbat saiakeren berri izan dugu: dirudienez manifestazioren batean, arma zurien eta antzeko objektuekin «autodefentsa» antolatzeko saiakerarik egin zuten, baina ez zituzten sekula praktikan jarri³⁹². Bestalde, prentsan PCEml-ren aurkako sarekada baten berri izan dugu, *Diario de Navarra*ko erredakzioaren sarreran eta Iruñeko hotel baten kafetegiko komunean lehergailu txiki bana jartzen saiatzeagatik³⁹³.

Organización de Izquierda Comunista-Ezker Komunista Erakundea

OIC-EKE alderdi txikia eta ezberdina izan zen³⁹⁴. Izan ere, bere corpus doktrinala marxismoaren korrante heterodoxo baten aldekoa zen, baina aldi berean, hainbat ezaugarri eklektiko eta hibrido izan zituen³⁹⁵. Orokorrean, kontseilu-komunismoaren eta ezker-komunistaren (hau da, XX. mende hasierako germaniar-herbeheretar komunismoaren) ildo nagusien jarraitzaile bazen ere, bestelako korrante batzuekin uztartzen saiatu zen: bereziki leninismoarekin —langile kontseiluak eratzeko abangoardiazko alderdi baten beharra aldarrikatzen zuelako—, baina baita troskismoa, maoismoa eta bestelako korranteekin ere³⁹⁶.

Alderdi honen sorburu nagusia Kataluniako COC (Círculos Obreros Comunistas, Langile Zirkulu Komunistak) eta Gipuzkoako NOC (Núcleos Obreros Comunistas, Langile Nukleo Komunistak) taldeen arteko fusioan egon zen³⁹⁷. Kataluniako COCek FOCEk 1968 inguruan bizi izan zuen krisiaren eta desagerpenaren ondorioz sortutako talde batean izan zuen jatorria. Talde horrek, hainbat eztabaida eta gorabeheren ondoren, 1970eko bukaeran COC izena hartu zuen³⁹⁸.

Gipuzkoako NOC, aldiz, Herri Gaztedi eta JOC elkarte kristauetan izan zuen jatorria. Bi elkarteok ingurune landatarreko gazteen artean errotutako elkarte kristaua ziren. *Desarrollismoaren* ondorioz, ingurune landatar ugari industrializatu ziren eta baserri giroko gazte askok jardura

392 Jesus Baztanekin solasaldia, Atarrabia 2018.

393 “Notas informativas y recortes de prensa sobre detenciones, desarticulaciones y retenciones de grupos subversivos y militares de diferentes partidos políticos”, 42/09099-24, Kutxa: 32/9099, AGA. “Notas informativas sobre detenidos en Navarra” 42/9113, 10, AGA. Sarekada horretan ez-gaitasun psikoak zituen gazte bat, eta beste gizon bat atxilotu zituzten. Soldadutza Aizoainen egiten ari zen baten batek koarteleatik armak ebasten omen zituen. Informazio honekin bateragarria den kontakizuna egiten du Zaratiegik bere liburuan. Alvaro Zaratiegi Jurío, *La Construcción...* 106.

394 1974an alderdia ofizialki sortu zenean OICE (Organización de Izquierda Comunista de España) izena hartu zuen. 1977ko urtarilean, ordea, MCEk bezalaxe, bere sigletatik bukaerako *Ea* erauztea erabaki zuen, nazionalitateen borroken elkartasunez. Euskaraz Ezker Komunist Erakundea (EKE) erabili zuen. MC eta OIC fusionatu zirenean (1978ean) 6 hilabetez, alderdiak izen bikoitza mantendu zuen MC-OIC, eta Euskadin EMK-OIC erabili zuten.

395 Joel Sans Molas, *Militancia, vida y...* 650.

396 *Ibid.* 161-166.

397 Ikus bedi 9.1. atala *Alderdi iraultzaileen ardatz kronologikoak*.

398 Joel Sans Molas, *Militancia, vida y...* 153-155.

ekonomiko nekazariak utzi eta kalera jaitsi behar izan zuten, hau da, proletarizatu egin ziren³⁹⁹. Honekin guztiarekin batera, mugimendu kristauean gertatutako erradikalizazioaren ondorioz, Herri Gaztediren eta JOCeke sektore batzuek NOC sortu zuten⁴⁰⁰. Jatorri hori izanagatik kideetako askok formakuntza kristaua zuten eta berriki proletarizatutako langile euskaldunak (baserritar ohiak) ziren. Elkarte katalanaren eta gipuzkoarraren arteko fusioak, 1974ko irailean, OICE (Organización de Izquierda Comunista de España) alderdiari sorrera eman zion⁴⁰¹.

Langile mugimenduari dagokionez, alderdi horrek izaera kontseilista eta ez-sindikala zuen alternatiba bat defendatu zuen. OICk defendatzen zuenaren arabera, langile klasea iraultza sozialistarantz bideratzeko borroka ekonomikoa eta borroka politikoa (antikapitalista) uztartzen zituzten sobieten moduko «klase erakundeak» beharrezkoak ziren, langileen autonomian oinarritutakoak⁴⁰². Horregatik Langile Batzordeetan (CCOO) parte hartzeari uko egin zion eta bestelako taldeak eratzea defendatu zuen; Katalunian, esaterako, Plataforma Anticapitalistas edo Comisiones Obreras de Empresa bezalakoak, eta Gipuzkoan Comites Obreros. Denborak aurrera egin ahala, OIC leninismorantz are gehiago hurbildu zen eta ezaugarri zentralizatuagoak hartu zituen. Horregatik, 1976an langile mugimenduan zeukan sakabanaketa gainditzeko eta langile mugimenduko politikari koherentzia handiagoa emateko, iraganean defendatutako alternatiba horiek guztiak homogeneizatzea erabaki zuen: Comisiones Obreras Anticapitalistas (COA) delakoak sortu zituen, eta horiek Euskal Herrian Comisiones Obreras Anticapitalistas de Euskadi (COAE, Euskadiko Langile Komisio Antikapitalistak ELKA) izena hartu zuten⁴⁰³.

Esan bezala, Hego Euskal Herrian zeukan indargune nagusia Gipuzkoan zegoen eta handik zabaldu zen gainerako herrialdeetara⁴⁰⁴. Gasteizen, esaterako, OICk paper azpimarragarria jokatu zuen 1976ko urtarril eta martxo arteko mobilizazioetan. Nafarroari dagokionez, Javier de Miguelek «Plataforma Antikapitalistetako» militanteen agerpen goiztiar baten berri ematen du, 1974ko udaberriko behin-behineko irakasleen mobilizazioetarako sortu ziren «Maisuen Batzordeetan»⁴⁰⁵. Alabaina, ezin izan dugu horrela izan ote zen frogatu. Jakin izan dugunaren arabera, OIC-EKE Nafarroara 1976 inguruan iritsi zen, Gipuzkoatik etorritako hainbat kide *kiskali* Iruñera joan zirenean, bertan alderdia garatzeko helburuarekin⁴⁰⁶. Txomin Garmendia izan zen alderdiak

399 Solasaldi grabatu gabea: Feli Otegi eta Tere González, Iruñea, 2019/XI/21.

400 Joel Sans Molas, *Militancia, vida y ...* 223-225

401 *Ibid.* 241.

402 *Ibid.* 170-173 eta 225-236.

403 *Ibid.* 319-320.

404 *Ibid.* 255-259

405 Javier de Miguel Saenz, *La Organización Revolucionaria de Trabajadores ...* 154-155

406 *Ibid.* 259. Joel Sansek Lizarran ere OICren talde baten berri ematen du.

Nafarroan izan zuen liberatua (Gero EMKko eta Batzarreko kidea izan zen eta hainbat urtez Berriozarko zinegotzi izan da). OIC-EKE Nafarroan talde txikia zen, eta guztira 10 edo 15 bat militante baino ez ziren izanen⁴⁰⁷.

Bestelako erradikalizazio prozesu batzuk

Aipatu berri ditugun horiek izan ziren Nafarroako ezker iraultzailea osatzen zuten alderdi nagusiak. Funtsean, gehien-gehienak esparru estataleko alderdi marxistak eta komunistak ziren. Baina Nafarroan zegoen giro politiko iraultzailea zabalagoa zen eta erradikalizazio giroa orokorragoa zen. Besteak beste, ahozko zenbait iturrik POUM (Partido Obrero de Unificación Marxista, Batasun Marxistaren Langile Alderdia) eta OCE-BR (Organización Comunista de España-Bandera Roja, Espainiako Erakunde Komunista-Bandera Gorria) alderdien agerpen berantiar eta testimonialaren berri ematen dute⁴⁰⁸. Halaber, langile-autonomiaren inguruko militanteek ere presentzia izan zuten. Besteak beste, Joel Sansek utzitako material batzuei esker 1977an «Asamblea Navarra por la Autonomía de Clase» izeneko talde bat izan zela badakigu eta urte bereko azaroan Nafarroako hiru lagunek langile-autonomia koordinatzeko bilera estatal batean parte hartu zuten⁴⁰⁹.

Tafallan langile mugimendu erradikala Iruñerriko dinamiketarik deskonektaturik sortu eta garatu zen, ORT edo EMK bezalako alderdien presentzia urriarekin. Ondorioz, hiri horretan langile mugimenduak oso ezaugarri autonomoak izan zituen. Inguruetakoa lantegirik gatazkatsuen Victoriano Luzuriaga galdategia izan zen, baina bestelakoetan ere (Autobideko obrak, Armendariz zapatagintza, eta abar) mugimendu ugari izan zen. Borroka horietatik, Jose Mari Esparza eta Mauricio Olite liderrak nabarmendu ziren⁴¹⁰. Tafallako esperientzia autonomo horietatik urte luzetan

407 Solasaldi grabatu gabea: Txomin Garmendia, Berriozar 2019/III/1. Solasaldi grabatu gabea: Feli Otegi eta Tere González, Iruñea, 2019/XI/21.

408 Mentxu Velaskok eta Juanjo Eziolazak POUMeko militante baten berri (*El Gordo*) eman zuten eta Tere Gonzalezek OCE-BRko Tximo delako batena. Solasaldi grabatu gabea: Iruñea, Mentxu Velaskok eta Juanjo Eziolaza, 2019/XI/15. Solasaldi grabatu gabea: Feli Otegi eta Tere González, Iruñea, 2019/XI/21.

409 Hala ere, ez dugu informazio hori konfirma zezakeen ahozko iturririk lortu. Asamblea Obrera de Navarra por la Autonomía de Clase: *Ante las elecciones: Boicot a la reforma burguesa*, 1977ko ekainaren 4a. Asamblea Obrera de Navarra por la Autonomía de Clase: *Estado actual de los debates en la asamblea*, 1977ko maiatza. EG: *Informe sobre la Asamblea de colectivos por la Autonomía obrera*, Iruñean, 1977ko azaroaren 18an. MO 00781, EHU-HGDF. Joel Sansek utzirik.

410 Jose Mari Espartzaren militantzia politikoa ezkerreko karlismoan hasi zen, eta hori langile mugimendurekin uztartu zuen; Trantsizioan zehar Tafallako zinegotzi izan zen eta gero ezker abertzalerantz hurbildu zen. Egun Txalaparta argitaletxe ezaguneko zuzendaria da. Maricio Olite ere langile mugimenduan hasi zen eta 1979ko foru hauteskundeetan Tafallako Merindadeko ezkerreko hautagaitza bateratuko (Agrupación Electoral Popular de la Merindad, AEPM) parte hartu zuen; ondoren, beste bi legegilditan HBko parlamentari izan zen 1995 arte.

langile mugimenduko antolaketa esperientzia berezia izan zen eta oso ibilbide luzea izan zuen taldea sortu zen: Colectivo Unitario (CU, Kolektibo Unitarioa) izeneko sindikatua⁴¹¹.

Mugimendu abertzaleen artean ere erradikalizazio prozesuak gertatu ziren. ETak Nafarroan egin zituen lehendabiziko urratsak 1964 inguruan izan ziren, Iratxe izeneko komando-pantaila bat erabili zuen herrialdean barneratzeko. Ezker abertzaleak, alabaina, eragin esparru informal bat zeukan arren, frankismoaren hondar urteetan egituraketa ahula eta masa antolakunderik gabekoa izan zen⁴¹². 1976 eta 1977 urteetatik aurrera espazio soziopolitiko hura egituratzen hasiko zen. EAJ, bestalde, ezin daiteke erradikalizaio prozesu horietatik aparte utzi. 60ko hamarkadaren erdialdean EAJren gazteriek (EGI, Eusko Gazte Indarra) ETarenganako erakarpen handia sentitzen zuten, eta horri erantzuteko alderdiak gazteen aktibitateari bultzada bat ematea erabaki zuen⁴¹³. Horretarako, 1966an Iruñean aisialdi ekintzak egiteko gazte-elkarte bat eratu zuten, *Eusko Bazterra* izenekoa. Iruñeko San Jose plazatxoan zuen egoitza eta gero eta modu autonomoagoan jardun zuen. Bi urte eskasetan talde hartako kide batzuk erradikalizatu ziren eta borroka armatua martxan jartzeko saiakera txikiak egin zituzten. 1969ko apirilean Joaquin Artajo eta Alberto Asurmendi (biak EGI eta Eusko Bazterrako kideak) lehergailu bat manipulatzeko ari zirenean hil ziren. Orduan, EAJk Eusko Bazterra ixtea erabaki zuen. Gazteen erradikalizazioaren erakusgarri, lokala garbitzerakoan Che Guevararen zein Mao Zedongen posterrak eta ETaren publikazioak aurkitu zituzten⁴¹⁴.

Karlismoaren parte batek ere erradikalizazio prozesu hura bizi izan zuen. Gerra Zibilean Bando Nazionalaren alde aritu bazen ere, Batasun Dekretuaren ondorioz alderdi ofizial bakarrean xurgatuta derrigortuta ikusi zuen bere burua. Ondorioz, karlismoa «sasiklandestinitate» egoeran geratu zen, bere erritual komunitarioek (Montejurrako urteroko Via Crucisa —edo gurutze-bidea— esaterako) legezko izaten jarraitu zuten arren⁴¹⁵.

Gerraostean, karlismoak frankismoaren aurkako jarrera izan zuen, Espainiak Erregimen Autoritarioa izateari utz ziezaion eta Monarkia tradizional bat izatera pasa zedin defendatzen baitzuen. Francok 1969an Juan Carlos bere oinordeko modura izendatu zuenean, oinordeko karlista bat izendatzeko esperantzak zapuztu zitzaikion karlismoari. Gainera, 1960ko hamarkadan zehar Vatikanoko II. Kontzilioaren ondorioz, karlismoaren zati bat oposiziorantz hurbildu zen. Horrek

411 Colectivo Unitario-LAB, *Obreros somos, 1969-1989: el movimiento obrero en la comarca de Tafalla*, Altaffaylla Kultur Taldea, Tafalla, 1989.

412 Emilio Majuelo Gil, "Movimientos sociales y protesta social en Navarra durante el siglo XX", Jose Miguel Lana Berasain (Koord.), *XX reflexiones sobre Navarra ante el siglo XXI*, UPNA, Iruñea, 2002, 289-322.

413 Jose Luiz Diaz Monreal, *La historia olvidada. EGI en Navarra durante la década de los sesenta*, Ahaztuak 1936-1977, Algorta Getxo, 2009, 46-47.

414 Jose Luis Diaz Monreal, *La historia olvidada...*, 133-135.

415 Aurora Villanueva Martínez, «Organización, actividad y bases del carlismo navarro durante el primer franquismo», *Gerónimo de Uztariz*, 19 (2003), 97-117.

guztiak —Eliza katolikoarekin gertatu bezala— Karlismoa erregimen frankistatik aldendu eta jarrera ezkertiarretara eta oposizio antifrankistara hurbildu zituen.

Don Javierrek bere erregetzatik abdikatu zuenean, eta bere seme Carlos Hugo de Borbonek hartu zuen erregegai postua. Carlos Hugo *Printze Meatzaria* ezizenez ezagutzen zen, Asturiaseko mehatzeetan lanean aritu baitzen ezkutuan, langileen egoera bertatik bertara ezagutzeko. Apez gorriekin eta eta elkarte apostolikoekin gertatu bezala, langileekin kontaktuan egon zenez, jarrera ezkertiarrak barneratu zituen. Orduan, mugimendu karlistak aldaketa handiak bizi izan zituen. 1970ean Comunion Tradicionalista izena alde batera utzi, eta Partido Carlista (Alderdi Carlista, EKA Euskalerriko Karlisten Alderdia) sortu zuten. Alderdi karlistak, sozialismo autogestionarioa eta federalismoa oinarri zuen ideologia ezkertiarra bereganatu zuen, eta FOS (Federación Obrera Socialista, Langile Federazio Sozialista) sindikatua eratu zuen. Gainera, bere oinarrien parte batek modu autonomoan borroka armatua egiteko ekintza talde autonomoak eratu zituen: Grupos de Acción Carlista (GAC, Ekintza Talde Karlistak)⁴¹⁶.

4.2. Lilura iraultzailea

Nafarroako langile mugimenduaren gatazka ziklo berriaren abiapuntua 1966ko Frenos Iruñako greba izan zen⁴¹⁷. Ordutik aurrera, Langile Batzordeek bere existentzia publiko eginen zuten (1968an hain zuzen ere) eta pixkanaka lan-gatazkek hazten eta biderkatzen joan ziren. Hasierako urteetan aldarrikapen gehienak ekonomiko edo sindikalak ziren, baina greba horietan berehala langile mugimendua ezaugarrituko zuen beste elementu giltzarri bat gehitu zen: klase elkartasuna⁴¹⁸. Langileak beren aldarrikapenak betetzeko elkarrekin bultza egitea eraginkorra zela ohartu ziren. Baina ez hori bakarrik, «interes, balio, kultura eta proiektu bereziak dituen berezko talde bateko kide izatearen sentimendu bat» errotu zen haien artean; hau da, klase kontzientzia garatu zuten⁴¹⁹.

Mugimenduak abiada bizia hartu zuen eta laster klase erakundeak (bai CCOO, baita ezker erradikaleko alderdiak ere) garatzen joan ziren. 1971an egoerak koxka bat gorago egin zuen,

416 Joaquin Cubero Sanchez, «El Partido Carlista. Oposicion al Estado franquista y evolución ideologica (1968-1975)», Javier Tusell (konp.), *La oposición al régimen de Franco, Estado de la cuestión y metodología de investigación*, UNED, Madril, 1990, 399-406. Jeremy Mc Clancy, «GAC, Militant Carlist Activism, 1968-1972», William A. Douglas (comp.), *Essays in Basque Social Anthropology*, University of Nevada Press, Reno, 177-185. Javier Onrubia Rebueta, *La resistencia carlista a la dictadura de Franco: Los «Grupos de Acción Carlista» (GAC)*, Mafalia, Madril, 2000.

417 Jose Vicente Iriarte Areso, *Movimiento obrero...* 66-67.

418 Nerea Perez Ibarrola, «Capítulo 20: Mineros y obreros contra Franco: del Encierro en la mina de Potasas a la huelga general de 1975 en Navarra», Jara Cuadrado Bolaños (ed. Lit.), *Las huellas del franquismo: pasado y presente*, Comares, 2019, 390-409.

419 Nerea Perez Ibarrola, *Langileria Berri...* 390-395.

hainbat greba luze eta gogor gertatu baitzen (Eaton Iberican, Potasas de Navarran eta Imenasan)⁴²⁰. Gainera, urte hartan bertan Sindikatu Bertikalerako hauteskundeak deitu ziren eta Nafarroako oposizioeko talde iraultzaileek —PCEk ez bezala— boikoterako deia eta bere karguetako dimisiorako aldarria egin zuten⁴²¹. Gatazka horiek direla medio, urte hartan Nafarroa Espainiako sei probintzia gatazkatsuenen artean sartu zen lehendabiziko aldiz⁴²².

Baina Nafarroako langile mugimenduaren **mugarri garrantzitsuena 1973ko udaberriko Motor Ibericako greba orokorra** izan zen. Motor Iberica Noiangoko lantegi bat zen, kapital atzeritarra zeukan eta nekazaritzarako makinak (traktoreak, uzta-biltzaileak eta abar) egiten zituen. Lan-sari batzuen ordainketen atzerapena zela eta, enpresarien eta langileen arteko desadostasuna gertatu zen. Lantegi hura ez zen tradizio borrokalari handikoa, baina Lan Magistraturak langileei arrazoia eman arren, gatazka ezin konponduz zebilen eta lanuztea egitea erabaki zuten. Lanuztearen ondorioz, nagusiek plantilla osoa kaleratu zuten eta produkzioa Zaragozako Ejea de los Caballeros herrira eramateko mehatxua egin zuen. Makinaria Zaragozara eramaten saiatu zirenean, langileak kamioien irteera trabatzeko eta oztopatzeko asmoz bidean etzan ziren eta Guardia Zibilak indarkeria erabili zuen kamioiei bide egiteko. Langileek handik alde egin behar izan zuten, Arrotxapeko El Salvadorreko elizan giltzapetu ziren eta 1973ko ekainaren 14an langile klaseari elkartasun eske idatzia kaleratu zuten⁴²³.

Gertakari horien ondorioz, greba orokorra zabaldu zen; Iruñerrian lehendabizi eta Nafarroako gainerako industria gunetan hurrengo egunetan. Mugimendu hark, ezustean harrapatu zituen bai CCOO (oraindik 1971ko kolpe errepresiboa gainditzen eta 1972ko atzeralditik ateratzen ari baitzen) baita Erregimena bera ere⁴²⁴. Hasierako uneetan, greba modu espontaneoan eta piketeen bidez zabaldu zen, ondorioz, CCOO zein ezkerreko alderdiei egoerak gain hartu zien. Baina CCOOk eta ORTk hurrengo egunetan egoera kontrolpean hartzea lortu zuten eta greba zuzendu egin zuten bukaerara arte. Greba orokorra eta errepresioa hainbat egunez luzatu ziren, harik eta bederatzi egun beranduago (ekainaren 22an) mugimendua gainbeheran sar zitekeelako zantzuak azaltzen hasi ziren. Greba orokor hark inflexio puntua suposatu zuen, zerrenda luze baten lehendabizikoa izan baitzen. Gainera, erakutsitako gatazka eta konfrontazio maila oso altua izan zen: langile mugimenduak, aurreneko aldiz kaleak modu masiboan okupatu zituen eta Erregimenari

420 Jose Vicente Iriarte Areso, *Movimiento obrero...* 118-121.

421 Jose Vicente Iriarte Areso, *Movimiento obrero...* 109-113. Nerea Perez Ibarrola, *Langileria Berri...* 405-411.

422 Jose Vicente Iriarte Areso, *Movimiento obrero...* 124.

423 Solasaldi grabatu gabea: Andoni Zaro. Iruñea, 2019/IV. Jose Vicente Iriarte Areso, *Movimiento obrero...* Enrique Gonzalez de Andres, «Programa, discurso y actuación del Partido Comunista de España (PCE) en la huelga general navarra de junio de 1973», *Gerónimo de Uztariz*, 33 (2017), 93-114.

424 E5 elkarrizketa: Jesus Urra Bidaurre, Iruñea 2018ko urriaren 30a. Javier de Miguel Saenz, *La Organización Revolucionaria...* 140-143.

aurrez aurreko erronka planteatu zion. CCOOak berrindartuta atera ziren, beren ospea ezagunagoa egin zen eta antolakuntza berrindartu zuten, kidegoa handitu eta hainbat lantegi berritara zabaldu baitziren. Alderdi iraultzaileentzako, bestalde, hainbat aldiz teorikoki defendatu zutenaren erakuspen praktikoa izan zen: PCEn gidaritarik gabeko mobilizazio erradikal zabal eta arrakastatsua egin zitezkeela.

Ordutik aurrera joera orokorra gorakorra izan zen. Mobilizazioak gero eta jendetsuago eta arrakastatsiago bilakatu ziren hurrengo hilabeteetan, eta gainera, mobilizazioetako aldarrikapenak gero eta elementu gehiago txertatzen hasi ziren: mota askotariko deialdiak nahasten ziren. Borroka-fronte bakoitzeko aldarrikapenetatik hasi (auzokoak, ikastetxeak, edota lantokietako aldarrikapen laboralak), beste lantoki batzuekiko elkartasun lanuzteetatik pasa, eta izaera erabat politiko edo antierrepresiboa zutenetara. Aldarrikapen guztiak —hurbilekoak eta konkretuak zirenak zein orokorragoak zirenak— batera egiten ziren, «dena nahasi egiten» baitzen⁴²⁵. Ondorioz, lantegietan etengabeko aktibitatea zegoen eta orduko militanteek esaten duten bezala: «ez zen hilabete bat bera izan soldata oso-osorik kobratu genuenik»⁴²⁶. Gainera, oposizio mugimendu aktibo eta iraultzailea Nafarroako beste eskualde batzuetara zabaldu zen. Neurri txikiagoko herri industrialetan (Tutera, Tafalla, Lizarra, Leitza, Altsasu, Irurtzun, Lesaka...) langile mugimenduak errotzea lortu zuen eta Erriberan nekazarien eta kontserba-lantegietako langileen borroka ugari ziren (Valtierra, Cadreita, Ablitas...)⁴²⁷. Oposizio mugimenduak hiriguneak (eta bereziki Iruñerria) izan zituen erdigune, baina beste eskualdeetan ere nabaritu zen.

Handik gutxira, 1974ko udaberrian Iruñea berriz ere greba orokorraren atarian egon zen, Authi eta Villanuevako lantegietako greben ondorioz⁴²⁸. Urte bereko udazkenean, aldiz, abenduaren 11rako deialdia egin zuten MCEk eta ORTk kontrolatutako Gipuzkoa eta Nafarroako Langile Batzordeek, CCOOko Koordinadora Orokorraren eta PCEn iritziaren aurka. Deialdiak zerrenda bateratu bat zekarren, aldarrikapen ekonomiko eta politikoak nahasten zituen, eta Eskumaldeko CCOOen, ORTren, MCEren, LCR-ETA VI.aren eta LCren babesak jaso zuten⁴²⁹. PCEi-k bestalde, ez zuen deialdiarekin bat egin. Hura ere arrakasta handiko mobilizazioa izan zen, osotara Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroako 200.000 bat langile mobilizatu zituelako⁴³⁰.

425 Solasaldi grabatu gabea: Begoña Zabala. Iruñea, 2019/VI/19.

426 E6 elkarrizketa: Jesus Mari San Martin Asiain. Iruñea, 2018/XI/15.

427 E7.1 eta E7.2 elkarrizketa: Angel Oliver Santos. Iruñea, 2018ko azaroaren 23a eta 2019ko urtarrilean. Edurne Yanizekin batera, Nafarroako Oroimen Historikoko Funtz Dokumentalean depositatua. E17 elkarrizketa: Jesús Casajús Martínez. Iruñea, 2019ko abuztuaren 26a

428 Jose Vicente Iriarte Areso, *Movimiento obrero...*196-201. ORT, *Historia del movimiento ...* 204-214.

429 LCR-ETA VI.aren Zuzendaritza Batua, *El día 11 todos a la huelga general*, 7/XII/1974, MO 00552 EHU-HGDF.

430 Daniel Escribano Riera, «Las Jornadas De Lucha De Diciembre De 1974 En El País Vasco», Fundación Salvador Seguí-Madrid (koord.), *Las otras protagonistas...* 603. Jose Vicente Iriarte Areso, «Otoño caliente en Navarra. La

Greba horrek Hego Euskal Herrian PCEren eta indar iraultzaileen artean zegoen indar korrelazio berezia agerian utzi zuen. Mobilizazio horren bidez PCEren ezkerera kokatzen ziren alderdiek giharra erakutsi zuten eta errespetua irabazi zuten, eta PCEk eta ezker abertzaleak itxura ahula eman zuten. PCEk deialdiaren aurkako mezuak zabaldu zituen, baina toki batzuetan —mobilizazioaren zabaltasuna ikusita— Alderdi Komunistako kideek mobilizazioetan parte hartzea beste erremediorik ez zuten izan⁴³¹. Ezker abertzaleak, bestalde, beste deialdi bat prestatu zuen abenduaren 2rako eta 3rako, baina giroa berotzen lagundu zuen arren, abenduaren 11koak baino oihartzun txikiagoa izan zuen⁴³². Ezker abertzalea oraindik ETAren VI. Biltzarreko zatiketarik berreskuratu gabe zegoen, eta ondorioz, langile mugimenduan eragiteko ahalmen mugatua zeukan. Adar militarrek oraindik ENAMen muina izaten jarraitzen zuten eta horrek gizarte mugimenduetan eragiteko ahalmena kentzen zion, ezker abertzale *zibila* eratzeko lehendabiziko urratsak ematen ari ziren arren⁴³³.

Hurrengo hilabeteetan mobilizazioek etenik gabe goraka jarraitu zuten. Besteak beste, ez ditugu ahaztu behar Potasaseko meatzarien itxialdiarekiko elkartasun greba (1975eko urtarrilean), ETAko eta FRAPEko militanteen Gerra Kontseiluen aurkako mobilizazioak (1975eko udan eta udazkenean), Gasteizko Martxoaren 3koa (1976) edo amnistiaren aldeko eta errepresioaren aurkako hainbat eta hainbat mobilizazio eta greba orokor⁴³⁴. Ikusi dugun bezala, Motor Ibericako grebatik 1977ko hauteskundeetara arteko epealdian, etengabeko mobilizazioa egoera izan zen.

Mobilizazio horietan guztietan ezker iraultzaileak izan zuen paper azpimarragarria aitortu beharrekoa da: Nafarroa Garaiko borroka antifrankistaren, langile mugimenduaren eta gizarte mugimendu nagusien dinamizatzailer eta abangoardia aktiboenak izan baitziren. Gainera, gizarte sektore zabalen onarpena eta errekonozimendua zeukaten eta militanteek babes hori sentitzen zuten⁴³⁵. Baina ez bakarrik langile mugimenduan, beste gizarte mugimenduetan ere borroken dinamizatzailer eta antolatzaile papera jokatu zuten. Auzo mugimenduak, esaterako, langile auzoetako biztanleen beharren inguruko borrokek antolatu zituen, azpiegitura eta bizi-baldintza egokiagoak eskatzeko. Bada, Iruñea, Lizarra eta Tuterako auzo elkarteetan ezker iraultzaileko militanteak egon ziren. Nafarroako mugimendu feministan, halaber, ezker iraultzailearen

huelga general del 11 de diciembre de 1974» *Geronimo de Uztariz*, 14-15 zbk. (1999), 105-121.

431 Daniel Escribano Riera, «Las Jornadas De Lucha...», 602-603 eta 605.

432 *Ibid.* 599-600.

433 Pedro Ibarra Guell, *La evolución estratégica de ETA (hasta después de la tregua)*, Kriselu, Donostia, 1989, 85-95.

434 Potasaseko greba honako lanetan jasoak: Jose Luis Diaz Monreal, *Las huelgas de Potasas*, Algorta, Ahaztuak, 2012. ORT, *Historia del movimiento obrero navarro: 25 años de lucha 1950-1975 ...* 265-300. Nerea Perez Ibarrola, «Capítulo 20: Mineros y obreros contra Franco...».

435 E6 elkarrizketa: Jesus Mari San Martin Asiain. Iruñea, 2018/XI/15.

militanteek ere oso paper garrantzitsua jokatu zuten, lehendabiziko elkarte talde feministen sorreran parte arte aktibo izan baitziren.

Alabaina, ezker iraultzaileak mugimendu eta mobilizazio horietan parte hartzen zuen elementu antolatu aktiboena zen arren, mobilizazioen gainean zeukan gidaritzza eta kontrola eztabaidagarria zen; izan ere, mobilizazioak batzuetan oso modu espontaneo eta kontrolatu-gabean gertatzen ziren. EMKko Jesus Urrak oso modu grafikoan azaldu zigun: «mugimendua antolatu egiten genuen, baina ez genuen kontrolatzen»⁴³⁶. Masa mugimendua autonomia handia zeukan eta batzuetan oso modu espontaneoan aritzen zen, bereziki eraso errepresiboei eman beharreko erantzunetan, horietan mobilizazioak bat-batekoak eta masiboak izaten baitziren, Gasteizko sarraskiari edo Amnistiaren Aldeko Astean gertatutako heriotzei emandako erantzuna bezala. Zentzu horretan, Iruñerriko langile mugimendua «gutxi antolatua» zegoela baina «abangoardia oso militanteak» zeuzkala esan izan dela kontuan hartu behar dugu⁴³⁷.

Hala ere, urte horietan langile mugimenduaren eta oposizioaren edozein mobilizaziok «arrakasta ia ziurtatua» zeukan⁴³⁸. Langile mugimendua oso aktibo zegoen eta klase erakundeek protesta eta mobilizazioak egiteko baliabide eraginkorrak zituzten. Horren ondorioz, errepresioa oso gogorra izanagatik ere, aldarrikapenak lortzeko ahalmen handia zeukaten. Hainbestekoa zen langile mugimenduaren ahalmena ezen lantoki batzuetan eskala txikiko *errebeldia* eta *insubordinazio* keinuak egiteko ahalmena baitzuten, eta askotan zuzendaritzak langile mugimenduaren eskakizunei men egitea besterik ezin zuen egin. Super Ser-en esaterako:

(...) momentu batetik aurrera, hainbesteko indarra genuen, barrakaren nagusi izan ginela. Orduan, pentsa: arduradunak lankide bati bere lehengusinarekin ezkontzara joatea debekatu zion. Guk greba [egin genuen] arduraduna bidaltzeko. Eta hantxe egon ginen aste bete greban. (...) eta gu etsitzeko zorian geundenean, zuzendaria amore eman zuen, eta arduraduna bota zuten. (...) Hori zen giroa. (...) Gehiegizko indarrak galtzen gintuen. (...) Ez bakarrik soldatengatik edo lan baldintzengatik. Norbaitek urteak betetzen bazituen festa bat egiten zen. Kronometratzaileak ez ziren katera jaisten ausartzen, (...) eta ondorioz gure lanpostuetako topeak [oso baxuak ziren], eta beraz zenbaitek lana hiru orduan bukatzen zuten. Eta terrazara joaten ziren eguzkia hartzera eta zuzendaritza guztiak ikusten zituen. Hau da, botere bat genuen... berez *kontrabotere* bat zen⁴³⁹.

1970eko hamarkada erdialderako borroka borborka zeuden, garai hartan giro soziopolitikoak irakiten ari zela baitzirudien; borroka fronte guztietan (langile, ikasle eta auzo mugimenduetan, esaterako) askapenaren aldeko eta bizitza hobea baten aldeko borroka azaleratzen ziren. Hasiera batean, 60ko hamarkadaren bukaeran, borroka sortzea zaila eta nekeza zen. Behar gorriak zeuden

436 E5 elkarrizketa: Jesus Urra Bidaurre. Iruñea, 2018/X/30.

437 Nerea Perez Ibarrola, *Langileria Berri...* 442.

438 E5 elkarrizketa: Jesus Urra Bidaurre. Iruñea, 2018/X/30.

439 *Ibid.* Azpimarra gurea da.

arren, ez zen erraza jendea mugiaraztea, beldurrak pisu gehiegi baitzeukan oraindik. Beraz, urrats txiki bakoitzak lan politiko eta militante handia eskatzen zuen. Baina urteak pasa ahala, mugimenduak eragin esparruak zabaldu eta ahalmena lortu zuen heinean, borroketan garaipena lortzeko probabilitateak handitu ziren, eta horrek borroka berriak sor zitezela laguntzen zuen. 1970ko hamarkada erdialderako arrazoi egokiak edukita eta giroa pixka bat xaxatuz gero, edozein aldarrikapen lor zitekeela zirudien⁴⁴⁰. Lantokietan langileek mobilizazioak egiteko tresna eraginkorrak zituzten (klase elkartasuna eta Langile Batzordeak) eta horien ondorioz, zenbaitetan, enpresarien autoritatea kolokan jartzeko gauza ziren. Militante gutxi batzuekin, gainera, mobilizazio jendetsuak lor zitezkeen. Lantegi batzuetan oso gutxi ziren antolatutako langileak, baina karisma handia eta izen ona zuten, lidergoa errekonozitzen zitzairen eta beren lankideek haiengan konfiantza handia izaten zuten. Militante diziplinatu batek ehundaka lagun borrokara aterarazi zitzaizkeen: bai lantegi, bai ikastetxe, baita auzoetan ere.

Kaleetan, bestalde, egoera kontraesankorra zen, giro errepresiboak gogorra izaten jarraitu baitzuen. Oposizioak pixkanaka askatasun espazioak irabazi zituen, baina espazio horiek konkistatu ahala, Erregimenak modu gogorragoan erantzuten zuen eta bien arteko talkak larriagotu ziren. Baina Gobernuak nekez mantentzen ahal zuen kalearen kontrola eta ezkerreko oposizioak Erregimenari irabazten ahalko ziola zirudien.

Hainbestearinoko ahalmena zen langile mugimenduarena, ezen kasu batzuetan burgesiaren autoritatea eta ordena soziala bera kolokan jarri zituela. Gainera, mobilizazio arrakastatsuei esker, lanaren errenta kapitalarenaren gainetik hazi zen. Hau da kapitalisten mozkin tasa jaisten hasi zen⁴⁴¹. Horren guztiaren ondorioz, momentu batzuetan **egoera aurre-iraultzaile baten aurrean zeudelako sentsazioa** zabaldu zen ezker iraultzaileko militanteen artean⁴⁴². Baina pertzepzio hori batez ere abangoardia politizatuenaren artean zabaldu zen, eta errealitatea ez zen guztiz horrelakoa.

440 Solasaldi grabatugabea: Txomin Garmendia. Berriozar, 2019/III/1.

441 Sebastian Balfour, *La dictadura, los trabajadores, y la ciudad. El movimiento obrero en el área metropolitana de Barcelona (1939-1988)*, Alfons el Magnanim, Valentzia, 1994, 235. Emmanuel Rodriguez Lopez, *Por qué fracasó..* 34-36. Jesús Albarracín, «La extracción del excedente y el proceso de acumulación», Miren Etxezarreta (koord.), *La reestructuración del capitalismo en España*, Fuhem, Madrid, 1991.

442 David Beorlegui Zarranz, *Transición y...* 75-90

5. Bi elementu giltzarri: estrategia iraultzailea eta nazio auzia

Ezker iraultzailean militatzeak praxi politikoa eta konpromiso nekaezina esan nahi zuen. Militanteei garai eta mugituenetan apenas geratzen zitzaien aisialdiaz eta denbora libreaz disfrutatzeko denborarik. Buru-belarri ibiltzen ziren, erabat konprometituta, eta borroka bizia, sutua eta etengabekoa zen: «Egunero zegoen kalera ateratzeko arrazoiren bat»⁴⁴³.

Baina eguneroko praktika militanteaz gain, zenbait gai teorikok ere garrantzi handia zeukaten. Gai teoriko horiek, ezker iraultzailearen praxia justifikatzeko, militantzia mobilizatu eta mugiarazteko eta talde identitatea indartzeko balio zuten, besteak beste. Atal honetan, ezker iraultzailearen historian garrantzi handia izan zuten bi auzi teoriko landuko ditugu: estrategia iraultzailea eta nazio auzia.

5.1. Estrategia Iraultzailea: Iraultza, Haustura eta Erreforma

Estrategia iraultzailearen garrantzia

Borroka antifrankistaren emaitza diktaduraren higadura eta eredu mendebaldarraren tankerako demokrazia parlamentarioa izan ziren. Horregatik, oso maiz, *borroka demokratiko huts* modura identifikatu izan da oposizio antifrankistaren borroka. Baina, talde antifrankistetan aritzen ziren militanteen parte handi bat ez zituen *demokrazia burgesa* eskuratzeko nahiak bultzatzen, bai ezker iraultzaileak baita PCEk berak ere borroka antifrankista sozialismoaren aldeko borrokarekin lotzeko helburua baitzuten⁴⁴⁴. Borroka antifrankistan aritzen ziren alderdiak komunismoaren helburuak mugiarazten zituen eta jomuga hartara iristeko bitartekoa iraultza sozialista zen. Horregatik, alderdiek momentuko egoeratik iraultza sozialistara ailegatzeko bidea zein zen hausnartu eta teorizatu zuten. Frankismo garaiko alderdi ezkertiarren helburua iraultza sozialista edo demokrazia lortzea ote zen argitzeko, Enrique Gonzalez de Andres historialariak estrategia

443 E15 elkarrizketa: Patxi San Juan Calud eta Jose Luis Arellano Ansó. Tuter, 2019/VIII/23.

444 Juan Sisinio Perez Garzon, «La dictadura del proletariado en la transición: ¿en el corazón de la izquierda?», Rafael Quirosa-Cheyrouze y Mónica Fernández Amador (Ed.), *Poder y Transición en España. Las instituciones políticas en el proceso democratizador*, Biblioteca Nueva, Madril, 2017. Francisco Javier Fernández Buey, «¿Qué democracia queríamos los comunistas?», Manuel Bueno Lluch (ed. lit.), Sergio Gálvez Biesca (ed. lit.), *Nosotros los comunistas: memoria, identidad e historia social*, FIM, Madril, 2009, 391-404.

iraultzailearen teorizazioaren inguruko ikerketan sakontzeko garrantzia azpimarratu du, teorizazio eta estrategia eztabaida horietan islatu baitzen ezkerreko alderdi antifrankisten nahiak eta helburuak zeintzuk ziren⁴⁴⁵.

Marxek eta Engelsek harreman sozialen eta ekoizpen ereduaren arabera Estatuak eta gizarte gainegiturak forma bat edo beste hartzen zutela ondorioztatu zuten. Materialismo historikoaren arabera, gizateriaren historian zehar hainbat aro edo aldi gertatu dira; horiek ekoizpen ereduaren eta ekoizpen indarren garapenaren araberrakoak lirateke, eta klase borroka historiaren motorren papera jokatu luke. Alabaina, Marxen heriotza eta gero, bere ondorengoen artean eztabaida teorikoa piztu zen. Eztabaida horien arteko bat iraultza gertatzeko kapitalismoaren heldutasunaren araberrako zen, izan ere, marxista batzuen ustez kapitalismoaren heldutasuna ezinbesteko aurrebaldintza zen iraultza sozialista gerta zedin. Auzi hori, beste batzuekin batera, sozialdemokrazia alemaniarraren eta II. Internazionalaren barruko eztabaiden zein boltxebike eta mentxebikeen arteko zatiketaren elementuetako bat izan zen⁴⁴⁶. Esan bezala, marxismoaren korranteetako batzuen ustez, sozialismoaren aurreko urratsa kapitalismoaren fase inperialista (edo *estatu-kapitalismo monopolista*) litzateke, eta soilik ekonomiaren garapen maila hori lortutakoan leudeke iraultza sozialista gertatzeko baldintzak helduak eta onduak. Frankismoaren hondar urteetako alderdi iraultzaileen kasuan ere, auzi horrek garrantzi handia izan zuen. *Iraultza burgesa* (edo iraultza industrial) burutua ote zegoen edo ez argitzea erabakigarria zen, analisi horren arabera, gizarteko kontraesanak modu batekoak edo bestelakoak liratekeelako eta momentuari iraultzaren etapa bat edo bestea egokituko litzaiokeelako. Frankismo garaiko alderdi ezkertiarak iraultzaileak izanagatik ere, den-denek ez zuten uste borroka antifrankistari iraultzaren fase bera zegokionik.

Esan bezala, tradizio komunistaren parte ziren alderdientzako Espainiako ekonomiaren garapen maila nolakoa zen aztertzea ezinbestekoa zen. Oro har bi eredu nagusi zeuden. Alde batetik, Espainiako ekonomia ordurako herrialde industrial garatua zela uste zutenak zeuden, *iraultza burgesa* burutua zegoela ondorioztatu zutenak alegia. Horiek iraultzari zegokion hurrengo urratsa iraultza sozialista zela defendatzen zuten, gizartearen kontraesan nagusia burgesiaren eta proletariotzaren artekoa zelakoan. Baina, bestaldetik, Espainiako kapitalismoa oraindik erabat garatua ez zela ondorioztatzen zutenak zeuden, arrasto feudal eta latifundistak zituelakoan edo egoera koloniala zelakoan. Horien ustez, gizartea ez legoke iraultza sozialistarako prest eta alde

445 Enrique Gonzalez de Andres, «Del antifranquismo a la revolución. Partido Comunista de España vs Izquierda Radical», Ana Sofia Ferreira e Joao Madeira, *As Esquerdas...* 13.

446 Montserrat Galceran Huguet, *La invención del marxismo, (estudio sobre la formación del marxismo en la socialdemocracia alemana de finales del s. XIX)*, Iepala, Madril, 1997. Eric Hobsbawm (zuz.), *Historia del marxismo*, 4 liburuki, Bruguera, Bartzelona.,1981. Leszek Kołakowski, *Las principales corrientes del marxismo*, 3 liburuki, Alianza Editorial, Madril, 1980.

aurretik beste etapa batzuetatik igaro beharko zutela uste zuten. Kasu horretan, hori defendatzen zuten alderdiek iraultzarako estrategia *etapista* (hots, hainbat urratsetan oinarritutakoa) hartzen zuten, eta orokorrean aliantza interklasisten alde agertzen ziren.

Estrategia iraultzailearen inguruko eztabaida, teorikoegia iruditzen ahal zaigun arren, bere garaian oso garrantzitsua izan zen, auzi teoriko hutsa baino gehiago zelako. Alde batetik, kontuan hartu behar da eztabaida horrek praxi politiko hurbila baldintzatzen zuela; aukeratutako estrategia iraultzailearen arabera, hautu taktikoak, aliantza politikak edo eguneroko praxi militantea oso ezberdinak izan zitezkeelako. Bestaldetik, estrategia iraultzaileak banalerro ideologiko garrantzitsu modura balio zuen. Ezker iraultzailearen existentziaren arrazoi nagusia sozialdemokraziaren eta alderdi komunisten moderazioari aurre egitea zen; horiek sistema kapitalistan (edo liberal-burgesean) integratu zirela eta iraultzari uko egin ziotela uste zutelako. Bestela esanda, alderdi erradikalen printzipio ideologiko nagusiak iraultzailetasuna berreskuratzeko grinan zeutzan, eta zentzu horretan, ezkerreko alderdi iraultzaile gehienek beren burua koherenteenaren modura zeukaten. Ondorioz, iraultzaren nolakotasunaren inguruko eztabaida estrategiko horiek alderdi iraultzaile koherenteen eta erreformisten arteko banalerro identitarioa ezartzeko balio zuten. Oso maiz, ezker iraultzailearen diskurtsoa erreformismo moderatuaren aurka eraiki zen, eta Espainiaren kasuan, batez ere PCEren aurka, oposizio antifrankistaren lidergoa zeukalako. Alderdi erradikalak beren burua hura baino ezkerreago, iraultzaileago eta koherenteago kokatzen saiatu ziren.

Alabaina, alderdi iraultzaileen jarrera politikoa ez zen estatikoa eta unibokoa izan, gertakizun ezberdinen arabera egoerara moldatu behar izan baitzuten. Diktaduraren oinarri sozialak higatu ahala eta Francoren osasun arazoak larritu ziren heinean, 1974tik aurrera, Erregimenaren zati batek sistema frankistaren erreforma kontrolatu bat egin zezakeelako ustea zabaldu zen. Ondorioz, oposizioko indarrek ordura arte mantendu zituzten estrategia eta teorizazio iraultzaileak moldatu behar izan zituzten, epe motz edo ertainean gerta zitezkeen aldaketetara moldatzeko. Egoera aldaketa horri erantzuna emateko, oposizioko erakunde unitarioak eratu ziren eta Haustura Demokratikoaren alternatiba itxuratu zen.

Atal honetan, ezker iraultzaileko alderdiek defendatzen zituzten estrategia iraultzaileak aztertu eta haien artean konparatuko ditugu. Halaber, esparru estataleko alderdi iraultzaileentzako lehiakide ziren beste bi korronte ezkertiarrek (PCEk eta ezker abertzaleak) egindakoekin alderatuko ditugu.

Korronte ideologiko nagusiak

Ezker iraultzaileko alderdi gehienek egoera soziala aztertu eta estrategia iraultzaileak diseinatzeko marxismoaren erreferente ideologikoengana jotzen zuten. Gehienetan antzeko erreferenteak (Marx, Engels, Lenin, ...) zituzten, baina ñabarduren arabera bestelako ekarpenei ere garrantzi handia ematen zieten: Troski, Mao Zedong, Iosif Stalin, Antonio Gramsci, Frantz Fanon, Rosa Luxemburgo, André Gorz, Ernest Mandel, Louis Althusser, ... Ondorioz, oso antzekoak ziren oinarriak eduki arren, ikuspuntu ezberdin ugari zegoen eta espazio politiko mehar eta txiki berean zatiketa handia zegoen.

1960ko eta 1970ko hamarkadetan **gehien indartu zen korrante komunista maoismoa edo Mao Zedong pentsamendua** izan zen. Txinako eredu sozialista garaiko militante iraultzaile askorentzat erakargarria suertatu zen. «Ekhialdeko haizea» Europaraino iritsi zen eta militante iraultzaile askoren kontzientziak astindu zituen⁴⁴⁷. Maoismoak III. Internazionalaren iturritik edaten zuenez, bere jarraitzaileek marxismo-leninismoaren funts nagusiak jarraitzen zituela uste zuten, eta berrikuntza handirik ezean aldaera eguneratu bat baino ez zela zioten. Ondorioz, bere korronteari erreferentzia egiteko *marxismo-leninismo Mao Zedong pentsamendua* aberastua izendapen luzea erabiltzen zuten gehienetan.

Mao Zedong pentsamendua haustura txinatar-sobietarraren ondorioz sortu zen. Stalinen heriotzaz geroztik (1953), bloke sozialistaren arrakalak ireki ziren eta Txina eta SESB elkarrengandik aldentzen joan ziren. Sobietar Batasuneko Alderdi Komunistaren XX. Kongresuan Nikita Khrustxov-ek estalinismoa kritikatu zuenean, bien arteko urruntzea gauzatzen hasi zen, 1962an erabateko haustura gertatu zen arte. Haustura horrek bi arrazoi nagusi izan zituen: bi potentzien arteko lehia geostrategikoa eta auzi ideologikoa. Khrustxovek Stalinen garaiko aginte eredu kritikatu zuen, eta hirugarren mundu gerra bat saihesteko asmoz, kapitalismoarekin *bakezko bizikidetz*a eta *sozialismoranzko trantsizio bide baketsu eta parlamentarioa* defendatu zituen. Txinak, ordea, jarrera horren aurrean bere burua ortodoxia zorrotzaren zaintzaile modura aldarrikatu zuen, hau da, jatorrira itzultzeko hautua egin, eta Stalinen ondare politikoa berreskuratzea zein III. Internazionalaren sustraietara itzultzea defendatu zuen. Txinaren ustez, ildo sobietar berriak marxismo-leninismoaren funts ideologikoak zentzu negatibo batean *berrikusten* zituen, eta horregatik SESBi «errebisionista» eta «sozialinperialista» izatea leporatu zion, iraultza alde batera utzi zuelakoan eta internazionalismo proletarioa interes geostrategikoengatik ordezkatu zituelakoan⁴⁴⁸.

447 Euskaraz daukagun *Liburu Gorria*-ren itzulpen bakarra Federiko Krutwig-ek egin zuen 1970eko hamarkadaren hasieran. Leizarragak zerabilen lapurtera klasikoa hartu zuen eredu modura. Mao Zedong, *Mao Tzedung Buruzagiaren aiphuak edo Liburu Gorria*, EHK. <https://labur.eus/hqjCf> (2020ko ekainean kontsultatua). Mao Zedong, *Citas del predidente Mao Tse-Tung. (El libro rojo)*. Akal, Madril, 2018.

448 Brenda Rugar, «El debate chino-soviético y la emergencia del maoísmo como corriente política diferenciada en el Movimiento Comunista Internacional», *Historia contemporánea*, 57 (2018), 559-586. Julio Perez Serrano, «Servir

Laster, nazioarteko mugimendu komunistan, txinatarraz eta sobietarraz gain, beste ildo bat sortu zen. Europa mendebaldeko herrialdeetako alderdi komunistak ordura arte Moskurekiko fidelak izan baziren ere, Hungariako altxamenduaren (1956) eta Pragako Udaberriaren (1968) zapalkuntza bortitzen ondorioz, alderdietako batzuk sobietar diziplinatik urruntzen hasi ziren: batik bat Frantzia, Italia eta Espainiakoak. Bere helburua SESBen eredutik urruntzea zen eta beren jatorrizko herrialdeetan itxura demokratikoago eta autonomoagoa (sobietarrendandik ez horren menpeko, alegia) ematea zen. 70eko hamarkadaren erdialdean korronte horri *eurokomunismo* izena jarri zitzaion. Maoistek, korronte berri honi ere, aurrekoaren bizio eta gaitz berak leporatu zizkieten: pasibotasuna, iraultzaren zabalkuntzari eta borroka armatuari uko egin izana, eta ondorioz, alderdi erreformista bilakatu izana. Horregatik, sobietarrei bezala, alderdi hauei ere «errebisionista» izatea leporatuko zieten⁴⁴⁹.

Militante iraultzaile askorentzat maoismoak komunismo sobietarraren aurrean alternatiba erakargarria eta exotikoa ematen zuen 1960ko eta 1970ko hamarkadetan. Baina erakargarritasun eta exotismo haiek sarri ezjakintasunean oinarrituta zeuden, Txinan gertatzen ari ziren giza eskubideen urraketen eta indarkerien berririk jakiterik ez baitzegoen.

Alabaina, Europan maoismoak oso modu ezberdinean eragin zuen, hura ulertzeko askotariko moduak egon baitziren. Zentzu horretan, hainbat autorek maoismoaren bi olatu ezberdinu dituzte⁴⁵⁰. Lehendabizikoa, haustura txinatar-sobietarra gertatu berritan sortu zen eta estalinismo zorrotzenaren birsortze baten modura aplikatu zen. Bigarren olatuan, aldiz, Txinako Iraultza Kultural Proletarioaren inspirazioaren ondorioz, zorrotasun iraultzailea eta jokamolde koherenteak mantentzea helburu zuten kontzeptu etikoek eragin handiagoa izan zuten. Bigarren irakurketa hark komunismoaren hainbat dogma kolokan jartzen zituen eta irakurketa «libertarioagoa» izan zuen emaitza gisa⁴⁵¹.

Maoismoak *etapaka* egindako iraultza defendatzen zuen, batik bat Txinako iraultzaren esperientzia oinarri hartuta; baina baita III. Internazionalen garaiko Fronte Popularren tradizioarena ere. Txinako Iraultzaren prozesu luzean, Alderdi Komunistak oso harreman korapilatsua izan zuen Kuomintang (KMT, Alderdi Nazionalista Txinatarra) alderdi nazionalista, errepublikazale eta burgesarekin; izan ere, bien arteko elkarlan eta etsaitasun garaiak tartekatu ziren.

al pueblo: trayectorias del maoísmo en la península Ibérica», *Berceo*, 173 (2017), 199-216. Eduardo Gonzalez Calleja, *Socialismos y comunismos. Claves históricas de dos movimientos políticos*, Paraninfo, Madril, 2017, 210-211 eta 239.

449 Julio Perez Serrano, «Servir al pueblo...», 201. Emanuele Treglia, «Los vientos de Checoslovaquia. El PCE y el 68 del comunismo», Abdon Mateos Lopez, Emanuele Treglia, *Las convulsiones del 68...* 95-116.

450 Julio Perez Serrano, *Orto y ocaso, ...* 255-261. Miguel Cardina, «Génesis, estructuración e identidad del fenómeno maoísta en Portugal (1964-1974)» *Ayer*, 92 zbk. (2013) 123-146.

451 Brenda Rugar, «El debate...» 583.

Alderdi Komunistak uste zuen Txinaren moduko herrialdeetan (inperialismoak zapaldutakoa eta ekonomia nagusiki nekazaria zeukana) burgesia nazionalak izaera aurrerakoia zeukala, eta horregatik, Gerraren Jaun feudalen (1927ra arte) aurkako edo inperialismo japoniarraren aurkako (1936-1946) borroketan elkarrekin aritu ziren nazionalistak eta komunistak; baina bitartean, Gerra Zibil eta etsaitasun (1927-1936 eta 1939-1949) garaiak txandakatu ziren. Txinako Gerra Zibila bukatutakoan Kuomintanga kontinentetik kanporatu zuen Armada Gorriak eta 1949ko urriaren batean Txinako Herri Errepublikak aldarrikatu zen, eta Mao Zedong *Lemazain Handia* gobernuburu izendatu zuten⁴⁵².

Orduan, estatu sozialista aldarrikatu beharrean, Gobernuak trantsizio fase baten moduko sistema eratu zuen: *Demokrazia Berria* (1949-1952), zenbaitetan *Demokrazia Herrikoia* ere deitu izan dena. Aginte mota hori lau klase sozialen arteko aliantzan oinarritzen zen (kapitalista nazionalak, proletariotza, nekazalgora eta burgesia txikia), eta klase kontrairaultzaileen (burgesia ertainaren, lur-jabeen, inperialismoaren eta Kuomintangaren) aurkako «diktadura-demokratikoa» zen. Aginte mota hori ez zen erabateko erregimen sozialista, trantsizio fase bat baizik. Izan ere ekonomiaren zati batzuk oraindik pribatuak ziren eta lur guztia ez zegoen erabat kolektibizaturik⁴⁵³.

Hala ere, handik gutxira, Koreako Gerran (1950-1952), Sobietar Batasuna eta Txinako Errepublika Demokratikoa estatubatuarren aurka elkarlanean aritu ziren. Bi herrialdeen arteko elkarlaguntzaren ondorioz, 1952tik Txinak Demokrazia Berria gainditzea eta sozialismoa aldarrikatzea erabaki zuen, sobietarren eredu bosturteko planak eta ekonomia planifikatua erabiliz.

Bere garaian Txinan egin bezala, maoistek iraultza bi urratsetan egin behar zela uste zuten. Lehendabizi etapa demokratiko-herrikoia egin behar zela defendatzen zuten, sektore burges aurrerakoiekin bat egin behar zuten gainditu gabe zeuden iraultza burgesaren zereginak bukatu eta gizartean egon zitezkeen aztarna feudal edo atzeratuak ezabatzeko. Gainera, herrialdearen izaera koloniala baldin bazen, iraultza horrek ezaugarri nazionalista eta antiinperialistak ere izan zitzakeen. Iraultza demokratiko-herrikoia bukatutakoan, *Errepublika Demokratikoa* edo *Demokrazia Herrikoia* ezarriko zen. Soilik, bitarteko urrats hori gertatu eta gero egiten ahalko zen iraultzaren azkeneko etapa: iraultza sozialista bera, proletariotza eta burgesia aurrez aurre jarriko zituen.

Espainiako alderdi maoistek, horrekin bat eginez, frankismotik sozialismorantz joateko prozesu politiko iraultzailea bi fase edo epe ezberdinetan bereizten zuten: *demokratiko-herrikoia*

452 Gorka Etxeberria Dueñas, *Sozialismoaren historia labur bat*, IPES, Bilbo, 2015, 235, 255-256, 277 eta 288-289. Eduardo Gonzalez Calleja, *Socialismos y comunismos...* 199-205. Lucien Bianco, *Los Orígenes de la revolución china (1915-1949)* Bellaterra, Bartzelona, 1999. Paul J. Bailey, *China en el siglo XX*, Ariel, Bartzelona, 2002.

453 Eduardo Gonzalez Calleja, *Socialismos y...* 205-208. Brenda Rugar, «El debate...» 564-565.

lehendabizi eta *sozialista* ondoren. Korrante maoista batzuen ustez, Espainiako kapitalismoa ez zen erabat industrializatua eta garatua, feudala edo koloniala (irakurketen arabera) izan zitekeela uste zutelako. Horregatik, maoisten ustez Espainiako iraultzari zegokion etapa ez zen sozialista, baizik eta demokratiko-herrikoia. Horretarako Fronte Popularren moduko aliantza interklasistak beharrezkoak zirela defendatzen zuten.

Sozialismora ailegatu aurreko etapari, Txinan *Demokrazia Berria* deitu bazitzaion ere, Espainian ohikoagoa izan zen *Errepublika Herrikoia* edo *Demokrazia Herrikoia* formulak erabiltzea⁴⁵⁴. Maoistek aurreikusten zutenaren arabera, bitarteko etapa hori klase ezberdinen arteko aliantzan oinarrituko zen diktadura-demokratikoa izanen zen. Erregimen berrian, proletariotzak — gainerako klase antimonopolisten eta antiinperialisten (nekazariak, kapitalista txikiak, intelektual antifaxistak eta burgesia nazionalak) laguntzaz—, sozialismoaren etsaien aurkako diktadura ezarriko zuen, herrialdea inperialismoaren uztarpetik ateratzeko eta oligarkia finantzari eta lur-jabeei boterea kentzeko. Gizarte sektore batzuen gaineko diktadura ezarri bazen ere, iraultzaren alde egin zuten klaseentzako eta masentzako askatasun demokratikoa erabatekoa izanen zen⁴⁵⁵. Halaber, subiranotasun nazionala berreskuratzeko zen, monarkiari buruzko erreferenduma egiten zen, autodeterminazio eskubidea onartzeko zen eta ekonomiaren sektore estrategiko batzuk nazionalizatzeko ziren.

Bestalde, Mao Zedong pentsamenduaren beste ezaugarrietako bat nazionalismoa izan zen. Japoniaren aurkako borrokan aritu izanagatik, Hirugarren Munduko herrialdeengana hurbildu izanagatik eta deskolonizazio prozesuen ondorioz, maoismoak bere egin zituen elementu eta diskurtso nazionalistak⁴⁵⁶. Espainiako ezker iraultzaileko hainbat alderdik Txinako komunismoak erabilitako diskurtsoa inportatu zuen eta aldarrikapenak mimetikoki kopiaitu zituen, zenbaitetan Espainiako egoerara oso bestelakoa zela ohartu gabe, eta ondorioz, errealitatera moldatu gabe. Batzuetan Espainia herrialde koloniala zela ondorioztatu zuten eta diskurtso espainiar nazionalista iraultzailea garatu zuten. Diskurtso nazionalista espainiar horiek, ordea, ez zuten jarraipenik izan eta erretorika hutsean geratu ziren sarri. Nazionalismo espainiar ezkertiarrek ez zuten ibilbide luzerik izan eta periferiako mugimendu abertzaleen berpiztearen eraginez apaldu eta desagertu zen. Espainiako antifrankismoa periferiako aldarrikapenekin egon zen lotuago eta ez hainbeste *espainiartasunari* loturik. Hala ere, maoismoak ere eraginik izan zuen Euskal Herrian; izan ere,

454 Bigarren Mundu Gerra ostean ekialdeko Europan izen horiek erabili zituzten baita ere.

455 Mao Zedong, *Mao Tzedung...* 14.

456 Diskurtso nazionalistak garatzeko joera hori, ordea, ez zen arrotz komunismoarengan. Sobietar Batasunak, esaterako, berdintsu egin zuen Bigarren Mundu Gerra bitartean eta gatazka belikoa hura *Aberri Gerra Handia* izendatu zuen. PCEk beste horrenbeste egin zuen Espainiako Gerra Zibilean, eta *Gerra Nazional Iraultzailea* izendatu zuen.

maoismoak eta anticolonialismoak nazionalismo iraultzailearen garapenean abertzaletasuna eta ezkertiaratasuna uztartzeko prozesuan eragin nabaria izan zuen eta.

Esan bezala, adar marxista-leninistako korronte iraultzaile nagusia Txinako komunismoaren aldekoa izan zen, baina laster, Mao Zedong pentsamendutik beste korronte bat sortuko zen: **hoxaismoa**. 1970eko hamarkadan Txinako Herri Errepublikan gertatutako gobernu aldaketen ondorioz, Asiako erraldoia bere atzerri politika oldarkorra leuntzen hasi zen. SESBekiko zuen etsaitasuna zela medio, Ameriketako Estatu Batuengana hurbiltzen hasi zen, eta Mao zendu zenean (1976), joera hori indartu egin zen. Horregatik, Albaniako PPSH alderdiak (Partia e Punës e Shqipërisë, Albaniako Lanaren Alderdia) bere VII. Kongresuan Txinarengandik erabat aldentzea erabaki zuen, bere burua estalinismoaren defendatzaile sutsu bakar modura aldarrikatzearekin batera. Albaniak eta bere presidente zen Enver Hoxhak Txinaren eredia «marxismoaren aldaera *sozialchauvinista*» modura salatu zuten eta «errebisionismo moderno» bat izatea leporatu zioten⁴⁵⁷. Beraz maoismotik bi korronte sortu ziren: bata *txinazalea* eta bestea *albaniazalea*. Estatu espainolean izan zen alderdi albaniazale bakarra PCEml izan zen.

1970eko hamarkadako korronte iraultzaileentzako beste erreferentzietako bat **troskismoa** izan zen. Oro har, maoismoak baino jarraitzaile gutxiago zituen, baina troskismoak historia luzeago izan zuen, XX. mende hasieratik baitzetorren. Korronte horrek Bigarren Mundu Gerra baino lehenagotik egin zion kritika SESBi zein III. Internazionalerako Alderdi Komunistei, barne demokraziaren faltagatik, ustelkeriagatik eta burokratismoagatik. Baina 1960eko hamarkadan SESBen aurkako kritikak berriz ere hauspotu zirenean, korronte horrek bigarren loraldi bat izan zuen.

Leon Troski (Lev Davidovitx Bronstein, 1879-1940) Errusiako Iraultzako protagonistetako bat izan zen. Hasiera batean Mentxebikeetako kide izan bazen ere, 1917an martxoko eta urriko bi iraultzen arteko abagunean Boltxebikeen alde lerratu zen, eta alderdiko zuzendaritzan goi karguak lortu zituen. Iraultzaren ondorengo urteetan agintaritza karguak izan zituen Alderdi Komunistan zein Sobietar Batasuneko Gobernuan.

Lenin hiltzerakoan, Stalin alderdiaren erabateko kontrola bereganatzen saiatu zen eta bere botere pertsonala indartzeko, errepresio gogorra erabili zuen. Stalinen gero eta botere handiagoaren aurrean, Troskik Stalinen aginteari kritikak egin zizkion, bere ustez, Sobietar Batasuna gobernu tiranikoa bihurtzen ari baitzen. Troskik ere politika errepresibo hori pairatu zuen; bere karguetatik kendu eta 1929an Sobietar Batasunetik kanporatu zuten⁴⁵⁸.

457 Eduardo Gonzalez Calleja, *Socialismos y...* eta 220-221. Julio Perez Serrano, «Servir al Pueblo...», 201-202.

458 *Ibid.* 123-126.

Sobietar Batasunetik kanporatu eta gero, 1930eko hamarkadan Trotskik eta bere jarraitzaileek Hirugarren Internazionalen (Komintern-aren) parte hartzen jarraitu zuten, oraindik ere haiek «degenerazio burokratiko»-tzat identifikatzen zutena erakundearen barnetik borrokatzen ahal zela sinetsita baitzeuden. Faxismoen gorakadaren aurrean III. Internazionalaren politika aldakorra izan zen eta Trotskik horiek guztiak kritikatu zituen faxismoaren eta nazionalsozialismoaren gorakada gelditzeko ezgauza zirelakoan. Hitler boterera ailegatu zenean, Trotskiren jarraitzaileek gertakari hura internazionalaren politikaren porrot gisa ulertu zuten. Erakunde haren politika barnetik aldatzeko inolako aukerarik ez zegoela ikusita (Komintern osoa estalinisten esku baitzegoen), 1938an IV. Internazionala sortzea erabaki zuten. Internazional horren sorrerako manifestua Trotskik berak sinatutako *Trantsizio Programa* izan zen⁴⁵⁹.

Trotskiren heriotzaz geroztik, IV. Internazionala oso ahulduta geratu zen: Bigarren Mundu Gerrako zailtasunek, bere agintarien gaztetasunak eta lidergo faltak bere jarduna erabat zaildu zuten. Gainera, 1950eko hamarkadan hainbat zatiketa bizi izan zituen⁴⁶⁰. 1960ko hamarkadan, ordea, Kubako Iraultzaren epelean, eta nazioarteko giro iraultzaile orokorraren ondorioz, trotskismoa berrantolatu eta biziberritu zen: 1963ko VII. Kongresu Mundialean, trotskismo historikoaren korrante nagusiek IV. Internazionalaren Idazkaritza Batua eratu zuten (gazteleraz SUCI, Secretariado Unificado de la Cuarta Internacional)⁴⁶¹.

Trotskismoak, maoismoak ez bezala, ez zuen *etapakako* iraultza defendatzen, *etengabeko iraultza* baizik. Errusiako Iraultzan boltxebikeak gailendu zirenean, iraultza Europan eta munduan barrena bizkor zabalduko zelako ustea zegoen. Baina Alemaniako Weimar Errepublikak Spartakisten altxamendua zapaldu zuenean (1919) eta hurrengo urteetan faxismoaren gorakada hasi zenean, esperantza horiek desagertu ziren. Orduan, SESB munduko herrialde sozialista bakarra zenez, erabat isolaturik geratu zen. Beraz, hurrengo urteetan, Leninek —eta bere heriotzaren ondotik Stalinek— *sozialismoa herrialde bakarrean* izeneko teoria defendatu zuten. Teoria horren arabera, Sobietar Batasunak, bere biziraupena ziurtatzeko nazioarteko iraultzaren esportazioa atzeratu behar zuen, eta herrialdearen industrializazioa eta garapen ekonomikoa lehenetsi behar zuen. Helburua nazioarteko potentzia militar eta industrial bilakatzea zen, kanpo mehatxuei aurre egiteko eta proiektu sozialista finkatzeko, behin hori lorturik, gainontzeko herrialdeetara iraultza esportatzeko momentua iritsiko zelako ideiarekin.

Ikuspegi horren aurka, Trotskik *etengabeko iraultza* defendatu zuen. Etengabeko iraultzaren teoriaren arabera, iraultza sozialistak internazionala izan behar zuen, hau da, SESBek biziraun

459 Leon Trotski, *Trantsizio programa*, Federico Engels Fundazioa, Euskal Herria Sozialista, 2009. Eduardo Gonzalez Calleja, *Socialismos y...* 149.

460 Daniel Bensaid, *Trotskismos*, El Viejo Topo, Bartzelona, 2007, 50-61.

461 *Ibid.* 72.

zezan iraultza esportatzea beharrezko zen, baita, behar izanez gero, Armada Gorriaren bidez ere. Gainera, iraultzak ez zuen epeakoa izan behar, jarraitua baizik; hots, herrialde kolonial eta menpekoetan iraultzak zeregin demokratikoak bete behar zituen, aldarrikapen demokratikoak programa sozialistarekin batuz; baina prozesuan zehar iraultza demokratikoa iraultza sozialistarekin lotu behar zen, ahalik eta lasterren, bitarteko etaparik ezberdindu gabe⁴⁶².

Gainera, etengabeko iraultzaz gain, troskistek *aldarrikapen trantsitorioak* defendatzen zituzten. 1938ko Trantsizio Programan islatu zen bezala, troskisten ustez, bai sozialdemokraziak baita III. Internazionalak ere, *gutxieneko* programaren aldarrikapen hurbilak eta *gehieneko* programaren lelo iraultzaileak erabat bereizi zituzten, eta ondorioz, gutxieneko programako aldarrikapenen lehentasuna azpimarratzen zuten eta iraultza sozialistaren perspektiba *sine die* atzeratzen zituzten. *Trantsizio Programaren* helburua, aldiz, langileen momentuan momentuko aldarrikapenen eta iraultza sozialistaren (hau da IV. Internazionalaren programaren) arteko zubi lana egitea zen:

Beharrezkoa da masei, borrokaren prozesuan, *euren egungo errebindikazioen eta iraultza sozialistaren programaren arteko zubia aurkitzen laguntzea*. Zubi honek *errebindikazio trantsitorioen sistema bat* izan behar du, egungo baldintzetatik eta langile klasearen kapa zabalen egungo kontzientziazatik abiatuz ondorio bakar eta berera eramango duena: proletariotzaren botere konkistara⁴⁶³.

«Zubi aldarrikapen» horiek ez ziren erabat antikapitalistak, baina oso aurreratuak izanen ziren, sistema kapitalistarentzat beteezinak izateraino, eta ondorioz, langileek bere eskaerak beterik ikusteko sozialismoaren beharraz ohartuko ziren⁴⁶⁴.

Espainiaren kasuan troskistek, maoismoaren aldean, Espainiako iraultzari zegokion fasea sozialista zela zioten eta horretarako, etengabeko iraultzaren teoriari jarraiki, diktaduraren eraispen iraultzailea iraultza sozialistarekin ahalik eta lasterren lotu behar zela defendatzen zuten. Bi iraultza horien arteko loturak egiteko, Fronte Popularren moduko aliantza interklasistak baztertzeko zituzten, proletariotzak bere independentzia eta batasuna mantendu behar zituela uste zuten eta.

Ikusi berri dugun bezala, 1960ko eta 70eko hamarkadetako erradikalizazio prozesuetan presentzia gehien izan zuten korronteak marxismo-leninismoa (bereziki bere aldaera maoistan, eta neurri txikiago batean hoxhaistan edo prosobietikoan) eta troskismoa izan ziren. Baina protagonismo apalagoa izan bazuten ere, bestelako korronte batzuek ere olatu iraultzailean parte hartu zuten: anarkismoa, marxismo heterodoxoa edo ez-leninista, langile-autonomia eta abar. Kasu batzuetan iraultzarako erreferenteen bila, XX. mendeko 10eko eta 20ko hamarkadetako **ezker-**

462 *Ibid.* 20-21.

463 Leon Troski, *Trantsizio programa...* 17. Azpimarra geurea da.

464 Ricard Martinez i Muntada, «Hacia la Liga...», 1060. Eduardo Gonzalez Calleja, *Socialismos y ...* 149.

komunismora edota kontseilu-komunismora jo zuten. Korronte horrek iraultza egiteko sobieten moduko langile-kontseiluen bidezko iraultza proposatzen zuen eta bere erreferente teorikoak Rosa Luxemburg, Otto Ruhle edo Anton Pannekoek ziren besteak beste⁴⁶⁵. Marxismo-leninismoaren «eredu autoritario eta burokratikoak» kritikatzten zituzten, eta erreformismoaren eta burokrazia sobietikoaren aurkako korronteak ziren⁴⁶⁶. Kontseilu-komunismoaren aldekoak aliantza interklasisten aurka zeuden eta langileen demokrazia zuzena defendatzen zuten. Troskiten aldean, kontseilu komunismoak, IV. Internazioanalaren jarraitzaileen dogmatismoa, eta zentralismo leninista kritikatzten zituzten. Nafarroan, kontseilu-kontseilu komunismoaren jarraitzaile izan zen OIC-EKE alderdia. OIC-EKEk, ordea, modu eklektikoan ulertu zuen kontseilu-komunismoa, hura leninismoarekin uztartzeko saiakera egin baitzuen; langile-kontseiluen eraketa errazteko alderdi leninista ez-autoritario baten beharra ikusten baitzuen.

Zer etapa dagokio Espainiako iraultzari?

Arestian esan bezala, ezker iraultzaileak oso maiz, bere teorizazio politikoa PCE erreferentzia negatibotzat hartzen eraiki zuen, hura baitzen borroka antifrankistako alderdi nagusia. PCEk bere lehendabiziko garaian (1920-1931) Espainian iraultza burgesa bukaturik zegoela, eta herrialde kapitalista zela uste izan zuen, eta beraz, Espainian iraultzaren hurrengo urratsa iraultza sozialista egitea zela defendatu zuen. Hori zela eta, II. Errepublika aldarrikatu ondorengo hilabeteetan erregimen demokratiko berria kritikatu zen «itxura demokratiko baten atzean ezkutatzten den klase diktadura» zelakoan⁴⁶⁷. Baina, 1931ko udan Dmitri Manuilski Komiterneko ordezkariak Espainiara bisita egin zuen eta erregimen errepublikano berriarekiko jarrera aldarazi zuen. Momentu hartatik aurrera, José Diazen alderdiak «iraultza demokratiko-burgesa» burutugabea zegoela defendatu zuen. Horrez gain, iraultza sozialista eta proletarioa baino lehen, alde zurretik «hondar feudalak» erauzteko prest zeuden sektore burges errepublikanoekin bat egiteko politika lehenetsi zuen⁴⁶⁸. Erabaki hori latifundismoak Espainian zeukan ustezko indarrean oinarritzen zen. Halaber, 1934tik aurrera, Komiternak Fronte Popularren aldeko politika bultzatu zuen, eta ondorioz, PCEk Gerra Zibilean klase demokratikoen arteko kolaborazioa babestu zuen. Helburua aliantza interklasistak egitea zen, sozialistekin eta indar burges aurrerakoiekin batera demokrazia defendatzeko.

465 Julio Perez Serrano, «Orto y ocaso...», 274-280 Joel Sans Molas, *Militancia, vida y...* 80-81.

466 Julio Perez Serrano, «Orto y ocaso...», 274.

467 Jose Alvarez Junco, «A vueltas con la Revolución Burguesa», *Zona abierta*, 36-37 zbk. (1985), 81-106.

468 *Ibid.*

Gerraondoan, mota horretako politikek jarraitu zuten, *Union Nacional Española* eta *Frente Nacional Antifraquista* izenpean⁴⁶⁹. Baina, 1956an frankismoaren aurka borrokatzeko estrategia berria diseinatu zuen PCEk: Berradiskidetze Nazionalerako Politika. Politika hark frankismoaren amaiera baketsua proposatzen zuen; horretarako, Gerra Zibilaren garaiko zatiketa gainditzea eta sektore sozial berriak antifrankismora erakartzea zituen helburu, oligarkia eta diktadura gizartearengandik isolatuz eta bere babes sozialengandik baztertuz⁴⁷⁰. Ezker iraultzailea sortu zenean, iraultzailetasunari uko egin izana leporatzen zioten PCERI, eta gehienek, PCERen joera erreformista horien mugarrria 1956an onartutako Berradiskidetze Nazionalerako Politikan egon zela defendatzen zuten.

Politika hori alderdiaren VI. Kongresuan (1959) berretsi zen. Kongresu hartan, Espainia herrialde kapitalista zela esaten zen, baina ekoizpen indarrak oraindik «hondar feudalekin» tratatzen zirela eta bere garapena eta demokraziaren iritsiera oztopatzen zutela defendatzen zuen. Halaber, iraultzak bi etapa izanen zituela aurreikusten zen: lehendabizikoak izaera «antifeudal eta antimonopolista» izanen zuen eta «funtsezko helburu» gisa «hondar feudalen deuseztapena eta monopolioen boterearen mugatzea» zituen, besteak beste⁴⁷¹. Fase honetan burgesiaren sektore demokratikoekin aliantza egitea defendatzen zen arren, PCEk ez zuen uste klase sozial horrek jada paper aurrerakoirik jokatuko zuenik, eta beraz frankismoaren aurkako borroka demokratikoari bultzada ematea langile klaseari zegokiola uste zuen. PCEk defendatutakoaren arabera, iraultza sozialista soilik erregimen demokratikoa ezarri eta gero izanen zen, etorkizun urrunago batean.

PCEk jarrera hori mantendu zuen, baina 1975ko *Manifestu Programan* Espainiako gizarte egitura funtsean herrialde kapitalista garatua zela defendatu zuen. Orduan, Espainiako gizartearen funtsezko kontraesana langile klasearen eta burgesiaren artekoa zela defendatzen zuen arren, *etapaka* diseinaturiko estrategiari eutsi zion. PCERen iritziz, iraultzaren momentuko etapa langileek zuzendu behar zuten eta klase sozial «antimonopolista» guztiak bere ingurura bildu behar zituzten Espainian erregimen demokratiko bat ezartzeko. Ondotik, demokraziaren sakontzearen bidez eta erreforma baketsuen bidez Espainiak sozialismoranzko bidea eginen zuen. Iraultzaren fase honetan, erdibideko etapa bat ere aurreikusten zen «demokrazia politiko-soziala» sozialismoaren eta kapitalismoaren arteko trantsizioa izanen zena⁴⁷².

469 Enrique Gonzalez de Andres, *¿Reforma o Ruptura?...* 25.

470 Carme Molinero, Pere Ysas, *De la hegemonia a la autodestrucción. El Partido Comunista de España (1956-1982)*, Crítica, Bartzelona, 2017, 21-23.

471 PCE: «Programa del Partido Comunista de España. VI Congreso del PCE (28-31 de enero 1960)», *Utopias, Nuestra Bandera*, 203-204 zbk. (2005), 23-55.

472 Jose Alvarez Junco, «A vueltas ...» 101. Enrique Gonzalez de Andres, *¿Reforma o Ruptura?...* 35. PCE: «El comunismo, bandera de unión de todos los trabajadores. Manifiesto programa del PCE, aprobado en 1975 en la Conferencia entre el VIII y IX Congreso», *Utopias, Nuestra Bandera*, 203-204 zbk. (2005), 57-113.

ORTri dagokionez, arestian esan dugun bezala, 1971 eta 1973 artean bere teoria politikoa zehaztasun urrikoa zen⁴⁷³. Izan ere, nominalki bere burua marxista-leninistatzat eta maoistatzat izendatu bazuen ere, oraindik bere eragin esparru bakarra sindikalismoa zen. Baina laster, hasierako urteetako zehaztasun eza 1973-74 urteen inguruan argituko zen, garapen ideologiko osatu eta mamituago bat kaleratu zuenean.

ORTren iritziz —eta talde maoista gehienek zioten bezala— Espainiako gizartearen kontraesan nagusia oligarkiaren zein inperialismoaren eta herriaren artekoa zen, eta ondorioz Espainian iraultzari fase demokratiko-herrikoa zegokion⁴⁷⁴. ORTk uste zuen inperialismoa herrialdea «arpilatzen» ari zela, ondorioz, oligarkiari «antinazional» izatea leporatzen zion arpilaketa ahalbidetzeagatik. Inperialismo amerikarrak Espainiako gizartearen gain zuen ahalmen ekonomiko eta politikoa errekonozitu arren, PCEml-k eta MCEk ez bezala, ez zuen herrialdearen izaera koloniala azpimarratzen⁴⁷⁵. Hala ere, herrialde koloniala ez izangatik ere, ORTk Espainiako iraultzak bi fase zituela defendatzen zuen eta frankismo garaian momentuari zegokiona «iraultza demokratikoa» edo «demokratiko-herrikoa» litzateke, eta iraultza sozialista, aldiz, aurrerago izanen litzateke.

ORTren ustez frankismoa eraisteko bi bide zeuden: demokratiko-herrikoa eta demokratiko-burgesa. Lehendabizikoak «erabateko garaipena» zekarkion herriari, eta besteak, ordea, «garaipen partziala» baino ez⁴⁷⁶. Iraultza demokratiko-herrikoa langileek zuzendutako aliantza interklasista batek zuzendu behar zuen eta helburu nagusi modura oligarkia eta inperialismoa agintetik kentzea zeukan. Behin indar horiek boteretik kenduta, ez zen zuzenean sozialismoa edo estatu proletarioa ezarriko, baizik eta *Demokrazia Berri* txinatarraren aldaera berezi bat: «diktadura demokratiko-herrikoa». Demokrazia herrikoa hainbat klase herrikoien arteko aliantzan oinarritutako agintea litzateke, oligarkiaren eta inperialismoaren gaineko (hau da, iraultzaren etsai erreakzionarioen gaineko) «diktadura demokratikoa» ezarriko zuena. ORTren ustez, iraultza demokratiko-herrikoa ezinbesteko urratsa zen eta «sozialismora iristeko bide motzena»⁴⁷⁷. Iraultza demokratiko-herrikoa gauzatzeko ORTk indarkeria beharrezkoa zela uste zuen, diktadura eraisteko insurrekzionalismoa eta masen indarkeria armatua beharrezkoak izanen zirelako, baina aldi berean, ETAk praktikatzen zuen «aktibismo burges txiki indibiduala» kaltegarria zela uste zuen⁴⁷⁸. Alderdiak diktaduraren

473 Javier de Miguel Saenz, *La Organización Revolucionaria...* 79-82.

474 Consuelo Laiz Castro, *La lucha final...* 106-107. Javier de Miguel Saenz, *La Organización Revolucionaria...* 109-115.

475 «Por la victoria completa del pueblo sobre el fascismo», *El Militante*, 7 zbk. (2. edizioa), 1974ko abendua, 5-6. Jesus Aos eta Celia Oizek utzia.

476 *Ibid.* 22.

477 *Ibid.* 22-23.

478 Javier de Miguel Saenz, *La Organización Revolucionaria...* 110-112.

amaiera biolentoa aurreikusten zuen, baina aldi berean ETAren jarduera kritikatzeko zuen, aldebakarrekoa eta gutxiengo batek eginikoa zela argudiatuta, eta ondorioz, masetatik urrunduta zegoela uste zuelako.

Iraultza demokratiko-herrikoi hori burutzeko ORTk beharrezko hiru baldintza zeudela uste zuen: benetako alderdi komunista eta marxista-leninista (errebisionismoaren eraginik gabekoa) batek iraultza zuzentzea, langile mugimendu guztia batuko zuen «proletariotzaren fronte bakarra» eratzea eta «Fronte Popular Antifaxista» bat egotea⁴⁷⁹. Fronte herrikoi horren barnean langileez eta klase zapalduz gain, burgesia txiki eta ertainaren sektoreak ere bilduko lirateke, borrokatzeko orduan «zalantzatiak» izan arren, oligarkiak eta inperialismoak zanpaturikoak zirenez, faxismoaren aurkako borrokan interesatuta zeudelako. Sektore «zalantziati» horien moderazioaren ondorioz, fronte interklasista horren gidaritza proletariotza iraultzaileari zegokion, koherenteki iraultzaile zen klase bakarra zelako. Fronte interklasista zabal horri aurrerago «Fronte Popular Antifaxista» izena kenduko zioten eta «Fronte Demokratiko Popular» bezala berrizendatuko zuten, baina funtsean gauza bera izaten jarraituko zuen⁴⁸⁰.

Bide «demokratiko-herrikoiak» gain, diktadura eraisteko beste bide bat zegoela uste zuen ORTk: «demokratiko-burgesa». Diktaturaren aurkako beste bide hau PCEko «errebisionistek» eta oposizio moderatuak defendatzen zuten. ORTren arabera, diktadura eraisteko modu hori moderatuagoa eta eraginkortasun gutxiagokoa zen, aurkariei (hots, oligarkiari eta inperialismoari) aurre egin beharrean, diktaturaren amaiera baketsua izan zedin irteera bat eskaini, eta akordiorako eskua luzatzen baitzion. ORTrentzako diktaturaren eraispenak oligarkiaren eta inperialismoaren eraispenarekin bat egin behar zuen nahitaez, bestela prozesu horren ondorioz sortuko zen erregimena ez litzatekeelako erabateko demokrazia bat izanen. Demokrazia burgesak ez balitu oligarkia eta inperialismoa bere agintetik erauziko «oligarkia eta inperialismoaren menpekotasun politikoaren molde aldaketa» bat baino ez litzateke⁴⁸¹. Beste modu batera esanda; frankismoaren aurkako bide demokratiko-burgesak ez zuen «estatu burgesa suntsitu nahi, bere oskol faxista kendu eta berria, demokratiko-burgesa, ezarri baizik»⁴⁸². ORTren ustetan, burges-demokratikoak oligarkiari eskua luzatzen zionean alferrik zebilen, ez baitzen oligarkiaren pisuzko sektore demokratikorik existitzen⁴⁸³.

479 ORTren Komite Zentrala, «El frente popular que necesita la revolución en España», 1974ko abuztuaren 25a, *Fronte al confusionismo y la vacilación. La política comunista por la unidad popular y la lucha contra el socialismo*, 1975, 73-77. Jesus Aos eta Celia Oizek utzia.

480 ORTren Komite Zentrala, «La construcción del frente democrático popular en el panorama político del país», 1974ko urrian, *Fronte al confusionismo y la vacilación. ...* 80-89.

481 «Por la victoria...» 22-24.

482 *Ibid.* 24.

Aldarrikapen antiinperialistei dagokionez, lehendabiziko urteetan ORTk AEBen aurkako diskurtso antiinperialista izan zuen, baina 1970eko hamarkada erdialdetik aurrera, Estatu Batuen aurka aritu beharrean Sobietar Batasunaren aurka aritu zen. Izan ere, Txinako Errepublika Demokratikoak 1970eko hamarkadaren erdialdetik aurrera Hiru Munduen Teoriaren ikuskera berezia aldeztu zuen. Teoria horrek biltzen zuen funtsean, SESB potentzia «sozialinperialista» erasokorra zela eta munduko bakearen aurkako mehatxurik larriena zela defendatzen zen⁴⁸⁴. Urte horietan bertan, SESBek Espainiarekin merkataritza akordio batzuk sinatu zituen, eta ORTk, Txinako politikari jarraiki, Espainiaren subiranotasun nazionalaren aurkako mehatxu modura ikusi zituen. ORTren arabera, krisi ekonomikoaren aurrean Espainiako oligarkiak bere *stock*-ei irteera emateko merkatu berriak bilatzen zituen, eta horren ondorioz SESBeko agintarien interesekin bat egin zuen. ORTk SESBek zeukan «politika inperialista» salatzen zuen «arpilatzeko eta harrapaketakoa» zelakoan, eta beraz honakoa defendatu zuen: «Espainiako herriek, gure lurraldetik inperialismo yankia kanporatzeko eta independentzia nazionala berreskuratzeko borrokatzen ari garenek, ez dugu onartuko sozialinperialismo sobietarra atzeko atetik sar dakigun»⁴⁸⁵. Gainera, Trantsizioan zehar ORTk Sobietar Batasunari Espainiako demokrazia sortu berria desegonkortu nahi izatea leporatu zion; bere ustez, ETA eta MPAIAC (Movimiento por la Autodeterminación e Independencia del Archipiélago Canario) talde armatuak sozialinperialismo sobietarraren mesedetan ari ziren, bere interes geoestrategikoen alde⁴⁸⁶.

MCEren kasuan, bestalde, 1967 eta 1969 urteetako tartean epealdi ideologikoki eklektikoa izan zutela ikusi dugu, baina gutxi gorabehera 1970etik aurrera ezaugarri maoistak zituen alderdi bilakatu zen. Hurrengo urteetan eta 1974ra arte, Mao Zedong pentsamenduaren doktrinaren ildo nagusiak defendatu zituen. Garai hartako beste alderdi batzuek bezala, MCEk atzerriko analisi politikoak eta ildo politikoak modu mimetikoan inportatu zituen, eta bere horretan (apenas aldaketarik egin gabe) Espainiako egoerarentzako erabili zituen. Hala bada, doktrina maoista orokorrari jarraiki, MCEk Espainia inperialismo yankiaren menpeko herrialde koloniala zela ondorioztatu zuen. Irakurketa politiko horrek, ordea, ez zuen errealitatearekin bat egiten, Estatu Batuek Espainian eragiteko ahalmen ekonomikoa eta militarra zuten arren, ezin daiteke esan

483 ORTren Zuzendaritza Komite Permanentea (CDP), *Contra la represión fascista en defensa de Comisiones obreras y por la libertad de los procesados*, 1973/VIII, 3, Dosieres de Gabinete de Enlace. Kutxa: 32/9099, AGA.

484 «¿Por qué surge el socialimperialismo?», *En Lucha*, 104 zbk. (1976/VII/10), ORT, 7-8, <https://prensahistorica.mcu.es/>.

485 «La URSS, otro invitado al banquete del Pacto», *En Lucha*, 185 zbk. (1978/II/16-22), ORT, 4, <https://archivodelatransicion.es/>.

486 ORTren Euskadiko Komite Nazionala, *Si, y seguir avanzando*, Jose Sanromaren hitzaldia, Iruñea, 1976/XI/19, ORT. Jesus Aos eta Begoña Oizek utzia. Mario Grande, «Canarias: pelagra la soberanía nacional *En Lucha*, 187 zbk, (1978/III/2-8), ORT, 3, <https://archivodelatransicion.es/>. ORTren Euskadiko Komite Nazionala, *¿Qué hay detrás del terrorismo?*, Bilbo (1978/VI/28), ORT, 65.35, CDHC-EI, Iñigo Perez Otxoak utzia.

menpekotasun koloniala zegoenik. Hala ere, Gobernu frankistak estatubatuarrekin sinatutako akordio ekonomiko eta militarrek *ilusio kolonial* hori sinesgarria izan zedila sortzen zuten.

Espainiak 1953an Estatu Batuekin sinatutako akordioaren ondorioz, burgesia monopolistaren eta inperialismo iparramerikarraren arteko aliantza gertatu zela uste zuen MCEk. Akordioaren ondorioz kapital estatubatuarra herrialdean sartu zenez, «geure herrialdearen independentzia eta subiranotasun nazionala» ahuldu zirela uste zuen. Halaber, oligarkia espainiarrari herrialdea «yankiei» saldu izana, «antinazionala» izatea eta «saldukeria egitea eta gure aberria inperialismo yankiari entregatzea» egozten zioten⁴⁸⁷. Ondorioz, MCEren ustez frankismoaren aurkako borrokak izaera antifaxista eta antiinperialista zeukan aldi berean. Estatubatuarrekiko menpekotasun hori, MCEren iritziz, Espainiako gizartearen esparru guztietan nabaritzen zen. Alderdi ekonomikoan, kapital estatubatuarren kontrola «ia erabatekoa» zela zeritzoten: mineralak eta bestelako lehengaiak erauzten eta eramaten zituzten, produktuak saltzeko lehentasuna zuten, inbertsioak egiteko ahalmena... Menpekotasun egoera horrek «langile masen esplotazio egoera bikoitza» zekarren⁴⁸⁸. Arlo militarrean, bestalde, oligarkiak «gure aberriaren subiranotasun nazionala inperialismo yankiari saldu» ziola uste zuen. Bere ustetan, Estatu Batuek ezarri zituzten base amerikarrek funtzio bikoitza betetzen zuten. Alde batetik, beste herrialde batzuen aurka gerra egiteko «base» bat ziren, eta bestaldetik, balizko «gerra iraultzaile bati aurre egiteko zakur zaindariak» ziren⁴⁸⁹. Halaber, arlo zientifiko eta kulturean ere inperialismo amerikarrak bere eragin «kolonialista» zabaltzen zuela uste zuen⁴⁹⁰. Arrazoiketa analitiko honen guztiaren ondorioz, MCEk Espainiako erregimenari «yankifrankismo» deitzen zion⁴⁹¹.

MCEren ustez, Espainiako gizartean zegoen kontraesan sozial nagusia oligarkia zein inperialismo yankia eta «klase herrikoiak» aurrez aurre jartzen zituena zen⁴⁹². Zentzu horretan, Espainiako iraultzaren momentuko fasea iraultza «demokratikoa» eta «nazionala» zen. *Demokratikoa* zen demokrazia eskuratzeko helburua zuelako, baina aldi berean, *nazionala* ere izan behar zuen helburu demokratiko hura ezin zelako bete nazio subiranotasuna berreskuratu gabe eta inperialismo estatubatuarra kanporatu gabe. Zentzu horretan, MCEk diskurtso nazionalista

487 MCE: *Línea Política I Ideológica, aprobada al 1º Congrès del MCE*, c. 1975-76, FO 95/017, CEDOC-UAB. «El blanco y las tareas de la revolución española» *Servir al Pueblo*, 1 zbk. (1972/I), MCE, 7-8, 0660 GF, CEDOC-UAB. MCE, *Por la independencia nacional y la democracia popular, hacia el socialismo y el comunismo*, 1972/III, 14-15. Jesus Aosek eta Celia Oizek utzia.

488 MCE, *Por la independencia...* 15-16.

489 *Ibid.* 16-17.

490 *Ibid.* 17-18.

491 E5 elkarrizketa: Jesus Urria Bidaurre. Iruñea, 2018/X/30. Consuelo Laiz Castro, *La Lucha ...* 134-137. MCE, «Acerca de nuestra política frente al imperialismo norteamericano», *Boletín*, 7 zbk., (1974/V), MCE, BAP.

492 MCE, *Por la independencia...* 36.

espainiarra garatu zuen eta *Servir al pueblo* aldizkariaren bigarren alean halaxe islatu zen: «Internazionalistak gara eta patriotak gara, eta hori ez da inolako kontraesanik. Patriotak izanik baino ezingo dugu inperialismoaren uztarpetik atera».⁴⁹³ MCErentzako, iraultza demokratiko-herrikoiak Espainiako eta nazionalitateetako askatasun nazionalak berreskuratu behar zituen, eta gainera, bestelako neurri antikolonial batzuk ere proposatu behar zituen: estatubatuarren base militarren erretiratzea, Gibraltarren gaineko subiranotasuna berreskuratzea eta Espainiaren jabetza kolonial afrikarren gaineko kontrolari uko egitea⁴⁹⁴.

Hala ere, MCEk oso argi zuen, iraultza demokratiko hori ez zela «ohiko iraultza demokratiko-burgesen parekoa», «*mota berriko* iraultza demokratikoa» baizik⁴⁹⁵. Lehenik eta behin, «inperialismoaren aroan burgesiak iraultzaile izateari utzi ziolako», eta beraz, iraultzaileki eta demokratikoki koherente zen klase bakarra langileena zelako. Gainera, iraultza demokratiko-nazional horrek ez zuen ezaugarri «antifeudalik» izanen, «antinperialistak, antimonopolistak eta antilatfundistak» baizik, eta ondorioz, iraultza horrek kapitalismoa indartu beharrean, «kolpe itzela» emanen zion⁴⁹⁶. Aldi berean, iraultza demokratiko horrek ez zuen «sozialista-proletarioa» izan behar, esan nahi baita: «ez zuen proletariotzaren diktadura ernalduko, iraultza babesten duten klase ezberdinen diktadura» bat baizik. Iraultza honen jo-puntuan ez zegoen burgesia guztiari erasotzea, baizik eta soilik bere goragoko estratuari (oligarkiari alegia). Gainera, ez zuen kapitalismoaren suntsipena bilatzen; horren ordez, bakarrik oligarkiaren eta inperialismoaren kontrolpeko sektore ekonomikoei eginen zien kalte, borroka antiinperialista eta antifaxistan langileekin bat aritzeko prest leudeken klase burges ertain eta txikiei eskua luzatzen baitzien⁴⁹⁷.

Esan bezala, MCEren ustez iraultzailea zen klase sozial koherente bakarra proletariotza zen. Baina, oligarkiaren eta inperialismoaren menpekotasun egoeraren ondorioz, beste sektore sozial batzuk ere iraultza demokratikoan interesaturik egon zitezkeen. Hala, burgesia txiki, ertain eta nazionalari izaera bikoitza ezartzen zien. Alde batetik «zanpatuak» ziren, inperialismoak eta frankismoak kalte egiten zielako. Aldi berean, baina, «zanpatzaileak» edo «esplotatzaileak» izan zitezkeen, langileen esplotazioaren gain oinarritzen baitzuten beren aberastasuna. Horregatik, MCEk sektore horiek batzuetan «iraultzaren alde», eta beste batzuetan, oligarkiaren alde egin zezaketela uste zuen. Sektore horiek neutralizatzeko edo iraultzaren alde jar zitezeten ziurtatzeko MCEk «fronte batu demokratiko nazional» bat proposatzen zuen⁴⁹⁸. Hala ere, aliantza interklasistaz

493 «Mao Tse-tung, En memoria de Norman Bethune», *Servir al Pueblo*, 2 (1972/II), MCE, 40660 GF, CEDOC-UAB.

494 MCE: *Línea Política I...* «El blanco y...» 7-8.

495 MCE, *Por la independencia...* 37.

496 *Ibid.* 37-38.

497 *Ibid.*

498 *Ibid.* 51-52

gain, beste maila batean, beste aliantza mota batzuk proposatzen zituen «herri langilea» eta «proletariotza» elkartzeko asmoz: «langile-nekazari aliantza»⁴⁹⁹. Aliantza maila horrek demokrazia ezarritakoan sozialismoaren alde borrokatzen jarraitzeko helburua zuen.

Beraz, MCEk proposatutako iraultza demokratikoak botere «demokratiko-herrikoa» sortuko zuen eta ez zuen kapitalismoa erabat suntsituko, baina hala ere, kapitalismoari kalte handia egingen zion eta iraultza sozialistarako «urrats handia» suposatuko zuen. Behin fase hori bukatuta, gizartearen kontraesan nagusia burgesia eta proletariotzaren artekoa izanen zen eta orduan bai, hasiko zen iraultzaren fase sozialista⁵⁰⁰.

Teoria maoistei jarraiki, iraultza demokratiko-herrikoi hori gauzatzeko Herri Gudu Luzea egin beharko zuten, «herria bere etsaien aurkako garaipenera eraman dezakeen borroka molde bakarra»⁵⁰¹. Hala ere, borroka molde hori ez zuen sekula erabili MCEk eta baieztapen horiek — ezker iraultzaileko alderdi gehienetan bezala— soilik modu erretorikoan egin ziren.

Edonola ere, MCEren fase antikoloniala laburra izan zen, 1974tik aurrera gertatzen ari ziren mugimendu politikoen ondorioz aldaketa egin baitzuen, eta politika posibilista eta pragmatikoago baten epealdia ireki zen. Hala ere, kutsu maoistako hiztegia eta hainbat lelo mantendu ziren⁵⁰².

Bestalde, PCEi-PTEren kasu berezia dugu, gainerako alderdi maoistengandik ezberdindu egiten zena. Aurreko kapituluan ikusi dugun bezala, PCEi-PTE normalean alderdi maoistekin batera sailkatzen den arren, Mao Zedong pentsamenduak alderdi horretan eragin mugatua izan zuen. PCEi errebisionismoaren aurkako borrokan eta nazioarteko politikan Txinaren alde lerratzean, Mao Zedong pentsamenduaren alde kokatu zen, baina bestelako ezaugarri batzuek alderdi *txinazaleetatik* ezberdintzen zuten. PCEi-ren ildo politiko nagusiak 1973ko Aste Santuan egin zen Kongresu Eratzailean erabaki ziren. Bertan aurreko urteetako ultraezkerkeria atzean utzi zuten eta batasun antifaxista oinarri zuen ildo politiko berriak onartu ziren⁵⁰³.

Alde batetik, PCEi-k Espainiako ekonomia diktadurapean garatu eta industrializatu zela ondorioztatu zuen⁵⁰⁴. Beraz, gizartearen egoera ez zuten ez «kolonialtzat» ez «semifeudaltzat» hartzen. Gainera, frankismoaren babes garrantzitsuenetako bat inperialismo estatubatuarra zela onartzen zen arren, Espainia kolonia amerikarra zenik ukatzen zen. Kapital estatubatuarren arlo ekonomiko eta militarrean eragin handia zeukan, baina ezin zitekeen esan oligarkia espainiarra

499 *Ibid.*

500 *Ibid.* 37-38.

501 *Ibid.* 54-59.

502 MCE: *Línea Política I...*

503 Manuel Gracia Luño, «La refundación del ...», 73-102.

504 PCEi: *Congreso de Constitución. Resoluciones sobre la línea política*, Partido Comunista de España (internacional), 1973ko martxoa, 2-4, <https://archivodelatransicion.es/>.

«yankien kudeatzaile» hutsa zenik⁵⁰⁵. Beraz, frankismoaren aurkako borrokak «antifaxista eta antiinperialista» izan behar zuela defendatzen zuen PCEi-k, baina inolaz ere «antikoloniala» MCEk edo PCEml-k uste zuten bezala⁵⁰⁶.

Zentzu horretan, PCEi-arentzat (maoista gehienentzat ez bezala) Espainiako gizartearen kontraesan sozial nagusia ez zen oligarkiaren zein inperialismoaren eta herriaren aurkakoa, burgesia eta proletariotzaren artekoa baizik. Beraz, Espainiako iraultzaren momentuko fasea ez zen ez demokratikoa, ez herrikoia, ez antioligarkiko, ez antimonopolista, ezta antikoloniala ere, sozialista eta proletarioa baizik⁵⁰⁷. Baina teorian PTEk Espainiari iraultzaren fase sozialista zegokiola defendatzen bazuen ere, demokrazia (burges edo formala) eskuratzea «berehalako eta presazko» lehentasuna zela uste zuen, eta beraz, demokrazia lortzeko prest leudeken beste klase sozial batzuekin «Fronte Popularra» eratu behar zela defendatzen zuen⁵⁰⁸. Hasiera batean Fronte Popular modura izendatu bazuen ere, 1975eko hasieran izena aldatu zion eta «Fronte Antifaxista» izendatu zuen⁵⁰⁹. Halaber, indarkeriari dagokionez, 1968-1972 artean defendatu zituen ideia insurrekzionalak alde batera utzi bazituen ere, iraultzarako indarkeria erabili beharko zela uste zuten, baina aldi berean, «burgese txikitat» eta «kaltegarritzat» zuten «terrorismo indibiduala» kritikatzeko zuten⁵¹⁰.

Egiazki PCEi-PTEren jarrera ezohikoa eta bitxia zen, ia kontraesankortzat har daitekeena. Izan ere, PCEekin eta gainontzeko alderdi maoistekin alderatuta, PCEi-ren analisia erabat ezberdina bazen ere, ondorio berberera iristen ziren. Ez zuten uste Espainia kolonia estatubatuarra edo ekonomikoki atzeratua zenik, industrialia eta garatua baizik, eta gainera, Espainiako gizartearen kontraesan nagusia burgesia eta proletariotzaren artekoa zela defendatzen zuen⁵¹¹. Baina, ondorio taktiko berera ailegatu ziren bai batzuk zein besteak: fasekako iraultza egin behar zen, demokrazia herrikoia eskuratzea lehentasuna zelako, eta horretarako Fronte Popular edo Antifaxisten moduko aliantza politika interklasista defendatu zuten. Zer dela eta defendatzen zituen PCEi-k jarrera hauek?

Manuel Gracia Luñoren (PTEko zuzendaritzako kide eta Kataluniako Lanaren Alderdiko idazkari izandakoa) arabera, PCEi-k garai hartan iraultzaren ikuskera berria erabili zuen: ekitaldi bakarreko altxamendu bakar bat bezala bainoago, «fronte guztietan gertatzen diren bataila segida

505 Manuel Gracia Luño, «La refundación del ...», 92. PCEi: *Congreso de Constitución...* 2.

506 PCEi: *Congreso de Constitución...* 5.

507 Manuel Gracia Luño, «La refundación del ...», 79-80.

508 PCEi: *Congreso de Constitución...* 4-5. Manuel Gracia Luño, «La refundación del ...», 88-102.

509 Ramon Lobato (Eladio Garcia Castro), «Informe político por encargo del Comité Ejecutivo», *Hacia el Socialismo*, 5 zbk. (1975eko otsaila), <https://archivodelatransicion.es/>, 7.

510 PCEi: *Congreso de Constitución...* 9.

511 Consuelo Laiz Castro, *La lucha final ...* 122-125.

bezala» ulertzen zuen⁵¹². Gainera, PCEi-k Europa Erdialdeko eta Ekialdeko herrialdeak eredutzat zeuzkan. Herrialde horietan Bigarren Mundu Gerraren ondoren aliantza antifaxistak oinarri zituzten Fronte Popularreko gobernuak eratu ziren. Gobernu horiek ez ziren erabat sozialistak (proletariotzaren diktadura baino, klase sozial antifaxisten aliantzak ziren), baina aldi berean, «kapitalismoaren garapena eten zuten» ekonomiaren sektore giltzarrien nazionalizazioen bidez. Eredu hori bera Espainiarentzako egokia zela uste zuen PCEi-k⁵¹³.

Jatorri maoistako alderdiekin bukatzeko PCEml aztertuko dugu. Ezker iraultzaileko alderdien artean, PCEml izan zen antikolonialismoa eta *tercermundismoa* (Hirugarren Munduko herrialdeekiko zaletasuna, alegia) gehien bereganatu zituen alderdia. PCEml-k, PCEk bezala, Espainia herrialde semifeudal, latifundista eta ekonomikoki atzeratua zela uste zuen, baina gainera, inperialismo estatubatuarrak Espainiaren gaineko menpekotasun koloniala ezarri zuela uste zuen. Horregatik, sozialismora ailegatzeko lehendabizi «izaera hirukoitza» zuen iraultza demokratiko-herrikoia egin behar zela argudiatu zuen; iraultzak demokratiko-herrikoia izateaz gain, antimonopolista, anitiinperialista eta antilatifundista izan behar zuelako⁵¹⁴. Oligarkiaren aurka eta inperialista estatubatuarren aurka borrokatzeko, borroka antifrankistak Herri Gudu Luzea egin behar zuela defendatu zuen eta iraultzaile guztiak biltzen zituen fronte antifaxista iraultzaile zabal bat eratu beharra zegoela uste zuen PCEml-k. Funtzio hori betetzeko, FRAP (Fronte Iraultzaile Antifaxista eta Patriota) eraiki zuen⁵¹⁵. Halaber, diktadura eraistean —eta sozialismora ailegatu aurretik— Errepublika Demokratikoa aldarrikatu behar zela uste zuen.

Beraz, orain arte ikusi ditugun ezkerreko alderdi gehienek frankismoaren aurka borrokatzeko eta sozialismorantz abiatzeko prozesuan aliantza interklasistak eta *etapakako* iraultzaren estrategia defendatzen zuten. Trokistek, kontseilu-komunismoak eta bestelako korrante iraultzaileek, aldiz, estrategia iraultzaile horiek kritikatu zituzten.

LCR-ETA VI.aren kasuan, Ernest Mandelen *El crepusculo del franquismo* (Frankismoaren ilunabarra, 1970) lana oinarri hartu zuten frankismoaren aurkako borrokan estrategia iraultzailea diseinatu, eta ildo politikoa osatzen laguntzeko⁵¹⁶. Mandelen arabera Espainia herrialde kapitalista industrial zen, baina bere garapen maila eskasaren ondorioz eta potentzia inperialistekiko «bazterrekoa» zen heinean, hazkunde ekonomikoa kontraesankorra eta «espasmodikoa» zen⁵¹⁷.

512 Manuel Gracia Luño, «La refundación del ...», 80-81. Graciak Leninen ahoan jarri ditu hitzok.

513 *Ibid.*

514 Julio Perez Serrano, «Orto y ocaso...» 255-258.

515 Consuelo Laiz Castro, *La lucha final ...* 158-159.

516 Ernest Mandel, «El crepúsculo del franquismo», *Viento Sur*, 84 zbk. (2006ko urtarrila), 84-93. Jatorrizkoa, *Quatrième Internationale*, 47 zbk. (1970ko abenduaren 31), Doc. 1.2, <https://historialcr.info/>.

517 *Ibid.* 86-87.

Gainera, Espainiako burgesia ahula zela zeritzon eta langile klasea, aldiz, erradikalizatzeko eta antolatze prozesuan zegoela. Kontraesan politiko eta ekonomiko horiek zirela medio, Mandelek Espainiako kapitalismoa irtenbiderik gabe zegoela uste zuen, errepresioaren soka tenkatzeak zein laxatzeak kalte ekarriko ziolako. Alde batetik, Erregimenak erreformen bidez langileei askatasun demokratikoak eskainiko balizkie, langileek askatasun horiek modu eraginkorragoan antolatzeko eta borrokatzeko erabiliko lituzke, eta beraz, burgesiaren boterea arrisku larrian jarriko litzateke; beraz, burgesiak ezinbestean diktadura behar zuen. Baina aldi berean, errepresioa gogortuko balu, masek kontzientzia hartu eta modu berean erantzunen liokete Erregimenari. Ondorioz, diktadura kale itsu batean zegoen eta bere amaiera nahitaez «masen ekintza zuzen iraultzailearen bidez» gertatuko zen eta ezinbestean «etengabeko iraultzaren prozesu» batean bilakatuko zen, «sobieten demokrazia sozialista» ekarriko zuena, «monarkia konstituzionaletik edo Errepublika liberaletik pasa gabe»⁵¹⁸.

Bestalde, IV. Internazionalako alderdiek (maoista batzuek ez bezala) ez zuten uste Espainia herrialde koloniala zenik, «Europa Kapitalistaren katebegi ahula» baizik⁵¹⁹. Espainian iraultza sozialista abiatuko balitz, kontinente zaharrean eragin biderkatzailea edukiko luke eta beste prozesu iraultzaileen sorrera irekiko lituzke⁵²⁰.

Arrazoiketa horren guztiaren ondorioz, troskistek uste zuten Espainiari zegokion iraultzaren fasea «sozialista [zela] eta ez demokratiko-herrikoia»⁵²¹. Horregatik maoistek proposatzen zituzten Fronte Popularren moduko aliantza interklasistak baztertu zituzten, langile klaseak bere politika autonomoa eta aliantza politika independentea egin behar zuelako. Helburua mobilizazio unitarioetan parte hartzea zen, sektore erradikalizatueneko bat egin eta erreformismoari «gainezka» egitea (gazteleraz *desbordar*) zen⁵²². Horretarako, Proletarioen Fronte Bakarra (Fronte Unico del Proletariado) izeneko aliantza eratzea beharrezkoa zela defendatu zuten⁵²³.

Halaber, frankismoaren eraispenaren unea Greba Orokor Iraultzaile (letra larriz idazten zen: Huelga General Revolucionaria, HGR) baten bidez gertatuko zela aurreikusten zuten. Behin

518 *Ibid.* 92.

519 «España eslabón débil de Europa capitalista», *Combate*, 10 zbk, ale berezia, 1972/VI/1, LCR, 1-7, Doc. 1.18, <https://historialcr.info/>. «Por qué nos adherimos a la IV Internacional», *Zutik*, 61 zbk., 1973/XI, ETA VI., 9-27, Doc. 2.18, <https://historialcr.info/>. Victor Gorriti, «El I Congreso de la Liga Comunista Revolucionaria». *Combate*, 8 zbk., 1972/VI, 16-21, Doc. 1.15, <https://historialcr.info/>.

520 «España eslabón débil...» 7.

521 Victor Gorriti, «El I Congreso ...» 17.

522 «Gainezka egitearen» taktikak garrantzi handia izan zuten LCR-ETA VI.narengan. Miguel Romero, «Del atentado contra Carrero...», 54-55.

523 «Editorial. El combate por la organización de clase», *Combate*, 10 zbk. (1977/VII), LCR, 1-2, Joel Sansek utzia. Benegas, «VIII Congreso del PCE ¿Hacia un reformismo nacional?», *Combate*, 12, (1973/II), LCR, 25-31, Doc. 1.33, <https://historialcr.info/>.

frankismoa eraitsirik, langileek ahalik eta bizkorren lantegiak eta lurrak okupatu eta sobieten moduko botere bikoitzen bidez eraispena bera sozialismoarekin lotzen saiatu behar ziren. Horregatik, frankismoaren eraispen iraultzailea eta gero, klase borroka larriagotuko eta sozialismora ailegatzeko borroka bizkortuko zela uste zuten⁵²⁴.

Hala ere, diktaduraren eraispen iraultzailea eta iraultza sozialista saihestezinak eta halabeharrezkoak zirela uste zuten arren, momenturen batean burgesiak –langileen eta masen mehatxuaren ondorioz eta iraultza sozialista saihesteko asmoz – askatasun demokratikoak emateko aukera aurreikusten zuten. Mehatxu iraultzailearen aurrean, burgesiak «denbora irabazteko eta erreakzioa prestatzeko» egin zezakeen eskaintza hori⁵²⁵. LCRren ustez, marxista iraultzaileek maniobra hori saihesten ahalegindu behar zuten, masak helburu erreformistetatik aldendu, eta aldarrikapen antikapitalistak eta politikoak mugimendu antifrankisten ohiko leloetan txertatzeko.⁵²⁶

LCK LCR-ETA VI.aren iturri berberetatik edaten zuen eta zenbait ezberdintasun eta ñabardura zeuzkan arren, oro har, haren antzerako jarrerak zituen. Bestek beste, Espainiako ekonomia «estatu-kapitalismo monopolista» zela esaten zuen, eta beraz herrialdearen izaera kolonial edo semifeudala ukatzen zuen⁵²⁷. Halaber, iraultza sozialista kapitalismoaren «katastrofetik» salbatzeko «irteera bakarra» zela uste zuen⁵²⁸. Horretarako, langile klasearen independentzia politikoa aldarrikatzen zuen eta aliantza interklasistak gogorki kritikatzeko zituen, 30eko hamarkadako Fronte Popularren esperientzia negatiboekin lotzen zituena⁵²⁹. Komunsiten Ligak langile-alderdi eta sindikatu guztiak klase-independentzia ardatz nagusitzat zeukan programa baten inguruan elkartzea proposatu zuen, Langile Aliantza (Alianza Obrera) izenpean⁵³⁰

Bai LCR-ETA VI.k bai LCK biek iraultza sozialista egiteko masa indarkeria erabili beharko zela uste zuten. Baina, aurreko kapituluan ikusi dugun bezala, indarkeria hori sortzeko edo prestatzeko ikuspegi ezberdinak izan zituzten.

OICK, alderdi troskistek bezala, *etapakako* edo fasekako estrategia iraultzailea baztertu zuen. OICren estrategia iraultzailea sobieten moduko langileen biltzarretan eta kontseiluen eraketan oinarritzen zen, eta langile mugimenduko aldarrikapenei izaera antikapitalista ematen saiatzen ziren; hau da, aldarrikapen sindikal edo ekonomiko hurbilak gainditu eta Estatu eta kapitalaren

524 LCRren III. Kongresua, «Construir el Partido Revolucionario», *Comunismo*, 7 zbk.,1973/XII, 28-30, Doc. 1.50, <https://historialcr.info/>.

525 Marti Caussa, «Los orígenes de ...», 32.

526 «España eslabón...», 4-5.

527 LCRren II. Kongresua, «Hacia la República Socialista. Por el Partido de la IV Internacional», *Textos y Resoluciones del II Congreso de la LC, Volumen 1º*, c. 1972, 25, Doc. 4.7, <https://historialcr.info/>.

528 Ramon Contreras, «La Liga Comunista...» 79-81

529 LCRren II. Kongresua, «Hacia la ...».

530 W., *Circular sobre «Alianza Obrera» de W.*, c. 1977, LC, BAP.

aurka zeuden aldarrikapen politikoak bultzatzen saiatzen ziren. Bere ustez, Espainian garapen industrial kapitalista bukaturik zegoen eta herrialdearen ekonomia funtsean «estatu-kapitalismo monopolista» zen, «iraultza burgesaren zeregin nagusiak» bukatu zirela esan nahi zuena⁵³¹. Horregatik, iraultza sozialistaren gaurkotasuna baieztatuta zegoela uste zuten, eta ez zegoen bitarteko iraultza «demokratiko-herrikoi» edo «burgestik» egin behar⁵³². Ildo berean, OICk maoistek defendatzen zituzten Fronte Popularren moduko aliantza zabal antifaxista eta interklasistak kritikatu zituen. Troskistek langile izaera zuten langile erakundeekin (baita PCE eta PSOE erreformistekin ere) aliantza egin behar zela defendatzen bazuten, OICk are eta irizpide «murriztaileagoa» erabili zuen: soilik «izaera antikapitalista» zeukaten erakundeekin egitea lehenetsi baitzuen⁵³³. Aliantza antikapitalista horrek hainbat formulazio ezberdin izan zituen bere literaturan; «langile klasea eta herri langilea» bilduko zituen Bloke Historiko Antikapitalista eta Iraultzaile (BHAR, Bloque Historico Anticapitalista y Revolucionario) modura izendatu zuen lehendabizi, eta aurrerago (1977ko udaberrian) Batasun Herrikoi Antikapitalistaren Mugimendua (Movimiento de Unidad Popular Anticapitalista, MUPA)⁵³⁴.

ADNren inguruko polemika

Kataluniako elkarte unitarioen antzerako elkarte antifrankista eratzeko saiakera izan zen 1974ean Nafarroan. Erakunde horri buruzko eztabaidaren ondorioz estrategia iraultzailearen inguruko ezberdintasunak azaleratu ziren. Elkartea eratzeko lehendabiziko elkarrizketak 1974ko ekainean hasi ziren, Authiko grebaren harira. Bilera horien ondorioz, urte bereko abuztuan Nafarroako Biltzar Demokratikoa (Asamblea Democratica de Navarra, ADN) eratu zen, PCEk, PCEi-k eta Alderdi Karlistak osatua⁵³⁵. Aurkezpena egin berritan, ADNk langile mugimenduko alderdi garrantzitsuenari, ORTri, bertan parte hartzeko proposamena egin zion, baina alderdi hark ez zuen sartu nahi izan. ORTk ADNren proposamena errefusatzeko hainbat arrazoi eman zituen. Alde batetik, erakundea egiteko erabili zen moduagatik. ORTren arabera, erakundearen sustatzaileak bestelako indar antifrankistei galdetu gabe eratu zuten Biltzar Demokratikoa eta soilik programa osaturik egon zenean eta jendaurrean aurkeztu zenean egin zieten gainontzekoei bat egiteko deialdia. ORTren ustez, modu horretan egin zuten, oposizioko beste indarrek ezin izan zuten

531 Joel Sans Molas, *Militancia, vida y...* 176-177.

532 Joel Sans Molas, *Militancia, vida y...* 506 eta 551. Juan Carlos Jimenez de Aberasturi Corta, Emilio Lopez Adan, *Organizaciones, sindicatos...* 141.

533 Joel Sans Molas, *Militancia, vida y...* 402.

534 *Ibid.* 287 eta 460.

535 «La Asamblea Democratica de Navarra. Hacia el Frente Popular», *Mundo Obrero Rojo*, 24 zbk., 1974/IX/1, PCEi, 5-7.

programaren eztabaidan parte hartu eta ezin izan zizkioten bere ekarpenak egin, eta ondorioz, akordioak alde aurretik baldintzaturiko programa baten gainean egin beharko ziren⁵³⁶. Bestaldetik, ORTk ADNren programari diktaduratik ateratzeko irteera «demokratiko-herrikoia» beharrean bide «demokratiko-burgesa» proposatzea leporatzen zion, besteak beste, frankismoaren babes zutabeei, hots «oligarkiari eta inperialismoari», zuzenean erasotzen ez zuelako⁵³⁷. ORTren ustez, sortu berri zen biltzar horren helburua «etorkizunean oligarkiarekin egingen zen konpromiso batentzako bidea» prestatzea zen. Horregatik guztiagatik ORTk bertan ez parte hartzea erabaki zuen. ADNko kideek, aldiz, ORTk elkartearen parte hartzeko jarritako baldintzak kritikatu zituzten «mota ezberdinetako demokraten artean ezberdintzeagatik»⁵³⁸.

Alderdi troskistek ere Nafarroako Biltzar Demokratikoaren ekimenari kritikak egin zizkioten. Komunisten Ligarentzat (LC) elkarte unitario horrek «langile eta herri borroka oztopatzen» zuen eta «desmobilizazioa» sortzen zuen. Halaber, langile independentziaren aldeko politikari koherentziaz jarraiki, mota honetako erakundeak «klase kolaboraziorako akordiotzat» hartzen zituen, eta gainera, erakunde horiek alferrikakoak zirela uste zuen, klase agintariak ez zituztelako aintzat hartzen. Oro har, LCk erabat kritikatu zituen Fronte Popularren moduko akordio horiek, eta alternatiba interklasista horien ordez sektore borrokalariak CCOOren inguruan bildu behar zituen «Langile Fronte Bakarra» eratzea defendatzen zuen. Halaber, LCk ORTri ere kritika egiten zion, ADNren programa baztertu arren, abiapuntu egokia zirela iruditzen zitzaielako, eta aldi berean, bai PCEi-ri bai ORT-ri PCEren «Askatasunaren Paktuaren» politikaren aurrean «makurraraztea» leporatzen zion⁵³⁹.

ADN elkarte unitarioaren sorrerak batez ere PCEren errotze ahalmen ahulari erantzuten zion; Nafarroako langile mugimenduan ezartzeko ezintasunei erakunde unitario baten eraketaren bidez erantzun nahi izan zion. PCEi-ren kasuan, bestalde, 1974-1976 epealdian PCEren ildo politikoaren alde lerratu zen auzi taktiko gehienetan: Euskadi eta Nafarroako Biltzar Demokratikoetan, Abenduaren 11ko greban, CCOOko CECO (Coordinadora de Euskadi de Comisiones Obreras) eta CONE (Comisión Obrera Nacional de Euskadi) zatiketetan eta 1975eko hauteskunde sindikaletan. Kongresu Eratzailean erabakitako politika unitarioarekin bat zetorren

536 C. Arni, «Anexo. Hacia la Construcción del Frente Democrático Popular», *El Militante*, 7 zbk. (2. edizioa), 1974/XII, ORTM 48-50. Jesus Aoz eta Celia Oizek utzia.

537 ORT, *Historia del movimiento...* 218-221. Javier de Miguel Saenz, *La Organización Revolucionaria...* 175-176.

538 C. Arni, «Anexo. Hacia...». ORT, *Historia del movimiento...* 220.

539 Liga Comunista-Komunist Elkarte, *¡Contra la Asamblea «Democrática» de Navarra! ¡Por una Alternativa de Frente Único Obrero!*, Iruñea, c. 1974-75, LC, Declaraciones y hojas propaganda-LC Karpeta, BAP. LC, *Declaración de la Liga Comunista. (OSCI) El actual momento y su importancia*, Iruñea, c. 1975 hasiera, Liga Comunista, Declaraciones y hojas propaganda-LC Karpeta, BAP. *Contra la alianza con la burguesía en la Asamblea «Democrática» de Navarra*, c. 1974-75, Liga Comunista-Komunist Elkarte, Declaraciones y hojas propaganda-LC Karpeta, BAP.

hori. PCEik, Kataluniako ACn egin bezala, oposizioaren erakunde unitario eta zabalak sortzearen eta babestearen alde zegoen, eta ahal zen heinean, erakunde horiek oinarriko egiturez hornitzea defendatzen zuen⁵⁴⁰. Baina estatu mailan hartutako erabaki horrek kontraesana suposatzen zuen Hego Euskal Herrian; praktikan PCEn bide beretik aritzea esan nahi baitzuen, eta Hego Euskal Herrian oposizioaren gehiengoa oso bestelakoa zen.

Alabaina, ADNren ekimenak iraupen laburra izanen zuen. Oposizioaren alderdi handienaren faltan ADN erakundea oinarri sozial zabalik gabe geratu zen eta sortu eta hilabete gutxitara desagertuko zen. Handik gutxira, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa biltzen zituen Euskadiko Batzar Demokratikoarekin (ADE, Asamblea Democrática de Euskadi) antzerakoa gertatuko zen. 1975ean sortu zen, eta oposizioko erakunde gehienek PCE erbesteko Eusko Jaurlaritzan onartua izateko presio elementu gisa ikusi zuten. Edonola ere, ez zuen luzaz iraun eta 1976ko Aberri Eguna baino lehen desagertu zen⁵⁴¹.

Korronte ezkertiarren ezberdintasunak: PCE, maoistak eta ezker abertzalea

Beraz, orain arte ikusi dugunaren arabera, alderdi ezkertiarrek iraultza sozialistarako estrategia ezberdinak diseinatu zituzten. Alderdi troskisten edo OICren eta gainerakoen arteko ezberdintasunak argiak ziren: iraultza demokratiko-herrikoia eta aliantza interklasisten aurrean iraultza sozialistaren gaurkotasuna eta klase independentzia aldarrikatu zuten. Baina gainerakoen korronte ezkertiarren artean zenbateko ezberdintasunak zegoen?

PCEk herrialdearen garapen maila aztertzean Espainiako ekonomian ezaugarri feudal eta latifundistak zeudela zioen eta beraz, ez zuen uste Espainian estatu-kapitalismo monopolista erabat garaturik zegoenik. Hala bada, Santiago Carrilloren alderdiaren ustez, iraultza burgesa ez zegoen erabat buruturik eta ekonomiaren atzerapenak eta burgesiaren ezintasunak demokraziaren etorrera oztopatzen zuten. Gainera, burgesiak izaera iraultzailea galdu zuela uste zuen, eta beraz, langile klaseari zegokion iraultza demokratiko-burgesa amaitzea eta Espainian askatasun zibilen eta demokraziaren aldeko borroka egitea⁵⁴². Horren guztiaren ondorioz, PCEn ustez iraultzaren momentuko etapa edo fasea iraultza demokratikoa (edo demokratiko antilatifundista) litzateke. Halaber, borroka antifrankistak aurrera egin ahala, sozialismoranzko bideari beste azpi-etapa bat

540 Marta Campoy Fernández, «El PTE en ...» 190-191.

541 Juan Carlos Jimenez de Aberasturi Corta, Emilio Lopez Adan *Beltza, Organizaciones, sindicatos...* 296-299. *Minuta. Crisis de la dictadura, movimiento de masas y direcciones en Euskadi*, c. 1975-76, LC, BAP. «La Asamblea Democrática de Euskadi. No favorece la unidad», *Abenduak 11*, 10 zbk. (1976/1/10), ORT, 4, Aldizkariak, LBF.

542 Enrique Gonzalez de Andres, *¿Reforma o Ruptura?...* 23-24 eta 35-36.

gehituko zioten; «demokrazia politiko eta soziala», demokrazia formalaren eta sozialismoaren arteko bitarteko trantsizio fase bat litzatekeena⁵⁴³.

Analisi horien arabera, PCEk frankismoaren aurka borrokatzeko Berradiskidetze Nazionalerako Politika kaleratu zuen 1956an, hainbat urte beranduago Askatasunerako Paktu bezala birformulatu zuena. PCEk proposamen horiekin Gerra Zibilaren garaian egondako bi bandoen arteko zatiketa gainditzeko ahalegina egin zuen, oposizio moderatuko indar politikoei eta frankismoaren sektore erreformistei eskua luzatuz. PCEk langileek eta klase zapalduak burgesia demokratikoarekin eta oposizio moderatuarekin aliantza politika antifrankista egin behar zutela zioen; baina ez hori bakarrik, frankismotik eratorritako sektore erreformistei ere atea irekitzen baitzien. Helburua oligarkia atzerakoiena eta diktadura isolatzea zen. Frankismoaren sektore moderatu horiek erakartzeko, demokrazia modu baketsuan berrezartzeko konpromisoa hartu zuen eta beraz, estrategia antifrankistan indarkeriari uko egin zion eta mobilizazioak mugatzen eta kontrolatzen saiatu zen. Zentzu horretan, PCEk diktadura Greba Orokor Nazional baketsu baten bidez eraitsiko zela aurreikusi zuen.

Alderdi maoista gehienek, bestalde, Espainiako gizartearen kontraesan nagusia oligarkia zein inperialismoaren eta herriaren artekoa zela argudiatzen zuten. Baieztapen hori, batzuek herrialdearen garapen ekonomikoa atzeratua zelako (PCEml-k) edo koloniala zelako (MCEk) justifikatzen zuten. Soilik PCEi-k egin zuen irakurketa horrekin bat ez zetorren analisirik. Baina salbuespenak salbuespen, oligarkia zein inperialismoaren eta herriaren arteko kontraesan hori gainditzeko, alderdi maoistek aliantza interklasista zabalak defendatzen zituzten eta fase edo **etapakako iraultza defendatzen zuten**, hau da, iraultzaren lehentasuna sozialista izan beharrean, antiinperialista, antioligarkikoa eta antimonopolistikoa behar zuela uste zuten. Beraz, alderdi maoista gehienek (PCEk bezala) iraultzaren aurreikuspen edo kontzepzio etapista zuten: hau da, iraultzak bi urrats edo etapa ezberdin izanen zituelako ideia zuten. Lehendabizikoa, iraultza demokratiko-herrikoia zen, langile klasea buru zuen aliantza interklasista batek estatu demokratiko aurreratua ezarriko zuen, zeinean monopolioen, inperialisten, lur-jabeen eta oligarkien kalterako izanen zen, baina bertan burgesia demokratikoak toki bat edukiko zuen. Aurrerago, ordea, iraultza sozialista eta proletarioa izanen zen, burgesia guztiz baztertu eta langileen estatua ezarriko zuena.

Ikusi dugun bezala, bai PCEren baita ezker erradikalaren estrategia iraultzaileak oso antzekoak ziren, biak ala biak aliantza interklasistetan oinarritzen zirelako, etapen bidezko iraultza defendatzen zutelako eta sozialismoa etorkizuneko momentu urrunago baterako *sine die* atzeratzen zutelako. Gonzalez de Andresek zentzu horretan, erretorika edo diskurtso iraultzailea gora behera, PCEren erreformismoaren eta maoisten estrategia iraultzailearen artean ezberdintasun handirik ez

543 *Ibid.* 35.

zegoela defendatu du; bi korronteak III. Internazionalako *frontepopulismoaren* eta *etapismoaren* jarraitzaile edo ondorengo zirela uste baitu⁵⁴⁴.

Baina, bien arteko antzekotasun handiak zeuden arren, maoistek PCERI kritika gogorrak egiten zizkioten, iraultzari uko egin eta alderdi erreformista eta errebisionista bilakatu zelakoan. Alderdiok aldaketa edo *traizio* horren jatorria «Berradiskidetze Nazionalerako Deklarazioan» egin zuenean jartzen zuten. Haien ustez, PCEk José Diazen alderdiaren tradizioari eta Fronte Popularraren aliantza politikari uko egin zion.

Gonzalez de Andresek egindako baieztapenak interesgarriak eta iradokitzaileak suertatzen zaizkigun arren, gure uste apalean, PCE eta maoisten arteko ezberdintasunak egon bazeuden. Oro har, lau aspektutan ezberdintzen ziren PCE eta Mao Zedong pentsamenduaren jarraitzaileak.

1) Lehenik eta behin, bi korrontek aliantza interklasistak defendatzen zituzten arren, PCERen kasuan aliantza horiek zabalagoak ziren. Santiago Carrilloren alderdiak begi onez ikusten zuen oligarkiaren eta frankismoaren sektoreak demokraziaren aldera pasa zitezen eta Berradiskidetze Nazionalerako Politikak hori bera bilatzen zuen. Maoistek, aldiz, aliantza politika murriztagoa defendatzen zuten eta frankismo barneko sektoreak aliantza posibleengandik aparte uzten zituzten, sektore demokratiko-burgesekiko aliantza egitea begi onez ikusten zuten arren. Nolabait esateko maoisten Fronte Popularrak aliantza interklasista *antifaxistak* ziren; Berradiskidetze Nazionalerako politikak, aldiz, Erregimenaren parte ziren frankista erreformistekin —hau da, *faxismoaren parte batekin*— akordioa egitea proposatzen zuen. Maoismoarentzako azken hori marra gorri bat zen, eta jokaera hori baztertu zuen.

2) Ezberdintasunetako beste bat indarkeriaren ingurukoa zen. PCEk, gerraosteko makiak desaktibatzea erabaki zituenetik, diktadura modu baketsuan eraitsi nahi izan zuen. Maoistek, aldiz, diktadura eraisteko indarkeria erabiltzea zilegi zela defendatu zuten. Izan ere, *terrorismo indibiduala* kritikatzan bazuten ere, *masa borroka armatua* edo Herri Gudu Luzea erabili beharko zirela aurreikusten zuten. Baina baieztapen hauek modu erretorikoan baino ez zituzten egin, soilik alderdi batek, PCEml-k, egin baitzuen indarkeriaren erabilera efektiboa.

3) Halaber, Gobernuak Erreforma politikoaren inizatiba hartu zuenean (aurrerago ikusiko dugu), PCEk demokraziarainoko aldaketa prozesuaren gidaritzaz Suarezen esku gera zedin gogo onez hartu zuen. Baina maoistak, ordea, ez zeuden Gobernuaren zaintza onartzeko prest, oposizio demokratikoak osatutako BehinBehineko Gobernu batek egon behar zuela uste zuten eta.

544 Enrique Gonzalez de Andres, *¿Reforma o Ruptura?...* 15. Enrique Gonzalez de Andres, «Del antifranquismo...» 23-24. Halaber, kontsulta bitez honako bideoak: Enrique Gonzalez de Andres, «Conferência Museu Aljube - IHC: Esquerdas Radicais Ibéricas, processo revolucionário e transição democrática - ruptura e consenso», Lisboa, 2018/11/22, <https://labur.eus/9Zqvm> (2020ko urrian kontsultatua). «CT2019 3 Esquerra radical Col·lectius i corrents», *Les altres protagonistes de la transició: mobilitacions socials i esquerra radical* Kongresua, Bartzelona, 2019/X, <https://labur.eus/DV08K> (2020ko urrian kontsultatua), bere hitzartzea 1:29:15etik aurrera.

4) Bukatzeko, alderdi maoistek haustura edo iraultza demokratikoa egiteko mobilizazioak zabaldu eta orokortu behar zirela uste zuten, PCERI mobilizazio kontrolatuak eta mugatuak egitea leporatzen zioten bitartean.

Aitortu beharra dago, Gonzalez de Andresek zentzu batean arrazoia daukala: maoismoaren jarraitzaileen eta PCERen estrategia iraultzaileek (paperaren gainean behintzat) antzekotasun handiak zeuzkaten, eta soilik puntu konkretu batzuetan ezberdintzen ziren. Baina teoria politikoaz harago joanda, oinarriko militanteentzako agerikoa zen estrategia iraultzaile *oso ezberdinak* zirela; edo horrela sentitzen zuten behintzat. Militantzia maoistak PCE aldatu egin zela sentitzen zuen, eta hori garrantzitsua zen haientzako, **erreformisten eta iraultzaileen arteko banalerro identitario bat marrazten zuelako**. Horrek, alteritate bat (bestekotasuna) sortzen zuen: *gu* iraultzailea eta *haiak* erreformistak. Ezker erradikaleko alderdien estrategia *iraultzailea* izan zedila oso garrantzitsua zen identitate iraultzaile bat eratzen zuelako, PCERen izaera «erreformista» eta «errebisionistaren» aldean. Hots, militantzia xede edo helmuga teleologiko baten inguruan biltzeko (aglutinatzeko) balioko zuen identitate komun bat eratzen zen, eta haien helburu politikoak demokrazia liberal parlamentarioaz baino harago proiektatzen eta pentsatzen zituzten. Halaber, kontuan hartu behar da klandestinitatearen, zentsuraren eta Txinako gertakarien inguruko desinformazioaren ondorioz militanteek formakuntza saioetan barneratzen zuten Mao Zedong pentsamendua oso desitxuratua zegoela. Beraz, ideologia hori pentsamendu eta teoria politiko iturri koeherentea baino, PCERen *erreformismotik* ezberdintzeko tresna baino ez zen.

Militante ezkertiarrek alderdi iraultzailearen batean militatzea erabakitzen zutenean askotan ez zuten hausnarketa sakon baten ondorioz aukeratzen, normalean harreman sare informalekin eta afinitate pertsonalen bidez ematen zuten alderdiren batean edo bestean sartzeko urratsa. Klandestinitatean ez zegoen katalogorik eta inguruko lankideek, adiskideek edo ikaskideek bultzaturik konprometitzen ziren borrokan⁵⁴⁵. Baina, zoritik zerbait bazuen ere, militante gehienek alde aurretik nolabaiteko kezka sozialen bat izaten zuten, eta militantegaiek alderdia aurkeratzeko orduan, bakoitzaren ideologiak edo estrategiak paper bat jokatu zuten, aipatu berri diren harreman sare informalekin kontraesanean sartu gabe: estrategia iraultzailetzat hartzeak edo ez mundua aldatzeko zeuden etorkizuneko perspektibekin bat egiten zuen.

Orain arte kontuan hartu ez dugun beste korrante iraultzailea ezker abertzalea edo ENAM izan zen. Beste mugimendu ezkertiarren aldean, ezker abertzalea heterogeneoagoa zen, askotariko ikuspegiak elkartzen zirtuelako: nazionalista erradikalak, sozialdemokratak, sozialista-humanistak, marxista iraultzaileak, maoismoaren eraginpekoak eta baita anarkismo eta langile-autonomiaren inguruko sektoreak ere. Ondorioz, sektore eta erakunde bakoitzak estrategia politiko ezberdina

545 Nerea Perez Ibarrola, *Langileria berri...* 385-388.

defendatu zuen, joera horiek guztiak auzi nazionalaren zentraltasunak elkartzen zituen arren. Baina ezberdintasunak ezberdintasun, Euskal Herrian iraultza sozialista egiteko estrategia orokor eta kohesionatu xamarra defendatu zuten korrante gehienek.

Zentzu askotan, ezker abertzalearen estrategia iraultzaileak PCE eta maoisten *etapismo*arekin antzekotasunak izan zituen, baina baita ezberdintasun ugari ere. Oro har, eta Lopez Adanek eta Jimenez de Aberasturik 1976an egin zuten programa bilduma oinarri hartuta, **ezker abertzaleko erakunde gehienek estrategia demokratiko-herrikoiak, antimonopolistak eta antioligarkikoak** zituztela esan dezakegu⁵⁴⁶. Ezker abertzaleko erakundeen ustez, Euskal Herriko kontraesan sozial nagusia *oligarkia inperialista espainol eta frantsesen eta euskal herri langilearen* artekoa zen, eta ondorioz, bi fasetan zatitutako estrategia iraultzailea zegokion euskal iraultzari. Lehendabizikoa iraultza demokratiko-herrikoa litzateke —Euskal Herrian estatu demokratiko-herrikoia eta independente baten ezarpena aldarrikatuko lukeena—, eta gero, hurrengo urratsa iraultza sozialista litzateke. Beraz, maoistek eta PCEk bezala, bi urratsetan egindako iraultza defendatzen zuten.

Aldi berean, frankismoaren eta oligarkiaren aurka borrokatzeko ezker abertzaleko sektore garrantzitsuenek burgesia abertzalearen sektore ezberdinekin aliantza interklasistak egiteko prestutasuna erakutsi zuten. Hala ere, maoistek eta PCEk iraultza demokratikoa egiteko aliantza politikoak burgesia *demokratikoarekin* aliantzak egitea uste zuten bitartean, ezker abertzaleak burgesia *abertzalearekin* egin behar zela defendatu zuen. Ikuspegi horren erakusgarri litzateke, Txabi Etxebarrietak 1967an *Zutik!* aldizkariaren 44. zenbakian, kaleratu zuen metafora ezaguna:

Euskal burgesiaren eta euskal proletariotzaren lankidetzaren elkarrekin etxea eraikitzeko (Euskadi=Nazio askapena) eta, behin etxea eraikirik, biak elkarren aurka egiten dute arazo nazionalan (batzuek logelak modu batera nahi dituzte eta besteek bestela)⁵⁴⁷.

Hala ere, ezker abertzalearen eta burgesia abertzalearen arteko harremana korapilotsua izan zen hurrengo urteetan. Batasun saiakera horrek 1967 eta 1971 urteen artean Fronte Nazionalaren proposamenaren inguruan hartu zuen forma, baina gero, Lorenzo Zabala enpresari abertzalearen bahiketarekin aukera hori baztertu zen. 1976an, aldiz, burgesia abertzalearekiko aliantza hori berregiteko beste saiakera bat izan zen. Telesforo Monzonek bultzatuta Miarrizteko Xiberta hotelean mugimendu abertzale guztiak (EAJtatik hasi ETAREN bi adarretaraino) diktadura

546 Honakoak jaso ziren: ETAm, ETApM, EHAS, LAIA, LAB, LAK eta KASen Manifestua eta alternatiba. Juan Carlos Jimenez de Aberasturi Corta, Emilio Lopez Adan *Beltza, Organizaciones, sindicatos...* 18-77, 236-242, 300-309 eta 330-335.

547 Goiri (Txabi Etxebarrieta), «El socialismo vasco y el Frente Nacional», *Zutik*, 44 (1967/I), ETA, 3, Doc. 2.1, <https://historialcr.info/>.

ondorengo lehendabiziko hauteskundeetarako jarrera bateratua adosten saiatu ziren, baina akordioa ezinezkoa izan zen⁵⁴⁸.

Maoistak, PCE eta ezker abertzalea ezberdintzen zituen beste ezaugarrietako bat indarkeriaren erabilera izan zen. PCEk frankismoaren amaiera baketsua defendatu zuen, eta maoistek, aldiz, indarkeriaren defentsa erretorikoa egin zuten, gero errealitatean ez baitzuten praktikan jarri. Ezker abertzaleak, aldiz, esan beharrik ez dago frankismoaren aurkako kanpaina armatua martxan jarri zuela, eta horrek ezberdintzen zituen bi sektore iraultzaile horiek. Esparru estataleko ezker iraultzaileak, ezker abertzaleari indarkeriaren inguruko kritika egin zion, baina ez auzi etikoen arabera, *eraginkortasun iraultzailearen* arabera baizik, indarkeria horrek iraultzari egiten ahal zion mesede edo kaltearen arabera alegia⁵⁴⁹.

Bukatzeko, ezker abertzalearen eta esparru estataleko alderdi ezkertiarren arteko alde nabariena marko nazionalarena zen. Batzuek iraultza Euskal Herriaren markoaren barruan egin nahi zuten, eta besteek Espainiako marko estatalean. Zentzu horretan, ezker abertzaleak —*etapaka* egindako iraultza defendatu zuen arren— esparru estataleko ezker abertzalearengandik ezberdintzeko askapen nazionalaren eta askapen sozialaren arteko «aldiberekotasuna» (*simultaneidad*) defendatu zuen⁵⁵⁰. Baina, itxura guztien arabera, hori behar identitarioei erantzunen zien trikimailu diskurtsiboa bat litzateke, ezker estatalista eta abertzalearen arteko banalerroa ezartzeko.

Hala ere, arestian aipatu bezala, Ezker abertzalea korrante heterogeneoa zenez, estrategia nazional-herrikoi eta etapista horrekin bat ez zetozen sektoreak ere egon ziren. Horiek 1974tik aurrera eratzen hasiko ziren eta langile klasearen independentzia edo iraultza sozialistaren gaurkotasuna defendatzen zuten korronteak eratu ziren, batik bat, LAIAren zatiketa batzuk eta mugimendu autonomoko beste sektore batzuk.

Haustura ala Erreforma

1974 inguruan egoera politikoan aldaketak gerta zitezkeelako zantzuak azaltzen hasi ziren, hainbat ekitaldi larrik alarma guztiak piztu baitzituzten Erregimenaren inguruko sektore batzuegan. Carrero Almirantearen heriotzak eta Francoren osasun egoerak etorkizuna nolakoa izanen zen zehazteko beharra azaleratu zuten, eta diktadorea hiltzen zenerako Erregimenaren

548 Anai Artea, *Las actas de Txiberta (1977)*, 2011. Francisco Letamendia Belzunce Ortzi, *Historia del ...* 34-35.

549 E5 elkarrizketa: Jesus Urria Bidaurre. Iruñea, 2018/X/30. «No al terrorismo individual», *En Lucha*, 2 zbk. (1973/II/1), ORT, 7-10, <https://prensahistorica.mcu.es/>. «El secuestro de Huarte», *Combate*, 12 zbk. (1973/II) LCR, 23-24, BAP.

550 Juan Carlos Jimenez de Aberasturi Corta, Emilio Lopez Adan *Beltza, Organizaciones, sindicatos...* 20-21 eta 182.

jarraipenak ziurtatuta egon behar zuen. Gainera, Portugalen gertatzen ari zena aurrekari arriskutsua zen eta Krabelinen Iraultzaren moduko asaldadurak saihestu behar ziren kostala ala kostala⁵⁵¹.

Testuinguru horretan, frankismoaren zenbait sektorek Erregimena bere horretan mantentzeko azaleko erreforma batzuk egiteko beharrari erreparatu zioten, Erregimenak iraun nahi bazuen aldaketak egin behar baitzituen. Frankismoan mugimenduak egiten hasi ziren zentzu horretan, baina oposizioak sinesgarritasun gutxirekin hartu zituen azaleratzen hasi ziren sektore *zentrista*, *eboluzionista* edo *aperturista*⁵⁵². Horiek Arias Navarroren edo Manuel Fragaren ingurukoak ziren eta *Otsailaren 12ko Izpirtua* esan zitzaionaren parte izan ziren. Zenbaitetan erreformistak eta bunkerreko sektore gogorrak elkarren aurka jarri izan dira, batzuk demokrazia-aleak eta besteak diktadurazaleak zirelakoan. Baina funtsean, biak ala biak Erregimen frankistaren oinarriak mantentzearen aldekoak ziren, eta ezberdintasun nagusia aldaketa edo erreformen beharren ingurukoak ziren⁵⁵³.

Oposizioak mugimendu horiei agudo erantzun zien eta elkarte unitarioak eratzen hasi ziren. 1974ko udan Junta Democrática de España (Espainiko Junta Demokratikoa, JDE edo *Junta*) eratu zen PCEk sustaturik. Handik gutxira, aldiz, PSOEek bultzatuta Plataforma de Convergencia Democrática (PCD edo *Plataforma*) sortu zen. Bi elkarte horien helburua oposizioko indar politikoak elkartzea eta Espainian erregimen demokratikoa ezartzea zen. Plataforma unitario horien aldarrikapen zerrendan zeuden neurriek *Haustura Demokratikoa* delako proiektua itxuratu zuten, Erregimenaren barrenetik sustatutako *Erreformari* kontrajartzen zitzaiona.

Haustura Demokratikoaren programa, berez, ez zen diktaduraren eraispin edo uzkaile iraultzailea eta ez zuen helburu hurbiltzat gizarte sozialistarik⁵⁵⁴. Nolabait esateko, erregimen demokratiko baterako pasaera bat zen, prozesuan zehar Gobernu frankistaren kontrolik edo zaintzarik eduki gabe. Programa honen ardatz nagusia indar demokratikoen osaturiko Behin-Behineko Gobernua zen, erregimen batetik besterako aldaketa prozesua gainbegiratuko zukeena. Halaber, alderdi eta sindikatu guztien legalizazioa, hauteskunde libreak, amnistia edo nazionalitateentzako autonomia bezalako aldarrikapenak ere Haustura Demokratikoaren programaren parte ziren. Hala ere, Haustura ulertzeko bi modu zegoen. Bata azalekoagoa eta moderatuagoa zen eta oposizio moderatuko alderdiek babesten zuten; ezker iraultzaileko alderdietako batzuek, aldiz, Haustura modu sakon edo erradikalagoan ulertzen zuten.

551 Emmanuel Rodríguez López, *Por qué fracasó...* 75-83.

552 Ramon Lobato (Eladio García Castro), «Informe sobre la situación política y nuestras tareas, aprobado en el III Pleno (I Pleno ampliado) del CC», *Hacia el Socialismo*, I. garaia, 4 zbk., 1974/IV, PCEi, 4-18, <https://archivodelatransicion.es/>.

553 Carme Molinero, Pere Ysas, *De la Hegemonia a...* 112. Ferran Gallego, *El mito...*

554 MC, *De Franco a Juan Carlos I. El Movimiento Comunista en la transición política*, Editorial Revolución, Fuenlabrada, 1979, 58.

Ezker iraultzaileak testuinguru horretan koiuntura berrira moldatzeko estrategia eta diskurtso berriak onartu behar izan zituen. Izan ere, ezker iraultzaileko alderdien estrategia diktadura eraistea eta iraultza egitea zen (batzuek hainbat urratsen bidez, besteek bizkorrago). 1974tik aurrera, ordea, oligarkiaren eta Erregimenaren sektore bat aldaketak egiteko prest egon zitekeelako susmoak zabaldu zirenean, estrategia iraultzaile horiek egoera berrira egokitu behar izan zituzten.

Esan bezala, ezker iraultzailearen gehiengoak Haustura Demokratikoaren alde egin zuen; bereziki MCEk, ORTk eta PTEk. Hiru alderdiok oposizioko plataforma unitarioetan parte hartu zuten, PTEk *Juntan* eta beste biek *Plataforman*. Oro har, alderdi horiek Haustura Demokratikoaren programaren aldaera sakonagoa defendatu zuten eta gorago aipatutako neurri eta aldarrikapenez gain, autodeterminazioa, diktaduraren aparatuen deuseztapena, indar errepresiboen desagertzea eta diktadurako arduradunentzako zigorra ere bildu behar zituen. Halaber, zenbait kasutan bestelako aldaketa sozial sakonagoak ere proposatu zituzten: ezberdintasun sozialak murriztea, demokrazia esparru politikoez haratago zabaltzea, bizitza eredu eta jarreretan aldaketak bermatzea edo monarkia edo errepublikaren gaineko erreferenduma egitea⁵⁵⁵. Militante askok, gainera, Haustura programa itxi eta konkretu baten modura beharrezan, jarrera kritiko eta erradikal gisa ulertuko zuten.

Portugaleko gertakarien ostean, eta Francoren osasuna larritu eta gero, MCEk oso goiz aurreikusi zuen Erregimenaren partetik aldaketak egiteko borondatea egon zitekeela, eta beraz, 1974ko udatik bere taktika politikoa aldatu zuen. Taktika aldaketa hori, *Boletín* izeneko barne agerkariaren 8. eta 9. zenbakietan islatu zen⁵⁵⁶. Diktaduran eraispen iraultzaile bat gertatzeko indar korrelazioa ahula zela iritzita, eta Erregimenak oposizioaren sektore moderatuak Erreformaren proiektura erakarri nahi zituela ikusita, oposizio demokratikoaren batasuna babestea lehenetsi zuen MCEk Haustura Demokratikoaren aldeko programa baten inguruan. Politika horren ondorioz, MCEk politika pragmatiko eta posibilista egin zuen Trantsizioko urte giltzarrietan eta hizkera iraultzailea alde batera utzi zuen, iraultza sozialistaren aldeko alderdi izaten jarraitu zuen arren.

MCEren helburua oposizioaren sektore moderatuenak (garai hartan demokratiko-burges esaten zitzaizkien) erakartzea zen, Erreformaren alde lerra ez zitezen eta ezker iraultzailea isolaturik gera ez zedin. MCEk honela definitu zuen Haustura Demokratikoa: «ez da faxismoaren eraispen iraultzailea (...) alabaina, Erregimenarekin mozketaren erreal bat esan nahi du eta demokrazian ederki sartzea ahalbidetzen du»⁵⁵⁷. Funtsean, nahiz eta Hausturaren programa iraultzailea ez izan, MCEk

555 Gonzalo Whilhelmi, *Romper el...* 364-366.

556 MCE, «La situación actual y nuestra política», *Boletín* 8 zbk. (1974ko uztaila), BAP. MCE, «Acerca de la consigna de Gobierno Democrático Provisional», *Boletín* 9 zbk. (1974ko abendua), BAP. E5 elkarrizketa: Jesus Urria Bidaurre. Iruña, 2018/X/30.

557 *Servir al Pueblo* aldizkariaren 47. alean «Algunos problemas de la lucha por la libertad» artikuluan argitaratua: *De Franco a Juan Carlos I* liburuan jasoa (Movimiento Comunista, *De Franco a Juan Carlos I...* 57-66.) Originalean:

Hausturarekin «herri boterea ernaltzeko» aukera ikusten zuen, aurrerago izanen zen iraultza sozialistarako indarrak metatzeko modu bezala⁵⁵⁸.

ORTk, bestalde, frankismoaren bukaera hurbildu ahala, frankismoaren aurkako programa alternatiboa proposatu zuen: *Alternatiba Demokratiko eta Unitarioa* (ADU)⁵⁵⁹. Arestian esan bezala, ORTk demokrazia eskuratzeko bi modu zeudela uste zuen («demokratiko-burgesa eta demokratiko-herrikoa») eta ADU alternatiba bien arteko batasunaren ondorioz sortuko zen⁵⁶⁰. Gainera, ORTren ustez Erregimenak *eraitsia* izan behar zuen eta demokraziaren iritsiera Erregimenarekin adostea ez zen zilegi. Horretarako, ezinbestekotzat zeukan Greba Orokor Politikoaren bidez (HGP, Huelga General Política) Gobernu frankistak zeukan zaintzaile eta kontrolatzaile papera kentzea eta sektore demokratiko guztien arteko Behin-Behineko Gobernu Demokratikoa (Gobierno Provisional Democrático, GPD) eratzea⁵⁶¹. PTEk, halaber, ORTren antzerako hautu taktikoak egin zituen. PCEml-k, aldiz, kanpaina armatuaren bidez Erreforma saiakera oztopatzeko eginahala egin zuen.

Arestian esan bezala, bultzada unitario horren ondorioz, ezker iraultzaileko alderdi nagusienek oposizioaren sektore moderatuekin bat egin zuten *Junta* eta *Plataforma* bezalako erakunde unitarioetan. MCEk, gainera, atzerriko Eusko Jaurlaritzan parte hartzeko eskaera ofiziala ere egin zuen⁵⁶². Baina Euskal Herrian, indar erradikalek zuten errotze zabalaren ondorioz, ezkererago kokaturiko beste aliantza ardatz bat eratu zen: ezker abertzalearen eta esparru estataleko ezker erradikalaren alderdiek osatutakoa. Aliantza ardatz horren programak, aurrekoaren aldean, urrutiago zihoazen beste aldarrikapen politikoak zekartzan: autodeterminazioa eta indar errepresiboen deuseztatzea. Bi saiakera egin ziren, bata 1975eko bukaeran Euskal Herrikoi Batzarra (EHB, *Herrikoi*), eta bestea 1977ko hasieran, Euskal Erakunde Herritarra (EEH, *Erakunde*). Baina ezker abertzalearen eta esparru espainoleko indarren arteko ezberdintasunek eta akordio faltak zapuztu egin zituzten bi saiakera horiek⁵⁶³.

Alderdi maoistek, orokorrean, Haustura Demokratikoaren programa bere egin bazuten ere, alderdi troskistek oso jarrera kritikoa adierazi zuten. LCRk bere sorreratik bertatik frankismoaren

«... entrar con buen pie en la democracia.»

558 Fernández Rincón, Javier: «La lucha por ...», 132-133.

559 ORTren Komite Zentrala, «Declaración del Comité Central de la ORT. Por Una Alternativa democrática y unitaria frente a la reforma del fascismo», *En Lucha*, 85 zbk., ale berezia, (1975eko otsailaren 7a), ORT. Intxausti Kamarada (Jose Sanroma Aldearen ezizena), «El fascismo y la democracia en la encrucijada», *El Militante*, 9 zbk. (1976ko urtarrilean), ORT, 1-48, Jesus Aos eta Celia Oizek utzia.

560 Intxausti Kamarada (Jose Sanroma Aldearen ezizena), «El fascismo y ...» 29-33.

561 Intxausti Kamarada (Jose Sanroma Aldearen ezizena), «El fascismo y ...», 33-34. Emanuele Treglia, «Izquierda comunista ...», 52-53. Javier de Miguel Saenz, 138 eta 186-189.

562 «Carta del Movimiento Comunista de Euskadi al Sr. Presidente del Gobierno Vasco (20-II-1976)», Juan Carlos Jimenez de Aberasturi Corta, Emilio Lopez Adan *Beltza, Organizaciones, sindicatos...*

563 E5 elkarrizketa: Jesus Urrea Bidaurre. Iruñea, 2018/X/30.

bukaera Greba Orokor Iraultzailearen bidez gertatuko zela uste zuen. Izan ere, beti izan baitzuen diktaduraren akaberaren ikuspegi «insurrekzionalista»; esan nahi baita, borroka txiki eta konketuagoen biderkaketaren bidez matxinada edo altxamendu bat eratuko zela aurreikusi zuten⁵⁶⁴. Gainera, uste zuen Erregimenetik edo sektore burgesetatik erreforma edo irekiera demokratikorik ezin zela espero. Baina etortzetakotan, konfrontazio eta borroka maila altuaren ondorioz, edozein askatasun demokratiko emateak proletariotzaren borroka ahalmena biderkatuko zuen. Beraz, burgesiak bere boterea mantentzeko diktaduraren aparatua errepresiboa behar zuela uste zuten⁵⁶⁵. Baina, 1974ko ekainean «Levantarse la bandera proletaria» izeneko testua kaleratu zuen alderdiak eta ordura arte izan zuen jarrera aldatzen hasi zen; izan ere, egoeraren analisisetan ñabardurak sartzen hasi ziren eta⁵⁶⁶. Lehendabiziko aldiz, burgesia demokratikotzat har zitezkeen sektoreak bazeudela onartu zuen, eta txikiak izanagatik ere, eragiteko ahalmena izan zezaketela ondorioztatu zuen. Gainera, Greba Orokor Iraultzaileak diktadura eraitsiko zuela defendatzen jarraitzen zuen arren, hura «insurrekzio armatu» baten ideiatik aldentzen hasi ziren, eta «aldibereko masa greben» segida modura definitzen hasi ziren⁵⁶⁷.

Oposizioko erakunde unitarioak atera zirenean, bestalde, LCR-ETA VI.ak ez zuen horiekin bat egin, klase independentziaren leloarekin bat ez zetozelako. Alderdi maoistek aliantza interklasista horietan parte hartzeagatik eta «demokraziaren eta kapitalismoaren aurkako borroka artifizialki bereizteagatik» kritika egin zien⁵⁶⁸. Haustura Demokratikoaren programa «burgesiaren aurrean amore ematen zuen programa» zela uste zuen, «masen protagonismoa» saihesteko pentsaturikoa, burgesia diktaduraren eraispen iraultzailearen beldur omen baitzen⁵⁶⁹. Halaber, maoistek defendatzen zuten Behin-Behineko Gobernu Demokratikoen ordean, LCR-ETA VI.ak *Langileen Gobernua* proposatu zuen, hau da, langile alderdi guztiek (PCEk, PSOEek eta ezker iraultzaileak) sindikatuen laguntzarekin eratutako gobernua defendatu zuten⁵⁷⁰.

LCR ere antzeko kritikak egin zizkion Haustura Demokratikoaren programari. Komunisten Ligaren iritziz, elkarte unitarioen programak burgesiari «lur hartzeko pista demokratiko» bat

564 Marti Caussà, «Los orígenes de...» 28-29.

565 Miguel Romero, «Del atentado contra...» 55-56.

566 Miguel Romero, «Del atentado contra...» 53-54. LCR-ETA VI. Bulego Politiko Batua, «Levantarse la bandera proletaria», *Inprecor*, 7 zbk. (1974/VI/30) 6-17, Doc. 3.4, <https://www.historialcr.info/>. Ricard Martínez I Muntada, «La izquierda revolucionaria ...», 155.

567 LCR-ETA VI. Bulego Politiko Batua, «Levantarse la bandera ...», 16-17.

568 A.B., «Las 'alternativas' a la Junta Democrática», *Combate*, 27 zbk. (1974/X/1) LCR-ETA VI., 8-13, Doc. 3.8 <https://www.historialcr.info/>.

569 «Coordinación unitaria de partidos obreros», *Combate*, 66 zbk (1977/I/15), LCR, 3-4, Doc. 3.47, <https://www.historialcr.info/>.

570 Ricard Martínez I Muntada, «La izquierda revolucionaria ...», 155.

eskaintzen zion⁵⁷¹. Baina ez hori bakarrik *Herriko*i bezalako erakunde unitarioei ere kritika egin zien LCk; izan ere, organismo horiek oposizio erreformistak prestatutako erakunde unitarioak baino pixka bat ezkererago kokaturik zeudela uste bazuen ere eta bertan elementu burgesik ez zegoen arren, «klase kolaboraziorako organismotzat» zeuzkan⁵⁷². LCk ere langile alderdiek eraturiko eta «ministro burgesik gabeko» Gobernuaren defendatzen zuten⁵⁷³.

Oposizioak proposatzen zuten Haustura Demokratikoaren programaren aurrean, Gobernuaren zenbait sektorek **Erreformaren** proiektua defendatu zuten, hasiera batean Erregimena azaleko erreformen bidez mantentzea helburu zuena. Monarkiaren lehendabiziko Gobernuaren, Arias Navarro eta Manuel Fraga, 1975 eta 1976 urteen arteko neguan «Francorik gabeko frankismoa» mantentzen saiatu zen. Moldaketa horiek egin ahal izateko, alabaina, gizarte desmobilizatua eta oposizioaren parte hartzea beharrezkoak ziren eta saiakerak gutxi iraun zuten, 1975ko abendutik 1976ko ekainera bitarte. Oposizioaren mobilizazio olatuak (batik bat, Gasteizeko urtarriletik martxora bitartekoak) erreformismo kontinuitatearen legitimitatea higatu zuten eta proiektu horren jarraikortasuna zalantzan jarri zen. Orduan, Juan Carlos erregeak Adolfo Suarez falangista gaztea presidente izendatu zuenean, Gobernuak bere burua aldatzeko egitera beharturik ikusi zuten eta eta aldatzeko prozesu ziurgabe bat abiatu behar izan zuten⁵⁷⁴.

1976ko abenduan, Suarezren Gobernuak Erreforma Politikorako Legea aurkeztu zuten, eta legegaren inguruko erreferenduma oposizioaren eta Gobernuaren arteko buruz buruzkotzat hartu zen, bakoitzaren indarrak neurtzeko balioko zuena. Erreferendum hark demokratikotik gutxi izan zuten, abstentzioaren edo aurkako iritzia alderdiaren aldeko kanpaina egitea jazarria izan baitzen. Baina, oro har, hautesleek baiezko borobila eman zioten lege proiektuari eta Gobernuaren indartua atera zen: parte hartzea %77,72koa izan zen eta %94,45ak baiezkoaren alde egin zuten.

Aurreko Gobernu erreformisten aldean, Suarezek oso modu trebean jokatu zuten. Hasiera batean ez zegoen batere argi zein izanen zen Suarezren Gobernuaren nahia. Baina, aldatzeko egitera behartuta zegoenez, mugimendu antifrankistari inizatiba eta ekinbidea kentzen saiatu zen, oposizio moderatuaren aldarrikapen batzuk bere eginez. Betiere egoeraren kontrola mantendu nahian, Haustura Demokratikoaren programaren neurri batzuk onartu zituen, eta horrela Hausturaren programa desitxuratzea eta lausotzea lortu zuten⁵⁷⁵. Orduetik aurrera, Hausturaren proiektu

571 Minuta. *Crisis de la dictadura, movimiento de masas y direcciones en Euskadi*, c. 1975-76, LC, BAP.

572 LCren Euskadiko Komite Exekutiboa, *Programa nacional de Euskadi*, BAP. LCren Euskadiko Komitea, *Euskadiren askatasunaren alde. Komunist Elkarteak proposatzen duena*, 1976, Euskadiko Komitearen agiria, BAP.

573 LCren Euskadiko Komite Nazionala, *Autodeterminación para Euskadi*, 1976, BAP. LCren Euskadiko Komite Nazionala, *Centenario de la abolición de los fueros vascos*, 1976/VII/21, LC, BAP.

574 Pere Ysas, «Ni modelica,...» 273-287.

575 Gonzalo Whilhelmi, *Romper el consenso...* 364-366. Carme Molinero, Pere Ysas, *De la Hegemonia a...* 181-188.

originalaren eta Erreformaren arteko ezberdintasunak gero eta txikiagoak bilakatu ziren. Funtsean neurri demokratizatzaileak hartzeko formara eta Gobernu postfrankistaren zaintzaile paperaren onarpenera mugatu ziren; hots, bien arteko ezberdintasunak *edukian* baino *moduan* geratu ziren. Handik gutxira, oposizio moderatuaren parte batek Hausturaren aldeko jarrera utzi zuen eta Gobernuarekin negoziatzen hasi zen, balizko hauteskundeetarako legalizazioa eskuratzeko asmoz. Bestela esanda, *Haustura Hitzartua* bezalako eufemismoekin Suarezren Gobernuaren Erreformaren markoa onartu zuten. Jarrera aldaketa horrek oposizioaren batasuna hautsi zuen eta oposizioko elkarte unitarioek erabilgarri izateari utzi zioten⁵⁷⁶. Laster, ezker erradikaleko alderdiak Haustura Demokratikoaren defentsan bakarrik geratu ziren.

PTEk testuinguru horretan Greba Orokor Politikoa eta Behin-Behineko Gobernu Demokratikoa lortzea ezinezko bilakatu zela ondorioztatu zuen, eta beraz, ordura arte mantendu zituen lelo hausturazaleak alde batera utzi zituen. ORTk, ordea, Hausturaren, Greba Orokor Politikoaren eta Behin-Behineko Gobernu Demokratikoaren leloei eutsi zien, ia hauteskunderen bezperara arte, ordurako Haustura gertatzeko aukerarik ez zegoen arren. Erabaki horren ondorioz, kritika garratzak zuzendu zizkion PTEri⁵⁷⁷. Lelo horiek hainbeste mantendu izanak eztabaida biziak sortu zituen hainbat hilabete beranduago (1977ko irailean) eginen zen ORTren I. Kongresuan. Korrante batek zuzendaritzari ADUaren aldeko jarrerari luzeegi eutsi izana leporatu zion eta, PTEk bezala, 1976ko abenduan erretiratu behar izan zutelako ideia defendatu zuen. Beste korrante batek, ordea, Behin-Behineko Gobernu Demokratikoaren leloa moderatuegitzat hartzen zuen, eta Behin-Behineko Gobernu Iraultzailea defendatu behar zela uste zuen, oposizioko sektore erreformistak bazterrean utzita⁵⁷⁸.

MCK, bestalde, 1974 eta 1977 artean Haustura Demokratikoa errazteko asmoz indar demokratikoen arteko batasuna aldarrikatu zuen, jarrera pragmatiko eta posibilistarekin. Baina, oposizioko indarren batasuna hautsi zen momentutik, bere jarrera aldatzen hasi zen eta ezkerreko fronte bat eratzearen alde lerratu zen⁵⁷⁹.

LCRri (I. Kongresuan izen originala berreskuratu zuen eta ETA VI. abizena kendu zioten) dagokionez, klase independentziaren printzipioari eta frankismoaren eraispen iraultzaileari oso

576 «Romper el compromiso de Coordinación Democrática es servir al Gobierno reformista. Intervención del camarada Amancio Cabrero en la Reunión de Coordinación Democrática del día 11», *En Lucha*, 137 zbk. (1977/II/12), ORT. Santos Julia, *Transición: historia de una política española (1937-2017)*, Galaxia Gutenberg, Bartzelona, 2017, 356-377.

577 Emanuele Treglia, «Izquierda comunista ...» 56-58. Javier de Miguel Saenz, 204-206. ORT, *Informe del II pleno del Comité Central tras la I Conferencia del Partido*, c. 1976-77,42/9005 kutxa, AGA.ORTren Komite Zentralaren idazkaritza politikoa, *Frente a la farsa de Suarez, la solución democrática, declaración de la secretaría política del Comité Central de la ORT*, 1977/I/30, ORT-6-6, FPI.ORTren Komite Zentralaren idazkaritza politikoa, (*Solo para camaradas*) *la actuación de los dirigentes del PTE en contra de nuestro partido*, 1977/III/13, ORT-6-23, FPI.

578 Emanuele Treglia, «Izquierda comunista ...» 60.

579 Fernández Rincón, Javier: «La lucha por la democracia en clave antifascista. ...», 142.

berandura arte eutsi zien. Horri esker, koherentzia iraultzailea kontraesanetan sartu gabe mantentzea lortu zuen LCRk, baina trukean oposizioko gainerako sektoreetatik bereizirik geratu zen, batez ere maoistek sektore demokrata-burgesekin akordioak egitea lehenetsi zutenetik⁵⁸⁰. Greba Orokor Iraultzailearen leloa Francoren hil zen arte mantendu zuen, baina ordutik aurrera, diktaduraren eraipen insurrekzionala posible ez zela ondorioztatu, eta kontzeptuak *Iraultzaile* epitetoa galdu zuen. Hala ere, Greba Orokor batek monarkia eraitsi zezakeelako perspektiba mantendu zen eta «Monarkiaren aurkako Greba Orokorraren» aldeko leloak 1977ko urtarrilera arte (Atochako heriotzak gertatu ziren arte) mantendu ziren⁵⁸¹. 1976an zehar, LCRk aldarrikapen demokratiko eta sozialak lelo antikapitalistetik bereizten hasi zen. Sansen ustez, jarrera hori horren berandura arte mantendu izana «irreal» zen eta «gertakariak baino urrats bat atzerago» ibili zen LCR⁵⁸². Azkenean, esplizitu egin gabe (ez baitzen ohikoa LCRk *Haustura* hitza erabiltzea) eta erakunde unitarioetan parte hartu gabe izan bazen ere, LCRk ere Hausturaren programaren aldaera berezia bereganatu zuen⁵⁸³. Baina berandu zen, Erreforma ia erabat ezarrita edo ezartze bidean zegoelako ordurako.

Komunisten Ligari antzekoa gertatu zitzaion, baina koiunturak egoera okerragoan harrapatu zuen. Alderdiaren III. Kongresuan (1976ko abuztuan) artean burgesiak diktaduraren beharra zuela defendatu zen eta erreformen bidezko demokratizaziorik gertatuko zenik ukatzen zen. Kongresuko berritasunik garrantzitsuena taktika sindikalaren aldaketa izan zen, CCOO utzi eta UGTn sartzea erabaki baitzuten⁵⁸⁴. Baina Kongresua eta gero, liskar larriak piztu ziren alderdian: LCko lider nabarmenena izandako Juan Colomar eta bere aldekoek ez zituzten onartu Kongresuaren emaitzak eta alderdian eztabaidak eta zatiketak gertatzen hasi ziren⁵⁸⁵. Horren ondorioz, eztabaidetan erabat korapilatuta eta tendentzietan zatituta geratu zen alderdia, politika koherente eta eraginkorrik egiteko aukerarik gabe.

580 Ricard Martínez I Muntada, «La izquierda revolucionaria ...», 162. E5 elkarrizketa: Jesus Urra Bidaurre. Iruñea, 2018/X/30.

581 Hainbat egile, «Aclaraciones sobre la resolución central», *Proyecto*, 1 zbk. (1976/VI) I-IV, Doc. 3.30, <https://www.historialcr.info/>. «Para un balance político y organizativo de la dirección central», *Proyecto* 10 zbk. (1976/VI), 2-8, Doc. 3.31, <https://www.historialcr.info/>. «Derrocamiento de la dictadura, huelga general revolucionaria y tareas de los m-r», *Proyecto* 4 zbk. (1976/VI), 9-18, Doc. 3.33, <https://www.historialcr.info/>. Ricard Martínez I Muntada, «La izquierda revolucionaria ...», 156-161.

582 Joel Sans, «Entre las instituciones y la movilización: la crisis de la izquierda radical durante la Trantsicion», Rafael Quirosa-Cheyrouze Muñoz, Luis Carlos Navarro Perez, Monica Fernandez Amador (Koord.), *Las organizaciones políticas*, Almeriako Unibertsitatea, 2011, 649-666.

583 Ricard Martínez I Muntada, «La izquierda revolucionaria ...», 156-57.

584 Ramon Contreras, «La Liga Comunista...» 83-87.

585 *Ibid.* 87.

Ondorioak

Hausturaren eta Erreformaren arteko lehia Trantsizio garaiko auzi garrantzitsuenetako bat izan zen eta horren inguruko eztabaida oraindik emankorra da. Izan ere, Haustura bera gertatu zen edo ez eztabaidagai da oraindik. Historiografian auzi horri hainbatetan erreparatu egin zaio eta hainbat irakurketa ezberdin egin dira.

Eztabaida publiko eta mediatiko orokorretan Trantsizioak suposatu zuen eraldaketa politikoko prozesua Erregimenetik zetozen handikien borondate demokratikoa zela esaten da oraindik. Baina, 1990eko hamarkadatik aurrera, korrante historiografiko gehienek prozesuaren garrantzia oposizioaren presioari eta gizarte mugimenduen mobilizazioari esker izan zela aitortu dute⁵⁸⁶. Korrante historiografiko horien gehiengoaren ustez, Haustura ez zen posible izan, oposizioak nahikoa indarrik metatzea lortu ez zuelako, baina Erreformak ere porrot egin zuenez bien arteko *ahultasun korrelazioa* (Manuel Vazquez Montalbanek esan bezala) gertatu zen. Beraz, oposizioaren zein Erregimeneko erreformisten arteko indar berdinketa zela eta bien arteko konpromisoa gertatu bide zen, eta bien arteko proiektuaren sintesiak *Haustura Hitzartua* eman zuen⁵⁸⁷.

Halaber, korrante historiografiko horrek PCEk eta oposizioko beste indarrek Hausturaren programari uko egin ziotenik ezeztatzen du. Suarez aldetak egiten hasi zenean Hausturaren programaren gehiengoa bere egin zuenez, eta bukaerako emaitza —ñabardurak ñabardura— oposizioak eskatzen zuenaren antzekoa izan zenez, Haustura Hitzartuaren emaitzak Haustura Demokratikoaren programa originalaren gehiengoa bete zuela defendatzen dute (beste bide batetik izan bazen ere)⁵⁸⁸. Horien ustez, Behin-Behineko Gobernu Demokratikoa izan zen Haustura Demokratikoko programa originaletik bete ez zen neurri bakarretako bat.

Carme Molinerok eta Pere Ysasek defendatzen dutenaren arabera, esate baterako, PCEk frankismoaren bukaera eragiteko Greba Nazional Politikoa egin nahi zuen. Baina momentu giltzarrian, 1976ko urte hasierako hilabeteetan, ez zen posible izan. Haien ustez, Santiago Carrilloren alderdiak ez zuen mobilizazioak eteteko agindurik eman eta ez zen egon inolako «traiziorik», baina indar metaketa ez zen nahikoa izan. Ondorioz, oposizioa ez zen diktadura eraisteko gauza izan. Ordutik aurrera, Gobernuak ekinbidea bere esku hartu zuen eta langile

586 Besteak beste testuaren hasieran aipatu diren Santos Julia, Javier T Xavier Domenech, Pere Ysas, Carme Molinera, Ferran Gallego,

587 Xavier Domenech Sampere, *Cambio político...* Ferran Gallego, *El mito de...* Gregorio Moran, *El precio de la Transición*, Akal, Bartzelona, 2015. Santos Julia, *Transición: historia de una política española (1937-2017)*, Galaxia Gutenberg, Bartzelona, 2017, 356-377.

588 Carme Molinero, Pere Ysas, *De la hegemonía...* 403.

mugimenduaren mobilizazioek izaera politikoa galdu zuten goitik egindako politikaren mesedetan⁵⁸⁹.

Hala ere, badaude iritzi horrekin bat ez datozen bestelako historialariak, ospe eta izen txikiagokoak; nolabait esateko *outsider*-ak. Enrique Gonzalez de Andresen arabera, konparaziora, Hausturarik egon ez bazen PCEk horrelakorik nahi ez zuelako izan zen. Bere ustez, oposizioak bazuen Haustura eragiteko adinako babes sozialik, baina PCEk, gutxienez 1950eko hamarkadatik, frankismoaren bukaera baketsu eta adostua bultzatzea lehenetsi zuen. Ondorioz, Trantsizioko momentu giltzarrietan, Haustura eragiteko presio gehien egin behar zen momentuan, mobilizazioak era kontrolatu eta mugatuan egin zituela uste du, egoera kontrolpetik joan ez zedin⁵⁹⁰. Helburua Erregimenari presioa egitea zen, hura erabat eraitsi gabe.

Juan Andradek, bestalde, PCEk momenturen batean Hausturari uko egin ziola ondorioztatzen du. Gainera, bere erabaki politikoetako asko koiunturari moldatzeko epe motzeko erabaki taktiko modura hartu zirela uste du Andradek, eta hartzerakoan bere tradizio politikoari zegozkion ezaugarri ideologiko eta identitariori uko egin ziela uste du⁵⁹¹.

Gonzalo Whilhelmiren ustez, bestalde, Hausturak ez zuen programa koherente eta bateratu bat eratzerik lortu, oposizio moderatuarentzako eta ezker iraultzailearentzako kontzeptu horrek esanahi ezberdina izan zuelako. Gainera, Hausturaren aldekoek ez zuten erdietsi aldarrikapen material eta berehalakoak Hausturaren beharrarekin elkar zitezen⁵⁹². Gainera, Haustura «dena ala ezer ez» moduko dikotomia bat ez zen arren, frankismotik eratorritako erreformistek bere burua ezkerren matxinadaren eta bunkerraren atzerakadaren arteko erdibide gisa irudikatzea lortu zuten eta gizartearen parte batek hala ulertu zuen. Horregatik, Whilhelmiren ustez, ezker iraultzaileak proposatu zuen Haustura eta Erreformaren arteko auzi dikotomikoa ez zen oso «eraginkorra» izan⁵⁹³.

Esan bezala, Haustura Demokratikoa Espainiako gizartean oraindik esanahi handia duen kontzeptua da, batez ere ezkerreko jendearen artean. Izan ere, egungo sistema politiko eta sozialaren gaitz eta akats franko Trantsizioan Haustura gertatu ez izanari leporatzen zaizkio, PCEk Trantsizioan jarrera moderatuegia izan zuelakoan eta Haustura Demokratikoaren proiektuari *traizio* egin ziolakoan⁵⁹⁴. Zentzu horretan, **Hasturaren kontzeptuak egungo Erregimen politiko eta**

589 Juan Andrade Blanco, *El PCE y el PSOE en (la) Transición, la evolución ideologica de la izquierda durante el proceso de cambio político*, Siglo XXI, Madril, 2015, 328.

590 Enrique Gonzalez de Andres, *¿Reforma o Ruptura? ...* 247-262.

591 Juan Andrade Blanco, *El PCE y...* 78-80.

592 Gonzalo Whilhelmi, *Romper el...* 158-159.

593 *Ibid.* 366.

594 Hector Gonzalez, «La izquierda radical y el mito de la traición», *Las otras protagonistas ...* 773-784.

sozialarekin bat ez datozenentzat *ilusio kontsolagarri modura funtzionatzen* du, *egungo sistemarekiko aurkakotasuna adierazteko balio duen elementu *melankolika** baita.

Hala ere, Hausturaren kontzeptua argitzea eta desmitifikatzea komeni dela uste dugu. Ikusi dugun bezala, Haustura Demokratikoaren programak bi aldaera zituen: bata azalekoagoa eta beste sakonagoa. Funtsean, Hausturaren aldaera moderatuenaren oinarritzko programak demokrazia parlamentario liberal tradizionalerako bidea eskatzen zuen eta ez zuen diktaduraren eraispen iraultzailea bilatzen, beraz, bere ondorio naturala ez zen erregimen sozialista baten ezarpena izanen. Erreformak ekarritakoa baino «demokrazia sakonagoa» zen, «baina ez zen diktadurak eta Trantsizioak sortutako gaitz guztien aurkako konponbidea»⁵⁹⁵. Baina Hausturaren aldaera sakonagoaren programa, bestalde, argi dago ez zela bere osotasunean bete, autodeterminazioa, diktaduraren aparatuen deuseztapena, indar errepresiboen desagertzea, diktadurako arduradunentzako zigorra, ezberdintasun sozialak murriztea, bizitza erduetan aldaketak eta errepublikaren gaineko erreferenduma bezalako auziak ebatzi gabe geratu zirelako.

Gaur egunetik zaila da jakitea zer gertatuko zen diktaduraren eraispena sakonagoa izan balitz, baina Portugaleko ispiluan begiratuta, emaitza zer nolakoa izan zitekeen imajinatu dezakegu. Han diktadura iraultza batek eraitsi zuen eta Hausturaren moduko prozesua bizi izan zuten, Trantsizio prozesua ez zuelako Gobernu salazaristak kontrolatu. Gaur egun, ordea, Portugal eta Espainiaren arteko aldea ez da horrenbestekoa: biak ala biak Mendebaldeko blokearekin (NATO eta Europar Batasunarekin) aliatutako herrialdeak dira eta bietan merkatu ekonomia kapitalista da nagusi.

Hausturaren proiektua gora-behera, Nafarroan (eta modu orokorrago batean Hego Euskal Herrian) egoera berezia zegoela azpimarratu beharra dago. Indar iraultzaile eta hausturazaleek Espainiako beste zonalde batzuetan baino errotze ahalmen zabalagoa izan zuten eta gizartearen sektore zabalagoekin zeuden konektatuta. Nafarroa Garaian, beraz, **Haustura demokratikoaren aldeko oinarri sozial zabala eratu zen** eta Espainiako beste tokietan baino erradikalagoa izan zen. Frankismoaren azken urteetan Erregimenaren aurkako mobilizazioek intentsitate berezia izan zuten, Espainiako beste toki batzuetako konfliktibitate eta erradikaltasun altuagokoak izan baitziren. Euskal Herrian langile mugimendu erradikalak indar gehien eduki zuen tokietako bat zela adierazten duten seinale gisa urte horietan izan ziren jarraipen handiko greba orokorrak har ditzakegu. Gainera, nazio auziak bete-betean jotzen zuen Nafarroa, eta ETAREN zein Estatuaren indarkeriek egoera polarizatu zuten.

Haustura Demokratikoaren aldeko oinarri soziala askoz ere zabalagoa zen arren, Nafarroan ezta ere, indar ezkertiarrek ez zuten lortu oposizio hausturazalearen programa bateratu eta osaturik

595 Gonzalo Whilhemi, *Romper el...* 369-371.

adostea. Hainbat ekimen unitario izan ziren arren (ADN, *Herrikoi* eta *Erakunde*), indar politiko ezberdinen arteko tirabirek eta adostasun ezak plataforma horien porrot goiztiarra eragin zuten. Erakunde unitario horiek arrakastarik izan ez zuten arren, oposizio antifrankista gehiena elkartzea lortu zuen beste marko unitario bat ere izan zen: Ekintza Batasunak (Unidades de Acción). Ekintza Batasunak mobilizazio konkretuetarako deialdiak prestatzeko antolatzen ziren ekimen unitarioak ziren. Haien eginkizuna, esan bezala, mobilizazio konkretuei (greba orokorrak, borroka egunak eta abar) erantzutea izaten zen, eta beraz, behin-behineko izaera izaten zuten. Bertan gizarte mugimenduetan aritzen ziren alderdiak ordezkaturak zeuden, eta besteak beste, leloak adosteko, propaganda prestatzeko eta mobilizazioak antolatzeko erabiltzen ziren. Ekintza Batasunak marko unitario arrakastatsua izan ziren, bere funtzioa betetzeko eraginkorrak baitziren. Orokorrean eskualde mailakoak ziren (Iruñerrian eta Tuteran behintzat), eta beraz, ez zuten hausturaren inguruko akordio programatiko orokor eta egonkorrik egiteko balio izan.

Espainiako beste toki batzuetan oposizio moderatuko alderdiek oposizioko mugimendu antifrankistak Haustura Hitzartuaren bidez kontsentsurantz eta Erregimen berriaren onarpenerantz bideratu ahal izan zituzten. Nafarroa Garaian, aldiz, indar horiek (batik bat PCEk) errotze ahalmen ahulagoa izan zuten eta oposizioko indarrak muturrekoagoak zirenez, Erreforma postfrankistak zailtasun handiagoa izan zuen Nafarroan ezartzeko eta eginahal berezia egin behar izan zuen. Amnistia partzialek, krisi ekonomikoaren lehen zantzuek, erakunde politiko berrien mugek eta Nafarroa gainerako euskal lurraldeengandik bereizirik uzteak oposizio antifrankistatik zetozen **gizarte mugimendu erradikal eta mobilizatuak ez zituzten ase, eta askok, Erreformak eskaintzen zuen Erregimen berriaren aurka borrokatzen jarraitu zuten.**

5.2. Nazio auzia

Nazioa auzia Espainiako historiako Aro Garaikidean gatazka sozialen ezinbesteko osagai izan da. Espainian azken bi mendeetan izan diren gertakari garrantzitsu gehienetan herrialdearen lurraldetasunak, identitateen arteko talkak eta dibertsitate linguistiko-kulturalak garrantzi handia izan du beti.

Gainera, herrialdeak jasan izan zuen estatu-nazioaren eraikuntzaren prozesu bereziaren ondorioz, indar zentrifugoak edo periferikoak (izan autodeterministak, federalistak edo independentistak) indar zentripetoak baino aurrerakoiagoak kontsideratzen dira. Zentzu horretan, Phillip W. Silver, hispanista estatubatuarra, —Ortega y Gasseten obraren ezohiko interpretazio bat oinarri hartuta— Espainiako zentroaren eta periferiaren arteko tentsioan jarri zuen arreta. Tentsio

hori bera Espainiaren osotasunarentzat mesedegarri den «printzipio dinamikotzat» eta «indar eragileatzat» dauka Silverrek⁵⁹⁶. Hau da, Kataluniak eta Euskal Herriak, bere dinamika propioekin Estatu guztia bultzatzen dutela proposatu zuen⁵⁹⁷.

Zentroaren eta periferiaren arteko joera hori frankismoa baino lehenagokoa zen arren, diktadurak iraun zuen berrogei urte luzeetan areagotu eta indartu zen. Izan ere, nazionalismo espainiarra eta berari zegokion identitatea frankismoarekin identifikatuta geratu ziren. Erregimenak «birnazionalizazio prozesu behartua eta zentralismo erasokorra» ezartzeko saiakera egin zuen, nazional-katolizismoan eta «nostalgia inperialean oinarritutako» errelatu nazional batez lagundurik⁵⁹⁸. Ondorioz, Espainiako identitate nazionala diktadurari loturik geratu zen, eta orduan, periferiako indar zentrifugoak iratzarri ziren heinean, oposizio antifrankista Espainiaren ideiatik aldendu eta periferiako identitateekin errazago identifikatu zen⁵⁹⁹.

Horregatik izan zuen berealdiko garrantzia nazio auziak frankismoaren hondar urteetan zein Trantsizio garaian. Nazionalitate (orduan horrela esaten baitzen) eta eskualdeei lotutako aldarrikapen eta mobilizazioek frankismoaren higadura prozesuan garrantzi handia izan zuten, langile mugimenduari lotutakoen atzetik beti ere. Indar periferikoen higitze-ahalmen hori nazionalismo historiko garrantzitsuak zeuzkaten eskualdeetan (Katalunia, Euskal Herria eta Galizia) gertatu zen batik bat, bertako tradizio nazionalista zela eta. Baina baita tradizio nazional historikorik gabeko eskualdeetan ere, autonomiaren aldeko aldarrikapenak zentralismo frankistaren eta lurralde desorekentzako konponbide bezala ulertzen baitziren⁶⁰⁰.

Euskaltzaletasun antifrankista

Frankismoaren aurkako borroka, izatez, ez zuen identifikazio nazional konkreturen bat izan beharrik, baina prozesu konplexuen ondorioz, Nafarroako oposizio antifrankistaren gehiengoak aldarrikapen euskaltzaleak bereganatu zituen. Bai euskal kulturaren aldeko aldarrikapenak baita joera antizentralistak, demokraziaren edo iraultzaren aldeko aldarrikapenekin batera, oposizio

596 Philip W. Silver, *Nacionalismos y transición: Euskadi, Catalunya, España*, Txertoa, Donostia, 1988, 16-21.

597 Nazio auziari buruz gehiago sakontzeko: Xacobe Bastida Freixedo, *Miseria de la autonomía: una filosofía del estado autonómico*, Universidad de Oviedo, 1999. Xacobe Bastida Freixedo, *La nación española y el nacionalismo constitucional*, Ariel, 1998. Diego Diaz Alonso, *Disputar las banderas: los comunistas, España y las cuestiones nacionales (1921-1982)*, Ediciones Trea, 2019.

598 Jaime Pastor, *Los nacionalismos, el Estado español y la izquierda*, Oveja Roja, Torrejón de Ardoz, 2014, 103-104.

599 Alejandro Quiroga Fernandez De Soto, «Coyunturas críticas: La izquierda y la idea de España durante la Transición», *Historia del presente*, 13 zbk.(2009), 21-40.

600 «Estatutos de autonomía para las nacionalidades y regiones», *En Lucha*, 158 zbk., (1977/VII/10), ORT, 4-5, <https://archivodelatransicion.es>. Alvaro Perez, «La participación de la izquierda radical Española en la construcción regional de Castilla y León (1975-1983)», *Las otras protagonistas...*, 823-839.

antifrankistaren ADNaren parte bilakatu ziren. Horregatik **euskaltzaletasun antifrankista** dei genezakeen identitate eta sentimendu kolektiboa eratu zen.

Azalpenarekin jarraitu aurretik, alabaina, *euskaltzaletasuna* kontzeptua argitzea komeni da. *Euskaltzaletasuna*, sarri *baskismo* izenez ere ezaguna, euskal kulturaren eta euskararen aldeko jarrera edo iritzia da, eta Nafarroa Garaia kasuan, gainerako euskal lurraldeekiko atxikimendua ere adierazten du batzuetan. Hala ere, ez da euskaltzaletasuna *abertzaletasunarekin* edo *euskal nazionalismoarekin* nahastu behar, zenbaitetan bien arteko muga lausoa suertatu daiteke eta. Mendiolak azpimarratu nahi izan duen bezala, euskaltzaletasuna «abertzaletasunaz harago» joaten zen⁶⁰¹. Euskaltzaletasuna kontzeptu *kulturalagoa* da, euskal kulturarekiko eta euskal hizkuntzarekiko atxikipena edo begikotasuna baitauzka oinarri; baina euskaltzaletasunak (abertzaletasunaren aldean) ez du ezinbestean Euskal Herriaren nazio subiranotasuna aintzat hartzen, eta ondorioz, espainiaritasunarekin, frantsesitasunarekin edo nabarrismoarekin bateragarria litzateke. Euskal abertzaletasuna, aldiz, kontzeptu *politikoagoa* litzateke eta —euskal kulturarekiko atxikimendua adierazteaz gain— Euskal Herria edo Euskadi naziotzat hartzen du; ondorioz, abertzaletasunak subiranotasun nazionala aitortzen dio, eta Euskal Herria subjektu politiko subiranotzat dauka.

Horietaz gain, bada Nafarroan beste identitate bereizgarri bat, *nabarrismo* izenez ezaguna. Nabarrismoak Nafarroa Garaia historia eta kultura bereziak aldarrikatzen dituen pentsamendua da. Pentsamendu edo identitate hori II. Karlistaldiaren (1872-1876) bukaeratik zabaldu zen Nafarroan eta bultzaitzaile kementsuenetakoa bat Arturo Campion izan zen⁶⁰². Nabarrismoak historian zehar ezaugarri eta esanahi ezberdin ugari izan ditu eta iraganean euskaltzaletasunarekin, abertzaletasunarekin zein espainiaritasunarekin bateragarria izan da. Izan ere, egun nabarrismoa, batez ere, abertzaletasunaren aurkako erregionalismo espainolista eta eskuindarrarekin lotzen bada ere, euskaltzaletasuna Berrezarkuntza eta II. Errepublikaren garaiko nabarrismoaren ezaugarrien parte ere izan zen⁶⁰³.

Bada, arestian esan dugun bezala, aldarrikapen euskaltzaleak antifrankismoko mugimendu eta alderdi gehienek ezaugarri bilakatu ziren. Identitate nazional edo erregional horrek frankismoaren errelato nazionalarekin eta lurralde antolaketa ereduarekin talka egiten zuen.

601 Fernando Mendiola Gonzalo, «Entre los viejos...» 13.

602 Emilio Majuelo Gil, *La idea de Historia en Arturo Campion*, Txalaparta, Tafalla, 2015.

603 Alvaro Baraibar, Juan Maria Sanchez Prieto, «La controversia Navarra-Euskadi», Jose Luis Ramirez Sadaba, (zuz.), *Democratización y mejoramiento foral, una historia de la transición en Navarra*, Nafarroako Gobernu, Iruñea, 1999. Gobierno de Navarra. Fernando Mikelarena Peña, Ángel García-Sanz Marcotegui, «Españolismo, vasquismo y navarrismo foral cambios y persistencias en la interpretación de la identidad navarra hasta 1936», *Historia y política: Ideas, procesos y movimientos sociales*, 2 zbk. (1999), 83-122. Fernando Mikelarena Peña, Ángel García-Sanz Marcotegui, Iñaki Iriarte López, *Historia del navarrismo (1841-1936), sus relaciones con el vasquismo*, NUP, Iruñea, 2002.

Horregatik, sentimendu eta aldarrikapen horiek frankismoaren aurkako borrokan konnotazio positibo, demokratiko, transbertsal eta aurrerakoia hartu zuten eta gizartearen parte batek bere egin zituen. Baina, euskaltzaletasun antifrankista oso zabaldua zegoen arren, zentralismoaren aurkako aldarrikapenen artean gradazio ugari eta aukera sorta zabala zegoela hartu beharko genuke kontuan: jarrera moderatuenetik hasita (autonomia), erradikaletaraino (separatismo independentzia), bitarteko jarrera ugariak kontuan hartuta (federalismo, konfederalismo eta abar). Esan bezala, frankismoaren erdialdetik aurrera Euskal Herriko oposizioak izaera eta identitate berri bat garatu zuen, beste ezaugarri batzuen artean, aldarrikapen euskaltzale eta antizentralistak berezkozat zituenena. **Baina nola txertatu zuen oposizio antifrankista ia guztiak euskaltzaletasuna bere identitatean?**

Atal honen hasieran aipatu dugun bezala, frankismoaren zutabe ideologikoetako bat nazionalismo espainiar zentralista eta erasokorra izan zen, periferiako identitate bereiziek biteragarria ez zena. Diktaduraren garaian frankismoak nazionalismo espainiarraren inguruko monopolioa ezarri zuen. Gerra Zibiletik zetorren diskurtso dikotomikoa erabili eta bere burua *Espainiatzat* izendatu zuen, eta hala bada, etsaia *antiespainia* bilakatu zen. Beraz, Espainiaren ideiak eta Erregimenarenak bat egin zuten. Identifikazio horren ondorioz, *Espainiaren ideiak* ezaugarri negatiboak barneratu zituen eta kutsu gutxiesgarria izan zuen. Ezkerreko alderdiek —eta oposizioak oro har— beraz, kontrako jarrerarantz lerratu behar izan zuten eta nazionalismo periferikoen ezaugarriak bereganatu eta defendatu zituzten⁶⁰⁴. Hainbestekoa izan zen *Espainia* kontzeptuaren deslegitimazioa, ezen ohikoa bilakatu zela ezkerreko alderdien artean hitz hori bazterzea. Trukean, modu eufemistikoan Espainiari erreferentzia egiteko «estatu espainola» edo «espainiar estatua» esamoldea erabiltzen hasi ziren⁶⁰⁵. Zentzu horretan, MCEk eta OICEk, periferiako nazioen aldarrikapenekiko zeukaten begikotasuna erakusteko beren izen eta sigletatik Espainiari zegokion *E*-a erauzi egin zuten. Gertatu zen indar eta sentimendu periferikoen berpizkunde hori bera zenbaitetan **nazionalismo frankista erasokor horren aurkako erreakzio** modura azaldu izan da. Hala ere, gure uste apalean, **erreakzioa ez zen izan euskaltzaletasun antifrankistaren** (eta Espainiako beste nazionalismo edo erregionalismo periferikoen) **berpizkundera azaltzeko arrazoi bakarra**; bestelako faktoreak ere izan baitziren.

Alde batetik, XX. mendearen bigarren erdialdetik aurrera *Euskal Berpizkunde Kulturala* izenez ezagutu den mugimendua sortu zen, euskaltzaletasun antifrankistaren ezaugarriak elikatu zituenena. II. Errepublikaren garaian euskal kulturak epe labur batez loraldia bizi izan zuen. Baina,

604 Alejandro Quiroga Fernandez de Soto, «Coyunturas críticas...», 21-40.

605 Alejandro Quiroga Fernandez de Soto, «Coyunturas críticas...» 27. Solasaldi grabatu gabea: Tere Saez Barrao. Atarrabia, 2020/I/26.

Gerra Zibila eta gero Francoren Estatu Berriak nazionalismo espainiar zorrotz eta zurruna ezarri zuen. Euskarak eta Espainiako beste hizkuntza gutxituek ez zuten tokirik izan Erregimen berri horretan. Berezko debeku edo dekretu orokorrik izan ez bazen ere —hizkuntza bat erabat debekatzea ezinezkoa litzatekeelako, bestalde— euskarari zeharkako traba eta oztopo ugari ezarri zitzaizkion. Konparaziora, hurrei euskal izenak jartzeak edo kalean euskaraz hitz egiteak isuna ekar zezakeen gerraondoko garaietan. Gainera, Errepublikara garaian euskara suspertzeko politika publikoak eta inizatiba herritarrak (ikastolak, esaterako) eten ziren. Ondorioz, euskarak zeuzkan espazio publiko apurrak are murriztuago ikusi zituen eta prestigio gutxiko hizkuntza modura geratu zen.

Egoera horrek XIX. mendetik zetorren atzeraldi linguistikoa areagotu zuen, eta 1950eko hamarkadatik aurrera, Espainiako beste probintzia batzuetatik etorritako etorkinak iristearekin batera, egoera okertu egin zen. Akulturazio prozesu horien ondorioz, XX. mende erdialderako, euskarak hiriguneak, Arabako lautada eta Nafarroako erdialdeko eskualde zabalak galduak zituen. Nafarroa Garaian, beraz, euskara iparraldean baino ez zen gorde (Mendialde atlantikoan osasuntsuago Pirinioetan baino)⁶⁰⁶.

Egoera kaxkar horren ondorioz, euskara galzorian egon zitekeelako kontzientzia zabaldu zen eta hura bizkortzeko eginahalak ugaritzen hasi ziren. Euskal kulturgintzak gogotik erantzun zuen eta hizkuntza (Urkok kantatu zuen bezala) «putzu sakon eta ilun» hartatik ateratzeko eginahalak hasi ziren 60ko hamarkadan⁶⁰⁷. Euskal Berpizkunde Kulturalaren mugarri garrantzitsuenetako bat, 1968an izan zen: eztabaida luzeen ondotik Euskaltzaindiak Euskara Batua, hau da, euskararentzako estandar kultu edo literarioa adostu zuen. Neurri horrek euskararen bultzadan izaera biderkatzailea izanen zuen, literaturan, irakaskuntzan, prentsan edo bestelako esparru formaletan zabaltzeko aukera eman baitzion.

Bestalde, literaturari dagokionez, ekarpen handiak egin ziren. Idazleen belaunaldi gazteago batek euskal literaturari ekarpen berritzaileak egin zituzkion; hala nola, euskarazko lehendabiziko eleberri existentzialista (*Leturiaren egunkari ezkutua*, 1957 Txillardegik), Gabriel Arestiren poesia soziala (*Harri eta Herri*, 1964) edo Joxean Artzeren *Isturitzetik Tolosan barru* poema-liburua (1969), gutxi batzuk aipatzearen.

Euskal Kantagintza Berriak ere bere oihartzuna izan zuen⁶⁰⁸. Munduko protesta-musikaren mugimenduarekin bat eginez, euskal kantagintza berri zuen. Estatu Batuetako, Europako eta

606 José M. Sánchez Carrión, *El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra*, Inst. Príncipe de Viana, Iruñea, 1972. Xabier Erize, *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa 1863-1936*, Nafarroako Gobernuak, Iruñea, 1997, 368.

607 Elixabete Ansa Goicoechea, *Mayo del 68 vasco, Oteiza y la cultura política de los sesenta*, Pamiela, Arre, 2019.

608 Pako Aristi, *Euskal Kantagintza Berria, 1961-1985*, Erein, Donostia, 1985-2020.

Latinoamerikako folk estiloko bakarlariek edo taldeek eragin handia izan zuten. Euskal Herrian, *Ez Dok Amairu* (1965-1972) edo *Oskorri* (1975-2015) izan ziren azpimarragarrienak. Musikari horiek tradizioaren parte ziren kantuak eta doinuak berreskuratu zituzten batzuetan, eta euskal idazleen poemak musikatu edo atzerritik etorritako abangoardiazko berrikuntzak euskarara moldatu zituzten bestetan. Kantu hauek asko manifestazioetan kantatzen ziren, bai eta elkartasun-jaialdietako ereserki bilakatu ere. Bestelako kultur adierazpideek ere berpizkunde hartan lagundu zuten, *Ama Lur* filma edo euskal artista plastikoen eskolak esaterako. Jorge Oteizak gidatutako arte eskolak euskal arte nazional bat sortzea helburu izan zuen. Konprometituak ziren heinean artista asko langile mugimenduaren alde lerratu ziren eta beraien lanek borrokak lagundu zituzten. Agustin Ibarrolaren lan batek (*Magistratura de Trabajo contra los trabajadores de Bandas*), esaterako, Etxabarriko Bandas en Frío lantegiko greba entzutetsuari buruzko liburuaren azala apaindu zuen, eta Eduardo Txillidaren diseinuak borroka antinuklearraren eta Amnistiaren Aldeko Batzordeen ikur bilakatu ziren.

Errepublika garaian irakaskuntzaren bidez euskara berpizteko lehendabiziko urratsak egin ziren. Gerraosteko etena eta gero, helduentzako (Gau-eskola eta euskaltegiak) zein haurrentzako (ikastolak) irakaskuntza ekimenak berreskuratzen hasi ziren. Nafarroa Garaiko gerraondoko lehendabiziko ikastola irekitzeko saiakera 1963an izan zen, baina ikasturtea hasi baino lehen Gobernadorearen aginduz itxi egin behar izan zuten. 1965ean, ordea, beste ekimen batek *Nuestra Señora de Uxue* ikastola martxan jartzea lortu zuen Iruñean⁶⁰⁹. Halaber, herri eta auzoetan euskal kulturaren adierazpideak sustatzeko ekimenak bultzatu ziren: dantzari, kantari eta mendizale elkarteak sortu ziren eta Eguberrietako Olentzeroren ospakizuna bezalako ekitaldiak ugaritu ziren.

Hala ere, XX. mendeko erdialdetik aurrera gertatu zen berpizkunde kulturala ez zen ezerezetik sortu. Alde batetik, kontuan hartu behar da euskal kulturaren adierazpenak egunerokotasunean presente zeudela, baita eskualde erdaldunduetan ere, eta herritarren bizitza arruntean ohikoa zela horiekin topo egitea. 1960ko hamarkadatik aurrera adierazpen horiek bizkortu egin ziren. Bestetik, badirudi zenbait sektorek (batik bat karlismoak) gerra aurreko mugimendu euskaltzaleen eta 60ko hamarkadako Euskal Berpizkunde Kulturalaren arteko zubi lana egin zutela. Gertakari hori ez dago oraindik behar bezain beste ikerturik, baina zentzu batean horrek uler azalduko luke, konparaziora, Nafarroako Diputazio frankistak euskararen aldeko ekimenak martxan jarri izana. 1957etik 1972ra arte Euskara Bizkortzeko Saila martxa jarri zuen Vianako Printzearen Institutioaren menpean, euskararen aldeko hainbat ekimen bultzatu zituen⁶¹⁰. Halaber,

609 Irene Lopez Goñi, «Las Ikastolas en Navarra (Siglo XX): Búsqueda de un modelo de escuela propio» *Historia de la educación: Revista interuniversitaria*, 24 zbk (2005), 371-396.

610 Irene Lopez Goñi, «La «Sección de Fomento de Vasconia» de la Diputación de Navarra (1957-1972). Génesis y actuación», *Gerónimo de Uztariz*, 19 zbk. (2003), 49-73.

interesagarria litzateke karlisten parte hartzea zenbaterainokoa izan zen, esate baterako, lehendabiziko ikastolen sorreran. Iruñeko udalean protagonismo eta parte hartze handia izan zuen zinegotzi sozialen taldeak ere kutsu euskaltzalea izan zuen.

1960ko hamarkadara arte euskaldun izatea jende askorentzako lotsagarria zen, bereziki hiriguneetan. Jende erdaldun elebakarraren aurreiritzien ondorioz, ohikoa zen azentu edo ebakera euskalduna zuen jendearen kontura barre egitea: eskolatu-gabe ezjakintzat hartzen zituzten. Baina frankismoaren erdialdetik aurrera, euskararen eta euskal kulturaren aldeko bultzadaren ondorioz, pixkanaka harro egoteko arrazoia bilakatu zen euskaldun izatea⁶¹¹.

Bestaldetik, Euskal Berpizkunde Kulturalarekin batera beste elementu batek ere euskaltzaletasun antifrankistaren sorreran eragin zuen: ETAREN eta nazionalismo iraultzailearen sorrera. Berpizkunde kulturalarekin batera, abertzaletasunak ere garai bertsuan biziberritze prozesua izan zuen. Prozesu horren ondorioz, abertzaletasuna jarrera eskuindarretatik aldendu zen eta ETA erakundearen eskutik abertzaletasun ezkertiar iraultzailea sortu zen. Gerraurrean ere ezkerren eta abertzaletasunaren arteko hurbilketa egona bazen ere (Jagi-Jagi, Aberri, Mendigoixaleak bezalako abertzale erradikalak, ANVren abertzaletasun errepublikano laikoa eta liberala eta EPKk defendatutako komunismo autodeterminista esaterako), ETAREN sorrerak eta abertzaletasunaren eta ezkertiaritasunaren artean egin zuen uztarketak euskal nazionalismoaren izaera erabat aldatu zuten.

Desarrollismoan oinarritutako hazkunde ekonomiko azkarrak eta hark sortutako soziologia eta demografia aldaketek ETAREN baitan hausnarketa piztu zuten. 1962ko greba olatuen ondorioz, ETAK langileei —baita etorkinei ere— erreparatzeko beharra ulertu zuen frankismoaren aurkako borrokan protagonismo handia izanen zuela ondorioztatu baitzuen, eta klase sozial hori nazio askapenaren aldeko borrokan txertatzeko moduren bat bilatu beharra zegoela erabaki zuen; ez edonola, paper protagonista bat emanez baizik⁶¹².

Bestalde, ETAK ordurako borroka armatuaren aldeko hautua egina zuen, eta oraindik erabat teorizatua ez bazuen ere (are gutxiago praktikan jarria), eredu bila Hirugarren Munduko nazio askapenaren aldeko mugimenduei erreparatu zien⁶¹³. Kuba, Aljeria, Vietnam edo Txina bezalako herrialdeetan inperialismo zahar (Frantzia edo Britainiar inperioa) zein berrien (AEB) aurkako borroka askatzaileak ugaritu ziren. Herrialde horietako mugimenduek askapen nazionalaren eta sozialaren artean uztartu, eta ETAKO teorizazio prozesuan inspirazio iturri izan ziren.

Alabaina, abertzaletasunaren baitan aldaketak gertatzen hasiak baziren eta ezkertiaritasuna eta nazionalismoa uztartzeko erabakia hartua bazuten ere, iraganeko doktrinen arrastoek

611 E13 elkarrizketa: Presen Zubillaga Auza. Iruñea, 2019/VII/18. E8 elkarrizketa: Patxi Urrutia Jauregi. Iruñea, 2018/XII/20.

612 Francisco Letamendia Belzunce *Ortzi, Historia del nacionalismo ...* 261-263.

613 Patxi Iturrioz, «ETA en el año...» 5.

(esentzialismoa, etorkinekiko mesfidantza eta abar) ETAren sektore batzuetan oraindik irauten zuten⁶¹⁴. Izan ere, Euskal Herria ez zen Hirugarren Munduko edo kolonialismoaren menpeko herrialde bat, eta beraz abertzaletasunaren eta korrante ezkertiarren arteko sintesia egitea prozesu konplexua eta kontraesankorra izan zen.

Elixabete Ansa Goikoetxea arabera, 1960ko hamarkadan abertzaletasun esentzialista batetik abertzaletasun dialektikorako garapena (sozialismoaren askapena barne-biltzen zuena) gertatu zen⁶¹⁵. Prozesu hori, ordea, ez zen lineala izan eta eztabaida bizien ondorioz, atzerapausoak zein aurrerapausoak egin izan ziren. Gatazka horiek hainbesterainokoak izan ziren, ezen zatiketak eta kanporaketak gertatu baitziren: V. Biltzarraren lehendabiziko zatian (1966an) eta VI. Biltzarrean (1970). Ez da kasualitatea zatiketa horietatik esparru estataleko alderdi ezkertiarrek sortu izana edo Alderdi horietan militatu zuten kideak eta koadroak egon izana; ETA urte horietan alderdi iraultzaileetako «komunisten haztegi» izan baitzen⁶¹⁶.

Baina eztabaida teorikoek ez ezik, ETAk martxan jarritako borroka armatuak ere euskaltzaletasuna zabaltzen lagundu zuen. ETAk ekintza-errepresioa-ekintza estrategia diseinatu zuen, insurrekzio bat eragitea helburu zuena. Estrategia horri erantzuteko Erregimen frankistak eraso biolentoei errepresio kontrolatugabe eta indiskriminatuarekin erantzunen ziela uste zuen eta ETArekin zuzeneko loturarik gabeko sektore soziala kolpatuko zituela aurreikusi zuen⁶¹⁷. ETAk martxan jarritako kanpaina armatuaren ondorioz, euskal abertzaletasuna —eta zehatzago esanda ETA bera— frankismoaren etsai nagusi eta diktaduraren aitzakia errepresibo bilakatu zen. Erregimenak ETAk aurreikusi bezala erantzun zuen, modu baldar eta amorratuan euskal gizartearen kapa zabalak erasotzen, ezberdintasunik egin gabe, eta ondorioz, euskal gizartearen parte handi batek bere burua eraso sentitu zuen. Orduetik aurrera, salbuespen egoera etengabe ezarri zuten, sarri euskal lurraldeei baino eragiten ez ziena. Jauregiberrirentzat, errepresio diskriminatugabe hori, euskal lurraldeetako edozein biztanle ezustean harrapa zezakeena, komunitate abertzale eta antierrepresibo baten sortzaile modura funtzionatu zuen⁶¹⁸. ETAk Estatu frankistaren aurka abiatutako konfrontazioaren ondorioz, indar errepresiboek Euskal Herriaren osotasunari aurre egiten ari zitzaiola asumitu zuten, nahiz eta hiritar guztiek, jakina, ez zuten erakunde armatuarekin bat egiten. Modu honetara, errepresioa orokortua izatera pasa zen, biztanleek indiskriminatutzat bizi izan zuten eta hiritar gehienek bere inguru hurbilean (senide, adixkide, auzokide, lankide, ...)

614 *Ibid.* 5-6.

615 Elixabete Ansa Goicoechea, «Un 68 En El País Vasco», *Prosopopeya*, 8 zbk. (2013-2014), 123-154.

616 Juan Carlos Jimenez de Aberasturi Corta, Emilio Lopez Adan *Beltza*, *Organizaciones, sindicatos...* 176.

617 Pedro Ibarra Güell, *La evolución ...*68-74.

618 Francis Jaureguiberry, *Question nationale et Mouvements sociaux en Pays Basque Sud*, Ècole des Hautes Ètudes en Sciences Sociales (EHESS), Paris, 1983.

errepresioak kolpatutako baten bat ezagutu zuten. Hartara, «Euskal Herrian bizitze hutsak dudarik gabe arriskua zekarren»⁶¹⁹. Testuinguru horretan, Espainiako beste probintzietatik etorritako langile etorkin franko errepresioaren ondorioz lehendabiziko aldiz «euskaldun» sentitu zen, errepresioak haiek ere kolpatu zituelako⁶²⁰.

Inflexio puntua 1970eko abenduko Burgosko Prozesuan izan zen. Epaiketa hartan, ustez ETAko zuzendaritzako kide zirenak epaitu zituzten, baina epaituek prozesuan Erregimena bera kaltetua atera zedin lortu zuten. Horietako batzuk heriotza zigorrera kondenatu zituzten arren, prozesuaren aurkako mobilizazioen eta nazioarteko oihartzunaren ondorioz, Erregimenak lehendabiziko aldiz atzera egin behar izan zuen, heriotza zigorrak konmutatu zituen eta.

Errepresioak eta hura sufritzen zutenen aldeko elkartasunak euskal abertzaletasunaren identitatearen ezaugarriak —eta hedaduraz oposizioaren gehiengoarenak— aldatu zituzten, izaera solidarioa eta antierrepresiboa integratu baitzituen. Letamendiak azpimarratu duen bezala, «komunitate abertzale antierrepresiboa» eratu zen⁶²¹. Frankismoaren errepresio orokortuak frankismoaren aurkako guztiak elkarrengana hurbildu zituen: mugimendu abertzalearen parte bat ezkertiaritu zen, eta aldi berean, ezkerria *euskaltzaletu* zen⁶²². Erregimenak bere etsaiak salatzerakoan, modu generikoan Espainiaren aurkako konplot *rojo-separatista* (gorria eta separatista) zegoela salatzen zuen. Ondorioz, Frankoren aurka borrokatzen ziren guztiak barrikadaren alde berean zeudelako gogoia zabaldu zen eta aldarri eta sinboloak konpartitzen zituzten. Ezberdinak izanagatik ere, Erregimenak berak sintesi hura bultzatu zuen.

Ordutik aurrera, euskal nazioa ez zen identifikatu kontzepzio etniko edo arrazistarekin, euskal lurraldeetako biztanle izatearekin nahikoa zen poliziak euskal herritar gisa kolpa zintzan eta komunitate abertzaleak bere komunitate horren parte bezala har zintzan. ETAk langile etorkinak «nazio askapenerako mugimenduaren printzipioen onarpen kontziente eta arrazionalaren bidez» *abertzaletea* aurreikusi zuen. Hori, baina, ez zen horrela gertatuko, zeharkako modu batez baizik: «bide antierrepresibotik», alegia⁶²³. Borroka antierrepresiboek hainbesteko garrantzia izan zuten, ezen Francoren heriotzaz geroztik Amnistiaren aldeko borroka «mobilizazio soziopolitikoaren ardatz» bilakatu baitziren⁶²⁴.

619 *Ibid.* 232-233.

620 *Ibid.* 234-244.

621 Francisco Letamendia Belzunce *Ortzi, Historia del nacionalismo...* 331-340

622 Diego Diaz Alonso, «Rojos y abertzales. La Metamorfosis de las izquierdas vascas en la Transición», Carlos Navajas Zubeldia, Diego Iturriaga Barcos (Koord.), *Coetánea, Actas del III Congreso de Historia de Nuestro Tiempo*, 2012, 291-300.

623 Francisco Letamendia Belzunce *Ortzi, Historia del nacionalismo...* 335-336.

624 Daniel Escribano Riera, Pau Casanellas Peñalver, «Gizarte-mobilizazioak ...», 26.

Ikusi dugun bezala, ETA ez zen bestelakoen antzerako oposizio-talde huts bat, bere izate hutsarekin egoeran eragiteko ahalmena baitzuen. Bere hautu estrategikoengatik eta borroka moldeengatik zentraltasun berezia zuen, eta bere ekintzek jokalekua erabat baldintzatzzen zuten. Lehenik eta behin, ETAk oposizioaren diskurtso orokorra erradikalizatzen eta gogortzen lagundu zuen eta kontzientzia antifrankista eta nazionala indartzen lagundu zuen. Gainera, zeharka bada ere, militante antifrankista asko borrokan engaiatzera bultzatu zituen —Pedro Ibarren arabera, «zeharkako antolaketa eragite-katea» (*desencadenamiento organizativo indirecto*) behartu zuen— ETAn ez bazen ere, beste erakunde batzuetan. Ibarren ustez, «askok ez zuten antolatzeke erabakirik hartuko ETA existitu izan ez balitz», erakunde horrekin kritikoak izan arren⁶²⁵. Bukatzeko, ETAk efektu nazionalizatzailea izan zuela azpimarratu behar da. ETAk erdietsi zuen protagonismoak Euskal Herriko gainerako elkarte antifrankistak auzi nazionalaren inguruko diskurtsoa gaurkotzera eta lehen planoan jartzera behartu zituen; ezkerreko bestelako erakundeek, independentista izatera pasa ez baziren ere, autodeterminazioaren aldeko aldarria onartu eta indartu zuten, «auzi erretoriko hutsa baino gehiago» izan zedin⁶²⁶.

Beraz, orain arte ikusi dugun bezala, ETAk egindako teorizazioek eta berak sortutako indarkeria-errepresio dinamikek oposizio antifrankista erradikalizatzeko eta nazionalizatzeko balio izan zuten. Burgosko Epaietan, esaterako, ETAk langile mugimendua lehendabiziko aldiz kutsu nazional nabaria zuen aldarrikapenekin bat egin zezan lortu zuen. Baina meritu guztia ez zen ETarena izan. ETaren sektore *obreristenak* V. eta VI. Biltzarretan bereizi zirenez, abertzaletasun iraultzailearen enbor nagusia langile mugimenduan eragiteko tresna eraginkorrik gabe geratu zen. Zatiketa *obrerista* eta *espainolisten* ondorioz, ETako sektore batek ezkerkeriaren eta teorizazioen inguruko aurreiritzia zuen: haien ustez, teoria politikoan eta ezkerreko ideietan sakontzeak ezinbestean likidazionismora (hots, borroka armatua uztera) eta espainolismora zeraman, eta ondorioz, erabat gutxien zituzten horrelako zereginak. Ondorioz, ETako sektore batzuek aktibismoa (borroka armatu aktiboa) asko saritzen zuten, beste borroka molde batzuen gainetik. ETA V.ak V. Biltzarreko ildo ideologikoaren legitimitatea jaso zuen oinordetzan. Baina, talde horrek beste gizarte mugimenduetan eragiteko pentsatuta zeuden fronteak (militar, politiko, kultural eta langilea) baldin bazituen ere, borroka molde guztiak erakunde beraren bidez batzea ez zen eraginkorra izan. Indarkeriaren aurkako errepresio gogorra zela kausa, gainerako fronteek ezin izan zuten berdin garatu, eta horren ondorioz, Euskal Herriko masa borrokak, bereziki langile mugimenduarena, erakunde *estatalisten* esku geratu ziren⁶²⁷.

625 Pedro Ibarra Güell, *La evolución...* 79-83.

626 *Ibid.*

627 Juan Carlos Jimenez de Aberasturi Corta, Emilio Lopez Adan *Beltza, Organizaciones, sindicatos...* 18 eta 50.

Ezker abertzalearen ezintasunen aurrean, **esparru estataleko ezker iraultzailea izan zen kontzientzia nazionala langile mugimenduan eta Nafarroako oposizio antifrankistan txertatu zituena**. Nazio kontzientziaren zabaltze hori, ziur aski, ez zen modu berean gertatuko ETA egon izan ez balitz edo V. eta VI. Biltzarretako eztabaidarik gabe. Baina meritua esparru estataleko ezker iraultzailearena izan zen, korronte hori —PCE edo ETA ez bezala— masa mugimenduetan errotuta zegoelako, eta hark lortu zuen langile mugimendua nazio auziarekiko aldarrikapenen alde mobiliza zedin. EMKko eta OICko kide izandako berriemaile batzuek, esaterako, haien alderdian aldarrikapen nazional euskaltzaleak hasieran frankismoari eta haren errelato nazionalari aurre egiteko defendatu zituztela azaldu ziguten, baina aurrerago, barneratu eta bereganatu egin zituztela; haien hitzetan, askatasun nazionalen aldeko borroka hasieran zerbait *anti*-a izan zen, «erresistentzia bandera bat»; baina aurrerago *pro* bilakatu zen⁶²⁸.

Aldarrikapen nazional eta ezkertiarren arteko uztarketa hori sektore politiko horren jatorriak berak erraztu zuen; ez baita ahaztu behar Hego Euskal Herriko alderdi ezkertiar iraultzaileetako batzuk ETako zatiketetako batzuek sortu zituztela edota kultura politiko horretatik eratorritako kideak bere militanteen artean zeudela. Esan bezala, EMKk ETatik bidalitako talde batean izan zuen jatorria. LCn zein LCR-ETA VI.n, aldiz, VI. Biltzarraren gehiengotik zetozen kideek nazio auziarekiko sentsibilitate berezia ekarri zuten; berdintsu gertatu zen Gipuzkoako OICko kideren batzuekin; eta ORTn, bestalde, nazio auziaren inguruko diskurtsoa ETA Minosetik etorritako militante talde txiki bat batu zenean indartu zen⁶²⁹. Baina bestelako alderdiek ere, ezker abertzalearekin lotura zuzenik izan gabe, nazio auziarekiko sentsibilitatea garatu zuten.

Beraz, esan bezala, langile mugimenduak aldarrikapen nazionalak bereganatu zituen eta 1976ko martxoan, esaterako, Gasteizko sarraskiari erantzuteko mobilizazioetan grebalariek Iruñeko kaleetan Ikurriña jaso zuten⁶³⁰. Garai hartako giro unitarioak, gainera, langile klasea aldarrikapen nazionalengandik erakarria izan zedin erraztu zuen. Urte haietan ohikoa izan zen «askatasunen alde» borrokatzen ari zela esatea, horregatik «askatasunaren alde planteatutako edozein aldarrikapen edo mobilizazio (...) legitimotzat hartzen zen», eta beraz «euskal nazio askatasuna» borroka horren parte zela uste zen⁶³¹.

Euskal Herriko ikuspegi osatu bat edukiz gero, zenbait ikerlarik langile mugimenduaren nazionalizatze prozesua bi erritmotan gertatu zela ondorioztatu izan dute⁶³². Dirudienez, Gipuzkoan

628 E19 elkarrizketa: Ana Arillo eta Feli Otegi. Iruñea, 2019/XI/25.

629 Javier de Miguel Saenz, *La Organización Revolucionaria...* 150-153.

630 *Diario de Navarra*, 5-III-1976, 20. *Arriba España*, 5-III-1976

631 Pedro Ibarra Güell, *Memoria del ...* 120.

632 Alfonso Perez Agote, «Cambio social e ideológico en Navarra (1936-1982)», *Reis: Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, 46 zbk. (1989), 7-21. Antonio Rivera Blanco, «La transición en el País Vasco un caso

eta Bizkaian prozesua 1970eko hamarkadaren hasieran (Burgosko epaiketatik aurrera) gertatu zen, batik bat, nazionalismoaren harreman sareen erradikalizazioaren eta ezkertiarzearen ondorioz. Euskal Herriko barnealdean (Araba eta Nafarroan), aldiz, prozesua berantiarra izan zen, 1970eko hamarkadaren erdialdean, eta ezkerreko korronteen nazionalizazioaren bidez⁶³³.

Denbora tarte laburrean, langile mugimenduak eta ezkerreko alderdiek lelo euskaltzaleak eta autodeterministak bereganatu zituzten. Josu Chuecak esan bezala, hori oso argi nabaritu zen 70eko hamarkadan egon ziren *kutsu nazionaleko* mobilizazioen antolatzaile eta partehartzaileei erreparatuz gero⁶³⁴. Har ditzagun pare bat adibide: 1970eko Burgosko Prozesua 1975ko Gerra Kontseiluekin alderatuko dugu, eta 1967ko Aberri Eguneko deialdia 1976koarekin. Izaera antierrepresiboa zuten mobilizazioei dagokienez, 1970ko amaieran Iruñean Burgosko Prozesuko epaituekiko elkartasun ekintzak izan ziren, baina horiek orokorrean oihartzun txikia izan zuten⁶³⁵. CCOOek ez zieten deialdi horiei «garrantzi handirik» eman eta Gobernu Zibilaren memorian bildutakoaren arabera, panfleto banaketa eta ETak, PNVk eta EGik deitutako manifestazio ez oso jendetsu bat baino ez zen gertatu⁶³⁶. 1975ko udako prozesu sumarisimoekin, aldiz, Iruñerriko langile mugimenduak mobilizazioak deitu zituen eta mobilizazioek arrakasta nabarmena izan zuten⁶³⁷. Erantzuna Gipuzkoan eta Bizkaian baino apalagoa izan bazen ere, 20.000 bat langilek parte hartu zuten eta irailaren 29an greba orokorra «erabatekoa» izan zen⁶³⁸. Aberri Egunaren deialdiak konparatuz gero, aldiz, 1967ean deialdia atzerriko Eusko Jaurlaritzak eta alderdi abertzale tradizionalak (EAJ-EGI) egin zuten⁶³⁹. Baina soilik 9 urte beranduago, 1976ko Aberri Egunean, ezker abertzaleko (hots, KASeko) eta esparru estataleko alderdi iraultzaileek elkarrekin antolatu zuten deialdia; oposizio moderatuak (PSOEk, PCEk eta PNVk), aldiz, borroka egun hartan ez parte hartzea erabaki zuen, ETak Angel Berazadi enpresaria hainbat egun lehentxeago erail zuelako aitzakiapean. Baina, hala ere, Iruñerriko langile mugimenduak oso modu jendetsuan parte hartu zuten⁶⁴⁰. Deialdi horretarako,

particular» Javier Ugarte Tellería (Koord.): *La transición en el País Vasco y España: historia y memoria*, EHU, 1998, 79-92.

633 Alfonso Perez Agote, «Cambio social...» 13.

634 Josu Chueca Intxusta, «Nafarroatik Euskadira. 100 urte euskal nazionalismoaren historian barrena», *Gerónimo de Uztariz*, 9-10 zbk., (1994), 133-148.

635 E5 elkarrizketa: Jesus Urrea Bidaurre. Iruñea, 2018/X/30. Javier de Miguel Saenz, *La Organización ...* 25-27.

636 *Memoria de gestión del Gobierno Civil de Navarra del año 1970*. IDD (08)022.000, caja 52/00496, AGA. ORT, *Hisotira del Movimiento...* 59.

637 J.Legarra: «La respuesta», *Combate*, 38 zbk. (1975/X/15), LCR-ETAVI, 3-6, Joel Sansek utzia. «¡Libertad para Garmendia y Otaegi!», *Combate*, 34 zbk., (1975/IX/13), LC, 3-5, MO 00117, EHU-HGDF. «Bizkaia, Gipuzkoa: Nuevo salto adelante», *Combate*, 35 zbk. (1975/X/6), LC, 7-9, MO 00117, EHU-HGDF.

638 Jose Vicente Iriarte Areso, *Movimiento Obrero...* 238-240.

639 Josu Chueca Intxusta, «Nafarroatik Euskadira...» 143-145.

640 «Aberri Eguna. Miles de vascos fueron a Pamplona», *En Lucha*, 93 zbk., (1976/IV/24), ORT, 2, <https://prensahistorica.mcu.es/>. «Pamplona tomada en el día del Aberri Eguna», *Punto y Hora en Euskal Herria*,

PTEk Autonomia Estatutua eskatzen zuten alderdi burgesak eta Autodeterminazioa eskatzen zuten «nazionalista kontsekuenteak eta proletariotza iraultzailea» bereizita zeudela azpimarratu zuen⁶⁴¹. Esan bezala, bi epealdien arteko aldea nabaria izan zen: 1967 eta 1970ko mobilizazioetan Iruñerriko langile mugimenduak eta esparru estataleko alderdiek ez zuten parte hartu, oraindik sortze bidean zeudelako eta nazio auziaren inguruko kontzientziarik ez zutelako garatu. 1975-1976erako, alderdi horiek beraiek izan ziren mobilizazioen deitzaile, antolatzaile eta dinamizatzaile nagusiak eta beraien parte hartzearekin mobilizazioen arrakasta ziurtatu zuten.

Esan bezala, nazio-auzia eta aldarrikapen euskaltzaleak langile mugimenduan txertatu baziren ere, ez ziren mugimendu abertzale tradizionalen zirkuituen bidez iritsi langile-mugimendura. Jose Mari Espartzak, Tafallako Luzuriaga galdategiko langileak, horrela kontatu izan du:

ETA V.aren (...) eta ETA VI.aren *Zutik* irakurtzen genituen, eta MCEren *Servir al Pueblo*; eta ORTren *En Lucha*; eta HOACen eta Alderdi Karlistaren buletinak. Elkarri mokoka aritzen ziren, baina funtsean bat egiten zuten: frankismoa akabatu, bere jarraikortasuna oztopatu, zakur zaindaria disolbatu, sozialismorantz hurreratu eta autodeterminazio eskubidea errekonozitu (...). Labe erraldoi haietan, Vulcanoren sutegi, ideologiak urtzen eta galdatzen ziren: buzoa jantzen zutenentzako, ezkerrekoa eta abertzalea izatea gauza bera bilakatu zen. (...) Sabino Aranz ez genuen sekula ere entzun Luzuriagako labeetan. Beste batzuek konbentzitu gintuzten⁶⁴².

Halaber, LCR-ETA VI.ren *Zutik* aldizkariak antzeko iritzia zeukan:

Burgos-koaren ondorean eta batez ere 1974-ko abenduko hamaikakoaren ondorean ez da izan Euskadin ekintzarik gure borrokaren ikur izan ez denik nazional askatasunaren eta Euskadiko auteskunde edo autodeterminazioaren eskatzea. Eta lehen gertatzen zenek bestalde, orain langileak eta langileria izan dira eskubide hauek eskatzen dituztenak (*sic*)⁶⁴³.

(...) langileek beren eskakizunen tartean, opresio nazionalaren aurkako burruka bandera jaso dute; gatazkan dagoen herri osoaren batasuna bultzatu dute; bere klase batasuna landu dute bataila honetan; eta ankaz gora bota dute goi mailako kapitalaren nahia: euskal langile eta langile inmigranteen arteko zatiketa eta ezin ikusia (*sic*)⁶⁴⁴.

Agerian dagoenez, frankismoaren hondar urteetan ezkerreko alderdiak eta langile mugimendua izan ziren nazionalismo periferikoen eta identitate nazionalaren sustatzaile. Espainiako beste lurraldeetan ere antzera gertatu zen. Kataluniako PCEn erreferenteak, PSUCek, bere burua alderdi «nazional» eta «katalanistatzat» zeukan eta Diada Nacional-a (Kataluniako Aberriaren Eguna) berriz ere ospatzen hasi zenean, aldarrikapen nazionalistak etorkinez osatutako

3zbk. (1976/V/1-15),15-17, SSF.

641 Joxeba Urrutia, «Ante el Aberri Eguna», *El Correo del Pueblo*, 37 zbk. (1976/IV/11), PTE, 7-8, <https://archivodelatransicion.es>.

642 José Mari Esparza Zabalegi, *Cien razones por las que dejó de ser español*, Txalaparta, Tafalla, 2006, 66-67.

643 «Aberri Eguna. Pamplona, 18 de abril.» *Zutik*, 80 zbk. (1976/III/11), LCR-ETA VI, 8, BAP.

644 «Iruinatik Askatasunara!», *Zutik*, 81 zbk. (1976/III/30), LCR-ETA VI., 1-3, BAP.

auzoetan oihartzun handia izan zuten⁶⁴⁵. Halaber, andaluzismo politikoaren sorreran Andaluziako Lanaren Alderdiak (PTA, PTEren adar lokal) eta berari lotutako SOC (Sindicato de Obreros del Campo) sindikatuak paper garrantzitsua bete zuten⁶⁴⁶.

Garai hartan auzi nazionalak ahalmen politiko handia zeukan eta eskuinak eta sektore atzerakoiek ikur euskaltzaleak (ikurrina, euskara, euskal-nafar batasuna eta euskal kultura, oro har) ez zituzten atsegin. Ondorioz, abertzalea ez izan arren etsaia zirikatzeke ikur horiek erabiltzea ohikoa izan zen⁶⁴⁷. Zenbaitetan bazirudien «ezkerrekoa izateko abertzalea izan behar zela»⁶⁴⁸. Horregatik sinbolo horiek konnotazio positibo, aurrerakoi eta subertsiboa («herrikoi, transgresore eta antifrankista» Perez Agoteren hitzetan) lortu zuten, eta horregatik transbertsalak bilakatu ziren, oposizio guztiak edo ia-guztiak beretzat hartu zituen eta⁶⁴⁹. Konnotazio positibo eta aurrerakoi hori, oro har, Nafarroako geografia guztian barrena zabaldu zen, Mendialde euskaldunetik eta Iruñerriko auzo langileetatik hasi, Tuteran edo Erribera bezalako ingurune erdaldunetaraino. Cadreita, esaterako, 1978ko maiatzean herriko lurjabe handiena zen Alburquequeko kondesaren aurkako manifestazioa egin zuten, eta manifestazio hartan Union Navarra de Izquierdas (UNAI) koalizioak ikurrina zeukan pankarta handi bat eraman zuen⁶⁵⁰. Tuteran ere, Gladys del Estal ekologista hil zuteneko mobilizazioetan xingola beltzdun ikurrina batek gidatu zuen manifestazioa. Hala ere, ikur euskaltzaleen inguruko konnotazio positibo hori modu ezberdinean ulertu zen eskualdeen arabera. Tuterako Larga Marchako eta PTEko militante batzuek, esaterako, liskarra izan zuten Gipuzkoara joan ziren aldi batean «españolista izatea» leporatu zitelako; baina Tuteran, aldiz, paradoxikoki «euskalduntzat» hartzen zituzten ikurrinak zintzilikatzen zituztelako⁶⁵¹. Halaber, sinbolo eta ikur euskaltzaleek zeukaten indar subertsibo hura horrela transmititu zigun Jesus San Martinek (ORTko kidea eta Potatasaseko meatzaria):

[Ikurriña] —egungo terminoetan esanda — zirikatzen zuen ikur bat zen. Ez hori bakarrik, nire enpresan, jende etorkin ugari zegoena, behin baino gehiagotan baten batek oihukatzen zuen (...) *Gora Euskadi Askatuta!* Eta biltzar guztiak [erantzuten zuen] *GORA!* (...). Ez zen (nik uste) oihu, zentzu hertsian, politiko bat. Askatasun oihua zen eta beste askatasun oihuak

645 Giaime Pala, «El PSUC davant la qüestió nacional (1949-1980)», Josep Puigsech Farras, Giaime Pala, *Les Mans del PSUC. Militància*, Documents del Memorial Democràtic; 7 zbk., 2017, 202-221.

646 Gonzalo Whilhelmi: *Romper el...* 268-269.

647 E15 elkarrizketa: Patxi San Juan Calud eta Jose Luis Arellano Ansó. Tuteran, 2019/VIII/23.

648 Ibid.

649 Alfonso Perez Agote, «Cambio social e ideológico ...» 15. Alfonso Perez Agote, *La reproducción del nacionalismo. El caso vasco*, CIS, 1984.

650 «Cadreita. Contra el feudalismo y la Diputación», *Zer Egin?*, 30 zbk (1978/VI/1), EMK, 9, BAP.

651 E15 elkarrizketa: Patxi San Juan Calud eta Jose Luis Arellano Ansó. Tuteran, 2019/VIII/23.

ere baziren bezala: «Behera diktadura!». Ba lelo libertarioak. (...) Eta manifestazio gogor batzuen bukaeran, *Internazionalaz gain Eusko Gudariak* ere kantatzen zen⁶⁵².

Esparru estataleko eta ezker abertzaleko alderdien arteko ezberdintasunak.

Orain arte ikusi dugun bezala, hainbat faktoreren eraginez, esparru estataleko alderdi iraultzaileek nazio-auziarekin lotutako aldarrikapenak txertatu zituzten. Hala ere, ezker abertzalearen eta esparru estataleko ezker iraultzailearen arteko ezberdintasunak garrantzitsuak ziren. **Ezker abertzalearen eta ezker estatalistaren arteko talkak nagusiki hiru auzitan zentratzen ziren: 1) lelo autodeterministen eta independentisten arteko dikotomian, 2) alderdi iraultzaileen inguruko antolaketa ereduan eta 3) Nafarroako lurraldetasunaren inguruko aferan.**

Ikerketaren atal honi dagokion gaiari heltzeko ezinbestean kontuan hartu beharreko gaietako bat marxismoaren eta nazio auziaren arteko harreman konplexu eta korapilatsuarena da. Doktrina marxistaren eta nazionalismoaren arteko harremana gatazkatsua izan da beti, eta bien arteko uztarketa arrunt zaila izan da urteetan zehar. Biak ala biak, Aro Garaikideko historia ulertzeko ezinbesteko pentsamendu korronteak izanagatik ere, elkarren arteko harremana ez da erraza izan. Horregatik, Jaime Pastorrek nazionalismoa marxismoarentzako «anomalía deseroso» gisa definitu zuen⁶⁵³. Marxismoak nazioari buruz askotan eztabaidatu duen arren, beti klase gatazkari lehentasuna eta zentraltasuna ezarri dionez, ez du lortu gaiaren «interpretazio koherenterik» egitea⁶⁵⁴. Auzia itxi gabe dago eta eztabaidagai da oraindik ere. Askotan marxismoak auzi nazionalaren konponbidea etorkizun utopiko posible baterako atzeratzen zuen, emakumeen askapenarekin eta berdintasunarekin egin bezala, hura etorkizuneko gizarte sozialistan ebatziko zelakoan, herrien arteko anaitasun eta berdintasun egoeran.

Marxismoaren historiako izen handi ugari gaiaren inguruko iritzi eta eztabaida franko izan zituzten. Marxismoak nazio auziari historikoki nola heldu dion aztertzeko testuinguru ezberdinetan autore ezberdinek izan zuten iritzietara jo genezake, hala nola: Karl Marx eta Friedrich Engels; Alderdi Sozialdemokrata Austriarreko Karl Renner eta Otto Bauer, Karl Kautsky edo Rosa Luxemburg. Baina gure ikerketan aztergai dugun garaian, ezker iraultzailearentzako erreferente nagusia Vladimir Ilitx Ulianov *Lenin* izan zen.

Leninen garaian nazio auzia pil-pilean zegoen eta garrantzi politiko handiko gaia zen. Baina egoera konplexua eta askotarikoa zen eta horregatik Leninek hiru agertoki ezberdin itxuratu zituen,

652 E6 elkarrizketa: Jesus Mari San Martin Asiain. Iruñea, 2018/XI/15.

653 Jaime Pastor, *Los nacionalismos*, ... 44.

654 *Ibid.*

horien arabera jarrera ezberdin bat hartzeko. Lehendabizikoan Mendebalde garatuko herrialdeak zeuden. Horietan, Leninen iritziz estatu-nazioak ordurako eraturik zeudenez nazio auzia konpondurik zegoen eta beraz, burgesia nazionalistak paper aurrerakoia izateari utzi zion. Bere ustez, herrialde horietako langile mugimenduak nazio auziaren inguruan hartu beharreko jarrera inperialismoaren menpeko herrialdeen askapena metropolietatik bultzatzea zen. Bigarren agertokian, Europa erdialdeko eta ekialdeko inperio zahar multietnikoak zeuden: Errusia Tsarista, Austriar-Hungariar inperioa eta Balkanetako herrialdeak. Horietan iraultza burgesa amaitu gabe zegoenez, burgesia nazionalistak demokraziaren aldeko borrokan oraindik langileen aliatu paper garrantzitsua izan zezakeen. Hirugarren agertokian, aldiz, kolonialismoaren eta inperialismoaren menpeko herrialde periferikoak sailkatu zituen, inperialismoaren garaian Europa zaharreko lurraldetasun arazoei ez ezik kolonien eta inperialismoaren menpeko aldarrikapenak ere gehitu behar baitzitzaizkien⁶⁵⁵.

Leninek aldarrikapen nazionalak programa demokratikoaren parte bezala ulertu zituen. Ondorioz, ikuspegi praktikoa eta instrumentala erabiliz, autodeterminazioaren leloa langileen borrokaren mesederako zen heinean, langileak bere alde lerratu behar zutela uste zuen. Gainera, sozialistek nazio zapalduen borroka babestuz gero, herrialde horietako mugimenduen sinpatia lor zezaketela uste zuen eta horrela periferiako borroka nazionalak herrialde garatuetako mugimendu sozialista orokorrarekin bat egin zezaketela uste zuen⁶⁵⁶.

Bere ikuspegi praktikoa horri jarraiki, Leninek nazio ezberdinetako langileen arteko batasuna eta elkartasuna defendatzen zuen eta horretarako lehia eta etsaitasun chauvinistak baztertu behar zirela, eta ezberdinen arteko batasun adiskidetsua defendatzen zuen. Zentzu horretan, Leninen ustez, nazio zapaltzaileko langileek nazio txikiaren autodeterminazio eskubidearen alde borrokatu behar zuten, bere erabateko bereizketarako (independentzia alegia) eskubidea kontuan hartuta. Halaber, Estatu beraren parte ziren bitartean sozialista guztiek alderdi beraren parte izan behar zutela uste zuen, baina aldi berean, propaganda hizkuntza zapalduetan ere egiteko aukera babesten zuen. Inoiz bereizketaren edo independentziaren auzia ebazteko momenturik ailegatuko balitz, Leninen ustez, sozialdemokraziak bi herrialdeen batasuna babestu behar zuen, baina zatitzea erabakiz gero, modu baketsuan eta gatazkarik gabe erabakia onartu behar zutela defendatu zuen⁶⁵⁷.

655 Vladimir Ilixt Uliianov *Lenin*, «La revolución socialista y el derecho de las naciones a la autodeterminación», *Obras, Tomo V (1913-1916)*, <https://labur.eus/8Asn6> 153-154. Juan Ignacio Castien Maestro, «Lenin y la "cuestión nacional". Más allá del existencialismo y del constructivismo», *Nomadas: Critical journal of social and juridical*, 39 zbk. (2013), 19-110.

656 Juan Ignacio Castien Maestro, «Lenin y la ...».

657 M. Roca Monet, «La cuestión nacional. Rosa versus Lenin», *Filosofía, política y economía en el Laberinto*, 2 zbk., (2000), 14-16. Vladimir Ilixt Uliianov *Lenin*, «La revolución socialista...».

Leninek kontsigna politiko horiek defendatu zituen, inperio multietnikoetarako eta kolonietarako pentsatu zituen eta ez Euskal Herria bezalako Mendebaldeko estatu gabeko nazio batentzako. Baina, hori ez zen oztopo izan ezker iraultzaileak bere printzipioak bereganatu eta Euskal Herrian aplikatzeko. Horiek izan ziren esparru estataleko ezker iraultzaileko alderdiek orokorrean onartu zituzten aldarrikapen nagusiak: herrialde ezberdinetako langileen arteko elkartasuna eta batasuna, chovinismorik eza, autodeterminazio eskubidea eta, ahal izatekotan, zapalkuntzarik gabeko batasun estatala.

Printzipio leninista horiei jarraiki esparru estataleko ezker iraultzailea frankismoaren zentralismo «despotikoaren» aurka eta estatu dezentralizatuaren alde lerratzen zen. *Estatalista* guztiek, edo ia-guztiek, nazio kapitalismoaren garapenaren ondorioztat edo zapalkuntza kapitalistaren aldaera bereiztat zeukaten. Halaber, frankismoaren azken urteetan langileek borroka nazionalaren inguruko kontzientzia eta borrokaren lidergoa eskuratu zutela errekonozitzen zuten⁶⁵⁸. Horregatik, esparru estataleko alderdi gehienek herrien arteko *batasun askea* hobetsi zuten, zeina autodeterminazioaren irakurketa leninistan oinarritzen baitzen. Hau da, autodeterminazioaren alde zeuden, eta aukeratzekotan, Espainiako herri guztien arteko batasun adiskidetsua lehenesten zuten. Baina nazioen batek bereiztea erabakiz gero, emaitza gogo onez onartuko zuten.

Azter dezagun banan-banan alderdi bakoitzak zer iritzi zuen nazio auziari buruz. Alderdi ezkertiarretako batzuek askatasun nazionalak erdiesteko, alde aurretik, Espainiako gizartean demokratizazioa edo iraultza gertatu behar zela defendatzen zuten. PCEn ustez, esaterako, Euskadin askatasun nazionalak eskuratzeko beharrezkoa zen lehenik diktadura desagerraraztea: «Espainia osoan demokraziarik ez bada, ez da askatasun nazionalik egonen Euskadin»⁶⁵⁹. ORT eta PTERentzako ere askapen nazionala baino lehen beste urrats bat egin beharra zegoen; baina kasu honetan, nazio zapalkuntza desagerrarazteko demokrazia lortzeaz gain, ezinbestekoa zen alde aurretik oligarkiaren boterea suntsitzea eta Errepublika demokratiko-herrikoia lortzea. Ondorioz, autodeterminazioa Errepublika demokratiko-herrikoia ezartzen zenerako atzeratzen zuten: hau da, erregimena eroraraztea eta berria sortzea lehentasuna zen.

ORTren aburuz, esaterako, «Euskadin askatasun nazionala lortzeko *nahitaezkoa da alde aurretik faxismoa suntsitzea*, [Espainiako] nazionalitate guztiak elkar hartuta»⁶⁶⁰. Behin faxismoa mantentzen zuten oligarkia eta faxismoa deuseztatuta, Errepublika demokratiko-herrikoiak

658 «Viaje de Suárez a Barcelona: El Gobierno sigue negando las libertades nacionales», *En Lucha*, 130 zbk. (1976/XII/29), ORT, 5-6. «Aunque se ve obligado a permitir la Ikurriña, el Gobierno de Suarez sigue oponiéndose a las libertades nacionales», *En Lucha*, 134 zbk. (1977/I/22), ORT, 3. «Estamos por la conquista de los derechos nacionales porque los comunistas estamos en contra de toda desigualdad», *En Lucha*, 141 zbk. (1977/III/15) ORT, 5 <https://prensahistorica.mcu.es/>

659 Juan Carlos Jimenez de Aberasturi Corta, Emilio Lopez Adan *Beltza, Organizaciones, sindicatos...* 85.

660 *Ibid.* 157. Azpimarra gurea da.

autonomia zabala eta autodeterminazioa bermatuko litzioke Euskadiri. Hala ere, ORTren nahia herrien arteko batasun librea litzateke⁶⁶¹.

PTEren ustez, batzuek nazio auziaren inguruko hausnarketa abstraktua zeukaten, nazio auziarena modu «formalean» eta etorkizuneko estatuaren klase izaera zehaztu gabe planteatzen baitzuten. Baina, PTErentzako horixe zen askatasun nazionalak eskuratzeko auzi giltzarria: oligarkia agintetik kentzea. Bere aburuz, autodeterminazioa eta askatasun nazionalak eskuratzeko ezinbesteko aurrebaldintza «Errepublika Demokratiko antimonopolista, antilatifundista eta antinperialista» ezartzea (hots, oligarkia eta inperialismoa agintetik kentzea) zen⁶⁶². Izan ere, «nazio arazoa konpontzeko premisa nazio zapalduak autodeterminazio eskubidea erabili ahal izatea da, eta hori soilik demokrazia erabatekoa konkistatu ondoren izanen da posible»⁶⁶³. Aldi berean, PTEk «egun Espainiako estatuan bortxaz baturik daude nazioak boluntarioki baturik jarrai dezaten» defendatzen zuen eta aldi berean, nazioek «Errepublika demokratikoan erabateko berdintasunaz gozatu» behar zutela uste zuen⁶⁶⁴. PTEren estatu eredu gogokoena errepublika unitario plurinazionala zen, baina errepublika federala ere onargarria iruditzen zitzaion. Izan ere, PTErentzako lurralde antolaketa eredu ez zen printzipio kontua, garrantzitsuena estatuaren klase izaera baitzen; hau da, oligarkia agintetik kentzea⁶⁶⁵.

MCEk, aldiz, honako iritzia zeukan:

(...) langileek kapital monopolistaren aurkako borroka planteatzeko marko lagungarriena Estatu osokoa da, eta ez nazio bakoitza bere kabuz bereizirik. Horregatik guztiagatik, Euskadiko MC ez da komunitate estatala desegitearen aldekoa (...) baina, ezinbestekoa da egun indarrean dauden batasun estatalaren formak aldatzea, Estatuaren errealitate multinazionalaren erantzuten dioten berriak ezarri⁶⁶⁶.

Beraz, MCEk joera separatisten eta zentralizatzaileen arteko kontraesana gainditzeko euskal nazioaren gaineko zampaketak bukatu behar zuela, eta gainera, Euskal Herriari autodeterminazio eskubidea eman behar zitzaiola defendatzen zuen.

LCR-ETA VI.aren ustez, aldiz, burgesia abertzalea ez zen askapen nazionalerako borroka bukaeraraino eramateko gauza, horrek bultzatzen zituen masa borrokek bere klase interesekin talka egiten zutelako. Ondorioz, langile klaseak baino ezin zuen lan hori egin. Zentzu horretan, LCR-ETA

661 *Ibid.* 158-159.

662 *Ibid.* 170-172

663 *Ibid.* 170

664 *Ibid.* 171.

665 *Ibid.* 172. Joaquin Badia, Mikel Iparragirre, «Sobre la cuestión nacional en España», *Hacia el Socialismo*, 7 zbk. (1975/XII), PTE, <https://archivodelatransicion.es/>.

666 Juan Carlos Jimenez de Aberasturi Corta, Emilio Lopez Adan *Beltza, Organizaciones, sindicatos...* 134.

VI.ak proletariotzak nazio askapenerako mugimenduaren hegemonia lortu zuela uste zuen⁶⁶⁷. *Trantsizio Programaren* ideiei jarraiki LCR-ETA VI.k ez zuen *gutxieneko* eta *gehieneko* aldarrikapenak bereizteko beharrik ikusten, eta beraz, langileen aldarrikapen ekonomiko eta politikoei eta askapen nazionalerako aldarrikapenek elkarrekin programa berean joan behar zutela uste zuen⁶⁶⁸. Trantsizio programaren aldaera berezi honen bidez, nazionalismo burges-txikiaren *etapismoari* (lehendabizi independentzia, gero sozialismoa) eta nazionalismo erradikalaren automatismoari (independentzia=sozialismoa, «ezin da sozialismorik gabeko independentziarik egon») kritika egiten zion. Autodeterminazioari dagokionez, «*aldez aurretiko* auzia» zela uste zuen, diktadura eraitsi bezain pronto, eta bestelako erregimen bat ezar zedin itxaron gabe ebatzi beharrekoa⁶⁶⁹. PTE edo ORTk proposatzen zuten autodeterminazio eredia kritikatzeko, ez zelako erabateko subiranotasunaren itzulketan oinarritzen, zentralismoak periferiari egiten zion kontzesio batean baizik. Horregatik, LCR-ETA VI.k Euskadik sufragio unibertsalaren bidez Biltzar edo Asanblea subirano bat aukeratu behar zuela uste zuen, eta horrek erabakiko zuen gainerako herriekiko zer lotura edo erlazio izan behar zuen. LCR-ETA VI, bestalde, konponbide federalaren aldekoa zen, modu horrek Euskadiren autonomia zabala eta langile klasearen batasun politikoa uztartzeko aukera ematen zuelako⁶⁷⁰.

LCk ere autodeterminazioaren defentsa sutsua egiten zuen. Bere ustez, KASen independentismoak, autodeterminazioaren beharrik ikusten ez zuen heinean, «euskal masak bazter uzten» zituen eta ondorioz, ez zuen «euskal herriaren subiranotasuna errekonozitzen»⁶⁷¹. Horregatik, autodeterminaziorik gabeko independentziaren leloa «bereizketa inposatuztat» eta «antidemokratikotzat» hartzen zuen⁶⁷². LCk autodeterminazio eskubidea gauzatzeko LCR-ETA VI.aren antzeko proposamena zeukan: «Euskal Biltzar Konstituziogilea» (Asambea Constituyente Vasca) era zedin defendatzen zuen, 16 urtetik gorako sufragio unibertsal librearen bidez. Hala ere, bozketa hura erabat librea izan zedin eta hiritarrek presiorik gabe erabaki zezaten alde aurretik ezarri beharreko baldintza proposatzen zuen: aparatatu estatal eta ideologiko frankista erabat deuseztatzea. Bestalde, LCR-ETA VI.k bezala, aukeratuko zen Biltzarrak erabateko subiranotasuna izanen zuela defendatzen zuen, bere homonimo estatalaren inolako esku-hartzerik gabe.⁶⁷³

667 *Ibid.* 180-182.

668 *Ibid.* 182.

669 *Ibid.* 182-183. Originalean azpimarratua.

670 *Ibid.* 183-184.

671 *Ibid.* 192.

672 LCren Euskadiko Komite Exekutiboa, *Programa nacional de Euskadi*, 10, BAP.

673 Juan Carlos Jimenez de Aberasturi Corta, Emilio Lopez Adan *Beltza*, *Organizaciones, sindicatos...* 193-94 eta 379

OICren ikuspegia, ordea, konplexua eta berezia zen. OICk, independentistek eta autodeterminazioa «hutsean» defendatzen zutenen aurrean, «klase perspektibadun autodeterminazioa» defendatzen zuen; izan ere, autodeterminazioa iraultza sozialistaren eta langile borrokaren parte zela, eta horiengandik bereiziz gero burgesiaren politikaren menpe geratuko zela uste baitzuten. Halaber, OICk autodeterminazioaren auzia argitzeko euskal langile klaseak Espainiakoarekin bat egin behar zuela defendatzen zuen⁶⁷⁴.

PCEml izan zen alderdi ezkertiarren artean jarrera zentralistena izan zuena, ziur aski bere nazionalismo espainiar antiiperialistaren ondorioz. PCEml autodeterminazio eskubidearen eta «autonomia justuaren» alde azaldu zen, baina aldi berean, masei «formula separatisten bideragarritasun eza eta izaera atzerakoia» erakutsi behar zitzaizela uste zuen⁶⁷⁵.

Esparru estataleko ezker iraultzaileak autodeterminazioa defendatzen zuen bitartean, ezker abertzaleak lelo hori gutxietsi eta baztertu zuen. Ezker abertzalearentzako askatasun nazionala (kasu honetan independentzia) eskakizun ukaezina zen, bozketa batean erabaki ezin zena. Izatekotan, independentzia gauzatu ondoren erabakitzeko uzten zuten auzi bat zen. Euskadik autodeterminazioa modu librean gauzatzeko, trantsizio fase bat gertatu beharko litzateke alde aurretik, askatasun demokratikoak eta erabateko autonomia zituzkeena. Behin fase horretan frankismoaren eta menpekotasun arrasto guztiak kenduta, orduan bai, autodeterminazioa gauzatu ahalko zen, Espainiako edo munduko herriekiko harremanak zeintzuk liratekeen zehazteko⁶⁷⁶.

Halaber, alderdi estatalita batzuei aldarrikapen nazionalak beranduagorako atzeratzea leporatzen zieten; hau da, estatalistentzako sozialismoa lehentasun bat zen, eta hura ailegatzerakoan herriek autodeterminatzeko askatasuna izanzen zuten. Ezker abertzaleak jarrera hori kritikatzeko, eta horren aurrean «*simultaneitatea*» edo «aldiberekotasuna» aldarrikatzen zuen⁶⁷⁷. ETAm-k, esaterako, uste zuen askapen nazionala «soilik kapitalismoaren aurkako borrokan eta sozialismoarako bilaketan» zela posible; eta gainera, alderdi espainolista edo estatalisten «mekanizismo historikoak» kritikatzeko zituen. Bere ustez, bi borroka horiek (soziala eta nazionala) ez ziren mailakatu behar: «askapen nazionalaren eta iraultza sozialistaren *aldiberekotasuna*» defendatzen zuen⁶⁷⁸. ETA politiko-militarrak, bestalde, alderdi estatalistek Espainia mailan

674 *Ibid.* 145-148

675 PCEml-ren Euskadiko Komitea, *Euskadi: el partido, el FRAP y el problema de las nacionalidades*, 1972/IV, CF 75.45 Par-11, BPR.

676 Juan Carlos Jimenez de Aberasturi Corta, Emilio Lopez Adan *Beltza, Organizaciones, sindicatos...* 43. 76-77. Bai ETAp-k, baita LAIAk ere jarrera hau konpartitzen zuten.

677 *Ibid.* 20-21 eta 349. Adar militarrek baita adar politiko militarrek, biek aldiberekotasunaren alde egiten zuten.

678 *Ibid.* 20-21. Azpimarra originalekoa da

autodeterminazioa babestea txalogarritzat zeukan, baina jarrera hori ez zitzaion nahikoa iruditzen, eta alderdi horien euskal adarren jarrera argiagoa eta irmoagoa hartu behar zutela zioen⁶⁷⁹.

Iraultza eta askapen nazionala aldi berean gertatu behar zirelako baieztapen horiek, hala ere, kontraesankorrak ziren; izan ere, alderdi abertzale gehienek *etapakako* iraultza proposatzen zuten (demokratiko-herrikoa lehendabizi eta gero sozialista)⁶⁸⁰. Ondorioz, itxura guztien arabera, *aldiberekotasunaren* aldeko aldarri hori esparru estataleko alderdietatik ezberdintzeko egiten zuten trikimailu diskurtsibo bat baino ez zen.

Frankismoaren urteetan, beraz, autodeterminazioaren aldeko aldarria ezker abertzalearentzako ez zen zilegi; baina modu paradoxikoan, hurrengo urteetan (ezkerreko alderdi gehienek aldarrikapen horri uko egin eta gero) kontsigna hori bere egin zuen. 1978an Francisco Letamendia *Ortzi* Eeko diputatuak Konstituzioa inpugnatu eta kritikatu zuen, besteak beste, autodeterminazioa eskubiderik jasotzen ez zuelako⁶⁸¹.

Autodeterminazioaren inguruko eztabaida puntu garrantzitsua zen; baina ez, bakarra. Ezker estatalistak oro har, Leninen alderdi zentralizatuaren eredua hartu zuen. Komunista guztiek Estatu beraren parte ziren heinean alderdi bakar bat eratu behar zuela uste zuen. Inoiz autodeterminazio eskubidea gauzatu eta herrialdea bereiziz gero, orduan nazio zapalduetako komunistek alderdiak nazionalitateen arabera bereizteko aukera izanen zuten. Baina bien bitartean, Estatu beraren menpean zeuden komunistek alderdi beraren parte izan behar zuten. Horregatik, **ezker iraultzaileko alderdiak maila estatalean antolatu ziren eta euskal adarrak Espainiako alderdien zati izan ziren**. PCEml-k, esaterako, langileen alderdiak nazioen arabera zatitzeak «herriaren etsaiei mesede egiten» ziela uste zuen eta jarrera «antileninistatzat» zeukan⁶⁸².

Ezker abertzalearentzako barne antolaketa eredu hori nahikoa zen ezker erradikaleko alderdiak «sukurtsalistasat», «espainolistasat» edo «estatalistasat» hartzeko. Izan ere, ezker abertzaleak Euskadi «klase borrokaren marko autonomoa» zela defendatzen zuen eta horregatik Euskal Herriko alderdi iraultzaileek Espainiakoen ezberdinak izan behar zuten, «sukurtsalistorik» egon ez zedin.

Hala ere, esparru estataleko alderdi iraultzaileek Hego Euskal Herrian zuten pisua eta indarra ikusita eta ezker abertzaleak 1970eko hamarkadaren bukaeran eskuratu zuen erakarpen ahalmenaren eraginez, **Hego Euskal Herriko antolaketa eredura moldatzeko joera izan zuten**. 1973ko bukaeran LCR eta ETA VI. fusionatu zirenean, esaterako, Euskadiko atalak «antolaketa

679 *Ibid.* 43.

680 *Ibid.* 23 eta 349.

681 Francisco Letamendia Belzence *Ortzi*, *Denuncia en el parlamento*, Txertoa, Zarautz, 1978, 154-160. Francisco Letamendia Belzence *Ortzi*, *Historia del ...* Vol. II. 81.

682 PCEml-ren Euskadiko Komitea, *Euskadi: el partido*, ...

autonomia eta taktikoa » izanen zuela erabaki zuten⁶⁸³. 1978ko martxoan, aldiz, PTEren I. Kongresuan alderdia federal bilakatu zen eta Euskadiko Lanaren Alderdiak autonomia irabazi zuen.

Aurrerago ikusiko dugun bezala, 1980eko hamarkadaren hasierarako ezker abertzalea Euskal Herriko korrante iraultzaile nagusia bilakatu zen eta EMKk zein LKIk HBrekiko aliantza politika lehenestea erabaki zuten. Kontrara, ezker abertzaleak «espainolismoarekiko» zuen mesfindatzak eta aurreiritziak korrante horrekin aliantzak egitea zailtzen zuenez, bai EMKk bai LKIk Espainiar alderdietatik bereiztea eta independente bilakatzea erabaki zuten, EMKk 1983ko MCren IV. Kongresuan eta LKIk pixka bat beranduago 1988an⁶⁸⁴.

Bukatzeko, **ezker iraultzaileak autodeterminazio eskubidea defendatzen zuen, baita Nafarroarentzako ere**. Orokorrean, aski zabaldua zegoen Nafarroa Garaia Euskal Herriaren parte zelako ideia, eta alderdi ezkertiar gehienek Nafarroa etorkizuneko Euskal Autonomia Erkidegoaren parte izan behar zuela uste zuen. Baina balizko erakunde autonomo horretan parte hartzeko, Nafarroan kontsulta edo erreferendum bat gertatu behar zela uste zuten, nafar gizarteak modu libre eta demokratikoan erabaki zezan⁶⁸⁵.

MCEk, esaterako, Nafarroa euskal komunitatearen parte zela, eta ondorioz, gainerako euskal lurraldeekin bat egin behar zuela defendatzen zuen. Baina lurralde horren berezitasun historiko, kultural eta politikoen ondorioz, gainerako euskal lurraldeetan ez bezalako politika espezifikoko bat egin behar zutela uste zuen; indar eskuindarrak demagogia erabiltzen ari baitziren «nabarrismo itxi eta erreakzionario baten izenean». Horregatik guztiagatik, MCEren ustez, Nafarroak balizko erakunde autonomiko euskaldun batean parte hartuko balu, alde batetik, bere autonomia maila mantendu (edo are handitu ere) beharko luke, eta bestalde, bere borondatea errespetatu beharko litzateke⁶⁸⁶. ORT, bestalde, Nafarroan plebiszitu bat egitearen alde zegoen, eta Nafarroa Euskadiren parte izan zedin «lanean ari» ziren «herriari eta iraultzaren interesei mesede egiten zuelako»⁶⁸⁷.

683 Marti Caussa, « Los orígenes de la LCR (1969-1973) », Marti Caussa, Ricard Martínez I Muntada, *Historia...* 31.

684 Jon Kortazar Billelabeitia, «Euskadiko Mugimendu...» 1105-1109. MC, *Una izquierda para la Revolución. IV Congreso Federal*, 1983, 121-124, DPP (MC). 2/2 (C1), BPR. Manuel Garí, «Derrotas y victorias: el referéndum sobre la OTAN y la Huelga General del 14D (1985-1989)», Marti Caussa, Ricard Martínez i Muntada, *Historia de la liga...* 160-161. «Los comunistas, parte activa del movimiento de emancipación nacional», *Combate*, 448 zbk. (1988ko martxoaren 11), 10-11, Doc. 8.45, <https://historialcr.info/>. Hainbat egile, «Dossier» [LKiren IV Biltzarreko], *Combate*, 449 zbk. (1988ko martxoaren 25a), I-IV, Doc. 8.45, <https://historialcr.info/>.

685 Jesús Urrea Bidaurre, «Desde Navarra», *Zer egin?*, 16 zbk (1977/IV), EMK, 2, BAP. Jesús Urrea Bidaurre, «Navarra y la autonomía.», *Zer egin?*, 19 zbk (1977/X), EMK, 2, BAP. E.F.: «Nafarroa Euskadi da», *Zutik!*, 81 zbk. (1976/III/30), LKI, 13-14, BAP. Txomin Garmendia, «Por una Navarra democrática en una Euskadi autónoma», *Iraultza*, 24 zbk. (1978/III/ lehen hamabostaldia), OIC, 9, LBF. «Por el régimen transitorio preautonómico hacia el Estatuto de Autonomía para Euskadi», *En Lucha*, 167 zbk. (1977/X/13-17) ORT, 4, <https://prensahistorica.mcu.es/>. Joxeba Urrutia, «El problema vasco-navarro», *El Correo del Pueblo*, 56 zbk. (1976/IX/3), PTE, 3-4, <https://archivodelatransicion.es/>.

686 Juan Carlos Jimenez de Aberasturi Corta, Emilio Lopez Adan *Beltza, Organizaciones, sindicatos...* 137-138.

687 *Ibid.* 159.

PCEi-PTEk, bestalde, hasiera batean kutsu *nabarristako* jarrera izan zuen; izan ere, 1976ko Aberri Egunerako kaleratu zuten *La Voz del Trabajoren* alean Nafarroa eta Euskadiren arteko lotura historikorik ez zegoela defendatu zuen⁶⁸⁸. Alderdi horrek, halaber, «Nafarroa Euskadi da» eta «Nafarroa Nafarroa da» leloen arteko eztabaidaren atzean, burgesiaren bi sektore ezberdinen arteko lehia zegoela defendatzen zuen. Eztabaida hori interes ezberdinak zituen bi sektore burgesen arteko talka modura ikusten zuen, «berekoiheria ekonomiko eta politikoa» ezkututzen zituena⁶⁸⁹. Alabaina, gatazka hori konpontzeko ahalmena zuen klase sozial bakarra proletariotza zen, inolako intentzio «ilunik» ez zeukalako. PTEren ustez, Nafarroaren auzia errepublika demokratikoaren eta oligarkiaren eraispenaren perspektiban txertatu behar zen. Askatasun demokratikoak ezarri eta gero, Nafarroak Autonomia Estatutu propioa izan behar zuen, eta gero, Euskadin sartu, edo ez, modu askean erabakitzen ahalko zuen⁶⁹⁰. Momentua iristerakoan, gainera, PTEk Euskadirekiko batasuna defendatuko luke, «sozialismorako bidean [eta] askatasun demokratikoen alde, proletariotzarentzako mesedegarriena» litzatekeelako⁶⁹¹. Trantsizioak aurrera egin ahala, gorago ikusiko dugun bezala, PTE mugimendu abertzaletara hurbildu zen eta jarrera euskaltzalegoak bereganatu zituen.

LCR-ETA VI.ri, bestalde, Nafarroako masa mugimenduak Euskadirekiko atxikimendua erakutsi zuela «ukaezina» iruditzen zitzaion, eta nafar burgesia batasun hori «nabarrismo artifizial eta chauvinistaren bidez hausten» saiatzen ari zen. Bere aburuz, nafarrek Euskal Biltzarrean parte hartu behar zuten, gainerako euskal herritarrekin batera, eta Biltzarraren erabakiak erreferendumean bozkatzerakoan Euskaditik bereiztea erabakitzen ahalko zuten. Horrela balitz, LCR-ETA VI.ren ustez, jarrera hori errespetatu beharko litzateke⁶⁹². Edonola ere, arazo honi eman beharreko konponbidea Nafarroako langile klasearen «batasuna hautsi gabe» bilatu behar zen⁶⁹³.

LCk Nafarroaren erabakitzeko eskubidea defendatzen zuen baita ere. 1930eko hamarkadako Estatutua berrezartzea eskatzen zuten alderdiak kritikatu zituen, Nafarroa bereizirik uzten zuelako eta burgesia zentralistak *emandako* estatutua zelako. LCren ustez, Nafarroak gainerako lurraldeekin batera parte hartu behar zuen Euskal Biltzar Konstituziogilean, eta ondoren, modu erabat

688 *La voz del Trabajo*, 1 zbk. (1976/II/13), PTEren Nafarroako Komite Erregionala, 44.5, CDHC-EI.

689 *Juan Carlos Jimenez de Aberasturi Corta, Emilio Lopez Adan Beltza, Organizaciones, sindicatos...* 173-174.

690 Pedro Biurrun, «¿Reintegración Foral?», *La Voz del Trabajo*, 7 zbk. (1976/VI/15), 1-2, Pablo Ibañezek eta Isabel Noguera utzia.

691 *Juan Carlos Jimenez de Aberasturi Corta, Emilio Lopez Adan Beltza, Organizaciones, sindicatos...* 173-174. *Pleno del Comité Nacional de Euskadi del PTE*, 1976/VIII/3, Iruñea, 42/9097,2 Documentación relativa al PCE(i) y PTE, AGA.

692 *Ibid.* 184.

693 LKInen Komite Nazionalaren idazkaritza, *Presentación, declaración pública del pleno de la Dirección Nacional de Euskadi*, 1977/X/7, BAP.

subiranoan bereizteko aukera izanen zuela defendatzen zuen⁶⁹⁴. Lurraldetasunaren auzia konpontzeko eta Hego Euskal Herria eta Ipar Euskal Herria berriz batzeko modu egokia Europako Estatu Batu Sozialistak zirela defendatzen zuen⁶⁹⁵.

Ezker abertzalearentzako, ezker estatalistaren jarrera onartezina zen: Nafarroa Euskal Herriaren parte banaezina baitzen. Nafarroaren lurraldetasunaren inguruko galdeketa-rik planteatzea «norbera bere amaren edo aitaren seme ote den bozkatzea» bezala ikusten zuten⁶⁹⁶.

Edonola ere, alderdi iraultzaile gehienek beren komite nazionalak Hego Euskal Herriko lau probintzien arabera antolatu zituzten. ORTk, esaterako, 1974an antolatu zuen bere Euskadiko Komite Nazionala, hasieratik Nafarroa barne biltzen zuena⁶⁹⁷. PTEren kasuan, ordea, hasiera batean Nafarroako adarra ez zen Euskadiko Komitearen parte, baina 1976ko udan bertan sartzea erabaki zuen, «langileriarentzat komenigarriena zelako»⁶⁹⁸.

PCEren kasuan, ordea, Nafarroako adarra ez zen Euskadiko alderdiaren parte izan, gutxienez 1977-1978 arte⁶⁹⁹. PCEk Nafarroaren euskalduntasuna zalantzan jartzen zuen eskualdeen arteko ezberdintasunak zirela medio, eta 1930eko hamarkadako prozesu estatutistatik aldendu zelako. Hala ere, nafarrek Euskadiren aldeko iritzia emanen balute, gizartearen borondate demokratikoa errespetatuko zutela aitortzen zuen⁷⁰⁰.

Halaber, zenbait alderdik —MCEk esaterako— haiek «esklusibismo nazional» izendatu zutenaren inguruan kezka handia azaldu zuten. Ezker abertzalearen nazionalismo erradikalak langile klasearen artean gatazka interidentitarioak sor zitzakeelako beldur ziren⁷⁰¹. Baina azkenean, ez zen horrelakorik gertatu.

Orokorrean nazio auziarekiko jarrera uzkurrena izan zuen alderdi iraultzailea ORT zela esan izan da. Hainbat aldarrikapen nazional partekatzen zituen arren (autodeterminazioa, Estatutua, Nafarroaren euskalduntasuna...), bere diskurtso nazionala moderatua zen. Tesirako egin izan diren elkarrizketetan, ordea, berriemaileen arabera pertzepzio ezberdinak jaso ditugu, gehienetan

694 LCren Euskadiko Komitea, *Centenario de la abolición de los fueros vascos*, 1976/VII/21, BAP.

695 LCren Euskadiko Komite Exekutiboa, *Programa nacional de Euskadi*, 10, BAP.

696 Francisco Letamendia Belzunce *Ortzi, El no vasco a la reforma: 1º La consolidación de la reforma*, Txertoa, Donsotia, 1979, 160.

697 Javier de Miguel Saenz, *La Organización Revolucionaria...*

698 Joxeba Urrutia, «El problema vasco-....». *Pleno del Comité Nacional de Euskadi del PTE...*

699 Andrés Herrera Feligreras, «De la celula al ...» 121-133.

700 Juan Carlos Jimenez de Aberasturi Corta, Emilio Lopez Adan *Beltza, Organizaciones, sindicatos...* 94-96.

701 «Un problema en el movimiento obrero y popular vasco. El exclusivismo nacional», *Zer Egin?*, 6 zbk. (1976/VIII), EMK, 4-6. Mikel Larraz, «Lehen go lepotik», *Zer Egin?*, 27 zbk.(1978/III/15), EMK, 3. «Una trampa peligrosa. La alternativa del nacionalismo frente al estatalismo», *Zer Egin?*, 27 zbk.(1978/III/15), EMK, 3. Manoli Lasa, «Opiniones de la emigración», *Zer Egin?*, 37 zbk. (1979/II/bigarren hamabostaldia), EMK, 4. Den denak Batzarreko Artxibo Pribatukoak

elkarrizketatuaren geroagoko ibilbide politiko eta pertsonalaren arabekoak. ORTko Javier Iturberen arabera, alderdiak nazio auziaren gaineko jarrera «estrategia hutsa» izan zen, eta aldarrikapen horiek momentuko oportunitate taktikoaren arabera hartu ziren. Izan ere, Nafarroan eskuineko alderdiak oso errotuta zeuden, baina Hego Euskal Herriaren osotasuna kontuan hartuz gero, «gehiengo sozial progrea» zegoen. Nafarroa Euskadiren parte izan zedin eskatzen zuten leloek (beti ere ORTko kide horren arabera) eskuinaren indarra ahultzeko aukera taktikoa izan ziren. Halaber, ORTk ere autodeterminazioa defendatu zuen, baina «debate eta eztabaida teoriko» bat baino ez zen izan, praktikan egingarria ez zena⁷⁰². Baieztapen horiei ñabardurak egitea komeni da. Egia da ORT auzi nazionalarekiko jarrera moderatuena izan zuen alderdi ezkertiarra izan zela, baina alderdiko kideen artean ez zen jarrera homoginoa. Bere oinarrietan nazio kontzientzia euskalduna zuzendaritzetan baino gehiago errotu zen. Aurrerago ikusiko dugun bezala, alderdia desagertzerakoan, militante ohiek hartutako ibilbide politikoetan norabide ezberdinetan nabaritu zen hori.

PCEi-PTEri dagokionez, bestalde, lehendabiziko urteetan oso jarrera «jakobino» eta «zentralista» izan zuela aipatu behar da. Manuel Valverdek PSUCen zatiketa zuzendu zuenean, komunista katalanek nazio auziarekiko sentsibilitate handia zuten. Hasiera batean, erreakzio modura diskurtso «jakobinoa» erabili zuen PSUCen katalanismo ezkertiarrengandik bereizteko eta bere inguruko kideak erakarria ahal izateko. Hasierako izaera zentralizatzaile eta antiperiferiko hark PCEi-k eta PTEk nazio auziarekiko izan zuten jarrera markatu zuen⁷⁰³.

Alabaina, 1970eko hamarkadan zehar, PCEi-n nazionalitateen borrokarekiko sentsibilizazio maila handitu egin zen. Laster, autodeterminazio eskubidea frankismoaren aurkako borrokaren aldarrikapen demokratiko gisa onartu zen. Nazio zapalduen autonomiaren edo independentziaren alde egiten zuten borroka, demokraziaren eta sozialismoaren aldeko borrokarekin bat egin behar zutela ulertu zuten. Aldarrikapen nazional horiek hartzen ari ziren garrantziaren isla modura har ditzakegu PCEi-ren Kongresu Eratzailean (1973ko apirillean) autodeterminazio eskubidearen onarpena⁷⁰⁴.

Hala ere, alderdiak proposatzen zuen estatu eredu eta antolaketa territoriala ez zegoen oso zehaztua eta 1975ko abenduan auziaren inguruko ikerketa bat enkargatu zioten Joaquín Badía (Manuel Gracia) eta Mikel Iparragirreri. Testu hura barne formakuntzarako organoan publikatu zen: *Hacia el Socialismo*ren zarpigarren alean. Bertan, Espainiako estatuaren parte ziren nazio guztiek autodeterminatzeko eskubidea zutela onartzen zen, baina PCEi-k «batasun askean» (hots,

702 E3 elkarrizketa: Javier Iturbe Ekai. Iruñea 2018/VIII/9.

703 Ramon Franquesa Artes, «Estabilización del...», 280.

704 PCEi: *Congreso de Constitución...* 8-9.

nazionalitateen borondatezko onarpenean) oinarritutako estatu eredia defendatzen zuen Espainiarentzako. Estatu horretarako forma federala onargarria zela uste zuten arren, PCEi-k langile klasearentzako komenigarriena estatu unitario plurinazionala zela defendatu zuen⁷⁰⁵.

Laster areagotu egin ziren periferia eta zentroaren arteko tentsioak. 1977ko hauteskundeak eta gero, PTEk barne krisi larri bat bizi izan zuen, Kataluniako zuzendaritzaren eta zuzendaritza zentralaren artean. Krisi horren funtsean hauteskundeetako porrotaren ondoko atsekabea zegoen, baina prentsan nazio auziarekiko desadostasunen ondorio izan zela argitaratu zen. Josep Maria Carraté, Kataluniako idazkari nagusiak, autonomia gehiago eskatzen zuen. Krisi hori Carratéren aldekoen kanporaketarekin amaitu zen, eta Manuel Graciak hartu zuen Kataluniako alderdiaren gidaritza. Bitxia bada ere, Graciak nazionalismo katalanaren aldeko eta federalismoaren aldeko ildoan sakondu zuen (Carrateri leporatzen zioten gauza bera). Handik gutxira Kataluniako adarrak PTC (Kataluniako Langileen Alderdia) izena hartu zuen. Trantsizioko urteetan aldarrikapen nazionalak izaera demokratizatzailea lortu zuten eta masa mobilizazio arrakastatsuak izan ziren; hala nazionalitate historikoen autonomiaren (edo independentziaren) alde, nola barnealdeko eskualde azpigaratuen alde. PTEk batzuk zein besteak bultzatzea erabaki zuen, demokrazia sortu berriaren sakontzea sendotzen zutelakoan. Gainera, espazio politiko berri baten bila federalismoa bere izaeraren parte bereganatu zuen. Baina, aldaketa ez zen lasaia izan, hasierako aurreiritzi zentralista eta jakobinoek oraindik alderdian oihartzuna baitzuten. 1978ko martxoko I. Kongresuan antzeztu zen aldaketa. Manuel Graciak, izaera federalista zeukan ponentzia ausart bat aurkeztu zuen, eta horri Manuel Armentaren beste bat kontrajarri zitzaion. Azken horrek Eladio Garcia Castroren Idazkari Nagusiaren babesa zeukan. Lehia bizia izan zen, baina azkenean Komite Zentralarenak irabazi zuen. Zentzu batean, alabaina, Graciarenak eragina sortu zuen. Bozketa galdu arren, federalismoa ekarri baitzuen alderdira. Autodeterminazioa eta autonomia estatutuen aldeko borroka onartu zen, eta Espainiako nazionalitateetan alderdi abertzale konsekuenteekin (hau da, alderdi abertzale burgesak bazterturik) aliantza egitea defendatu zen. Hego Euskal Herrian politika horrek Euskadiko Ezkerran parte hartzera eraman zituen.

Arestian esan dugun bezala, Nafarroan PTEk hasieran zantzu *nabarristak* zituen politika defendatu zuen, hainbat militantek, maila pertsonalean, sentsibilitate euskaltzale izan zuten arren; baina horiek beti ere gutxiengoan egon ziren⁷⁰⁶. Mugimendu euskaltzaleak gora egin ahala, berriz, Nafarroako PTEk ere sentsibilitate hura bereganatu zuen. Gorago aipatu dugun moduan, 1976ean

705 Joaquin Badia, Mikel Iparragirre, «Sobre la cuestión nacional en España», *Hacia el Socialismo*, 7 zbk. (1975/XII), PTE, <https://archivodelatransicion.es/>. Hurrengo alean ere nazio auzia lantzen zen. Joaquin Badia (Manuel Gracia), «El Partido del proletariado y la cuestión nacional en España», *Hacia el Socialismo*, 8 zbk. (1976/II), PTE, VI. Pleno (ampliado) del Comité Central del PTE, <https://archivodelatransicion.es/>.

706 E11 elkarrizketa: Pablo Ibañez eta Isabel Noguera. Iruñea, 2019/III/11.

PTEk bere Nafarroako adarra Euskadiko Komite Nazionalaren parte izan zedin erabaki zuen. 1970eko hamarkadaren bukaeran, gainera, ezkerreko mugimenduen artean gertatzen ari ziren mutazioen ondorioz, Euskadiko Lanaren Alderdiaren I. eta II. Konferentzietan, alderdia ezker abertzalera hurbildu zen eta ia bere lelo eta kontsigna historiko gehienak bereganatu zituzten⁷⁰⁷. Baina ordurako, alderdia gainbeheran zegoen.

Ondorioak: Olatu euskaltzalearen gailurra eta gainbehera

Frankismoaren hondar urteetan sentimendu eta aldarrikapen euskaltzaleek —borroka antifrankistan eskuratu zuten esanahi aurrerakoiei, hausturazaleei eta demokratikoei esker— zabalpen handia lortu zuten Nafarroako gizartean. Oposizio antifrankistak euskaltzaletasun politikoa eta kulturala modu nahiko orokortuan defendatu zituen, aukera politikoen arabera hainbat gradazio edo maila egon ziren arren. Hainbat faktorek lagundu zuten identitate antifrankista eta euskaltzalearen eraketan: Errepublika garaiko Estatutuaren oroitza urrunak, Euskal Berpizkunde Kulturalak, ETAren eragin nazionalizatzailerik eta polarizatzailerik, edota nazionalismo espainiar erasokorraren aurkako erreakzioak. Giro euskaltzale orokor horrek Hegoaldeko lau euskal lurraldeen batasunaren aldeko iritzia zabaltzen lagundu zuen. Gainera, euskal autonomiaren aldeko aldarrikapenak foru-erakundeak (Diputazioa eta Foru Kontseilua) demokratizatzeko eta *bunkerreko* kideak bertatik egozteko balioko zutela pentsatzen zen.

Nafarroa Euskadiri loturik ikusi nahi zutenen aurrean, erreakzioa sortu zen eskuineko sektoreen artean, aldarrikapen euskaltzaleak urrutiegi joan zirelako beldur baitziren. Diktaduraren amaiera eskuineko talde politikoen irudia gutxietsia zegoen, diktadurarekin identifikatuegia zeudelako. Trantsizioan zehar gertatzen ari ziren aldaketa politiko eta instituzionalen aurrean, eskuinak bere burua berlegitimatuzeko diskurtso berriak bilatu behar izan zituen. Katalunian Jordi Pujolen inguruan bildutako katalanismoa bultzatu bazuten, Nafarroa Garaian nabarrismoaren aldaera espainolista eta erregionalista baliatu zuten bere izaera berrosatzeko eta eskuineko sektore horiek berrantolatuzeko. Eskuineko nabarrismo kontserbadoreak Nafarroa Garaian identitate bereizi eta berezia aldarrikatzen zuen: Nafarroa foruzalea, Espainiaren ezinbesteko parte banaezin gisara, eta gainerako euskal lurraldeekin inolako harremanik ez zuena. Horregatik bloke horren parte ziren sektoreek Nafarroa balizko euskal erakunde autonomikotik bereizirik gera zedin defendatzen zuten, Nafarroaren izaera foralaren ondorioz, bere autonomia paktu aurrekonstituzional batetik zetorrelakoan. Nabarrismo eskuindarrak iraganean euskaltzaletasunarekin arazorik izan ez zuten arren, Trantsizioan abertzaletasun erasokorrak Nafarroaren identitatea eta izaera mehatxatu

⁷⁰⁷Aportación a la Revolución Vasca, 1980/III/5, PTEko kide ohiek, Carpeta PTE, LBF.

zuela eta desagertzeko arriskuan zegoela salatu zuen. Eskuineko nabarrismo horren ordezkariak Diputazioko bunkerra, UCD, eta zertxobait beranduago, UPN (Unión del Pueblo Navarro) izan ziren. Zentzu horretan, 1977 eta 1979 artean Nafarroako politikaren auzi nagusiak Nafarroaren lurraldetasunaren eta erakunde foralen demokratizazioaren ingurukoak izan ziren.

Euskaltzaletasunari eta abertzaletasunari aurre egin zion nabarrismoa espainolista eraginkorra izan zen, eta Nafarroako gizartearen zati handi bat erakartzea lortu zuen. UPN alderdi sortu berriak 1979an lortu zituen emaitza onak horren erakusgarri dira. Frankismoaren azken urteetan, lelo eta sinbolo euskaltzaleak antifrankismoarekin eta Haustura Demokratikoarekin identifikatu ziren; baina identifikazio hori ez zen erabatekoa izan eta nafar gizartearen parte batek ez zituen propiotzat hartu.

Diskurtso nabarristaren arrakastak PSOEn aldaketa ideologiko eta politikoarekin bat egin zuen. Diktadura garaian PSOE ez zen egon oposizioko mugimendu aktiboenen artean; izan ere, Nafarroan alderdia bera ez baitzen existitzen, harik eta 1974an *ex novo* berreraikitzen hasi ziren. PSOE hark, hasiera batean, gainerako alderdi ezkertiarrek bezala aldarrikapen euskaltzaleak, lau lurraldeentzako autonomia eta autodeterminazioa defendatu zituen, baita aldaketa sozialeko programa sozial aurreratu eta iraultzailea ere. Baina, Trantsizioan zehar, Felipe Gonzalezen alderdiak Espainiako Gobernura ailegatzeko aukera asko zituela ikusi zuen; horretarako alde zurretik bere aldarrikapen erradikal edo iraultzaileak bere programatik erauzi beharko zituen. Eskuinerantz egindako biraketa hura Juan Andradek aztertu du maila estatalean, eta Nafarroako eskalan, aldiz, Mikel Buenok duela gutxi defendatu duen doktore-tesian⁷⁰⁸. 1978tik aurrera, —alderdiaren adar ezkertiarrena kanporatu eta gero— PSOEk jarrera politiko moderatu eta zentristagoak bereganatu zituen, eta Nafarroan, halaber, euskaltzaletasuna atzean utzi eta printzipio nabarristak espainolistak bere egin zituen. Jarrera aldaketa horren ondorioz, Nafarroako Elkarte Sozialista (Agrupación Socialista de Navarra, ASN), ordura arte Euskadiko Alderdi Sozialistaren (PSEren) parte izan bazen ere, 1982an PSEtik bereizi eta PSN (Nafarroako Alderdi Sozialista) eratu zen.

Beraz, ordura arte oso zabaldua egon zen euskaltzaletasuna gainbeheran geratu zen eta soilik alderdi abertzaleek (HBk, EEk eta EAJk) eta ezkerreko alderdi batzuek defendatu zuten Nafarroa gainerako euskal lurraldeekin batu behar zelako ideia. Nabarrismo espainolistak euskararen, euskal kulturaren eta lauko autonomiaren inguruko aldarrikapen guztiak *inposaketatzat* hartzea eta ETAren indarkeriarekin erlazionatzea lortu zuen. Aurrerantzean, sinbolo euskaltzaleak hausturarekin eta

708 Juan Andrade Blanco, El PCE y el... Mikel Bueno Urritzelki, *El PSOE y la UGT en Navarra (1974-1982): creación, formación y desarrollo*, 2020/IX, Emilio Majuelok zuzendua, argitaragabea. Mikel Bueno Urritzelki, «Negociaciones políticas del PSOE navarro tras las elecciones municipales y autonómicas de 1979», Emilia Martos Contreras, Rafael Quirosa-Cheyrouze Muñoz, Alberto Sabio Alcutén (Koord.), *40 años de ayuntamientos y autonomías en España*, Universidad de Zaragoza, Zaragoza, 2019, 147-163.

terrorismoarekin lotzen hasi ziren eta lehenagotik zeukaten izaera unitarioa galdu zuten. Ondorioz, nafar gizartearen zenbait sektorek baztertu egin zituzten eta euskaltzaletasunak transbertsal izateari utzi zion. Bestela esanda, euskaltzaletasunak «prezio bat ordaindu zuen», batez ere eskualde erdaldunenetan⁷⁰⁹.

709 E10 elkarrizketa: Milagros Rubio Salvatierra. Tuter, 2019/III/5.

6. Ezker iraultzailearen krisia eta gainbehera

6.1. Ziklo historikoaren bukaera: espektatiba iraultzaileen desagerpena eta Hitzarmen Soziala

Ezohikoa izanagatik ere Nafarroako ezker iraultzailea ez dugu isolaturiko fenomeno bezala ulertu behar, baizik eta 68 Luzeari lotutako nazioarteko olatu iraultzaile orokorraren parte bezala. 1960ko hamarkadaren bukaeran eta 1970ekoaren hasieran, egoera baikorra zen nazioarteko gizarte mugimenduentzako eta langile klasearentzako, aldaketa sozial eta lorpen politiko handiak lortzeko aukera eskura zegoela zirudielako. Arestian esan bezala, olatu horren gailur gorena 1968an izan zen; Pariseko, Mexikoko, Vietnameko eta Pragako gertakari handiek bat egin zuten eta. Hurrengo bospasei urteetan «balantza edozein aldeetara makur» zitekeela zirudien⁷¹⁰. Tarte horretan, langile klasearen borroka ahalmena eraginkorra izan zen, antolaketa eredu eta kontzientzia maila garatuak baitzituen. Lanaren errenta produktibitatearen hazkunde tasa baino bizkorrago hazi zen, eta horrek, enpresarien mozkin metaketa ahalmena jaisten ari zela esan nahi zuen. Munduko hainbat bazterretan gertatutako eztanda iraultzaileek, halaber, burgesiaren agintea kolokan egon zitekeelako zantzuak azaldu zituzten. Mehatxua serioa zen eta horregatik burgesiak erantzun bizkorra eman behar izan zion, eta beraz, «kontrairaultza kontsebadore» bati ekin zion⁷¹¹.

Pixkanaka, burgesiak langile mugimenduaren bultzada gelditzeko neurriak hartu zituen, eta laster, mugimendu iraultzaile eta eraldatzaileen joera positiboa mantsotu eta espektatiba iraultzaileak gelditu ziren. Joera aldaketa horrek hainbat mugarri garrantzitsu izan zituen, hala nola, 1973ko Txileko Salvador Allenderen aurkako estatu kolpea (sozialismora modu baketsuan iristeko bideari itxi ziona) eta Portugaleko iraultzaren «birbideratzea» (sozialismoaren aukera baztertu eta errepublika liberala ezarri zuena)⁷¹².

Baina, mugimendu iraultzaileei eta aldaketa sozialei bidea ixteko ezinbesteko elementua krisi ekonomikoa izan zen. Burgesiak 1973tik aurrera zabaldu zen beheraldi ekonomikoaren egoera baliatu zuen egiturazko aldaketak egiteko, mozkin metaketa eredu berri baten oinarriak ezartzeko eta lan-harremanetako indar korrelazioa bere mesedetarako aldatzeko. Lurralde Petrolio Esportatzaileen Erakundeak (LPEEk) bat-bateko prezioen igoera deklaratu zuenean mundu osoko

710 Jaime Pastor, «Mayo 68, de...» 43.

711 Chris Harman, *Fire last ...* 331-332. Josep Fontana Lazaro, *El siglo de la revolución. Una historia del mundo desde 1914*, Crítica, Barcelona, 2017, 417-486.

712 Jaime Pastor, «Mayo 68, de...» 43.

ekoizpen gastuen igoera eragin zuen. Horrek beheraldi ekonomikoa eragin zuen eta Bigarren Mundu Gerra bukaeratik zetorren hazkunde fordista-keynestarraren garaiari bukaera eman zion. Enpresa askok itxi egin behar izan zuten eta milaka lanpostu suntsitu ziren. Gainera, krisiaren izaera berezia izan zen, ekoizpenaren jaitsierarekin eta langabeziaren igoerarekin batera fenomeno berri bat agertu baitzen: *estanflazioa*⁷¹³.

Gerraondoko hamarkadatan politika keynestarrak izan ziren nagusi. Urte horietan Mendebaldeko herrialde gehienetako politika ekonomikoek Estatuaren partehartzearen bidez ongizate-estatua eratzea eta enplegu betea lortzea izan zuten helburu. Baina, ordutik aurrera, Mendebaldeko herrialdeko kapitalistetan ekonomia eredia berregituratu zen eta ekoizpen eredu *toyostitan* eta politika ekonomiko neoliberaletan oinarritutako politikei bidea ireki zitzaien. Milton Friedman-ek inspiratutako politika ekonomikoen arabera, estatuaren politika ekonomikoen helburu nagusia hazkunde ekonomikoa sustatzea izan behar zuen eta ez ongizate-estatua bermatzea. Horregatik, neoliberalak estatuak ekonomian izan behar zuen parte hartzean gutxitu behar zela eta ekonomiaren desarautzea defendatu zuten. 80ko eta 90eko hamarkadatan aplikatu ziren politika horiei *reaganomics* eta *tatchersimo* izena jarri zitzaizkien, horien aldeko bultzada azkarrena eman zuten agintariengatik: Ronald Reagan eta Margaret Thatcher⁷¹⁴. Gobernuak hartu zituzten neurrien ondorio zuzenena enpresarien mozkinaren berreskurapena eta handitzea izan zen. Krisiaren kostua, orokorrean, langileen gain erori zen, eta gainera, soldaten negoziazio markoa aldatu zen, eskulana merketu zuena⁷¹⁵.

Bestalde, kapitalismoaren berregituraketaren ondorioz, langile klasearen izaera eta identitatea disolbatzen hasi zen. Lan merkatuaren arauak aldatzen hasi zirenez, langileen egoera enpresarien aurrean babesgabeagoa bilakatu zen. Gerraondoko urteetan mugimendu sindikala indartsua zen eta hobekuntzak lortzeko aritu zen, baina ordutik aurrera, defentsa posizioetara mugatu eta egoerak eta baldintzak gehiago oker ez zitezen borrokatu zen. Gainera, langabeziaren hazkundeak soldaten gaineko beheranzko presioa eragin zuen. Halaber, langile klasearen barruan formakuntza mailaren eta teknifikazioaren arabera ezberdintasunak markatzen hasi ziren, eta gainera, talde kontzientzia osatzen zuten ezaugarriak aldatzen ari zirenez, langile klasearen osaera bera lausotzen hasi zen. Hori guztia gutxi balitz, kapitalismoak langile klasearen integrazio mekanismo konplexuagoak sortu zituen, hala nola, kontsumo-gizartea, masa-komunikabideak edo

713 Estanflazioa ekonomian ezohikoa den fenomeno da, beheraldi ekonomikoa egon arren gertatzen den inflazioari esaten zaio. Jordi Maluquer de Motes, *La economía ...* 358-360.

714 Josep Fontana Lazaro, *El siglo de...* 453-456 eta 482-485. Eric Hobsbawm, *Historia del ...* 403-417.

715 Josep González i Calvet, «La liberalización como estrategia socialdemócrata», *Mientras tanto*, 38 zbk. (1989), 23-42. José Luis Herrero, «Las relaciones de trabajo», Miren Etxezarreta Zubizarreta (Koord.), *La reestructuración del capitalismo en España, 1970-1990*, Fuhem, Madril, Icaria, Bartzelona, 1991, 371-398.

diskriminazio forma berriak⁷¹⁶. Hurrengo urteetan langile klaseak gizarte-eraldaketarako klase sozial nagusiari utzi zion; hainbeste batzuetan langile klaseak existitzeari utzi ziola ere esaten dela⁷¹⁷.

Horren guztiaren ondorioz, gizarte bereizketa handitu, ezberdintasunak igo eta gizartearen jarrera indibidualistak indartu ziren. Gizarteak elkartasun kontzientzia galdu zuen eta langile klasearen zatiketa zein sindikatuen ahultzea gertatu ziren. Horrek enpresarien presio ahalmena handitu zuen eta langileen egoera okertu. Gainera, industria birmoldaketaren eta deslokalizazioaren ondorioz, Mendebaldeko herrialdeetako ekonomia tertziarizatu zen, hau da industriak pisua galdu zuen⁷¹⁸. Langile mugimendu tradizionalaren eszenatoki nagusia bera ere, sektore tradizionalako industriako lantegi handia, desagertu zen⁷¹⁹. Halaber, pentsamendu korrante neokontserbadoreen eta neoliberalen zabalkuntzarekin batera bizitza kalitatea norberaren eginahalei zegokiolako ideia barneratu zuen gizarteak, eta porrot ekonomiko-pertsonala sistemak sortzen zituen ezberdintasunei zegozkiola ahaztu zen. Azken finean, sistema kapitalistak legitimitatea irabazi zuen. Zenbait kasutan, gainera, sindikatu nagusiek eta ezkerreko alderdi tradizionalak (batez ere sozialdemokraziak) beren babes eman zioten neurri horien guztien aplikazioari. Izan ere, Hitzarmen Sozialaren bidez, burgesiak parte hartze politiko handiagoa eta ekarpen ekonomikoak eskaini zizkien neurri neoliberalen ezarpenaren aurkako oposizioa biguntzearen truke.

Testuinguru orokor hartan **1968ko Maiatzaren ondorioz piztu zen sugar iraultzailea pixkanaka itzaltzen joan zen**. Jende askok Pariseko istiluak epe laburrean gertatuko zen iraultzaren «entsegu orokor» modura hartu zituen eta hurrengo bospasei urteetan bazirudien iraultza gertatzen ahalko zela⁷²⁰. Epe labur baina bizi batez eraldaketa sozial sakonak posible zirela zirudenez, espektatiba iraultzaileak mantendu ziren. Baina burgesiak hartutako neurriek langile mugimenduaren ahalmena kaltetu ahala, espektatiba horiek desagertu ziren; sistema kapitalista krisian bazegoen ere, burgesiak bere egoera berrindartu zuelako.

Langile mugimenduaren eta langile klasearen identitatearen gainbeherarekin batera, ezker iraultzailearen borroka politikorako antzeztoki nagusia izana zena atzeraldian sartu zen. Mugimendu sozialetan *obrerismoaren* zentraltasunak garrantzia galdu zuen eta langile mugimenduak mugimendu sozial bakar eta nagusi izateari utzi zion. Aldi berean, protesta sektorial

716 Juan Andrade Blanco, *El PCE y...* 224-225.

717 Geoff Eley, *Un mundo...* 393-400. Eric Hobsbawm, *Historia del...* 304-312.

718 *Ibid.* 381-384 eta 390-393.

719 David Beorlegui Zarranz, «La fábrica como espacio de lucha y de memoria, el caso de Bilbao y la Margen Izquierda (1975-1995)», *Historia Contemporánea*, 58 zbk. (2018), 815-847.

720 Jaime Pastor, «Mayo 68, ...», 37. Josep Fontana Lazaro, *El siglo de...* 453-456 eta 482-485. Eric Hobsbawm, *Historia del ...* 403-417.

berrien formek (feminismoa, ekologismoa, askatasun sexuala, bakezaletasuna eta antimilitarismoa, ...) gizarte mugimenduetan langile mugimenduak zeukan nagusitasuna ordezkatu zuten, bestelako hizkuntza, helburu eta ereduekin. Ezker iraultzaile marxistak iraultza *langile klaseak gidatutako altxamendu proletario total* bat izanen zela aurreikusi zuten, baina huraxe gertatzeko esperantzak aldendu zirenean, *obrerismoari* eta ikuspegi teleologikoegiari lotuegi zegoenez krisi larria jasan zuten.

Ezker iraultzailearen krisia eta hura eragin zuten faktoreak Chris Harmanek (Europako ikuspegi transnazionalarekin) eta Joel Sansek (espainiar kasuan zentratuago) aztertu dituzte⁷²¹. Consuelo Laizek dioenaren aurka, Harmanek eta Sansek ez dute ezker iraultzailearen krisia frankismoaren bukaerarekin lotzen, Europa osoko mugimendu iraultzaileen gainbehera orokorrarekin baizik. Hala Harmanek nola Sansek krisia antzeko faktoreen ondorio izan zela uste dute.

Lehenik eta behin, 1970eko hamarkadaren erdialdean burgesiaren erakundeak eta bere aginte sistema egonkortu eta berrindartu zirela diote. 68 Luzearen mobilizazio goraldian zehar zenbait arrakala erakutsi bazituzten ere, laster berregitea eta berrosatzea lortu zuten, eta orduan, eraldaketa sozial iraultzaileei bidea itxi zitzairen. Bigarrenik, bai Harmanek eta baita Sansek ere langileen jarrera aldaketa gertatu zela azpimarratu dute. Krisi egoeraren aurrean langile mugimendua atzeraldian sartu zen eta jarrera defentsiboa hartu behar izan zuten. Egoera berrian, langileen begietara, sindikatu eta alderdi erreformistek eskainitako *pragmatismoak* itxura egingarriagoa eman zuten. Ezker iraultzailearen anbizio handiagoko aldarrikapen handizaleak, aldiz, konfliktibitatea gorakorra izan zen bitartean erakargarria suertatu zitezkeen, baina krisi eta gainbehera egoeran sinesgarritasuna galdu zuten. Bestalde, «militantzia krisia» deitu izan dena gertatu zen⁷²². Etorkizun hurbilean iraultza lortzeko zailtasunen aurrean, militanteen borrokarako grinak eta motibazioak behera egin zuten. Orduetik, helburu politikoak lortzea zailagoa izanen zela iruditu zitzairen eta horrek —desengainuaren, eszeptizismoaren eta desilusioaren ondorioz— alderdia eta politika aktiboa uztera bultzatu zituen asko. Espainian, gainera, ezker iraultzaileko militante askok hamarkada luze bat zeramaten frankismoaren aurka borrokan, eta klandestinitateak eskatzen zuten borroka molde gogorraren ondorioz, neke ugari zuten pilatua. Halaber, ezker iraultzaileko militanteak bere erreferente politikoekiko konfiantza galtzen hasi ziren, desorientazio egoera berrindartu zuena. Garai hartan bertan hasi ziren ailegatzen Txinan gertatzen ari ziren

721 Chris Harman, «Crisis of the European Revolutionary Left», *International Socialism*, 2: 4 (1979/udaberria), <https://www.marxists.org/archive/harman/1979/xx/eurevleft.html> (2020an kontsultatua). Joel Sans Molas, «Entre las instituciones y la movilización: la crisis de la izquierda radical durante la transición», Rafael Quirosa-Cheyrouze, Luís Carlos Navarro Perez, Mónica Fernández Amador, (Koord.): *V Congreso internacional. Historia de la Transición en España. Las organizaciones políticas*, Universidad de Almería, Almería, 2011, 649-665.

722 Chris Harman, «Crisis of the ...». Joel Sans Molas, «Entre las instituciones...» 662.

gehiegikerien berriak, eta bestalde, Hirugarren Munduko herrialdeen borrokaren garapenak ere ez zuen esperotako bidea hartu. Urte gutxiren buruan, gainera, Sobietar Batasuna desagertu zenean, erreferente iraultzaileen galera areagotu zen. Bukatzeko, ezker iraultzailearen tradizio politikoaren akats eta oztopoek ere modu negatiboan eragin zutela diote Sansek eta Harmanek. Ezker iraultzailea korronte politiko oso gaztea zen eta alderdi gehienek oso ibilbide motza izan zuten, eta horregatik, krisiak kudeatzeko esperientzia urria zeukaten. Konfliktibitatearen egoera hazkorra izan zen bitartean ongi eutsi zioten, baina krisian murgildu zirenean alderdietako batzuek ez zuten erantzun egokirik ematen asmatu. Halaber, alderdikeria eta dogmatismoa oso errotuta zegoen beraien kultura militantean; zurruntasun teoriko horrek zailtasunak ekarri zizkien.

Aurrera egiteko esperantzarik gabe **alderdi iraultzaileen militantziak espektatiba krisi nabarmena jasan zuen**. Militantziaren sektore handi bati «atsekabe» eta «desengainu» sentsazio batek gogo hartu zion⁷²³. Bigarren kapituluan aipatu dugun bezala, kasu batzuetan atsekabe hori borroka armaturantz bideratu zen. Borroka armatuaren aldeko iritziak eta saiakerak 68tik bazetozen ere, 70ko hamarkadaren bukaera aldera ideia hori indartu zen. Italian, Euskal Herria, Alemanian edota Irlandan hurrengo urteak indarkeria urte gogorak izan ziren. Beste batzuek, aldiz, arestian aipatutako gizarte mugimendu berriengana jo zuten. Hala ere, militantzia iraultzailearen parte handi batek politika uztea edo alderdi ezkertiar erreformistekin (PSOE, PCE edo EE) bat egitea erabaki zuen.

Esan bezala, espektatiba iraultzaileen galera eta krisi militantea ez ziren ezaugarri eskusiboki espainiar edo euskal herritarra izan, Europa Mendebaldeko alderdi iraultzaile gehienek antzeko krisiak bizi izan baitzituzten. Europa mendebaldean epe hurbilean iraultza bat gertatzeko espektatiba urrundu egin zen eta harekin batera, itxaropen eta baikortasun iraultzaileak apaldu egin ziren. Espainiako alderdi iraultzaile nagusiak (PTE eta ORT) desagertu ziren bezalaxe, beste herrialdeetan ere alderdi eta mugimendu iraultzaileak disolbatu egin ziren. Italiako Lotta Continua, esaterako, eztabaida latz handien artean 1976an disolbatu zen.

Hitzarmen Soziala Espainian

Krisi ekonomikoak eta kapitalismo fordista-keynestarraren eredu aldaketaren beharrak Espainia oso egoera berezian harrapatu zuten: gainbeheran zegoen Erregimen diktatorial batean eta aldaketa ekonomiko sakonak egiteko tresna eraginkorrik gabe. Bigarren kapituluan aipatu dugun bezala, frankismoa *klase* Erregimena zen, eta bere funtzio nagusiak enpresarien mozkina ziurtatzea, ordena soziala mantentzea eta langile mugimenduari eustea ziren. Baina, diktaduraren azken

723 David Beorlegui Zarranz, *Transición y melancolía...*

urteetan, langile mugimenduaren borroka ahalmenaren ondorioz, langileen soldata errealak gora egin zuen eta bizi-baldintzak hobetzeko ahalmena lortu zuten⁷²⁴. Langile klasearen borroka hain zen eraginkorra ezen langileen errenta kapitalaren errentaren gainera hazi baitzen. Halaber, enpresarien klasea diktadoreekin lotuegirik zegoen eta hori beraien irudiarentzako kaltegarri izaten hasi zen⁷²⁵. Krisiarekin egoerak okerrera egin zuen eta Erregimen frankista bere funtzioei huts egiten hasi zen: burgesiarentzako baliagarri izateari utzi zion⁷²⁶.

Krisiaren lehen zantzuak 1974an ailegatu ziren Espainiara, ekonomia mantsotzen hasi zelako eta 1975ean jaso zuen behin betiko kolpea. Urte hartan BPGaren hazkundera gelditu egin zen eta Espainiako ekonomia ez zen batere hazi. Kapitalisten inbertsioa jaitsi eta kanpo defizita izugarri hazi zen, BPGaren %3 baino gehiago. 1975 urtearen bukaerarako 610.000 langabe zegoen (biztanleria aktiboaren %4,5), baina oraindik hurrengo urteetan lortuko ziren tasa altuenetatik oso urrun⁷²⁷.

Laster ekonomiaren egoera larria langileen soldatetan ere nabaritzen hasi zen. Gobernuak gastu publikoaren igoerari aurre egiteko soldaten gaineko zerga-kargak igo zituen eta estanflazioaren ondorioz prezioak igotzen hasi ziren. Horrek langileen erreakzioa handitu zuen eta enpresariei soldaten igoera eskatu zieten. Egoera politiko bereziaren ondorioz, langileen borroka eraginkorra zen, eta soldatak igo ziren, baina enpresariak kostuen igoerak merkatuko prezioan islatzeko ohitura zutenenez inflazioa azkartu zen. Dinamika horren ondorioz soldata eta prezioak zurrumbilo gorakor batean sartu ziren. Enpresarien eta langileen artean lehia soziala piztu zen, krisiaren kostua besteren bizkar eror zedin⁷²⁸. Gainera, azken Frankismoko neurriek egoera atzeratu eta okertu besterik ez zuten egin. Enpresa askok itxi egin behar izan zuten eta enpresariak «inbertsio greba» abiatu zuten. Ondorioz, langabezia asko hazi zen eta desoreka ekonomiko handiak sortu ziren⁷²⁹.

Egoera horretan Gobernuak kinka larrian zegoen, bi arrisku handiren artean. Alde batetik, krisi ekonomikoak egoera larrian uzten zuen herrialdea eta asko luzatuz gero tentsio soziopolitikoak arriskutsuki hazi zitezkeen. Beraz, ekonomiaren egiturazko aldaketak egin behar izan ziren eta horrek frankismoaren oinarri ziren interes sare zaharraren zati baten eraispena esan nahi zuen. Baina, aldi berean, ekonomiaren doikuntzarako neurriak hartzekotan langileen bizkar izanen ziren, besteak

724 Carme Molinero, Pere Ysas, *Productores disciplinados...* 268-269.

725 Carme Molinero, Pere Ysas, *Els industrials catalans durant el franquisme*, Eumo, Vic, 1991, 123-126.

726 Xavier Domenech Sampere, *Cambio político...* 202-203.

727 Ramon Tamames, *La Economía Española 1975-1995*, Ediciones Temas de Hoy, Madril, 1995, 96.

728 Josep Gonzalez Calvet, «Crisis, Transición...», 139-140.

729 *Ibid.* 143-144.

beste inflazioa gelditzeko «soldaten euste neurriak» beharrezkoak zirelako⁷³⁰. Egoera zail horretan (Gobernuaren legitimitate falta eta langileen antolaketa maila aurreratua) oso zaila izan zen horiek langile klasearen erantzun irmorik gabe ezartzea. Erregimenak, gainera, ez zuen langileen aldarrikapenak bideratzeko marko eraginkorrik eta errepresioan oinarritutako irtenbide batek ere ez zukeen arazoa konponduko. Ordurako errepresioa ez zen egoerari eusteko gauza, eraginkortasuna erabat galdurik baitzeukan, kolpe errepresibo bakoitzak aurkako erantzun handiagoa ekar zezakeelako; Erregimena kalearen kontrola galtzen ari zen. Gobernuak egiturazko aldaketa sakon horiek egin nahi baldin bazituen legitimitate iturri berri batean oinarritu beharko zuen, beti ere egoeraren kontrola galdu gabe eta ordena soziala irauli gabe. Errepresioan baino kontsentsuan (onarpenean) oinarritutako legitimitate berri baten beharra zegoen, krisiaren kalteak langileen gain eror zitezten eta hazkunde ekonomiko berriaren oinarriak jar zitezten. Mota honetako neurr horiek sindikatuen onarpenarekin baino ezin ziren ezarri eta oposizioko indar politiko nagusien adostasun ahalik eta handiena behar zen.

Orduan hasi zen forma hartzen **Hitzarmen Sozial berria**. Eraldaketa horiek egin ahal izateko egoerak egonkortasun soziala eskatzen zuen. Hitzarmen Sozialaren bidez, Gobernuak eta enpresariak hazkunde ekonomikoa berriz ere martxan jartzeko beharrezkoa zen kapitalismoarentzako marko berria (hots, langileen kalterako ziren neurrien gainean eraikiko zen marko neoliberal) ezarriko zuten. Baina neurri horiek ezar zitezten PSOEek eta PCEk beren sindikatuen (CCOren eta UGTren) ekintza sindikala kontrola zezaten eta merkatu ekonomiaren markoa onar zezaten beharrezkoa zen. Trukean Gobernuak Estatuaren demokratizazioan sakonduko zuen (muga jakin batzuekin beti ere) eta ordainetan bestelako eskumen batzuk emanen zizkiela onartu zuen. Langileen irabazi ahalmenaren galera demokraziaren truke, hori izan zen Hitzarmen Sozialaren oinarria. Hitzarmen Sozial horren beharrak kontsentsuaren politikari hasiera eman zion.

Espanian Hitzarmen Soziala Erreformaren markoaren eta Konstituzioaren onespenean islatu zen, baita Moncloako Itunean (1977ko urrian) ere. Halaber, Langileen Estatutuaren (1980ko martxoan) onarpenarekin politika ekonomiko neoliberalaren eta lan merkatu berriaren arauak ezarri ziren. Ezkerreko alderdi nagusienek (PCEk, PSOEek eta PSPk) sistema kapitalistaren oinarri neoliberal berriak onartu zituzten, eta trukean sistema demokratikoa ezarri zen eta errekonozimendu legala lortu zuten. PCEk zein PSOEek epe ertainean aldaketa sozial handiak bultzatzeko aukerari atea itxi zioten eta Erregimen parlamentarioari babesa eman zioten. Moncloako Itunari eta Konstituzioari bere adostasuna erakutsiz Erregimen berriaren zutabe bermatzaile bilakatu ziren eta ezker iraultzailea aldaketa sozial sakonen aldarrikapenean bakarrik geratu zen.

730 Jordi Maluquer de Motes, *La economía...* 366-369.

PCEk terrorismoaren eta golpismoaren mehatxuaren aurrean, demokrazia osasuntsu eta sakon bat egoki sustraitzea ezinbestekoa zela iritzi zuen, eta ondorioz, Erregimen berriaren oinarri nagusiei bere babesa eman zien: Moncloako Itunaren eta Konstituzioaren defendatzaile sutsuenetakoa izan zen. Sozialismora hurbiltzeko demokrazia sakontzea ezinbestekoa zela esan zuen PCEk, eta horrela justifikatu zituen hautu taktiko horiek. Halaber, kosta ala kosta Gobernuan parte hartzeko edo erabakigarri izateko eginahalak egin zituen. Jarrera hori beste alderdi eurokomunisten politikekin —Italiako PCIk Democrazia Cristianari eskaini zion *Compromesso Storico*arekin, esaterako— bat zetorren. Taktika politiko horien ondorioz, PCEk bere aldarri eta lelo historikoetako batzuei (Errepublika eta leninismoa) uko egin behar izan zien. Horrek bere identitate bereizgarriaren parte bat gal zedin eragin zuen. Erabaki politiko horien bidez hauteskundeetan igoera izanen zuela uste zuen; baina emaitzak ez ziren esperotakoak izan. Gainera, militantziaren parte batek ez zituen begi onez ikusi aldaketok eta laster gainbehera elektoral eta krisi sakonak bizi izan zituen⁷³¹.

PSOEk, bestalde, borroka antifrankistan presentzia urria izan zuen arren 1977ko hauteskundeetan emaitza onak lortu zituen. Herrialdeko bigarren alderdi bozkatuena izaki bere burua Gobernu alternatiba izateko prestatu zuen. Moncloako Itunarekin PCEk baino jarrera uzkurragoa erakutsi zuen eta Konstituzioaren idazketa prozesuan mozio errepublikano bat aurkeztu zuen, Suarez presidentearen UC Drengandik (Unión de Centro Democrático) irudi autonomoago bat antzetzeko. Baina funtsean, PCEk bezala, sistema politiko-sozial berriaren oinarriak babestu zituen. Laster, Gobernua eskuratzeko prestatu zen, alderdiaren definizio marxista alde batera utziz eta modernizazioaren aldeko diskurtso teknokratikoa bereganatuz. Behin Gobernura 1982an iritsita, PSOEk Moncloako Itunak ireki zuen politika neoliberalaren bide bera jarraitu zuen eta industria birmoldaketa bera PSOEren politiken emaitza izan zen⁷³². Paradoxikoa dirudien arren ezkerak egin behar izan zuen eskuinak egin ahal izan ez zuena. Ekonomia neoliberalaren ezarri zuten politika ekonomikoetako asko PSOEk bultzatuta eta sindikatu nagusien konplizitatearekin egin ziren⁷³³. Izan ere, sindikatu nagusiek ere Hitzarmen Sozialean parte hartu zuten, eta besteak beste, Espainiako patronalaren elkarteekin (CEOE eta CEPYME) eta Gobernuarekin politika ekonomiko berriak ezarriko zituzten akordioak sinatu zituzten: Acuerdo Basico Interconfederal (1979, UGT eta CEOE), Acuerdo Marco Interconfederal (1980, CEOE eta UGT), Acuerdo Nacional de Empleo (1981,

731 Geoff Eley, *Un mundo que...* 404-412. Juan Andrade Blanco, *El PCE y...* 85-101.

732 Juan Andrade Blanco, *El PCE y...* 155-169. Geoff Eley, *Un mundo que...* 418-423. Jordi Maluquer de Motes, *La economía...* 370-372 eta 404.

733 Josep Gonzalez Calvet, «Crisis, transición y estancamiento: La política española, 1973-1982», Miren Etxezarreta Zubizarreta, *La reestructuración del ...* 133-176. Josep Gonzalez Calvet, «Liberalización como...» 41-42.

CEOE, UGT eta CCOO), Acuerdo Interconfederal (1983, CEOE, CEPYME, CCOO eta UGT) eta Acuerdo Economico y Social (1984-85, CEOE, CEPYME eta UGT)⁷³⁴.

Arestian esan bezala, Trantsizio garaiko politika ekonomikoen ondorio zuzenena aldi ekonomiko berri baten irekiera eta enpresarien mozkinaren berreskurapena eta handitzea izan zen. Borroka antifrankistaren protagonista nagusia langile mugimendua izan bazen ere, prozesuaren bukaeran sistema kapitalistak onarpenean oinarritutako legitimazio iturri berriak lortu zituen eta gizarte justuago eta solidarioago bati atea itxi zitzaion. Horregatik, Emannuele Rodriguez Lopezen arabera, Trantsizioan langile klasea «haustura subjektu» izan zen arren ez zen «aldaketaren protagonista» izan⁷³⁵. Halaber, LCk diktaduraren aurkako mugimenduan «zentauro» modura identifikatu zuen, langile mugimenduaren gorputza eta demokrata-burgesaren burua zeukalako⁷³⁶.

Euskal dibergentzia

Espanian sistema liberal parlamentarioak onarpen berria lortzen zuen bitartean, Euskal Herrian egoera egonkortzetik urrun zegoen. Trantsizioaren urte giltzarria 1976a izan zen, orduan hasi ziren Euskal Herriko oposizio antifrankista eta espainiar estatukoa aldentzen eta bien arteko **dibergentzia handia** gertatu zen⁷³⁷. Espainian mailan Erreformatik aldaketa politikoa modu ezegonkor baina arrakastatsuan bideratzea lortu zuen bitartean, Hego Euskal Herriko oposizioaren mobilizazioak ez ziren mantsotu eta Erreforma postfrankistak zailtasun handiak izan zituen bertan ezartzeko. Hego Euskal Herriko oposizio antifrankista espainiar estatukoa baino ezkererago eta muturrerago kokaturik zegoen, eta beraz, **Hego Euskal Herrian Haustura Demokratikoaren aldeko oinarri soziala zabalagoa** zen. Oposizioko indar moderatuetako batzuek 1976an zehar Suarezren Erreformatik markoa onartu zutenean, Hausturaren proiektuari uko egin zioten eta oposizioaren presio ahalmena gutxitu zen. Hego Euskal Herrian, ordea, oposizio moderatuko indarrek edo Erreforma bideratu zezaketen elkarteek (Euskadiko Biltzar Demokratikoak edo erbesteko Eusko Jaurlaritzak) ez zuten errotze handirik, ezta mobilizazio ahalmenik ere (Asamblea de Catalunya edo *Platajuntak* ez bezala)⁷³⁸.

734 Albert Carreras i Odriozola, Xavier Tafunell Sambola, *Historia económica ...* 396. Jordi Maluquer de Motes, *La economía española ...* 366-369. Emilio Majuelo Gil, *LAB sindikatuaren...* 87, 105, 110-111.

735 Emmanuele Rodriguez LOPEZ, *Por que fracasó...* 347-356.

736 KL-LCren Nafarroako Komite Probintzialaren idazkaritza, *Circular sobre la situación política*, 1977/I/29, BAP.

737 Daniel Escribano Riera, Pau Casanellas Peñalver, «Gizarte Mobilizazioak eta frankismoaren hondar krisia. Euskal Herriaren ekarpena», *Uztaro*, 81 zbk. (2012 apirila-ekaina), 17-38.

738 Josu Chueca Intxusta, «La transición política en Euskal Herria (1975-1982)», Joseba Agirreazkuenaga Zigorraga (Koord.), *Historia de Euskal Herria: historia general de los vascos*, Vol. 6, 2004 (Dictadura, democracia y autogobierno: la nueva sociedad vasca, 1937-2004), 87-128.

Bestalde, indarkeria politikoak presentzia handia zuen Euskal Herriko oposizio antifrankistan. ETAren indarkeria Espainiako gainerako lurraldeetan ez zegoen elementu distortsionatzailea izan zen. Bere ekintzek egoera polarizatu eta muturreko egoerak erradikalizatzeko eragina izan zuten. Horregatik, Euskal Herriko oposizioak Erreformarekin bat egiteko zailtasun handiagoak izan zituen.

Azkenik, aurrekoarekin hertsiki loturik, azpimarratu behar da errepresioaren aurkako eta amnistiaren aldeko aldarrikapenek antifrankismoan zuten garrantzia. Borroka antifrankistaren elementu kohesionatzaile eta giltzarri izan ziren eta bere izaera erabat markatu zuten. Hego Euskal Herrian, ETAren borroka armatua zela kausa, errepresioak beste lurralde batzuetan baino gogorrago eragin zuen, eta beraz, gizarteak sentsibilitate antierrepresibo berezia zeukan. Besteak beste, Erregimen frankistak bere historian dekretatu zituen 11 salbuespen egoeretatik guztiak bat izan ezik euskal lurraldeei zegozkion, eta horietatik bostetan euskal lurraldeei «esklusiboki» eragin zien⁷³⁹. Bestalde, 1974 eta 1975 urteen artean frankismoak hil zituen 38 pertsonetatik 24 Euskal Herrian hil zituen⁷⁴⁰. Datuok ikusirik Francis Jauregiberriren arabera, Erregimenaren errepresioak modu «diskriminatorioan» kolpatu zuen Euskal Herria⁷⁴¹. Horren guztiaren ondorioz, Casanellasek eta Escribanok dioten bezala:

Amnistia Franco hil aitzinetik ere oposizioaren errebindikazioen baitan izan arren, Franco gabeko frankismo garaian (1975eko azarotik 1977ko ekainera bitartean) bilakatuko zen mobilizazio soziopolitikoaren ardatz (...) Aitzineko urteetan hasia zen prozesu hori, baina 1976ko lehendabiziko hilabeteetan areagotu egin zen. Orobat, plazaraturiko aldarrikapenek errotik jartzen zuten auzitan statu quo, eta horrek zerikusia zuen Euskal Herrian ezker iraultzaileko erakundeek eragin handia izatearekin.⁷⁴²

Zentzu horretan, Arias Navarroren saiakera erreformistak porrot egin eta gero, Suarezren Gobernu berriaren lehendabiziko neurrietako bat uztailaren 30eko 10/1976 Errege Lege Dekretuak arautzen zuen Amnistia izan zen, baina «pertsonen bizitza edo integritatea arriskuan jarri edo hondatu» zutenei salbuetsi zitzaenez, Euskal Herriko preso politiko askori ez zien eragin⁷⁴³. Ondorioz, preso politiko ugari askatu zituzten arren, euskal herritar askok neurri horiek ez nahikotzat hartu zituzten. Neurri horiek ez zuten balio izan «amnistiaren aldeko mobilizazioak gelditzeko», eta ordutik aurrera, Amnistiaren aldarrikapenari *orokorra* edo *totala* epitetoa gehitu

739 Francis Jaureguiberry, *Question nationale et...* 239.

740 *Ibid.*

741 *Ibid.* 238-244

742 Daniel Escribano Riera, Pau Casanellas Peñalver, «Gizarte Mobilizazioak eta... 26.

743 «Real Decreto-ley 10/1976, de 30 de julio, sobre amnistía», *BOE (Estatuko Aldizkari Ofiziala)*, 186 zbk. (1976/VIII/4), 15097-15098, <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-1976-14963> (2020ko urrian kontsultatua).

zitzaion, ordura arte egindakoa nahikoa ez zela adierazteko⁷⁴⁴. Escribanoren eta Casanellasen arabera, amnistia «Euskal Herriko eskaera bihurtu zen» eta Espainiako gainerako tokietan aldarrikapen hura baztertzeko hasi ziren⁷⁴⁵.

Hauteskundeak

Oposizio antifrankista bere proiektu politikoa aurrera eramateko gauza izan ez bazen ere Erregimen frankistaren eta bere ondorengo Gobernu erreformazaleen iraupena oztopatzea lortu zuen. Arestian esan bezala, Francoren heriotzaz geroztik, monarkiaren lehendabiziko Gobernuak (Arias Navarrok zuzendutakoak) Erregimenaren azaleko erreforma saiakera egin zuen, bere oinarrizko egiturak mantenduz jarraipena suposatuko lukeena, ez baitzegoen aurreikusita Europakoek gisako demokrazia liberalik ezartzerik. Baina gizarte mobilizazioek saiakera erreformista porrotera kondenatu zuten, eta ondorioz Arias Navarro dimisio ematera behartu zuten. Suarezek gidatutako Gobernu berriak neurri liberalizatuak hartzea behartua ikusi zuen bere burua eta demokratizazio prozesu ziurgabea abiatu behar izan zuen, 1977ko ekainaren 15eko hauteskundeetan bukatu zena⁷⁴⁶.

Heldu ziren hauteskunderen aurrean, Nafarroako ezker iraultzaileko alderdiek kontaktuak hasi zituzten, balizko hautagaitza elektoral bateratu bat aurkezteko asmoz. Baina hauteskundeak egiten zirelako ustea bazegoen ere, deialdia ez zen batera ziurra. Izan ere, alderdi guztiek ezin izan zuten aurkeztu. Gobernu oposizioko alderdia nagusia —Carrilloren PCE— legalizatzeko uzkur zegoen, Estatu aparatuen sektore atzerakoienek marra gorri gurutzazintzat zeukatelako. Baina aldi berean, PCERik gabeko hauteskunderik ez lukete behar besteko zilegitasunik izanen. Azkenean, *Larunbat Santu Gorrian* legezatu zuten, Carrillok monarkia eta bandera gorri-horia onartuko zituztela hitz eman ondoren. Baina PCERengatik ezkerreko kokatuta zeuden alderdi ezkerrekoak edo errepublikar guztiek legez kanpo jarraitu zuten, eta ondorioz, trikimailuen bidez aurkeztu behar izan zuten; hautagaitzak, marka zuriak edo koalizioak erabiliz. Halaber, ez zegoen argi hauteskundeetatik aterako ziren Gorteek zer izaera izanen zuten (konstituziogileak izanen ziren edo ez, Gobernuak zenbaterainoko kontrol ahalmena izanen zuen, eta abar) ezta haiengandik zer espero zitekeen ere. Gainera, Gobernuak komunikabideen gaineko kontrol zorrotza zeukan, besteak beste,

744 Daniel Escribano Riera, Pau Casanellas Peñalver, «Gizarte Mobilizazioak eta ...» 29. «Día Nacional por la Amnistía Total», *En Lucha*, 114 zbk, (1976/IX/11), ORT, 5, <https://prensahistorica.mcu.es/es>. «La amnistia concedida no es suficiente, aunque supone una conquista», *En Lucha*, 168 zbk. (20-26 urrian 1977), ORT, 1, <https://prensahistorica.mcu.es/es>. «Gaur sekula baino gogorrago. Amnistia denontzat!», *Zer egin?*, 6 zbk. (1976/VII/15), EMK, 1-2, BAP.

745 Daniel Escribano Riera, Pau Casanellas Peñalver, «Gizarte Mobilizazioak eta ...» 29.

746 Pere Ysas, «Ni modelica, ni...».

telebista kate bakarra zegoleako eta Gobernuaren kontrol zuzeneko zelako. Baina hori guztia gutxi balitz, Gobernuak berari mesede egiten zion hautes-legea onartu zuen. D'Hont Legearen bidez, barnealdeko probintzia txikien ordezkariak gainerrepresentatu zen probintzia industrial populatuenean kaltetan. Horregatik guztiagatik, hauteskunde horiek ez ziren erabateko normaltasun demokratikoko egoeran egin.

Ezker iraultzailea, beraz, balizko hautagaitza unitario bat aurkezteko elkarrizketetan hasi zen. Eztabaidaren gidaritzan EMKk eta Iruñeko Udaleko *zinegotzi sozialen taldeak* eraman zuten. Zinegotzi sozialen taldeak HOAC elkarte kristauan zeukan sorburua eta legaltasun frankistaren zirrikituak baliatuz Iruñeko Udalean eta Sindikatu Bertikalean postuak lortu zituen, langileen eta auzoen aldarrikapenak Erregimenaren erakundeetan bertan oihartzuna izan zezaten⁷⁴⁷. 1975eko Sindikatu Bertikal frankistaren hauteskundearen emaitzen ondorioz, ORT, MCE eta talde kristauaren arteko lankidetzak beharrezkoa bilakatu zen, eta besteak beste, 1976ko Nafarroako Konbenio Orokorren aldeko borrokan aliantza sendoa artikulatzea lortu zuten⁷⁴⁸. Orduetik, EMK eta zinegotzi sozialen arteko harremana estua izan zen⁷⁴⁹.

Alderdien arteko bilera horietatik talde politiko ugari pasa zen: EMK, ORT, PTE, LKI, Eusko Sozialistak (ES), LC, Amnistiaren Aldeko Batzordeak, karlistak, EHAS (Euskal Herriko Alderdi Sozialista), EIA (Euskal Iraultzarako Alderdia) eta hainbat norbanako independente ere (abertzaleak, sindikalistak, zinegotzi sozialak edo hainbat mugimendu sozialetan murgildutako lagunak). Negoziaketan garaia, gainera, oso denbora espazio laburrean gertatu zen, eta aldi berean, kalean etengabeko mobilizazioak gertatzen ari zirenean, ezusteko eta gorabehera frankorekin. Denboraz larri zebiltzan eta erabaki garrantzitsu asko inprobisazioaren bidez hartu ziren.

Parte hartze oso zabala izanagatik ere hautagaitza bateraturik ez zen lortu. Alderdi batzuek, beren errotze soziala oso zabala zela iritzita bakarrik aurkeztea erabaki zuten. Karlistek, esaterako, nafar gizartean ustez zuten nagusigoa hautagaitza kontrolatzeko erabili nahi izan zuten. ORT izan zen oposizio antifrankistaren azken urteetan mugimendu sindikalean errotze ahalmen handiena izan zuen alderdia eta mobilizazio dinamikoenak zuzendu zituen. Oposizio antifrankistaren baitan izandako nagusitasunaren ondorioz, negoziaketetan parte hartu zuen arren, hautagaitza propioa

747 Francisco Javier Caspistegui Gorasurreta, Maria del Mar Larraza Micheltorena, «El ayuntamiento más complicado de las capitales de provincia. Pamplona 1965-1976», Maria del Mar Larraza Micheltorena (zuz.), *De leal ...* 177-223. Aitor Pescador Medrano, *El Ayuntamiento de Pamplona durante la Transición*, Txalaparta, Tafalla, 2011. Zuriñe Sainz Pascual, «El despertar de una conciencia ciudadana a través del urbanismo, el Ayuntamiento de Pamplona, 1966-1976», *Gerónimo de Uztariz*, 23-24 zbk. (2008), 123-174. Zuriñe Sainz Pascual, *Conflicto y poder municipal: Pamplona 1936-1976*, Doktorego Tesia, UPNA-NUP, Iruñea, 2017.

748 Maria Luisa Garde Etayo, «El último consejo de Trabajadores de Navarra y el convenio general (1975-1977)», Maria del Mar Larraza Micheltorena (zuz.), *De leal a disidente: Pamplona 1936-1977*» Ediciones Eunete, Iruñea, 2006, 225-260.

749 E5 elkarrizketa: Jesus Urria Bidaurre. Iruñea, 2018ko urriaren 30a. Solasaldi grabatugabea: Manolo Burguete. Barañain, 2019ko urriaren 7a.

aurkeztea erabaki zuen. Javier de Miguelen arabera bakarrik aurkezteko erabakia alde aurretik harturik zegoen⁷⁵⁰. Azkenean, ORTk Agrupación Electoral de Trabajadores (AET, Langile Hautagaitza Elektoral) zerrenda aurkeztu zuen. Kongresuko zerrendaburua Javier Iturbe Ekai izan zen, eta bertan Amparo Arangoa Leitzako langile sindikalista 1976an torturatua izateagatik ezaguna egin zen emakumea ere ageri zen. Senatuko zerrendan, aldiz, Jesus Mari San Martin Asiain Potasaseko mehatzari kanporatua zegoen.

Lanaren Alderdiak (PTEk) ere hautagaitza bateratuetan parte hartzea baztertu zuen. Ilegaltasuna saihesteko PTEk bi «alderdi pantaila» (Bloque Democrático y Social eta Partido Socialista Independiente) baliatu zituen eta Ezkerren Fronte Demokratikoa-Frente Democrático de Izquierdas (FDI-EFD) hautagaitza sortu zuen⁷⁵¹. Hautagaitza hori ia erabat PTEren kontrolpekoa zen, baina toki batzuetan beste indar batzuekin aliantza egitea lortu zuen, Kanarietan edo Madrilen esaterako; azken horretan Manuel Azañaren biloba batek zerrendan parte hartu baitzuen. Katalunian Esquerra Republicana de Catalunya-rekin (ERC) batera Esquerra de Catalunya-Front Electoral Democràtic (Kataluniako Ezkerra- Fronte Elektoral Demokratikoa, EC-FED) eraiki zuten. Nafarroan ordea, zerrenda PTErena zen erabat eta bere hautagaien artean Jose Maria Compains, Cesar Osanz y Natividad Ezkurra ageri ziren.

Hautagaitzarik bateratu eta osatuena UNAI izan zen, azkenean EMK, Iruñeko Udaleko zinegotzi sozial ezkertiarak eta Eusko Sozialistak talde txikia baino batu ez zituena⁷⁵². Hautagaitza honek itxura unitario eta zabalagoa izan zuen. Zerrendaburu nagusia Javier Erize zen, Iruñeko alkate izandakoa, baina urbanismo gatazka baten ondorioz Gobernadore Zibilak kargutik kendutakoa. Jarraian ORTren jarraitzailea zen Jesus Casajus nekazal munduko borroken lider eta apez agustino ohi murchantearra zetorren. Hirugarrena Manuel Burgete zen, EMKko kidea eta CCOO sindikalista⁷⁵³. Senaturako, aldiz, Fernando Atxa eta Miguel Angel Muez aurkeztu zituen. Patxi Zabaleta abertzalea ere UNAIko zerrendan ageri zen, baina KASeko alderdiek hartutako jarreraren ondorioz erretiratzea erabaki zuen. Hautagaitza honek, bistan denez, itxura irekiagoa zuen alderdi konkretuez gain sektore zabalagoen babesa bildu zuelako. Ekainaren 12ko mitin nagusian, esaterako, Mario Gabiria Erriberako soziologo eta militante ekologistaren babesa jaso zuen UNAIk.

750 Javier de Miguel Saenz, *La Organización Revolucionaria...* 205.

751 Marta Campoy Fernandez, «El PTE en...» 254.

752 ES, USO sindikatuko kideek eratutako alderdi sozialista autogestionario eta abertzalea izan zen. UNAIin parte hartu zuen, eta gero EHASEkin batera HASI sortu zuten. Alberto Perez Calvo, *Los partidos políticos ...* 80. JJuan Carlos Jimenez de Aberasturi Corta, Emilio Lopez Adan, *Organizaciones, sindicatos...*113.

753 «Unión Navarra de Izquierdas», *Diario de Navarra*, 1977/VI/5, 17. *Unión Navarra de Izquierda-Ezkerraren Nafar Batasuna*, CDHC-EI, ORT-66-35. E17 elkarrizketa: Jesús Casajús Martínez. Iruñea, 2019/VIII/26. Solasaldi grabatu gabea: Manuel Burguete. Barañain, 2019/X/7. *Diario de Navarra*, 1977/V/31, 17.

Dudarik gabe, UNAI izan zen hautagaitza bateratu eta zabalaren irudi eraginkorra lortu zuen zerrenda. Baina, ezker iraultzaileko beste alderdi batzuek ere batasuna lortu zuten; UNAIrena baino koalizio murrizagoa izan zen arren, LBF-FUT (Langile Batasunaren alde Frontea-Frente por la Unidad de los Trabajadores) koalizioak maila estatalean LCR, OIC, Acción Comunista (AC) eta POUM biziberritua (Partido Obrero de Unificación Marxista) biltzea lortu zuen. Nafarroan, ordea, ACK eta POUMek presentziarik ez zuten, LKI eta OIC-EKE baino ez zituen elkartu. Zerrendaburua Jose Maria Soltxaga izan zen, LKIko kidea eta Imenasako langilea, eta berarekin batera Isabel Ziriza (LKIkoa) eta OIC-EKEko Peio Lasa egon ziren, besteak beste. LKIak Hauteskunde horietarako zeukan helburua, ordezkaritza lortzea baino, kanpainen zehar klase independentziaren aldeko programa defendatzen zuten alderdi marxista-iraultzaileekin harremana estutzea zen, etorkizun hurbil batean balizko batasun edo fusio baterantz aurrerapausoak egiteko⁷⁵⁴. Baina, bi alderdien arteko harremana ez zen hobetu kanpainen zehar; elkarri hobe ezagutu zioten arren, elkarlana ez zen eraginkorra izan eta bi alderdien arteko «erlazioa okertu» zen⁷⁵⁵.

Komunisten Ligaren zuzendaritzak, bestalde, ekainaren 15eko hauteskunderi boikot egitea erabaki zuen. Baina erabakia ez zen aho batekoa izan. III. Kongresuaz geroztik (1976ko abuztuan) alderdia gainbeheran zegoen, barne zatiketa handirekin. Alderdiaren tendentzia batek (Tendencia Obrera, hain zuzen ere) hauteskundeetan parte hartu behar zela defendatu zuen, alderdiaren zuzendaritzaren iritzia aurka⁷⁵⁶. Komunisten Ligaz gain ezker iraultzaileko beste alderdi batzuek ere (OCE-BR, PCEml, PCEr, edo PORE esaterako) boikotaren aldeko jarrera hartu zuten⁷⁵⁷.

Ezker abertzalean, bestalde, hainbat jarrera kontrajarri zeuden eta erabakia azkenean ez zen aho batekoa izan. Koordinadora Abertzale Sozialistako kide ziren alderdiek haien arteko akordio bat adostu zuten, zeinaren bidez hauteskundeetan parte hartzeari uko egiten baitzioten aurretik amnistia, alderdi guztien legalizazioa eta askatasun demokratikoak onartzen ez baldin baziren⁷⁵⁸.

Maiatzaren 8a eta 16a bitartean, ia kanpainaren bezperan, Amnistiaren Aldeko II. Astea egin zen, amnistiaren eta askatasun demokratikoen aldeko mobilizazio olatu bat izan nahi zuen ekimena. Errepresioak eta segurtasun indarrek eragindako heriotzen ondorioz, ekimen hura greba orokor jendetsu eta gatazkatsu baten bidez luzatu zen⁷⁵⁹. Nafarroako Gobernu Zibilak esandakoaren arabera, Mobilizazio hura «orain arte ezagutu diren «greba orokorrik» gogorren, luzeen eta

754 LKIren Euskadiko Komite Nazionala, *Circular sobre las elecciones del Comité de Euskadi*. (Nº1), 1977/V/3, BAP. LCRren Bulego Politikoa, *Circular*, 2 zbk. (1977/V17), LCR-LKI, BAP

755 LKIren Euskadiko Komite Nazionala, *Balance de la elecciones en Euskadi*, 1977, BAP.

756 W., *Circular*, LC-KL, 1977/V/24, Minutas y Ciculares LC Karpeta, BAP. Ramon Contreras, «La Liga...», 87-89.

757 Jose Manuel Roca, «Batallas y derrotas de la izquierda radical en la Transición», *Las otras protagonistas de la Transición...* 758. Siglak: OCE-BR (Organización Comunista de España-Bandera Roja), PCEr (Partido Comunista de España reconstituido), PORE (Partido Obrero Revolucionario de España)

758 Francisco Letamendia Belzunce *Ortzi*, Historia del... II. Bol., 18-21.

bortitzenetarikoa» izan zen⁷⁶⁰. Indar politiko gehienak Espainian hauteskunde giro lasaia egon zedila saiatzzen ziren bitartean, Hego Euskal Herriko lau probintzietan kale istilu larriak gertatzen ari ziren eta Espainiako giro politikoaren eta Euskal Herrikoaren arteko zanga handitu zen. CCOOren koordinadora estatalak Euskal Herriarekiko elkartasun mobilizazioak egin ez zitezen eskatu zuen, eta hori Euskal Herrian ulergaitza suertatu zen⁷⁶¹.

Mobilizazio horrek KASeko kide abstentzionisten iritzia berrindartu zuen, boikot elektoral baten bidez Gobernuari gain hartzea posible zela ondorioztatu baitzuten. Hori guztia gutxi balitz, Gobernuak ETako azken presoak (tartean Burgosko Prozesukoak) amnistiaren bidez kaleratu beharrean, «estrainamenduaren» bidez erbesteratu zituen, hau da, espetxetik askatu arren herrialdetik kanpora bidali zituen. Presoak askatzeko metodo horrek ez zituen Langile Abertzaleen Alderdi Iraultzailea (LAIA), EHAS eta ETAm asetu, eta ondorioz, beren kideak sortzen ari ziren hautagaitza zerrendetatik erretiratu zituzten. Euskal Iraultzarako Alderdiak (EIA), ordea, Beasainen maiatzaren 29an egindako ezohiko biltzar gatazkatsu batean EMKrekin batera Euskadiko Ezkerra (EE) koalizioan parte hartzeari eustea erabaki zuen. Ordutik aurrera, KASeko batasuna zalantzan geratu zen. Nafarroan ordea, EIA azken unera arte zalantzan egon zen, EMKrekin batera UNAI n parte hartu edo ez erabakitzeko, baina azkenean ez zion babesik eman⁷⁶².

Alderdi gehienek hauteskundeetan espektatiba handiak jarri zituzten eta militanteek hauteskundeak «ilusio handiz» bizi zituzten, traba eta oztopo legalak izan arren⁷⁶³. Jendaurrean bere proposamenak modu libre eta irekian azaltzeak, hilabete gutxi batzuk lehenago bizitako klandestinitatearen zailtasunen aldean, erraztasun handiak ematen zizkien. Aldi berean, mitinetara bertaratutako ikusle kopurua handia izan zen. Nafar gizartea entzuteko gogotik zegoen eta alderdien ekarpenak libreki eztabaidatzeko gogoia zegoen. Arrakasta handienak ORTk lortu zituen, kanpaina kartsua burutu baitzuen. Lehendabizi, Anaitasuna kirol pabiloia bete zuen 8.000 ikusleko mitin

759 Daniel Escribano Riera, «Amnistiaren aldeko astearen oroimena», *Euskal Memoriako blogak*, 2017ko abuztuaren 31a, http://www.euskalmemoria.eus/euskalmemoriakoblogak/eu/bloga/20170831/Amnistiaren_aldeko_astearen_oroimena (2020ko ekainean ikusia). Mikel Bueno Urritzelki, «La lucha proamnistía en las provincias vasco-navarras en la transición española», *Gerónimo de Uztariz*, 30-31 zbk. (2014-2015), 83-100.

760 Daniel Escribano Riera, Pau Casanellas Peñalver, «Gizarte Mobilizazioak eta...» 33.

761 «Coordinadora General de CCOO. ¿En donde quedan los intereses de los trabajadores?», *Zer Egin?*, Ale berezia, (1977/V/17), EMK, 8-7, BAP.

762 Giovanni Giaccopuzzi, *ETA pm. El otro camino*, Txalaparta, Tafalla, 1997, 93-94. Jose Antonio Egidio Siguenza, *Viaje a la nada. Principio y fin de Euskadiko Ezkerra*, Txalaparta, Tafalla, 1993, 34-35. Jesús Ceberio, «EIA (Partido para la Revolución Vasca) irá a las elecciones», *El País*, 1977/V/31. *Sobre Alianzas*, Anexo 5, 1978/IV, EIA, EIA7 karpeta, 27, LBF. «Nafarroa Beasainen», *Boletín*, 3 zbk., (1977/VIII), EIA, 10-15, LBF.

763 E8 elkarrizketa: Patxi Urrutia Jauregi. Iruñea, 2018/XII/20. E11 elkarrizketa: Pablo Ibañez eta Isabel Noguera. Iruñea, 2019/III/11. E19 elkarrizketa: Ana Arillo eta Feli Otegi. Iruñea, 2019/XI/25.

batean, eta hainbat egun beranduago Iruñeko Zezen Plaza berriz ere bete zuen (15.000 eta 20.000 ikusle bitartean),. Hura kanpaina osoko ekitaldi politikorik jendetsuena izan zen⁷⁶⁴.

Hauteskundearen egunean, parte hartzea oso altua izan zen, %82,24koa hain zuzen ere. Emaitzek izaera estataleko bi alderdiren garaipena suposatu zuten: UCD zentrista alderdi bozkatuena izan zen (%29,03, hiru diputatu eta hiru senatari), eta PSOE bigarren izan zen (%21,17 eta bi diputaturekin). Fronte Autonomikoak (PSOE eta EAJren arteko aliantzak) azken senataria eskuratu zuen, Manuel Irujo, Gerra Zibilaren garaiko ministro izandako jeltxokari⁷⁶⁵.

UNAIk 24.489 boz (%9,47) eskuratu zituen. Hirugarren indar politiko modura kokatu zen eta eserlekua lortzeko 500 boto eskasera geratu zen. Senatuko hautagaitzan, UNAIko Fernando Atxak eta Miguel Angel Muezek 45.596 eta 38.484 boto lortu zituzten. Patxi Zabaletak, aldiz, KASen deialdiari jarraiki bere hautagaitza erretiratu zuenez, 17.040 boto baino ez zituen eskuratu. UNAIk (eta gainontzeko hautagaitza ezkeriarrek) bozen gehiengoa hirigune industrial eta urbanoetan lortu zituzten. UNAI hirugarren indarra izan zen Iruñean (10.512 boto eta %12,29) eta baita Tuteran ere (%10,96).

AETk, (ORTk aurkezteko erabili zuen markak) 13.195 boto baino ez zituen lortu (%5,11), ezker erradikaleko bigarren indar eta osotasuneko seigarrena izan zen. Paradoxikoki, hauteskundeetan lortu zuen boto kopurua mitinetara bertaratu zen ikusleena baino txikiagoa izan zen. Emaitza hori, apala izanagatik ere ORTren maximo estatala izan zen (orotara 77.575 boto, %0,42).

FDIk, 6.631 boto (%2,57) eskuratu zituen Nafarroan. Bereziki azpimarragarria izan zen Tuteran lortu zuen emaitza; Alianza Foral Navarra-ren (AFN) aurretik laugarren indarra izatea lortu zuen eta bere Nafarroako batz bestekoa hirukoiztu zuen (%6,61), Tuteran zeukan errotzearen seinale. Halaber, PTEk babestutako hautagaitza bat Katalunian diputatu bat eskuratzeko gauza izan zen (143.954 boto, %4,72) baina eserlekua Henribert Barrera ERCko nazionalistaren esku geratu zen.

Azkenik, ezker erradikaleko hautagaitzen artean FUT-LBFk oso emaitza apala erdietsi zuen, 1.361 boto (%0,53) baino ez, eta azken tokian geratu zen. Azpimarragarria da baita ere, PCEn

764 Josu Chueca Intxusta, «Asalto o salto a las urnas. Estrategias de la izquierda radical ante las elecciones, el caso vasco», *Las otras protagonistas...* 869-874. «Actos políticos del último fin de semana de la campaña electoral», *La Gaceta del Norte*, (1977/VI/14) 8. «Carrera de obstáculos para la campaña de las Agrupaciones Electorales de Trabajadores», *En Lucha*, 155 zbk (19/VI/1977), ORT, 8, <https://archivodelatransicion.es/> . E2 elkarriketa: Javier Iturbe Ekai. Iruñea, 2018/VII/25.

765 Emaitza guztiak <http://www.infoelectoral.mir.es/infoelectoral/min/> webgunean lor litezke. Datuen inguruko analisiak: Aritz Azpilicueta Vergara, «La Transición en Navarra desde un punto de vista electoral (1976-1979)», Emilio Majuelok zuzendutako MBLa, 2019ko iraila, <https://academica-e.unavarra.es/handle/2454/35544>, (2020ko abuztuan kontsultatua). Andres Valentin Gonzalez, «Materiales para un mapa electoral de Navarra», *REIS: Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, 51 zbk. (1990), 121-172. Halaber, eranskinetako 9.2 ataleko 1. taulan ikusgai dago emaitza.

emaitza eskasa, %2,44 baino ez⁷⁶⁶. Espainiako barruti guztietan lortu zuen ehunekorik txikiena Nafarroan lortu izana ez zen kasualitatea, ezker erradikalaren indar handiagoaren erakusle bailizateke.

Azpirarratzekoa da, bestalde, KASen gehiengoak, LCk eta PCEml-k abstentziorako egindako deiak %17,76 baino eskuratu ez izana, batez besteko estatalaren azpitik (%21,17). Abstentziorako deia Gipuzkoan edo Bizkaian nabarmenagoa izan zen, baina Nafarroan ezker abertzaleak diktaduraren azken urteetan ez zuen paper azpirarragarririk izan, masa mobilizazioetan esparru estataleko ezker iraultzaileak izan baitzuen nagusigoa, eta ondorioz, bere eragina apala izan zen. Gainera, ezker abertzaleak oraindik kohesio falta handia zeukan, sektore politiko horren adar zibila eratze prozesuan baitzegoen. Halaber, hauteskunderen aurrean izanen zuten jarrera azken momentura arte erabaki ez izanak emaitza elektoral urri bat eman zion. Baina laster egoerari buelta emanen zion Askatasunaren Aldeko Ibilaldiaren bidez.

3. Koadroa: 1977ko hauteskunde orokorrak Nafarroan				
Hautagaitza	Argipena	Botoak	%	Diputatuak
UCD		75.036	29,03	3
PSOE		54.720	21,17	2
UNAI	EMK+ES+Zinegotzi sozialak	24.489	9,47	
AFN		21.900	8,47	
UAN	EAJ+ESB+ESEI	18.079	6,99	
AET	ORT	13.195	5,11	
FNI		10.606	4,1	
FDC-EDC		10.450	4,04	
MFA	EKA	8.451	3,27	
FDI-EFD	PTE	6.631	2,57	
PSP-US		6.629	2,56	
PCE		6.319	2,44	
LBF-FUT	OIC-EKE+LKI	1.361	0,53	
Ezker iraultzaileak guztira		45.676	17,68	
Iturria: http://www.infoelectoral.mir.es/infoelectoral/min/home.html				

766 Carme Molinero, Pere Ysas, *De la hegemonía...* 217-218.

Emaitzak ikusita, hainbat ondorio adierazgarri atera litezke. Lehenik eta behin, hautesleek moderazioaren alde eta aldaketa politiko kontrolatuaren alde egin zutela. Gizartearen gehiengoak aldaketa demokratikoaren alde eta diktaduraren amaieraren alde zegoen, baina abentura iraultzaile handirik gabeko prozesua nahiago zuen. Diktaduraren azken urteetan eta Monarkiaren Gobernuaren hasieran egoera oso ezegonkorra izan zen eta puntualki Gobernuak egoeraren kontrola gal zezakeela zirudien. Baina aurreikuspen baikorrenak kontuan hartuta ere, egoera **ez zen sekula aurreiraultzailea izatera iritsi**: ez zen botere bikoitzik edo aginte hutsunerik izan (68an Frantzian edo Portugalen 1974-76an bezala) eta indar armatuak edo segurtasun indarrak ez ziren zatitu. Soilik oso momentu puntual zehatzetan (Gasteizko martxoaren 3an edo Amnisiaren Aldeko Astean, agian) galdu zuen Gobernuak egoeraren kontrola. Hala ere, arriskua horren handia ez izanagatik ere, burgesiaren boterea mehatxupean egon zen eta hegemonia soziala lortzeko lehia bizia izan zen. Erronka horren aurrean burgesiak ezin zuen arriskatu (Portugaleko ereduarekin eskarmentua hartu baitzuen) eta kalte larriagoak gertatu baino lehen Erreforma politikoari ekin zion, eta hala, egoera Gobernuaren kontrolpean geratu zen uneoro.

Nafarroa Garaian ezkerreko alderdi iraultzaileak izan ziren borroka antifrankistaren, langile mugimenduaren eta gizarte mugimendu nagusien dinamikizazioa eta abangoardia aktiboena. Mobilizazio horiei esker erregimena higitzea lortu zuten eta aldaketa politikoa behartu zuten. Baina mobilizazioak beren leloen eta kontsignen alde ateratzen zirelako sentazioa izan zezaketen arren, gizartearen gehiengoak ez zuen ideia horiekin bat egiten. Hausturaren Demokratikoaren edo diktaduraren eraispen iraultzailearen aldeko indarrek oso emaitza apalak lortu zituzten hauteskundeetan.

Hala ere, zenbait elementuk aukera moderatuen pisua desitxuratu egin zuten. Hasteko, emaitza ez zen proportzionala izan. Nafarroa bezalako barruti txiki batean bederatzi eserleku baino ez ziren aukeratu behar (bost diputatu eta lau senatari). Bada UCDe botoen %30 baino gutxiagorekin lor zitezkeen ordezkarien bi heren (hau da, bederatzitik sei) eskuratu zituen. Horrek zentristak oso egoera pribilegiatuan kokatu zituen, hurrengo hilabeteetan Nafarroako etorkizuna erabakiko zen eta. Ezker iraultzailea, aldiz, zatitua aurkeztu zenez ez zen ordezkari lortzeko gauza izan. Gainera, hautesle izateko langa 21 urtetan zegoen eta horrek indar aurrerakoiei kalte egin zien, ezker iraultzailearen hautesle potentziala nagusiki gaztea baitzen eta 18 eta 21 urte arteko jarraitzaile edo bozkaitzaile ugari egon zitezkeen. Bestalde, Gerra Zibilaren mamuaren beldurrak, legez kanpoko izateak eta beren sigla propioekin ezin aurkezteak ezker iraultzaileari emaitza hobeak eskuratzea oztopatu zion.

Estatu mailan aukera erradikalek emaitza apala lortu zuten. Gipuzkoan EEk diputatu eta senatari bana lortu zituen eta Katalunian hainbat alderdi ezkertiarrek babestutako Lluís Maria

Xirinacs independenteak senatari postua lortu zuen. Espainia mailan, orotara ezker erradikalaren hautagaitzek 535.247 boto lortu zituzten (%2,93) eta aukera komunisten (PCE eta ezker iraultzailearen hautagaitzen baturaren) %15 izan ziren⁷⁶⁷. Aukera hausturazale eta iraultzaileak gutxiengoan zeuden eta soilik Hego Euskal Herrian lortu zuten azpimarratzeko moduko pisua hauteskundeetan. Nafarroan Garaian ezker iraultzaileak guztira 45.676 boto erdietsi zituen (%17,68): **ezker iraultzaileak Europa Mendebaldean inoiz lortu duen emaitzarik hoberena**⁷⁶⁸. Nafarroan gaindi, soilik Portugal hegoaldeko eta Italia iparraldeko barrutietan lortu ditu ezker iraultzaileak neurri horretako emaitzak. Portugalen UDP (União Democrática Popular, Batasun Demokratiko Popularra) albaniazaleak hainbat aldiz (1975, 1976, 1979 eta 1980) diputatu bat eskuratu zuen Lisboako barrutian, eta hegoaldeko barrutiren batean ezker iraultzailearen osotasunak noizbait %6-7 inguru lortu bide zuen⁷⁶⁹. Italia iparraldean, aldiz, Democrazia Proletaria (DP, Demokrazia Proletarioa) koalizioak hainbat aldiz diputatuak eskuratu zituen (6 diputatu 1976an, 7 1983an eta 8 1987an), baina barruti arrakastatsuenetan %2-3 ingurua ibili zen beti ere⁷⁷⁰. Edonola ere, ez bata ezta besteak ere ez zuten sekula Nafarroa Garaiko datu altua gainditu, Erresuma Zaharrean ezker erradikalak zuen sustraitzen sakon eta zabala frogatuko lukeena. Baina aparteko emaitza lortu izanagatik ere, ezker iraultzaileak garesti ordaindu zuen bere zatiketa. UNAI diputatu akta zakuratu hurren egon zen, baina ezkerreko indarren batasun faltak ez zuen posible egin.

6.2. Gizarte mugimenduen mutazioa eta lekuko aldaketa

Ekainaren 15eko hauteskunde orokorrak mugarri historikoa izan ziren. Hauteskundeak erabateko normaltasunean egin ez baziren ere (besteak beste, alderdi politiko guztiak ez zirelako legalak), Francoren diktadurari bukaera eman zioten eta Espainian garai berri bat ireki zen. UCDek alde handiz irabaztea lortu zuen arren, oposizioak (batik bat PSOEek) emaitza onak lortu zituen, eta ondorioz, Gobernuak hurrengo urratsetan oposizioaren onarpena kontuan hartu beharko zuen.

767 Albert Planas I Serra, «La izquierda marxista radical en la Transición: Catalunya, 1968-1980», Rafael Quirosa-Cheyrouze, Luis Carlos Navarro Perez, Monica Fernández Amador (koord.): *V Congreso internacional. Historia de la Transición en España. Las organizaciones políticas* Universidad de Almería, Almería, 2011, 609-620. Joel Sans Molas, «Entre las ...» 652-653.

768 Javier Tusell, *La Transición española a la democracia*, Historia 16, Madril, 1997, 80. 8.500 bat boto gehiago (ia 55 000ra iritsi arte eta boto guztien %20 bat inguru) Alderdi Karlistak *Montejurra*, *Federalismo*, *Autogestión* izenpean lortu zituenak kontuan hartzen baldin baditugu. Kasu hau ezohikoa da, baina garai hartan oso jarrera ezkertiarak defendatzen zituen.

769 Jose Pacheco Pereira, «El Partido Comunista Portugués y la Izquierda Revolucionaria», *Revista de Estudios Políticos (nueva época)*, 60-61 zbk. (1988), 69-100. Informazio gehiago: Comissao Nacional de Eleições <http://eleicoes.cne.pt/> (2020ko abuztuaren kontsultatua)

770 Informazio gehiago: Archivo storico delle elezioni, Dipartimento per gli affari interni e territoriali <https://elezionistorico.interno.gov.it/index.php>

Beraz, hauteskundeak deitzerakoan Gorteen izanen zuten izaera argi ez zegoen arren, Suarezek izaera konstituziogilea eman zien emaitzak ezagutu bezain pronto.

Egoerak, hala ere, ezegonkorra izaten jarraitzen zuen, besteak beste ekonomiaren egoera larria zelako eta indarkeria politikoa gizartean artean oso presente zegoelako. Hurrengo urteetan indarkeria politikoen gorakada azkarra gertatuko zen, batez ere ETaren eskutik, eta 1978 eta 1980 artean jatorri ezberdineko indarkeriaren ondorioz 435 heriotza gertatuko zen Espainiako estatuan⁷⁷¹.

Orduetik aurrea, gatazka sozialen ereduak aldatzen hasi zen eta gizarte mugimenduetan ere aldaketa garrantzitsuak gertatu ziren, Nafarroan ere eragina izan zutenak. Frankismoaren azken hamarkadan zehar oposizioaren bihotza langile mugimenduan egon zen eta bere elementu aktiboak esparru estataleko ezker iraultzailea osatzen zuten alderdiak izan ziren. Baina, **Trantsizioaz geroztik, gizarte mugimenduen lidergoan aldaketa bat izan zen, ezker abertzaleak lekuko hartu baitzuen.** Frankismoaren azken urteetan eratu zen **Hausturaren aldeko oinarri soziala** (ez osorik, baina hein handi batean) **ezker estatalistaren jarraitzailea izatetik ezker abertzalearen jarraitzaile izatera pasa zen.**

Talka sozial berriak

1977ko hauteskundeetan alderdi moderatuek aise irabazi arren, Erreformatik zailtasun handiak izan zituen Nafarroan modu eraginkorrean ezartzeko; izan ere, Monarkia parlamentarioko erregimen berriak ez zituen zituen behar besteko babes sozialak eskuratu. Egoera, gainera, ez zen baretu. Aitzitik Hego Euskal Herrian giroa asko gaiztotu zen, ETaren atentatuek gora egin zuten 1978 eta 1980 artean eta Estatu-errepresioak jarraitu zuen. Baina, konfrontazio soziala etengabe handitzen eta areagotzen ari bazen ere, garai berri batean murgiltzen hasiak zirela argi zegoen, **gatazka sozial nagusien konfrontazio ereduak eta gizarte mugimenduen formen mutazioak eta itxuraldaketa** gertatzen ari baitzen.

Gizartean gertatzen diren gatazka sozial gehienetan bi klase edo talde sozial elkarren aurka lehiatzen egoten dira. Alde batetik, agintean dagoen talde soziala edo *Elitea*; nolabait esateko, agintean dagoen botere politikoa eta soziala, eta oro har, indarrean dagoen ordena soziala mantentzeko interesa duena. Klase agintariaren edo *Elitearen* aurka aritzen diren protesta mugimenduak eta talde sozial menperatuak, aldiz, hari kontrajarririk daude. Indarrean dagoen ordena soziala eraldatzeko antolatzen eta mobilizatzen diren heinean, gainera, Elitearen aurkako gizarte mugimendu (edo mugimendu sozial) modura eratzten dira.

771 Sophie Baby, *El mito de...*284-306.

Euskal Herrian frankismoaren hondar urteetan Elitearen edo klase sozial agintariaren aurka aritzen zen protesta mugimendu zabal eta heterogeneoa eratu zen. Sortu zen mugimendu antielitista hark izen ezberdin ugari jaso izan ditu, hala nola: «euskal masa mugimendu erradikala», «komunitate abertzale antierpresiboa» (Letamendiak eta Jauregiberriren hitzetan), «Herria», «disidenteen komunitatea» («*pueblo*», «*el pueblo vasco*», «*comunidad de los disidentes*» Pedro Ibarra Guellen arabera) eta «Euskal Iraultza» (Emmanulle Rodriguez Lopezen arabera)⁷⁷². Mugimen heterogeneo hori askotarikoa zen eta protesta mugimendu errebeldeen sorta zabala osatu zuen. Izan ere, alderdi ezkertiarrez eta langile mugimenduaz gain protesta mugimendu hori bestelako aldarrikapen espezializatuen elkarreek ere osatzen zuten. Ekologismoaren alorrean, esaterako, Lemoizko eta Tuterako zentral nuklearren aurkako borroka, Irunberriko urtegiaren aurkako eta «Uraren Autonomiaren aldeko» kanpaina edo ski pista suntsitzaileen aurkako «Belagua salba dezagun» plataforma nabarmendu ziren. Halaber, bestelako hainbat borroka gogoangarri izan ziren: Euskal Unibertsitate Barrutiaren alde, Udal Ikastolaren alde, dibortzioaren eskubidearen alde, eraso sexisten aurka, auzo-mugimendua, eta abar luze bat. Trantsizio garaian protesta mugimenduen leherka gertatu zen.

Esan bezala, horiek guztiek protesta mugimendu heterogeneoa osatzen zuten. Sarritan mugimendu horren izena aurkakotasun terminoetan planteatu izan den arren (*antifrankismoa* edo «euskal komunitate antierpresiboa», esaterako), mugimendu propositiboa zen; hau da, beste gizarte eredu baten alde borrokatzen zen mugimendua izan zen. Izan ere, bere borroka ez zen diktaduraren *aurkako* borroka hutsa, askatasunaren eta berdintasunaren *aldeko* borroka ere bazelako. Mugimendu hark ez zuen soilik diktaduraren amaiera eskatzen, berdintasuna ere bere proiektuan baitzegoen eta berdintasunaren aldeko iritzi horrek modu inplizituan sozialismoaren aldeko borroka ere bazela esan nahi zuen. Kapitalismoaren aurkako kritika egun baino orokortuago zegoen eta gizarte berdinzaleagoa lortzeko proposamenari *sozialismo* esaten zitzaion (sozialismoaren hitza bera lausoa izan arren eta haren inguruko ikuskera ezberdin ugari zegoen arren). Halaber, aipatutakoez gain, askotariko aldarrikapen eta helburuak zituen protesta mugimendu horrek: euskal hizkuntza eta kulturaren ingurukoak, langile mugimenduaren ingurukoak, feministak, ekologistak, autonomia eta subiranotasunaren ingurukoak eta abar luze bat. Trantsizioan protesta mugimendu horrek Eliteari (klase agintariari) hegemonia lehiatzeko ahalmena izan zuen, baina ez zuen egoerari buelta ematea lortu.

Orokorrean, *Elitearen* eta gizarte mugimenduen arteko talka sozialak konplexuak izaten dira, ez baitute forma bakar eta simple bat hartzen; hau da, talka-ardatz ezberdinak edukitzen ahal

772 Francisco Letamendia Belzunce *Ortzi, Historia del nacionalismo...* 331-340. Pedro Ibarra Güell, *Memoria del antifranquismo...* 113 eta 124-130. Emmanuel Rodriguez Lopez, *Por qué fracasó...* 310-326.

dituzte eta anizkoitz edo multipleak izaten ohi dira. Gainera, momentu historikoaren arabera forma ezberdinak hartzen ahal dituzte. Gure uste apalean, 1970eko hamarkadaren bukaeran Espainian eta Hego Euskal Herrian gertatzen ziren gatazka sozialen ereduak mutazio prozesu bat jasan zuen. Ondorioz, gatazka ereduaren aldaketaren ondorioz, talka sozialek forma berriak hartu zituzten eta egoerara moldatzeko Elite berriak eta protesta mugimendu forma berriak eratu ziren.

Francoren diktaduraren garaian, talde sozial agintaria (hots, Elitea) Erregimen frankistarekin identifikatu ziren. Izan ere, arestian esan bezala, Erregimen frankistak klase izaera zeukan, (hau da, bere helburua klase burges agintariari mesede egitea zen), eta gerra arteko erregimen kontrairaultzaile gehienak bezala, ordena soziala ziurtatzeko, langile mugimenduaren mehatxu iraultzailea geldiarazteko eta kapitalisten mozkina ziurtatzeko jaio zen. Hori zela eta, beste sektore sozial batzuk bere baitan integratzen saiatu zen arren, burgesia eta Estatu frankistaren arteko identifikazioa gertatzea ohikoa izan zen.

Oposizio antifrankista, aldiz, orokorrean klase zapalduekin eta langileekin identifikatu zen, eta Elitearen aurka aritzen zen *Herri* modura eratu zen. Oposizioko parte ziren gizarte mugimendu dinamikoenek klase izaera zuten baita ere, diktaduraren aurka modu aktiboenean aritu zirenak langile klasea, langile mugimendua eta langile alderdi ezkertiarak izan baitziren. Orokorrean, Erregimenaren erakundeetan parte hartze politikorako biderik edo mekanismorik ez zegoenez (edo zeuden apurrak erregimena indartzeko balio zutelako edo bere aldekoek eksklusiboki kontrolatuta zeudelako), oposizioak politikan parte hartzeko eskura zuen mekanismo bakarra mugimendu sozialetan zegoen (hiritarra, feminista, nazional-kulturalak, antierpresiboak, askatasunen aldekoak, ...), baina bereziki langile mugimenduan. Aitzitik, kasu horretan langile mugimendua zentzu zabalean ulertu behar dugu, mugimendu sindikala ez beste gizarte mugimendu batzuek ere klase izaera baitzuten. Auzo mugimenduak, esaterako, auzo langileen aldarrikapenak biltzen zituen eta hiriaren kudeaketa frankista eta burgesaren aurka borrokatzen zuen, eta beraz, klase izaera eta ezaugarri antisistemikoak ere bazituela esan daiteke⁷⁷³. Gainera, edozein gatazka txikik (lantegi barneko auzi ekonomiko hutsa bazen ere) langileak Erregimenarekin talka egitera eramaten zituen ia ezinbestean, Sindikatu Bertikalaren kontrol zorrotzaren eta segurtasun indarren errepresioaren ondorioz. Horrela, langile klasearen mobilizazioek izaera politikoa hartzen zuten berehala, klase elkartasunaren eta aldarrikapen antierpresiboen bidez. Langile klasea subjektu historiko gisa eratu zen, hau da, aldaketa politiko eta sozialerako aktore kontziente bilakatu zen. Horregatik, oposizio antifrankistaren indar dinamikoenek (edo bere abangoardia aktiboenek, behintzat) diktaduraren eraispena kapitalismoaren aurkako borrokaren baitako parte modura ulertzen zuten. Nafarroa

773 Ricard Martínez I Muntada, «Movimiento vecinal, antifranquismo y anticapitalismo», *Historia, trabajo y sociedad*, 2 zbk. (2011), 63-90.

Garaia kasuan, talka sozial horietan protesta mugimenduen indar politiko antolatu nagusia esparru estataleko ezker iraultzailearen inguruan antolatu zen eta gizarte mugimenduak horien bidez dinamizatu ziren, antolakuntza eredu hori garaipenak lortzeko eraginkorra suertatu zelako.

Beraz, diktaduraren azken hamarraldian Elite eta *Herriaren* arteko kontraesan nagusia klasista izan zen eta burgesia eta proletariotzaren arteko talka zeukan ezaugarri nagusi modura. Baina, talka sozial horiek ez ziren erabat puruak eta kontraesan nagusi bat egon zitekeen arren, hainbat ardatzek aldi berean gurutzatzen zituzten, hala nola: erregimena/oposizioa, eskuina/ezkerra, diktadura/demokrazia, burgesia/proletariotza edota zentralismo/periferia bezalako ardatzak. Gainera, hainbat salbuespen bazeudela aitortu beharra dago, oposizio guztia ez baitzen erabat proletarioa; hainbat sektore burges demokratiko ere oposizioaren parte izan ziren, sektore urriak, txikiak eta zalantzatiak zirela uste zen arren.

1976-1979 epealdian ordea egoera aldatu zen. Elitearen eta bere antitesiaren arteko talka mantendu egin zen, baina talka horien forma erabat itxuraldatu zen, hau da, beste forma bat hartu zuen. Eliteak bere agintearen legitimazio iturri berriak eskuratu zituen, ordura arte oposiziokoak izandako hainbat indar politikok (PSOEak eta PCEak bereziki) Erregimen berriaren alde egin zuen, eta halaber, Nafarroaren kasuan, Eliteak bere pribilegio egoera mantentzeko nabarrismo espainolista eta eskuindarraren bandera altxatu zuen, gizartearen sektore baten sentimendu identitarioekin bat egitea lortu zuena.

Hauteskundeez geroztik, Gorte, diputatu eta senatarien bidez parte hartze politikorako bideak ireki ziren, eta laster, bide horiek parlamentu autonomiko eta udaletxe demokratikoen bidez handitu egin ziren, eta horrek guztiak, politikaren «birtualizazioa» erraztu zuen⁷⁷⁴. Gorte Berrien eginkizunaren ondorioz gizarte mugimenduek eta kaleko mobilizazioek joko-zelai politiko nagusia izateari utzi zioten. Hauteskundeak egin ziren momentutik maiuskulaz idazten den politika hori parlamentua eta alderdien bulegoetan egiten hasi zen; hau da, goitik egindako eztabaida, negoziazio eta politikoen bidez egiten hasi zen. Ondorioz, maila politiko orokorrean eragiteko ahalmena jende arrunt eta xehearengandik urrundu zen.

Gainera, langile mugimendua neutralizatzeko operazioa burutu zen. Arestian ikusi dugun bezala, langile mugimendua eta langile klasea eraldaketa sozialerako subjektu aktibo eta kontzientea ziren, baina hauteskundeetatik aurrera ezkerreko langile alderdi nagusienak politika instituzionalean txertatu ziren. Bestalde, lan harremanen esparrua erabat aldatu zen Moncloako Itunaren (1977ko urrian) eta Langileen Estatutuaren (1980ko martxoan) bidez. Itun eta lege horien bidez ekonomia kapitalistaren garai neoliberalaren hasierako mugarrria ezarri zen eta Hitzarmen Sozialaren bidez langile mugimenduaren parte bat eta sindikatu nagusiak sisteman txertatu ziren.

774 Juan Andrade Blanco, *El PCE y...* 327-328.

Ordutik aurrera langile mugimenduaren indar korrelazioa ahuldu eginen zen eta bere potentzialitate eraldatzailea erauzi zitzaion; mobilizazioak esparru laboral-sindikala hutsera mugatuko ziren, eta oso gutxitan gaindituko zuten marko hura aldarrikapen politikoak bere gain hartzeko. Ondorioz, langile mugimendua, borroka politikoaren antzeztoki nagusi izana zena, atzeraldian sartu zen. Halaber, gizarte mugimendu berrien sorrerak are gehiago lausotu zuten *obrerismoaren* zentraltasuna.

Elitearen legitimitate iturri berrien, langile mugimenduaren gainbeheraren eta gizarte mugimendu berrien sorreraren ondorioz gatazka sozialek forma berriak hartu zituzten. Gatazka sozialen berrien konfrontazioak anizkoitz izaten jarraitu zuen, baina Elitea monarkia parlamentarioan hauteskunderen bidez legitimaturik zegoenez, fase berrian diktadura/demokrazia talka-ardatza ia erabat desagertu zen. Aldi berean, langile mugimenduari bere potentzialitate eraldatzailea kendu zitzaionez eta sindikalismora mugatu zenez burgesia/proletariotza ardatzak garrantzia galdu zuen, eta gainera, ezkerren parte batek monarkia konstituzionala onartu zuenez ezker/eskuin ardatzak ere garrantzia galdu zuen.

1970eko hamarkadaren bukaeratik aurrera, Nafarroan Elitea eta *Herria* aurrez aurre jarriko zituen talka-ardatz nagusia nazio auziaren inguruko gatazka interidentitarioa izanen zen: nabarrismoa espainiazalea eta euskaltzaletasun hausturazalea aurrez aurre jarri ziren. Hala ere, talka-ardatz hura ez zen talka identitario hutsa izan, ezkerren eta euskaltzaletasunaren arteko identifikazioaren eta eskuinaren eta nabarrismoaren arteko identifikazioaren ondorioz, eta Juan Cruz Allik berak (Nafarroako presidente ohia, UPN eta CDN alderdietako kidea) bere azken liburuetako batean esan duenez, eztabaida identitarioak «beste eztabaida sakonagoa ezkututzen zuen [:] kontrol sozial, politiko, ekonomiko eta politikoaren inguruko»⁷⁷⁵. Horregatik klaseen arteko gatazkak oso presente egoten jarraitu zuen. Eliteak burgesiarekin eta klase sozial agintariarekin identifikatzen jarraitu zuen eta protesta mugimenduek klase zapaldu eta langileekin. Halaber, Eliteak nabarrismo eskuindarra tresna ideologiko modura erabili zuen status quoa, ordena sozial kapitalista eta merkatu ekonomia mantentzen jarraitzeko. Baina orokorrean, klase gatazka nazio auziaren aldean bigarren maila batean geratu zen.

Gatazka sozialen mutazioak, konfliktibitate ereduaren aldaketak eta nazio auziaren protagonismo berriak Trantsizioan zehar ezker iraultzailearen eta ezker abertzalearen arteko lekuko aldaketa eragin zuen. Diktadurak iraun zuen bitartean ezker iraultzaile *sukurtsalista* langile mugimenduarentzako tresna politiko egokia izan zen. Baina, 1980ko hamarkadaren mugan sektore politiko hura krisian murgildu zen eta egoera berriaren aurrean, borroka antielitistarako tresna berriak, konfrontazio eredu berrirako egokiagoak, behar izan ziren. Ondorioz, ezker iraultzaileak

775 Juan Cruz Alli Aranguren, *La autonomía de ...* 970-971.

gizarte mugimenduen erreferente izateari utzi zion HB koalizioaren inguruan antolatu zen ezker abertzalearen mesedetan.

Diktadura garaiko gatazka sozialekin alderatuta, fase berrian Elitea berrindartuta atera zen: hori izan baitzen Erreformaren operazioaren helburua, Erregimen eta menpekotasun forma berriak sortzea, ordena soziala eta merkatu ekonomia bere horretan mantentzeko. Gainera, hauteskondeek eta onarpen demokratikoak legitimazio oinarri berriak eman zizkieten, eta horrela babes sozial zabalagoa lortu zuen.

Egoera berriaren ondorioz, Nafarroan hiru bloke politiko eratu ziren: 1) *eskuindar* edo *atzerakoia*, 2) *erreformista* edo *moderatu* eta azkenik 3) *hausturazale* edo *erradikala*. Lehendabizikoa alderdi eskuindar gehienek eratu zuten, eskuin muturretik zentro-eskuin moderatura kokatzen zirenak. Besteak beste, UPNk, UCDe edo AFNk bezalako alderdiek osatzen zuten, eta oro har, frankismotik zetozen *Elite zaharren* berregokitzetik eratu ziren. Sektore horrek, orokorrean, monarkia parlamentario eta konstituzionalaren marko berriari babesa eman zion. Halaber, arestian ikusi dugun bezala, eskuinaren zenbait sektore iraganean frakismoarekin identifikatuegi zegoenez, deslegitimatuta geratu zen eta bere burua birlegitimatuzeko nabarrismo eskuindar eta espainolista baliatu zuen bloke horrek.

Antifrankismotik zetorren oinarri soziala, bestalde, bitan zatitu zen: batek bloke moderatu edo erreformista osatu zuen, eta besteak hausturazale edo erradikala. *Moderatu* edo *erreformistatzat* izendatu dugun hori, nagusiki antifrankismoko oinarri sozialetatik zetorren eta aurrerakoia zen, baina aldi berean Trantsizioan zehar gertatzen ari ziren eraldaketekin aserik sentitzen zen. Beraz, kontsentsu nagusiei babesa eman zien eta monarkia konstituzionalaren erregimenari babesa eman zion. Bloke honen ordezkari nagusiak PSOE, PCE eta EAJ lirateke. Hurrengo hamarkadatan, bloke moderatuko alderdiek Monarkia konstituzionalaren aldeko Elite berrien papera hartuko zuten, batik bat, PSOE 1982an Gobernura ailegatu zenean eta EAJk Eusko Jaurlaritzara ailegatzea lortu zuenean. PSOEk eta PCEk bere burua Nafarroaren autonomiarekin identifikatu zuten, beti ere marko estatal espainiarretik atera gabe, eta abentura autodeterminista eta independentistetaik urruti. Hasiera batean euskaltzaletasun autonomista moderatu defendatzen zuten, baina ezaugarri hori denboraren poderioz arindu edo desagertu zen.

Antifrankismotik zetorren beste blokeak, aldiz, aurreko biekiko aurkakotasuna erakutsi zuen. Bloke *hausturazalea* edo *erradikala* sortzen ari zen erregimen berriarekin ez zen ase, aldaketa sakonagoak aldarrikatzen zituelako, eta ondorioz, Trantsizio garaiko Erreformaren proiektuaren aurka eta ordezkari parlamentarioa zuten alderdien aurka lerratu zen. Letamendiaren arabera, korronte horrek bere jatorria «euskal komunitate antierpresiboan» izan zuen, Trantsizioaren

aldaketen sakontasun faltagatik asegabe eta frustraturik sentitzen hasi zena⁷⁷⁶. Bloke horrek alderdi politiko parlamentarioek huts egin eta traizionatu zituztela uste zuen, Monarkia parlamentarioa eta marko autonomikoa onartu zuten heinean, diktaduraren ondoren espero ziren aldaketa sozialei oztopoak eta mugak jartzen ari zitzaizkiolakoan. Horregatik, hausturazaleek hala politika parlamentarioa eta instituzionala nola autonomismoa errefusatu zituzten. Bloke hori euskaltzaletasun hausturazalearekin identifikatu zen eta erreferente nagusitzat HB izan zuen. HBk Eliteen aurka aritzen zen protesta mugimenduaren lidergoa eskuratu zuen eta Nafarroako aukera erradikal gehienen erakarpen poloa bilakatu zen. Hainbat sektore hausturazalek (EMKk, LKIk, mugimendu sozial berriek, sindikalismo erradikalaren parte batek, ...) erakarpen polo horren inguruan orbitatzen jarraitu bazuten ere, testuinguru berrian bloke hausturazaleak aurreko fasean baino osaera murriztagoa izan zuen, bloke moderatuak sistemari emandako babesaren ondorioz isolaturik geratu baitzen.

Lekuko aldaketa

Ikusi berri dugun bezala, Trantsizioaren oinarri sozial hausturazalearen *trasbase* bat gertatu zen ezker abertzaletik ezker iraultzailera. Baina nola gertatu zen protesta mugimenduen lidergoaren lekuko aldaketa? Diktaduraren azken hamarkadan zehar, ezker abertzaleko erakunde nagusia talde militarra izana zen, oinarri antifrankistaren baitan nolabaiteko ospe edo prestigiorik izan zezakeen arren, berez errotuta ez zegoena (Nafarroan behintzat) eta ez zeukan ez ahalmenik eta ez egiturarik masa mobilizazioak bultzatu edota zuzentzeko. Borroka fronte ezberdinen sorreraren bidez mota horretako garapena izaten saiatu zen arren, adar militarrek beti gehiegizko pisua izan zuen eta horren gaineko errepresioak garapen egonkor jarraitu baten posibilitatea mozten zuen. Denbora tarte horretan, antifrankismoaren eta langile mugimenduaren lidergoa esparru estataleko ezker erradikalaren gain erori zen. Hamarkadaren azken herenean hori aldatu egin zen.

Esan bezala, hauteskundearen ondoren Erreformarekin eta kontsentsuaren politikarekin ados ez zegoen gizarte sektore mardul bat eratu zen, iragan frankistarekiko Haustura sakonagoaren aldeko bloke modura eratu zena. Kontuan hartu behar da, krisi ekonomikoaren ondorioz eta Moncloako Itunen ondorioz, langileen egoera materiala okertu egin zela. Halaber, Euskal Herriko antifrankismoaren hainbat aldarrikapen bete gabe geratuko zirela zirudien: Nafarroak euskal autonomiatik bereizirik geratuko zen, Konstituzio berriak muga ugari izanen zituen, eta amnistia partzialek ez zituzten eskaerak ase. Gainera, euskal gizartearen parte baten begietara diktadura garaiko errepresioak berdin jarraitzen zuen, diktaduraren zenbait praktika errepresibok indarrean

776 Francisco Letamendia Belzunce *Ortzi, Historia del ...* 44-47.

jarraitzen baitzuen: atxiloketak, torturak, manifestazioen aurkako indarkeria, eskuin muturreko *inkontrolatuak* eta abar. Zentzu horretan, Eusko Jaurlaritzak orain dela gutxi torturari buruz enkargatu eta kaleratu duen txostenean, Trantsizioan zehar tortura ohiko praktika izan zela frogatuta geratu da⁷⁷⁷. Halaber, Iruñean 1978ko Sanferminetan gertatutako istiluek eta German Rodriguez LKiko militantearen heriotzak hiri osoari egindako polizia-eraso bat bezala bizi izan ziren eta zirrara handia eragin zuten.

Ekainaren 15eko hauteskundeen ondoren hainbat preso politikok espetxeetan jarraitzen zuten eta amnistiaren aldeko mobilizazioek puri-purian jarraitu zuten. Kaletik egindako presoaren ondorioz, 1977ko udazkenean Amnistia Legea (Amnistiarako urriaren 15eko 46/1977 Legea) onartu zen⁷⁷⁸. Lege haren bidez, preso politiko gehienak kalera atera ziren eta azken euskal preso politikoa Francisco Aldanondo, 1977ko abenduaren 9an kaleratu zuten. Baina Amnistia hori aldarrikatu zenerako berandu zen, aldarrikapen horren inguruan alderdi erreformisten aurkako mugimendu masibo bat eratu baitzen⁷⁷⁹. Baina ez hori bakarrik, lege hura batzuek ez zuten nahikotzat hartu, besteak beste, PCEr-GRAPO, PCE internazionalista, MPAIAC eta COPELeko presoek espetxeetan jarraitzen zutelako, eta gainera, abenduaren 18tik aurrera berriz ere euskal militanteak kartzelaratzen hasi zirelako. Orduetik aurrera, errepresioa selektiboagoa izanen zen, eta batik bat erakunde armatuetako kideengan zentratuko zen gehienetan, baina egoera horrek amnistia orokorraren aldeko mobilizazioak mantentzen ahalbidetu zuten.

Hausturaren aldeko korrante erradikal berri hori, esan bezala, hasiera batean ez zegoen ezker abertzalearekin erabat identifikatuta; antolatzea kostatu baitzitzaien. Modu ezkutuan garatu zen eta sarri ezaugarri espontaneoak izan zituen. Berriemaile batzuen arabera, bloke horren eraketa eta bultzada 1976 inguruan nabaritzen hasi zen, orduetik abertzaletasunaren eta euskaltzaletasunaren gorakada nabaritu baitzen⁷⁸⁰. Baina 1977ko maiatzeko Amnistiaren Aldeko II. Astean oraindik mobilizazioen protagonismoa esparru estataleko ezker iraultzaileak mantendu zuten.

⁷⁷⁷Francisco Etxeberria, Carlos Martin Beristain, Laura Pego (zuz.), *Proyecto de investigación de la tortura y malos tratos en el País Vasco entre 1960-2014*, Kriminologiaren Euskal Insitutua-Eusko Jaurlaritzak, 2017. Txostenaren arabera, tortura kasu gehien izan ziren epealdiak 1975-1976 eta 1979-1984 izan ziren. Hala ere, kontuan hartu behar da Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hiritarrei dagokien ikerketa dela, eta ez dituela kontuan hartzen Nafarroa Garaiko hiritarrak.

⁷⁷⁸«Ley 46/1977, de 15 de octubre, de Amnistía», *BOE (Estatuko Aldizkari Ofiziala)*, 248 zbk., (1977/X/17), <https://www.boe.es/eli/es/l/1977/10/15/46/con>. Lege hura bere momentuan positibotzat hartu zen, baina orduan zekarren neurrietako batzuei ez zitzaien erreparatu. Oposizioari ez ezik diktaduran zehar ardurak izan zituztenei ere amnistia aplikatu zitzairen, eta ondorioz, diktadurako erantzule eta arduradunak ezinen ziren etorkizunean epaitu. Roldan Jimeno Aranguren, *Amnistías, perdones y justicia transicional. El pacto de silencio español*, Pamiela, Arre, 2018.

⁷⁷⁹Antonio Rivera Blanco, «La transición ...».

⁷⁸⁰E1 elkarrizketa: Felix Rey Bakaikoa. Iruñea, 2018/VI/25.

1977ko udan, ordea, Askatasunaren Aldeko Ibilaldia antolatu zen eta orduan hasi zen ezker abertzalea sektore hausturazaleen erreferente bilakatzen. Martxa hark lau zutabe ezberdinetan banatuta Euskal Herriko lurralde guztiak oinez zeharkatu zituen hainbat astez. Ibilaldi haren prestaketan ezker abertzalea eta esparru estataleko ezker iraultzailea elkarrekin aritu ziren eta helburu nagusia Amnistia eta Autonomia Estatutua aldarrikatzea izan zen. Alabaina, lelo unitarioak adostuta bazeuden arren, martxak aurrera egin ahala independentziaren eta ETAren aldeko leloak nagusitu ziren. Halaber, egun horietan bertan Suarezek Frantziari Miguel Angel Apalategi *Apalaren* estradizioa eskatu zion, eta horren ondorioz, ETAko kide horren aldeko leloak ere gogor entzun ziren ibilaldian. Zenbait momentutan, bestalde, «espainolista sukurtsalisten» eta «abertzaleen» arteko talkak eta liskarrak gertatu ziren⁷⁸¹. Ibilaldia Iruñean bukatzekoa zen, lau zutabeek bat egiterakoan. Baina antolatzaileek ez zuten bukaera ekitaldia Iruñean egiteko baimenik lortu eta Arazuriko zelaietara joan behar izan zuten. Azken ekitaldia oso jendetsua izan zen, iturrien arabera 250.000 eta 100.000 manifestari artean elkartu baitzen⁷⁸². Ekitaldi hartan, hitzartzeen gehiengoa ezker abertzaleko kideek monopolizatu zituzten eta esparru estataleko ezker iraultzailea kexu agertu zen⁷⁸³. Ekaineko hauteskundeetan ezker abertzaleak abstentzioaren alde egindako deiak porrot egin bazuen ere, martxan zehar eta ekitaldi jendetsu horren bidez berreskuratzea eta aurrera egitea lortu zuen, oinarri sozial zabala erakartzen hasia baitzen. Hainbat autorek Askatasunaren Aldeko Ibilaldia Trantsizio garaiko mobilizazio giltzarritzat identifikatu dute, esparru estataleko ezker iraultzailearen eta ezker abertzalearen arteko lekuko aldaketa gertatu zeneko momentua izanagatik zein, Monarkia parlamentarioaren aurkako mobilizazioak hasi ziren momentua izateagatik⁷⁸⁴.

Aste gutxi batzuk beranduago, urte bereko irailean, Donostian autonomiaren eta amnistiaren aldeko manifestazio bat izan zen eta bertan berriz ere istiluak errepikatu ziren. Manifestazioa bitan zatitu zen eta bi sektoreen arteko talkak izan ziren, elkarri fisikoki erasotzeraino⁷⁸⁵. Gorka Etxebarriaren arabera, 1977ko udako mobilizazioetan «finkatze bidean ari zen sistema parlamentarioaren eta indar extraparlamentarioen arteko lehia bat» eratu zen eta korronte

781 ORTren Nafarroako Komite Probintziala, «Fin de la Marcha de la Libertad, Grandioso éxito. Declaración pública del CPN de la ORT», (1977/VIII/29), ORT6.15 CDHC-EI, Inigo Perez Otxoak utzia. Comité de apoyo de la Ribera de la Marcha de la Libertad, *La Marcha de la Libertad en la Ribera*, Tuter, (1977/VIII/13), ORT-6.12, CDHC-EI.

782 Mikel Bueno Urritzelki, «La lucha proamnistía...» 94-96.

783 «Balantze Modura. Askatasunaren ibilaldia», *Zer Egin?*, 18 zbk, (1977/IX), EMK, 5, BAP. «Euskadi exigió a gritos. Libertad, Amnistía, Estatuto de Autonomía», *En Lucha*, 162 zbk. (1977/IX/8-15), EMK, 19, <https://archivodelatransicion.es/>. E1 elkarrizketa: Felix Rey Bakaikoa. Iruñea, 2018/VI/25.E3 elkarrizketa: Javier Iturbe Ekai. Iruñea 2018/VIII/9.

784 David Beorlegui Zarranz, *Transición y ...* 99-104. Josu Chueca Intxusta, «La Transición...» 101.

785 «Enfrentando a un sector del pueblo contra otro se favorecen los planes de la reacción. Nota de prensa del CN de Euskadi de la ORT sobre los sucesos de San Sebastián», *En Lucha*, 163 zbk., (1977/IX/16-22), ORT, 2, <https://archivodelatransicion.es/>. «De la manifestación del día 7 en Donostia. Españolistak kanpora», *Zer Egin?*, 19 zbk. (1977/X/1), EMK, 3, BAP.

extraparlamentario horiek «diskurtso unitario, populista eta antielitista» zeukaten, ezkerreko alderdi erreformistekiko desadostasuna erakusteko baliatu zutena⁷⁸⁶.

Orduko alderdi iraultzaileek gertatzen ari zena nabaritu zuten, eta ORTren Euskadiko Komite Nazionalaren bilera batean honela deskribatu zuten egoera: mugimenduan «zatiketa handi bat» eratzen ari zen, «ETA herria zurekin eta *Independentzia* oihukatzen dutenen eta *Amnistia, askatasuna eta Autonomia Estatutua* oihukatzen dutenen artean»⁷⁸⁷. LKIk, bestalde, hauteskunde ondoko hilabeteetan masa mobilizazioek EAJri eta PSOeri gain hartu zietela eta nazionalismo iraultzaileak koiuntura berrian paper azpimarragarria izanen zuela nabarmendu zuen. Korrante erradikal berrian gazteek zuten presentzia handiari ere erreparatu zion LKIk. Halaber, alderdi troskistak irailean Donostian izan ziren liskarrak kritikatu zituen eta nazionalismo iraultzaileari «sektarismoa eta protagonismo nahia» leporatu zizkion⁷⁸⁸.

Lurrazpiko korrante erradikal hori, hala ere, pixkanaka egituratzen eta artikulatzen joan zen, bloke homogeen eta definituago bat eratu arte. Itxura batean, ekainaren 15eko hauteskunde historikoen ondoren, UNAI koalizioa Nafarroako ezkerreko indarren erreferentzia izan zen, bere emaitza onak zirela eta alderdien arteko batasunerako esparru egokia izan zitekeela zirudielako. Hainbat hilabetez, 1977tik 1978ra arte, hala izanen zela zirudien. Laster ezkerreko alderdien arteko elkarlana eta negoziazioak hasi ziren, UNAI koalizioko parte hartzaileak handitzeko eta zabaltzeko, eta 1978ko hasieran ORT eta OIC-EKE alderdiak koalizioan sartu ziren. Baina, ezkerreko taldeen arteko alderdikeriak proiektu hura eten zuen: ORTk gainerako alderdien baimenik gabe bere izenean erregistratu zuen UNAIren marka eta koaliziokideen arteko liskarrek aliantza porrotera bidali zuten⁷⁸⁹. UNAIk erreferente izateari utzi zion eta laster ezker abertzaleak aurrea hartzea lortuko zuen.

Ezker abertzalean ere Monarkia parlamentarioaren marko berrira egokitzeko aldaketak gertatzen hasi ziren. Alde batetik, ETApn-ri lotutako EIA alderdiak —1978an Konstituzioa baztertu zuen arren— Erregimen berriaren marko legala onartu zuen Autonomia Estatutuari bere babesa emanaz. Jarrera hori askok erreformistatzat hartu zuten eta pixkanaka ezker abertzaletik aldendu zen. Halaber, EIAk EMK alderdia EE koaliziotik kanporatu zuen eta sigla hori beretzat gorde

786 Gorka Etxebarria Dueñas, «Mantener la hipótesis revolucionaria. ETA (M) y el otoño de los setenta en Euskadi (1977-1978)», *Las otras protagonistas ...* 877-890.

787 Balance de nueve meses, comisión elegida por el Comité Nacional de Euskadi, 21 de marzo de 1978. Carpeta ORT-10-11, FPI.

788 LKIkren Komite Nazionalaren idazkaritza, *Presentación*, Euskadiko Zuzendaritza Nazionalaren adierazpena, 1977/X/7, LKI, BAP.

789 Imanol Satrustegi Andres, Iñigo Perez Ochoa, «UNAI: auge y fracaso de la izquierda revolucionaria en Navarra», *Principe de Viana*, 2020, (prentsan).

zuen⁷⁹⁰. Bestetik, ezker abertzaleetik zetozen gainerako sektoreek Herri Batasuna koalizioa eratu zuten. HBk, ETA militarrekiko identifikazioa baliatuz eta Erreformaren aurkako jarrera gogorrena zuelakoan, sortzen ari zen korrante erradikal eta populista hura erakartzea lortu zuen. Politika instituzionalaren aurka kokatu zenez, Erregimen berriaren aurkako «gaitzespen fronte» bat eratu zuen⁷⁹¹. Bestalde, gainerako alderdi abertzaleek (EAJk eta EEK) Gernikako Estatutuari babesa eman ziotenez Nafarroa euskal lurraldeetatik bereiztea onartu zuten, eta HB Nafarroaren euskalduntasunaren sektore koherenteenaren modura agertu zen. Halaber, hasierako urteetan HBk irudi malgua, irekia eta asanblearioa mantendu zuen, alderdi leninisten itxura dogmatiko, zurrun eta itxiaren aldean⁷⁹². Izan ere, esparru estataleko alderdiak oso irudi txarra ematen ari ziren UNAIrena bezalako liskar alderdikoen ondorioz. Trantsizioan zehar Erregimen berriari erabateko aurkakotasuna erakusteak (Konstituzioa, Gernikako Estatutua, Foru Hobekuntza, ...) HBri Erreformaren aurka modu koherenteenean eta gogorrean aurre egiten zion korrontearen itxura eman zion⁷⁹³.

Konfrontazio soziala etengabe handitzen eta areagotzen ari bazen ere, esparru estataleko alderdi ezkertiarrek krisi sakon batean murgildu ziren. Krisi sakon hark, arestian azpimarratu dugun bezala, 68 Luzearen ziklo iraultzailearen bukaerarekin eta gizarte mugimenduen konfrontazio ereduaren aldaketarekin harreman zuzena izan zuen. Frankismoaren azken urteetan diktaduraren eraipen iraultzaile bat —edo behintzat Haustura bidezko bukaera bat— posible zitekeela zirudien arren, Erregimen berriaren ezarpen arrakastatsua (hein handi batean hala izan baitzen, zailtasun batzuk izan zituen arren), ezker erradikalaren proiektua kinka larria gera zedin eragin zuen. Orditik aurrera ezker iraultzailearen oinarri sozialak espektatiba eta militantzia krisi sakona bizi izan zuen, zenbaitetan *desengainua* izenez ezagutu dena.

Militantzia krisiak ere Nafarroako alderdi iraultzaileetan nabaritzen hasi zen. LKIk, esaterako, diktadura garaiko militantzia eredutik egoera berrirako borroka eredura pasatzeko zailtasunak izan zituen⁷⁹⁴. Alderdi troskistako zuzendaritzak militantziaren «erlaxatze orokortua», «abandonuen handitzea» eta «hazkunde erritmoaren bat-bateko gelditzea» gertatzen ari zela salatu zuen barne txostenetan⁷⁹⁵. Nafarroako LKIren komiteak egoera «izugarri larri»-tzat hartu zuen. Militante kopuruaren jaitsiera nabarmenarekin batera, kideetako eta zeluletako askok zereginak

790 Jose Antonio Egido Siguenza, *Viaje a la...* Gaizka Fernandez Soldevilla, *Héroes, heterodoxos y traidores (1974-1994)*, Tecnos, Madril, 2013.

791 Gregorio Morán, *Los españoles que dejaron de serlo cómo y por qué Euskadi se ha convertido en la gran herida histórica de España*, Grupo Planeta, Bartzelona, 2003, 449-450.

792 E5 elkarrizketa: Jesus Urrea Bidaurre. Iruñea, 2018/X/30.

793 Pedro Ibarra Guell, *La evolución...* 124-126.

794 E14 elkarrizketa: Felix Jimenez Morales. Iruñea, 2019/VII/23.

795 Nafarroako LKI, *Desde hace varios meses*, 1978/II/9, BAP.

betetzeari utzi zion eta klandestinitate garaiko diziplina zorrotza galdu zuen. 1978ko udaberrian alderdiaren funtzionamendua «kaotikoa» zen. Ordurako alderdiak aurrera jarraitzen bazuen ere, batik bat, 30 eta 40 militante aktiboenen konpromisoari esker zen. Halaber, diru-ekarpena egiten zuten militanteen kotizazio maila ere asko jaitsi zen: zituzten militante guztietatik soilik 80 edo 85 bat kidek ordaintzen baitzituzten kuotak modu erregularrean⁷⁹⁶. ORTn, aldiz, 1977ko martxoan Komite Probintzialak J. Luis izeneko militantea kanporatu zuen bere zeregin politikoak betetzen ez zituelako. Alderdiak jarrera horretan desengainua edo nekea beharrean, errebisionismoaren eraso bat ikusi zuen. Izan ere, ORTk errebisionismoa eta erreformismoa burgesiak langile mugimenduari bere barrenetik kalte egiteko zeukan modu ezkututzat zituen. Horregatik, disziplina zorrozki ez betetzea edo nahi pertsonalak zeregin politikoaren gainetik jartzea «liberalismo, indibidualismo eta bizio burgestzat» hartzen zituen. Komite Probintzialeko kide horrek alderdia utzi izana eraso ideologikotzat interpretatu zuten eta ez alderdiaren krisiaren aurrekari bezala⁷⁹⁷. Halaber, 1978ko urtarrilean *En Lucha* aldizkariaren salmenten jaitsiera ere burgesiak alderdian zeukan eraginari leporatu zioten, eta ez gero eta agerikoagoa zen militantzia krisiari⁷⁹⁸.

Aurreikuspen eta espektatiba iraultzaileak betetzeko ezintasunaren aurrean, ezkertiar atsekabetu askorentzako ETA eta indarkeria politikoa «esperantza handia» bilakatu ziren⁷⁹⁹. Zentzu horretan David Behorlegik ezker erradikaleko militanteek bizi zuten desengainua HBren sorreran «erabakigarri» izan zela ondorioztatu du⁸⁰⁰. Mikel Arriagak, halaber, HB ezkertiar hausturazaleen aterpe edo babesleku («espacio-refugio») modura definitu du⁸⁰¹. EMKk esaterako, 1979ko liburuxka batean ETAk euskal gizartean «paper positiboa jokatzeko» zuela aitortu behar zela zioen. Alderdi horrek, indarkeria politikoaren inguruko eta ezker abertzalearen zenbait alderdi negatiboren inguruan iritzi kritikoa zeukan arren, ETAREN indarkeria demokrazia sakontzeko positibotzat hartzen zuen⁸⁰².

Esan bezala, esparru estataleko alderdi iraultzaileen jarraitzaile izandako oinarri soziala ezker abertzalearengana hurbildu zen eta ezker abertzaleak Hausturaren aldeko borroka soziala

796 Nafarroako LKIren Komitea, *Circular sobre organización. Ordenación de las discusiones último Comité Provincial y reunión responsables organización sobre este tema*, 1978/IV/16, BAP.

797 ORTren Nafarroako Komite Probintziala, *A todos los camaradas: Sobre la decisión adoptada por el pleno del Comité Provincial de Navarra de expulsar del partido al Camarada J. Luis*. 1977/III/29, ORT-8.26., CDHC-EI, Iñigo Perez Ochoak utzia.

798 ORT, *Informe de propaganda sobre la venta de "En Lucha"* ORT, Iruñea, 1978/I/13, ORT-12.32, CDHC-EI, Iñigo Perez Ochoak utzia.

799 E5 elkarrizketa: Jesus Urrea Bidaurre. Iruñea, 2018/X/30.

800 David Beorlegui Zarrans, *Transición y melancolía...* 145-148.

801 Mikel Arriaga Landeta, *Y nosotros que éramos de HB... sociología de una heterodoxia abertzale*, Haranburu, Donostia, 1997, 94-101

802 EMK-OIC, *La Reforma ha fracasado en Euskadi. Hace falta otro camino*, 1979, BAP

lidergoaren lekukoa hartu zuen. Lehendabiziko hauteskundeetan porrot garrantzitsua jaso arren (abstentzioaren eta boikotaren aldeko deialdiak Nafarroan oihartzun handirik izan ez zuelako) egoerari buelta ematea lortu zuen eta esparru estataleko ezker iraultzaileari aurre hartu zion. Frankismoaren azken urteetan, langile mugimendua borroka antierpresiboekin eta nazio auziarekin oso sentsibilizaturik egoteak eta alderdi *sukurtsalistek* diskurtso euskaltzalea bereganatu izanak, halaber, hurrengo urteetan bere oinarri soziala ezker abertzalearengan pasa zedin lagundu zuten.

Hala ere, ezker abertzaleak ez zuen esparru estataleko alderdi iraultzaileen kide eta oinarri sozial guztiak erakartzea lortu. Mugimendu antifrankistan borrokan aritutako askok bestelako norabideak hartu zituzten. Batzuk, esate baterako, bestelako aukera politikoetarantz joan ziren (PSOE, EE edo Auzolan); beste batzuek, aldiz, politika uztea erabaki zuten; eta beste askok gizarte mugimendu espezializatu berrietan murgiltzea erabaki zuten. Halaber, kontuan hartu behar da ezker abertzalearen hazkundera ez zela bakarrik esparru estataleko ezker iraultzailea kontura egin, bestelako sektore batzuetatik ere (abstentzioa, sektore abertzaleak eta abar) ere elikatu zen.


Konstituzioa eta 1979ko hauteskundeak. Garai berri baten konfirmazioa

Lehendabiziko legegaldia zeregin nagusia Konstituzioa idaztea izan zen eta 1978ko abenduaren 3an Gorteek idatzitako proiektua erreferendum bidez berretsi zuten hiritarrek. Zentro-eskuineko eta ezker moderatuko alderdi nagusienek (UCDk, PSOE, PCEk, ...) baiezko botoa eskatu zuten. Aurkakotasuna adierazteko, aldiz, batzuek abstentzioa eskatu zuten (EAJk, MCK, OICk, ...) eta beste batzuek, aldiz, ezekoa (LCRk, PCEml-k, EE-k eta eskuin muturrak, esaterako)⁸⁰³. Maila estatalean orokorrean Konstituzioak onarpen zabala izan zuen: %67,11ko parte hartzearekin %91,81k baietz bozkatu zuen. Horrela, Espainiako sistema politikoaren oinarrietako bat ezarri zen. Alabaina, Hego Euskal Herrian desadostasuna adierazten zuten botoek (ezezkoaren, abstentzioaren eta boto txurien gehiketak) baiezkoak baino emaitza hobea lortu zuten: baiezkoak %34,5 eta desadostasunak %65,5. Hori bereziki azpimarragarria izan zen Gipuzkoan eta Bizkaian, han aurkako jarrerak %72,3 eta %69,6 lortu baitzuten hurrenez hurren. Nafarroan, aldiz, baiezkoak ozta-ozta gainditu zuen gehiengoa (%50,4) eta desadostasuna adierazten zuten jarreraren gehiketa oso hurbil geratu zitzaion (%48,93)⁸⁰⁴. Hala bada, **Konstituzioak Nafarroan Espainiako beste lurraldeetan baino babes oinarri ahulagoa zeukan. Hala ere, emaitzek Nafarroan banaketa geografiko nabarmena agerian utzi zuten.** Izan ere, Aritz Azpilikuetak azpimarratu duen bezala,

803 Ezker iraultzailearen jarrerak laburuturik: Jose Manuel Roca, «Batallas y derrotas ...» 762-763.

804 <http://www.infoelectoral.mir.es/infoelectoral/min/> (2020ko azaroan kontsultatua)

erreferendumaren emaitzaren banaketa geografikoari erreparatuz gero, hegoaldean Konstituzioak babes gehiago lortu zuela ikus dezakegu. Baiezkoaren aldekoek emaitza hobea lortu baitzuten Erriberan, Iruñerrian eta Mendialdean baino⁸⁰⁵.



Iturria: <http://www.infoelectoral.mir.es/infoelectoral/min/>

Edonola ere, Konstituzioa onartu eta Euskal Estatutuaren proiektua martxan jarri eta gero epealdi politiko berria ireki zen. Izan ere, 1979ko martxoan hauteskunde orokorrak egin ziren, eta hilabete beranduago, foruorru eta udal hauteskundeak, eta horietan Nafarroako paisaia elektorala aldatu zela argi geratu zen.

Arestian ikusi dugun bezala, azken hilabeteetan ezker iraultzailearen espazio politikoan aldaketa handiak gertatzen ari ziren. Alde batetik, gero eta jarrera moderatuagoak zituen ORT alderdiak UNAI koalizioaren marka beretzako erregistratu zuen, koalizio horren gainerako kideen haserrea eragin zuena. 1979ko hauteskundeetan ORT UNAIren izenpean aurkeztu zen hauteskundeetara. UNAIren parte izan ziren gainerako kideek (Independenteek, EMKk eta OIC-EKEk), aldiz, koalizioa utzi behar izan zuten eta hauteskundeetara aurkezteko forma berriak bilatu behar izan zituzten. Halaber, EMKk eta OIC-EKEk bi alderdien arteko fusio prozesua abiatu zuten, Erreformaren eta kontsentsuaren politika oso gogor kritikatzeko zuten diskurtsoarekin. PTE, aldiz,

805 Aritz Azpilicueta Vergara, *La Transición...* 32-38.

Euskadiko Ezkerrarengana hurbildu zen eta Gipuzkoan eta Bizkaian PTEren hautagaiak EEren zerrendetan joan ziren⁸⁰⁶. Nafarroan, ordea, Euskadiko Ezkerra ez zen bakarrik aurkeztuko, beste alderdi abertzale batzuekin (EAJrekin eta ESEIrekin) baizik: Nacionalistas Vascos-Eusko Abertzaleak (NV) koalizioan. Euskal Herri mailan EErekin zeukan konpromisoaren ondorioz, PTEk koalizio horretan parte hartzera behartua ikusi zuen bere burua; baina EAJ bezalako alderdi eskuindar batekin batera aurkeztu behar izatea kide askok ez zuen begi onez ikusi⁸⁰⁷.

LC eta LCR alderdi troskistak 1977ko amaieran berriz ere batu ziren. 1979ko hauteskundeetara sigla propioekin, LKI, aurkeztu ahal izan ziren. Hala ere, LCren zati batek (Juan Colomarren jarraitzaileek) ez zuten prozesu horretan parte hartu eta Liga Comunista izenpean zerrenda propioa aurkeztu zuten. IV. Kongresuan LCtik zatitutako sektore horrek ez zuen errotze ahalmen handirik Nafarroa, eta horregatik, zerrendan kanpoko militanteak ageri ziren.

PCEml-k 1977ko lehendabiziko hauteskundeetarako boikota egitea erabaki bazuen ere, 1979koetan aurkeztea erabaki zuen. Baina 1981 arte alderdia ilegaltasunean mantendu zenez Izquierda Republicana (IR, Ezker Errepublikanoa) edo Convergencia Republicana de los Pueblos de España (CRPE) izeneko hautagaitzen bidez egin behar izan zuen. Nafarroan IRn PCEml-ko kideak, Gerra Zibileko fusilatuen senideak eta PSOEtik bidalitako sektoreak elkartu ziren. Hala ere, hautagaitza hark ez zuen ordezkartza politiko lortzeko aukerarik eta militanteek ez zioten kemen handirik jarri⁸⁰⁸.

Senaturako, aldiz, ezker iraultzaileko alderdien arteko batasuna hurbilago egon zen. Nafarroa Batua hautagaitza abertzalea izan zen hautagaitza unitarioena. Ospe handiko independenteez osaturik zegoen (Angel Alfaro, Pedro Mari Larunbe eta Jesus Bueno Asin) eta HBk, EEk eta EAJk babestu zuten⁸⁰⁹. Halaber, ORT-UNAik eta EMK-OICK hautagai bakarra aurkeztu zuten senaturako. Zeharka bada ere, beren jarraitzaileak beste hautagaitzei babesa ematera bultzatu zituzten. LKIk, aldiz, hiru hautagai aurkeztu zituen.

Bigarren hauteskunde orokorretan UCDDk berriz ere irabazi zuen, eta PSOEek eta PCEk antzeko emaitzak lortu zituen. Ezker iraultzaileari dagokionez, 1979ko hauteskundeetan maila estatalean pixka bat hobetu zituen emaitzak; %3,32 erdietsi zuen, bi urte lehenagoko %2,93aren aldean⁸¹⁰. Krisi egoeraren zantzuak azaltzen hasiak ziren arren, ezker iraultzaileak emaitza hobek

806 PTEren Euskadiko Komite Nazionala, *Valoración de las elecciones generales en Euskadi*, Gasteiz, (1979/III/8) ORT-56.17., CDHC-EI, Iñigo Perez Otxoak utzia.

807 E11 elkarrizketa: Pablo Ibañez eta Isabel Noguera. Iruñea, 2019/III/11.

808 E20 elkarrizketa: Alvaro Zaratiegi Jurio. Iruñea, 2019/XII/23. Mikel Bueno Urritzelki, «Negociaciones políticas del...» 151-152.

809 Oskia Ramirez Barace, «Jesús Bueno Asin (1944-1975). Belaunaldi oso baten isla», *Gerónimo de Uztariz*, 30-31 zbk. (2014-2015), 101-132.

810 Joel Sans Molas, «Entre las...», 653.

lortu zituen; ziur aski legaltasunari esker beren siglekin aurkeztu ahal izan zuelako, eta legaltasun lortu berriak, halaber, antolatze eta propaganda modu eraginkorragoan egiteko aukera eman zuelako. Gainera, zenbait gizarte sektoretan demokrazia berriaren mugekiko, egoera ekonomiko kaxkarrarekiko eta ezker moderatuaren kontsentsu-jarrerarekiko haserrea piztu zen, eta beraz, sistema berriarekiko desadostasuna erakusten zuen botoa jaso zuen. Baina botoetan eta portzentaian igo baldin bazen ere, ezker iraultzailea berriz ere ordezkartzarrik gabe geratu zen. Oso kolpe gogorra izan zen, batik bat PTErentzako eta ORTrentzako, biek ordezkartza politikoa eskuratzeko esperantza handia baitzuten. Ordezkartza lortu zuen bakarria Unión del Pueblo Canario (UPC) koalizioko Ramon Sagaseta izan zen.

Nafarroan, alderdi irabazlea berriz ere UCD izan zen, botoen %33,03rekin hiru eserleku lortu zituen. Bigarren indarra PSOE izan zen, %21,9 eta diputatu bat. Egun hartako ezustekoetako bat UPNren emaitza izan zen: botoen %11,2 lortzea eserlekua eskuratzeko nahikoa izan zen. Halaber, Herri Batasunak oso emaitza ona eta ezustekoa lortu zuen baita ere, %8,89 eta 22.425 boto. Koalizio abertzaleak Nafarroan diputaturik lortu ez zuen arren, Bizkaia eta Gipuzkoan hiru diputatu eta senatari bat lortu zituen. NV koalizioa Nafarroan bosgarren izan zen (8,45 %). Ezker iraultzaileko hautagaitzek Nafarroan jaitsiera nabarmena jasan zuten eta oso atzeratuta geratu ziren: UNAI-ORT (10.970 boto, 4,35%), EMK-OIC (2.962, 1,17%), LKI (0,41 %), LC (0,26%) eta Izquierda Republicana (0,2%)⁸¹¹. Senatuan UCDk hiru eserleku lortu zituen eta laugarrena PSOErentzako izan zen. Nafarroa Batuauren hautagaiek 44.000 eta 48.000 boto artea lortu zituzten, eta Kongresuan ez bezala, UPNren aurretik geratu zen.

Bistan denez, bi aukera politiko berri (UPN eta HB) indarrez sartu ziren Nafarroa Garaiko panorama politikoan, eta ondorioz, paisaia elektoralera erabat aldatu zen. Egoera berri horrek zuzenez eragin zion esparru estataleko ezker iraultzaileari. Maila estatalean joera orokorra gorakorra bazen ere, bere indar-gune nagusian (Hego Euskal Herrian) beherakada nabarmena izan zuen. Bi urte eskas lehenago (1977ko ekainean) ezker iraultzaileak 45.600 bat boto zakuratu zituen, baina 1979ko martxoan, bere emaitza elektoralak 16.100 boto ingurukoak izatera pasa ziren, hots 29.000 bat boto galdu zituen. Galera handienak UNAI-EMKk eta ORT-AETk izan zituzten. Ezker abertzaleak, aldiz, esparru estataleko alderdien krisia baliatu zuen eta sektore politiko horren hautesleen parte handi bat erakarri ahal izan zuen. Bere 22.000 botoen zati bat (ez osoa, jakina) esparru estataleko ezker iraultzailearengandik erakartzea lortu zuen. Esparru estataleko ezker iraultzailearen eta ezker abertzalearen artean gertatzen ari zen lekuko aldaketaren seinale zen hori.

811 <http://www.infoelectoral.mir.es/infoelectoral/min/busquedaAvanzadaAction.html>

4. Koadroa: 1979ko Hauteskunde Orokorrak Nafarroan

Hautagaitza	Argipena	Botoak	%	Diputatuak	Aldea 1977ko hauteskondeekin
UCD		83.302	32,93	3	8.266
PSOE		55.399	21,9	1	679
UPN		28.248	11,17	1	Berria
HB		22.425	8,86		Berria
NV	EAJ-PTE-EE-ESEI	21.305	8,42		3.226
EKA		19.522	7,72		11.071
UNAI	ORT	10.970	4,34		-2.225
PCE-EPK		5.619	2,22		-700
EMK-OIC		2.962	1,17		-21.527
LKI		1.040	0,41		-321
LC		660	0,26		Berria
IR	PCEml	514	0,2		Berria
PPROV		205	0,08		Berria
Ezker iraultzaileak guztira		16.146 (NV gabe)	6,29		-29530

Iturria: <http://www.infoelectoral.mir.es/infoelectoral/min/home.html>

Hilabete eskasean berriz ere hauteskundeak izan ziren, udal eta foru hauteskundeak kasu honetan. Foru Hauteskundearen Demokratizazioari buruzko 1979ko urtarrileko dekretuan xedatzen zen bezala, Nafarroako Parlamentua Merindadeen arabeko hautesbarrutien bidez aukeratuko zen. Tuterakoan 11 parlamentari aukeratuko ziren, Lizarrakoan 10, Tafalla-Erriberrikoan 9, eta Zangozakoan 9. Iruñekoa, aldiz, bitan zatitu zen: Iruñea-Hiriburua barrutian 18 aukeratuko ziren eta Iruñea-Gainerakoan 13⁸¹². Hautesbarruti bakoitzean boto gehien lortuko zuten hautagaiek (eta Tuterako lehendabiziko biek) Diputazioa eratuko zuten.

Ezkerreko alderdiek merindadeen bidezko sistema hori kritikatu zuten, Iruñerria hiru hautesbarrutitan zatituz (Zangoza, Iruñea-Hiriburua eta Iruñea-Gainerakoa) langile botoa lausotzen zuelakoan eta merindadeen eta biztanleriaren arteko desproporzio handia zegoelakoan⁸¹³.

812 Aritz Azpilicueta Vergara, *La Transición ...* 48.

813 LKI, *Democratización de las instituciones forales*, 1979, ordenatu gabe, BAP.

Kasu honetan, ezkerreko alderdien arteko koalizioak eta akordioak lortzea errazagoa izan zen. UNAI-ORTk barruti guztietan eta 70 udalerritan aurkeztea erabaki zuen, udalerrri txiki askotan benetako presentzia lokalik izan ez arren. Erabaki horren arrazoia hauteskunde legearen zirrikituak erabiltzea izan zen, prentsan eta komunikabideetan presentzia handiagoa izateko aukera baliatzeko⁸¹⁴. Hala ere, hauteskundeak baino aste batzuk lehentxeago PTEk eta ORTk maila estatalean fusionatzeko akordioa sinatu zuten. Bi alderdien arteko batasunaren negoziazioek iraun bitartean, hurrengo hauteskundeetan elkarren artean ez lehiatzeko erabakia hartu zuten eta alderdi batek bestearen hautagaitzak babesteko hitza eman eman zioten elkarri⁸¹⁵. Akordio horren ondorioz, UNAI-ORTk Iruñea Hiriburuko barrutiko eta Tuterako udal hauteskundeetan hautagaitza erretiratu zituen, PTEren hautagaitzari babes emateko⁸¹⁶.

Zangoza, Lizarra eta Tafalla-Erriberriko barrutietan Agrupaciones Electorales de Merindad (Merindadeko Hautets Elkartek, AEM-Amair) sortu ziren, besteak beste EAJ, EMK-OIC, LKI, PTE, ESEI, EE, HB eta independenteek abesturik⁸¹⁷. Hainbat izen ezberdin hartu zituzten, baina Parlamentuan *Amair* izenpean elkartu ziren. PTEk barruti horietan hautagaitza horiek babestu zituen, UNAI-ORTk barruti horietako hautagaitzak mantentzea erabaki zuen arren. LKIk aldiz, Lizarra eta Tafalla-Erriberrikoiei babes eman zien arren, Zangozako *Orhi Mendi* hautagaitzaren programa kritikatu zuen eta ez babestea erabaki zuen⁸¹⁸.

Iruñea-Hiriburuan HB, UNAI-ORT eta ANIZ (Ayuntamientos Navarros de Izquierda) aurkeztu ziren. ANIZ EMKk, ORTk, LKIk eta zinegotzi sozial izandako independenteek osatzen zuten. Halaber, antzeko planteamenduekin ANAI (Asociación Navarra de Ayuntamientos de Izquierda) Tuteran eta Iruñea-Gainerakoan aurkeztu zen. Baina hauteskundeak baino lehentxeago ANAI Iruñea-Gainerakotik erretiratu zen HBri babes emateko. Tuteran, aldiz, ANAI mantendu egin zen EMK-OICren eta independenteen babesaz gain, HB, EAJ eta EEren babes ere jaso zuen.

814 Nafarroako ORTre Komite Probintziala, *Información sobre la marcha de la campaña electoral a todos los camaradas*, 1979/II/8, ORT- 8.52, CDHC-EI, Iñigo Perez Otxoak utzia.

815 Ramon Franquesa, «Estabilización del ...» 300.

816 ORTren Komite Probintziala, *Información sobre la marcha de la campaña electoral a todos los camaradas*, 1979/II/18, ORT- .8.5, CDHC-EI, Iñigo Perez Otxoak utzia. ORT, Izenbururik gabe, 1979/III/23, ORT-6-23, FPI.

817 Ikus bedi: 9.5. 1979ko Foru Hauteskundeetako hautagaitza iraultzaileen azalpen koadroa

818 “Sin título”, Comité Provincial de Navarra de LKI, 26 de marzo de 1979, Carpeta Comunicados LKI, Archivo de Batzarre.

1. Taula: 1979ko foru hauteskundeetako hautagaitza iraultzaileen azalpena

Merindadea	Hautagaitzaren izena	Kideak	Babesleak	Eraitza	Parlamentariak
Iruñea-Hiribura	HB			17.606	5
	ANIZ	EMK-OIC, LKI Indep.		3.725	0
	PTE		ORT	1.979	0
Iruñea-Gainerakoa	HB			10.638	4
	UNAI (ORT)		PTE	1.359	0
	ANAI	EMK-OIC, LKI Indep.		211 (Erretiratu eta HBri babes eman)	0
Lizarra	AETE	EAJ, EMK-OIC, LKI, PTE, ESEI, EE, HB Indep.		6407	2
	UNAI (ORT)			767	0
Zangoza	Orhi Mendi	EAJ, EMK-OIC, PTE, ESEI, EE, HB Indep.	LKIk babesa erretiratu zion	5.954	3
	UNAI (ORT)			2.852	0
Tafalla-Erriberri	AEPM	EAJ, EMK-OIC, LKI, PTE, ESEI, EE, HB Indep.		4.921	2
	UNAI (ORT)			746	0
Tutera	UNAI (ORT)		PTE	3.593	1
	ANAI	EMK-OIC	HB, EE, EAJ	2.836	0

Iturria: Egileak egina. (I. Satrustegi 2020)

Foru hauteskundeen emaitzetan, 70 eserlekuetatik, UCDk 20 lortu zituen, PSOEk 15, UPNk 13, HBk 9, *Amaiur* hautagaitzek 7, EAJk 3, Alderdi Karlistak 1, UNAI-ORTk 1 eta Ezponda independenteak beste 1⁸¹⁹.

5. Koadroa: 1979ko foru hauteskundeen emaitzak		
Alderdia	Botoak	Parlamentariak
UCD	68.040	20
PSE-PSOE	48.289	15
UPN	40.764	13
HB	28.244	9
AEM (Amaiur)	17.282	7
NV-Eusko Abertzaleak	12.845	3
Partido Carlista-EKA	12.165	1
UNAI (ORT)	7.419	1
IFN	3.729	1

Iturria: Nafarroako Gobernua. <https://labur.eus/2430Z>.

ORT eta PTE elkarreganan hurbildu arren, apenas %4a lortu zuten. Alderdi horien atzeraldia nabaria zen, baina Tuterako merindadean Jesus Casajusek lortu zituen 3.500 botoek UNAI-ORTren ordezkari balio izan zuten. Iruñeko Mendialdeko barrutian HBk irabazi zuen eta Zangozakoan Orhi Mendik, horregatik Jesus Bueno Asin eta Angel Garcia de Dios Diputazioko kide bilakatu ziren. Iruñea-hiriburuan aldiz, UCD eta HB garaipena lortzeko lehia bizian izan ziren, azkenean boto gutxi batzuegatik UCDren alde atera zena. EMK-OICK sustatutako hautagaitzak (ANAI eta ANIZ) ere ordezkari lortzekotan izan ziren eta boto gutxiengatik ez zuten Iruñea-Hiriburuko eta Tuterako barrutietan ordezkariarik lortu: Iruñean 125 boto faltatu zitzaizkien eta Tuteran 200⁸²⁰.

Hauteskundeen emaitza eta gero, indar euskaltzale eta ezkertiarretako batzuk oso baikor azaldu ziren. Eskuinak hauteskundeak irabazi zituen arren, euskal estatutuaren aldeko indarrak (teorian) gehiago izan zirelakoan: 37 diputatu 33ren aurka. Ordutik aurrera, EEk eta Euskadiko Langileen Alderdiak (PTE-ORT alderdi batuak, ELP) Nafarroa euskal estatutuan bide parlamentarioaren bidez sar zitekeela defendatu zuten eta «37-33» leloa ideia hori defendatzeko

819 Ikus bedi 9.6. atalean, 5. taula: 1979ko Foru Hauteskundeen emaitzen koadroa.

820 «Elecciones municipales. Nuestros elegidos», *Zer Egin?* 39 zbk. (1977/IV/1. Hamabostaldia), EMK, 8, BAP.

aldarrikatu zuten⁸²¹. Baina ordurako, PSOE moderazio bidean zegoen eta nabarrismo espainolistaren hazkunderen ondorioz euskaltzaletasunetik urruntzen hasi zen. Jarrera hori argi geratu zen 1979ko udazkenean. UNAIko Jesus Casajusek —EE, PCE eta ESEIren babesarekin— mozio baten bidez parlamentuan Nafarroa Euskal Estatutuan sar zedin eskatuzuenen, PSOE eta Alderdi Karlista abstenitu ziren eta Nafarroa Gernikako Estatututik bereizirik geratu zen⁸²².

Udal hauteskundeei dagokionez, ezker iraultzaileak emaitza onak lortu zituen. Kasu horretan hautagaitza bateratuek protagonismo handia izan zuten. Iruñeko udaletxean, UCDk irabazi zuen baina HB bigarren indarra izan zen. EMK-OICK, LKIk eta independenteek sustatutako hautagaitza bateratua (ANIZ) udaletxean sartzekotan egon zen, Julen Mendiguren auzo mugimenduko liderra, bi botoko aldegatik ez baitzen zinegotzi izan⁸²³. UCDk gehiengo sinplea zuenez eta PSOEek alkatetza HBri eman nahi izan ez zionez, azkenean hiriburuko alkatea Julian Balduz sozialista izan zen⁸²⁴. Tuteran, bestalde, PSOE izan zen zerrenda bozkatuena eta Francisco Alava alkate izan zen. Ezker iraultzaileak 4 zinegotzi udaletxean sartzea lortu zuten: EMKren hiru (Milagros Rubio, Ignacio Milagro, Jose Maria Lakarra) eta PTEren bat (Ines Redondo). Gainerako udaletxe nagusietan ezkerreko alderdiek eta abertzaleek hautagaitza bateratuak sortu zituzten. Horietako askok oso emaitza ona eskuratu zuten. Moises Andueza Lizarrako alkate izan zen CUP (Candidatura de Unidad Popular) hautagaitzarekin, Tafallan ere alkate ezkertiarra izan zen. Zizurren eta Barañainen Cendea Unida hautagaitzek emaitza ona lortu zuten eta baita Antsoain eta Berriozarko AMO-ULEk ere (Acción Municipal Obrera-Udal Langile Ekintza). Azkoien Union Peraltesa de Izquierda (UPEI) hautagaitza PCEko zein ORTko militanteekin eta independenteekin eratu zen eta elkarrekin aurkeztu ziren eta emaitza ona lortu zuten⁸²⁵ Atarrabian joera ezkertiar eta abertzaleetako lagunak elkartzen zituen Agrupación Electoral Atarrabiak alkatetza lortu zuen⁸²⁶. EMKk hainbat tokitan lortu zituen zinegotziak: Tuteran (3), Irunberrin (3), Lizarran, Burlatan,

821 Aritz Azpilicueta Vergara, *La Transición...* 52-53. Noe Frago, Alfredo Caparoso, *Acuerdo político del Comité de Enlace de Navarra*, PTE-ORT, 1979/IX/14, ORT-21. 52., CDHC-EI.

822 Floren Aoiz, *El Jarron...* 309-321. Alvaro Baraibar Etxeberria, *Extraño federalismo...* 234-235. ELPren Komite Probintziala, *Demos el primer paso en el Parlamento Foral. NAFARROA EUSKADI DA*, Iruñea, (1979/IX/26) ELPren oktabilla, ORT-22.95, CDHC-EI, Iñigo Perez Otxoak utzia. ELPren Prentsa Bulegoa, *Comunicado de Prensa*, 1979/X, ORT-19.73, CDHC-EI, Iñigo Perez Otxoak utzia. Fermin Goñi, «Intentos de que el Parlamento Foral se pronuncie sobre la integración en el País Vasco», *El País*, 1979/IX/29.

823 «Elecciones municipales. Nuestros elegidos», *Zer Egin?* ...

824 Mikel Bueno Urritzelki, «Negociaciones políticas del PSOE navarro tras las elecciones municipales y autonómicas de 1979», Emilia Martos Contreras, Rafael Quirosa-Cheyrouze Muñoz, Alberto Sabio Alcutén (Koord.): *40 años de ayuntamientos y autonomías en España*, Universidad de Zaragoza, Zaragoza, 2019, 147-163.

825 Juan Manuel Campo, *Una historia de UPEI (1979-2011)*, Pamiela, Arre, 2015, 24 eta 44.

826 Jesus Balduz, *La Transición política en Villaca (1975-1982), Construyendo democracia-Trantsizio politikoa Atarrabian (1975-1982) Demokrazia Eraikitzen*, Atarrabiako Udala, 2008, 85-93.

Vianan (2), Arroitzan, Etxalarren, Lukinen, Monteagudon, Antsoainen (2), Uharten eta Muniainen⁸²⁷. UNAI-ORTk, bestalde, 30 zinegotzitik gora eta hainbat alkatetza lortu zituen, batzuetan bakarka eta bestetan hautagaitza bateratuen bidez: Beraskoainen, Antsoainen, Biurrunen, Ezkurran (4, alkatetza), Ablitasen (3), Agoitzen (3), Burlatan (1), Elortzen (1), Uharten (2), Puiun (4, alkatetza), Galarren (2), Mendigorrian (1), Garesen (1), Murietan (3, alkatetza), Fustiñanan (1), Andosillan (2), Marañonen (1), Beriainen (2), Cadreitan (alkatetza), Azkoienen (2), Murchanten (2) eta Valtierran (6)⁸²⁸. PTEk, aldiz, Ines Redondorenaz gain beste hiru tokitan lortu zuen ordezkari-tza, Faltzesen, Zizurren eta Arangurenen (alkatetza)⁸²⁹. LKIk Zizurren, Antsoainen, Altsasun eta Arbizun (alkatetza) lortu zuen ordezkari-tza⁸³⁰.

Esan bezala, esparru estataleko ezker iraultzailearen eta ezker abertzalearen lekuko aldaketa 1977 eta 1979 artean gertatu zen. Hala, 1979ko bi hauteskunde deialdien emaitzei erreparatuz gero, bi korrante horien arteko botoen *trasbasea* izan zela erreparatu daiteke. Esparru estataleko alderdi iraultzaileek boto asko galdu zituzten (ia 30.000 bat) eta HBk horien parte handi bat erakarri zuen. Alabaina, ezker iraultzailearen botoaren lekualdatze hori ez zen erabatekoa izan. Izan ere, Nafarroa hegoaldeko eskualdeetan ezker abertzaleak ez zuen esparru estataleko boto emaleak erakartzea lortu. Esaterako, konpara bitez Iruñeko eta Tuterako udal hauteskundearen emaitzak. Iruñean esparru estataleko ezker iraultzaileak 13.300 boto galdu zituen eta HBk ia 18.000 botorekin udaletxeko bigarren indarra izatea lortu zuen. Tuteran, aldiz, ezker iraultzaileak 2.500 boto inguruan mantentzea lortu zuen, eta 4 zinegotzi erdietsi zituen. HBk ordea, Erriberan 1979ko hauteskunde orokorretan 350 boto baino ez zituen lortu.

827 «Elecciones municipales. Nuestros elegidos», *Zer Egin?* ...

828 «PTE-ORT: 500 concejales y casi 40 alcaldes», *La Unión del Pueblo*, 98 zbk. (1977/IV/5), PTE, 8-9, <https://archivodelatransicion.es>.

829 «PTE-ORT: 500 concejales ...» . Partit del Treball de Catalunya, *Concejales y alcaldes electos en todo el Estado*, 1977/IV/4, PTE/ORT, <https://archivodelatransicion.es>

830 «Nuestros Concejales», *Combate*, 147 zbk. (1977/IV6-18), LCR, orr. Joel Sansek utzia.

6. Koadroa: Tuterako hauteskunde emaitzak: 1977ko eta 1979ko hauteskunde orokorrak eta 1979ko udal hauteskundeak

Hautagaitza	Orokorrak 77	Orokorrak 79	Udal 79	Zinegotzi
PSOE	4003	3896	3614	7
UCD	3476	3970	3170	6
EMK	1.429 (UNAI)	544 (EMK+OIC)	1529 (ANAI)	3
PTE	861	NV	995	1
AFN	834			
PCE	512	660	729	1
PSP-US	466			
FNI	461			
FDC-EDC	429			
P. Carlista	208	666	456	
ORT	164 (AET)	551 (UNAI)	0 (UNAI)	
PNV	133 (UAN)	543 (NV)		
LKI	15 (FUT)	21		
UPN		1498		
HB		350		
LC		64		
IR (PCEml)		24		
PPROV		13		
Indep. (Eskuina)			1780	3
Oso tara ezker irautzaileak	2469	1204 (NV gabe)	2524	4

Iturria: <http://www.infoelectoral.mir.es/infoelectoral/min/home.html> . Egileak moldatua (I. Satrustegi 2020).

7. Koadroa: Iruñeko hauteskunde emaitzak: 1977ko eta 1979ko hauteskunde orokorrak eta 1979ko udal hauteskundeak

Hautagaitza	Argipena	Orokor 77	Argipena	Orokor 79	Argipena	Udal 79	Aldea
UCD		19994		23836		18800	-1194
PSOE		15792		17086		13481	-2311
EMK	UNAI	10512	EMK+OIC	925	ANIZ	3923	-6589
AFN		8011					-8011
EAJ	UAN	7576	NV (PNV, EE, ESEI, PTE)	9544		4857	-2719
ORT	AET	5956	UNAI (ORT)	3198	UNAI (ORT) + PTEren babesak	2293	-3663
FNI		3416					-3416
FDC-EDC		3391					-3391
PSP-US		3098					-3098
PTE	FDI	2454			PTE	5	-2449
P. Carlista	MFA	2424	P. Carlista	5812		2730	306
PCE		2180		1501		1433	-747
LKI	FUT (LKI+OIC)	599	LKI	509	ANIZ		-599
HB				10842		17986	17986
UPN				10335		11864	11864
IR				205			
LC				165			
PPROV				55			
EE						1187	1187
Oso tara ezker iraultzailea		19521		5002		6221	-13300

Iturria: <http://www.infoelectoral.mir.es/infoelectoral/min/home.html> . Egileak moldatua (I. Satrustegi 2020).

6.3. Ezker iraultzailearen gainbehera 1977-80

1977ko hauteskundeak eta gero ezker iraultzailea krisian sartu zen, baina 1979ko emaitza elektoralen ondoren krisi hura are sakonagoa eta agerikoagoa egin zen. Gobernu Erregimen parlamentario eta monarkiko berria ezartzeko bidean zegoen eta oposizio moderatuak aldeko iritzia agertu zuen. Olatu iraultzailearen apaltzearekin eta espektatiben eta militantzia krisian erabat murgildurik, esparru estataleko alderdi iraultzaileak ataka larrian eta gainbeherari erantzuna emateko ahalmen handirik gabe geratu ziren. Orduan ezker iraultzaileko alderdiek «desorientazio» sentsazioa izan zuten eta egoera berrira berregokitu behar izan zuten, militantziaren parte handi bat galtzen zuten bitartean⁸³¹.

Egoera horren aurrean, ezker iraultzaileko alderdien artean bi jarrera nagusitu ziren⁸³². Alde batetik, PTEk eta ORTk arlo instituzionalean eragiteko saiakera egin zuten, eta horrek Erreformaren markoa onartzera eta kontsentsuaren politikan parte hartzera bultzatu zituen. Horrek bloke erreformistaren eta iraultzailearen erdibidean kokatu zituen, eta ondorioz sarri asko jarrera kontraesankorrak mantendu zituzten. Alderdi iraultzaileak ziren eta iraultza sozialista baten beharra defendatzen jarraitu zuten, baina Trantsizioaren akordioetako batzuetan parte hartu zuten. Botere kuotak lortuko zituztelakoan eta erakundeetatik eragiteko ahalmena izanen zutelakoan, bere tradizio politikoaren zenbait ezaugarri uko egin zioten eta horrek bere militantzia tradizionalaren parte batek ez zuen ongi ulertu. Andradek PCEn kasuan ikertu duen bezala, ezaugarri identitarioei uko egiterakoan bere izaera iraultzailea bermatzen zuten eta militantzia kohesionatzen zuten ezaugarriak galdu zituzten eta alderdiok krisian murgildu ziren⁸³³. PTE eta ORT beren diskurtsoa moderatuz antzeztoki politikoan bere burua birkokatzen saiatu ziren, baina espazio hartan PSOEekin eta PCEREkin lehiatu behar izan zuten. Frankismoan zehar PSOEek presentzia urria izan zuen eta langile mugimenduaren joera gorakorra izan zen bitartean bazirudien PCEn ezkerera bazegoela ezker iraultzailearentzako espazio bat. Baina Trantsiziotik aurrera PSOE berreskuratu zen, eta hauteskundeak eta gero ezkerreko indar nagusia bilakatu zenean, ezker iraultzailea bazterrean geratu zen.

Bestetik, gainerako alderdi iraultzaileek espazio propioa bilatu behar izan zuten eta parte hartze instituzionaletik urrundu ziren⁸³⁴. MCK, OICK, LCK eta LCRk beren kide kopurua gutxitua ikusi zuten oso denbora laburrean eta gainera zenbait kasutan barne eztabaidak eta zatiketak bizi izan zituzten. Militantzia krisiari aurre egiteko batasunerako bidea bilatu zuten: OIC eta MC 1979an

831 Joel Sans Molas, «Entre las...», 654.

832 *Ibid.* 651 eta 654-658.

833 Juan Andrade Blaco, *El PCE y...*

834 Joel Sans Molas, «Entre las...», 651.

fusionatu ziren eta LCR eta LC 1978an berriz batu ziren⁸³⁵. Alderdi horiek egoera berrira moldatzeko hauteskunderen bidez eragiteari uko egin zioten. Bere burua «erresistentzia indar» modura irudikatu zuten eta borroka zelai berriak ireki zituzten gizarte mugimendu berrietan eragiteko erabakiaren bidez⁸³⁶.

ORTren gainbeheraren kasua azpimarragarrienetako izan zen. ORTk ekainaren 15eko hauteskundeetan ordezkari politikoak lortzeko esperantza zeukan, baina emaitza eskasa lortu zuen. Soilik Nafarroan lortu zuen emaitza azpimarragarririk, %5 inguru. Emaitzaren ondorioz, alderdiak taktika berria bideratu behar izan zuen. Alderdiaren zuzendaritzak, emaitza apala lortu arren, hauteskunderen emaitzak oso modu positiboan baloratu zituen. Parlamentuan lortutako indar korrelazioa herriaren garaipentzat hartu zuen, herriak hautagaitza demokratikoei botoa emanaz Suarezen eta bunker erreakzionarioaren nahi antidemokratikoei aurre egin zielakoan. Halaber, testuinguru berrian demokrazia sendotzea eta sakontzea beharrezkoa izanen zela ondorioztatu zuen⁸³⁷.

Hala ere, hauteskunderen irakurketa positiboa egin arren, zuzendaritzan hauteskunde emaitza apalengatiko kezka sortu zen. Boto kopuru urria jaso izana alderdiaren aurka proiektatutako irudi negatiboaren ondorio izan zela hausnartu zuen, eta beraz, jarrera erradikaletatik aldenduz bere burua ezkerreko korrante demokratiko eta kontsekuentetzat irudikatu nahi izan zuen. ORTk hizkera eta jarduna moderatzea erabaki zuen hautesleriaren aurrean erradikalegi, muturrekoegi, ager ez zedin⁸³⁸. Hainbestekoa izan zen jarrera hori ORTk «ezker muturreko» alderditzat har ez zezaten eskatu zuela⁸³⁹. Diskurtsoaren moderazioa eta demokraziaren sakontzearen defentsaren jarrera berehala nabaritu ziren alderdian, Trantsizioko kontsentsuetako batzuk babestea erabaki baitzuten: Konstituzioa, politika antiterrorista eta Gernikako Estatutua. Gainera, hurrengo hilabeteetan, politika moderatu berriaren ondorioz, ORTren zuzendaritzaren parte bat PSOEngana hurbiltzen hasi zen. Nafarroan ORTko Komite Probintzialak PSOEko kideak alderdiaren mitinetan parte hartzera gonbidatu zituen, hala nola, 1977ko urrian Konstituzioari buruzko mitin batean Gabriel Urralburuk parte hartu eta hitza hartu zuen⁸⁴⁰.

835 Javier Fernandez Rincón, «Cambio de Rumbo...», 1105. Joel Sans Molas, *Militancia, vida y...* 497-516.

836 Joel Sans Molas, «Entre las...», 658.

837 «El resultado de las elecciones: Un avance hacia la democracia», *En Lucha*, 155 zbk. (1977/V/19), ORT, 3, <https://archivodelatransicion.es/>. ORTren Komite Zentrala, Izenbururik gabe, 1977/VI/19, ORT-6-22, FPI.

838 Emanuele Treglia, «Izquierda Comunista...» 67-68.

839 «La Organización Revolucionaria de Trabajadores no se considera de extrema izquierda», *El País*, 1979/II/14.

840 «El PSOE afirma el derecho del pueblo a participar en la elaboración de la Constitución», *En Lucha*, 169 zbk. (1977/X/27), ORT, 3, <https://archivodelatransicion.es>. E2 eta E3 elkarrizketak: Javier Iturbe Ekai. Iruñea, 2018/VII/25 eta 2018/VIII/9.

Esan bezala, hurrengo hilabeteetan ORTk jarrera kontraesankorra izan zuen. Alde batetik, alderdia Moncloako Itunaren eta Hitzarmen Sozialaren aurka azaldu zen. Neurri horiek krisia langileen bizkar botatzen zutelakoan eta demokrazia arriskuan jartzen zutelakoan. UCDren «eraso antidemokratikoaren» aurrean demokrazia jaio berria defendatu beharra zegoela esaten zuen; baina ez PCEk edo PSOEek bezala, Gobernuarekin akordio bat bilatuz, baizik eta borrokaren bidez eta Gobernuarekiko jarrera lehiakorra edukiz⁸⁴¹.

Baina, bestaldetik, Moncloako Itunarekin egin ez zuten bezala, Konstituzioari baiezkoa ematea eta politika antiterrorista babestea erabaki zuen ORTk, demokrazia lortu berria sakontzeko eta babesteko bide egokiena zelakoan. Hasiera batean, Konstituzioa Gorteetan idazten hasi zirenean oso gogorki kritikatu zuen. Espainiak Konstituzio demokratiko eta aurrerakoia behar zuela defendatu zuten, eta garai haietan negoziatzen ari zen konstituzio ereduaren aurka lerratu ziren. Konstituzioak «antifaxista» izan behar zuela defendatzen zuten, frankismoaren egitura instituzionala eraisteko. Estatu ereduaren inguruan, monarkia edo errepublikaren inguruko erreferenduma gertatu behar zela defendatzen zuen. Halaber, Espainiako nazio ezberdinen arteko berdintasuna ezarri behar zela defendatzen zuen, Autonomia Estatutuen bidezko autonomia emanaz, eta nazionalitateen arteko federazioaren aukera eskaini behar zela defendatzen zuen, baita autodeterminazio eskubidea ere⁸⁴². Baina egindako kritikak ez ziren soilik edukiagatik izan, idazketa prozesua ere gaitzetsi zuten ezkutuan eta isilpean egiten ari zirelako. Zazpi gizonen artean idatzi zuten Konstituzioaren edukia, eta horregatik, gainerako alderdi politiko eta erakunde herritarrek parte hartu ahal ez izatea kritikatu zuten⁸⁴³. Halaber, ORTren ustez, Konstituzioaren prozesuan zehar herriak mobilizazio eta aldarrikapenen bidez presioa egin behar zuen bere aldarrikapenak bertan isla zitezen. PCERI eta PSOERI, aldiz, kontrakoa egitea leporatzen zien, kontsentsu konstituzionalaren bidez eta PCEk proposatutako kontzentrazio gobernuaren bidez UCDren nahiak errazten zituztela leporatzen zieten.

Baina benetako Konstituzio demokratiko eta antifaxista izateko errepublika, autodeterminazioa eta bestelako eskubide batzuk eskatu zituen arren, 1978an zehar ORTk bere jarrera aldatu zuen eta azkenean proiektua babestea erabaki zuen, nahikoa ez zen arren demokrazia finkatzeko aurrerapauso bat zelakoan. ORTk Konstituzioa positiboa zela defendatu zuen ordutik aurrera eta kanpainen zehar «Si, y seguir avanzando» (Bai, eta aurrera segi) lelopean baiezkoko botoa

841 ORT, *La ofensiva de los grandes capitalistas y del Gobierno se apoya en el Pacto de Moncloa*, Sanromaren hitzartzea ORTren Madrileko III. Konferentzian, BAP.

842 «Es urgente una constitucion democratica», *En Lucha*, 164 zbk. (1977/IX/23-30), ORT, 3, <https://archivodelatransicion.es/>. Avelino Hernandez, «Los pueblos de España lo exigen. Las autonomias a la Constitución», *En Lucha*, 175 zbk., (1977/XII/8-14), ORT, 3, <https://archivodelatransicion.es/>.

843 «Es urgente una constitucion democratica», *En Lucha*, ...

eskatu zuen. ORTren ustez, Konstituzioa herriaren lorpen bat zen, borroka urte luzeen ondorio, eta konstituzio «kapitalista» zela onartzen zuten arren, bestelakorik posible ez zela zioen, iraultza sozialistik egiten ez zen bitartean behintzat. Baina haien ustez, Konstituzioak zenbait oinarrizko eskubide legeztatzen zituen, herriaren borrokaren bidez lortutakoak. Halaber, baiezko eta ezezko botoen artean ezberdintasun handiak zeudela esaten zuten, eta haiena baiezko «kontzientea» zela defendatzen zuten, borrokan jarraitzeko intentzioa zuen baiezko kritiko bat alegia. Halaber, bere ustez, Konstituzioari baiezko botoa emateak egoera «amildegirantz» eramanez nahi zuten eskuineko eta ezkerreko terrorismoen aurkakoa zen, eta beraz, herriarentzako baliagarria⁸⁴⁴.

Baina zuzendaritza estatalak baiezko botoa eskatu zuenean militante askok ez zuten aldaketa hori begi onez ikusi. Jarrera aldaketa argia izan zen eta bere militanteek eta bere oinarri sozialak ez zuten ongi ulertu. ORTko kide elkarrizketatu askoren iritziz hori izan zen alderdiaren galbidearen hasiera⁸⁴⁵. Zuzendaritzako kide zen Javier Iturbek —Konstituzioaren aldekoa bera— erabakia horrela justifikatu zuen egin genion elkarrizketan: «Ez zen ongi ulertu (...) 10ekoa eskatu genuen eta 7koa eskaintzerakoan onartu egin genuen»⁸⁴⁶. Militanteetako asko orduan hasi ziren ORTregandik aldentzen eta batzuek ez zuten alderdiaren diziplina bete, abstenitzera jo baitzuten: are alderdia uztea ere erabaki zuten askok. Euskal Herrian nabaritu zen bereziki joera hori, bere oinarri sozialek nazio auziarekiko sentsibilitate handia zeukaten eta autodeterminaziorik ez zeukan eta sistema kapitalistaren eredia finkatzen zuten legea onartzea ez zuten zilegi ikusi. Moderazio jarrera horrek bere erreferentziazko sindikatuan ere eragina izan zuen. Alderdiak bezalaxe, Sindikatu Unitarioak Konstituzioa babestea erabaki zuen eta terrorismoaren aurkako manifestazioetan parte hartu zuen. Baina Tafallan zeukan sekzioaren gehiengoak erabaki horri ezezkoa eman zion. Tafallako SUko kideek sindikatua utzi zuten eta CU (Kolektibo Unitarioa) eratu zuten.⁸⁴⁷

Garai berean, ORT terrorismoaren aurkako kritika gogorak egiten hasi zen. Jarrera hori hartzeko argudioa Konstituzioarenaren antzekoa zen: terrorismoak golpismoari eta eskuinari egiten zion mesede eta demokrazia jaioberria, erabat gustukoa ez izan arren, defendatu beharra zegoen. ORTren ustez, eskuin muturreko eta ezkerreko atentatuek bizikidetzak kaltetu eta demokrazia

844 ORTren Euskadiko Komite Nazionala, *Si, y seguir avanzando*, Jose Sanromaren hitzaldia, Iruñea, 1976/XI/19, ORT. Jesus Aos eta Begoña Oizek utzia.

845 Solasaldi grabatu gabea: Silvia Fernandez Viguera. Iruñea, 2018.E6 elkarrizketa: Jesus Mari San Martin Asiain. Iruñea, 2018/XI/15.

846 E2 eta E3 elkarrizketak: Javier Iturbe Ekai. Iruñea, 2018/VII/25 eta 2018/VIII/9.

847 Colectivo Unitario-LAB: *Obreros Somos...* 71-72.Fermin Goñi, «Divergencias entre el SU y la ORT», *El Pais*, 1978/XII/26, online hemeroteca.

arriskuan jartzen zuten. Atentatu horiek soilik militarren eta estatu aparatuko bunker atzerakoien mesederako ziren, estatu kolpe mehatxua handitzen zutelako⁸⁴⁸.

Maila estatalean hartutako erabaki horiek jarrera kontraesankorra sortu zuten eta zenbaitetan aldi berean erreka bereko bi ertzetan egonen balitz bezala ibili zen ORT. Terrorismoaren gaiaren kasuan, esan dugun bezala, atentatu ororen aurka azaldu zen bipolarizazioa sortzen eta demokrazia arriskuan jartzen zuelakoan. Gainera, kasu batzuetan UCD, PSOE eta PC Erekin batera terrorismoaren aurkako manifestazioetan parte hartu zuen eta jarrera horrek «ordena burgesa legitimatzea» eta UCDren politika antiterrorista *de facto* babestea esan nahi zuen⁸⁴⁹. Halaber, 1978ko urrian EAJk Bilbon terrorismoaren aurka antolatu zuen manifestazioan ere parte hartu zuen⁸⁵⁰. Halaber, UCDren Gobernuak terrorismoaren aurka hartzen zituen neurriak demokrazia murrizten eta mugatzeko aitzakia zirela uste zuen: «terroristak bilatzen dituztela diote, baina bide batez euskal herri guztia erreprimitzen dute»⁸⁵¹. Ondorioz, oso modu paradoxikoan, demokraziaren defentsarako diskurtso berberarekin zenbaitetan Euskal Herrian mobilizazio antierpresiboetan parte hartu zuen, eta bestetan politika antiterrorista babestu zuen⁸⁵². Klandestinitate garaian zehar, aldiz, oso bestelako jarrera izan zuen ORTk. Borroka moduak kritikatu arren, ETAko militanteekin elkartasuna erakutsi zuen. 1972an Guardia Zibilak ETAko hiru militante hil zituenean, hitzez hitz horrela zioten:

«(...) ezberdintasun ideologikoak izan arren, garatu beharreko taktikaren inguruko kontzetzio ezberdinak izan arren, borrokalari antifrankista bat erpresioaren biktima erortzen den bakoitzean, aurka egin behar dugu»⁸⁵³.

Horregatik, bere militanteak (batez ere Hego Euskal Herrikoak) nazio auziarekin eta mugimendu antierpresiboarekin oso kontzientziatuta zeuden. Oreka ezegonkor horretan, alderdiak diskurtso antiterroristan sakondu ahala, jarrera berriak bere tradizio politikoarekin talka egin zuen eta zuzendaritzaren eta Euskal Herriko bere oinarri sozialaren arteko dibortzioa areagotu zen.

848 «¡El pueblo vasco exige posturas claras!», *Abenduak 11*, 51 zbk. (1977/XII/1-7), ORTren Euskadiko Komite Nazionala, 4, Jesus Aosek eta Celia Oizek utzia. ORT, *Defender la democracia contra el terrorismo*, (1978/VII/21), ORT-6-6, FPI.

849 Gonzalo Whilhelmi, *Romper el...* 245-246. Emanuele Treglia, «Izquierda Comunista...» 68.

850 «Combatir el terrorismo: una batalla en varios frentes», *En Lucha*, 220 zbk. (1977/X/19-25), ORT, 1-2, <https://archivodelatransicion.es/>.

851 J.G. «Mil detenciones en un mes», *En Lucha*, 186 zbk..(1977/II-III/23-1), ORT, 2, <https://archivodelatransicion.es/>. «... reprimen a todo el pueblo vasco...»

852 ORTren Komite Probintziala, *El Estatuto de Guernica lo necesitamos ya*, 1979/III/31, ORT 6.76., CDHC-EI, Inigo Perez Otxoak utzia. ORTren Komite Probintziala, *A todos los camaradas(De uso interno)*, Iruñea, 1979/X/13 ORT 8.30. CDHC-EI, Inigo Perez Otxoak utzia.

853 «Los verdaderos terroristas», *En Lucha*, 9 zbk. (1972/X), ORT, 8, <http://ort-ujm.es/>

Indarkeria politikoaren gertaera odoltsuek, halaber, ez zuten egoera errazten, hurrengo hilabeteetan ETArek bi adarren indarkeria maila handitu baitzen. Nafarroan, gainera, atentatuok hautsak harrotu zituzten Hego Euskal Herriko erakunde autonomoetan Nafarroak izanen zuen parte hartzearen inguruko eztabaida puri-purian zegoelako. 1979ko urtarrilean Iruñeko Sanduzelai auzoan Poliziaren eta ETAko kideen arteko tiroketa bat izan zen; ETAko 2 kide eta polizia bat hil ziren⁸⁵⁴. Gertatutakoaren aurrean eman beharreko erantzuna eztabaidagai izan zen Nafarroako ezkerreko alderdien artean. Atentatua gertatu eta berehala alderdiak elkartu ziren gertatutakoari zer erantzun eman behar zitzaion adosteko, baina jarrera ez zen erabatekoa izan. EIAk, ESBk, PCEml-k, HASIk, LAIAk, LKIk, PTEk, OCE-BRk alderdiek eta haiei loturiko sindikatu eta gazte erakundeek heriotzak salatu zituzten eta errepresioa gogor kritikatu zuten. Beste alderdi batzuek (EKAk, EMKk, ORTk, PCEk, EAJk eta PSOEek), aldiz, ez zuten agiria sinatu eta ez zuten mobilizazioetan parte hartu. Zentzu horretan, EIAri PSOEek, PCEk edo EAJk izan zuten jarrera ez zitzaion ezohikoa egin, baina EMK eta ORT bezalako alderdiek agiria sinatu ez izana eta urtarrilaren 14ko manifestazioan parte hartu ez izana, alderdi iraultzaileak ziren heinean, oso kritikagarria iruditu zitzaion⁸⁵⁵.

Laster, konfliktibitate ereduaren aldaketaren ondorioz eta sektore hausturazaleen lidergo aldaketa ondorioz ORT oinarri soziala galtzen ari zela nabaritzen hasi zen eta hori alderdiaren barne dokumentazioan islatu zen. Esate baterako, 1979ko martxoko hauteskunde orokorren ondoren bozen emaitza «langile klasearen porrota» izan zela ondorioztatu zuen. Eskuinak bai botoetan eta baita parlamentarietan aurrera egin zuen, baina gainera, herriaren botoaren parte handi bat «jarrera nazionalista burges-txiki erradikalizatueta» mugitu zelako kexu ziren⁸⁵⁶. Egoera horrelaxe deskribatzen zuten:

Herriaren sektore batek modu okerrean lotu ditu gure Alderdia zein UNAI parlamentuan eta handik kanpo aritu den eta herriaren baldintzak hobetzeko borrokatu ez den ezkerrekin. Sektore horrek, etsiturik, konfiantza jarri du bere burua alderdi parlamentarioekiko erabat desberdin modura aurkezten duen aukera politiko batean. HBren botoek ez dute esan nahi herriaren parte hori bere programarekin eta bere hurbileko proposamenekin identifikatzen denik, baizik eta haien ustez alderdi parlamentarioek (zeinekin lotzen baikaituzte) egin ez duten borroka jarraitzeko aukera modura, posibilitate hori errealitatean demagogia baino ez den arren⁸⁵⁷.

854 «Las cuentas de Martin Villa», *Punto y Hora*, 71zbk. (1978/I/19-25), 4-8.

855 «Represión en Navarra: deserción de partido revolucionarios», *Zutik Herria*, *EIAren propaganda aldizkaria*, 2 zbk. (1978/II), EIA, 27-38, Pablo Ibañezek eta Isabel

856 Nafarroako ORTren Komite Probintziala, *Izenbururik gabe*, 1979/III/2, ORT- 12.42. CDHC-EI, Iñigo Perez Otxoak utzia.

857 *Ibid.*

Halaber, egoera hori kontsentsuaren politikarekiko desengainuarekin eta ezkerreko alderdien batasun ezarekin lotu zuten, baina baita «nazionalismoaren eta anarkismoaren» gorakadarekin ere⁸⁵⁸. Bestalde, garai berean, ORTko kide zen Txema Arenazaren txosten batean, HBrena «desengainuaren botoa» zela ondorioztatu zen. Koalizio horri alde positibo eta negatiboak ikusten zizkion, eta horregatik, HBrekin «bidezkoak» ziren aldarrikapenen inguruan batasuna egitea proposatzen zuen; baina aldi berean, «langile abangoardian eta gazterian txertatzen ari diren ideia nazionalisten aurka» borroka ideologikoa egitearen eta koalizio abertzaleari «influentzia esparruak» kentzearen alde azaldu zen⁸⁵⁹.

Egoera ezkorriari buelta emateko neurriak hartu behar zirela ondorioztatu zuten eta besteak beste honakoak proposatu zituzten:

Gure alderdiak, faxismoa bitartean pisu garrantzitsua izan zuenak, Trantsizio prozesuan zehar atzera egin du HBren mesedetan. (...) galdutako irudia berreskuratu behar dugu (...) unitarioa, borrokalaria, serioa, eta parte hartzea sustatu⁸⁶⁰.

Union de Juventudes Maoistas (UJM) alderdiaren gazte erakundean ere militantziaren jaitsiera eta eragin esparruen galera nabaritu zuten. UJMk, esaterako, politika antiterroristarekiko izandako jarreraren ondorioz masekin kontaktua galtzen ari zela ondorioztatu zuen, bereziki Iruñeko zenbait auzoetan (Alde Zaharrea eta Txantrea)⁸⁶¹. Auzo horietan ideia nazionalistak zabaltzen ari zirela zioten, eta horren ondorioz, eragitea kostatzen zitzaizela⁸⁶². Halaber, UJMren ustez, ezker abertzalea Nafarroan «UJM eta Alderdia erasotuz» hazi zen, batez ere Askatasunaren Aldeko Ibilalditik aurrera⁸⁶³. HBren gorakada «Konstituzioaren eta Terrorismoaren bataila irabazi digutelako» izan zela ondorioztatu zuten⁸⁶⁴.

Testigantza idatzi horiek guztiek ziur aski ez dute errealitatea zorrozki islatzen, alderdi iraultzaileek beren dokumentuetan gaizki dimentsionatutako irakurketak egiteko ohitura baitzuten. Baina edonola ere, ezker iraultzailearen eta ezker abertzalearen artean gertatzen ari zen lekuko aldaketaren eredu adierazgarri dira.

PTEren jarrera, ORTrena bezalaxe, oso kontraesankorra izan zen Trantsizioko urteetan. 1977ko hauteskundeetako emaitza apalak eta gero bere espazio politiko propioa bilatzen hasi zen. 1978ko martxoan PTEk I. Kongresua egin zuen eta bertan federalismoaren aldeko aldarria eta

858 *Ibid.*

859 Txema Arenaza, *Informe sobre Herri Batasuna*, 1979/IV/19, ORT-12. 19., CDHC-EI, Iñigo Perez Otxoak utzia.

860 Egilerik gabe (ORT?), *Plan de Trabajo para Navarra*, c. 1979, ORT-21.56., CDHC-EI, Iñigo Perez Otxoak utzia.

861 UJM, *Informe de uniones en Navarra*, UJM-10-7, FPI.

862 *Ibid.*

863 UJM, *Conclusiones del balance*, datarik gabe (C. 1978-79?), UJM-20-7, FPI.

864 UJM, *Valoración de los resultados electorales de marzo*, 1979, UJM-20-7, FPI.

mugimendu sozial berrienganako hurbilpena defendatu zuen. Kongresu horren ondorioz, barne antolaketa federala hobetsi zen eta alderdiaren barne bizitza demokratizatu eta malgutu zen⁸⁶⁵. PTEren prentsan, esaterako, militanteek beren iritzia propioa plazaratzen ahal zuten zuzendariari bidalitako gutunen bidez, hori ORTren *En Luchan* pentsaezina zen. Halaber, 1979ko hauteskunde orokorretan bere espazio politiko propioa eta ezberdindua irudikatzeko «Una izquierda diferente» (Ezker ezberdin bat) leloa erabili zuen.

Euskal Herrian, bestalde, PTEk nazio auzia konpontzeko Euskal Estatutua lehenbailehen onartzea ezinbestekoa zela uste zuen. Horregatik, Euskadiko Ezkerrarekin aliantza lehenestea erabaki zuen, aldi berean estatutista eta kontsekuenteki ezkertiarra zela kontsideratzen zuelako. Hori zela eta, 1979ko hauteskunde orokorretan Bizkaian eta Gipuzkoan PTEko kideak Euskadiko Ezkerrako zerrendetan joan ziren, halaber, urte bereko apirilean Carlos Calderon Gipuzkoako Batzar Orokorretako ordezkari aukeratu zuten EEko zerrendetako partaide gisa⁸⁶⁶. Ezkerreko abertzaletasunerantz egindako hurbilketa hori alderdiaren Euskadiko I. eta II. Konferentzietan (1978ko urtarrilean eta 1979ko ekainean) berretsi zen, zeinetan autodeterminazioaren eta klase borrokaren marko autonomoaren aldeko iritzia pixkanaka bereganatu zituen⁸⁶⁷.

ORTren antzera, PTEk terrorismoaren aurkako eta Konstituzioaren aldeko iritzia izan zuen. Alderdiaren Komite Zentral Federala 1978ko ekainean bildu zen eta Konstituzio proiektua orokorrean «positiboa» zela ondorioztatu zuen, nahiz eta zenbait aspektutan hobetu zitekeela uste zuen⁸⁶⁸. Konstituzio monarkiko eta kapitalista zen arren eta hutsune ugari zituen arren, demokrazia finkatzen zuenez positiboa zen herriarentzako, eta horregatik baiezkoa eskatu zuen.

Baina erreferendum konstituzionalerako Espainiako PTEk baiezkoa eskatu zuen arren, Euskadiko egoera berezia zela eta, Euskadiko Lanaren Alderdiak abstenitzea erabaki zuen⁸⁶⁹. Espainiarentzako baliagarri zena Euskal Herriarentzako zergatik ez zen justifikatzea ez zen erraza izan eta argudio kontraesankorrak eman zituen⁸⁷⁰. Jarrera korapilatsu eta anbigua hartu izanagatik

865 Gonzalo Whilhelmi, *Romper el...* 174-175. Ramon Franquesa, «Estabilización del...» 281-286.

866 «Euskadiko Ezkerra, una izquierda diferente para el País Vasco», *La Unión del Pueblo*, 92 zbk. (1979/II/20), PTE, 10, <https://archivodelatransicion.es> .

867 «Conferencia Nacionales de nuestro Partido en Euskadi y Galicia», *La Unión del Pueblo*, 36 zbk. (1978/I/12-18), PTE, 12, <https://archivodelatransicion.es/>. «Conferencia nacional de Euskadi», azken alea (1979/VI/23), PTE, 11, <https://archivodelatransicion.es/>. Jose Mari Beraza, *Documento Extradinario. Material de debate para la II Conferencia del Partido del Trabajo de Euskadi*, 1979/V, PTE, Pablo Ibañezek eta Isabel Noguerak utzia. Hainbat egile, *Aportación a la Revolución Vasca*, 1980/III/5, PTEKarpeta, LBF.

868 «El antiproyecto de Constitución, básicamente positivo», *La Unión del Pueblo*, 61 zbk. (1979/VII/6-13), PTE, 5, <https://archivodelatransicion.es> .

869 PTEren Nafarroako Komitea, *El pueblo navarro en defensa de la democracia*, 1978/XII, ORT-22.53, CDHC-EHI, Iñigo Perez Otxoak utzia.

870 Consuelo Laiz Castro, *La lucha...* 254-265. Jose Mari Beraza Artola, «Las razones para la abstención en Euskadi», 80 zbk. (1978/XI/29), PTE, 6, <https://archivodelatransicion.es> .

kideen artean nahasmena sortu zen eta ezinegon hori alderdiaren prentsan islatu zen. *La Unión del Pueblo* aldizkarira bidalitako gutunetan, esate baterako, Zaragozako Antonio Peiro ikaslea alderdiaren jarrera batuaren alde azaldu zen: nazionalitate baten eskubide nazionalak ukatzen ziren bitartean Espainiako gainerako militanteek ere babes eman behar ziotela defendatu zuen⁸⁷¹. Sevillako Joven Guardia Rojako (JGRE, alderdiaren gazteriak) militante zen Miguel Benitezek, aldiz, alderdiaren jarrera kritikatu zuen, Konstituzioaren aurkako iritzia baitzeukan eta baieztatu botoa eskatzea jarrera «oportunista eta klandikazionistatzat» hartu zuen⁸⁷². Alderdiak bi jarrera horiek aldi berean mantendu behar izatea oso adierazgarria izan zen; izan ere, Hego Euskal Herriko eta Espainiako giro soziala urruntzen ari zirelako seinale argia zen. Monarkia parlamentarioa Espainian babes sozial sendoa eta kontsentsu zabala lortzen ari zen, baina Euskal Herrian, aldiz, bere legitimitatea kolokan zegoen.

PTEk, ORTk bezala, indarkeria politikoaren auzian UCDren Gobernuari eta ETari erantzukizuna maila berean banatzen zien. ETari «demokraziari kalte egitea» eta «erreakzioa hauspotzea» leporatzen zion; UCDri, aldiz, bere neurri errepresiboekin euskal gizartearen sektoreak ETarantz eta separatismorantz hurbiltzea⁸⁷³. Horregatik, PTEk ere 1978ko udazkenean EAJk Bilbon eta UCDk Madrilen deitu zituen manifestazio antiterroristak babestu zituen. Jarrera horrek, berriz ere, militanteen artean kexa sortu zuen. Juan Sanchez Ramos izeneko Madrileko militante batek, esaterako, manifestazio horietan parte hartzeak UCDren politika antiterroristari babes ematea zekarrela kritikatu zuen⁸⁷⁴. Euskal Herrian, gainera, Euskadiko Ezkerrarekin elkarlana lehenetsi zuenez, ETA militanteen heriotzen aurkako manifestazioetan ere parte hartu zuen. Ikus daitekeen bezala, gai horren inguruko iritzia ez zen bateratua, eta alderdiaren prentsan aldeko eta aurkako jarrerak azaltzen jarraitu ziren⁸⁷⁵.

Lehentxeago ikusi dugun bezala, 1979ko martxoko hauteskunde orokorretan bai PTEk baita ORTk ere emaitza elektoral txarra lortu zuten, eta ondorioz, bi alderdien zuzendaritzek ezusteko batasun akordio bizkorra sinatu zuten. Bi alderdien arteko negoziaketak 1979ko udaberrian zehar luzatu ziren. Ekainaren 29-30ean alderdi bakoitzak bere II. Kongresua egin zuen eta uztailaren 1ean bi alderdiek ofizialki Partido de los Trabajadores (Langileen Alderdia, batzuetan PTE-ORT bestetan

871 Antonio Peiró, «Mas sobre la Constitución», *La Unión del Pueblo*, 65 zbk (1978/VIII/3-9), PTE, 2, <https://archivodelatransicion.es>.

872 Miguel Benitez, «No a la Consitución», *La Unión del Pueblo*, 62 zbk. (1978/VII/13-19) PTE, 2, <https://archivodelatransicion.es>.

873 «Sobre el terrorismo, Euskadi y la consolidación de la democracia. Declaración del Comité Ejecutivo Fed. Del PTE», *La Unión del Pueblo*, 77 zbk. (1978/XI/8-14), 3, <https://archivodelatransicion.es>.

874 Juan Sanchez Ramos, «En contra de las manifestaciones antiterroristas», *La Unión del Pueblo*, 79 zbk. (1978/XI/22-28), 2, <https://archivodelatransicion.es>.

875 Francisco Ortega Sanchez, «Matizaciones sobre las manifestaciones contra el terrorismo», *La Unión del Pueblo*, 80 zbk. (1978/XI/29), 6, <https://archivodelatransicion.es>.

PT soilik) eratu zuten⁸⁷⁶. Euskal Herriko adarrak Euskadiko Langileen Partidua izena hartu zuen (batzuetan ORT-PTE, bestetan ELP). Fusio prozesu hori bi zuzendaritzen arteko akordioaren bidez egin zen eta oinarriek ez zuten prozesuan zuzenean parte hartu. Gainera, alderdi bakoitzeko militanteen arteko errezeloa handia zen eta askok alderdia batasuna gertatu baino lehen utzi zuten⁸⁷⁷. Gainera, tradizio politiko oso ezberdinekoak ziren. Alde batetik, ORTk barne corpus teoriko zurrunagoa eta antolakuntza bertikalagoa zeukan; PTEko kideek gainera, jatorri kristaua zela eta, «santujale»-tzat zituzten⁸⁷⁸. Bestetik, bai antolakuntza aldetik baita ideologikoki ere, PTE malguagoa zen eta 1978ko Kongresutik berritasunetara irekiagoa zen. Euskal Herrian, gainera, PTE nazio auziarekiko sentzibilitate handiagoa garatua zeukan. Ezberdintasun eta errezelo horien erakusgarri Euskadiko PTEko kideek batasunaren aurretik egin zuten txosten bat aurkitu dugu. Bertan Euskadiko PTEko kideak batasuna egiteko uzkur azaltzen ziren, ORTren irudia «kaltetua» zegoela uste zutelako. Gainera, nazio auziari dagokionean, ORTk zituen iritziak beraienak baino «atzeratuagoak» zeudela uste zuten⁸⁷⁹.

Batasun hura ez zen sekula efektiboa izan. Alderdiek batasuna erabaki zutenerako biak gainbeheran murgilduta zeuden eta etengabeko militante galera sufritzen ari ziren. Oinarriko militante askok ez zuten fusioa ilusioz hartu eta kasu batzuetan ORTtik zetozenak eta PTEtik zetozenak bere kabuz elkartzen jarraitu zuten. Porrot nabarmenaren aurrean, PTEkoak izandako agintariak «Alderdi Erradikal» bat eratzeko proposamena egin zuten; hau da, estatu burgesa suntsitzean baino bizitza eredu aldaketan eta gizarte eraldaketan zentratuko zen mugimendua sustatzea proposatu zuten. ORTko zuzendariak, aldiz, ildo leninistari jarraiki alderdi komunista iraultzailearen ideari eustea babestu zuten⁸⁸⁰. Zatiketa errepara ezina zen eta 1980ko erdialderako alderdia desagertu zen⁸⁸¹.

Euskal Herrian alderdi berriak bere espazio propioa bilatu behar izan zuen. Iraganean ORTk PSOErekiko hurbiltasuna erakutsi bazuen ere, sozialistek Erreformarekin erabat bat egin zutela erabat argi geratu zenez, beste aliantza politika bat bilatzen saiatu zen Euskadiko Langileen Partidua. ELPk HB batik bat borroka antierrepresiboan (ETAko kide errefuxiatuen estradizioaren aurka esaterako) aritzen zen indar populista eta burges-txikitizat zeukan eta Gernikako Estatutuaren aurkako muturreko egoera izatea leporatu zion. EE, aldiz, erreformismorantz eta erakundeetarantz

876 Gonzalo Whilhelmi, *Romper el ...* 263-270.

877 E11 elkarrizketa: Pablo Ibañez eta Isabel Noguera. Iruñea, 2019/III/11. Solasaldi grabatu gabea: Jesus Mari Garatea. Iruñea, 2019/X/11.

878 E11 elkarrizketa: Pablo Ibañez eta Isabel Noguera. Iruñea, 2019/III/11.

879 PTEren Euskadiko Komite Nazionala, *Valoración de las elecciones generales en Euskadi*, Gasteiz, (1979/III/8) ORT-56.17., CDHC-EI, Iñigo Perez Otxoak utzia.

880 Ramon Franquesa, «Estabilización del ...» 304-308.

881 Gonzalo Whilhelmi, *Romper el ...* 264-266. Ramon Franquesa, «Estabilización del ...» 309-311.

gehiegi lerratzen ari zen alderdia zela uste zuen, baina Estatutuaren aldeko jarrera koherentea zeukala iruditzen zitzaion⁸⁸². ELPk bi aldarrikapen horiek, antierrepresiboa eta estatutista, bateragarriak zirela uste zuen. Zentzu horretan, Nafarroako Komite Probintzialaren osoko bilera batean ELPk EAJri, PSOeri, PCeri eta EKari borroka antierrepresiboa alde batera utzi izana leporatu zien; baina,aldi berean, EMKk eta HBk Estatutuaren alde egoteagatik erreformistatzat hartzen zituztelako kexu azaldu zen⁸⁸³. ELP bere burua HBren eta EEren artean kokatzen saiatu zen eta biak elkarrengana hurbiltzeko indarra egin zezakeela uste zuen, baina aurreikuspen hori ez zen bete. Arlo sindikalean, bestalde, Trantsizioaz geroztik sindikalismoan bi ildo eratu zirela uste zuen. Alde batetik, «klase sindikalismoa» Hitzarmen Sozialaren aurka zegoen eta jarrera lehiakorra eta konbatiboa zeukana: CSUTek, SUk, eta LABek osatzen zuten. Bestetik, «sindikalismo erreformista» zegoen burgesiarekin paktuak eta akordioak egitea lehenesten zuena eta Hitzarmen Sozialaren aurka behar bezala borrokatzen ez zuena⁸⁸⁴. CSUTen eta SUREn aliantza politika LABerantz bideratu zen eta hiru sindikatu horien artean antolatu zituzten, esaterako, 1979ko udazkenean Langileen Estatutuaren aurkako mobilizazioak⁸⁸⁵.

Alabaina, ORTren eta PTEren arteko batasunak ez zuen luze iraun. Euskadiko Langileen Partidua Espainiakoa baino hainbat hilabete lehenago hautsi zen eta arrazoi nagusia nazio auziaren inguruko ezberdintasunak izan ziren. Batasuna gauzatu eta zortzi hilabete eskasera, 1980ko urtarrilaren 20an, alderdiaren Euskadiko osoko bilera egin zen Donostian. Bilera hartan, etorkizun hurbileko ildo politikoak eta Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak planteamendua adostu behar ziren. ORTko kide ohiek ELPk hautagaitza propioak aurkeztu behar zituela defendatu zuten, PTEko kide ohiek, aldiz, HBri babes eman behar zitzaiola. Alderdiaren organismoak %50ean PTEko eta ORTko kide ohien artean banatuta zeudenez, ordura arteko bilera gehienetan berdinketan geratu ziren bozketa guztiak. Baina egun hartan PTEko kide ohietako batzuek ezin izan zuten bertaratu eta bi korronteen arteko oreka hautsi zen. PTEkoek bozketa galdu eta alderdia uztea erabaki zuten. Orduetik aurrera, Euskadiko Langileen Partiduan soilik ORTko kideak geratu ziren.

882 ELP/PTE-ORT, *Informe y resoluciones del II pleno del Comité Central de Euskadi, 1979/IX/23*, ORT-65.93.,CDHC.EI, Iñigo Perez Otxoak utzia.

883 Alfredo Caparros, *Resoluciones del Primer pleno del comité Provincial de Navarra del Partido de los Trabajadores de Euskadi +Balance de la actividad del Partido de Agosto a octubre, 1979/X/28*, ELP (ORT-PTE), ORT-25. 12.,CDHC.EI, Iñigo Perez Otxoak utzia.

884 ELPTen Lotura Komitea, *Partido de los Trabajadores de Euskadi. (Movimiento Obrero de Navarra)*, Langile Mugimenduari buruzko liburuxka, Iruñea, 1979/X/10, ORT-21.54 CDHC-EI, Inigo Perez Otxoak utzia. SUREn Ekintza Aldarrikatzaileko Idazkaria, *La actividad reivindicativa del año 80*, 1980, ORT-50. 39, CDHC-EI, Inigo Perez Otxoak utzia.

885 Emilio Majuelo Gil, *LAB sindikatuaren...* 86-87. Juan Carlos Alastruei, «Una gran lucha de la clase obrera en Euskadi», *Yesca*, 4 zbk. (1979/XII/4), PT, 6, <https://archivodelatransicion.es> .

PTEko kide ohiek biltzar bat egin zuten eta gertatutakoaren iritzia *Aportación a la Revolución Vasca* izeneko dokumentuan azaldu zuten⁸⁸⁶. Dokumentu horretan hausturaren arrazoa nazio auziarekiko ezberdintasunen ingurukoa zela ondorioztatu zuten, izan ere, Euskadiko PTE ORTrekin fusionatu baino lehen nazio auziaren inguruko hausnarketa egiten hasia zen eta hurbilketa horien mugariak arestian aipatu ditugun I. eta II. Konferentzian ezarri ziren. Alderdia euskal nazionalismorantz hurbildu zen eta «Euskadin klase independentismoaren alde» egin behar zela defendatu zuten. Bere tradiziozko jarrera sukurtsalistatik ihesi «alderdi komunista iraultzaile, independente eta subiranoa» eratu behar zela defendatu zuten «Euskadiko klase borrokaren marko autonomora moldatzen» zena⁸⁸⁷. Funtsean, jarrera horiek hartzea ezker abertzalearen oinarri teorikoak bereganatu zituztela esan nahi zuen. Zentzu horretan CSUT sindikatua desagertu eta gero, askok LABen sartzeko erabakia hartu zuten (batez ere Iruñerrian, Erriberan aldiz ez). SEATEk Landabenen zeukan lantegian, esate baterako, CSUTko kideen erdia LABera joan zen eta beste erdiak Confederación General del Trabajo (CGT) sindikatuan bukatu zuen⁸⁸⁸. Galizian ere CSUT nazionalismo galiziarraren sindikalismora hurbildu zen⁸⁸⁹.

Aurrerantzean Euskadiko Langileen Partiduko siglen azpian soilik ORTko militante ohiak elkartu ziren. Egoerari buelta emateko kongresua egiten saiatu zen, eta kongresu hartarako eztabaidetan PTEko militante ohiak proposatutako testuak ere eztabaidatu ziren⁸⁹⁰. 1980ko ekainean egin zen Kongresu hartan alderdiaren krisiaren faktore modura «borroka nazionala ahaztea, aliantza politika txarra, sektore borrokariaren mesfidantza eta borroka antierrepresiboan presentzia eduki ez izana» zerrendatu ziren⁸⁹¹. Alferrik izan ziren eztabaida, kongresu eta saiakera guztiak, hurrengo hilabeteetan alderdiaren barne bizitza makaldu eta ahitu zen, eta 1981 hasierarako alderdia desagertu zen⁸⁹². Baina ordurako alderdiaren barne bizitza hain zegoen ahulduta oinarrietako militante batzuek ez zutela zehatz mehatz jakin alderdiaren disoluzioa noiz gertatu zen⁸⁹³.

886 Hainbat egile, *Aportación a la revolución vasca*, Iruñea, 1980/I/26, PTEko kide ohiak, <https://archivodelatransicion.es/>.

887 Carlos Calderon, «Trabajo para debate. Apuntes sobre la cuestión nacional», *Aportación a...* 42. «Las decisiones de la Asamblea. Nota de prensa», *Aportación a...* 85.

888 E11 elkarrizketa: Pablo Ibañez eta Isabel Noguera. Iruñea, 2019/III/11.

889 Ramon Franquesa, «Estabilización del ...» 313.

890 Euskadiko Langileen Partiduaren Komite Probintziala, *Camarada*, 1980/IV/15, ORT-21. 58. CDHC-EI, Iñigo Perez Otxoak utzia. «Resoluciones de la Asamblea de militantes del Partido del Trabajo», *Ezten, Boletín de Debate*, 0 zbk. (Bilbo, 1980/IV/16), ELP, 35-42, <https://archivodelatransicion.es/>. Fermin Goñi, «El PT de Euskadi rechaza la tesis de Eladio García Castro», *El País*, 1980/VI/8.

891 *Boletín del Comité Provincial de Navarra. Aldizkaria*, 1 zbk., (1980/VI/21), ELP, ORT-30.3. <https://archivodelatransicion.es/>.

892 Solasaldi grabatu gabea: Javier de Miguel. Barañáian, 2020/III/6

893 E1 elkarrizketa: Felix Rey Bakaikoa. Iruñea, 2018/VI/25.

ORT eta PTEren amaiera ez zen xamurra izan. Bi alderdiok hauteskunde kanpainak finantzatzeko eta egoitzak irekitzeko gastu handiak izan zituzten eta horretarako militanteek beren izenean mailegu eta hipoteka ugari eskatu behar izan zuten⁸⁹⁴. Gonzalo Whilhelmiren arabera 1979an ORTren zorra 66.000.000 pezetakoa zen eta PTErena 180.000.000koa⁸⁹⁵. Alabaina, alderdiak desagertzerakoan diru sarrerak eten ziren eta militanteek beren poltsikoetatik aurre egin behar izan zieten ordainketei. Horren ondorioz liskarrak izan ziren. Halaber, PTEko kide ohi batzuk dirua faltsutzeagatik atxilotu eta epaitu zituzten, baina epaiketan ez zen argi geratu alderdiko zuzendaritzak prestatutako eta zorrak kitatzeko saiakera bat izan ote zen⁸⁹⁶.

EMKk, arestian esan bezala, Trantsizioko urte giltzarrietan jarrera posibilista eta pragmatikoa izan zuen. Baina 1977ko hauteskundeetatik aurrera, jarrera erradikalagoetarantz hurbilduz bere burua berregokitu behar izan zuen. Jarrera aldaketa hura 1978ko II. Kongresuan gauzatu zen. Bertan erradikaltasunerako itzulera erabaki zuten MCko kideek, eta horretarako, alderdiaren izaera leninista berrindartzea eta mugimendu sozial berriengana irekitzea adostu zuten. Aldi berean, erradikalizazio prozesu horren ondorioz, sortze bidean zegoen Erregimen berria gaitzetsi zuten eta kontsentsu politikaren aurka azaldu ziren. Halaber, aurreko fasean alderdi demokratiko guztiekin aliantzak egitean defendatu bazuen ere, Trantsiziotik aurrera EMKk alderdi hausturazaleekin (bereziki HBrekin) elkarlanean aritzea lehenetsiko zuen⁸⁹⁷. EMKk 1978ko lehen hiruhilekora arte ETaren atentatuak kritikatu zituen, beti ere borroka armatuaren pragmatismo iraultzailearen inguruko kritikak eta sekula ez etikoak. Baina ordutik aurrera, bere gainbeherari aurre egiteko goraldian zetorren HB koalizioari babesa ematea erabaki zuen, eta beraz, ETarekiko kritika asko leundu zuen, ia publiko ez egiteraino.⁸⁹⁸

EMKk Konstituzioaren aurrean «abstentzio negatiboa» eskatu zuen; monarkikoa, kapitalista, atzerakoia, autodeterminazioaren aurkakoa izateagatik eta aldarrikapen feministak ez betetzeagatik kritikatu zuen⁸⁹⁹. Kanpainako leloa «Ezkerreko botorik ez eskuineko Konstituzio batentzat» izan zen. Gernikako Estatutuarekin jarrera, argudio eta boto berberak defendatu zituen eta HBrekin eta LK Irekin Estatutuaren aurkako blokea osatu zuten⁹⁰⁰.

894 Ramon Franquesa, «Estabilización del ...» 301. E6 elkarrizketa: Jesus Mari San Martin Asiain. Iruñea, 2018/XI/15.

895 Gonzale Whilhelmi, *Romper el...* 170-175.

896 ELPko Komite Exekutiboa, Izenbururik gabe, Bilbo, 1979/IX/5, ORT-53.9 CDHI-EI, Iñigo Perez Otxoak utzia. E11 elkarrizketa: Pablo Ibañez eta Isabel Noguera. Iruñea, 2019/III/11. E3 elkarrizketa: Javier Iturbe Ekai. Iruñea 2018/VIII/9. Fermin Goñi, «Juicio contra ex militantes del PTE acusados de falsificación de moneda», *El Pais*, 1981/I/21, online hemeroteca.

897 Jon Kortazar Billelabeitia, «EMK. Historia...» 1104-1106. E5 elkarrizketa: Jesus Urrea Bidaurre. Iruñea, 2018/X/30.

898 E5 elkarrizketa: Jesus Urrea Bidaurre. Iruñea, 2018/X/30.

899 *Ibid.*

900 «Ningun voto de izquierdas al estatuto de la burguesía», *Zer Egin?*, 46 zbk (Erreferendumeako ale berezia, 1979/X), EMK,4-5, BAP.

Aldaketa hori, erradikalizazioaren itzulera eta leninismoaren printzipio ortodoxoagoak berreskuratzearena, bi faktoreren eraginez gertatu zen. Alde batetik, Trantsizioa PCEk eta PSOEk beren tradizio ideologikoaren funtsei uko egin zien garaia izan zela kontuan hartu behar dugu: PSOEk marxismoa baztertu zuen eta PCEk leninismoa. Alderdi erreformisten uko egiteko giro hori zabaltzen zen bitartean, MCK leninismoaren funtsetan egin zuen finkatze horrekin bere izaera iraultzailea berrindartu nahi izan zuen⁹⁰¹. Bestaldetik, Consuelo Laizek MCren iraultzailetasuna eta sistemarekiko aurkakotasuna Euskadin zeuden kontsentsu zailtasunekin lotu izan du. MCren federazio sortzailea eta militante kopuru mardulena zeukana EMK zen eta horrek alderdi estatalarengan eragina zuzena izan zuen⁹⁰². ORTren eta PTERen kasuan ez bezala, Euskal Herriko eta Espainiako mailan alderdia norabide berean mugitu zen eta horrek barne koherentzia mantentzen lagundu zion. EMKk modu eraginkorragoan jakin zuen HBrengana hurbiltzen. Eztabaida eta kontraesan ugari izan arren, bere magalean gordeta eta gizarte mugimenduetan parte hartzen egoera berrira moldatzea lortu zuen. Nahiz eta militante ugari eta eragin esparruak galdu, Trantsizioari bizirautea lortu zuen.

Gainera, handik gutxira OIC-EKE alderdia xurgatzea lortu zuen, jasaten ari zen militante galera eteten lagundu ziona. OICk 1977ko hauteskundeetan LBF-FUT koalizioan parte hartu zuen. Baina hauteskundeetan koalizioak lortu zuen emaitza txarra zela eta, alderdiak barne krisi larria bizi izan zuen. Ordura arte Idazkari Nagusi izana zenak (Didac Fàbregas, ezizenez Pajaroloco) alderdia sozialdemokraziarantz hurbildu nahi izan zuen. Zuzendaritza ez zen erabaki horrekin bat etorri eta Fàbregas alderditik bidali zuten⁹⁰³. Alderdiaren egoera larriaren aurrean, eta agerikoa zen desagertze arriskuaren ondorioz, oso modu bizkorrean MCrekiko integrazio prozesu batean murgildu zen. Arrapaladan II. Kongresua (1978ko martxoaren 23-25) antolatu zuten⁹⁰⁴. Hilabete horietan OICk bere corpus teoriko eklektiko eta kontseilistaren inguruko autokritika egin behar izan zuen, hori izan baitzen MCK fusiorako jarritako ezinbesteko baldintza. Horregatik 1979ko otsailean egindakoa *Batasun* Kongresutzat hartu bazuten ere, berez xurgapen bat izan zen, MCren oinarri teorikoen gainean egin baitzen⁹⁰⁵. Arrazoi horiek zirela medio, zenbait eskualdeetan batasun prozesu hori ez zen arrakastatsua izan eta OICko kide askok ez zuten alderdi batu berrian parte hartu nahi izan. Hala ere, Iruñeko OIC-EKERen kasuan, bestelakoa izan zen, bi alderdien arteko batasuna arazo

901 Javier Fernandez Rincón, «Cambio de Rumbo...» 1106-1109.

902 Consuelo Laiz Castro, *La lucha...* 29.

903 Joel Sans Molas, *Militancia, vida...* 497-516.

904 «II Congreso de OIC», *Iraultza*, 26 zbk (1978/IV/15), OIC-EKE, 13-15, Aldizkariak, LBF.

905 MC-OIC, *Hacia la unidad de la izquierda Revolucionaria*, Resoluciones y documentos del Congreso de Unificación, 1979, BAP.

handirik gabe egin zen eta. Gaur egun oraindik OIC-EKEko kide izandako zenbaitek Batzarreko kide izaten jarraitzen dute⁹⁰⁶.

IV. Internazionalako alderdiek ere militantzia krisia jasan arren egoera berrira moldatzea lortu zuten. LC eta LCR 1972an zatitu zirenetik elkarrengandik bereizirik egon ziren eta hurrengo bost urteetan «elkarri entzungor egin» zioten⁹⁰⁷. LCRk zein LCk erregimen frankistaren amaiera ez-iraultzailea ezinezkoa izanen zela uste izan zuten, baina hauteskundeak eta gero Konstituzio berria egiten hasi zenean Erregimen parlamentarioa modu eraginkorrean errotu zela onartu behar izan zuten. Gainera, bai LCRk baita LCk hauteskundeetarako hartutako taktikaren porrota aitortu behar izan zuten.

LCk egoera berriari barne eztabaida larriekin eta zatiketa handiekin egin behar izan zion aurre. 1977ko urrirako antolatu zen IV. Kongresuan aurreko kongresutik zetozen tendentzian zatituta egin zen, eta urte hasieran zeuzkan 700 militanteetatik soilik 400ek parte hartu zuten⁹⁰⁸. Alderdiaren barneko tendentzia batzuek (tartea Juan Colomarren Tendetzia Marxistak) ez zuten kongresuaren legitimitatea onartu eta alderdia utzi zuten. Kongresu hartan hauteskunderi boikota egiteko, CCOOri langile izaera ukatzeko eta LCR kritikatzeko erabakiak okerrak zirela errekonozitu zuten. Ordutik, aurrera Espainian IV. Internazionalaren alderdi bakarra egon behar zuela aldarrikatu zuten, eta epe hurbilean LCRrekin birbatzeko erabakia hartu zen. Urte bereko abenduaren 18tik aurrera LC eta LCR alderdien organo guztiak maila parekidean batu ziren⁹⁰⁹. Erabaki hori 1978ko urriko Batasun Kongresuan berretsi zen; bi alderdien ibilbideari aitorpena egiteko V. Kongresu izendapena izan zuena⁹¹⁰. Kongresu hartan, LCren eta LCRren arteko batasuna berrestez gain, diktaduraren eraispen iraultzailea zergatik ez zen gertatu eztabaidatu zen. Diktaduraren erreforma bidezko bukaera hiru gertakari nagusiri leporatu zitzaizkien: burgesiak izan zezakeen berreskuratze ahalmena gutxietsi izan zutela, ezkerreko alderdi nagusiek «paper kolaborazionista» izan zutela eta langile borrokek eragin mugatua izan zutela⁹¹¹. Kongresu hartan artean militanteen artean «desorientazio» eta «ziurgabetasuna» zegoela nabaritu zen. Ondorioz, barne zatiketa handia izan zen, eta bozketetako emaitzek iritzi banatua islatu zuten⁹¹². LCR izan zen ezkerreko alderdien artean

906 E19 elkarrizketa: Ana Arillo eta Feli Otegi. Iruñea, 2019/XI/25. Solasaldi grabatu gabea: Txomin Garmendia. Berriozar, 2019/III/1.

907 Ramon Contreras, «La Liga...», 89-92.

908 *Ibid.*

909 LCR eta LCren Komite Zentralak, *Bases políticas de la reunificación LCR-LC*. 1977/XII/17-18, BAP. <https://www.historialcr.info/> ere eskuragarri

910 *Resoluciones del Vº Congreso LCR-LC*, 1978/10, LCR, BAP. <https://www.historialcr.info/> ere eskuragarri.

911 «El fin de la dictadura franquista. Capítulo I», *Resoluciones del Vº... 9*.

912 Joel Sans Molas, «Entre las...» Jaime Pastor, «Del debate constitucional al triunfo electoral del PSOE (1978-1982)», Marti Causa, Ricard Martínez I Muntada, *Historia de...* 112-115.

Konstituzioari buruzko erreferendumean ezezko botoa eskatu zuen bakarrenetakoa⁹¹³. Halaber, Gernikako Estatuaren kasuan, abstentzioa eskatu zuen Euskadiren subiranotasun nazionala eta autodeterminazioa ukatzen zituelako. Kanpaina honetako leloa «Estatutoarekin Euskadi berdin, Autodeterminación. Botorik ez» izan zen⁹¹⁴. EEren leloen kontura irri egin nahi zuen leloa zen, azken horiek «Estatutuarekin Nafarroa Euskadin» eta «Estatutuarekin, Presoak Kalera» aldarrikatu baitzuten.

LC eta LCRren arteko batasun prozesua oro har positiboa izan zen eta lurralde gehienetan aparteko gatazkarik gabe bi alderdietako kideak ongi integratu ziren. Baina Nafarroan arazoren bat izan zen LCRko eta LCko jatorria izan zutenen artean⁹¹⁵. Ordurako alderdi ezkertiarrek gainbeheran zeuden eta Iruñeko Verbo Divino-an egin zen konferentzian 300 pertsona elkartzea lortu bazuten ere bien arteko batasunak ez zituen militante eta jarraitzaile izandako guztiak elkartzea lortu «asko etxean geratu zirelako»⁹¹⁶.

Hurrengo urteetan LKIk ere HBrekiko hurbilketa prozesua abiatu zuen, baina 1980ko hamarkadan iraultzaileen espazio propioa eratzen saiatu zen. LAIArekin, EEtik zatitutako Nueva Izquierda taldearekin eta ESK-CUISetik (Ezker Sindikalaren Koordinakundea-Coordinadora Unitaria de Izquierda Sindical) zein ORT eta PTE desagertuetatik zetozen militanteekin Auzolan koalizioa (1983-1986) sortu zuten. Koalizio horrek EEren erreformismoaren eta HBren populismoaren artean kokatu nahi zuen bere burua eta militante iraultzaileak bildu eta elkartu nahi izan zituen, baina proposamen hark ez zuen ibilbide luzerik izan⁹¹⁷. Tesi honetarako elkarriketatu ditugun hainbat lagunek koalizio hartan parte hartu zuten: LKIkoez gain, EMKko Martin Landak, ORT Javier de Miguelek eta Javier Urrozek eta PTEko Patxi San Juanek esaterako.

PCEml-k, bestalde, 1975ko udako kanpaina armatuaren ondoren barne arazo larriak izan zituen eta hainbatek alderdia utzi zuten. Hala ere, alderdiak borroka armatuak Erreforma geldiarazteko zeukan ezintasuna ikusita FRAPen eginkizuna bertan behera geratzea erabaki zuten.

Arestian esan bezala, PCEml-k ez zuen masa mobilizazioekin bat egiterik lortu eta ia beti masa-borroka gehienengandik bereizirik egon zen. Baina Trantsiziotik aurrera ezker iraultzailearen gainbeherekin batera joera hori indartu zen. Hala ere, Trantsizioan zehar bere inguruan eragin

913 Jaime Pastor, «Del debate ...» 111-112. E14 elkarrizketa: Felix Jimenez Morales, Iruñea 2019/VII/23.

914 «Por la autodeterminación: abstención», *Combate*, 166 zbk. (1979/X/17-23), LKI, 4, Doc. 6.24, <https://historialcr.info>.

915 E12 elkarrizketa: Vicente Duque Alonso. Iruñea, 2019/V/12. «Acta del Pleno del Comité Nacional del 8 de dic. 77», *Euskadi*, 5 zbk. (1977/XII/14), LKI, SSF.

916 E8 elkarrizketa: Patxi Urrutia Jauregi. Iruñea, 2018/XII/20. Solasaldi grabatu gabea: Mentxu Belasko eta Juanjo Eziolaza. Iruñea, 2019/XI/15.

917 Francisco Letamendia Belcunce *Ortzi, Historia del...* III. Liburukia, 38-41. Marti Causa, «Gobierno del PSOE: cambio de ciclo y reorientación (1982-1985)», Marti Causa, Ricard Martinez i Muntada, *Historia de ...* 134-137. David Beorlegui Zarranz, *Transición y ...* 217.

esparru mugatua eratzea lortu zuen. Izan ere, PCEml-k Gerra Zibilean fusilatutakoen gorpuzkiak aurkitzeko ekimenak martxan jarri zituen eta aldarrikapen errepublikanoei irmoen eutsi zien alderdiaren irudia ematea lortu zuen⁹¹⁸. Horregatik, Guerra Zibilean fusilatutakoen senideekin harremana estutzea lortu zuten, tartean PSOEtik kanporatutako hainbat lagunekin, besteak beste, Rafael Zalacain eta Jose Antonio Carpintero⁹¹⁹. Horiekin batera, PCEml-k Unidad Popular izeneko plataforma eratu zuen, Konstituzio Erreferendumaren kanpainan ezezko botoa eskatzeko eta 1979ko hatueskunde orokorretan Izquierda Republicana hautagaitza aurkezteko⁹²⁰. Hurrengo urteetan, zurruntasun ideologikoa zela eta ezkerreko gainerako korronteetatik zokoraturik geratu zen, 1992an disolbatu zen arte.

Gatazka sozialek hartu zuten forma berriaren aurrean eta nazio auziak hartu zuen garrantziaren ondorioz, militante ezkertiar ugari nazio auziaren ingurura hurbildu ziren. Euskal Herrian ez ezik Katalunian ere horrela gertatu zen. Orain arte aipatu ez dugun arren, ezker abertzaleak izan zuen erakarpen ahalmenaren beste etsenpluetako bat OCE-BR (Organización Comunsita de España-Bandera Roja, Espainiako Erakunde Komunista-Bandera Gorria) alderdiarena izan zen. Alderdi hori 1968an sortu zen oraindik sortze prozesuan ari zen PCEi-ren zatiketa batetik. Bere corpus ideologikoa ez-ohikoa eta eklektikoa zen; izan ere, maoismoaren, leninismoaren, althusserismoaren, poulantzismoaren, sozialismo libertarioaren eta Fernando Claudinen pentsamenduaren ezaugarriak uztartu zituen⁹²¹. Masa-borrokaaren alde egin zuen eta ondorioz unibertsitateetan, irakaskuntzan, profesionalen eta katoliko aurrerakoien artean eragina izan zuen. Bartzelonako auzo mugimenduan, halaber, paper aitzindaria izan zuen⁹²². Alderdi honek ez zuen presentzia handirik Nafarroan, baina 1970eko hamarkadaren bukaeran Kataluniatik militanteak bidali zituzten Hego Euskal Herrian alderdia errotzera eta finkatzera. Testigantzetan zein dokumentazioan alderdi honen presentzia ahula eta berantiarra identifikatu dugu⁹²³. 1979ko ekainean zatiketa handi bat bizi izan zuen alderdiak. Katalunia, Euskal Herria, Galizia eta Asturiasko adarrek nazionalismo periferikoekin ulergarritasun gehiago eta antolakuntza autonomoagoa aldarrikatu zuten. Alderdiaren adar horietan ezker iraultzaile «estatalistaren» gainbeheraren ondorioz eta nazionalismo iraultzailearen gorakadaren ondorioz nazionalismo

918 Gonzalo Whilhelmi, *Romper el...* 227-228.

919 E20 elkarrizketa: Alvaro Zaratiegi Jurio. Iruñea, 2019/XII/23.

920 «Se intisifica la campaña de mitines en Euskadi», *Egin*, 1978/XI/28, 6.

921 Josep Maria Solé, *Bandera Roja...* Giaime Pala, «Una semilla de discordia la entrada de Bandera Roja en el PSUC», *Revista HMiC: història moderna i contemporània*, 9 zbk. (2011), 140-163.

922 Ricard Martínez I Muntada, «La izquierda revolucionaria de ámbito estatal. Una brevisima historia», *Viento Sur*, 126 zbk. (2013/I), 111-112.

923 Solasaldi grabatu gabea: Feli Otegi eta Tere Gonzalez. Iruñea, 2019/XI/21a.

iraultzailearenganako hurbilpen prozesua bizi zuten⁹²⁴. Zuzendaritza estatalak joera hori baztertu zuen eta Kataluniako adarraren gehiengoak eta Euskal Herriko osotasunak alderdia utzi zuten. Kataluniako militanteak Nacionalistes d'Esquerra-n (NE, Ezkerreko Nazionalistak) sartu ziren eta Euskal Herrikoak HASIn, KASen eta LAB sindikatuan⁹²⁵. Hainbestekoa izan zen OCE-BRko kideek abertzaletasunarekin izan zuten identifikazioa batzuek ETAn militatzeko urratsa ere egin zutela. 1980an Carlos Lucio Euskadiko Bandera Rojako buru izandakoa Guardia Zibilarekin izandako tiroketa batean hil zen⁹²⁶.

Esparru sindikalean, elektoralean ez bezala, ezker iraultzailearen eraginak luzaroagoan iraun zuen, baina murrizteko joera izan zuen baita ere. 1978an zein 1980an hauteskunde sindikalak egin ziren. Bi deialdietan Espainiako mundu sindikalarekiko ezberdintasun handiak zituzten emaitzak izan ziren; izan ere, hautagai independenteek hauteskundeak irabazi zituzten, SUK eta CSUTek emaitza elektoral ona lortu zuten 1978an, eta gainera, sindikatu abertzaleek (LABek eta ELAk) ordezkaitza lortu zuten, beraien emaitza apala izan zen arren. Horrek guztiak, estatu mailako bi sindikatu handienek (CCOOk, UGTk eta USOk) gainerako lurraldeetan baino ehuneko txikiagoa lor zezaten eragin zuen⁹²⁷.

924 Bandera Roja, «Las elecciones y la izquierda revolucionaria», *Egin*, 1979/IV/19, 16.

925 «Ex militantes de OCE se integran en HASI y KAS», *Egin*, 1979VI/30, 10. «Entrevista a Joseba Perez. La disolución de Bandera Roja», *Punto y Hora*, 143 zbk. (1979/IX/20-27), 28-29.

926 Antonio Gonzalez, «Cuatro muertos y tres heridos en una emboscada a fuerzas antiterroristas de la Guardia Civil», *El País*, 1980/VI/15, online hemeroteca.

927 Fernando Mendiola Gonzalo, «El mundo del trabajo en la comarca de Pamplona durante la Transición. conflictividad laboral, género y estrategias familiares», *La transición a la democracia en España: actas de las VI Jornadas de Castilla-La Mancha sobre Investigación en archivos*, Vol. 2, 2004, 13-14, <https://labur.eus/VBoLc> (2020ko urrian kontsultatua).

8. Koadroa: Nafarroako 1978ko eta 1980ko hauteskunde sindikalen emaitzak

1978		1980	
Sindikatura	Emaitza %	Sindikatura	Emaitza %
Independenteak	26,5	Independenteak	32,68
CCOO	17,2	UGT	15,36
SU	15,22	USO	12,12
UGT	14,45	CCOO	8,87
CSUT	10,75	ELA	8,35
USO	6,09	LAB	4,2
ELA	4,22	SU	1,08
LAB	3,34	CSUT	0,86
CGCM	0,95	Besteak	0,86
STE	0,56		
Besteak	0,66		

Francisco Javier Caspistegi, Maria Luisa Garde Etayo, «Navarra, ¿reforma o ruptura?», Jose Luis Ramirez Sádaba, *Democratización...* 160-165.

Esan bezala, langile mugimenduaren sektore erradikalizatuak ez ziren bat-batean desagertu. 1978an, bai CSUTek, bai SUk, baita CCOOk ere (kontuan hartu behar da, orduan Nafarroako CCOOren indar nagusia EMK zela eta LKiko kideek ere parte hartzen zutela) oso emaitza onak lortu zituzten. Gainera, *independete* etiketaren atzean (zenbaitetan apolizismoa egon zitekeen arren) askotan ezkerreko sindikalistek osatutako zerrendak zeuden eta langileek beren lankideengan konfiantza zuten⁹²⁸.

Alabaina, 1979tik aurrea lan munduan aldaketak gertatzen hasi ziren. Alde batetik, CCOO estatalak Nafarroako federazioa modu burokratikoan desegin zuen eta EMKren aldekoak kanporatu zituen⁹²⁹. Izan ere, EMKk Moncloako Itunaren edo Konstituzioaren inguruan zituen iritziak ez zituzten oso ongi ikusten sindikatuaren barrenean. Espainiako MCK ere CCOOn parte hartzen zuen arren, toki gehienetan gutxiengoan zegoen. Baina Nafarroan EMK erradikalaren indarra arriskutsuegia zen eta hura kanporatu zuten sindikatuaren ildo nagusiari trabarik ez egiteko. CCOOk 1980an izan zuen beherakada sindikatuan gertatutako zatiketa horren ondorioz izan zen. Orduetik aurrera, LKI eta PCE izan ziren Nafarroako CCOOko kide nagusiak eta troskistak

⁹²⁸ Emilio Majuelo Gil, *LAB sindikatuaren...* 87 eta 116.

⁹²⁹ Solasaldi grabatu gabea: Manuel Burguete. Barañain, 2019/X/7. Fermin Goñi, «Fuerte contestación al PCE en Comisiones Obreras de Navarra», *El País*, 1979/XI/17, online hemeroteca.

gutxiengoan geratu ziren PCeren aldean. UGTn ere LCtik zetozen LKiko militanteak bazeuden, baina horiek ere kanporatu edo baztertu zituzten eta bere eragiteko ahalmena asko gutxitu zen⁹³⁰. Bestetik, PTE eta ORT alderdiaren gainbeheraren ondorioz 1980an CSUTek eta SUk jaitsiera nabarmena izan zuten.

Hala ere, kasu askotan SUko, CSUTeko eta LABeko militante ugari zein CCOOtik kanporatutako EMKko kideek oinarrietatik bultzatuta ezkerreko alternatiba sindikal asanbleario eta unitarioak bultzatu zituzten lantokiz lantoki. Horiek denek batzuetan CUI (Candidatura Unitaria de Izquierdas) deitu izan zirenak osatu zituzten. Horregatik, 1980eko emaitzetan gertatutako hautagaitza independenteen igoera esperientzia baterakoi eta asanblearioei dagozkio⁹³¹. Mota horretako alternatiba sindikalek antolaketa eredu malgua zuten eta hainbat izen ezberdin izan zituzten, baina denborarekin, azkenean elkarren artean koordinatu eta ESK-CUIS sindikatua eratu zuten 1985ean.

Ezker abertzaleak arlo sindikalean ere esparru estataleko ezker iraultzailea erakartzeko ahalmena izan zuen. LABek —HBk bezala— kasu askotan CSUTetik eta SUTik eratorritako sektoreak erakarri zituen, Landabengo SEATEko kideen artean, esaterako⁹³². Hurrengo urteetan ere LABek sindikalismo erradikalaren erakarpen poloa izaten jarraitu zuen eta 1980ko hamarkadaren bukaeran, esaterako, Tafallako CU sindikatu asanblearioak sindikatu abertzalean sartzea erabaki zuen⁹³³. Baina LABen hazkundera apala izan zen, eta egun duen indarra lortzera arte urte dezente pasatu beharko ziren.

ORTk, bestalde, Erriberako landa munduan hainbat eragin esparru garrantzitsu zeukan. Besteak beste, UAGN (Unión de Agricultores y Ganaderos de Navarra) nekazari sindikatuen eraiketan parte hartu zuen, eta jornalarien Sindikatu Unitarioa eratu zuen⁹³⁴. Halaber, Cadreitako nekazariak Alburquerqueko markesarekin izandako gatazketan parte hartze garrantzitsua izan zuen. Esperientzia horiek guztiak jasotzeko eztabaida talde bat eratu zen: ARRE (Alternativas Rádicales de la Ribera del Ebro) Errioxa, Aragoi eta Nafarroako nekazariak elkartu zituena⁹³⁵. Baina, ORTk

930 Mikel Bueno Urritzelki, *El PSOE y la UGT en Navarra (1974-1982): creación, formación y desarrollo*, Doktore Tesia, Emilio Majuelok Zuzendua, NUP, Iruñea, 2020.

931 Fermin Goñi, «Los independientes ganan en Navarra», *El País*, 1980/XI/22, on line hemeroteko. Solasaldi grabatu gabea: Javier Urroz. Iruñean, 2018an.

932 E11 elkarrizketa: Pablo Ibañez eta Isabel Noguera. Iruñea, 2019/III/11. Solasaldi grabatu gabea: Benito Uterga. Iruñea, 2020/III/11.

933 Colectivo Unitario-LAB, *Obreros Somos...* 120 eta 128.

934 E7.1 eta E7.2 elkarrizketa: Angel Oliver Santos. Iruñea, 2018/XI/23a eta 2019/I. Edurne Yanizekin batera, Nafarroako Oroimen Historikoko Funts Dokumentalean depositatua. E17 elkarrizketa: Jesús Casajús Martínez. Iruñea, 2019/VIII/26. Jose Maria Giganto Martínez, «Sindicalismo e...»774-775 eta 782. Emilio Majuelo Gil “Movimientos sociales ...”, 312.

935 ARRE, *Segundo debate Campesino: La lucha y la defensa de los renteros y medieros. Cadreita. 28 de mayo de 1978*, Hordago, Donostia, 1978. ARRE, *Cuarto debate campesino; vivir del Ebro*, Hordago, Donostia, 1979.

eskualde horietan eragin esparru garrantzitsua mantentzeko esperantza zeukan arren, nekazarien mugimendua berehala beste indar politikoen eraginpean geratu zen. Izan ere, UAGNko hainbat kide 1979ko foru eta udal hauteskundeetan (eta hurrengoetan ere) PSN, UPN eta UCDren hautagai izanen ziren.

6.4. Ondorioak.

Kapitulu honetan azaldu ahal izan dugun bezala, 1970eko hamarkadaren erdialdetik aurrera gatazka sozialen konfrontazio ereduak aldatu zen. 1973ko Petrolioaren Krisiak ekonomia kapitalistaren hazkunde garai bati bukaera eman zion eta burgesiak abagunea langile mugimenduaren gorakadari mugak jartzeko baliatu zuen. Langile klasean gertatzen ari ziren aldaketan ondorioz, halaber, langile mugimenduaren papera aldatu zen. Orduan, 1968tik zetorren olatu iraultzailea mantsotzen hasi zen. Hurrengo urteetan artean errebeldia oihartzun batzuk entzun ziren, baina hurrengo hamarkadak politika ekonomiko neoliberalen, desindustrializazioaren eta Hitzarmen Sozialaren garaia izan ziren.

Aldaketa momentu horrek Espainiako estatua eta Nafarroa Garaia diktadura frankistaren eta Monarkia parlamentarioaren arteko Trantsizioan harrapatu zituen. Nafarroako langile mugimendua, ordura arte oposizioko gizarte mugimendu aktiboena zena, esparru estataleko ezker iraultzaileak dinamizatu zuen.

Diktadurak iraun zuen bitartean ezker iraultzaile *sukurtsalista* langile mugimenduarentzako tresna politiko egokia izan zen. Baina, 1980ko hamarkadaren mugan sektore politiko hura krisian murgildu zen eta gizarte mugimenduen lidergoa ezker abertzaleak (HB koalizioaren inguruan elkartu zenak) lortu zuen. Trantsizio prozesuan zehar, burgesiak eta sistema kapitalistak Estatuarentzako legitimazio iturri berriak lortu zituzten; hauteskudeen eta Konstituzioaren bidez hiritarren onarpena lortu zuen. Halaber, langile mugimenduaren gainbeheraren ondorioz, *Elite* eta *Herriaren* arteko konfrontazio ereduak aldatu zen: nazio auziaren inguruko gatazkek protagonismoa lortu zuten eta gizarte mugimendu berriek *obrerismoaren* zentralitatea baztertu kolokan jarri zuten. Egoera berriaren aurrean, borroka antielitistarako tresna berri eta eraginkorragoak behar izan ziren, eta ondorioz, ezker iraultzaileak gizarte mugimenduen erreferente izateari utzi zion ezker abertzalearen mesedetan.

Gizarte mugimenduetan gertatu zen lidergo aldaketa horrek paisaia elektoralean ere eragina izan zuen. Esparru estataleko alderdi iraultzaileen hauteskunde emaitzak asko jaitsi ziren eta Herri Batasunak boto galera horren parte garrantzitsu bat erakartzea lortu zuen. Esparru estataleko ezker iraultzailearen eta ezker abertzalearen arteko lekuko aldaketa hori batez ere oinarri sozialetakoa izan

zen, eta ez horrenbeste alderdien zuzendaritzen artekoa. Hala ere, militanteen bizitza politikoaren jarraipena eginez gero, hainbat eta hainbat kasu topatu daitezke. Ibilbide pertsonal horien jarraipen hurbilago bat egitea interesgarria litzateke dudarik gabe.

Halaber, garai honetan bertan gertatzen hasi zen azken hamarkadotan Nafarroa Garaiko ezkeraren arazo izan den iparralde eta hegoaldearen arteko desoreka. Trantsizio garaian, esparru estataleko alderdiek errotze ahalmen handia zeukaten Erriberan eta aldarri ezkertiar, autodeterminista eta euskaltzaleen bozgorailu ziren. Tuteran EMKk eta PTEk presentzia handia zeukaten eta Erriberako herri txikietan aldiz ORTk. Nolabait esateko, aukera politiko iraultzaileen mapa osatu egiten zuten eta korrante iraultzaile ezberdinen artean ordezkari politiko orekatua izatea lortzen zuten. Baina esparru estataleko ezker iraultzailea gainbeheran sartu zenean, lurralde oreka hautsi zen. Zentzu horretan, Andres Valentinek emaitza elektoralekin egindako mapak oso argigarriak dira⁹³⁶. Mendialde eta Erriberaren arteko zanga hori 1976ko Erreforma Politikorako erreferendumentik bertatik nabaritzen hasi zen. Erreferendum horretan zein 1978ko Konstituzio Erreferendumean Erriberako emaitzek gehin-gehinetan antz handiagoa izan zuten Espainiako emaitzekin Euskal Herriko edo Nafarroa iparraldeko emaitzekin⁹³⁷. Gainera, Erriberako hauteskundeetan Herri Batasunarekiko lekuko aldaketa horrek ez zuen isladarik izan. Ezker erradikalaren irudia eta diskurtsoa nazio aldarrikapenei lotu zitzairen eta horiek oihartzun askoz ere txikiagoa izan zuten Nafarroako eskualde erdaldunenetan.

Esparru estataleko ezker iraultzailearen espazio politikoa murriztu zen ia desagertzeraino; ez soilik elektoralki, sindikalki ere. Hala ere, 80ko eta 90ko hamarkadatan frankismotik zetorren ezker erradikal horrek gizarte mugimenduetan berezko espazio bat mantendu zuen, Nafarroako protesta mugimendu ugariaren sustatzaile bezala. Ezker iraultzaileko militante askok ezkerreko sindikalismoan, mugimendu feministan, auzo mugimenduetan, ekologismoan, gazte mugimenduan, euskalgintzan, NATOri buruzko erreferendumaren ezezko kanpainan edota intsumisioa bezalako borroketan presente egoten jarraitu zuten. Besteak beste, mugimendu feministaren sorrerari ezker iraultzaileak egindako ekarpena ezinbestekoa izan zela azpimarratu behar da. Nafarroako lehendabiziko elkarte eta mobilizazio feministen sustatzaileen artean ezker iraultzaileko alderdietako militanteak egon baitziren. Haiek izan ziren beren alderdietan lehendabiziko aldiz eztabaida feministak sustatu zituztenak, Emakumeak Askatzeko Mugimendua (EAM) eta Koordinadora Feminista sortu eta dinamizatu zituztenak edo 1978an Martxoaren 8ko lehendabiziko manifestazioa antolatu zutenak. Ezker iraultzailearen magalean emakumeen askapenerako hainbat

936 Andres Valentin Gonzalez, «Materiales para un mapa electoral de Navarra», *REIS: Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, 51 zbk. (1990), 121-172. Batik bat 154-158 orrialdeetakoak

937 Datuak Aritz Azpilikueta jaso ditu: Aritz Azpilicueta Vergara, *La Transición en...*

urrats ugari ematen hasi ziren, ezker iraultzaileak sortutako esparru horiek eztabaida horiek sortzeko aukera ireki zuen⁹³⁸. Ezker iraultzailean militantzen zuten feministek garaiko eztabaida feninistetan berdintasunaren feminismoaren eta militantzia bikoitzaren alde egin zuten, militantzia bakarra aldarrikatzen zuen feminismo ezberdintasunaren feminismoaren aurrean.

938 E9 elkarrizketa: Julia Munarriz Gomara. Iruñea, 2018/XII/21.E13 elkarrizketa: Presen Zubillaga Auza. Iruñea, 2019/VII/18. E10 elkarrizketa: Milagros Rubio Salvatierra. Tuter, 2019/III/5.

7. Ondorioak

XX. mende hasieran lurralde atzerakoitzat hartzen bazen ere, frankismoaren hondar urteetan eta ondorengo monarkia parlamentarioaren hasieran, Nafarroa Garaia Espainiako lurralde gatazkatsuenetarikoa izan zen. Beti hirigune industrial handien atzean kokatu bazen ere, 70eko hamarkaden lehen erdian oposizio antifrankistak aparteko eta ezohiko dinamismo eta erradikaltasuna erakutsi zuen, eta Erregimena higitzen lagundu zuen konfliktibitate politiko-sozial handia eratu zen. Geroago, Trantsizio prozesuan zehar, mugimendu sozialak itxuraldatu eta gizarte gatazken ereduaren forma aldatu zen arren, konfliktibitate sozialak jarraitu zuen, eta are larritu ere, konstituzio-kontsentsua oztopatu zuena eta erregimen politiko berriak Nafarroan ezartzeko zailtasunak izan zitzaizkien eragin zuena.

Espainiako estatuan frankismoaren aurkako indar nagusia Santiago Carrilloren Partido Comunista de España (PCE) izan zen. Diktaduraren aurkako oposizio borrokan, langile mugimenduan eta bestelako mugimendu sozialen sorreran garrantzi handia izan zuen eta haren ekarpena erabakigarria izan zen diktadura eraisteko.

Baina Nafarroan, egoera ezohikoa zen, PCEk errotze ahula baitzeukan, eta hura baino ezkererago, muturrerago, kokatuta zeuden alderdi iraultzaileek oposizio antifrankistaren lidergoa zeukaten. Izan ere, langile mugimendua eta baita beste gizarte mugimenduak ere esparru estataleko ezker iraultzailea delako korrante erradikalek kontrolatua zegoen. Organización Revolucionaria de Trabajadores (ORT), Movimiento Comunista-Euskadiko Mugimendu Komunista (MC-EMK), Partido del Trabajo de España (PCEi lehendabizi, eta gero PTE), Komunisten Liga-Liga Komunista (LC), Liga Komunista Revolucionaria (LCR-ETA VI aurrena eta LKI gero) bezalako alderdiak izan ziren nagusi, baita aurrekoak baino txikiagoak ziren bestelako batzuk ere: Ezker Komunista Erakundea-Organización de Izquierda Comunista (EKE-OIC) edo Partido Comunista de España (marxista-leninista) (PCEml), esaterako. Horiek guztiek langile mugimenduaren gehiengoa osatzen zuten, eta Nafarroako antifrankismoa dinamizatu zuten.

Baina egoera hori, ezohikoa izanagatik ere, ez zen gertakari isolatua: nazioarteko olatu iraultzaile baten parte zen eta. 1960ko eta 1970eko hamarkadetan munduan zehar zabaldu ziren borroka aurrerakoi eta mugimendu iraultzaileen (68ko Maiatzaren, Hirugarren Munduko nazio askapeneko mugimenduen, Ezker Berriaren eta katolizismo sozialaren) eraginez, Europa Mendebaldean ordura arteko alderdi komunista tradizionaletatik baino ezkererago kokatzen zen

sektore politiko berri bat sortu zen. Sektore politiko horren parte ziren alderdiei, *ezker erradikal* edo *ezker iraultzaile* definizioa ezarri zitzaien. Korrante iraultzaile hori sozialdemokrazia eta komunismo tradizionala baino muturrerago kokatu zen, ezker tradizionala sistema liberal-burgesean txertatu zela eta gizartearen eraldaketa iraultzaileari egiteari uko egin ziola uste zuelako. Halaber, langileen eta klase kapitalistaren arteko gatazka soziala larriagotu zen, eta ongizate-estatuaren sorrera garaitzat hartzen den arren, langile mugimenduak urte horietan hegemonia burgesearen oinarriak zalantzan jartzea lortu zuen. Protesta olatu luze horri batzuetan *68 Luzea* edo *Bigarren Oldarraldi Proletarioa* izena ezarri izan zaio. Nafarroako ezker iraultzaileko alderdiak mobilizazio olatu horren aldaera lokala izan ziren.

Baina, zergatik izan zuen ezker iraultzaileak horrenbesteko errotze ahalmena Nafarroan? Galdera horri erantzuna emateko arrazoietakoa bat, 50eko hamarkadatik aurrera izan zen garapen industrialean dago. Urte gutxitan, *Desarrollismo* frankistak Erresuma Zaharraren gizarte egiturak astindu zituen. Lantegi berriak sortu ziren, ordura arte Nafarroan ohikoak ez ziren sektore ekonomikoetakoak: metalgintza, autogintza, kimika, meatzaritza edo bestelakoak. Horrek landa exodoa azkartu zuen eta hiriak etorkinak jasotzen hasi ziren: batez ere nafar landa mundutik, baina baita Espainiako beste lurralde batzuetatik ere. Hazkunde demografiko hori batez ere Iruñeko hirigune metropolitanoan nabaritu zen, baina baita tamaina ertaineko hirietan ere (Tutera, Tafalla, Lizarra, ...). Aldaketa sozial horien ondorioz, langile klase berria eratu zen, batez ere langile gazteez osatua eta gerraurreko langile tradizio ezkertiarrekiko lotura zuzenik ez zuena.

Baina garapen industrialak ekarritako proletarizazioaz gain beste arrazoi sozio-kulturalak ere izan ziren. Garrantzitsuenetakoa bat, elkarte apostoliko kristauek zeukaten harreman sare zabala izan zen. Nafarroak tradizio kristaua eta sinestun luzea zeukan, eta ondorioz, sortzen ari zen langile komunitate berriari Eliza katolikoaren harreman sare sozio-kulturaletan parte hartzea naturala suertatu zitzaion. Harreman espazio horietan langileak aisialdirako, formakuntzarako edo apostolotza ekintzak egiteko elkartzen ziren eta laster langileen topagune eta soziabilizazio esparru bilakatu ziren. Halaber, komunitate katolikoaren parte batek Vatikanoko II. Kontzilioaren irakasbideei esker kezka sozialetarako hurbilpen prozesua bizi izan zuen. Askotarikoak izan ziren langileentzat elkargune izan ziren esparru katolikoak: Acción Catolicarenak (HOAC, JOC,) jesuitenak (*Vanguardias*), auzoetako parrokiak, eskola sozialak, ...

Harreman sare kristau horiek, langileekin kontaktuan jartzeko lehentasun egoeran zeuden, beste korrante batzuek ez bezala. Lehenik eta behin, arestian aipatu dugun Nafarroaren tradizio sinestunagatik, esparru kristau horiek erreferentzia hurbila ziren langile askorentzako, eta modu naturalean parte hartu zuten horietan. Baina ez hori bakarrik, frankismo garaian Elizak zituen pribilegioei esker, Elizak PCEn edo mugimendu abertzaleen elkartzeko eta antolatzekeo traba

gutxiago zituen eta. Ondorioz, sozializazio esparru kristau horiek modu eraginkorragoan ezarri ziren kontaktuan langile munduarekin.

Harreman sare kristau horietan parte hartzen zuten langileek klase gatazkaren arazoekin topo egin zutenean eta 68 Luzeko korrante ideologiko ezkertiarrek ezagutu zituztenean erradikalizatu eta langile alderdi iraultzaileak sortu zituzten. Ezker iraultzaileari buruzko bibliografia orokorrean, PCEren zatiketetan eta ikasle mugimendu erradikalizatuan jatorria izan zuela azpimarratu izan da sarri. Baina Nafarroan batez ere mugimendu kristau apostoliken erradikalizazioan, eta maila txikiago batean, ETAren zatiketa *obreristetan* izan zuen jatorria. Erradikalizazio prozesu horietan gehien eragin zuen esparruetako bat Iruñeko apaiztegia izan zen: 60ko hamarkadaren bukaeran, Jesus Lezaunen errektoretzaren garaian, apezgai frankok Vatikanoko II. Kontziliaren ideiekin bat egin zuten, erradikalizatu prozesu bizkorra bizi izan zuten eta ezker iraultzaileko alderdiak koadro zuzendariz hornitu zituzten. Ezker iraultzaileko alderdi ia guztiek, (PCEml-k izan ezik) Lezaunen garaian apaiztegitik pasatutako kideak izan zituzten.

Nafarroako ezker iraultzaileko alderdirik handiena ORT zen, bere burua marxismo-leninismo Mao Zedong Pentsamenduaren jarraitzaile izendatzen zuena. Bere sorrera 1969-71 inguruko jatorri kristauko AST sindikatuaren transformazioan zegoen. Nafarroan ezarpen handia zeukan: Iruñerriko auzo eta lantegietan (Potasas, Eaton Ibérica, Authi, Torfinasa, Inmenasa y Papelera de Navarra eta abar), Erriberako nekazal munduko borroketan eta Leitza edo Viana bezalako beste toki batzuetan ere. Guztira 400 bat kide izatera iritsi bide zen, eta UJMko gazteriekin eta jarraitzaile talde mardul batekin batera eragin esparru zabala izan zuen. ORTri loturiko Sindicato Unitarioak (SU), bestalde, 9.800 afiliatu izan zituen.

Nafarroako ezkerren parte zen beste alderdietako bat EMK izan zen. 1966-67 inguruan sortu zen, ETAtik kanporatutako korrante baten garapenaren ondorioz. Nafarroan batik bat apaiztegitik pasatutako seminarista ohien bidez errotu zen. Lizarran, Bortzirietan eta bestelako tokietan errotzea lortu zuen. Tuteran langile mugimenduko ezkerreko korranterik garrantzitsuenak izan zen, goiz ezartzea (1973an) eta Langile Batzordeak eratzea lortu zutelako.

Erriberan, dikotomia berezia gertatzen zen, hirigunean (Tuterako langile eta auzo mugimenduan) alderdi antifrankista nagusia MCE-EMK zen bitartea (hurbiletik Larga Marcha-PTEk jarraitzen bazion ere), landa munduan (nekazari, jornalari, edo kontseberetako langileen artean) ORTk jarraitzaile gehiago lortu zituen. Ziur aski, alderdi hori, hobe moldatu zen herrietako testuinguru atzerakoiagoetan, apez gazteen bidez ezarri baitzen Valtierra, Ablitas, Murchante edo Cadreita bezalako herrietan.

Esan bezala, PTEk ere errotze ahalmen handia izan zuen, baina bere jatorria bikoitza zen. Iruñean PCEi (Partido Comunista de España internacional) alderdian ezarri zen, Bartzelona eta

Malagan egondako ikasleen bidez. Tuteran, aldiz, Larga Marcha Hacia la Revolución Socialista ezarri zen. 1975ean PCEi-k izena aldatu zuen eta PTE bilakatu zen eta Larga Marchak, aldiz, lehendabiziko PCU sortu zuen beste talde komunista txiki batzuekin eta gero PTErekin batu zen. Alderdi honek Nafarroan guztira 200 bat kide zituen eta bere erreferentziazko sindikatua, CSUT, 6.000 bat afiliatu izatera ailegatu zen.

PCEml izan zen Nafarroako ezker iraultzailearen alderdien artean bereziena, mugimendu kristauekin inolako loturarik izan ez zuelako. Nafarroan lehendabiziko aldiz 1972an ezarri zen, Parisen lanean aritu ziren langile emigratuen bidez. Guztira 30 bat kide izan zituen.

Alderdi troskistei dagokionez, bi jatorri izan zituzten: LCR izeneko alderdi estatal bat Frente de Liberación Popular delako mugimenduan jatorria duena eta ETA VI.a, erakunde abertzaleak 1970ean egindako VI. Biltzarreko eztabaidetatik zetorrena. Bi talde horien hurbilketaren ondorioz beste bi alderdi komunista sortu ziren, bata LCR-ETA VI. bere burua marxista-iraultzailetzat zeukana, eta bestea, LC troskista. Bi horietatik Iruñean LC izan zen nagusi, 120 kide izatera iritsi baitzen eta UGT sindikatu sozialistan eragiteko ahalmen handia lortu zuen. LCR-ETA VI.k aldiz, 100 bat kide izan zituen. Bi taldeok berriz ere elkartu ziren 1978an eta 1991ean desagertu zen arte elkarrekin jarraitu zuten, Espainia mailan LCR izenarekin eta Euskal Herrian LKI bezala.

Bestelako talde minoritariogok ere presentzia izan zuten, kontseilu komunismoaren aldeko OIC-EKEk bezala. Nafarroan 1976an ezarri zen, Gipuzkoatik etorritako kide *erreak* Iruñera joan zirenean. Guztira 10-15 bat kide izanen ziren.

Alderdi iraultzaile horiek guztiek kide gutxi izanagatik ere gizarte mugimenduetako (bereziki langile mugimenduko, baina ez soilik) eta sektore antifrankistetako gizarte sektore zabalekin konektatzea lortu zuten. Langile klasea eta gizarte sektore zapalduak (gazteak, emakumeak, ikasleak, ..) antolatu, mobilizatu eta borrokara bideratu zituzten. Diktaduraren bukaerarako Nafarroa Garaian Haustura Demokratikoaren aldeko oinarri sozial zabal bat eratu zen, aldaketa sozial sakonak nahi zituena eta ezker iraultzaileko alderdien jarraitzaile zena.

Trantsizioan zehar, Monarkia parlamentarioan oinarritutako Erregimen berriak Euskal Herrian oso onarpen murrizta lortu zuen. Hauteskundeak egin arren eta Mendebaldeko estatu liberal-demokratikoen antzeko Konstituzioa onartu arren, Erreforma postfrankistak ezartzeko zailtasun ugari izan zituen. Erregimen berriak ez zuen ezezko borobilik jaso, baina onarpen soziala bermatuko zion babes zabala lortzea asko kostatu zitzaion. Besteak beste, 1978ko Konstituzioak Nafarroan ozta-ozta gainditu zuen %50eko langa eta, badaezpada ere, agintariek ez zuten Nafarroako Foru Hobekuntzaren onarpena Erreferendum bidez onetsi nahi izan. Halaber,

Hausturaren aldeko alderdiek, ordezkartzarrik lortu ez zuten arren, %17tik gorako emaitza lortu zuten lehendabiziko hauteskundeetan.

Erregimen berriak Nafarroan horren babes ahula lortzearen arrazoia diktaduraren azken urteetako oposizio antifrankistaren erradikaltasunean dago. Esan bezala, Nafarroako langile mugimendua ezker iraultzaileko alderdiek dinamizatu zuten. Ezker iraultzaileko alderdien helburua ez zen demokrazia formala (edo haiek esaten zuten bezala, demokrazia burgesa) eskuratzea; iraultzaileak ziren heinean, sozialismoa eta komunismoa helburu zuten eta beraz urrutiago ailegatzeko estrategia politikoak diseinatu zituzten. Alabaina, urrutiko perspektiba hark errealitate hurbilagoarekin talka egiten zuen eta momentuko egoeratik sozialismorako bidea aurreikusten saiatu ziren.

Jatorri maoistako alderdiek (ORTk, PTEk, EMKk eta PCEml-k), alde batetik, bi etapatan egindako iraultza defendatu zuten. Lehendabizikoan, langile klaseak zuzendutako aliantza interklasista batek —Fronte Popularren modukoa— iraultza demokratiko-herrikoia eginen zuen kapitalismoaren eta sozialismoaren arteko bitarteko eta behin-behineko fase bat ezarriko zuen. Bitarteko fase hori *demokrazia-herrikoia* litzateke eta langileek eta klase antimonopolistek oligarkia eta inperialismoaren gain ezarriko zuten diktadura demokratikoa litzateke. Bigarren fasean, aldiz, sozialismorako bidea irekiko zen.

LCk, LCRk eta OICK, bestetik, Fronte Popularren moduko aliantzak proposatzea kritikatu zuten, langile klasearen independentzia politikoa defendatzen baitzuten. Alderdi horiek etapa bakarrean egindako iraultza defendatu zuten; bitarteko faserik gabe, iraultza demokratikoa eta iraultza sozialista lotu behar zirela uste baitzuten.

Perspektiba iraultzaileok tarte batez zentzua izan zuten, baina Francoren osasunak okerrera egin ahala eta Erregimenaren baitan sektore erreformista bat eratu zenean, oposizio antifrankistak diktadura eraisteko programa demokratiko bat eratu zuen: Haustura Demokratikoa. Haustura Demokratikoaren programak ez zuen diktaduraren eraispen iraultzailea esan nahi, baina bai frankismoaren egituren errotiko desagertzea. Oro har, PTEk, MCEk eta ORTk programa horrekin bat egin zuten, baina LCRk, LCk eta OICK, aldiz, Haustura Demokratikoaren programa kritikatu zuten aliantza interklasistetan oinarritzen zelako.

Estatu frankista klase estatu bat izan zen, baina 1970eko hamarkada erdialdetik aurrera burgesiarentzako baliagarri izateari utzi zion. Izan ere, langile mugimenduaren bultzadari esker, azken urteetan enpresarien mozkin ahalmena txikitzen joan zen. Gainera, oposizioak bere mobilizazioekin Erregimen frankistaren babes sozialak higatzea lortu zuen eta errepresioa ez zen kaleko mobilizazioei eusteko gauza. Halaber, 1974tik aurrera nabaritzen hasi zen krisi ekonomikoak egoera are gehiago okertu zuen eta burgesiaren agintea kolokan jar zitekeen. Horregatik,

frankismoaren zenbait sektorek Erreforma delako proiektua abiatu zuten. Proiektu hark hasieran batean, Erregimena bere horretan mantentzeko diktadurari azaleko aldaketak egitea izan zuen helburu. Baina, oposizioaren presioa zela medio, Erreforma hasierako intentzioetan baino aldaketa sakonagoak egin behar izan zituen. Suarezek Haustura Demokratikoaren aldarrikapen batzuk bere eginez, oposizio moderatuak bere Trantsizio markoa onar zezan lortu zuen. Azkenean, Gobernuak bere burua hauteskundeak deitzera eta Konstituzio demokratikoa idaztera beharturik ikusi zuen. Trantsizioaren prozesua gatazkatsua eta korapilatsua izan zen, baina orokorrean, Gobernuak beti lortu zuen egoeraren kontrola mantentzea.

Alderdi iraultzaileek askatasun demokratikoekin langile klasearen antolakuntza eta kontzientzia ahalmena biderkatuko zela pentsatzen zuten eta klase borroka zorroztu eta iraultza sozialista hurbilduko zirela uste izan zuten. Aitzitik, Erregimen berriak ez zuen sistema kapitalistaren gainbehera ekarri, indartu egin baitzen. Langile klasea izan zen diktadura eraisteko gehien mobilizatu zena, baina ezkerreko alderdi nagusien laguntzarekin (PCE eta PSOE) indar mobilizatzaile hura erregimen demokratiko berriaren ezarpena errazteko bideratu zen.

Hego Euskal Herrian, ordea, indar korrelazioa oso bestelakoa zen. Langile mugimenduak beste toki batzuetan baino erradikaltasun eta dinamismo gehiago erakutsi zuen. Horregatik, Hausturaren aldeko oinarri soziala Euskal Herrian zabalagoa eta erradikalagoa zen. Gainera, 1976ko erdialdetik aurrera organismo unitario antifaxistak hautsi zirenean, oposizio moderatua Gobernuarekin negoziatzen hasi zen balizko hauteskunde batzuetarako legalizazioa lortzeko asmoz. Hego Euskal Herrian, aldiz, mobilizazioak mantsotu ordez, azkartu egin ziren eta Espainiako eta Euskal Herriko egoera politikoaren arteko dibergentzia handia hasi zen.

Diktadura eta gero, aldaketa positiboa izan zen, askatasun demokratikoek eta aldaketa sozio-kulturalek, orokorrean, hiritarren bizitza hobetu zuten. Baina mundu guztia ez zen egoera berriarekin ase. Halaber, Monarkia parlamentarioko sistemak Mendebaldeko demokrazia liberalen onarpena lortu zuen arren, frankismoaren garaiko metodo errepresiboetako batzuk erabiltzen jarraitzeak gizartearen parte batek Erregimen berria frankismoarekin identifika zezan bultzatu zuen. Gainera, gertatzen ari ziren aldaketak mugatuegiak zirela uste zuten sektore sozial zabalek, oposizio antifrankistaren aldarrietako asko beteko ez zirelako: Monarkiaren iraupena, autodeterminaziorik eza, langabezia eta krisi ekonomikoa, Nafarroa EAetik bereizirik geratzea eta abar. Ondorioz, frankismoaren azken urteetan aldaketa sozial sakon eta iraultzaileekin amestu zutenen parte batek, Trantsizio prozesuak hartu zuen norabidea ikusita, Monarkia parlamentarioaren Erregimenaren aurka borrokatzen jarraitu zuen. Urte horietan Eliteari hegemonia lehiatu zion protesta mugimendu bat egon zen, eta egoera aurre-iraultzaile izatera iritsi ez bazen ere, Erreformaren ezarpena zailtzeko beste izan zen.

Nafarroako ezker iraultzailea 68 Luzeak gurean hartu zuen forma izan zen, hots, orduko olatu iraultzailearen egikaritzea izan zen. Espektatiba iraultzaileak zenbait urtez mantendu ziren, baina 70eko hamarkadaren erdialdetik aurrera burgesiak erreakzionatu zuen eta langile mugimenduaren eta bestelako mugimendu askatzaileen bultzada geldiarazi nahi izan zuen kontrairaultza prebentibo baten bidez. Hazkunde fordistaren mugak —petrolioaren prezioaren igoerarekin agerian geratu zena— kapitalismoaren berregituraketa azkarra eskatzen zuen, metaketa kapitalistarentzako oinarri berriak ezartzeko, eta horretarako langileek onartuko zuten hitzarmen sozial bat behar zen, hazkunde ekonomiko berriaren oinarrien ezarpenak epe motzean kalte egingen zielako. Pixkanaka, erresistentzia fokuak oraindik zenbait urtez luzatu baziren ere, hurrengo hamarkadatan errezeta ekonomiko neoliberalak (birmoldaketa industrialak, *tacherismoa* eta *reaganomics*) eta politika neokontserbadoreak gailendu ziren. Sistema kapitalistarentzako metaketa eredu berria ezarri zen, eta langile klasrearen kalterako, *Bigarren Oldarraldi Proletarioaren* esperantza behin betiko desagertu zen.

Aldi ekonomiko neoliberalaren ezarpenak Espainian Trantsizioarekin bat egin zuen, eta politika ekonomikoaren mugari berriak Moncloako Ituna (1977) eta Langileen Estatutua (1980) izan ziren. Ezkerreko alderdi nagusien eta sindikatu gehien onarpenarekin, lan harremanen marko berria ezarri zen⁹³⁹. Egoera berri horrek sistema kapitalista berrindartu zuen eta azken hamarkadako espektatiba eta itxaropen iraultzaileak gainbeheran sartu ziren, esparru estataleko alderdi iraultzaileen militantzia krisia eragin zuena.

Ordura arte, ezker iraultzailea garaipen handiak lortzeko gauza izana zen: batez ere, lantokietan baldintzak hobetzeko, auzoetako azpiegitura eta zerbitzuen lortzeko edo soldata igotzeko. Baina, ordura arte bere borroka zelai nagusi izandakoa —industria sektoreko langile mugimendua— atzeraldian sartu zen krisi ekonomikoaren, langabeziaren eta Moncloako Itunean hartutako neurrien ondorioz. Gainera, industria birmoldaketa zela kausa, hamarkada eskas batean industriako langileen imaginarioari lotutako espazioa bera ere ia desagertu zen, lantegi handi eta borrokalari askok itxi behar izan zuten eta. Politikaren instituzionalizazioaren ondorioz, eztabaidaren muina kaletik eta lantokitik atera zen eta parlamentu eta komunikabideetara pasa zen. 68 Luzearen ondorioz sortutako espektatiba iraultzaileak pixkanaka 70eko hamarkadan zehar urruntzen joan ziren. Ordutik aurrera, ezker iraultzailearen oinarri sozialak gizarte aldaketa sakonak eragiteko gaitasun falta nabaritu zuen eta horrek espektatiba iraultzaileen desagerpena esan nahi

939 Albert Carreras i Odriozola, Xavier Tafunell Sambola, *Historia económica...* 375-378 eta 394-398.

zuen. Espektatiba eta militantzia krisi horrek *desengainuaren kultura* baten sorrera eragin zuen, Erreforma politikoaren ondorioek sortutako asegabetasunaren ondorio.

Ordutik aurrera, mugimendu sozialen langile zentraltasunak garrantzia galdu zuen eta protesta sektorialen forma berriek (feminismoa, ekologismoa, sexu-askapena, bakezaletasuna, arrazakeriaren aurkakoa, kontrakultura ...) lekukoa hartuko zuten. Proletariotzak zuzendutako iraultza sozialista *total (erabateko)* baten espektatibak zenbait aldarrikapen sektorialengatik ordezkatzek ezker iraultzailearen krisia sakondu zuen, iraganeko *obrerismoari* eta bere helburu politikoen ikuspegi teleologiko marxistei lotuegi jarraitzen zuelako. Ezker iraultzaileko alderdi batzuk desagertu egin ziren, ORT eta PTE esaterako, eta beste batzuek krisi luzeak bizi izan zituzten. Gizarte mugimendu berrietara moldatzen jakin zuten alderdiek, aldiz, (EMKk eta LKkI, esate baterako) mantentzea lortu zuten, baina ez boterea eskuratzeko aukerak zeuzkaren alderdiak bezala, protesta sozialen bultzatzaile bezala baizik.

Arrazoi horiek guztiak direla medio, Elite agintarien eta gizarte talde zapalduen arteko konfrontazio ereduak erabat aldatu zen. Ordura arte diktadura-demokrazia edo burgesia-proletariotza ardatzen araberako talka sozialak nagusi izan baziren ere, ordutik aurrera, konfrontazio ereduaren talka-ardatz nagusia nazio auzia izanen zen. Gatazka ereduaren aldaketaren ondorioz, gizarte mugimenduen osieran aldaketak gertatu ziren: Hausturaren aldeko gizarte mugimenduak murriztago eta isolatuago geratu ziren, eta beraien lidergoan, esparru estataleko ezker iraultzailetik ezker abertzalera pasatu zen.

Esparru estataleko alderdi iraultzaileek, 1977ra arte, borroka antifrankistaren eta langile mugimenduaren mobilizazioak zuzendu zituzten eta masa borroka gehienak zuzentzeko ahalmena izan zuten. Diktadurak iraun bitartean, ezker abertzalearen erakunde nagusia artean ETA bera zen, eta ez zen alderdi *sukursalistak* bezain beste lagun elkartzeko edo mugiarazteko gauza izan, ezker abertzalearen adar *zibila* zuelako behar bezala garaturik. Baina, ekainaren 15az geroztik egoera erabat irauli zen. Konfrontazio eredu berriaren aurrean esparru estataleko alderdi iraultzaileek baliagarri izateari utzi zioten eta gizarte mugimenduek tresna eta erreferente berrien bila jo zuten. Esparru estataleko ezker iraultzailea jasaten ari zen espektatiba eta militantzia krisiaren aurrean, ezker abertzaleak Erregimen berriaren aurka irmoen mantendu zen korrante politiko gisa eratzea lortu zuen, gaitzespen fronte baten modura. Horregatik, Hausturaren aldeko oinarri soziala, ordura arte ezker iraultzailearen aldekoa izana zena, Herri Batasunaren jarraitzaile izatera pasa zen. Denbora tarte laburrean, koalizio hark aparteko eta ezusteko emaitzak lortu zituen 1979ko udal, foru eta hauteskunde orokorretan. Esparru estataleko ezker iraultzaileak, aldiz, jaitsiera nabarmena izan zuen. 1977ko ekainetik 1979ko apirilera 29.500 boto inguru galdu zituen, eta HB koalizioak aldiz, 22.425 irabazi.

Gizarte mugimenduen lekuko aldaketa hori diktaduraren azken urteetan ezker estatalistak lelo, aldarrari eta sinbolo euskaltzaleak bereganatu izanak erraztu zuen. Halaber, ezker abertzaleak Trantsizio prozesuak sortutako *desengainu* eta *asegabetasun* sentimenduak Erregimen berriaren aurka egiteko modua eraginkorrean baliatu zituen.

Horregatik guztiagatik, ikerketa honetan zehar, uste dugu frogatutzat geratu dela 1970eko hamarkadaren bukaeran esparru estataleko ezker iraultzailearen eta ezker abertzalearen arteko lekuko aldaketa gertatu zela; emaitza elektoralek, alderdiek beraiek sortu zituzten dokumentuek eta militanteetako batzuen ibilbide pertsonalak hala adierazten baitigute. Halaber, XX. mendearen bigarren erdialdeko gizarte mugimenduetan, 1950eko hamarkadan mugimendu apostoliko kristatuak eratu zirenetik 90eko hamarkadako gizarte mugimendu berri edo espezializatuetera iritsi arte, jarraikoitasun hari mehe bat egon zela sumatzen ahal da. Izan ere, 1950eko eta 1960eko hamarkadan langile mugimenduaren lehendabiziko urratsak harreman sare kristau eta mugimendu apostolikoei esker eman ziren. Harreman sare horietan ezker iraultzaileko alderdiak ernaldu ziren, eta esparru estataleko ezker iraultzailearen alderdi horiek gainbeheran sartu zirenean, bere jarraitzaile izan zen oinarri sozialaren parte handi bat ezker abertzalerantz eta gizarte mugimendu espezializatueterantz pasatu zen 70eko hamarkadaren bukaeran. Gainera, hurrengo urteetan militante horietako askok IUN-NEB, EE, HB, Auzolan, Batzarre edo bestelako alderdietan parte hartu zuen eta gizarte mugimenduen elementu aktibo izan ziren.

Etorkizunerako ikerketa lerro posibleak

Ikerketaren gurpilak etengabeko mugimenduan egon behar du. Ikerketek planteatutako hipotesiei azalpen posibleak emateaz gain, galdera berriak planteatu behar dituzte, aurreragorako ikerketa bide-berriak irekitzeko. Tesi honen bidez ere Trantsizio garaiko gizarte mugimenduen eta gatazken inguruko hipotesiak frogatzen saiatzeaz gain, etorkizunerako ikerketa lerro posibleak mahaigaineratuko ditugu.

Esan bezala, Trantsizio garaian gizarte mugimenduen lidergoan lekuko aldaketa bat izan zen; konfliktibitate ereduaren aldaketaren ondorioz frankismoaren aurka mobilizatu zen oinarri sozial hausturazalea esparru estataleko ezker iraultzailearen jarraitzaile izatetik ezker abertzalearen jarraitzaile izatera pasa zen. Nafarroan lekuko aldaketa hori gertatu zela frogatzen saiatu gara. Baina gainerako euskal lurraldeetan gauza bera gertatu al zen? Izan ere, Nafarroa Garaian bezala, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan ere 1970eko hamarkadan ezker erradikal *sukursalistak* oposizio antifrankistan presentzia nabarmena izan zuen, eta 1979ko hauteskundeetan ezker abertzaleak emaitza onak eta espero gabekoak erdietsi zituen ere. Horregatik interesgarria da geure buruari

galdetzea ezker iraultzaileak zer errotze ahalmen zeukan lurralde horietan frankismoaren azken urteetan, eta halaber, bere oinarri soziala ezker abertzalerantz pasa ote zen hamarkadaren bukaeran.

Horren harira, duela hainbat urtetatik hona zenbait sektorek ezker abertzaleari Gasteizko 1976ko martxoaren 3ko sarraskiaren omenezko mobilizazioak «banpirizatu» izana leporatu izan diote⁹⁴⁰. Teoria hori defendatzen dutenen ustez, 1976ko mobilizazioetan ezker abertzalea ez zen presente egon, baina Trantsizioak aurrera egin ahala, ezker abertzaleak urteurrenetako mobilizazioak modu ilegítimoan «okupatu» zituen. Salatzen dutenaren arabera, ezker abertzaleak berari ez zegokion omenaldi horiek monopolizatu zituen eta, langile mugimenduaren aldarri originalak baztertuz, bere lelo propioak plazaratzeko erabili zituen. 1976ko langile gatazketan ezker abertzaleak presentzia urria zuela egia den arren, gure uste apalean ustezko «banpirizazio» horren atzean konfliktibitate ereduaren aldaketaren ondorioz gertatutako lekuko aldaketa bat egon liteke. Hartara, Nafarroako kasuan frogatzen saiatu garen hipotesi hori Gasteizen betetzen ote den argitzea oso interesgarria izan daiteke. Gainera, Gasteizkoak Iruñeko ereduarekin antzekotasun eta ezberdintasun ugari ditu. Izan ere, Gasteizko langile mugimendua Nafarroakoarekin alderatuta, garai berean piztu zen arren, bere garapena eta antolakuntza eredu oso bestelakoa izan zen: berantiarra eta autonomoagoa. Halaber, Arabako kasuaz gain, Bizkaiakoa eta Gipuzkoakoa ere aztertzea interesgarriak izan daiteke. Hala ere, azken bi lurralde horietan ezker abertzaleak lehenago errotzea lortuko zuelako susmoa dugu.

Bestalde, ikusi dugun bezala, HB koalizioaren inguruan ardaztutako mugimenduak diktaduraren azken urteetako oinarri sozial hausturazalearen babes modura jokatu izan zuen. Horregatik, gauza hori bera Espainiako beste nazionalitate historikoetan ere gertatu ote zen aztertzea interesgarria litzateke. Galiziako, Kataluniako edo Herrialde Valentziarreko ezker erradikaleko kideek ere ezkerreko aukera nazionalistetan bilatu al zuten babesa? Zer-nolako harremana zegoen, esate baterako, Kataluniako MCC eta LCRren eta *esquerra independentistaren* (Terra Lliure, Moviment en Defensa de la Terra, ...) artean?

Bestalde, eta aurrekoarekin hertsiki loturik, konparatiba transnazionala egin liteke Irlandako gatazka armatuaren, ezker iraultzailearen eta mugimendu errepublikanoaren arteko lotura bilatzeko. Arestian ere, IRA-Sinn Fein eta INLA-IRSP mugimenduen arteko harremana eta ezker abertzalearen eta esparru estataleko ezker iraultzailearen arteko harremana alderatzea iradokitzailea izan zitekeela esan dugu. Halaber, Chris Harmenen arabera, Socialist Worker aldizkari troskista

940 Jesus Casquete, «El calendario conmemorativo del nacionalismo vasco radical», *Cuadernos Bakeaz*, 99 zbk. (2010).

britainiarrak Irlandako mugimendu errepublikarra babestu zuen baina bere atentatuak kritikatu zituen⁹⁴¹. Beraz, badirudi etorkizunean bide horretatik jarraitzeko aukera ere balegokeela.

Aipatu ditugun garapen posible horietaz gain, tesi honetan behar bezala aztertu ez diren gaietan sakonduz hipotesi edo ikerketa lerro berriak planteatu daitezke. Esate baterako, ezker abertzalearen militantziaren jatorria aztertzea oso interesgarria litzateke. Ikerketa honetan defendatu dugunaren arabera, esparru estataleko ezker iraultzaileak mugimendu eta soziabilitate esparru katolikoetan izan zuen jatorria. Espazio horietan aurreragoko ezker erradikaleko koadroek eta militanteek elkar ezagutu zuten eta harreman sareak ehotu zituzten, ezker iraultzaile *sukurtsalistaren* sorrera ahalbidetu zuena. Ezker abertzalearen kasuan, ordea, bere sorrera ahalbidetu eta 1979ko hauteskundeetan ezusteko emaitzak lortzea eragin zuten soziabilitate esparruak ez ditugu ezagutzen. Nondik zetozen mugimendu berri horren koadroak? Non ibiliak ziren frankismoaren azken urteetan 1979ko hauteskundeetako HBren zerrendetako hautagaiak? Zertaz ezagutzen zuten elkar eta non elkartzen ziren? Hau da, zer harreman sareetan egon zen HBren eta ezker abertzale zibilaren jatorria? Miaketa sakonik egin gabe, kontuan hartu beharreko hainbat posibilitate proposatzen ditugu abiapuntu gisa. Francisco Letamendiak, esate baterako, HBren jatorria azaltzeko «komunitatea antierpresiboarengan» eta Amnistiaren Aldeko Batzordeetan jarri du fokua⁹⁴². Halaber, Iruñeko mugimendu abertzalearen foku emisore gisa Eusko Bazterra eta EGI mugimenduetan hari-muturren bat egon daitekeela dirudi. Gainera, Jeremy Mac Clancy-k karlismoaren oinarri sozialaren parte bat erakarri izana posible zatekeela uste du, batik bat Estellerrian⁹⁴³. Azkenik, ezker abertzaleko alderdi eta erakunde politikoak Nafarroan noiz (eta zeinek) errotu ziren azter liteke. Jakina da LAB sindikatuaren sorrera ETApren ekimena izan zela, baina Iriarteren arabera, Nafarroan 1975eko amaiera ezartzen hasi zen, LAIAko militanteen eta CCOOtik heldu ziren abertzaleen eskuz, eta EIAko militanteen sarrera pixka bat beranduago izan zela dio⁹⁴⁴. Iriartek dioen hori horrela izan ote zen frogatu beharko da.

Sakontzea mereziko luketen eta ikerketa honek ikertu ez dituen beste bi gai Trantsizio garaiko eztabaida sindikala eta mugimendu feminista izan dira. Egungo lan-harremanen esparrua eratzen hasi zenean CCOOek mugimendu unitario izateari utzi zioten eta ohiko afiliatuen sindikatu izatera igaro zen. Eraldaketa prozesu horretan ORTren SU sindikatuak, PTERen CSUTek eta LABek eredu unitarioari eutsi nahi izan zioten, baina aukera horrek porrot egin zuen. Halaber, tesian zehar asko azpimarratu ez den arren, ezin ahaztuko da ezker iraultzaileak mugimendu feministari egin zion ekarpena. Ezker iraultzailearen aldi historikoak feminismoaren bigarren olatuarekin eta

941 Chris Harman, *The fire...* 258.

942 Francisco Letamendia Beltzunze, *Historia del nacionalismo vasco y ETA*, R&B, Donostia, 1994, II liburukia.

943 MC CLANCY, Jeremy: *The Decline of Carlism*, University of Nevada Press, Reno, 2000.

944 Jose Vicente Iriarte Areso, *Movimiento obrero...* 273-274.

emakumea lan-mundu arautuan txertatzearekin bat egin zuen. Horregatik, ezker iraultzaileko alderdiak emakume askorentzako espazio publikora jauzi egiteko zubi lana egin zuten. Izan ere, ezker iraultzaileak nagusiki maskulinoa izaten jarraitu zuen arren, beste korrante politiko batzuetan (PCE, PSOE eta eskuineko alderdietan) baino presentzia nabarmenagoa eta goiztiarragoa izan zuten emakumeek⁹⁴⁵. Halaber, lehendabiziko mobilizazio eta erakunde feministak ezker iraultzaileko militanteek sustatu zituzten.

Frankismoaren azken hamarkadan, ehundaka gizo-emakumek beldurraren gainetik Erregimen frankistaren eta kapitalismoaren aurka klandestinitatean borrokatzeko erabakia hartu zuten. Ez zen erabaki xamurra izan, errepresioaren mehatxua eta klandestinitateko baldintzak gogorak baitziren. Baina iraultzak iradokitzen zien ilusioa eta borroka-lagunen arteko giro adiskidetsuak borrokarako grina berrindartzen zuten: «Beste mundu bat nahi genuen!»⁹⁴⁶.

Militantzia politiko ezkertiarra, kasu batzuetan behintzat, esperientzia berri eta askatzailea izan zen askorentzako; Frankismopeko errepresio egoera eta giro orokorra «itxia» eta «zurruna» gogoratzen dute militante izandakoek, eta militantziakoa «atseginagoa eta ez horren grisa» suertatu zitzaien⁹⁴⁷. Borrokan konprometitzen hastea «tuneletik ateratzea bezala» sentitu zuten⁹⁴⁸.

Pertsona horiek beren gaztetasuna, lantokia eta askatasuna arriskuan jarri zituzten gizateriarentzako etorkizun berri baten bila, eta haien helburu politikoak lortu ez zituzten arren, askok egin behar zena egin zutelako oroimena dute. Argi dago ezker iraultzaileak —muturrerago kokaturik egon izanagatik— demokratizazioa sakontzen eta herrialde justuago bat izaten lagundu zuela, eta horregatik, alderdi erradikalak existitu izan ez balira «gauza eskuinerago joanen» zelako ustea dute militante ohiek⁹⁴⁹. Horregatik, horietako batzuk ez dira batere damutu, eta gaur egun berriz ere egin beharko balitz, eginen zuketena. Askori borroka hark merezi izan zuelako sentazioa geratu zaie: «beharrezkoak izan ginen, eta egin behar zena egin genuen»⁹⁵⁰.

945 Joel Sans Molas, *Militancia, vida...* 99-100. Gonzalo Whilhelmi, *Romper el...* 106.

946 E19 elkarrizketa: Ana Arillo eta Feli Otegi. Iruñea, 2019/XI/25

947 *Ibid.*

948 E1 elkarrizketa: Felix Rey Bakaikoa. Iruñea, 2018/VI/25.

949 E9 elkarrizketa: Julia Munarriz Gomara. Iruñea, 2018/XII/21.

950 E15 elkarrizketa: Patxi San Juan Calud eta Jose Luis Arellano Ansó. Tuter, 2019/VIII/23.

8. Iturriak

8.1. Bibliografia

- AARON, Raymond: *La libertad, ¿liberal o libertaria?: La Nueva Izquierda y las revueltas del 68*, Página Indómita, 2018.
- ADAN GIL, Carlos: Gil, «Machos, Progres Y Galanes: Hombres Y Movimiento Feminista Durante Los Años Setenta Y Ochenta», *Filanderas: Revista Interdisciplinar de Estudios Feministas*, 4 zbk. (2019), 41-53.
- ALBARRACIN, Jesus: «La extracción del excedente y el proceso de acumulación», ETXEZARRETA ZUBIZARRETA, Miren (Koord.): *La Reestructuración del Capitalismo Español, 1970-1990*, Icaria, Bartzelona, 1991.
- ALBERTI MANZANARES, Pilar: «Historia oral y antropología de género», *Boletín americanista*, 46. zbk (1996), 7-17.
- ALBIAC, Gabriel: *Mayo del 68, Fin de fiesta*, Editorial Confluencias, Almería, 2018.
- ALLI ARANGUREN, Juan Cruz: *La Autonomía de Navarra. Historia, Identidad y Autogobierno*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 2018.
- ALLI ARANGUREN, Juan Cruz. GORTARI UNANUA, Joaquín: *La Transición política en Navarra. 1979-1982*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 2012.
- ALMEIDA DIEZ, Adrian: «Clase obrera, Intelectualidad y Lucha armada. Análisis del 68 alemán e italiano», *Revista Historia Autónoma*, 12 zbk. (2018), 205-223.
- ALTONAGA BEGOÑA, Bakarne, ARANGUREN ALONSO Maialen. RINCON DIEZ, Aintzane: *Historiagintzaren ikuspegi berriak: teoria eta praktika*, UEU-EHU, 2017.
- ALVAREZ ENPARANTZA Txilardegi, Jose Luis: «Testimonios personales de la crisis teórico política que motivó mi salida de ETA», Hainbat Egile: *Langileria marxismoa eta nazio arazoa Euskal Herrian, "IPES" ikastaroak. Formazio koadernoak*, I zbk. (1980) IPES, 37-44.
- ALVAREZ JUNCO, Jose: «A vueltas con la Revolución Burguesa», *Zona abierta*, 36-37 zbk. (1985), 81-106
- AMORES BONILLA, Pedro. SANCHIZ TORREZ, Sergi: ««Hicimos Lo Que Debíamos Hacer»: Ruptura Democrática Y Violencia Política En La Perspectiva De La Militancia Del FRAP» Fundación Salvador Seguí-Madrid (Koord.): *Las otras protagonistas de la Transición. Izquierda radical y movilizaciones sociales*, Editorial Descontrol, 2018, 891-908.
- Anai Artea, *Las actas de Txiberta (1977)*, 2011.
- ANDRADE BLANCO, Juan: *El PCE y el PSOE en (la) Transición. La evolución ideológica de la izquierda durante el proceso de cambio político, Siglo XXI*, Madrid, 2012.

- ANSA GOICOECHEA, Elixabete: «Un 68 En El País Vasco», *Prosopopeya*, 8 zbk. (2013-2014), 123-154.
- ANSA GOICOECHEA, Elixabete: *Mayo del 68 vasco, Oteiza y la cultura política de los sesenta*, Pamiela, Arre, 2019.
- ANSEL, Dario: *ELA en la segunda república, Evolución sindicalista de una organización obrera*, Txalaparta, Tafalla, 2011.
- AOIZ MONREAL, Floren: *El jarrón roto. La transición de Navarra: una cuestión de Estado*, Txalaparta, Tafalla, 2005.
- APARICIO RODRIGUEZ, Victor, GARCIA LERMA, Miguel: «El EMK e Iraultza, «camino de ida y vuelta» (1981-1991)», *Huarte de San Juan. Geografía e historia*, 25 zbk. (2018), 241-269.
- APARICIO RODRIGUEZ, Victor, GARCIA LERMA, Miguel: «Iraultza, 1981-1991. Violencia en el País Vasco contra intereses norteamericanos», MORENO SECO, Monica, FERNANDEZ SIRVENT, Rafael, GUTIÉRREZ LLORET, Rosa Ana (Koord.): *Del siglo XIX al XXI: tendencias y debates*, Biblioteca Virtual Miguel de Cervantes, 2019, 1645-1659.
- ARCOCHA MENDINUETA Elorri, BUENO URRIZELKI Mikel, GARMENDIA AMUTXASTEGI, Gotzon: *Estatu errepreioa Nafarroan: disziplina anitzeko ikuspegia (1936-2006) La represión estatal en Navarra: un análisis mutlidisciplinar*, Geronimo de Uztariz. Iruñea 2019.
- ARISTI, Pako: *Euskal Kantagintza Berria, 1961-1985*, Erein, Donostia, 1985-2020.
- ARRE: *Cuarto debate campesino; vivir del Ebro*, Hordago, Donostia, 1979.
- ARRE: *Segundo debate Campesino: La lucha y la defensa de los renteros y medieros. Cadreita. 28 de mayo de 1978*, Hordago, Donostia, 1978.
- ARRIAGA LANDETA, Mikel: *Y nosotros que éramos de HB... sociología de una heterodoxia abertzale*, Haranburu, Donostia, 1997.
- AZPILICUETA VERGARA, Aritz: «La Transición en Navarra desde un punto de vista electoral (1976-1979)», Emilio Majuelok zuzendutako MBLa, 2019ko iraila, <https://academica-e.unavarra.es/handle/2454/35544>, (2020ko abuztuan kontsultatua).
- BABIANO, José: *Emigrantes, cronómetros y huelgas. Un estudio sobre el trabajo y los trabajadores durante el franquismo (Madrid 1951-1977)*, Siglo XXI, Madril, 1995.
- BABY, Sophie: *El mito de la transición pacífica, violencia y política en España (1975-1982)*, Akal, Madril, 2018.
- BADENES, Patricia: *Fronteras de papel*, Cátedra, 2018.
- BAILEY, Paul J.: *China en el siglo XX*, Ariel, Bartzelona, 2002.
- BALDUZ, Jesús: *La Transición política en Villava (1975-1982): construyendo la democracia = Trantsizio politikoa Atarrabian (1975-1982): demokrazia eraikitzen*, Atarrabiako Udala, Kultura zerbitzua, Atarrabia, 2008.

- BALFOUR, Sebastian: *La dictadura, los trabajadores, y la ciudad. El movimiento obrero en el área metropolitana de Barcelona (1939-1988)*, Alfons el Magnanim, Valentzia, 1994.
- BARAIBAR ETXEBERRIA, Álvaro: *Extraño federalismo la vía navarra a la democracia, 1973-1982*, Centro de Estudios Políticos y Constitucionales, Madril, 2004.
- BASTIDA FREIXEDO, Xacobe: *La nación española y el nacionalismo constitucional*, Ariel, 1998.
- BASTIDA FREIXEDO, Xacobe: *Miseria de la autonomía: una filosofía del estado autonómico*, Universidad de Oviedo, 1999.
- BELLVER LOIZAGA, Vincent. UBEDA PVIA, Miguel: «Movimientos sociales sobre las cenizas de Mayo: Continuidades, fisuras y hegemonía neoliberal», LUJAN, Oriol, CANALIAS, Laura (ed.): *Los embates de la modernidad. Debates en torno a la ciudadanía, el liberalismo, el republicanismo, la democracia y los movimientos sociales. Actas del V Encuentro de Jóvenes Investigadores en Historia Contemporánea*, 4. Bolumena, Departament d'Història Moderna i Contemporània de la Universitat Autònoma de Barcelona, 617-625.
- BENSAID, Daniel: *Trotskismos*, El Viejo Topo, Bartzelona, 2007.
- BEORLEGUI ZARRANZ, David: «La fábrica como espacio de lucha y de memoria, el caso de Bilbao y la Margen Izquierda (1975-1995)», *Historia Contemporánea*, 58 zbk. (2018), 815-847.
- BEORLEGUI ZARRANZ, David: «Los nuevos movimientos sociales en Euskal Herria: los movimientos ecologistas, pacifistas y antimilitaristas desde la transición hasta el cambio de siglo», *Sancho el Sabio Revista de cultura e investigación vasca*, 30 zbk. (2009), 161-185.
- BEORLEGUI ZARRANZ, David: *Transición y melancolía. La experiencia del desencanto en el País vasco (1976-1986)*, Postmetropolis Editorial, Madril, 2017.
- BERNAL GARCIA, Francisco: *El sindicalismo vertical. Burocracia, control laboral y representación de intereses en la España franquista (1936-1951)*, Centro de Estudios Políticos y Constitucionales-Asociación de Historia Contemporánea, Madril, 2010.
- BIANCO, Lucien: *Los Orígenes de la revolución china (1915-1949)* Bellaterra, Bartzelona, 1999.
- BILBAO ARIZTIMUÑO, Kepa: *Crónica de una izquierda singular (se ETA-Berri a EMK/MC y a Zutik Batzarre). Naciones y nacionalismos y otros ensayos (1991-2006)*, edizio elektronikoa, <https://labur.eus/TtfFk> (2020ko irailean kontsultatua).
- BRAVO SUESKUN, Carmen: *De la domesticidad a la emancipación. Las mujeres en la sociedad navarra (1961 – 1991)*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 2012.
- BUENO URRITZELKI, Mikel: «La lucha proamnistía en las provincias vasco-navarras en la Transición española», *Geronimo de Uztariz*, 30-31 zbk. (2014-2015), 83-100.
- BUENO URRITZELKI, Mikel: «Negociaciones políticas del PSOE navarro tras las elecciones municipales y autonómicas de 1979», MARTOS CONTRERAS, Emilia. QUIROSA-CHEYROUZE MUÑOZ, Rafael. SABIO ALCUTÉN, Alberto (Koord.): *40 años de ayuntamientos y autonomías en España*, Universidad de Zaragoza, Zaragoza, 2019, 147-163.
- BUENO URRITZELKI, Mikel: *El PSOE y la UGT en Navarra (1974-1982): creación, formación y desarrollo*, Emilio Majuelok zuzendua, argitaragabea, NUP, Iruñea, 2020/IX,.

- CALVO HERNANDO, Pedro: *Camarada Intxausti. Retrato político de José San Roma Aldea*, Emiliano Escobar Editor, Madril, 1977.
- CAMPO VIDONDO, Juan Manuel, *Una historia de UpeI (1979-2011)*, Pamiela, Arre, 2015.
- CAMPOY FERNANDEZ, «El PTE en la Transición: la ilusión por la ruptura (1975-1977)», MARTÍN RAMOS, José Luís (koord.): *Pan, trabajo y libertad: historia del Partido del Trabajo de España*, El Viejo Topo, Bartzelona, 2011, 159-260.
- CARDINA, Miguel: «Génesis, estructuración e identidad del fenómeno maoísta en Portugal (1964-1974)» *Ayer*, 92 zbk. (2013) 123-146.
- CARRERAS I ODRIUZOLA, Albert, TAFUNELL SAMBOLA, Xavier: *Historia económica de la España contemporánea (1789-2009)*, Crítica, Bartzelona, 2010.
- CARRILLO LINARES, Alberto. RODRIGUEZ TEJADA, Sergio: «1968 y los estudiantes españoles: del antifranquismo a la revolución», MATEOS LOPEZ Abdón. TREGLIA, Emanuele(Koord.): *Las convulsiones del 68. España y el sur de Europa*, UNED, Madril, 2019, 29-64.
- CASANELLAS PEÑALVER, Pau: ««Hasta el fin». Cultura revolucionaria y práctica armada en la crisis del franquismo», *Ayer*, 92 zbk. (2013), 21-46 .
- CASANELLAS PEÑALVER, Pau: *Morir matando. El franquismo ante la práctica armada, 1968-1977*, Los Libros de la Catarata ,Madril, 2013.
- CASANOVA RUIZ, Julian, PRESTON, Paul (koord.): *La guerra civil española*, Editorial Pablo Iglesias, 2008.
- CASANOVA, Iker: *ETA, 1958-2008. Medio siglo de historia*, Txalaparta, Tafalla, 2007.
- CASPISTEGUI GORASURRETA, Francisco Javier: «Una mirada ‘micro’ a las elecciones generales de 1977: actuación y resultados del carlismo no legalizado», *Historia del presente*, 7 zbk. (2006), 149-180.
- CASPISTEGUI GORASURRETA, Francisco Javier. GARDE ETAYO, Maria Luisa: «Navarra, ¿reforma o ruptura?», RAMIREZ SADABA, Jose Luis, (zuz.), *Democratización y mejoramiento foral, una historia de la transición en Navarra*, Nafarroako Gobernu, Iruñea, 1999.
- CASPISTEGUI GORASURRETA, Francisco Javier. LARRAZA MICHELTORENA, Maria del Mar: «El ayuntamiento más complicado de las capitales de provincia. Pamplona 1965-1976», Maria del Mar Larraza Micheltoarena (zuz.), LARRAZA MICHELTORENA, Maria del Mar (zuz.): *De leal a disidente: Pamplona 1936-1977*, Ediciones Eunete, Iruñea, 2006, 177-223.
- CASQUETE, Jesus: «El calendario conmemorativo del nacionalismo vasco radical», *Cuadernos Bakeaz*, 99 zbk. (2010).
- CASTIEN MAESTRO, Juan Ignacio: «Lenin y la "cuestión nacional". Más allá del existencialismo y del constructivismo», *Nomadas: Critical journal of social and juridical*, 39 zbk. (2013), 19-110.
- CATALAN DEUS, José: «La chispa y la pradera. La influencia del maoísmo en la España de los 70. Del FRAP al GRAPO», FERREIRA, Ana Sofia, MADEIRA, Joao (Koord.), *As Esquerdas*

- Radicaís Ibéricas entre a Ditadura e a Democracia. Percursos Cruzados*, Edições Colibri, Portugal, 2020.
- CATALAN VIDAL, Jordi: «Del «milagro» a la crisis: la herencia económica del franquismo», ETXEZARRETA ZUBIZARRETA, Miren (Koord.): *La Reestructuración del Capitalismo Español, 1970-1990*, Icaria, Bartzelona, 1991.
- CAUSSÀ, Martí. MARTÍNEZ I MUNTADA, Ricard (ed.): *Historia de la Liga Comunista Revolucionaria (1970-1991)*, La Oveja Roja, Torrejón de Ardoz, 2014.
- CHIAPELO, Eve, BOLTANSKI, Luc: *El nuevo espíritu del capitalismo*, Akal, Madril, 2002.
- CHUECA INTXUSTA, Josu: «Asalto o salto a las urnas. Estrategias de la izquierda radical ante las elecciones, el caso vasco», Fundación Salvador Seguí-Madrid (Koord.): *Las otras protagonistas de la Transición. Izquierda radical y movilizaciones sociales*, Editorial Descontrol, 2018, 869-874.
- CHUECA INTXUSTA, Josu: «La transición política en Euskal Herria (1975-1982)», AGIRREZKUENAGA ZIGORRAGA, Joseba (koord.): *Historia de Euskal Herria: Historia General de los vascos*, 6 bol., 2004, 87-128.
- CHUECA INTXUSTA, Josu: «Nafarroetik Euskadira. 100 urte euskal nazionalismoaren historian barrena», *Gerónimo de Uztariz*, 9-10 zbk. (1994), 133-148.
- CHUECA INTXUSTA, Josu: «Puntos y contrapuntos para la historia política de Navarra», LANA BERASAIN, Jose Miguel (koord.): *En torno a la Navarra del siglo XX: veintiuna reflexiones acerca de la sociedad, economía e historia*, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Iruñea, 2002, 361-378.
- Colectivo Unitario-LAB, *Obreros somos, 1969-1989: el movimiento obrero en la comarca de Tafalla*, Altaffaylla Kultur Taldea, Tafalla, 1989.
- COLOMER, J. AGUILERA, J.C. SUBIRATS, J. VINTRÓ, J.: *Els grups polítics a Catalunya. Partits i programes. 2. Esquerra extrema esquerra i organismes unitaris*, L'Avenç, 1976.
- COMÍN, Francisco, HERNÁNDEZ BENÍTEZ, Mauro, LLOPIS AGELÁN Enrique (koord.), *Historia económica de España, siglos X-XX*, Crítica, Bartzelona, 2010.
- CUADRA LASARTE, Sabino: *¡No os importe matar! Sanfermines 1978: crimen de Estado*, Txalaparta-SF 78 Gogoan!, Tafalla, 2019.
- CUBERO SANCHEZ, Joaquin: «El Partido Carlista. Oposición al Estado franquista y evolución ideológica (1968-1975)», TUSELL Javier (komp.): *La oposición al régimen de Franco, Estado de la cuestión y metodología de investigación*, UNED, Madril, 1990, 399-406.
- CUCÓ I GINER, Josepa: «L'esquerra revolucionària i la Transició. Dinàmiques i processos» *Debats. Revista de cultura, poder i societat*, Valentzia, Institució Alfons el Magnànim – Centre Valencià d'Estudis i d'Investigació, Volum 132/1, 2018, 13-24.
- CUCÓ I GINER, Josepa: «La izquierda de la izquierda. Un estudio de antropología política en España y Portugal», *Papeles del CEIC, International Journal on Collective Identity Research*, 1. zbk (2007).

- CUCÓ I GINER, Josepa: «Recuperando una memoria en la penumbra: el Movimiento Comunista y las transformaciones de la extrema izquierda español» *Historia y política: Ideas, procesos y movimientos sociales*, 20 zbk. (2008), 73-96.
- DAUM, Nicolas: *Mayo del 68: la palabra anónima. El acontecimiento narrado por sus participantes*, Acuarela & Antonio Machado, 2018.
- DE LA TORRE CAMPO, Joseba: «Industria del automóvil y desarrollo económico regional: La experiencia de Navarra», *Investigaciones de Historia Económica = Economic History Research*, 9 zbk. (2007), 109-140.
- DE LA TORRE CAMPO, Joseba: «Instituciones, empresarios y mercado: la industrialización de Navarra bajo el franquismo», *Revista de Historia Industrial*, 27 zbk, (2005).
- DE LA TORRE CAMPO, Joseba: «Trabajadores, empresarios y tecnócratas en el desarrollo industrial de Navarra (c. 1950-1980)», *Gerónimo de Uztariz*, 22 zbk. (2006), 75-103.
- DE MIGUEL SÁENZ, Javier: «La ORT en Navarra. Orígenes y desarrollo» *Príncipe de Viana. Anejo*, 16 zbk. (1992), 739-755.
- DE MIGUEL SAENZ, Javier: *La Organización Revolucionaria de Trabajadores. Sus orígenes y desarrollo en Navarra. 1964-1977*, lizentziatura memoria argitaratu gabea, 1986.
- DEL RÍO GABARAIN, Eugenio: *De la indignación de ayer a la de hoy*, Talasa, Madril, 2014.
- DÍAZ ALONSO, Diego: «Rojos y abertzales. La Metamorfosis de las izquierdas vascas en la Transición», NAVAJAS ZUBELDIA, Carlos. ITURRIAGA BARCOS, Diego (koord.): *Coetánea, Actas del III Congreso de Historia de Nuestro Tiempo*, 2012, 291-300.
- DÍAZ ALONSO, Diego: *Disputar las banderas: los comunistas, España y las cuestiones nacionales (1921-1982)*, Ediciones Trea, 2019.
- DIAZ MONREAL, Jose Luis: «La huelga general de 1951 en Pamplona» *Estudios en Ciencias Sociales*, 10 zbk (1997), 101-121.
- DIAZ MONREAL, Jose Luis: *La historia olvidada. EGI en Nafarroa durante la década de los sesenta, Ahaztuak 1936-1977*, Algorta (Getxo), 2009.
- DIAZ MONREAL, Jose Luis: *La huelga de 1951 y otros conflictos en Navarra durante los años 50*, Pamiela, Iruñea, 2013.
- DIAZ MONREAL, Jose Luis: *Las huelgas de Potasas*, Ahaztuak, Algorta, 2012.
- DOMENECH i SAMPERE, Xavier: «Comunismo y antifranquismo: una aproximación» NICOLAS MARÍN Maria Encarna, GONZALEZ MARTINEZ: *Ayeres en discusión: temas clave de historia contemporánea hoy»* Murtziako Unibertsitatea, Murtzia, 2008, CD formatua.
- DOMENECH i SAMPERE, Xavier: *Cambio político y movimiento obrero bajo el franquismo. Lucha de clases, dictadura y democracia (1939-1977)*, Icaria, 2012.
- DOMENECH i SAMPERE, Xavier: *Quan el carrer va deixar de ser seu. Moviment obrer, societat civil I canvi polític. Sabadell (1966-1976)*, Publicacions de l'Abadia de Montserrat, Bartzelona, 2002.

- EGIDO, José Antonio: *Viaje a la nada. Principio y fin de Euskadiko Ezkerra*, Txalaparta, Tafalla, 1993.
- ELEY, Geoff: *Un mundo que ganar. Historia de la izquierda en Europa (1850-2000)*, Crítica, Bartzelona, 2003.
- ELORZA, Antonio: *Utopías del 68. De Paris y Praga a China y México*, Pasado y Presente, 2018.
- EQUIZA, Jesus: *¿Política o profecía? El profetismo de la Iglesia navarra en los años 70*, Fundación para el desarrollo informativo navarro, Iruñea, 1983.
- ERIZE, Xabier: *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa 1863-1936*, Nafarroako Gobernu, Iruñea, 1997.
- ESCRIBANO RIERA, Daniel: «Las Jornadas De Lucha De Diciembre De 1974 En El País Vasco», Fundación Salvador Seguí-Madrid (Koord.): *Las otras protagonistas de la Transición. Izquierda radical y movilizaciones sociales*, Editorial Descontrol, 595-608.
- ESCRIBANO RIERA, Daniel. CASANELLAS PEÑALVER, Pau: «Frankismoa ikusezin. Biolentzia politikoaren inguruko «oroimen historiko» instituzionala», *Jakin*, 190 zbk. (maiatza-ekaina 2012), 57-77.
- ESCRIBANO RIERA, Daniel. CASANELLAS PEÑALVER, Pau: «Gizarte-mobilizazioak eta frankismoaren hondar krisia. Euskal Herriaren ekarpena» *Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, 81 zbk. (2012), 17-38.
- ESPARZA ZABALEGI, José Mari: *Cien razones por las que dejé de ser español*, Txalaparta, Tafalla, 2006.
- ESTEFANIA, Joaquin: *Revoluciones. Cincuenta años de rebeldías (1968-2018)*, Galaxia Gutenberg, Bartzelona, 2018.
- ESTORNÉS ZUBIZARRETA, Idoia: *Cómo pudo pasarnos esto. Crónica de una chica de los 60*, Erain, Donostia, 2013.
- ETXEBARRIA DUEÑAS, Gorka: «Identifikazio nazionala erlatibizatuz. Euskal nazionalismoaren diskurtso eta ideologiaz», *Sancho el sabio: Revista de cultura e investigación vasca*, 38 zbk. (2015), 169-193.
- ETXEBARRIA DUEÑAS, Gorka: «Mantener la hipótesis revolucionaria ETA (M) y el otoño de los setenta en Euskadi (1977-1978)», Fundación Salvador Seguí-Madrid (Koord.): *Las otras protagonistas de la Transición. Izquierda radical y movilizaciones sociales*, Editorial Descontrol, 2018, 877-890.
- ETXEBARRIA DUEÑAS, Gorka: *Sozialismoaren historia labor bat*, IPES, Bilbo, 2015
- ETXEBERRIA, Francisco, BERISTAIN, Carlos Martin. PEGO, Laura (zuz.): *Proyecto de investigación de la tortura y malos tratos en el País Vasco entre 1960-2014*, Kriminologiaren Euskal Institutua-Eusko Jaurlaritz, 2017.
- ETXEZARRETA ZUBIZARRETA, Miren (Koord.): *La reestructuración del capitalismo en España, 1970-1990*, Fuhem, Madril, Icaria, Bartzelona, 1991.

- FERNANDEZ BUEY, Francisco Javier: «¿Qué democracia queríamos los comunistas?», BUENO LLUCH, Manuel, GALVEZ BIESCA, Sergio: *Nosotros los comunistas: memoria, identidad e historia social*, FIM, Madril, 2009, 391-404.
- FERNÁNDEZ RINCÓN, Javier: «Cambio de rumbo en la Transición. Claves para entender el desarrollo del Movimiento Comunsita (MC), 1977-1980», Fundación Salvador Seguí-Madrid (Koord.): *Las otras protagonistas de la Transición. Izquierda radical y movilizaciones sociales*, Editorial Descontrol, 2018, 1103-1114.
- FERNÁNDEZ RINCÓN, Javier: «El Origen del Movimiento Comunista de España. Evolución, formación y extensión al ámbito estatal», IX Encuentro de Investigadores del Franquismo de Granada, 2016. <http://transicionyruptura.info/wp-content/uploads/2016/02/05-Javier-FERNA%CC%81NDEZ-RINCO%CC%81N.pdf> 2016ko ekainean kontsultatua.
- FERNÁNDEZ RINCÓN, Javier: «La lucha por la democracia en clave antifascista. El Movimiento Comunista (MC) por la ruptura democrática (1975-1977)», NAVAJAS ZUBELDIA, Carlos. ITURRIAGA BARCO, Carlos (Koord.) *El reinado de Juan Carlos I (1975-2014): actas VI Congreso Internacional de Historia de Nuestro Tiempo*, 2019, 131-147,
- FERNANDEZ SOLDEVILLA, Gaizka: *Héroes, heterodoxos y traidores (1974-1994)*, Tecnos, Madril, 2013.
- FERREIRA, Ana Sofia, MADEIRA, Joao (Koord.), *As Esquerdas Radicais Ibéricas entre a Ditadura e a Democracia. Percursos Cruzados*, Edições Colibri, Portugal, 2020.
- FOLGUERA, Pilar: *Cómo se hace historia oral*, EUDEMA Universidad, 1994.
- FONTANA LAZARO, Josep: «Reflexiones sobre la naturaleza y las consecuencias del franquismo», *España bajo el franquismo*, Crítica, Bartzelona, 1986, 9-38.
- FONTANA LAZARO, Josep: *El siglo de la revolución. Una historia del mundo desde 1914*, Crítica, Bartzelona, 2017.
- FRANQUESA i ARTES, Ramon: «Estabilización del nuevo régimen y autodisolución (1977-1980)», MARTÍN RAMOS, José Luís (koord.): *Pan, trabajo y libertad: historia del Partido del Trabajo de España*, El Viejo Topo, Bartzelona, 2011, 261-324 .
- Fundación Salvador Seguí-Madrid (Koord.): *Las otras protagonistas de la Transición. Izquierda radical y movilizaciones sociales*, Editorial Descontrol, 2018.
- GAGO GONZÁLEZ, Jose Maria, DÍAZ SÁNCHEZ, Pilar: «La construcción y utilización de las fuentes orales para el estudio de la represión franquista», *Hispania Nova: revista de historia contemporanea*, 6. zbk. (2006), 793-818.
- GALCERAN HUGUET, Montserrat: *La invención del marxismo, (estudio sobre la formación del marxismo en la socialdemocracia alemana de finales del s. XIX)*, Iepala, Madril, 1997.
- GALLEGO, Ferran: *El mito de la transición*, Planeta, Bartzelona, 2008.
- GARCÍA ALCALÁ, Julio Antonio. *Historia del "Felipe" (FLP, FOC y ESBA): de Julio Cerón a la Liga Comunista Revolucionaria*. Madrid: Centro de Estudios Políticos y Constitucionales, 2001.

- GARDE ETAYO, Maria Luisa: «El último consejo de Trabajadores de Navarra y el convenio general (1975-1977)». LARRAZA MICHELTORENA, Maria del Mar (zuz.): *De leal a disidente: Pamplona 1936-1977*» Ediciones Eunate, Iruñea, 2006, 225-260.
- GARÍ, Manuel. PASTOR, Jaime. ROMERO, Miguel: *1968: el mundo pudo cambiar de base*, Catarata, Madril 2008.
- GIACCOPUZZI, Giovanni: *ETA pm. El otro camino*, Txalaparta, Tafalla, 1997.
- GIGANTO MARTÍNEZ, José María: «Sindicalismo e Iglesia en la Ribera de Navarra», *Príncipe de Viana. Anejo*, 16 zbk. (1992), 757-782.
- GIMENEZ GIL, Ivan: *ELA en Nafarroa. 100 años de transformación y lucha (1911-2011)*, Txalaparta, Tafalla, 2012.
- GOMEZ CUESTA, Cristina: *Sindicalismo vertical y respuesta obrera Valladolid, 1939-1959*, Universidad de Valladolid, 2010.
- GONZALEZ CALLEJA, Eduardo: *Socialismos y comunismos. Claves históricas de dos movimientos políticos*, Paraninfo, Madril, 2017.
- GONZALEZ DE ANDRÉS, Enrique: *¿Reforma o ruptura? Una aproximación crítica a las políticas del Partido Comunista de España entre 1973 y 1977*, Editorial El Viejo Topo, Bartzelona, 2017.
- GONZALEZ DE ANDRÉS, Enrique: «Del antifranquismo a la revolución. Partido Comunista de España vs Izquierda Radical», FERREIRA, Ana Sofia, MADEIRA, Joao (Koord.), *As Esquerdas Radicais Ibéricas entre a Ditadura e a Democracia. Percursos Cruzados*, Edições Colibri, Portugal, 2020.
- GONZALEZ DE ANDRES, Enrique: «Programa, discurso y actuación del PCE en la huelga general navarra de junio de 1973», *Geronimo de Uztariz*, 33 zbk. (2017), 93-114.
- GONZALEZ FERRIZ, Ramon: *1968. El nacimiento de un mundo nuevo*, Debate, 2018.
- GONZÁLEZ i CALVET, Josep: «La liberalización como estrategia socialdemócrata», *Mientras tanto*, 38 zbk. (1989), 23-42.
- GONZALEZ, Hector: «La izquierda radical y el mito de la traición», *Las otras protagonistas de la Transición. Izquierda radical y movilizaciones sociales*, Editorial Descontrol, 2018, 773-784.
- GORTARI UNANUA, Joaquín: *La Transición política en Navarra: 1976-79*, 2 bol. Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1995.
- GRACIA LUÑO, Manuel: «La refundación del partido: estrategia, táctica y línea de masas», MARTÍN RAMOS, José Luís (koord.): *Pan, trabajo y libertad: historia del Partido del Trabajo de España*, El Viejo Topo, Bartzelona, 2011, 73-102.
- GUERRERO VALLE, Jorge: Fundación Salvador Seguí-Madrid (Koord.): *Las otras protagonistas de la Transición. Izquierda radical y movilizaciones sociales*, Editorial Descontrol, 2018, 1065-1074.
- Hainbat Egile, *Navarra 1936. De la esperanza al terror*, Altafaylla, Tafalla, 2018.

- Hainbat Egile: *Fermin Balentzia. Vivir para cantarla, Kantuari emana*, Txalaparta, Tafalla, 2020.
- Hainbat Egile: *Langileria marxismoa eta nazio arazoa Euskal Herrian, "IPES" ikastaroak. Formazio koadernoak*, I zbk. (1980), IPES.
- Hainbat Egile: *PTE, la lucha por la ruptura democrática en la Transición*, EDILESA, Madril, 2010.
- HARMAN, Chris: «Crisis of the European Revolutionary Left», *International Socialism*, 2: 4 (1979/udaberria), <https://www.marxists.org/archive/harman/1979/xx/eurevleft.html> (2020an kontsultatua).
- HARMAN, Chris: *The fire last time, 1968 and after*, Bookmarks, Chicago, Londres, Sydney, 1998.
- HEINE, Harmunt: «La contribución de la «Nueva Izquierda» al resurgir de la democracia española, 1956-1976», FONTANA LÁZARO, Josep: *España bajo el franquismo*, Crítica, Bartzelona, 1986, 142-159.
- HERRERA FELIGRERAS, Andrés: «De la celula al partido de masas. Una aproximación al desarrollo del PCE en Navarra durante el tardo franquismo», BUENO LLUCH, Manuel. HINOJOSA MONTALVO, José Ramón (Koord.); *Historia del PCE. I Congreso, 1920-1977*, vol II, FIM, Madril, 121-133.
- HERVELLA GARCIA, Gustavo: «La izquierda marxista-leninista: el Movimiento comunista, MC y el nacionalismo 1972-1982», Hainbat Egile: *Actes de Congrès la transició de la dictadura franquista a la democràcia*, UAB, Bartzelona, 2005, 165-174.
- HOBBSAWM, Eric (zuz.): *Historia del marxismo*, 4 liburuki, Bruguera, Bartzelona, 1981.
- HOBBSAWM, Eric: *Historia del siglo XX, 1914-1991*, Crítica, Bartzelona, 1995.
- HORN, Gerard-Rainer: *The spirit of 68. Rebellion in Western Europe and North America, 1956-1976*, Oxford University, Nueva York, 2007.
- HUICI URMENETA, Vicente. SORAUREN DE GRACIA, Mikel. JIMENO JURIO, Jose Maria: *Historia contemporánea de Navarra, Txertoa, Donostia*, 1982.
- IBARRA GÜELL, Pedro: *El Movimiento obrero en Vizcaya, 1967-1977: ideología, organización y conflictividad*, EHU, Leioa, 1987.
- IBARRA GÜELL, Pedro: *La evolución estratégica de ETA. (Hasta después de la tregua)*, Kriselu, Donostia, 1989.
- IBARRA GÜELL, Pedro: *Memoria del antifranquismo en el País Vasco. Por qué lo hicimos (1966-1976)*, Pamiela, Arre, 2016.
- ILITX ULIANOV LENIN, Vladimir: «La revolución socialista y el derecho de las naciones a la autodeterminación», *Obras, Tomo V (1913-1916)*, <https://labur.eus/8Asn6> , 150-156.
- IRIARTE ARESO, Jose Vicente: «Otoño caliente en Navarra. La huelga general del 11 de diciembre de 1974», *Geronimo de Uztariz*, 14-15zbk (1999), 105-121.
- IRIARTE ARESO, José Vicente: «Universidad y movimiento estudiantil en Navarra bajo el Regimen de Franco», CARRERAS ARES, Juan José. RUIZ CARNICER, Miguel Angel (eds.):

La universidad española bajo el régimen de Franco (1939-1975), Insitución Fernando el Católico, Zaragoza, 1981, 601-616.

IRIARTE ARESO, José Vicente: *Movimiento obrero en Navarra (1967-1977)*, Departamento de Educación, Cultura, Deporte y Juventud, Iruñea, 1995.

IRIARTE BIKILA, Joxe: «La crisis ideologica en 1970. El proceso de Burgos. Aportaciones del Marxismo Revolucionario ante el pronblema nacional», Hainbat Egile: *Langileria marxismoa eta nazio arazoa Euskal Herrian*, “IPES” ikastaroak. *Formazio koadernoak*, I zbk. (1980), IPES, 24-30 eta 54-56.

IRIARTE BIKILA, Joxe: *Borrokaren gorrian*, Txalaparta, Tafalla, 1999.

ITURBE, Francisco Javier, ERREA, Antonio, PASTOR, Pedro, HERMIDA, Santiago, DE MIGUEL, Javier: *El libro negro sobre la Diputación Foral de Navarra*, Emiliano Escolar Ediciones, Madril, 1978.

ITURRIOTZ, Patxi: «ETA en el año 1966. Divergencia internas que lleva a la aparición de ETA-Berri. Algunas aportaciones teórico-políticas a la causa revolucionaria vasca», Hainbat Egile: *Langileria marxismoa eta nazio arazoa Euskal Herrian*, “IPES” ikastaroak. *Formazio koadernoak*, I zbk. (1980) IPES, 3-9.

JAUREGUIBERRY, Francis: *Question nationale et Mouvements sociaux en Pays Basque Sud*, École des Hautes Études en Sciences Sociales (EHESS), Paris, 1983. <https://tel.archives-ouvertes.fr/tel-00942937/document> 2018ko irailean kontsultatua.

JIMENEZ DE ABERASTURI CORTA, Juan Carlos, LOPEZ ADAN, Emilio: *Organizaciones, sindicatos y partidos políticos ante la Transición: Euskadi 1976*, Centro de Documentación de Historia Contemporánea del País Vasco, 4 zbk., Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1989.

JIMENO ARANGUREN, Roldan: *Amnistías, perdones y justicia transicional. El pacto de silencio español*, Pamiela, Arre, 2018.

JULIÀ, Santos (koord.): *Víctimas de la guerra civil*, Temas de Hoy, Madril, 2004.

JULIA, Santos: «En torno a los proyectos de Transición y sus imprevistos resultados», Carme Molinero (edi.), *La Transición, treinta años después*, Península, Bartzelona, 2006.

JULIÀ, Santos: *Transición: historia de una política española (1937-2017)*, Galaxia Gutenberg, Bartzelona, 2017.

KOŁAKOWSKI, Leszek: *Las principales corrientes del marxismo*, 3 liburuki, Alianza Editorial, Madril, 1980.

KORTAZAR BILLELABEITIA, Jon: «Euskadiko Mugimendu Komunista (1969-1991): Historia eta ideologia», *Vasconia: Cuadernos de historia - geografía*, 38 zbk. (2012). 1079-1109.

KORTAZAR BILLELABEITIA, Jon: El «Movimiento Comunista de Euskadi y la Transición en el País Vasco (1975-1980)», GONZÁLEZ GONZÁLEZ, Alberto (koord.) *No es país para jóvenes* (actas del Encuentro de Jóvenes Investigadores en Historia Contemporánea, 2009, Granada), Instituto Valentín de Foronda, 2012.

- LAIZ CASTRO, Consuelo: *La lucha final: los partidos de la izquierda radical durante la transición española*, Los libros de Catarata, Madril, 1995.
- LANA BERASAIN, Jose Miguel (koord.): *En torno a la Navarra del siglo XX: veintiún reflexiones acerca de sociedad, economía e historia*, NUP, Iruñea, 2002.
- LETAMENDIA BELZUNCE ORTZI, Francisco: «La Construcción de una Alternativa revolucionaria: de la V Asamblea, ETA a KAS», Hainbat Egile: *Langileria marxismoa eta nazio arazoa Euskal Herrian, "IPES" ikastaroak. Formazio koadernoak*, I zbk. (1980) IPES, 11-15.
- LETAMENDIA BELZUNCE ORTZI, Francisco: *Denuncia en el parlamento*, Txertoa, Zarautz, 1978.
- LETAMENDIA BELZUNCE ORTZI, Francisco: *El no vasco a la reforma: 1º La consolidación de la reforma*, Txertoa, Donostia, 1979.
- LETAMENDIA BELZUNCE ORTZI, Francisco: *El no vasco a la reforma: 2º La ofensiva de la reforma*, Txertoa, Donostia, 1979.
- LETAMENDIA BELZUNCE ORTZI, Francisco: *Historia del nacionalismo vasco y de E.T.A.*, R&B, Donostia, 1994.
- LIZARRAGA, Joaquin (Miguel Vazquez): *¡Abajo la dictadura!*, Last Meeting Corner, 2019.
- LLONA GONZALEZ, Miren (Koord.): *Entreverse, teoría y metodología práctica de las fuentes orales*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa, 2012.
- LOFF, Manuel: «¿Revolución versus transición? Visiones de España desde el Portugal revolucionario y postrevolucionario», *Gerónimo de Uztariz*, 20 zbk. (2004), 17-44
- LOPEZ GOÑI, Irene: «La «Sección de Fomento de Vasconce» de la Diputación de Navarra (1957-1972). Génesis y actuación», *Gerónimo de Uztariz*, 19 zbk. (2003), 49-73.
- LOPEZ GOÑI, Irene: «Las Ikastolas en Navarra (Siglo XX): Búsqueda de un modelo de escuela propio» *Historia de la educación: Revista interuniversitaria*, 24 zbk (2005), 371-396.
- LÓPEZ, Dolores, MONTORO, Carolina: «Cambios en la ciudad de Pamplona (1945-1975). Una mirada desde la demografía», LARRAZA MICHELTORENA, Maria del Mar (Zuz.): *De leal a disidente: Pamplona 1936-1977*, Ediciones Eunete, Iruñea, 2006, 211-250.
- LOS ARCOS LEON, Blas: «Evolución de la economía de Navarra en el período 1960-2007», *Iura Vasconiae: revista de derecho histórico y autonómico de Vasconia*, 7 zbk. (2010), 231-255.
- MAJUELO GIL, Emilio, PASCUAL BONIS, Angel: *Del catolicismo agrario al cooperativismo empresarial setenta y cinco años de la Federación de Cooperativas navarras, 1910-1985*, Ministerio de Agricultura, Alimentación y Medio Ambiente, 1991.
- MAJUELO GIL, Emilio: «Euskal Herria, 1939-1975», AGIRREZKUENAGA ZIGORRAGA, Joseba (koord.): *Historia de Euskal Herria: Historia General de los vascos*, 6 bol., Lur, 2004, 33-86.
- MAJUELO GIL, Emilio: «Movimientos sociales y protesta social en Navarra durante el siglo XX», LANA Berasain, JM (coor): *XX reflexiones sobre Navarra ante el siglo XXI*, NUP, Iruñea, 2002, 289-322.

- MAJUELO GIL, Emilio: *La idea de Historia en Arturo Campion*, Txalaparta, Tafalla, 2015.
- MAJUELO GIL, Emilio: *LAB sindikatuaren historia. Langile Abertzaleen Batzordeak (1975-2000)*, Txalaparta, Tafalla, 2004.
- MALUQUER DE MOTES, Jordi: *La economía española en perspectiva histórica*, Pasado & Presente, Bartzelona, 2014.
- MAO ZEDONG: *Citas del predidente Mao Tse-Tung. (El libro rojo)*. Akal, Madril, 2018.
- MAO ZEDONG: *Mao Tzedung Buruzagiaren aiphuak edo Liburu Gorria*, EHK. <https://labur.eus/hqlCf> (2020ko ekainean kontsultatua).
- MARTÍN RAMOS, José Luís (koord.): *Pan, trabajo y libertad: historia del Partido del Trabajo de España*, El Viejo Topo, Bartzelona, 2011.
- MARTINEZ I MUNTADA, Ricard: «Hacia La Liga. Orígenes De Una Organización Revolucionaria (1968-1970)», Fundación Salvador Seguí-Madrid (koord.), *Las otras protagonistas de la Transición. Izquierda radical y movilizaciones sociales*, Editorial Descontrol, 2018, 1047-1063.
- MARTINEZ I MUNTADA, Ricard: «La izquierda revolucionaria de ambito estatal, de los sesenta a los ochenta: Una brevisima historia», *Viento Sur*, 126 zbk. (2013/I), 108-118.
- MARTÍNEZ I MUNTADA, Ricard: «La izquierda revolucionaria en tiempos de cambio político. Algunas consideraciones generales y una experiencia particular», MOLINERO, Carme y YSÀS, Pere (Ed.): *Las izquierdas en tiempos de transición*, Publicacions de la Universitat de València, Valentzia, 2016.
- MARTINEZ I MUNTADA, Ricard: «Movimiento vecinal, antifranquismo y anticapitalismo», *Historia, trabajo y sociedad*, 2 zbk. (2011), 63-90.
- MATEOS LOPEZ Abdón. TREGLIA, Emanuele (Koord.): *Las convulsiones del 68. España y el sur de Europa*, UNED, Madril, 2019.
- MATEOS LOPEZ, Abdón. «Mayo y la idea socialista autogestionaria en la España de los setenta», MATEOS LOPEZ Abdón. TREGLIA, Emanuele (Koord.): *Las convulsiones del 68. España y el sur de Europa*, UNED, Madril, 2019, 117-127.
- MATEOS LOPEZ, Abdón. ALTED VIGIL, Alicia: «Problemas de método en el estudio de la oposición al franquismo. La utilización del testimonio oral», *Espacio, tiempo y forma. Serie V, Historia contemporánea*, 3 zbk., 2 vol. (1990), 57-68.
- MC CLANCY, Jeremy: «GAC, Militant Carlist Activism, 1968-1972», A. DOUGLAS William (comp.): *Essais in Basque Social Antropology*, University of Nevada Press, Reno, 177-185.
- MC CLANCY, Jeremy: *The Decline of Carlism*, University of Nevada Press, Reno, 2000.
- MC: *De Franco a Juan Carlos I. El Movimiento Comunista en la Transición política*, Editorial Revolución, Fuenlabrada, 1979.
- MENDEZA CLEMENTE, David: «Cambio en la estructura de clases y procesos históricos en Navarra y Zaragoza (1960-1980)», *Gerónimo de Uztariz*, 9-10 zbk. (1994), 55-74.

- MENDIOLA GONZALO, Fernando: «El mundo del trabajo en la comarca de Pamplona durante la Transición: conflictividad laboral, género y estrategias familiares», *La transición a la democracia en España: actas de las VI Jornadas de Castilla-La Mancha sobre Investigación en archivos*, Vol. 2, 2004. <https://labur.eus/VBoLc> (2020ko urrian kontsultatua).
- MENDIOLA GONZALO, Fernando: «Entre los viejos y los nuevos moldes: cambio social y político en Pamplona y su comarca (1951-1981)», *Geronimo de Uztariz*, 17-18 zbk. (2002), 211-250.
- MESA, Roberto: *Jaraneros y alborotadores: documentos sobre los sucesos estudiantiles de febrero de 1956 en la Universidad Complutense de Madrid*, Editorial de la Universidad Complutense, Masdril, 1982.
- MIKELARENA PEÑA, Fernando. GARCÍA-SANZ MARCOTEGUI, Ángel: «Españolismo, vasquismo y navarrismo foral cambios y persistencias en la interpretación de la identidad navarra hasta 1936», *Historia y política: Ideas, procesos y movimientos sociales*, 2 zbk. (1999), 83-122.
- MIKELARENA PEÑA, Fernando. GARCÍA-SANZ MARCOTEGUI, Ángel: «Evolución de la población y cambios demográficos en Navarra durante el siglo XX» *Gerónimo de Uztariz*, 10 zbk. (2000), 125-138.
- MIKELARENA PEÑA, Fernando. GARCÍA-SANZ MARCOTEGUI, Ángel. IRIARTE LÓPEZ, Iñaki: *Historia del navarrismo (1841-1936), sus relaciones con el vasquismo*, NUP, Iruñea, 2002.
- MOLINERO, Carme (ed.): *La Transición. Treinta años después*, Península, Bartzelona, 2006. Alvaro Soto, *Transición y cambio en España. 1975-1996*, Alianza, Madril, 2005.
- MOLINERO, Carme. YSAS, Pere: «La izquierda en los años 70», *Historia y Política: Ideas, procesos y movimientos sociales*, 20 zbk. (2008), 21-42.
- MOLINERO, Carme. YSAS, Pere: «Productores disciplinados: control y represión laboral durante el franquismo (1939-1958)», *Cuadernos de relaciones laborales*, 3 zbk. (1993), 33-50.
- MOLINERO, Carme. YSAS, Pere: *De la hegemonía a la autodestrucción. El Partido Comunista de España (1956-1982)*, Crítica, Bartzelona, 2017.
- MOLINERO, Carme. YSAS, Pere: *Els industrials catalans durant el franquisme*, Eumo, Vic, 1991.
- MOLINERO, Carme. YSAS, Pere: *Productores disciplinados y minorías subversivas. Clase obrera y conflictividad laboral en la España Franquista, Siglo XXI Ediciones*, Madril, 1998.
- MONEDERO, Juan Carlos: *La Transición contada a nuestros padres. Nocturno de la democracia española*, Catarata, Madril, 2011.
- MONET ROCA, M.: «La cuestión nacional. Rosa versus Lenin», *Filosofía, política y economía en el Laberinto*, 2 zbk., (2000).
- MONTERO, Justa, CERVERA, Montse: «Feminismo Insumiso En La Transición», Fundación Salvador Seguí-Madrid (koord.), *Las otras protagonistas de la Transición. Izquierda radical y movilizaciones sociales*, Editorial Descontrol, 2018, 147-154.

- MORAN, Gregorio: *El precio de la Transición*, Akal, Barcelona, 2015.
- MORAN, Gregorio: *Los españoles que dejaron de serlo cómo y por qué Euskadi se ha convertido en la gran herida histórica de España*, Grupo Planeta, Barcelona, 2003.
- MORAN, Gregorio: *Miseria, grandeza y agonía del Partido Comunista de España. 1939-1985*, Akal, Madrid, 2017.
- MORENO SECO, Monica: «1968 y el movimiento feminista: caminos de ida y vuelta», MATEOS LOPEZ Abdón. TREGLIA, Emanuele(Koord.): *Las convulsiones del 68. España y el sur de Europa*, UNED, Madrid, 2019.
- MORENO SECO, Monica: «Compromiso político y feminismo en el universo comunista de la Transición», *Cuestiones de género: de la igualdad y la diferencia*, 8 zbk. (2013), 43-60.
- MORENO SECO, Monica: «Género, transgresión y militancia en la izquierda radical de los años setenta», ORTEGA LOPEZ, Teresa Maria, AGUADO, Ana M, HERNANDEZ SANDOICA, Elena (koord.): *Mujeres, dones, mulleres, emakumeak: Estudios sobre la historia de las mujeres y del género*, 2019, 287-301.
- MORENO SECO, Monica: «Sexo, Marx y nova cançó. Género, política y vida privada en la juventud comunista de los años setenta», *Historia contemporánea*, 54 zbk. (2017), 47-84.
- MUÑOZ ONOFRE, Darío: «Construcción narrativa en la historia oral», *Nómadas*, 18 zbk. (2003), 94-102.
- NASH, Mary: *Represión, resistencias, memoria. Las mujeres bajo la dictadura franquista*, Comares, Granada, 2013.
- NOYA, Javier: *Mayo del 68. Las críticas de la izquierda a las revueltas estudiantiles*, Los Libros de la Catarata, 2018.
- OLCOZ IRACHETA, Castor: *Jesus Lezaun. La afonía de Ezequiel*, Txalaparta, Tafalla, 2009.
- ONRUBIA REBUELTA, Javier: *La resistencia carlista a la dictadura de Franco: Los «Grupos de Acción Carlista» (GAC)*, Mafalia, Madrid, 2000.
- ORT: *Historia del movimiento obrero navarro: 25 años de lucha 1950-1975*, Organización Revolucionaria de Trabajadores, Iruñea, 1975.
- PACHECO PEREIRA, Jose: «El Partido Comunista Portugués y la Izquierda Revolucionaria», *Revista de Estudios Políticos (nueva época)*, 60-61 zbk. (1988), 69-100.
- PALA, Giaime: «El PSUC davant la qüestió nacional (1949-1980)», PUIGSECH FARRAS, J. PALA, G: *Les Mans del PSUC. Militància*, Documents del Memorial Democràtic, 7 zbk., 2017, 202-221.
- PALA, Giaime: «Una semilla de discordia la entrada de Bandera Roja en el PSUC», *Revista HMiC: història moderna i contemporània*, 9 zbk. (2011), 140-163.
- PASCUAL BONIS, Angel: «La Transición Política (1975-1982)», PASCUAL BONIS, Angel (Koord.): *Navarra durante el siglo XX: la conquista de la libertad*, 2001, 167-186.

- PASTOR, Jaime: «Mayo 68, de la revuelta estudiantil a la huelga general su impacto en la sociedad francesa y en el mundo», *Dossiers feminsites*, 12 zbk., (2008), 31-47.
- PASTOR, Jaime: *Los nacionalismos, el Estado español y la izquierda*, Oveja Roja, Torrejón de Ardoz, 2014.
- PCE: «El comunismo, bandera de unión de todos los trabajadores. Manifiesto programa del PCE, aprobado en 1975 en la Conferencia entre el VIII y IX Congreso», *Utopías, Nuestra Bandera*, 203-204 zbk. (2005), 57-113.
- PCE: «Programa del Partido Comunista de España. VI Congreso del PCE (28-31 de enero 1960)», *Utopías, Nuestra Bandera*, 203-204 zbk. (2005), 23-55.
- PEREZ AGOTE, Alfonso: «Cambio social e ideológico en Navarra (1936-1982)», *Reis: Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, 46 zbk. (1989), 7-21.
- PEREZ AGOTE, Alfonso: *La reproducción del nacionalismo. El caso vasco*. CIS, 1984.
- PEREZ CALVO, Alberto: *Los partidos políticos en el País Vasco*, Donostia, Luis Haramburu Editor, Col. «Hemen» 2, Turner ediciones, 1977.
- PEREZ GARZÓN, Juan Sisinio: «La dictadura del proletariado en la transición: ¿en el corazón de la izquierda?», QUIROSA-CHEYROUZE, Rafael. FERNÁNDEZ AMADOR, Mónica (Ed.): *Poder y Transición en España. Las instituciones políticas en el proceso democratizador*, Biblioteca Nueva, Madrid, 2017.
- PEREZ IBARROLA, Nerea: «Capítulo 20: Mineros y obreros contra Franco: del Encierro en la mina de Potasas a la huelga general de 1975 en Navarra», CUADRADO BOLAÑOS, Jara (ed. Lit.), *Las huellas del franquismo: pasado y presente*, Comares, Albolote-Granada, 2019, 390-409.
- PEREZ IBARROLA, Nerea: «Movimiento obrero y movilización ciudadana en la Pamplona del tardofranquismo y la transición ¿un inesperado despertar?», *Gerónimo de Uztariz*, 28-29 zbk., (2012-2013), 123-154.
- PEREZ IBARROLA, Nerea: *Langileria Berri Baten Eraketa. Iruñerria 1956 -1976*. Nafarroako Gobernua, Iruñea, 2017.
- PEREZ OCHOA, Iñigo: «Oposición al franquismo y movimiento obrero en Tudela en los últimos años del régimen franquista (1968-1977)», *Sancho el sabio: Revista de cultura e investigación vasca*, 10 zbk. (1999), 27-51.
- PEREZ SERRANO, Julio: «Estrategias de la izquierda radical en el segundo franquismo y la Transición (1956-1982)», CHAPUT, Marie-Claude, PEREZ SERRANO, Julio (koord.), *La transición española: Nuevos enfoques para un viejo debate*, Biblioteca Nueva, Madrid, 2015, 95-125
- PEREZ SERRANO, Julio: «Los proyectos revolucionarios en la Transición española: cuestiones teóricas e historiografía», CARADELL, Zoraida, PEREZ SERRANO, Julio, PUJOL BERCHE, Merce, TAILLOT, Allison: *La construcción de la democracia en España (1868-2014) Espacios, representaciones, gentes y proyectos*, Nanterre, Paris, 2019.

- PEREZ SERRANO, Julio: «Orto y ocaso de la izquierda revolucionaria en España (1959-1994)», QUIROSA-CHEYROUZE MUÑOZ, Rafael: *Los partidos en la Transición: las organizaciones políticas en la construcción de la democracia española*, Biblioteca Nueva, Madril, 2013, 249-291.
- PEREZ SERRANO, Julio: «Servir al pueblo: trayectorias del maoísmo en la península Ibérica», *Berceo*, 173 zbk. (2017), 199-216.
- PEREZ, Alvaro: «La Participación De La Izquierda Radical Española en la Construcción Regional De Castilla y León (1975-1983)», *Las otras protagonistas de la Transición. Izquierda radical y movilizaciones sociales*, Editorial Descontrol, 823-839.
- PESCADOR MEDRANO, Aitor, BARCOS, Jesus: *El Ayuntamiento de Pamplona durante la Transición*, Txalaparta, Tafalla, 2011.
- PIEROLA NARVARTE, Gemma: *Mujer e ideología en la dictadura franquista, Navarra (1939-1960)*, Pamiela, Arre, 2018.
- PLANAS I SERRA, Albert: «La izquierda marxista radical en la Transición: Catalunya, 1968-1980», QUIROSA-CHEYROUZE, Rafael NAVARRO PEREZ, Luis Carlos, FERNÁNDEZ AMADOR, Monica (Koord.): *V Congreso internacional. Historia de la Transición en España. Las organizaciones políticas*, Universidad de Almería, Almeria, 2011, 609-620.
- PRESTON, Paul: *La Destrucción de la democracia en España: reforma, reacción y revolución en la Segunda República*, Alianza, Madril, 1987.
- QUIROGA FERNÁNDEZ DE SOTO, Alejandro «Coyunturas críticas: la izquierda y la idea de España durante la Transición», *Historia del presente*, 13 zbk. (2009), 21-40.
- RAMIREZ BARACE, Oskia: «Jesús Bueno Asin (1944-1975). Belaunaldi oso baten isla», *Gerónimo de Uztariz*, 30-31 zbk. (2014-2015), 101-132.
- RAMÍREZ SÁDABA, Jose Luis: (zuz.), *Democratización y Amejoramiento Foral. Una historia de la Transición en Navarra (1975-1983)*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1999.
- RAPOPORT, David C.: «Las cuatro oleadas del terrorismo moderno», *I Jornada sobre terrorismos en el siglo XXI: Su persistencia y su declive*, 2004, 1-12.
- REMÓN BERRADE, Gaudencio: «La Organización Revolucionaria De Trabajadores (ORT) ante la Junta Democrática y la Plataforma De Convergencia», *Estudios de Ciencias Sociales*, 8 zbk., (1995), 259-280.
- REMÓN BERRADE, Gaudencio: «La rebelión de los mineros: conflictividad laboral en al minería navarra de potasa durante el franquismo», *Estudios de Ciencias Sociales*, 7 zbk., (1994), 241-260.
- RETANA, Juan: *22 de septiembre, San Fermín*, Pamiela, Iruñea, 2018. Azken honek eleberri forma du, baina dokumentu interesgarria da hala ere.
- RIVERA BLANCO, Antonio: «La transición en el País Vasco, un caso particular», UGARTE TELLERÍA, Javier: (koord.), *La transición en el País Vasco y España: historia y memoria*, EHU, 1998, 79-92.

- ROCA, José Manuel (ed.): *El proyecto radical. Auge y declive de la izquierda revolucionaria en España (1964-1992)*, Los libros de la Catarata, Madrid, 1994.
- ROCA, José Manuel: «Batallas Y Derrotas De La Izquierda Radical En La Transición», Fundación Salvador Seguí-Madrid (koord.), *Las otras protagonistas de la Transición. Izquierda radical y movilizaciones sociales*, Editorial Descontrol, 2018, 732-772.
- RODRÍGUEZ GARCÍA, Antonio Manuel, LUQUE PEREZ, Rosa M., NAVAS SÁNCHEZ, Ana M.: «Usos y beneficios de la historia oral», *ReiDoCrea: Revista electrónica de investigación y docencia creativa*, 3. zbk., (2014), 193-200.
- RODRÍGUEZ LÓPEZ, Emmanuel: *Por qué fracasó la democracia en España. La Transición y el régimen del '78*, Traficantes de Sueños, Madrid, 2015.
- ROSS, Kristin: *Mayo del 68 y sus vidas posteriores. Ensayo contra la despolitización de la memoria*, Acuarela Libros & A. Machado, Madrid, 2008
- ROUSSET, Pierre: «Dos generaciones en la evolución de la izquierda radical» GARI, Manuel. PASTOR, Jaime. ROMERO, Miguel: *1968: el mundo pudo cambiar de base*, Catarata, Madrid, 2008.
- RUIZ CARNICER, Miguel Angel: *El Sindicato Español Universitario (SEU), 1939-1965, la socialización política de la juventud universitaria en el franquismo*, Siglo XXI, Madrid, 1996.
- RUIZ, Fernando. ROMERO, Joaquin (ed.): *Los partidos marxistas. Sus dirigentes, sus programas*, Anagrama, Barcelona, 1977.
- RUPAR, Brenda: «El debate chino-soviético y la emergencia del maoísmo como corriente política diferenciada en el Movimiento Comunista Internacional», *Historia contemporánea*, 57 (2018), 559-586.
- SAINZ PASCUAL, Zuriñe: «El despertar de una conciencia ciudadana a través del urbanismo, el Ayuntamiento de Pamplona, 1966-1976», *Gerónimo de Uztariz*, 23-24 zbk. (2008), 123-174.
- SAINZ PASCUAL, Zuriñe: *Conflicto y poder municipal: Pamplona 1936-1976*, Doktorego Tesia, UPNA-NUP, Iruñea, 2017.
- SANCHEZ CARRION TXEPETX, Jose Maria: *El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra*, Inst. Príncipe de Viana, Iruñea, 1972.
- SANS MOLAS, Joel: «El auge del radicalismo obrero de los años 70 y su crisis en un cambio de ciclo», LUJÁN, Oriol, CHORRERO CANALIAS Laura (koord.): *Los embates de la modernidad: Debates en torno a la ciudadanía, el liberalismo, el republicanismo, la democracia y los movimientos sociales*, 2017, 691-711.
- SANS MOLAS, Joel: «Entre las instituciones y la movilización: la crisis de la izquierda radical durante la transición», QUIROSA-CHEYROUZE, Rafael NAVARRO PEREZ, Luis Carlos, FERNÁNDEZ AMADOR, Monica (Koord.): *V Congreso internacional. Historia de la transición en España. Las organizaciones políticas*, Universidad de Almería, Almería, 2011, 649-665.
- SANS MOLAS, Joel: «L'esquerra revolucionària i el seu paper en la mobilització social i el canvi polític dels anys 70: Estat de la qüestió i alguns apunts per al seu estudi», Vicent Bellver

- Loizaga, F. D'amaro, I. Molina Puertos, J. Ramos Tolosa (Koord.), *Otras voces, otros ámbitos: Los sujetos y su entorno. Nuevas perspectivas de la historia sociocultural*, Universitat de Valencia/Asociación de Historia Contemporánea, Valentzia, 2013, 283-287.
- SANS MOLAS, Joel: *Militancia, vida y revolución en los años 70: la experiencia de la Organización de Izquierda Comunista (OIC)*, UAB, Cerdanyola del Vallès, 2017, argitaratu gabeko tesia. <https://ddd.uab.cat/record/187368> (2020ko martxoan kontsultatua)
- SANTAMARIA BLASCO, Jose Elena: «Movimiento obrero apostólico en Navarra 1946-1970», *II Congreso de Historia de Navarra de los siglos XVIII, XIX y XX, Príncipe de Viana, Anejo*, 16 (1992), 699-724.
- SARASUA, Carmen, MOLINERO, Carme: «Trabajo y niveles de vida en el Franquismo. Un estado de la cuestión desde una perspectiva de género», *Working Papers (Universitat Autònoma de Barcelona. Unitat d'Història Econòmica)*, 3 zbk., 2008.
- SARTORIUS, Nicolas. SABIO, Alberto: *El final de la dictadura. La conquista de la democracia en España (noviembre de 1975 – junio de 1977)*, Temas de Hoy, Madril, 2007.
- SATRUSTEGI ANDRES, Imanol, PEREZ OCHOA, Iñigo: «UNAI: auge y fracaso de la izquierda revolucionaria en Navarra», *Príncipe de Viana*, 2020, (prentsan).
- SATRUSTEGI ANDRES, Imanol: «La izquierda revolucionaria vasca bajo el franquismo el ejemplo del MCE», *Las otras protagonistas de la transición. Izquierda radical y movilizaciones sociales*, 2018, 1087-1102.
- SATRUSTEGI ANDRES, Imanol: «Ezkerraren ezkeraz. The left wing of the left», *Gerónimo de Uztariz*, 33 zbk. (2017), 73-91.
- SILVER, Philip W.: *Nacionalismos y transición: Euskadi, Catalunya, España*, Txertoa, Donostia, 1988.
- SOLE SOLDEVILLA, Josep Maria: *Bandera Roja (1968-1974)*, UB, Bartzelona, 2019, argitaratu gabeko tesia. <https://www.tdx.cat/handle/10803/666895#page=1> (2020ko martxoan kontsultatua).
- SOMMIER, Isabelle: «La extrema izquierda en Francia e Italia. Los diferentes devenires de una misma causa revolucionaria», *Ayer*, 92 zbk. (2013), 147-169.
- TAMAMES, Ramon: *La Economía Española 1975-1995*, Ediciones Temas de Hoy, Madril, 1995.
- TEODORI, Massimo: *Las Nuevas izquierdas europeas, 1956-1976*, Blume, Bartzelona, 1978.
- TORAL, Mikel (ed.): *La calle es nuestra. La transición en el País Vasco (1973-1982)*, Kultura Abierta, Bilbo, 2017.
- TREGLIA, Emanuele: «Izquierda comunista y cambio político: el caso de la ORT», *Ayer*, 92 zbk. (2013), 47-71.
- TREGLIA, Emanuele: «Los vientos de Checoslovaquia. El PCE y el 68 del comunismo», MATEOS LOPEZ Abdón. TREGLIA, Emanuele (koord.): *Las convulsiones del 68. España y el sur de Europa*, UNED, Madril, 2019, 95-116.
- TROTSKY, Leon: *Trantsizio programa*, Federico Engels Fundazioa, Euskal Herria Sozialista, 2009.

- TUÑÓN DE LARA, Manuel: «Navarra en los movimientos sociales de la historia contemporánea de España», *Principe de Viana, anejo*, 5 zbk. (1986), 9-22.
- TUSELL, Javier: *La Transición española a la democracia*, Historia 16, Madril, 1997.
- TUSELL, Javier: *La Transición española a la democracia*, Historia 16, Madril, 2 liburuki, 1991.
- VALDIBIESO NAVARRO, Joaquin M.: «André Gorz, perfil político y filosófico de un intelectual disidente, in memoriam», *Revista internacional de filosofía política*, 30 zbk. (2007) 101-116.
- VALENTIN GONZALEZ, Andres: «Materiales para un mapa electoral de Navarra», *REIS: Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, 51 zbk. (1990), 121-172.
- VIGNA, Xavier: *L'insubordination ouvrière dans les années 68: Essai d'histoire politique des usines*, Presses Universitaires de Rennes, 2015.
- VIGNA, Xavier. ZANCARINI-FOURNEL, Michelle: «Les rencontres improbables dans les années 68» *Vingtième Siècle. Revue d'histoire*, 101 zbk. (2009/1), 163-177.
- VILLANUEVA MARTÍNEZ, Aurora: «Organización, actividad y bases del carlismo navarro durante el primer franquismo», *Gerónimo de Uztariz*, 19 (2003), 97-117.
- VINEN, Richard: *1968, El año en que el mundo pudo cambiar*, Crítica, Bartzelona, 2018.
- WALLERSTEIN, Immanuel: «1968. Revolución en el sistema-mundo. Tesis e interrogantes», *Estudios sociológicos*, Vol. 7, 20 zbk. (1989, mai-abu), 229-250.
- WHILHELMI CASANOVA, Gonzalo: *Izquierda revolucionaria y movimientos sociales en la transición. Madrid, 1975-1982*, UAM, Madril, 2014, argitaratu gabeko doktorego tesia.
- WHILHELMI CASANOVA, Gonzalo: *Romper el consenso. La izquierda radical en la Transición (1975-1982)*, Siglo XXI, Madril, 2016.
- YANIZ BERRIO, Edurne: «El impacto y la recepción del Concilio Ecuménico Vaticano II en Navarra. Una aproximación al primer posconcilio marcado por la figura del prelado Mons. Enrique Delgado Gómez (1965-1968)», *Historia Actual Online*, 35 zbk. (2014), 127-142.
- YANIZ BERRIO, Edurne: «La Asamblea Conjunta en la diócesis de Pamplona y Tudela», MONTERO GARCÍA, Feliciano, LOUZAO VILLAR, Joseba, CARMONA FERNÁNDEZ, Francisco José (koord.), *La Asamblea Conjunta de Obispos y Sacerdotes de 1971. Estudios diocesanos*, Universidad de Alcalá, 2018, 273-300.
- YSAS, Pere: *Disidencia y subversión. La lucha del régimen franquista por supervivencia, 1960-1975*, Crítica, Bartzelona, 2004.
- YSAS, Pere: «Ni modelica, ni immodelica. La Transición des de la historiografía», *Franquisme & Transició*, 1 zbk. (2013), 273-287.
- ZABALA GONZALEZ, Begoña: *Feminismo, transición y sanfermin del 78*, Txalaparta-SF 78 Gogoan!, Tafalla, 2018.
- ZARAGOZA, Luis: *Las flores y los tanques. Un regreso a la primavera de Praga*, Cátedra, Madril, 2018.

ZARATIEGUI JURIO Alvaro: *La Construcción del Sujeto en la Sociedad del Conocimiento. Trabajo y Memoria*, Garaje Ediciones, Madril, 2019.

8.2. Artxiboak eta dokumentazio funtsak

- Archivo General de la Administración: AGA (Alcala de Henares, Madril).
- Archivo Historico del Partido Comunista de España: AHPCE. (Madril).
- Batzarreko Artxibo Pribatua: BAP (Iruñea).
- Biblioteca Pavelló de la República: BPR. (Bartzelona).
- Centre Documental de la Comunicació-UAB: CEDOC-UAB (Bellaterrako Campusa, Cerdanyola del Valles, Bartzelona).
- Centro de Documentacion de Historia Contemporanea de Eusko Ikaskuntza: CDHC-EI. (Gaur egun Euskadiko Artxibo Historikoan, Bilbon, dago. Katalogatu gabe)
- EHUko Historia Garaikideko departamentuko funtsak: EHU-HGDF.
- Fundación Pablo Iglesias: FIP. (Alcala de Henares, Madril).
- Iruñeko Udal Artxiboa: IUA. (Iruñea).
- Lazkaoko Beneditarren Fundazioa: LBF (Lazkao, Gipuzkoa).
- Nafarroako Artxibo Garaikidea/Archivo Contemporaneo de Navarra: ACN-NAG (Kordobilla).
- Nafarroako Artxibo Orokorra: NAO (Iruñea).
- Nafarroako Oroimen Historikoari buruzko Fondo Dokumentala: NOHBDF. (Iruñea).
- Sancho el Sabio Fundazioa: SSF (Gasteiz).

8.3. Webguneak

- <http://eleicoes.cne.pt/>
- <http://ort-ujm.es/>
- <http://www.pte-jgre.com/>
- <https://archivodelatransicion.es/>
- <https://congresotransicion2017.wordpress.com/>
- <https://congrestransicio2019.wordpress.com/>
- <https://elezionistorico.interno.gov.it/index.php>
- <https://historialcr.info/>.
- <https://prensahistorica.mcu.es/es/inicio/inicio.do>
- <https://www.sanchoelsabio.eus/>

8.4. Ahozko iturriak

a) Elkarrizketa Grabatuak

Elkarrizketa grabatuak			
Zenbakia	Berriemailea	Tokia/Data	
E1	Felix Rey Bakaikoa	Iruñea 2018/VI/25	
E2	Javier Iturbe Ekai	Iruñea 2018/VII/25	
E3	Javier Iturbe Ekai.	Iruñea 2018/VIII/9	
E4	Juanjo San Martín Villanueva Vicente San Martín Oneca	Iruñea 2018/X/9	
E5	Jesus Urria Bidaurre	Iruñea 2018/X/30	
E6	Jesus Mari San Martín Asiain	Iruñean 2018/XI/15	
E7.1 eta E7.2	Angel Oliver Santos	Iruñea 2018/XI/23 2019/I	Edurne Yanizekin batera. Nafarroako Oroimen Historikoari buruzko Fondo Dokumentalean ikusgai
E8	Patxi Urrutia Jauregi	Iruñea 2018/XII/20	
E9	Julia Munarriz Gomara	Iruñea 2018/XII/11	
E10	Milagros Rubio Salvatierra	Tutera 2019/III/5	
E11	Pablo Ibañez Isabel Noguera	Iruñea 2019/III/11	
E12	Vicente Duque Alonso	Iruñea 2019/V/12	
E13	Presen Zubillaga Auza	Iruñea 2019/VII/18	
E14	Felix Jimenez Morales	Iruñea 2019/VII/23	
E15	Patxi San Juan Calud Jose Luis Arellano Ansó	Tutera 2019/VIII/23	
E16	Martin Landa Marco	Tutera 2019/VIII/23	
E17	Jesús Casajús Martínez	Iruñea 2019/VIII/26	
E18	Arcadio Rojo Amil	Iruñea 2019/IX/27	
E19	Ana Arillo eta Feli Otegi	Iruñean 2019/XI/25	
E20	Alvaro Zaratiegi Jurio	Iruñea 2019/XII/23	

b) Grabatu gabeko solasaldiak:


Andres Valentin Gonzalez, Txomin Garmendia, Feli Otegi, Tere Gonzalez, A. C., A. G., Begoña Zabala, Benito Uterga, Iñaki Aldekoa, Javier de Miguel, Javier Urroz, Jesus Aos, Jesus Baztan, Jesus Garatea, Jose Maria Compains Rolan, Manuel Burguete, Mentxu Velasco, Juanjo Eziolaza, Miguel Portillo Ulibarri, Peio Senosiain, Amaia Barandika, Julia Munarriz, Tere Saez Barrao, Andoni Zaro, Jose Antonio Pidal *Txato*.

8.5. Hemeroteca

- *Argia*
- *Berria*
- *Diario de Navarra*
- *Egin*
- *El País*: Online hemeroteca, <https://elpais.com/archivo/>
- *Punto y Hora en Euskal Herria*: <https://www.euskalmemoriadigitala.eus/>
- *Viento Sur*

9. Eranskinak

9.1. Alderdi iraultzaileen ardatz kronologikoak




Organización Revolucionaria de Trabajadores:

- 1963-64. AST sindikatuaren sorrera
- 1970. ORT sorrera
- 1977ko martxoa. Sindicato Unitarioaren sorrera
- 1977ko iraila. **I. Kongresua**
- 1979ko ekaina. **II. Kongresua**
- 1979ko uztaila. **PTE-ORT Batasun Kongresua:** Partido de los Trabajadores (PTE-ORT)
- 1980-1981. Desagerpena

1. Figura: ORTren ardatz kronologikoa

(I. Satrustegi, 2020)



Euskadiko Mugimendu Komunista:


- 1966-67. **ETAren V. Biltzarra**. ETA Berri/ETA Zaharra zatiketa
- 1969. Izen aldaketa: Komunistak
- 1971. OCZrekin batasuna. MCEren sorrera ofiziala
- 1975ko iraila. **I. Kongresua**
- 1976. Izen aldaketa: MC/EMK
- 1978ko martxoa **II. Kongresua**
- 1979ko otsaila. **MC-OIC Batasun Kongresua**
- 1983. **IV. Kongresua**. EMK MCtik bereiztea

EMKren epealdi ideologikoak

- ◆ 1967-1970. Hasiera eklektikoak
- ◆ 1970-1974. Epealdi maoista
- ◆ 1974-1977. Moldaketa posibilista eta pragmatikoa
- ◆ 1978tik aurrera. Erradikaltasunera itzulera.

2. Figura: EMKren ardatz kronologikoa

(I. Satrustegi, 2020)




Partido Comunista Internacional- Partido del Trabajo de España:

- 1967, apirila-maiatza. PSUCetiko zatiketa: *Unidad* taldea
- 1969ko otsaila. PCEi-ren sorrera ofiziala
- 1972. Krisia eta berrantolaketaren hasiera
- 1973ko apirilean. **Kongresu Eratzailea**
- 1975lko otsaila. Izen aldaketa: PTE
- 1977ko martxoa. PCUrekin batasuna.
- 1978ko martxoa. **I. Kongresua**
- 1979, ekaina. **PTEren II. Kongresua**
- 1979, uztaila. **PTE-ORT Batasun Kongresua**: Partido de los Trabajadores (PTE-ORT)
- 1980-1981. Desagerpena

Larga Marcha hacia la Revolución Socialista-Partido Comunista de Unificación

- 1973. Larga Marcha hacia la Revolución Socialista. Sorrera
- 1975. PCUren sorrera, hainbat talderen kohergentziaz.
- 1976. PTErekin batasuna.

3. Figura: PCEi-PTEren ardatz kronologikoa (I. Satrustegi, 2020)



IV. Internazionaleko alderdiak

ETA VI.

- 1969ko abuztua. **ETAren VI. Biltzarra**: ETA V., ETA VI. eta Zelula Gorrien zatiketa
- 1970ko abendua. Burgosko Prozesua
- 1972. *Minoen* eta *Mayoen* arteko zatiketa.
- 1972ko abendua. **VI. Biltzarraren bigarren zatia** (*Mayo*)
- 1973ko maiatza. **ETA VI-LCR Akordio protokoloa**


Liga Comunista Revolucionaria-Liga Komunista Iraultzailea

- 1969ko maiatza. FLP-FOC-ESBA elkarteen krisia
- 1970ko apirila. *Comunismo* aldizkariaren lehendabiziko alea
- 1971ko urtarrila, LCR-ren sorrera
- 1972ko urtarrila. **I. Kongresua**
- 1972. LC eta LCR zatiketa
- 1972ko abendua. **II. Kongresua**
- 1973ko maiatza. **ETA VI-LCR Akordio protokoloa**
- 1973ko abendua. **LCRren III Kongresua** eta **ETAren VII. Biltzarra**
- 1976ko abuztua. **LCR-ETA Viren I. Kongresua**
- 1977ko abendua. LCR eta LC Batasuna
- 1978ko urria. **V. Kongresua**
- 1981ko urtarrila. **VI. Kongresua**

Liga Comunista-Komunisten Liga


- 1972ko abendua. **II. Kongresua**. Izen aldaketa: LC
- 1976ko abuztua. **III. Kongresua**
- 1977ko urria. **IV. Kongresua**
- 1977ko abendua. LCR eta LC Batasuna

4. Figura: IV. Internazionalen alderdien ardatz kronologikoa (I. Satrustegi, 2020)



Organización Comunista de Izquierda-Ezker Komunista Erakundea.

- 1974ko iraila. OICEren sorrera: COC eta NOC-en batasunaz
- 1975eko apirila. **I. Kongresuaren aurreneko saioa**
- 1976ko apirila. **I. Kongresuaren bigarren saioa**
- 1977. Izen aldaketa: OIC
- 1978ko martxoa. **II. Kongresua**
- 1979ko otsaila. **MC-OIC Batasun Kongresua**



Partido Comunista de España (marxista-leninista) eta Frente Revolucionario Antifaxista y Patriota

- 1964ko urria. PCEml-ren sorrera
- 1973ko urtarrilaren. Fronte Iraultzaile Antifaxista eta Patriotaren (FRAP) aldeko Komitea
- 1973ko apirila. **I. Kongresua**: FRAP-en aldarrikapena
- 1975eko uda. FRAPen udako kanpaina armatua
- 1977ko ekaina. **II. Kongresua**

9.2 Koadro, taula eta grafikoen aurkibidea

Koadroak:

1.: Nafarroako biztanleria aktiboaren sektorekako banaketa (ehunekoetan), 1940-1986.....	58
2.: Nafarroako migrazio saldoa 1931-1970 artean	61
3.: 1977ko hauteskunde orokorrak Nafarroan.....	223
4.: 1979ko hauteskunde orokorrak Nafarroan.....	242
5.: 1979ko foru hauteskundearen emaitzak.....	245
6.: Tuterako hauteskunde emaitzak: 1977ko eta 1979ko hauteskunde orokorrak eta 1979ko udal hauteskundeak.....	248
7.: Tuterako hauteskunde emaitzak: 1977ko eta 1979ko hauteskunde orokorrak eta 1979ko udal hauteskundeak.....	249
8.:Nafarroako 1978ko eta 1980ko hauteskunde sindikalen emaitzak.....	268

Figurak

1.: Nafarroako biztanleria hiritarraren proportzioa (ehunekotan), 1900-1991.....	60
2.: Espainiako Konstituzioa onartzeko 1978ko erreferendumaren emaitza Nafarroan.....	239

Taulak

1.: 1979ko foru hauteskundeetako hautagaitza iraultzaileen azalpena.....	244
--	-----

10. Siglen Glosarioa

AC: Acción Católica

AC: Acción Comunista

AC: Asamblea de Catalunya

ADE: Asamblea Democrática de Euskadi

ADN: Asamblea Democrática de Navarra

ADU: Alternativa Democrática y Unitaria

AEB: Ameriketako Estatu Batuak

AEM-Amair: Agrupaciones Electorales de Merindad-Amair

AEPM: Agrupación Electoral Popular de la Merindad

AET: Agrupación Electoral de Trabajadores

AETE: Agrupación Electoral de Tierra Estella

AFN: Alianza Foral Navarra

Agrupación Electoral Orhi Mendi

AMO-ULE: Acción Municipal Obrera-Udal Langile Ekintza

ANAI: Asociación Navarra de Ayuntamientos de Izquierda

ANIZ: Ayuntamientos Navarros de Izquierda

ANV-EAE: Acción Nacionalista Vasca-Eusko Abertzale Ekintza

ARRE: Alternativas Radicales de la Ribera del Ebro.

ASN: Agrupación Socialista de Navarra

AST: Acción Sindical de Trabajadores

Auzolan

Batzarre

BDS: Bloque Democrático y Social

BHAR: Bloque Histórico Anticapitalista y Revolucionario

BPP: Black Panther Party

BR: Brigante Rosse

CCBB: Comisiones de Barrios

CCFPC: Comissió Coodinadora de Forces Polítiques de Catalunya

CCOO: Comisiones Obreras, Langile Batzordeak

CCPP: Comisiones de Pueblos
CDN: Convergencia de Demócratas de Navarra
CECO: Coordinadora de Euskadi de Comisiones Obreras
CEN: Comités de Estudiantes de Navarra
Cendea Unida
CEOE: Confederación Española de Organizaciones Empresariales
CEPYME: Confederación Española de la Pequeña y Mediana Empresa
CFDT: Confédération Française Démocratique du Travail
CGT: Confederación General del Trabajo
CGT: Confédération Générale du Travail
CNS: Central Nacional Sindical (Sindikatu Bertikala)
CNT: Confederación Nacional del Trabajo
COA: Comisiones Obreras Anticapitalistas
COAE-ELKA: Comisiones Obreras Anticapitalistas de Euskadi-Euskadiko Langile Komisio Antikapitalistak
COC: Circulos Obreros Comunistas
COE: Comisiones Obreras de Empresa
Comunismo
CONE: Comisión Obrera Nacional de Euskadi
COPEL: Coordinadora de Presos Españoles en Lucha
COR: Comisiones Obreras Revolucionarias
CRPE: Convención Republicana de los Pueblos de España
CSUT: Confederación de Sindicatos Unitarios de Trabajadores
CU: Colectivo Unitario
CUI: Candidatura Unitaria de Izquierdas
DP: Democrazia Proletaria
EAJ: Eusko Alderdi Jeltzalea
EAM: Emakumeak Askatzeko Mugimendua
EC-FED: Esquerra de Catalunya-Front Electoral Democràtic
EE: Euskadiko Ezkerra
EEH: Euskal Erakunde Herritarra, *Erakunde*
EGI: Eusko Gaztedi Indarra
EH: Euskal Herritarrok
EHAS: Euskal Herriko Alderdi Sozialista

EHB: Euskal Herriko Batzarra, *Herriko*
EIA: Euskal Iraultzarako Alderdia
EKA: Euskalherriko Karlista Alderdia
ELA: Eusko Langile Alkartasuna
ELP: Euskadiko Langileen Partidua (Batzuetan ORT-PTE)
EMK: Euskadiko Mugimendu Komunista
ENAM: Euskal Nazio Askapenerako Mugimendua
ERC: Esquerra Republicana de Catalunya
ES: Eusko Sozialistak
ESB: Euskal Sozialista Biltzarrea
ESBA: Eusko Sozialisten Batasuna
ESEI: Eusko Sozialistak Elkartzeko Indarra
ETA Berri
ETA Mayos
ETA Minos
ETA V.: Euskadi Ta Askatasuna (V. Biltzarra)
ETA VI.: Euskadi Ta Askatasuna (VI. Biltzarra)
ETA Zaharra
ETA: Euskadi Ta Askatasuna
ETAm: Euskadi Ta Askatasuna militarra
ETApM: Euskadi Ta Askatasuna politiko-militarra
FDC-EDC: Federación Democrática Cristiana-Equipo Democracia Cristiana
FDI-EFD: Ezkerren Fronte Demokratikoa-Frente Democrático de Izquierdas
FLP: Frente de Liberación Popular
FLT: Fracción Leninista Trotskista
FNI: Frente Navarro Independiente
FOC: Front Obrer de Catalunya
FOS: Federación Obrera Socialista
FRAP: Frente Revolucionario Antifascista y Patriota
FUDE; Federación Universitaria Democrática Española
GAC: Grupos de Acción Carlista
GPD: Gobierno Provisional Democrático
GRAPO: Grupos de Resistencia Antifascista Primero de Octubre
HASI: Herriko Alderdi Sozialista Iraultzailea

HB: Herri Batasuna
HGP: Huelga General Politica
HGR: Huelga General Revolucionaria
HOAC: Hermandad Obrera de Accion Catolica
Información Obreira
INI: Insitituto Nacional de Insdustria
INLA: Irish National Liberation Army
IR: Izquierda Republicana
IRSP: Irish Republican Socialist
IUN-NEB: Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua
JCR: Jeunesse Communiste Revolutionnaire
JDE: Junta Democratica de España, *Junta*
JGRE: Joven Guardia Roja Española
JOC: Juventud Obrera Católica
KAS: Koordinadora Abertzale Sozialista
KGB: Komitet Gosudarsvennoi Bezopasnosti, Estatuko Segurtasun Komitea
KMT: Kuomintang
Komunistak-MCV: Komunistak-Movimiento Comunista Vasco
LAB: Langile Abertzaleen Batzordeak
LAIA Ez: Langile Abertzale Iraultzaileen Alderdia (ez)
LAIA: Langile Abertzale Iraultzaile Alderdia
Larga Marcha hacia la Revoción Socialista
LBF-FUT: Langile Batasunaren alde Frontea-Frente por la Unidad de los Trabajadores
LC: Liga Comunista
LCR-ETA VI: Liga Comunista Revolucionaria-Euskadi Ta Askatasuna (VI. Biltzarra)
LCR: Liga Comunista Revolucionaria
LKI: Liga Komunista Iraultzailea
LPEE: Lurralde Petrolio Esportatzaileen Erakundea
Lucha de Clases
MCC: Movimient Comunista de Catalunya
MCE: Movimiento Comunista de España
MCG: Movimento Comunista de Galiza
MCPV: Moviment Comunista del Pais Valencià
MDT: Moviment en Defensa de la Terra

MFA: Montejurra, Federalismo, Autogestión
MPAIAC: Movimiento por la Autodeterminación e Independencia del Archipiélago Canario
MUPA: Movimiento de Unidad Popular Anticapitalista
NE: Nacionalistes d'Esquerra
NOC: Nucleos Obreros Comunistas
Nueva Izquierda
NV: Nacionalistas Vascos-Eusko Abertzaleak
OCE(BR): Organización Comunista de España-Bandera Roja
OCZ: Organización Comunista de Zaragoza
OIC-EKE: Organización de Izquierda Comunista-Ezker Komunist Erakundea
OICE: Organización de Izquierda Comunsita de España
ORT-PTE: Partido de los Trabajadores (Batzuetan PT)
ORT: Organización Revolucionaria de Trabajadores
OSE: Organización Sindical Española (Sindikatu Bertikala)
OSO: Oposición Sindical Obrera
PCE (VIII-IX Congresos)
PCE internacionalista: Partido Comunista de España (internacionalista)
PCE-EPK: Partido Comunista de Euskadi-Euskadiko Partidu Komunista
PCE: Partido Comunista de España
PCEi: Partido Comunista de España (internacional)
PCEml: Partido Comunista de España (marxista leninista)
PCEr: Partido Comunsita de España (reconstituido)
PCF: Parti Communiste Français
PCI: Partito Comunista Italiano
PCU: Partido Comunista de Unificación.
PDNI: Partido Democrático de Nueva Izquierda
PlataformaS Anticapitalistas
PORE: Partido Obrero Revolucionario de España
POUM: Partido Obrero de Unificación Marxista
PPROV: Partido Proverista
PPSH: Partia e Punës e Shqipërisë, Albaniako Lanaren Alderdia
PSE: Partido Socialista de Euskadi
PSI: Partido Socialista Independiente
PSN: Partido Socialista de Navarra

PSOE: Partido Socialista Obrero Español
PSP-US: Partido Socialista Popular-Unidad Socialista
PSP: Partido Socialista Popular
PST: Partido Socialista de los Trabajadores
PSU: Parti Socialista Unifié
PSUC: Partit Socialista Unificat de Catalunya
PT: Partido de los Trabajadores (Batuetan PTE-ORT edo ORT-PTE)
PTA: Partido del Trabajo de Andalucía
PTC: Partit del Treball de Catalunya
PTE-ORT: Partido de los Trabajadores (Batuetan PT)
PTE: Partido del Trabajo de España
RAF: Rote Armee Fraktion
RCP: Reuniones Coordinadoras Preparatorias
SESB: Sobietar Errepublikako Sozialisten Batasuna
SOC: Sindicato de Obreros del Campo
SU: Sindicato Unitario
SUCI: Secretariado Unificado de la Cuarta Internacional
SWP: Socialist Workers Party
Terra Lliure
TMI: Tendencia Mayoritaria Internacional
UAGN: Unión de Agricultores y Ganaderos
UAN: Unión Autonomista de Navarra
UCD: Union de Centro Democrático
UDP: União Democrática Popular
UED: Union de Estudiantes Democratas
UGT: Unión General de Trabajadores.
UJM: Union de Juventudes Maoistas
UNAI: Union Navarra de Izquierda
UPC: Union del Pueblo Canario
UPN: Union del Pueblo Navarro
USO: Unión Sindical Obrera
VO: Vanguardia Obrera
VOF; Vanguardia Obrera Femenina
VOJ: Vanguardia Obrera Juvenil

VOS: Vanguardia Obrera Social